

Sebastian Mendiburu

**JESUSEN AMORE-NEKEEI
DAGOZTEN ZENBAIT
OTOITZGAI
(III)**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.
Iturria: *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai (Irugarren liburua)*, Sebastian Mendiburu (Patrizio Antonio Orkaiztegiren edizioa). Eusebio Lopezen etxean, 1905.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=352>

JESUSEN AMORE-NEKEEI DAGOZTEN ZENBAIT OTOITZGAI

**JESUSEN KONPAÑIKO
A. SEBASTIAN MENDIBURUK
EGIÑAK**

IRUGARREN LIBURUA

TOLOSAKO LIBURUGILLE
EUSEBIO LOPEZ-EN ETXEAN
1905-garren urtean

BEAR BEZALA

LXI.garren OTOITZ-GAIA

PILATOSEK SENTENZIATIK

KALBARIOKO MENDIRAÑOKOA

A.

Pilatosen garbiera zikiña; ta Jesusen soñekoen aldaera nekezkoa

1. Ez du oraindañokoan mundu guzian juezek eman izandu, Pilatosek bezain gaizki, sentenziarik. Aitortzen du bein Pilatosek, aitortzen du berriz, baita artarako bideak dakarren aldi guzietan ere, ez duela Jesus maitagarriak obenik batere; ta ezin eman deki-keola sententzia gaistorik Jesus maitagarriari; eta alere ematen dio Pilatos berak Jesus maitagarriari gurutze-ko sententzia, edo, eman zekikeon sentenziarik gaisto-ena, gogorrena, ta alkegarriena.

Baña au eman ta ere, ta Pilatosen ordurañoko aitormenak aski ezpalira bezela, bere sentenzi erre-bes au eman ondoan, garbitzen ditu Pilatosek bere eskuak, judatar gogorrak begira dagozkiola; ta erra-

ten die judatar berei: Or konpon: egizue zuek nai dezutena; nik ez dut artzen nere gain gizon, obenik ez duen onen, odola ta eriotza.

Bai: on dagizula, Juez ezin gaistoagoa; bai! Zugatik kentzera doaz judatarrak Jesus maitagarriari duen odola ta bizitza; ta, alere zuk onetan ez dezula, diozu, ekustekorik batere!- Zuk orretarako eskurik juduei ez ematera, judatar gogorak ez diote Jesusi kenduko odol-tantarik ere, ta zure sententzia errebes gaistoz duen guzia Jesusi kendu ondoan, garbirik gelditu nai dezula diozu zuk, eta Jesusen odol tantarik gabe, edo gaizkirik orretan zuk egiten ez dezula!- Ez, ez orrelakorik, Pilatos juez ez-zuzena, ez! Gaizki emana da, ta bekatu arrigarria zure gaurko sententzia; ta zure gain etorriko dira, sentenzi orretatik datozen gaizkiak, eta Jesusen odol-ixurtzeak.

A! ta zenbat, eta zenbat lagun dituen Pilatos juez ez-zuzenak bere buru bageko sentenzian, ta itzketa ero makur onetan! Bada era berean ematen dute beren sententzia, edo ezin eman dezaken eskua, anitz gurasok, anitz nagusik, eta anitz kargudunek:- Ez-ekusi egiten dute alabaña anitz kargudunek erriko gizon galduen sartu-atera gaistoez, emakume txar ariña ematen dituzten erratekoez, ostatuetako egote

luzeez, jokatze galgarriez, ta jan-edan osasunen ta etxeen nasgarriez; baita gazteen karriketako, ta plazetako ibillera likitsez; ta zokoetako, ta bazterretako egote ta lan-modu zikin guziez ere.- Berebat egiten dute gurasotzar anitzek ere beren seme-alabekin, ta etxeko andre-nagusiak beren ogikoekin; bada, jai-egunak etorri orduko, guraso-nagusiak, eta etxandre-amak ematen dien baimenarekin edo eskuarekin an daude oriek nasteka, edo an dabilta elkar artuak mutil-neskatxak, sulezeko etsai galgarriak agertu izandu ziezten dantzetan, ta jostaketa loi likitsetan; ta an dabilta etsai galgarriaren gogara; ta beren ibillera txarretako loikeriekin, Jesusen odol-ixurtzea ta gurutzeko eriotza berritzen dutela, S. Pablok dionaz: *Ite-rum sibimet ipsis Filium Dei crucifigentes.*- Eta oriek era orretan ibilliagatik, beren gurasoak, nagusiak, eta kargudunak artarako ematen dien eskuarekin, edo oriek ibillera ori oriei debekerazi gabez, edo zeren oriek berezten ez dituzten oriek, oriek legikeen bezala, oriek berak diote Pilatos gaistoarena, bada diote: dagitela gugatik gure menekoak, berak nai dutena; begira bezate berak nola, edo zer eran dabiltzan berak bere ibilleretan; berentzat izain dute beren ibillera; zuzena izan dedilla au, edo edozein eratakoa.-

Meatxatu ditugu guk, diote, bein baño geiagotan ere; ta adirazi diegu, bai, berak, onak izateko, egin bearko dutena; ta, egiten ezpadute, oriena da, ta ez gurea, orien beren makurrera.- Au oriek erran ezkerro, uste dute garbitu dituztela beren buruak, eta ez dutela egi-tekorik orien pekoen bekatu zikinetan. Baña egunen batean ekusiko dute guraso-kargudun-nagusi oriek, orien erakuste galgarri Pilatosek aspaldi guzian ekusten duena, bada Pilatosek egin bazuen ere nagusi-kargudun-guraso oriek adina, ta anitz geiago ere, gure Jesus maitagarriaren alde, zeren etzuen egin egin bear zuen guzia, judatar gogorren lan gaisto au eragozteko, erretzen dago gaur sulezean; ta an bertan, ta era berean, egon bearrak dira Pilatos beraren eran dabilzan guraso-kargudun-nagusi guziak.

2. Pilatos gaistoak eman orduko gure Jesusen gurutzerako sententzia, artu izandu zuten Jesus bere borrero gogorak, eta atera zuten Pilatos juez zuzenez aren aldamentetik eta eraman zuten, artarako ona zen bazterren batera, ta an kendu izandu zioten Jesus maitagarriari soldadutzar arroak irriz epeñi, edo ezarri zioten oialtzar gorria, ta orrekin gelditu zen Jesus batere soñekorik gabe, ta guztiz alkekizun arrigarri andiarekin.

Jesusen alkekizun andiarrigarri au azirazi naiez; ta ezagu zezaten Jesus ekusten zuten guziak, ezarri ziozkaten Jesusi borrero berak bere soñekoak: baña prisaka, guztiz gogorki, ta berritzen ziozkatela bere oñaze-neke guziak, beintzat burukoak: bada bere buruan utzi zioten Jesus maitagarriari bere arantzezko koro izugarria; ta, bere burutik Jesusi sartzean bere soñeko (sartuko zioten bezala, beintzat barrenekoa; osoa zen albaña au, ta era artan baizik, ezin sar ziteken soñekoa); ta sartzean Jesus maitagarriari bere soñeko au, sartu zioten eran borrero gogorrak, edo lasterka ta kupida bage, erabilliko ziozkaten Jesus maitagarriari, bere buruan agitz sartuak zeduzkan arantza guziak; eta sartuko ziozkaten bidenabar, eta berriro, beste zenbait arantz ere; ta sartuko ziozkaten, nork-nai dakusan adiña oñaze ta min Jesus minbere-maitagarriari ematen ziozkatela.

Orra, Jesus maitagarri-on guztiz maitagarriai ta orra gure amoreakgatik, eta gure buru arroetako antuste eroen, ta oroitzapen, ta gogorazio galduen alde, zere buru eder minbere orretan gaur zuk daramazuna! Ez al dizut nik berriz, era bereko nere pensamentu makur-galdu-ekinbide berririk eman bear zuri

sekula guzian! Ez nuke nai beintzat, nere Jaungoikogizon Jesus maitagarria! Ez arren, ez!

B.

Bere gurutzearekin Jesusi Jerusalenen gertatua

1. Jesusen soñekoen aldatze alkezko ta lotsagarri au egin orduko, atera zuten Jesus borreroak Pilatosen etxeko atarira.– Ara Jesus atera orduko, an zedukaten egiña ta prestatua, Jesusek bere bizkarrean bere erioztarako eramán bear zuen garutzea.

Beren gaistakeriakgatik eta ezinbestez iltzera doazen gizonak izutzen dira, ekusten dutenean beren urkabea; edo berei bizia kentzeko den beste edozein gauza; ta, ura ez ekusteagatik, itsutzen dituzte bertan, edo lurreratzen dituzte beren begiak: baña gure Jesusek etzuen obenik batere: etzeramaten Jesus, ez, bere gaizkiak Kalbarioko mendira, ta gurutzeko eriotz gogorren ortzetara: bere Aita Eternoaren amoreagatik, eta gure onerako, zijoan gure Jesus maitagarria bere gurutzeko erioztzera; ta etzen izutu batere; ta izutu lekuan: nai andi bat artu izandu zuen Jesus mai-

tagarriak, bere gurutze latz-andi au ekustean; ta, au Jesusek ekusi orduko, errain zion bai biotzez, gero itzez gurutze bereari san Andres Apostoluak erran izandu ziona: ongi etorri, zorioneko nere gurutze maittea! Aspaldiko urteetan ongi naiturik iduki nazu zuk ni, ta luzatzen zenuelako naigabez ongi betea! Nere Aita maitagarriari eskerrak, orain bada ere neretzat agertu zaituenean; ta agertu zaituen ezkerro, bertatik emen ta batere luzatu bage, emain dizut nik nere nai oso garbiarekin ziñezko besarka bat, ar nazazun gero zuk ordañez ni zere besoetan; ta, uste onekin pozik egiñen dizut nik apa edo muñ; bada iltze lodi luzez zuri josirik nagoela, egin bear dut nik nere azken-loa, edo eman bear dut nik munduko guzien onerako nere odola ta nere bizitza.

Orra nolakoak izandu ziran Jesusen aldi artako gogoetak eta asmo garbiak. Jesusen gogoetak eta asmo guziak begira zeuden bekatari gaiso guzietara; baita judatar gogorretara ere; bada guziak ziran guzien onerako; ta guzi-guzien ona billatzen zuten Jesusen orduko ta gerozko nekaera, naigabe, ta tormentu guziak; munduko geienak baliatzen ezpadira ere Jesusen orduko nekeez, edo bere neke-pena arri-garriekin Jesusek irabazi izandu zienaz.

Eta nolakoak izandu ote ziran Jesus onagana ordu bereko judatar gogorren asmoak eta lanak!- Ezin gais-toagoak! Ezin gogorragoak! Ezin ase ziran alabaña bein ere judatar gogor galduak Jesusen nekeez, ta Jesus maitagarriari, berak beren naiez, egiten ziozka-ten bidegabeez.

2. Baña, zein ere andiak ziran aldi artaraño koan gure Jesusek eraman izandu zituen neke-oñaze bide-gabeak; eta zein ere izugarriak ziran Jesusek berak berriro eraman bear ko zituenak, edo zein ere neke alkegarri gogorra zen gurutze pisu batekin, ta orduan Jesusek zedukan itxuan ta flakiarekin joan bearra Jeru-salengo kaleetan barrena, Jesusi bere eriotzarako berezi zioten tokiraño, jerusalendar guziak, eta egun artan an arkitzen ziran israeldarrak begira zegozkiola; gutiegi zerizten Jesusen etsaiak; eta alkeak alkeen gain Jesus nekatu-maitagarriaren eman naiez, atera zituzten denbora berean, ta Jesus maitagarriarekin batean, iltzeko sentenziarekin presondegian arkitzen ziran bi lapur; ta atera zituzten oriek ere beren guru-tzeekin; ta, orien lagun egiñik, eraman zuten Jesus bere gurutze-pean Galbarioko mendiraño.

Zer errain ote zuten jerusalendarrak, eta zer beste errietako jendeak, era txar artan, ta onelako bi lagu-

nen artean, ekusi zutenean gure Jesus maitagarria!- Orietatik geienak, edo anitzek beintzat bazuten Jesusen gauzen zerbait berri. Oriek berak bazekiten zenbat ekuskari, ta mirakullu egiñik zegoen bere denboran gure Jesus maitagarria; ta orain oriek eta onen alkegarrian Jesus ekusi ezkeru: au zer da? (errain zuten, nai, ta ez). Zer egin izandu dira, gizon onek egin oi zituen gauza andiak, edo zer gertatu ote zaio geroztik gizon oni, era onetan orain au gelditzeko?

Oriek au erran orduko, adituko zuten ojuka zeterren Pregaria; ta nola zion onek Jesusen etsaiak nai zutena, edo nola zion: Jesusek egiñak zeduzkala onelako ta alako gaistakeriak (gezurrak guziak); eta orregatik zeramatera judatar jaunak Jesus gurutze-pean, gurutzeko eriotzara; ta ara zeramatera, era bereko eriotzara zidoazen beste bi gaistagin lapur andien artean.- Au aditzean, arrituak geldituko ziran orietatik batzuek eta besteak iskirioka, ta eun aldiz ista ta irri egiten ziotela.

Eta zuk zer ote diozu, gure Jesus maitagarria, onenbat bidegaberen ta alkekizunen artean zere burua ekusten dezun denboran? Ez dezu zuk aditzen orra or diotena? Ez dezu zuk ekusten zein lagun onak eman derezkitzuten bideko nekerako zure etsai mindu

judatar gogorrak?- Lapurrak dira, gaistagiñak dira; ta agian Jerusalengo presondegi guzian arkitzen ziran andienak, judatar gogorrak zuri eman dizkitzuten bideko ta eriotzeko lagunak!

A gure Jesus maitagarria! Begiratzen ezpazenio orain zuk zere Aita maiteari ta zuk gure onagatik zere gain artua dadukazun egitekoari, zer etzen gertatuko gutaz ta gure bizitzaz?- Milletan bedeika dakizula, zuri, Jesus maitagarria, gure amorez daramazun zere lotsa ta alkekizun guztiz andiagatik!

Baña nola doakizu zuri zere gurutzearekin gure Jesus maitagarria? Gurutze ori guztiz andi-astun-pisua da! Zu odol gutirekin arkitzen zara, gure Jesus maitagarria, orrenbat nekerekin luzaro irauteko zuk: anitz da alabaña azotez, arantzez, soñeko itsatsiak kenduz, ta, beste anitz aldetara orain borrero gogorrak eta soldadutzarrak atera dizutena.

Beste alde, joan den gau guzian ta egungo goiz onetan listuka, ostikoka, tiraka, ta ukaldika erdi lertua zaduzkee zu zere etsaiak, eta oñen gañean doi-doia zaudekeen eran, Jesus maitagarria! Nola daramakezu bada zuk, zu dagoen ordurako era orretan arkitzen zarala, orren gurutze arrigarria?

Nola? Beatz-topaka belaunekin maiz indarrik gabez lurreratzen dela, ta erdi arrastan bezala; ta darion odolarekin bazterrak bustitzen dituela!

3. Ekusirik au guzia judatar gogorrak; eta denbora berean, mendira baño len Jesus nekatu maitagarria illen zaielako beldurrarekin, billatzen diote Jesusi nork lagundu bere gurutze baldantzar astun au eramaten.- Israeldar ta judatar guzietatik etzuen batek ere lan au egin nai izandu: ain lotsagarria zen orien artean gurutzeta, ta gurutzeko eriotza. Batzen dute an, ta geldirazten dute, bere lantegitik zetorren Simon, Zirine zeritzan urrutiko erri bateko gizon bat.- Gizon au, Jesusen Legean ongi bizitu ziran Alejandroren ta Ruforen aita zen.

A, nere Jesus maitagarria, ni an arkitzera aldi artan, ta arkitzera ni an orain dakizkidan adiña gauzen berri onarekin, pozik lagunduko nizun nik, bai, zere lan orren nekagarri orretan; baita beste edozeñetan ere!- Ori da nik orduan ezin negiken egitekoa. Orren orde z nigan zuk nai dezuna ta nik orain dagikedana da, orrenbat neke ta pena nigatik zuk eraman zenuelako damu ta urrikiarekin nola-ere-bait nik orduko zure amoreari erantzutea: ta ori bera da, nik orain ta beti, bizi nazaño, egin nai nuken egitekoa. Eta egiñen ere

dut, nere Jesus; maitagarria, zuk zerrorrek artan laguntzen dizula. Lagun zakizkit, bada, zuk niri dida-zun amore andiagatik, bai arren, bai!

C.

Urrikarrizko negarrez zerraizkon zenbait emakumeri Jesusek adirazia

1. Anbat jende gogor galduren artean, baziran zenbait emakume, Jesusen gurutze-peko ibillera ta neke arrigarriez urrikaldurik, negarrez zerraizkonak.- Erdi-illa bazirudien ere bere tranze gogor nekatu artan, etzizaion gordetzen ezer Jesus maitagarriari.

Bazekien, bai, Jesus maitagarriak an zebiltzanetatik batzuek berari zerraizkiola, borreroen lan gogorra egiteko, edo Jesus bera bere bizkarrean zeraman gurutze berean iltzez josirik, iltzen uzteko.- Bazekien, bai, Jesus maitagarriak, an zebiltzanetatik beste zenbait lenbaitlen Jesus bera, berak zeraman gurutze berean illik ekusi-naiez zijoazela; beste zenbait, oi den bezala, nola iltzen zuten ekusteagatik; eta zenbait beste zeren ongi nai zioten Jesus maitagarriari; ta

orietatik ziran, negarrez Jesus berari jerusalendarretatik zerraizkion zenbait emakume.

Gañerako guziei ez-ekusi egin zien Jesus maitagarriak, zeren zekien etzeudela oriek Jesusen itz onak aditzeko; baña itzulirik, artarako zeuden emazteki negartietara, itz gutirekin adirazi zien oriei berak, ongi izatekotz, egin bear zutena, erraten ziela: Jerusalengo alabak, ez dira negar zuzenak, ez, zuen oraingo negar oriek. Nere gain dira ta nitaz zuek urrikaldurik, aldi onetako zuen negar guziak. Negar egizue zuek; baña bear den aldera zuzenduz zuek zeren negarrak: edo negar egizue zuek zeren buruen ta zeren umeen gain!

Nere gain, edo nigatik negarrez zaudete zuek, bor-txaz ta ezinbestez eriotzara daramaten gizon baten gain zeundezkeen bezala; ta ala gaizki: bada ni, neronek nai dudala noa, ta obenik batere gabe, nere gurutzeko eriotzara, ta ara noa ni, nik ongi dakidala, betibetiko ondraz ta gloriaz beterik utziko nautela ni oraingo nere alkekizunak, eta oraingo nere neke guziak, eta lotsazko nere eriotzak.

Zuek, bai, zuek zarazte, ta zuen ume gaisoak dira, aintz negarren bearrean arkitzen zarazten jendeak, eta agitz urrikalkiak; bada zuen oben-kulpakgatik dira oraingo nere neke-flakia, odol-isurtzea, ta ezin-ibilli

guzia.- Zeren negarrez zuek, eta niri orain daridan odolarekin ez garbitzera zeren barrenak, edo zeren animak, zeren oben-kulpaz, ta bekatuz bete loituak geldituko zarazte zuek, orain arkitzen zarazten bezala; ta guztiz arrigarria da, zuek, era orretako zeren egoera gaistoagatik, zeren gain laster ekusiko dezuten lana ta nekea. Eta ekusiko ere dezute, bai, zuek neke-lan gogor arrigarri au zeren etzaudezten orain zuek eta zuen erritarrak orrenbat negarretarako, edo orren negar zuzenak ixurtzeko.

Orrenbat nekezko egunak datozkitzuenean, damuz lertzen daudenen eran egoin dira (zion Jesus nekatu maitagarriak) jerusalendarrak; eta ekusirik andre gaisoak orduko beren ta beren umeen kezka, atsekabea, ta ezin-bizia; zorionekoak (errain dute), umerik ez duten ezkonduak; eta zorionekoak oraindik jaio bage arkitzen diran guziak: bada jaio bageak ez dituzte ukitzen, orain gu onen gaizki garabiltzten gure neke gogorrak; eta, umerik ez dutenak, ekusten ez dute beren neke utsa beste nekerik batere: ta guk, gerenaren gain, emen daramagu gure ume guzien neke arrigarria ere; edo gu geren nekeak ezezik, nekatzen gaitu gure umeak gure begietan ekusten duten neke guziak ere.

Ori errain dute, orain nik diodan nekaldian zuen erri onetan arkituko diranak: baña oriek, orduko beren errateak ez ditu aterako, ez, beren nekepe gogorretatik; eta oriek, orien petik beren buruak atera naiez, asiko zaizka deiez eroriari; ta len baño len au etorri dakien, itzaliko dira mendietara, ta errain die latin, ta berriz, ta geiagotan ere mendi berei: Atozte, egiak, atozte mendiak, atozte lenbaitlen, gu zuek zeren azpian arturik, lertuak eta ortzituak emen uztera.- Au guzia erran edo, laburki bazen ere, adirazi zien Jesus maitagarriak negarrez zerraizkion emazteki jerusalendarrei, negar eragin naiez oriei beren bekatuakgatik, bekatuei zegozten, geroko neke izugarrietatik oriek atera naiez.

Au berau erraten digu Jesus maitagarriak gerozko bekatari guziori ere; bada negar ez egitera guk bear den bezala, edo ziñezko damu bat ez artzera guk geren oraindañoko bekatu guziez; ta damu au guk ez artzera, bekatu berririk ez egiteko asmo garbiarekin, egun gogorren begira gaude gu ere, gu gerok illak gelditu baño len; ta egun agitz gogorrangoen begira ill ondorako, ta eternidade guzi-guzirako.- Egun oriek gu bekatuzko eta gaisto galgarri orretan arkitzera, zorigaistoan jaioak gu, ta beti ta beti erio gaistoren baten

billan ibilli bearrak gu; ta, erio gaisto au ezin arkituz gu, amurraturik beti, eta, geren buruak urratzen ditugula, suleze arrigarrian ibilli bearrak gu! zorigaistozko ibillera! Ekus etzaitzatela, ez arren, nere begiak egun ta sekulan, ez!

2. Bai, (erran zien azkenean gure Jesus maitagarriak) negarrez zerraizkon andre jerusalendarrei, (ta erraten dit orain niri ere); bai, ezatasun utsa den egur bat onela erretzen duen suak nola erreko ote du, alde guzietatik, eta barreneko bere muñetaraño igarturik arkitzen den egur bat? Edo, obenik ez dudala nik batre, era onetan banaduka ni nere Aita maitariaren aserreak, nola idukiko ote ditu zuek bezalako bekatariak, edo, bekatuz zuek bezain igartuak arkitzen diranak?

Zerorrek jakin au, gure Jesus maitagarria! Eta dakizunak bezala, nitaz urrikaldurik, eta nazazu ni, arren, nere damuzko negarrarekin, ta, nere amorez darizun zere odolarekin; emen zerbait erreko banazu ere zuk ni nekez ta penaz, erre ez nazazun zuk eternidade guziko zere su ta gar arrigarriekin!- Ontarte berri au ere zugandik uste dut nik gaur, nere Jesus maitagarria. Indazu bada zuk; bai arren, bai!

*Susceperunt me sicut leo paratus ad praedam,
et sicut catulus leonis habitans in abditis.*

Ps. 16. 12.

Pilatos gaistoak utzi orduko, arta zuten gure Jesus maitagarria bere borrhero gogorak, Jesusek berak Dabiden ezpañez erranik zedukan eran.- *Artu ninduten ni*, dio Dabiden ezpañez: artu nindaten, ni, gosez erdi-amurraturik arkitzen den leoi batek bildots edo umerri bat bere atzaparretan artu oi duen eran; edo artu ninduten ni, bere lezean gosez dagoen leoi-kumeak bere ortzetan artu oi duen bezala, eizitik leoi gurasoak ekartzen dion aragi zatia.

Beraz ezin gogorkiago artu zinduzten zu, gure Jesus maitagarria, zere borrhero gogorak? beraz erabili zinduzten oriek zu, batak batetik eta bestetik besteak, tira ta ukaldi; ta an bertan ill, ta urratu bear bazinduzten bezala?

Eta nola erabili ote zaitut nik nere egunetan, nere Jesus maitagarria? Obeki ote edo agitz gaizkiago?- Erran dezatela oraindañoko nere ibillerak! Erran dezatela nere oraindañoko lanak: eta erran dezatela nere oraindañoko urrats eta pausu guziak!

Baña zer erran dezakee oriek guziak? Zer? baizik, zokora tiratzen den oialtzar batez baño kaso geiago egin ez dudala nik, askotan beintzat, nere Jesus maitagarriaz!- Zer? baizik, Jaungoikorik ezpaliz baño geiago ez nazala beldurtu ni nere oraindañoako ausardietan, ta nere lan zikin galdugarriak egiten nenbillen denboran; ta egin ditudala nik, ni jaio nintzan egunetik oraindañoako nere denboran, nik neronek dakidan adiña bekatu; ta ala ere ni, orrenbat nere bekatuarekin Jesus maitagarriari egiten nion atsekabeak, ezer-ez bat bailiz baño geiago beldurtzen ez nabela!

Eta ez da au, leoiak bildotia, ta leoi-kumeak aragizatia darabillen bezain gaizki ta gogorki nik nere Jesus erabiltzea; ta Jesus nik era onetan erabiltzea bein, ta berriz, ta askotan ere?- Eta zer ote da, era onetako nere erabillera galgarriari gerorako dagokana?- Zer? baizik betiko sulezea?

Utziko al dut nik nere erabiller galgarri au sulezean ni ez erortzeagatik, eta nik nere Jesus maitagarriari zor diodan amore andiari erantzuteko. Bai baldinbere, bai!

*Onnes nos quasi oves erravimus;
unusquisque in viam suam declinavit; et posuit
Dominus in eo iniquitatem omnium nostrum.*
Isai. 53. 6.

Gurutze andi izugarria zen gure Jesusen soñean onen etsaiak Ostiral santuz ezarri zutena; baña etzen gurutze au bakarrik, ez, aldi artan Jesusek bere gain zuen kargerri guzia: bere gain zuen aldi artan Jesusek gure bekatu guzien kargerria ere; ta kargerri au, judatar gogorrek billatu zioten zurezko gurutzea baño agitz astunagoa zen, ta agitz izugarriagoa, Jesus mai-tagagarriarendako.

Ez dezu au zuk sinisten? Adizazu bada gauz onen gain Jesusek berak Isaiasez bein esan izandu ziguna: Gu guziok (gure izenean itz egiten du aldi onetan: gu guziok izandu gara, ardi txar-errebes-galduak bezala; bada gure Jaunaren belarti onak, eta Elizako Sakramentuetako jan-edan indarti garbiak utzirik, sasiz sasi ibilli izandu gara gu, ta bekatu zorrotzen larrez ta puntaz odoltuak eta galduak: eta era orretan ibilli izandu gara gu gure Jesusi neke geiago ta geiago eman naiez bezala.

Ez genbiltzan gu guziok, ez, sasi ta lar arte batean; nor bere lar artean genbiltzan gu, ta bakoitza zebillen bere gogoak ematen zion bidez, ta eran.

Konta-al adina, ta agitz geiago dira, geren ibillera orietako, gure obenak; eta guziak, gurutzeturik bezala, edo elkarri itatsirik, ezarri diozka gaur Aita eternoak bere Seme Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriari.

Orra aldi onetan Isaiasek itz biz, edo bidaz guri esaten, edo adirazten diguna. Eta orra bidenabar gure Jesus ongi nekatuarentzat, judatar galduen gurutze astun-pisu-gogorra baño gurutze, ta kargerri agitz astun gogorragoa!

A nere Jesus guztiz maitagarria! Ni izan ardi txar galdu sulezeko otsotzar gogorren ortzetan gelditu bearra; ta, ni ara ez noan, judatar gogorren gurutzearekin zu, ta nik nere bekatuekin egin dizudan beste astunago bat zuk zere soñean, edo Biotz guztiz maitari orretan dezula, Jerusalengo kalez kale, borreroen eskuetan, jaiki-erori, oñazez betea, odola ta odola darizula, ta zere etsaiak ojuka, tiraka, ta ukaldika dagozkitzula, Galbarioko mendira!

Baña nola, zer moduz, edo zer eratan?– Ardi ona arakindegira doan eran, eta zure borrero oriek nai duten bezala, jakiñik ere zuk, dakizun bezala, zuk zere

soñ edo bizkar orretan daramazun gurutze berean josirik illa, ta odolik gabe, utzi nai zaituztela.

An badakit nik, nere Jesus maitagarria; eta ez da alere damuz lertzen nere biotz txar galgarri au? Ez dizkitzut nik alere ematen eskerrak eunka, ta millaka, zuk niri didazun zere amoreagatik? Eta alere ez dut artzen nik asmoa, gaurgero zure izenean, eme-emeki, ta bear den eran, eramateko nik ere nere gurutzea, edo edozein naigabe, kezka, ta lan!- Nere eroegia! Nere zentzugabea! Nere galdua!

*Bajulans sibi crucem, exivit in eum,
qui dicitur Calvariae locum.*

Ioan. 9. 17.

Badoa Jesus nekatu-maitagarria bere gurutze astun arrigarriarekin, badoa Jesus Jerusalendik Galbarioko mendira; ta ara doa, an borreroen eskuz illik gelditzera.

A, jerusalendarrak, jerusalendarrak; eta bazenekie zuek zein gaizki gelditzen zarazten, zeren erritik zuek zeren Jesus atara ezkeru!- Zuen arteko guzietatik zuen erriari geiena begiratu bear likeenak dira orain-

go aldian gaistoenak! Oriek dira zuen Apezak, eta Apezarte berean ere eskurik geiena duten gizonak. Oriek dira zuen eskribak, zuen jakinsuak, eta kargudunak!- Oriek dira gaistoenak. Eta oriek dira zuen erritik Jesus aurtiki, ta bota, ta gurutze batean ill-erazteagatik, bazter guziak nasten ibilli diran gizonak.- Erditsi dute oriek, bai, berak nai zutena; ta ara non doan Jesus bere gurutze-pean, Jerusalengo erritik aterarik, Galbarioko mendi gañera. Laster, ta fite utziko dute an Jesus maitagarria, daraman gurutze berean iltzez josirik, orretarako berarekin doazen borrhero gogorre-giak!

Baña zorigaistoan jaiok oriek, orain dauden eran oriek iltzera! baita gañerako, bukaera bera duten guziak ere!- Orain oriek Jesusi egiten dioten bidega-beagatik; anitz luzatu gabe, etorriko dira erromatiarak zuen erri eder Jerusalem au artzera. Artuko dute, bai, anitz nekeren buruan badere. Illen dituzte millaka, ta eun-millaka ere, erri orretan or arkitzen dituzte-netatik; eta bizirik gelditzen diranak eramain dituzte preso, edo salduko diezte ezer-ez batean, erosi nai dituztenei: ta arri pilla bat egiñik, utziko dute zuen erri eder-andi arrigarri au.- Orra zeren billan zabilzten,

zuek, jerusalendarrak, Jesus, zeren erritik aterarik, illerazi naiez zabilzten aldian!

Eta zeren billan ote zabilta zu, bekatari txarra, zere biotzetik zere Jaungoiko maitagartia aurtikitzen dezunean? Zeren billan ote zabilta zu, zere gogo gaistoari atsegin egiteagatik, zere Jesus maitagarria atsekabez betetzen dezun aldian? zeren billari ote zabilta zu, zere miari uzteagatik bear ez diran itzak erraten, edo zere eskuaren ukitze zikin bategatik, aienatzen dezunean zuk zere animatik zere Jaunaren grazia ta adiskidetasuna?- Zeren billan ote zabilta zu, gorroto txar bat ez utzi naiez, edo gogoeta txar bati zere biotzean toki egiteagatik, galtzen dezunean zuk Jesusen amore bazterrik bagekoa, ta zuri ongi naia?

Zeren billan ibilliko naz ni, nere Jesus maitagarria? Nere galtzearen billan! bada nigandik nik zu atera ezkerro, nerekin dira nere bekatuak, nerekin dira nere etsaiak, eta galdua naz ni geroztik eternidade guziguzirako!- Ez arren, Jesus maitagarria, ez orrelakorik, ez! Itzuli zaitetz zu; ta bertatik alere, nere biotz onetara, arkitzen bazara zu nik emendik aterea; ta etzaitzelaz emendik berriz atera. Egin uste dut nik artarako nere eginala. Maitatuko zaitut nik zu ziñez bizi naza-

ño; ta egia diodalako señaletan, leneko gaizkiez ongi
damuturik, erratera noa: *Nere Jesukristo, etc.*

LXII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN GALBARIOKO LENBIZIKO NEKEAK, ETA GURUTZERATZEA

A.

Jesusi eman zioten edari miña, ta soñekoak kentzea

1. Galbarioko mendira zeneko, kendu zioten Jesus maitagarriari bere bizkarreko edo soñeko gurutzea; baña, ezin geiagoraño nekatua bazegoen ere, etzioten eman borreroak atsedeteko lekurik Jesus maitagarriari. Batzuek asi ziran gurutzea bere tokian prestatzen, lenbaitlen an josirik Jesus uzteko; ta besteak an zebiltzan ezin-baldankiango Jesus berarekin.

Oriek lenbizikorik Jesus onarekin egin izandu zutena zen, edaten ematea.- Andia zen, nai-ta-ez, Jesusen aldi artako egarria; bada neke anitz ekusi zuen Jesus maitagarriak leneko arratsetik asi, ta ordurañoko denbora guzian; ta anitz zen denbora berean Jesusi atera

zioten odola.- Jesusen egarri andi au iltzeko, atera zioten Jesusi borrarotzarrak beren edaria. Baña zer edari!- Ardoz, mirraz, ta beazunez egiñikakoa! Ekusten dezu zein goisoa?

Eta agitz gaisoagoa ote da zuk eta nik anitz aldiz, edo bekaturatzen ginan guzietan, Jesus berari eskañi oi genion edaria? Zenbat aldiz eskaintzen genion guk gure Jesus maitagarriari geren elizaratzea, geren an egotea, ta an guk egiten genuen zer edo zer? Baña zer zen au guzia?

Zirudienaz, ardo ona ta edari goisoa: baña, askotan beintzat, gure asmo, edo gogoeta txarraren, edo egite galduaren beazunez; zena mindua edo zikindua!- Aldiren batzuetan eskañi diozkat nere Jaungoikoari nere konfesa-komekatzeak, baña baziran noski orien artean damu andirik bageko, ta ontzeko asmorik etzuten konfesionak; eta oriek, eta orien ondoren zetozen nere komekatzeak zer edariak ote ziran gure Jesus onarendako?- Izurritz beteak; bekatuaren beazunez minduak; eta judatar gogorren borrareroak Jesusi eman ziotena baño ere agitz gaistoagoak; eta orregatik, ezpañez ere, Jesusek ukitzen etzituenak.

2. Eta zer egin ote zuen Jesus maitagarriak judatar gogorren borrareroak eman zioten edari minduaz?-

Auan artu, ta bota; guri orretan adirazteagatik, bere naiez zeramatziela Jesus maitagarriak, judatar gogorren eskuetatik zetozkion neke guziak; eta etzuela nai, artu zekiozkan batere (nekeak zerbait arintzeko zen edari ura); ta prest zegoela, mintasun geiago ta geia-gorekin ere bere neke guziak gure amorez artzeko.

Au guzia Jesusek orain nigatik! Eta nik ezer-ez bat ere ez artu nai nere Jesus maitagarriaren izenean; ta onen amore andiari nola-ere-bait nik erantzuteko? Eta ni nere Jaunaren izeneko neke ta naigabe guzien igesi?- Eskerraren ederra! Jesusi diodan amorearen andia!- Eta alere, nazan bezain lotsagabea ni nere Jesus onarekiko!

3. Borreroak, beren edari latz au Jesusi eskañi ondoan, kendu zioten bere soñean zekarren guzi-guzia; ta au mendi agerian, ta jerusalengoak, eta israeldarretatik nor daki zenbat, begira zegozkiola, arrerazi zioten Jesus maitagarriari, gizonak artu duen alkekizunik andiena; baita oñaze ta miñ anitz ere; bada bere alkandor-ordea, edo orratzez Amak bere aurtasunean egin izandu zion barreneko bere tunika, Jesus maitagarriarekin andituz joan izandu zena, ta egun artaraño bein ere Jesusek erauntzi gabea, itsatsirik egoin zen Jesusen bizkar ta gorputz odoltuari; ta

borreroak, ura Jesusi kentzean, urratuko zioten Jesusi bere aragia; utziko zuten Jesus odola zeriola: ta tala osoa zen alkandor-orde, edo Jesusen barrengo tuuika au, burutik ateratzean (atera bear zioten bezala), nastuko zen Jesusen buru bereko koroarekin, ta koro bereko arantzak erabiltzearekin emain zioten borrero gogorrak Jesus maitagarriari anitz oñaze, ta min berri.

Onenbat oñazerekin bada, gorputz azotez ta ukaldiz urratuarekin, ango zuloetatik eta burukoetatik odola zeriola, ta soñekorik gabe utzi zutenean Jesus maitagarria borrerotzar gogorrak; eta ala uztean Jesus egunaren erdi-erdian, ta anbat begira zegozkiola, zer lotsak, zer nekeak Jesusen aldi artako neke lotsagarriak?

Bai? bada guziak dira zuk eta nik Jesusi emanak geren lotsagabekeriarekin, ta geren buruei guk eman geniezten atsegin loi-lizun-likits gaistoekin!-Ez dugu guk alkerik batere izandu geren gauza zikin-alkegarrietan! Utzi ditugu guk damutik batere bage bein, ta berriz, ta askotan ere, gure Jaungoikoak guri emaniko bere graziaren soñekoa ta birtuteen apaindura ederrak!- Egin ditugu guk askotan, egin bear etziran lanak eta gauzak; eta egin ditugu aldian, aldian baño ere txarragoak, galduagoak, eta itsusiagoak! Eta orra

non orien alde kentzen diozkaten gaur gure Jesus maitagarriari (ta kentzen diozkaten, berriz ez emateko) bere soñeko guziak: eta kentzen diozkate, lenagoko ken-aldietan baño ere agitz alkekitzun geiagorekin, ta neke andiagoarekin.

Eta alere ez gatzaizka urrikaltzen gu gure Jesus maitagarriari!- Anbat ango begiragin gogorren artean urrikaldu zitzaion norbait Jesus maitagarriari, oial zuri- ren bat emateko; gerritik au lotu, ta erdizka bazen ere estal zezan Jesusek bere burua, edo bere larrugorria.

B.

Iltzez josten diozkate borreroak Jesusi bere bi eskuak gurutzearen bi besoetan

1. Beren edari miña eman, ta bere soñekoak Jesu- si kendu ondoan, prestatu zioten borrero gogorrak Jesus berari bere gurutzea.

Illuntasunik erakutsi gabe, ta bere nai andiarekin, urbidu zen Jesus maitagarria bere gurutze aldera. An umiltasun andiarekin, ta biotz osez, eskañi zion Jesu- sek bere Aita eternoari, Aita beraren izenean ta gure

guzien onerako bere bizitza, ta gelditu zitzaion bere odol guzia.

Au egin orduko, itzuli zuen Jesus maitagarriak bizkarra gurutzera, ta luzatu ziezten borrero gogorrei bere eskuak, gurutze beraren bi besoetan iltzez josteko.- Ezartzen dute borreroak Jesusen ez-esku bata bere tokian. Artzen dute iltze lodisko luze bat, an ura josteko. Ukitzen dute iltze-puntaz esku-zabala; ta, martillu baten ukaldi andiak andien gain ematen diozkatela, igarotzen diote Jesusi esku guzia; ta gurutzeari ongi josirik gelditu dedin Jesusen esku eta oñetan zulatu au, sartzan dute bururaño gurutzearen zurezko besoan lendabiziko beren iitzea.

Zer diozu zuk, zere oben-kulpekin beren lan gogor au borrero oriei eragin diezun bekatari txarra? Jesusek orduan eraman izandu zuen baño aisago aditzen dezu zuk borrero orien lan gogor arrigarri au! Orratz batek zu, edo edozein arantz-puntak eskuan ukitu orduko, *aika* zaude, ta gaitz andi bat artu duen aurraren eran; ta orra, gure Jesus maitagarria geldirik dago, iltze luze lodi bat borrero gogorrak martil-ukaldika ondotik bururaño bere eskuan sartu artean!- Zer? Ez ote zen, gurea bezalakoa, ta guztiz minbera, gure Jesus mai-

tagarriaren eskua? Baita agitz eta agitz min-bereagoa ere!

Bada zenbat min, eta zenbat oñaze arr zion iltzetzar arrigarriak, borreroak ura martill-ukaldika eskuan Jesusi sartzean, ala sartu ondoan, ta gero Jesus bera illik gelditu arteko bere denbora guzian!- Ez da erraz, ez, au erdizka edo laurdenka ere guk adiraztea.

Nai, ta ez, urratu zuen iltzeak bere bideko aragi guzia, baña an arkitu zituen zañ, eta gauza minbere guziak ere: eta Jesusen esku artako ezurrak ere utziko zituen iltzetzarrak, edo erdi autsiak, edo beren tokitik aldaratuak; eta utziko zuen eskua odola ta odola zeriola.

Eta guziagatik ere ixillik gure Jesus maitagarria?- Bai: isillik Jesus, ta itz bat atera gabe onenbat bere eskuko urratze, oñaze, ta nekeren artean!

Nork eman ote zion Jesusi onenbat indar, onenbat ixillera, ta onenbat pazienza, onen neke, ta oñaze andien artean!- Bere birtute andiak, eta Jesusek berak niri didan ongi nai-amoreak.- Birtutearen arrigarria! Amorearen bazterrik gabekoa!

Au guzia ekusi edo ezagutu ondoan, ez ote dut maitatuko nik nere Jaungoiko-gizon, onen maitagarria? Ez ote da orain badere, Jesus maitagarri, nigatik

onenbat nekatuaganako, urrikaltasunez beterik geldituko nere biotz txar galdu eskergabekoa!- Anitz dela deritzazu zuk orain adirazten zaitzun gauza bata, ta bestea!- Bada, zenbat ere den, ez da oraindik, ez, Jesus onak zugatik eraman bear duenaren laurdena ere.

2. Era onetan, ta onen gogorki bere esku bata josi ondoan, artu zioten Jesusi borreroak bestea ere. Ezarri zioten au gurutze beraren bigarren beso gañean.

Au an ezartzean, ezagutu zuten borrero gogorrak, esku josiaren iltzetzarrarekin bildu zirala Jesusen alde arako zañak; eta ekusi zuten etzeturrela bere tokian, Jesusen esku josi-bearra; ta aratzeagatik, asiko ziran borrero gogorrak Jesusen besotik tira ta tira; orrekin aziko ziran an agitz Jesusen esku josiko oñaze arrigarrak: eta, Jesusen besoetako zañak luzatuz, ta agian au bertako ezurrei ere beren tokia galerazten ziela, eramain zuten borreroak zulaturik zedukaten gurutzearen lekura: ta, lenbizikoa bezain iltze lodi-luzegogorrarekin (ta ari baño ere martill-ukaldi ta golpe geiago ematen ziozkatela, zeren ura bezain ongi ta zuzen ezin zegoken iltze au; ta orregatik Jesusen oñaze, neke ta miñ agitz geiagorekin) utzi zuten borreroak, bestea bezain josi-urratua Jesusen esku au:

ta gelditu zen Jesus maitagarria, lenen gain, oñaze berriekin; Jesusek len zituen oñaze guziak berritzen zituzten oñazekin; ta orregatik, lenak baño ere oñaze agitz eta agitz andiagoeekin.

Eta, Jesusen leneko oñazeak baldin baziran ekusi dugun bezain arrigarriak, oraingo oñaze guziak, eta lenak elkar artzen zutela, nolakoak izain ote ziran Jesusen orduko oñazeak?

Ez da erraz, ez, guk ori jakitea, Jesusek berak bure gogargi onez ez adiraztera.- Baña guk dakigun apur au ere aski ta sobera da, guk egin bear dugun lan ona guri eragiteko.

Baña zer lan ote da guk orain egin bear dugun, geren lan au?- Zer lan? Guk geren gauzak ongi zaitzea.- Zergatik uste dezu zuk dauden bezain zabaldu-ateriak arkitzen dirala gaur gure Jesus maitagarriaren bi besoak!- Zeren zuk zere oriek zabaldu izandu zenituen, dakizun besarkak, edo beste zenbait lan loi zikin egiteko.- A nonbait orretara baño len, igartu-erreak gelditu bear zukeen zure beso gaistoak!

Zergatik ote daude ain urratuak, eta ain odoltuak gure Jesus maitagarriaren bi eskuak?- Ez dakizu zuk zerorrek, galdu-txar-loi-zikin-likitsa? Etzara oroitzen zu, arako zere ukitze zikin ta eskuka galdu-galgarriez?

Damu gaistoan ekusi zenuen zuk bein ere bein, ta berriz, ta askotan itsatsi, ta zuk zerorrek dakizun eran erabilli izandu zinduen gizaki gaisto ura!

Zergatik ala dauden gaur gure Jesus maitagarriaren eskuak?– Eta zuk zere esku oriekin zere bakartasunean arturikako atsegin gaistoak? Eta zuk, era orretan zeundela, utzirikako sulezeko bar-arrastoak? Eta oriekin berekin zuk len eginikako artze gaisto ta lapurkeriak?

Orra, bada, zergatik dauden gaur, dauden bezala, gure Jesusen eskuak! Eta orra, zuk gaurgero utzi bear-ko dituzun langiro gaistoak, egin uste badituzu zuk, zere Jesus maitagarriak agertzen dizkitzun beste garbiak.

C.

Oñak josi ondoan, uzten dute Jesus borreroak ezin adirazi-ala oñazerekin

1. Jesus maitagarriaren esku biak gurutzearen bi besoetan ongi josiak utzi orduko, artu izandu zituzten borrero gogorrak Jesus beraren bi oñak, eta josi zituz-

ten oriek ere gurutze berean, eta josi zituzten bakoitza bere iltzearekin, edo iltze batekin biak, Jesus gurutzetuaren aintzura edo imajin geienetan ekusi oin dugun bezala.

Jesusen oin biak iltze batekin josteko, andia zen nai ta ez, borreroak arturikako iltzetzarra: ta iltzetzar onekin Jesusen oin bata bestearen gain, ta Jesusen oin biak elkarrekin josteko, anitz izandu ziran, ta andiak, borreroen martill-ukaldiak edo golpeak.

Eta, esku bakoitza banaka, ta bere iltzearekin josten ziotela ere, eskua izanagatik oña baño agitz meagoa, ain andi-gogor-izugarriak izandu baziran, ta guk asma al baño ere agitz andiagoak, Jesusen esku bakoitzeko neke-oñazeak, zer oñazeak eta zer nekeak ekusi izandu ote zituen Jesus maitagarriak, oin biak batetan, ta iltzetzar arrigarri batez borrero gogorak josten, ta urratzen aritu zekiozkan denbora guzian?

Eta, ezin asmatuz bagaude gu nola eraman zitzaiken guru Jesus maitagarriak bi eskuetako oñaze utsak, zer erran dezakegu guk, ekusten dugunean neke oñaze arrigarri oriekin batean daramatziela Jesussek berak bere oñetako oñaze-neke izugarriak ere; ta guziak daramatziela, ezer ezpalerama bezain ixillik,

eta emeki!- Zeer? Jangoiko-gizonaren eramatea dela oñaze-nekeen eramate guztiz arrigarri ori.

Besterik ezpadere, ezin jakin ote genzake guk, zergatik ote diran Jesusen oñen urratze izugarri oriek, eta Jesusen oñetako orrenbat neke ta oñaze?- Ori bai; ta aisa alere.- Zergatik bada?- Nere ibillera ain gaisto-akgatik; nere sartu-atera ta egote bear ez diranakgatik; eta zeren ni nenbillen, etsaiak niri erakutsirikako nere jostaketa zikinetan; etsai beraren urratsetan, ta pausu galgarrietan; ta zeruko nere bidea, ta lege guztiz garbia aldebat utzirik, etsaiak niri gaizki-naiez egiñikako bideetan.

Era onetako nere oñen ibiller galduen alde dira, bada, Jesusek bere oñetan gaur ekusten dituen iltzez joste, urratze gogor, ta neke ta oñaze guzi-guziak.

Zorionekoak zu ta ni, guk onela, edo onen nekatua gure Jesus ekusi ondoan, zentzutzen bagara gu gaur, bertatik guk uzteko oraindañoko geren bide galduak, pausu galgarriak, eta ibillera gaisto-zikiñak:

2. Lenago lurrean sarturik ezpazedukaten gure Jesus iltzatuaren gurutze andi au, sartuko zuten golpez borrerotzarrak, lenik orretarako egiñik idukiko zuten lurreko zuloren batean.

Golpe onekin dardaratu zen, nai-ta-ez, gure Jesus maitagarriaren gorputz minberea: len zeuden baño anitz urratuagoak geldituko ziran Jesusen esku-oñak; eta kargatuko zen Jesusen oñ iltzatuen gain Jesus beraren gorputz guzia; ta geldituko ziran, len arkitzen ziranetik agitz atereagoak Jesus maitagarriaren bi besoetako ezurrak; eta geldituko ziran, len baño ere agitz luzatuagoak.

Eta, zenbat Jesus maitagarriaren oñaze berrirekin gertatuko zen au guzia? Nork an adirazi!- Jesusek berak.

Baña nori adirazi naiko ote dio au guzia gure Jesus maitagarriak?- Orretarako prestatzen diran diran anima garbiei.

Nai dezu zuk, bekatari txarra, prestatu zere anima Jesusen agertze eder orietarako? Bai? Ken zatzu bada zuk zere begiak, liluratu oi zaituzten lurreko gauzeta-tik. Utzi zatzu zuk, zere biotza trabatzen dizuten aragiaren naikunde gaistoak eta gogoeta lizunak; eta begiz ta biotzez begira zaiozu zuk, eta asti-astiro, zere Jesus maitagarriari; ta adiraziko dizu zuri Jesusek, zuk adi-alean, orain berak zugatik daraman neke arrigarrria.

3. Ez dezu ekusten zein andia den, denbora berean Jesusek daraman alkekizuna? Larrugorrian dadukate geiena, ta listuz, ta zikinkeriz dena loitua, gure Jesus maitagarria! Lurrak ezin ekusi duen gaistagin arrigarriren bat bailiz bezala, lurretik kendurik dadukate gure Jesus maitagarria judatar gogorren borrotzar galduak!

Gure Jesusek esku-oñ gaistoak izandu dituela adirazi naiez, ta lapur andi bat bailiz bezala, bere oin-eskuak josirik daduzka, bere bi bazterretan gurutzetuak daduzkan lapur biren eran; ta, israeldar guzien arteko gaistoak zentzarazi naiez bezala, edo orduraño gaistatu etziranak gaista ez ditezen gerozko denboretan, era orretan dadukate judatar gogorrak Jesus maitagarria; ta era orretan dadukate, anitz milla gizon begira-begira dagozkiola bere begietara. Ekusten dezu zer alkekizuna, bere egoera lotsagarri onetan Jesus onak daramana?

4. Eta norañokoa den, nola-ere-bait orain zuk astiz ekusteko, era onetan dagoen gure Jesus maitagarriaren nekaera, begira zaiozu Jesus gurutzetuari bere bazter guzietara, ta bere burutik bere oñetarako guziguzian.

Orra, bere esku-oñak iltzez urratuak daduzka, ta milla oñazerekin arkitzen dira oriek, bere gurutzean Jesus borreroak josi zutenetik; eta alere bere gain dute esku-oñ oriek gañerako Jesus beraren ezur-zain ta gorputz guzi-guzia.

Buru guzia arantzez beterik daduka, ta nork daki zenbat odolezko iturriekin gure Jesus maitagarriak! eta orregatik daduka oñazez lertzen, ta erdi bi egiña bezala.

Era onetan, dadukan bere buru au ez du non iduki Jesus maitagarriak, gurutze gogor berean ez izatera: ta burua gurutzeratzen badu, sartuko zaizka, len baño barrenago, buru berean dadukan koroiazaren arantza zorrotzak; eta geldituko da lengoen gain, oñaze berri arrigarriekin.

Buruan duena du Jesus maitagarriak bere esku-oñetan, bere bizkarrean, ta bere gorputz guzi-guzian: ta Jesusen gorputz guzia dago zuloz, zauriz, ta oñazez betea.

Geldirik badago bere gurutzean gure Jesus maitagarria, oñaze ta oñaze dago, ta atsedeteren pits bat ez duela; ta, zerbait atsedeen naiez, nola-ere-bait igitu ezkerro, edozein igitzek berritzen ta anditzen diozka Jesusi bere oñaze guziak; eta ez da gure Jesus maita-

garria burutik oñetaraño nekea ta nekea, miña ta miña, ta oñazeak oñazen gain besterik.

Eta au zenbat denboraz uste dezu? Irur ordutz! Eta zergatik?- Nere atsegin txarren, ta bekatu loien alde.

A nere bekatu, ta atsegin madarikatuak! Zuek zarazte, zuek zorigaistoan agerturikako nere animaren, ta gure Jesusen galgarriak!- Etorkizunak bazeundezte zuek, etzenukee nigan arkituko, ez, lekuren pitsik ere: bada, orain nik ekusten dudan eran nere Jesus maitagarria ez ekusteagatik, banegike nik, bai, ez dakit zer!

Eta gaurgero ez berritzeagatik nik nere Jesusen neke orren arrigarriak, egiñen dut nik, bai, Jesus maitagarriak laguntzen didala, nik egin ala; ta ez dut egiñen, ez, gaurgero bekatu berririk batere.

*Loquimini ad cor Jerusalem, et advocate eam;
quoniam completa est malitia ejus.*

Isai. 40. 2.

Itz egin bekie jerusalendarrei beren biotzetara, erraten digu gaur guri gure Jaungoiko maitagarriak. Deitu bekie orain oriei ekustera gaur berak egin dute-

na; bada egin dute Jerusalengoak gaur, egin zezakeen gauzarik gaistoena, edo beren gogo gaisto galgarriak eman izandu diena.

Baña zer ote da, Jerusalengo jendeak, eta israel-dar galduak egin dutena?- Zeer? Arako gurutze artan guk gaur ekusten duguna.

Nor ote da gurutze artan ain itxura txarrean, ta iltzez josirik iltzen dagoen ura?- Iduriz, edo aintzuraz, lurrean den gizonik gaistoena.- Eta izatez?- Eternidade guzian izandu den Jaungoiko ezinobea: Jakiunde utsa den Jaungoiko guztiz maitagarria: egin ditezkeen gauza guziak, zeru-lurrak egin zituen bezain aisa, edo itz batekin egin ditzaken Jaun ezin-altsuagoa: ta irur erirekin, irur beatzekin, edo bere jakindearekin, bere ontasunarekin, ta bere alarekin edo eskuarekin mundu guzia, berak nai duen eran, dadukan ta darabilen Jaungoiko-gizon maitagarria.- Aulse da, bada, aulse, judatar gogorren ta gure amoreakgatik gizon egin zen Jaungoiko-semea: ta aulse orain gurutze onetan irur iltzek dindilirik, eta judatar berak nai duten eran dadukatena.

A gure Jesus maitagarria! judatar gogorrek eta gure bekatuak dira zu josirik or zaduzkaten iltze lodien

errementariak; eta, guk egiñikako gauzak ezin dukee, zu or bortxaz idukitzeko diña indar ta esku!

Iltze sendorragoak dira, bai segurki, zu burdiñezko iltze oriekin batean, or zaduzkaten iltzeak: eta iltze oriek dira zuk *guri ongi naia*; zure Aita maitagarriak diona zuk *egin naia*; ta zure Aita berari, zor zaion ondra eman naiez, gure oben-kulpen *zorrak zuk atera-naia*.

Eskerrak eta eskerrak zuri guk, gure Jesus maitagarria, zere amoriozko ta ongi naiezko iltz-ederrekin, gure gogo zikiñekin batean gurutze orretan gugatik zuk daramazunaz; ta nolerebait zuri guk ori eramaten laguntzeko, josi gaitzatzu gu zuk or zere amorearekin, ta bekatu berririk egiteko beldur andiaren iltze bortitzarekin. Bai arren, bai!

*Usque ad interiora velaminis...
praecursor pro nobis introivit Jesus,
secundum ordinem Melchiseilech Pontifex
factum in aeternum.*

Heb. 6. 20.

Goiti zatzu zuk zere begiak, eta ekusi zazu nor ote den; ta zer ari den or gurutze orretan dadukazun orra-ko ori.

Ori da, bai, ta or dadukazu zuk, S. Pablok dion bezala, eternidade guzirako Apez-Nagusi, edo Aita santa egiñik arkitzen den Jesus maitagarria. Jesus maitagarri, Aita santu edo Apaiz-Nagusi au, gurutzeko Aldare orretan or ari da odolezko sakrifizio, ezin andia-go bat, egiten; edo or ari da, mundu galduak oraindik ekusi duen ta ekusi dezaken Meza berririk andien-andiena ematen.

Igan da Jesus, bere odolezko Meza andi au emate-ra gurutze orretako Aldarera; ta igan da, bere Mez au emateko, bear zituen soñeko-era ta apaintze guziekin; igan da alabaña, buruan daramala bere Tiara, edo arantz zorrotz gogorrezko bere koroa. Eskuko artzai-makilla, edo bakulloa da lurrean sarturik dadukan bere gurutzea; beatzetako eraztunak dira bere esku-biak urtutzen diozkatzen iltze gogorrak; eta bere buru-tik oñetarañoko soñekoa da bere gorputzeko aragi zuria, zuloz, urratzez, listuz, ta odolez, ezin-geiagora-ño josi-bordatua.

Era onetan igan da gaur gure Jesus maitagarria bere gurutzeko Aldarera; ta Aldare orretan Jesusek

bere Aitari eskaintzen dion Hostia da bere burua; ta eskaintzen dio, duen odol ta bizitza guzi-guziarekin; ta eskaintzen dio, Aita beraren ta gure guzion amoreen suz an errerik uzteko; ta gure zor guzi-guzien alde.

Ekusi zazu, zein andi izugarriak diran zure ta nere bekatu gaistoen zorrak; bada Aita eternoak artzen du orien alde, zuk ekusten dezun adiña balio duen Ofrenda ta Meza, edo Jaungoiko-gizon bat, Aita beraren amorez gurutze batean illa ta urtua.

Zer izain zen zutaz ta nitaz, nene eran ta guztiz gaizki zabiltzan bekatari txarra, gu biokgatik, eta munduko guzien alde Jesusek bere gurutzean ez ematera bere odolezko ta bizitzazko Mez andi au?- Guk gerok ekusi, edo ezagu dezakeguna!

Eta zer ote da oraingo bere Mezagatik, eta ontarte onen andi baten alde, Jesus onari zor zaiona?- Esker garbi-garbiak; eta oriek ere guk maiz emanak: gure biotz, Jesus beraren amorez askotan urtzen den bat; eta uts berriren loirik artzen ez duena.

Emain ote diozu zuk, nere erako bekatari txarra?

Nai nuke beintzat; eta ziñez alere! Jesusek berak didala, orretarako bear den laguntza ta grazia; bai arren, bai!

*Sederunt eum eo in terra septem diebus,
et septem tibus, et nemo loquebatur ei verbum;
videbant enim dolorem esse vehementem.*

Job. 2. 13.

Anitz umeren gurasoa zen Job Santua, ta anitz ganaduren ta ondasun andien jabe aberatia, egun bateraño; baña egun batean galdu zituen Job Santuak bere ondasun guziak, galdu zituen bere ganadu guziak; baita bere ume guziak ere; ta gauza oriek guziak galdu, ta laster gelditu zen Job Santua burutik oñetaraño zauri arrigarriarekin, goroztegi zikin bat bere oartzetako artzen zuela, oatze berean eri etziñik; eta bere zauri izugarritik zerion materia ta usteltasuna kentzeko, tella zati bat baizik etzuela.

Ikasten dute, Jobi gertatuaren berri ustekabeko au Joben irur adiskidek; eta badoaz Job santua bere eritasunean, ta kaledi arrigarrian ekustera; ta, era artan Job oriek ekusi orduko, emen dira irurak *aika*, ta negar ta negar; ta urratzen dituzte, beren naigabe latzak eta tristurak artaratzen dituela beren soñekoak; eta, beren buruak autsez betetzen dituztela, gelditzen dira arrituen eran, zerura begira, ta beren Jaungoikoari

galdez bezala, nola edo zergatik dadukan Job santua, dadukan eran ta ain itxura urrikalgarrian!

Beititzen dituzte gero beren begiak; eta, ekusten dituztenean aldi artako Joben neke-oñazeak, gelditzen dira arrituen eran, ari begira, ta itzik atera gabe, zazpi gau osoz ta zazpi egunez.

Aldi artan au egin izandu zuten gizonak, zer egiñen ote zuten, Jesus ezagutzera, Jesus oriek ekusi ezkerro, orain guk ekusten dugun, ta judatar gorrorak dadukaten eran, edo arantzez guztiz urraturik dadukala bere buru guzia; ta arantzak egiñikako zuloetatik odola ta odola dariola? Azot-ukaldiz ta golpez bere bizkar guzia erraietaraño zulatua: etzin nai badu, bizkarrez baizik ezin etzin diteken eran; ta etziten bada, zur latz gogor baten etzin bearra.

Ekusi balute bada Joben irur adiskideak au guzia; ta ezin igi ziteken eran, gure Jesus maitagarria; ta ekusi balute gure Jesus maitagarria gurutze batean esku-oñak iltze luze-gogorrez guztiz josiak, eta odollezko iturri egiñak zeduzkala; eta alere nior urbil ez zekion zerbait laguntzera, an ura zaitzen zeudela, Jesus beraren borrero gogorrak, eta etsai erdi amarra-tuak, zer egiñen ote zuten oriek berak?

Anbat arritu ziranak, bada, beren adiskide Job zauri batekin ekusi zutenean (ekusi bazuten ere beren adiskide Job goroztegi bera batean etziñik, eta bere eskuz balia ziteken bezala), nola arrituko ote ziran; beren Jaungoiko-gizon Jesus maitaria, berakgatik itxura nekatu-izugarri onetan ekusi ezkeror?– Bertan noski otzak gelditzeko eran.

Eta ekusten dut nik gaur, era berean; ta ekusten dut nik bein, ta berriz, ta askotan ere nere Jaungoiko-gizon au; ta nere Jaungoiko-gizon guztiz nekatu au ekusten ezpanu baño geiago ez naz ni biotzez illuntzen!– Galdu ote dut nik nere siñistea? Galdu ote dut nik nere buru au, edo zer egin ote zait niri oraingo aldian?

Nik zer dakit, bada, nere Jesus onegia!– Indazu, arren! zuk, oraindañoko nere zentzagabekeriaren, ta egin ditudan bekatu guzien ziñezko damua; orien keak nik nere burutik kendu ondoan, ekus dezadan nik, nigatik zuk or gurutze orretan daramazuna; ta urrikal nakizun ni zuri oraindañokoan ez bezala.– Ori eskatzen dizut nik gaur, nere Jesus maitagarria, zinziñez erraten dudala: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LXIII.garren OTOITZ-GAIA

**JESUSEK GURUTZETIK EKUSI,
TA ADITU ZUENA**

A.

Ekusten ditu Jesusek bere neke gogorretan zenbait gauza guztiz nekagarriak

1. Adirazi ditugun gurutzeko nekeak aski ez dirala, baditu, bai, Jesusek bere gurutze berean beste anitz neke ere; ta orien artean sar ditezke bere begietatik, eta bearrietatik Jesusi sartzen zaizkanak; edo sar ditezke, bere gurutzeko denboran Jesusek izandu zituen bidebage, ekuste, ta aditze latz-gogorak.

Baña zein ote da lenbizikorik Jesusek bere gurutzetik ekusi zuen gauza latz-gogorra?- Lenbizikorik an Jesusek ekusi zuen ekuskari latz gogorra, zen ango laur soldadu borreroak egin zutena.

Jesus gurutzean soldadu oriek seguratu orduko, Jesusek an zeramatzien neke-oñazeetara anitz begiratu bage, artu zituzten berak, Jesusi kendurikako soñe-

koak; eta alkandor-ordea, edo barreneko tunika osorik utzi, ta gañerakoez egin zituzten laur zati, ta artu zuen suertez nork berea.- Alkandor-ordearen, edo josterik etzuen Jesusen barreneko tunikaren gain bota zituzten soldadutzar oriek beren bota-erak, edo suerte berriak, eraman zezan osorik, eta urratu bage, botae-raz edo suertez ateratzen zuenak.

A borreroak, borrero gogorrak: baldin bazenekite zuek, txartxoak diruditen, ta odolez beteak dauden, Jesusen soñeko oriek balio dutena, etzenitukee, ez, darabiltzkitzuen eran erabilliko! Orien ertz bat ukitzea aski zen, bai, oriek berekin Jesusek zekartzien denboran, edozein eri bertan sendatzeko; ta, orien zuntzetan edo albiñetan arkitzen den edozein odol-tantak balio du, zeru-lurrak, eta egin ditezkeen gauza guziak baño agitz eta agitz geiago: odol tant ori alabaña Jaungoiko-gizonaren odola da; ta odol, Jesusen zañetan ez egonagatik, Jesusen Jainkotasunak beregandik utzi gabea.

Baña ez dakizue zuek, soldadutzarrak, orrelakorik; gizatxar galdu baten odolez zikindurikako soñekoak dirala uste dezue zuek, Jesusen soñeko oriek; eta ezer-ez batean daduzkitzue Jesusen soñeko orrenbat balio dutenak; eta zuek soñeko oriek artzean ere,

artzen dituzue zeren buruak likisteko beldur andiaren-kin.

Soldadutzarren era onetako ergelkeriak, era bera-
ren soñekoez onela oriek jabetzeak, begitan eman
bear zioten, nai-ta-ez, Jesus maitagarriari; bada etzen
ori, ez, era orretako soñeko batzuei zegoten ibillera;
eta bere soñekoen erabillera onek gogorako zion Jesus
maitagarriari gero kristio, edo kristau gaistoak beren
komunione zikiñetan beraren odol esku-oñetatik eta
gorputzaren asko aldetatik ordu artan zerionari, ta
beraren gorputz-anime, ta Jaungoikotasun guziari
bein, ta berriz, ta askotan eman bear zioten tratu
galdu eskergabekoa.

Eman ote diozu zuk ere? Eta zenbatetan?

2. Ekusi zuen gure Jesus maitagarriak bigarren
lekuan, nola borrheroak eseri edo jarri ziran, bakoitza
bere soñeko zatiarekin; ta nola zeuden an Jesus bera
zaitzen, Jesusek bere gurutzean zeraman orduko
nekeaz anitz oroitzen etzirala; ta, berena baizik gogo-
an etzutela.

Orien orduko lan au ekustean, ekusten zuen gure
Jesus maitagarriak gurea ere; edo ekusten zuen, nola
biziko giñan gu, geienok beintzat, Jesusen orduko
nekeak anitz gogora gabe, izanagatik oriek gure amo-

rez Jesusek artuak; eta ekusiko zuen, Jesusen neke oriek gogoan genituela, eraman bear genitukeen goizeko, arratseko, eta jaietako ordu-zatiak galduko genituela guk berriketan, jostaketan, bear ez bezalako jan-edanetan, ta anitz zikinkeritan: ta ekuste onek anitz estutu zuen, nai-ta-ez, gure Jesusen Biotz beratx maitagarria.

Ekusi zuen Jesusek irurgarren lekuan, nola zegozkan berari begira bere etsaiak; eta begira zegozkala, odolez ase ondoan ezpañak lamikatzen dagoen zakur baten eran, edo, ain penaturik eta iltzeko tranzera Jesus bera ezarri zatelako, atsegin-kontentuz beteak.

Ekusi zuen bidenabar beraren orduko nekeez baliatu gabez, sulezeko kateetara bearko zutela (ta ori oriei gogoratu ere gabe) Jesusen etsaitzar berak: eta denbora berean ekusi zuen, au bera gertatuko zitzaio-la munduko zatirik andienari; ta onenbat ekuste galdu-illun-makurrek gurutzeko bere neke guziak baño geiago ta geiago nekatzen zion Jesus maitagarriri bere biotz maitari-urrikaltia.

3. Au guzia Jesusek ekustean, ekusi zuen andik ez urruti bere Ama maitagarria ere; ta ekusi zuen au, an, Jesus bera zegoen gurutze berean iltzez josirik arkitu baliz bezain nekez ta naigabez betea; ta ekusi zuen

an, bere Ama maite au, milagroez ez izatera, bizirik ezin iraun zezaken eran: anbatekoa zen orduko Birjin-Amaren biotzeko illuntasuna, tristura ta damua.

Eta zenbatekoa izandu ote zen, aldi onetako ekuste onek Jesusen Biotz minbere maitariari arrerazi zion neke-pena ta naigabea?- Ezin ezagu dezake au, eza gutzen ez duenak, zenbat zen Jesusek bere Amari nai ziona.- Guk erran dezakeguna da, Jesus maitagarriari, bere Ama maitea era onetan ekusteak, gañerako bere naigabe ta neke guziak baño agitz geiago illundu, nekatu, ta prensatu ziola bere Biotza; bada bere Biotzaren prensazio, nekaera, ta illuntasun au, bere Amari zion amoreari zegokana zen; ta amore au ezin andiagoa.

Jesusek ekusi zituen, adirazi ditugun gauzak ezezik, ongi nai zioten beste zenbaiten negarrak ere; ta orien artean ekusi zituen, bere Amarekin an arkitzen ziran emakumeenak. Eta, nola zen gure Jesusen Biotza ezin-eskerdunagoa, ta guztiz beratxa, urrikaldu zekien oriei ere, ta orien nekeak ere illundu zioten, zegoenetik anitz geiago, bere barren guzia.

Eta, itz bitan guzia nik orain adirazteko, erran dezaket ekusi zituela Jesus maitagarriak, ekusi ditugun gauzen gain, beraren Biotza illuntzeko onak ziran

beste anitz ere; ta, lenak eta oriek guziak elkar arturik, agitz anditu ta arrigarritu zituztela Jesusen Biotzeko neke oñazeak.

A nere Jesus, nigatik onen nekatua; ta nik zuri zor dizudan amorea! Eta noiz ni amore oni nolerebait erantzuten asi! Gaur bertatik nai nuke nik, zuk zerrorek artu laguntzen didazula.

B

Ekusi zituen Jesusek bere tormentuzko gurutzetik anitz gauza nekagarri

1. Jesusen guganako amore au obekiseago guk ezagutzeko, ekusi bear ditugu banaka orain batetan ekusi ditugun Jesusen gurutzeko nekeetatik ere beste zenbait. Orietatik dira, Jesusek adituz ekusi edo izandu zituenak; eta oriek ere, ekusiz izandu zituenen era-koak izandu ziran. Aditu zituen Jesusek gurutzean joserik egondu zen denboran gauza guztiz arrigarriak.– Orietatik batzuek aditu zituen, bidez zidoazen jendee-tatik, edo joan-etorri zebiltzanetatik. Aditu zituen beste zenbait, an arkitzen ziran eskribatzar ta fariseo

gaistoetatik.- Besteren batzuek aditu zituen israeldarretatik; baita, bere bi aldeetan zeduzkan gurutzeetako lapurretatik ere.

Aditu zituen bidebageko gauza oriek guziak, oriek aditzean gertatzen zitzaiola, mundura den gaistoena-ri gertatu oi ez zaion gauz arrigarri bat: bada nornai urrikaltzen zaio iltzeko tranze gogorrean arkitzen den edozein gizoni, gizon au izanagatik, ordurañoko denboran munduko gizon gaistoenetatik bat; eta izanik gure Jesus, zen bezala, obenik bageko Jaungoikogizon guztiz on maitagarri bat; eta egonagatik aldi artan, Jesus zegoen bezala, anbat eta anbat nekeren artean, ta bere eriotzeko ordu agitz gogorrean, gogortu ziran, begira zegozkanak, ez urrikaltzeko Jesusen egoera mindu guztiz arrigarriaz.- Orra, Jesusek baizik, ekusten ez duen gizonen gogortasuna! Eta orra Jesusen naigabeetarako bide latz guztiz arrigarria!

Eta zer zirala, deritzazu, edo nolakoak, aldi neka-
garri artan Jesusek an aditu zituen gauzak?- Era asko-
takoak. Bidez zidoazenak, edo an guti gelditzen zira-
nak, ekusten zutenean gure Jesus gurutze batean
iltzez josia, begiratu gabe an Jesusek zeramatzien
oñaze gogorretara, ta neke ta tormentu izugarrietara,
asi izandu ziran istaka, edo burlaz; ta, beren begi

zorrotzekin Jesusi begiratzen ziotela, ta beren buruak batetik bestera zerabilztela, erran izandu ziozkaten nai zituzten gaistakeriak eta blasfemia guziak; eta besteen artean, A! zu bai, a, zu gizona! Urratuko zenuela zuk zenion, gure Jaungoikoaren eliz eder Jerusalemgo au, eta gero irur egunez egiñen zenuela berriro, ta utziko zenuela ederki bukaturik!- Orrenbat esku dezun ezkerro, balia zaitez zu zere eskuz zere onerako, ta geldi zazu zuk, al badezu, bukatzera doakizun zere bizitza: ta, zuk diozuna bazara zu, edo zu izatera, diozun bezala, Jaungoikoaren Semea; ots laster; utzazu gurutze ori, ta atoz gure artera.

Bidezkoak gara gu, mundu onetan bizi garanok; eta geren bide au bukatuko dugu guk, guri geren bizitza bukatzen zaikunean. Guri geren bide au bukatu orduko, sartuko gara gu bukatzen ez den eternidade bateko bizitzan.- Geroko gure bizitza, oraingo gure ibillerari dagokan biziera da. Ongi ta zuzen gu bagabiltza bizi garaño, zorioneko bizitz atsegindun on batean sartu bearrak gara gu. Baña nekezko bizitza da, ta neke utsez beterikako bizitza, gure begira dagoen geroko bizitza, emen gu makur, ta eroen eran, ibiltzerara.

Eroen eran dabilta, israeldar Jesusen istari galduen eran dabilta guziak, edo israeldar galduen eran Jesusen gauzei ista, ta burla, edo ez-ekusi egiten dienak, eta beren gogoak ematen diezten gauzak ekusten dabiltzanak.

Eta nolakoak izandu ote dira, nere anima, oraindaño gure ibillerak? Zuzenak? Zentzatuak? Bear beza-lakoak?- Nola begiratu ote diozu zuk, zure amorez gurutze batean nekez ta oñazez itotzen dagoen zere Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriari? Negarrez, urrikiz, ta damuz beterik arkitzen zarala zu?- Era orretan zuk Jesusi begiratu badiozu, bide zuzenez zabilta anima zara zu; ta zerura zoazen anima zara: ta ala bazabiltza, zabilta zu zabilta bidez, ta bide orietatik oñik atera gabe; ta zu azkenean sartuko zara billatzen dezun zere zeruko tokian.

Baña istaka bazabiltza zu; edo zu bazabiltza, bear ez diran gauzak erraten ta egiten dituzula, Jesusen istaria zara zu, judatar gaistoen bidea daramazu zuk; eta oraindaño zere gaizkiez ongi damuturik, zuk ez uztera zere bide galgarri guziak, sulezeko bizitza gogor gaistoan sartzera zoaz zu, ta sartzera eternidade guzi-guzirako.- Aratzen bazara zu, zorigaistoan jaioa zu, ta beti ta beti erretzen egon bearra!

2. Bidezko gaistoen erranak baño atsekabe agitz geiago ematen zioten Jesus maitagarriari eskribatzarren ta fariseo gaistoen erranak.- Apezik andienak, oriek eta Jerusalengo gizon jakintsu adiñetakoak, Jesus gurutzean ekusi orduko, asi izandu ziran marmarioz elkarren artean, baño Jesusek adi zitzaken bezala, ta Jesusi atsekabe ta damu geiago baño geiago eman naiez.- Orra, zioten oriek, orra: illak biztu ditu len gizon gurutzetu onek; eri anitzi eman die len beren osasuna, ta egin ditu len besteen onerako gauz on anitz andiak: dagiela bada orain, al badu, zerbait on bere onerako.- Ez zion gizon orrek, Israldarren, ta gure guzien Erregetarako jaiorik etorri zen gizona zela ori!- Ekus dezagun bada: bada ala izatera, ez da ori orain gurutze orretan illen, ez; jaitsiko da, bai, ori bizi-rik ortik. Jaitsi bedi bada, ta bertatik artuko dugu guk ori gure Erregetako.

Jaungoikoa bere alde zedukala, zion orrek; eta askotan ori guri orrek adirazirik daduka. Ala biz: baño zertan ezagutuko dugu guk orrek guri erran oi ziguna?- Jaungoikoaren Semea dela ere, erran izandu digu guri bein, berriz, ta anitz alditan ere. Lenak baño gei-ago da ori, ta agitz alere; ta, ala bada, aisa ta laster ken

dezake Aita Jaungoikoak berak orain or daraman neke lotsagarritik.

Eta onelako itzketa gogor galgarriekin begitan ematen zioten gizatar arroak gure Jesus nekatu maitagarriari, gizon gezurtiren bat bailiz bezala: ta, ez Jesus, berak ziran gizon gezurtiak; bada gezurra zen orduan oriek ziotena, ta Jesusen gain ordurañoکو guzian oriek erran izandu zuten geiena.

Gezurrez, furrustadaz, ta meatxuz emanerazi zioten gizatar oriek Pilatosi Jesus maitagarriaren gurutzeko sententzia; ta gezurti gaistoak, gurutze batean iltzez josirik, odol ta odol zeriola, ta erioaren atzaparretan uzteko puntuan zedukaten gure Jesus maitagarria; ta alere etziran asetzen: ta begiz, buruz, ta itzez egiten ziozkaten al zituzten ista guziak.- Odolez asetzen ez diran, zakurrak ziruditen gizatar berak; ain gorrotu andiarekin begiratzen zioten Jesus maitagarriari, edo ain amurratuak zeuden Jesus onagana!

Arritzen ote zaitu zu, nere anima, Jerusalengo eliza-gizonen, gizon andien, ta judatar jakintsu orien gogortasunak, eta itsuera onen arrigarriak?- Bai noski.- Bai?- Eta izanik, askotan beintzat, gizatar oriena bezain andi-arrigarria, Jesus onaganako zure

gogortasuna, ta itsuera, ezpaliz baño, geiago ez diozu zuk zereari begiratzen!

Atozea zu, bekatari txar eskergabea; ta ez dago, dagoen eran, gure Jesus maitagarria, gure bekatu lizun-loi-galduakgatik? Eta zenbat aldiz zuk Jesusen neke-penak arindu bearrean zere gaizkien ziñezko urrikiarekin, egin izandu dituzu itzez, eskuz, gogoz, gorputzez, ta zuk dakizun eratan, Jesus gurutzetu beraren neke berak berritzeko ziran gauzak, edo bekatuak?- Ongi da; ta egin ez dituzu zuk oriek, gure Jesus zuk zere Jainkotzat ezagutu ezkeroko?

Eta garai onetan oriek zuk egitea ez ote da judatar itsu-gogorak baño ere, itsu-gogorragoa izatea zu, Jesus onarekiko? A zer Jesusen umeak, zu ta ni biok!

3. Azkeneko zer gertatu ote zitzairen apezan, kargudunen, ta jakintsuen erausiak aditzen zituztenei?- Oi dena. Guti zekiten, israeldar gaisoak siñetsi zuten, apez arroak eta gañerako andi-mandi gezurtiak ziotena; ta beren erakusle gaistoekin batean, erraten zioten oriek ere Jesus maitagarriari, miira zetorkien edozein gaistakeri.

A gurasoak! A etxeko-andre nagusiak! A kargudunak! Eta zein arrigarriak izan bear duten, zuei zeren Jaungoikoak artuko dizkitzuten kontuak, zuek zeren

etxeakoak, zeren umeak, edo zeren pekoak ez ongi akitzera! Bada zuen gain izain dira, bai, zuenak ezezik, oriek, zuek ekusiz, zuei adituz, edo zuekgandik ikasiz egiten dituzten txarkeriak eta bekatu guziak!

Guziak ekusten ditu gaur gure Jesusek bere gurutze nekagarritik; eta guziak dira, Jesusek borraroen eskutik artzen dituen neke guzien anditzalleak; eta guziak zuen oben kulpak; dira alabaña edo zuek zerok egiñak, edo nolerebait zuek zerok eragiñak, edo egiten utziak.

Gaizkiarena! An arkitzen ziran erromatar soldaduak ekusi zuten, israeldar andi-txikiak Jesusi egiten ziotena; ta oriek ere gaitzerako israeldarrekin bat egiñik, asi izandu ziran, israeldarren eran, istaka, ta bur-laz Jesus onarekin; ta Jesusen gurutze ondora urbiltzen zirala, erran izandu zioten, era orretakoak orretara ezkeru, erran oi dutena; ta gañerako gauzen artean, erran izandu zioten: Ori: adi zazu; judatarren Erregea baldin bazara zu, zertan zaude or, gurutzetzar orretan?

Jaitsi zaitez ortik zu; ta artu zatzu zuk, zure Erregetasun andiari dagozkan itxurak, etxeak, eta soñekoak. Begira zagozu zuk zere buruari, ta ez dezazula ori or zuk utzi galtzera. Gaizki dirudi, Errege bat bere

buruaz ezin baliatuz, zu zauden eran, illik gelditzea.- Au guzia, ta anitz geiago, adirazi zioten aldi artan Jesusi soldadutzar arroak. Eta, elkargana gero itzulirik, asiko ziran irriz, ta farraz; ta luzaro egoin ziran, Jesusi, ero bati bezala, ista ta ista egiten ziotela.

Ekusi zuen, Jesusen bi saietsetan gurutzeturik arkitzen ziran lapurretatik batak, soldadutzar arroak ziarduketena; baita an zeuden apaizak, eta fariseoak, eta gañerako israeldar galduak, edo judu andi ta txiki guziak ziotena; ta orrek ere artu izandu zuen orien itz-keta bera, ta asi zitzaion Jesus nekatu maitagarriari erriertan, iskirioz, ta istaz; ta begitan eman zion Jesus maitagarriari, an aditzen zituen baldankeri ta gaizki guziekin.- Orra erakuste ta ejenplo gaistoarena: Etxetik badoa auzora; auzotik errira; ta erritik askotan erriz erri munduko bazterrik urrutienara!

A gaisoak zuek, orretarako bidea ematen dezutenak!- Eta eman ote dut nik ere noiz edo noiz? A nere Jesus maitagarria; ta zenbatetan!

4. Zer izandu ote zuen bere gogoan Jesus maitagarriak, au guzia aditzen zegoen denboran?- Au aditzeko denboran, ekusi zituen, bai, gure Jesus maitagarriak Adanen bekatutik asi, ta azken ordurañoko bekatu guziak; eta geroko gizonen bekatuak ekusi zituen

judatarren orduko bekatu berriak bezain ongi, ta gar-biro. Eta aditze, ta ekuste onek zenbat gogortu ote zituen Jesusen ordu artako neke arrigarriak?

Neke oriek berez ezin arrigarriagoak ziran izatez. Bada orrenbat bekaturen astuntasuna beren gañera zitzaienean, nolakoak gelditu ote ziran, edo norañoko-ak?

Ekusten dezu zuk, Jesus maitagarriak aldi onetan guri agertzen digun amorea? Bada gure amorez daramatzi orain Jesusek orrenbat neke; ta neke, gure bekatz orrenbat astunduak: eta bear baliz ori, ni nerau bakarragatik eramain lituke Jesusek nekagi-ori-ek guziak bein ta berriz, ta askotan ere.

Au badakit nik; eta ez naz alere ni nere Jesusen amorez zoratzen!- Au badakit nik; eta bizi naz ni alere, bizi nazan eran? A, nere Jesus maitagarria!- Ez nekien nik au guzia, ez, orain dakidan bezala: ta damurik ez dut nik au guzia jakin izandu lendabizitik! Bada au guzia ordutik nik jakitera, ordu beretik utziko nituen nik nere erakeriak, eta asiko nintzan ni zu ziñez maitatzen!- Dakidan ezker-ori-ek nik au, bertatik nai dut asi nik nere lan onetan, niri gaurdanik biziro zuk lagun-tzen didazula.- Lagun zakizkit bada, nere Jesus maita-ri-maitagarria; bai arren, bai!

Et sedentes servabant eum.

Matth. 27. 36.

Etzaude gaizki, ez, Jesus maitagarria, gaur gurutze orretan zu zauden bezala! Zuri dagokizun Katadera, edo Tronua da Ait-eternoaren edo Katadera bera, ta an ere Aita beraren eskoieko aldetik egotea; ta orra non ekusten zaitudan nik gaur bi gaistagin lapurren artean, gurutze orretan esku-oñak iltzen josiak daduzkatzula, ta zere buru guzia arantzazko koro batek urratzen dizula!

Zure guardiak dira zeruko aingeru, ta kerubin guziak; eta orien orde z orra non dituzun or laur soldadu-tzar, borrero egiñik, gurutze onetan iltzen zaduzkatena.

Zeruko guziak zutik daude beti, edo prest beintzat, zuk nai dezun edozein gauza bertan egiteko: ta soldadutzar oriek ez daude, ez, zuk oriei erraten diezun gauzarik egiteko; ta oriek orretarako prest egon lekuan, or dautza lurrean, edo jarririk or daude beren gogara!

Ai! ori egoera, Jesus maitagarria, soldadu oriena; ta ori egoera denbora berean zurea! Soldadutzar sendorrek, gau guzia berak nai zuten eran eraman dutenak, laur pausu eraman, ta irur iltze zuri zere eskuoñetan zeren sartu dizkitzuten, anitz enoiatuak arkitzen dira; ta, zutik ezinegonez bezala, eseririk eta jarririk daude: ta zu, gau-goiz eraman ditezkeen gais-toenak eraman ondoan, azotez, ukaldiz, ta nekez zere etsaiak erdi illa zaduzkatela, zutik zaude zere guru-zean!

Oñak josten dizkitzue iltze baten gañean daduka-zu zuk zere gorputz guzia; ta, zere eskuz zu baliatu naiagatik, josi-urratuak daduzkatzitzu biak, eta oñaze bortitz arrigarriekin oriek ere!- Orrela zaude, zu, gure Jesus maitagarria, ordu batez, ordu bidaz, ta dezun odol guzia zere biziarekin nere amorez eman artean!

Nigatik, zuk, nere Jesus, gaur daramazuna! Eta zer ote da, nik oraindañokoan zure amorez eraman izan-du dudan neke, ta naikabe guzia?- Batere bezala edo ezer-ez bat, nigatik zuk or daramazun orren aldean; bada nik zu gurutze orretan ekusiagatik, elizan nago-enean ere, egin oi dut soldadu-tzar gogor oriena, edo jarririk, eta aisa ni an egotea, ta zure nekeak anitz ni penatzen ez nautela.

Eta elizan nik au, ta zuri ni begira nagokizula, egiten dudan eskergabe txarrak, zer egiten ote dut gañerako nere gauzetan?- Zer? Nere burua nik zure izeneko nekeekin eskura bearrean, al ditudan aisak, ase-tzeak, eta atsegiñak ematea.- A, zer, nigatik gurutzean dagoen Jesus maitagarriaren umea ni?

*Omnes videntes me, deriserunt me:
locuti sunt labiis, et moverunt caput.*

Ps. 21. 8.

Dabidek urrutitik ekusi zuen, zuk gaur ekusten dezuna, gure Jesus maitagarria; ta, gaur zuri zere etsaiak egiten dizkitzuten gauza gogorak ekustean, zure izenean dio, den guzia naigabez beterik arkitzen dela: Ekusten ninduten guziak istaka zegozkidan niri nere gurutze nekegarrira! Ara niri, nitaz urrikaldu lekuan, erran izandu zidaten, gogo gaistoak ematen ziena ta berak nai zuten guzi-guzia: ta erran alak oriek niri erran ondoan, asi zekizkidan niri, urratu-josi-penatuari keñuka begiz ta buruz; ta etziran gelditu oriek ez istaz ta burlaz berak ongi aspertu artean!-

Baña zuk, gure Jesus maitagarria, zer egin izandu ote zenuen, orrenbat bidegabe ta txarkeri ekusten zeunden denboran?

Begiak bildu, ta gelditu ixili-ixill, zenekienak beza-la, zere gain artuak zenituela zuk gure bekatu guziak; eta oriei zegozten gauzak zirala, zuk or ekusten, ta aditzen zenituen gauza guziak.

Eta zer egiten dezu zuk, nere Jesus maitagarria, geroztik nik ista berak berritzen, ta gaistoagoak ere egiten dizkitzudan aldietan?- Zer egiten dezu zuk, nere Jesus maitagarria, niri nere gogoak ematen didan txarkeri au, edo ura, ta zure lege onaren urratzeren bat edo beste, egiten dudan aldietan?- Zer, nik seigarrereko bear ez diran itzak, kankak, lausengak, eleak, edo erakeriak erraten ditudan aldietan?- Zer, zuk nere aserrera sutuak aditzen dituzun aldietan?- Eta zer, nik nere ibilliz, asmatuz, ta keñadaz bidegabeak egiten ditudan aldietan?- Ixillik gelditu zu, ta itzik ere atera gabe.

Zergatik au onela? Niri zuk erakusteagatik nai ez nuken gauzaren bat ekusten dudan aldietan nik neronek egin bear dudana.

A! ikas baneza nik orain badere, zuk gaur erakusten didazun au, nere Jesus maitagarria! ta utz banitza

nik orain, oraindañoko nere txarkeriak, ta oben-kulpak!

Ori da, nere Jesus maitagarria, zuk oraingo zere egoera umil-ixillarekin eskatzen dezuna, ta nik egin bearra: izan nai badut nik zure erakoa, ta zerurako dauden zure umeetatik bat. Ala gerta dedilla; bai arren, bai!

Et lingua eorum gladius acutus.

Ps. 56. 5.

Nai ez luken itz batek erdiratzen dio bati bere biotza, aditzen duenean itz ori anitzen artean, beintzat oriek orduan ura ontzat artu, ta istaz ta irriz abiatzen bazaizka.

Eta zer izain lizuke, itz orren aditzalle guziak elkar arturik, betetzen balute denbora berean bera itz gais-toz, naigabe latzez, ta burlaz, ta irriz!- Orra bada, orra gaur gure Jesus maitagarriari gertaturikakoa!

Itsasoak ur gazi adiña neke ta oñaze duela dago gaur gure Jesus maitagarria bere gurutzean; ta oriez urrikaldurik, negarrez egon bearrean, Jesusi begira dagozkanak, istaka dagozka guziak; eta erraten dio-

ten, itz bakoitzarekin, ezpata zorrotz batekin bezala, igarotzen diotela bere bioz guztiz minbere maitagarria.

Andiak ziran, bai, bere ekuste, ta aditze onetatik Jesus maitagarriari zetozkion naigabe-nekeak: baña agitz eta agitz andiagoak ziran beste ekuste batetik zetozkionak.

An aldakan zedukan Jesusek bere Ama maitagarria. Bere Aita Eternoa ezpazen, etzen arkitzen Jesussek Ama an bezain maite zuen gauzarik bat ere; eza gutzen zuen Jesus maitagarriak, bere Ama onek au aditzen zituen gauzak ezin geiagoraño miñduko ziotela bere biotz minbere guztiz maitagarria: ta bere Amaren miñ arrigarri onek, bere min guziak baño, neke ta oñaze geiago eman izandu zion Jesusen biotz beratxurrikalti maitagarriari; bada, bere Amari zion amorea ezin andiagoa zen; ta, Amari zion amorearen erakoak ziran Jesusen neke-oñazeak; eta orregatik ziran ezin andiagoak.

Eta zuk zer diozu, Jesusen Ama maitagarria, zere Seme Jaungoiko-gizon obenbageko Jesus onenbat oñazerekin ekusten dezunean? Zer emain zenuke zuk, bere oñaze orien zati bat badere Jesus nekatuari orain zuk kentzeagatik? Emain ote zenuke zuk zere bizia,

dezun odol guziarekin?- Bai, ta Jesusen gurutze berean iltzez josirik urratzen zinduztela ere!

Siñisten dut, bai: badakit alabaña, bai, dakizula zuk nor den Jesus; bai dakizula zuk Jesusi zor diozun amorea; ta zure ezaguer onen erakoa dela zuk Jesus berari diozun amorea; ta zure amore au dela, mundukok izan dezaken andiena baño agitz andiagoa.- Eta nolakoa ote da, nere anima, zuk Jesus berari, ta onen Amari diozun amorea?- Ezin txarragoa!

Eta ori orrela zuk, Ama Semeak zugatik daramatena ekusi ondoan?- Bai bada!

Zergatik ori zuk orrela?- Zeren nere bekatuak ur egiñik dadukaten nere biotz txar galdu au; ta artu nai ez duen zeruko amorearen su au, era onetan arkitzen den biotzak!

Urtu zaitez bada zu damuzko negarrez, idortu dakizun lenbaitlen zere biotza, gero zu Ama-Semeen amorez errerik gelditzeko: ta, orretarako, asi zaitez alik zinkiena orain erraten: *Nere Jesukristo, etc.*

LXIV.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN GURUTZEKO ERAKUSTEA

A.

Jesusen gurutzeko itzaldi, ta erakuste bi

1. Gure Jesus maitagarria agertu zen giz-artean, gizonen Maisu izateko; ta bera jaio zenetik ill arteko denbora guzian, egin izandu zuen Jesusek bere egiteko au ezinobekiago; bada Jesusek egin, ta erran izandu zuena izandu zen erakuste garbi on eder ezin zuzenagoa.

Adirazi dugu guk oraindañokoan gañerakoa, aldian aldiko zerbait agertzen dugula. Ekus dezagun orain azkenekoa; ta, iltzeko zegoela, bere gurutzetik Jesusek erakutsi ziguna: ta adi dezagun zer erraten digun bere lenbiziko bi itzaldiotan.

Ekusi dezu zuk, nere anima, zein arrigarriak izandu ziran, ta zein bidegabekoak Jesusen gurutzeko nekeak?- Ekusi dezu zuk Jesusen neke oriek andirazteko, beren begiz, beren buruz, beren miiz, eskuz, ta

alde guzietara, beraren etsaiak (eta anbat etsaiak) bere begietan Jesus maitagarriari egin izandu ziotena?

Eta badakizu zuk, denbora berean, zer egin izandu zuen Jesusek bere etsai orren amurratuekin, edo orren galdu gaistoequin; edo badakizu zuk, oriez urrikaldurik bein ta berriz, ta maiz, eskatu izandu ziola Jesusek bere Aita eternoari, oriek egin izandu ziozkaten bidegabe guzien barkamentua, zer egiten zuten etzekitenen lanak zirala guziak, erraten ziola: *Jesus autem dicebat: Pater, dimitte illis, non enim sciunt quid faciunt* (Luc. 23. 24.)

Ekusten dezu? Ez du Jesusek bere burutik oñetaraño bere etsaiak neke gogorrez, ta oñaze arrigarriz bete ez dioten zatirik bat ere.- Mii bera, odolik bagez, erdi igartua daduka Jesus maitagarriak; eta bere etsaiak eman dioten beazunarekin guztiz mindua; ta alere badarabil Jesusek bere mii bera bein ta geiagotan bere etsaien alde, ta erraten dio bere Ait Eternoari: Arrigarriak dira, nere Aita maitagarria, bai, nere etsai oriek zure Semearekin egin izandu dituzten gauzak: baña barkatu bear dieztezu zuk, batere utzi gabe, guziak arras.- Geienak beintzat ez dakite zer den, gaur oriek nerekin egin dutena; ta geiena dakitenak ere, ez dakite egiten duten gaistakeriaren erdirik.

Eta, dena dela, nere Aita maitagarria, orain nik zure izenean daramadanagatik, eta zeren zuk niri nai didazun dakizun adiña, egin bear dezu orain nik eskatzen dizudan au; ta barkatu bear diezu zuk nere etsaiei, orain oriek nerekin egiten dutena.

Gure Jesusen amorearen bazterrik bagekoa; ta Jesus beraren oraingo erakustearen ederra!- Jaungoiko-gizon batek baizik ezin eraman legizken nekez itozten dadukate Jesus bere etsai erdi-amurratuak; eta, bereaz azturik, otoika dagoka Jesus bere Aita eternoari, urrikal dakiela, era onetan dadukaten, bere etsai bekatariak; ez ditzala gal, erraten dio Jesusek Aita eternoari; ta, galdu-lekuan, atera ditzala beren bekatupetik; eta, graziaz beterik, utz ditzala zeruko bidean ongi sartuak.

A zer amorea, lan au egiten duenaren biotzean arkitzen den amorea! Au da alabaña, izandu diran etsairik andienak maitatzen dituenaren amore!

Eta, a! zer erakustea! bada bidenabar erakusten digu maitatzalle ezin andiago onek, guri geren lagunak egiten badigute, nai ez genuken gaizkiren bat orien gaizkiriari gaizkiz erantzun lekuan, urrikal gagizkiela beren animai oriek orretan egiten dioten kalteagatik; eta oriei guk begitarte onik galdu gabe, dagie-

gula alegiña otoitzez, ta beste moduz beren bekatutik lenbaitlen aterazteagatik.

Ekusten dezu zuk, zein ederra den Jesusen orain-go itzketa, ta gurutzetik ematen digun lenbiziko erakuste au? Ikasi dezu? Baña egiteko? Ala gerta dedilla; bai arren, bai.

2. Bere bi aldeetatik Jesussek zeduzkan lapurretatik, batuk ezagutu zuen Jesusen otoitz onetan, ta gañerako beraren gauzetan, Jesusen Jaungoikotasuna; ta eman zion lapur onek Jesus maitagarriari biderik aski lapur beraren atsegin andizko itz batzuetarako.

Beste lapurra gelditu zen, judatar gogortuen eran; ta, bere oñaze latz-gogorrek estaturik, asi zen Jesusi erraten judatar galdueti aditu zieztenen erako gauzak; eta besteen artean: Zu bazara Kristo Salbatzallea, zertan zaude zu or gurutze orretan? Zergatik ez dituzu zuk zere esku oñetako iltzeak ateratzen? Zergatik etzara zu, sendaturik, ortik jaisten? Eta zergatik ez gaituzu ateratzen zuk gu ere onenbat geren nekeren artetik?

Erran nai zion bere mintzoera onetan lapurtzarrak gure Jesus maitagarriari: Bai! lagun onarekin etorri gara gu leku eder onetara, gure Jaunari eskerrak!

Gezurti baten ondoan gaude gu gaur geren gurutzetan ongi josiak; eta orregatik gaude gu gaur neke utsez ta oñazez agitz itoak. Zorigaistoan jaiok zu, ta gu guziok, onen gaizki bukatzeko guk geren egunak!

Etzion itzik erantzun Jesus maitagarriak, era onetan mintzatu zitzaion lapur gogortuari: baña erantzun zion lapur beraren lagun onak, aren itzketa gaistoari, aren blasfemiari, ta errate eroari zegokan gauza bat, erraten ziola: Gizona, zer da, zuk orain dorausazuna? Ez dakizu zuk, nor zaran zu; ta ez dakizkitzu zuk, zuk zerorrek egin dituzun gauzak? Orrenbat zure gauza gaistogatik iltzera zoaz zu. Ordu bat baño len, edo anitz geiago luzatu bage, zere Jaunari zu zere gaizki guzien kontuak eman bearra zara; ta zere Jaungoiko berari orain zuk damuz barkamentua eskatu bearrean, bekatu berriak egiten ari zara zu?

Zuk eta nik ongi irabaziak daduzkagu, bai, orain guk daramazkigun geren nekeak; baña onek (baña Jesusek) ez du gauza gaistorik egin izandu bein ere, ta obenik bage darama bere gurutzeko neke au guziguia.

Era onetan itz egin zion Jesusen alde lapur onduak, edo ontzen asiak, bere lapur lagun gaisto gogorrari. Eta lapur ondu onen itz egitearekin, ta bere

ixillera guztizkoarekin erakutsi zigun guri gure Jesus maitagarriak, era bereko aldietan, edo gaizki zenbait guk aditzen dugunean, egin bear duguna: edo erakutsi zigun Jesusek, guri erranak diranean, guk aditzen ditugun gaizkiak, ez-aditu egin, ta ixillik gelditzea; ta besteri erraten zaizkanean, erralle gaistoa itz onez ta bide zuzenez guk ixili-eraztea: eta, au guri Jesusek erakustean, adirazi zigun, nolanai erranak izan ditezela guk aditzen ditugun gauzak, oriek guk eramaten baditugu emeki, ta gure Jesusen eran, Jaun goi-zuzen maitagarriak billatuko duela gure alde aterako den nor edo nor: ta orduan gu aserretu, ta erriertan asitzen bagiña baño agitz obeki, geldituko garala Jaungoiko beraren, ta mundukoen begietan itzik atera gabe.

Ai! au siñisturik, egiten bazenu zuk, gure Jesusek orain erakusten digun egiteko zuzen au!

3. Jauna, erran zion gero Jesus maitagarriari lapur ontzen asiak berak: Jauna, iltzera zoaz zu; baño, orain nik dakusadanaz, zere Erreinuko Tronu zorionekora zaramatzi zu zere eriotzak: eta aratzen zaranean zu, oroi zaitez, arren, zere bazter onetan dadukazun lapur bekatari gaisoaz ere.

Aitortzen ditut nik, bai (ta pozik alere), nere bizi guzian egin izandu ditudan, ta zuk dakizkitzun, gaistakeri guziak; eta aitortzen ditut guziak, egin ditudalako, ta oriekin zu nik aserretu zaitudalako damu andiarekin.

Orain nik nere gaizki oriekgatik daramadan nere gurutzeko neke au izan dedilla, oriekgatik nik zuri zor dizudanaren alde; ta barkatuak gerta ditezela bertatik oriekgatik nik ditudan zor guziak. Bai arren, bai, nigatik ezpada ere, orain zuk or daramazkitzun zere nekeakgatik, eta dariezun odol eder-garbi orregatik!

Au lapur ark erran orduko: ongi da, bai, erantzun zion Jesus maitagarriak; gaurdanik egoin zara zu ere, ni arkituko nazan tokian, ta, ongi illik, zeruratzeko daudenen artean; ta ni gero zeruratzen nazanean, an sartuko zara zu ere oriekin batean; ta an egoin zara atsegin ta kontentuz beterik eternidade guzi-guzian.

Orra, nekaturik arkitzen den bekatariari, bekatariak bere bekatuakgatik dituela bere nekeak ezaguturik, bekatu beren alde, ta bere Jaunaren izenean oriek artzen dituenen, Jesus maitagarriak egin oi diona; bere bekatuak bekatariak bear bezala aitortzen edo konfesatzen dituen aldian, barkatu arras guziak: gra-

ziaz beterik utzi bekataria; ta bekatari gaisoari eman zerurako eskua, indarra, ta laguntza.

Zein eta gure Jesus maitagarria! Zein beratxa! Zein ongillea! ta zein maitagarria!- Eta alere utzi nai dezu zuk zere Jesus lapur gaistoak bezala, zere gaizkiak konfesari baten oñetan ez aitortzeagatik? edo zere bide, urrats, eta pausu gaistoak ez-utzi-naiez?- Egunen batean damutuko zaitzu, bai, zuri ere, orain lapur gaistoari damutzen zaion bezala!

B

Jesusen beste bost itz-aldi, ta erakuste

1. Zenbat ere nekatua zegoen bere gurutzean gure Jesus maitagarria, etzen Kalbarioko mendian arkitzen, Jesusek aldi artan ekusten etzuen gauzarik batere.

Etzeuden Jesusen gurutzetik urrun Jesus beraren Ama, ta S. Joan Ebanjelaria; ez-eta Maria Kleofe ta Maria Magdalena ere; ta, bere etsai gogorragatik Jesusek otoitz egin, lapurrari ontzen lagundu, ta onek Jesusi eskatu ziona eman ondoan, begiratu zion (zer

begiz? nork au adirazi!) bere Ama maite maitagarriari.

Bere begiratze berean biotzez adira zion, zenbat atsegin artzen zuen an ura ekustez; ura zen alabaña, gañerako guziak baño Jesusek maiteago zuen gauza bat.- Denbora berean adirazi zion Jesusek bere Ama maitagarriari zein penatua zegoen Jesus bera, ekusirik, zekusan bezala, beraren urrikariz, ta berak mundu gaistoagatik zeraman nekeagatik, bere Amaren biotza itsaso gazia baño gaziagoa, edo itsasoaren gazitasunak baño oñaze, min, ta neke geiagoz betea.

Eta nolerebait arindu naiez bere Ama beraren biotzeko neke min airigarriak; eta seme onaren lan, al zitzaken guziak egin naiez, itz egin zion bere Amari; ta erran izandu zion: Orra zu, nere Ama maitagarria; orra zu laster gelditu bearra ni bage, ta bakarrik, mundu txar galdu-galgarri onetan. Baña bertatik ematen dizut nik nere orde, zere aldean dadukazun gizon ori. Orra non dezun gaugero errespetuz, ta bear den eran, begiratuko dizun zere semea: *Ecce filius tuus*.

Eta, geiago baño geiago orretara gizon au bear-tzeko, itzultzen ditu gero Jesus maitagarriak bere bi begiak jandone Joan Ebanjelariagana; ta erraten dio oni: Orra, begira, orra non dezun zuk zere Ama. Bada-

kizu zuk noren Ama den Ama ori; ta Ama orri, bere Amatasunagatik zor zaion begitartea, onestea, ta laguntza. Ez da zer ukatu ori guzia zuk orri bein ere: ta eman bear diozu zuk ori guzia bere denboran; ta eman bear diozu zuzen ta bear bezala.

Zer zen au, baizik Jesus maitagarriak Seme onaren lanak bukatu, ta bere Amari azkeneko Adio esatea?

Au bere Seme Jesusen aotik aditzean, nola gelditu ote zen Amaren biotz guztiz maitaria? Nola ez ote zen bertan itorik edo illik gelditu Jesusen Ama maitagarria?– Jaungoikoak ala naiez; ta gure onerako!

Eta zer erran ote zuen orduan, san Joan Jesusen ta gure senide maitagarriak?– Zer erran zezaken? Itzik ere! Bada era orretako ontarteak ez dute itz egiteko lekurik ematen. Damuak, negarrak, eta atsegiñak lotuak utziko ziozkan jandone Joan Ebanjelariari bere biotza ta miia; ta, arrituaren eran idukiko zuen, zen eran edo zer egin ez zekiena bezala.– Etzion bada deus erantzun itzez san Joanek Jesus maitagarriari; baña erantzun zion lanez ta egiñez; bada egin izandu zuen beti zuzen-zuzen, ta ezin ederkiago, Jesusek orduan adirazi zion guzi-guzia: ta serbitzatu zuen alik ongiena, alik umilkiena, ta al zuen errespetu ta amore guziarekin Jesusen Ama maitagarria, Ama au ill ondo-

an, Jesusek berekin zerura eramán arteko denboran: ta ori da Jesusen ontarteei erantzuteko biderik onena; zuzen egitea, Jesusek berak manatzen digun guzuzia.

2. Neketan ta bearrean arkitzen bazen ere, bere Amarekikoa egin zuenean, itzuli zen Jesus, bere Aita-gana, ta asi zen erraten: nene Aita maitea, ta nere Jaungoikoa, ez dezu zuk ekusten bartanik asi, ta orain arkitzen garan orduraño, nik daramadana, ta gurutze onetan ekusten dudana? Irur modura doa, nere etsaiak ni emen nadukatela; ta ekusten dezu, nola nadukaten ni nere etsaiak: eta alere, ezer nik ezpane-kusa baño geiago urrikaltzen etzakizkidala dirudi!- Au nola da, nere Aita maitagarria?

Au erran ondoan, errain zion Jesusek bere Aitari biotzez, bada etzegoen itz anitz aldi batez errateko: baño badakizu zuk, nere Aita maitagarria, zergatik nagoen ni, nagoen eran, ta egin bedi nigan zuk nai dezuna, ta egin bedi zuk zerorrek nai dezun artean.

Zenbait atsegin, edo zenbait indar berri artuko zituen Jesusek bere Aitagandik, bere neke gogorak eramateko, bere neke gogorak era onetan Aita bera-ri agertu ziozkanean; bada orien eske zen Jesusen aldi

artako bere otoitza; ta otoitz ona ez da utsik itzultzen bein ere gure Jaunagandik.

Agerian, edo adi zezakeenak ekusten zutela, egin izandu zuen Jesusek bere otoitz au, ta era onetan egin izandu zuen Jesusek bere otoitz eder au, ikasi genezan guk guziok otoitz egiten geren neke ta premia modu guzietan; ta ikasi genezan nola guk geren otoitzak egin ere; edo eskatuz gure Jaunari bere esku-laguntza, ta guk nai genuken gauza ta ondasuna; ta ori guk ari eskatu ondoan, erranaz Jaun berari, digula gauz ura, edo, aren orde, berak nai duena; bada au izain da aldi artan guri dagokiguna.

3. Bazekien gure Jesus maitagarriak neke berri baten begira zegoela, Salbatzallearen bere lan arrigarri au bukatzeko.- Neke au ozpiñzekoa zen; ta au ere bere gain, beste guziekin batean, artu naiez, bere Aitari, bere otoitz au egin ondoan, erran izandu zion, an zeudenak aditzen ziotela: *sitio*: egarriz nago.

Au aditu zuenean, an zeudenetatik batek eman izandu zion lasterkari: sartu zuen ozpiñarekin zegoen ontzi edo baso batean, itsasoaren afar edo pits arro, esponj edo beloki zati bat; eta nolerebait ara kañabe-
ra puntan ezartzen zuela, eman izandu zion Jesus maitagarriari bere ezpañetara.- Au ark egitean, erausiz

zeuden gañerakok, eta erakerizko itzak erraten zituztela.

Eta zer ote zen Jesus maitagarriak aldi artan egin izandu zuena?- Itz eroez kasorik ez; baña, Eskriturak ziona, ezin zuzenago: edo ezpañak zabaldu; ta mintasun utsa eramateko bear zen adina ozpiñ artu, ta geiago ez!

Jesus maitagarria! nonbait andia da gure bekatuen zorra, ta zure Aitak guregan edo gu-baitan duen artzekoa; bada gure zorren alde orrenbat zuk gurutze orretan eraman ondoan, zere egarria iltzeko bezala, ematen zaitzun edaria ere ozpiñ utsa da, ta irabazgai guztiz nekagarria; ta ori zuk artu denboran egiten dituzu nekezko irabazi andi berriak.- Alere andiagoda, gure Jesus maitagarria, guganako zure amorea; bada zere Aitaren ta gure amarez pozik daramazu zuk, lenen gain, edari latz orren azkeneko neke ori ere.

Ez dakit nik zer egin, nere eskertasuna zuri erakusteko, nere Jesus maitagarria. Besterik zuk niri adirazi artean, nik egiñen dudana da, alik zuzena nik zure Legeko gauzak egitea, naiz errazak izan oriek, naiz latzak, naiz miñak, naiz gogorrak, naiz nolakoak nai, zuk zerorrek niri nere lan onetan laguntzen didazula.

4. Edari latz onekin bukatu zituen Jesusek, bere Aitak gure gulpen alde eskatu ziozkan gauza guziak; eta oriek bukatu ondoan, erran izandu zion bere Aita berari: Orra, Aita, orra, egiñik dago zuk niri adirazi zenidan guzi-guzia: *Consummatum est*. Gizon eginik lurrean bizitzen ni asi ezkerozko denboran, egin dut nik, zuk zerorrek dakizun bezala, aldian aldikoa; ta egin dut nik au guzia, zuk nai zenuenean ta zuk zerorrek nai zenuen bezala; ta ez da egin bage gelditzen misterio, edo gauz andi edo txikirik batere. Gañerakoak aldebat uzten ditudala, nekezko gauzak ziran guziak, zuk dakizun bezala; ta agitz arrigarriak, beintzat bart arratsetik oraindañokoak.

Baña, ziran baño arrigarriagoak izandu balira ere, guziak egiñen nituen nik zure amorez, ta gizonen onerako; ta egiñen nituen nik biotz osoarekin, ta zuk nai bezala, ta zuk zerorrek adirazten zenituen eran.

Zenbat atsegin artuko ote zuen Aita eternoak, au guzia Jesusen aotik aditu zuenean? Bada atsegin egi-ten dio edozein gurasori bere seme onaren ibillera zuzenak; eta ezin ager diteke, Jesusek bereak baño, zuzenago gauzak egin izandu dituen semerik; ez eta, Aita eternoa bezalako gurasorik ere.

Bere Aitari Jesusek atsegin au egitean, erakutsi zigun guri, Aita berarekin ta gure guraso ta kargudunekin guk egin bear duguna; edo erakutsi zigun nori bere gauzak zuzen egitea; ta geren egite zuzenarekin, bakoitzari dagokan atsegin garbi bero bat ematea.- Zorioneko umeak gu, ori guk egin ondoan, gu ere Jesusen eran iltzera!

Nekezko lana da bai, batek beti egitea, Jaungoikoa bakarrik batzuetan, ta besteetan Jaungoiko berak gure gurasoekin edo gure eskudunekin batean, nai duena; baña gure neke au guzia laster bukatzen den neke txarra da, ta eternidade bateko atsegin-gloria dakarren nekea; ta orregatik da neke guztiz maitagarria.

5. Itz au erran ondoan gertatu zitzaion Jesus maitagarriari, berez iltzen den argiari gertatu oi zaiona.- Argiak, berez iltzean, botatzen du, len baño ere garandiagoa; ta gure Jesus maitagarria illik gelditu zen, iltzean bere Aita eternoari itz oso indartsu batekin erraten ziola: Aita, zure eskuetan uzten dut nik nere anima, edo nere ispiritua. Eta orra azkeneko Jesusen itzak!

A! nork, bere iltzeko ordu artan, erran litzaken itz berak!- Nork esan litzaken oriek, bere biotzean, Jesu-

sek baño asaldazio geiago ez duela, ta bere anima Aitaren eskuetan geldituko delako, edo Jaunaren graziarekin ill ondoan arkituko duelako, ustean!

Uste au orduan nai duenak, artu bear du Jesusek orain erakusten digun bidea; ta bide au artu, ta ibilli bear du, bekaturako makurtasunak utzirik, aldapaz aldapa, ta nekez neke, gure Jesusen Lege garbiak ori eskatzen duen aldioro.

Eta alere gure nekerik andienak ez dira, ez eun legoaz ere, gure Jesusek eraman dituen nekeetara urbilduko.- Ezurrez ta aragiz jauntzia zegoen gure Jesus, gu bezala. Gurea baño gorputz agitz minberea-goia zen gure Jesusen gorputsa. Jesusek etzuen obenik batere, ta gure amorez eraman zituen bere neke guziak.

Eta zer? Guk geren onerako, ta geren kulpen alde ez dugu eraman bear, bizitza garbi zuzen batek eskatzen duen neke zatia; ta neke-zati, Jesusen neke gogorren aldean, ain arin-txar-txikia!- Bai, nere Jesus maitea, bai! ta pozik alere, zuri begiratzuz, ta zuk niri nere lan onetan laguntzen didazula!

Consummatum est.

Bukatu dira beraz, Jesus maitagarria, zure aurta-suneko, zure gaztetasuneko, zure giza-denborako, ta zure pasioneko neke guziak?

Bukata dira beraz zure Biotzeko illuntasunak eta tristurak, zure odolezko izerdiak eta flakiak?

Bukatu dira beraz zure bi loetako, ta buru guziko arantzen zulatzeak, iltzez urraturikako esku-oñen oña-zeak, eta buruaren erpiñetik beatz azkeneraño-ko neke ta min guziak?

Egin dezu beraz gure bekatuen alde, zure Aitak eskatzen zuena; ta guk gerok nai izatera, izain dugu guk orien barkamentua, ta onak izateko bear dugun zure laguntza ta grazia?

Ordu onez, bada, gure Jesus maitagarria; ta eternidade guzian bedeika zaitzatela zu, zure onenbat nekez baliatzen diranak; eta bedeika zaitzatela zu oriek, ni beren artean nautela!

Eta zure nekeaz baliatzen ez diranak, Jesus maitagarria zure Legea urratuz, ta beren gogara dabilzanak, zertan gelditu bearrak ote dira? Nola bukatu bear ote dituzte oriek beren egitekoak eta lanak?- Orretan badabilta, ezin gaizkiago: bada oriek, beren egiteko

oriek bukatu orduko, sartuko dira egiteko berri andietan, ta neke gogorrean; ta neke, eternidade guzian ere, bukatuko ez diranetan!

Neke oriek nere gain artu bearra naz ni, orain nik ez artzera gure Jesusen izenean, ta nere onerako neke garbi labur batzuek!- Ez orrelakorik, ez, nere Jesus maitagarria: ez eta mundu guziagatik ere! Zurea nai dut izan nik, bizi naizaño baita beti-betiko eternidadean ere: ta bertatik nai ditut nik orretarako bear diran neke guziak.

Betoz, bada, Jesus maitagarria; ta betoz zure laguntzarekin batean; bada nere nekerik luzeenak ere laster bukatuko diran nekeak dira; ta ez dira bukatzen, oriek dakazten sekulako atsegin-kontentuak; eta oriek nai ditut nik; eta, oriek dituen zerura nai dut nik, an zu beti ta beti maitatzen egoteko, nere iltzean emen ongi erran ondoan: bukatu da: *Consummatum est*: Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria; bai arren bai!

Ecce in manibus meis descripsi te.

Isai. 49. 16.

Ezagun zaitzu, bai, gure Jesus maitagarria, garaitu dituzula zuk zere etsaitzarrak, iltzeko zaudela zu orren indartsu arkitzen zaranean, ta orren, itz andi-biziekkin Aitari ots egiten diozunean, ar dezala bere eskuetan zure bizitza, zure espiritua, edo zure anima: *Et, clamans voce magna, ait, Pater, in manus tuas commendo spiritum meum*: bada, bere etsaiak garaitzen ez dituen soldaduak, ez dio eskaintzen ezer bere erregeri, ta ixillik dago, edo aiez ta negarrez, bere Erregek kontuak artzera deitzen dionean.

Garaituak gelditzen dira, bai, zure etsaiak, Jesus maitagarria. Bear bezala atera dira, bai, zure pausuak, zure itzak, ta zure ukaldi guziak.

Ongi nekaturik gelditu zara zu, bai; baña etzaitzu galduko, ez, zere neke guzietatik neketxo bat ere; neke orien alde itzuliko dizu zuri zere Aita maitagarriak, orain pozik artzen dizun zere nekezko bizitza; ta zere bizitza berriarekin batean emain dizu zuri zere Aita eternoak bere eskoi aldea; ta eternidade guziko gloria.

Ongi: ta zertako dira, Jesus maitagarria, oraindaño zure peletak, eta neke guziak? Ez dira oriek, garai ez nazaten ni nere etsaiak? Orregatik diozu zuk, nerekin diardukazula Isaias profetaz. Ona non zauden zu

nere eskuetan letra ederrez ezarria, ta eskribitua; ta emen zenduzkadan nik zu, edo nere gogoan ongi sarturik zeunden zu, nere peleetan ta nere neke ta oñaze guzietan; ta nere neke-oñaze-pele guziak ziran zure onerako.

Egia diozu, bai, nere Jesus maitagarria; egia diozu! Baña nik ez artu nai izandu nere onerako zure neke-pele-garaitzalleak! Ni oraindañoko nere denboran, zu utzirik ibilli izandu, nere etsai galgarrien artean, ista ta irri zure nekeez egiten nuela, edo bekatuz bekatu ta gaizkiz gaizki!

Eta ez da au esker-gabetasun eroegia? Onetan iraun bear ote dut nik nere ill artean? Ez-eta begiak iste-idikitze batez ere! ta zorigaistoan egondu naz ni orretan beste anbeste denboraz ere! Nik gaurgero egin nai dudana da, nere Jesus maitagarria, nere leneko gaizki guzien barkamentua damuz erdistea; ta emendik aitziañoako bizitz on batekin, zure eskuetan nere anima au uztea; iltzen nazanean ni, eraman nazazun zuk zere Aitaren eskuetara, ta eternidade guziko gloriara.- Orretarako dira Jesus maitagarria, zure eskuetako lan ta neke guziak. Balia dakizkidala bada; bai arren, bai!

Et., inclinato capite, tradidit Spiritum.

Joan. 19. 30.

Gurutzearen ondoan zaude zu, Jesusen Ama maitagarria, ta ekusten dezu, nola gelditzen den or zure Semea.

Bere Aita eternoari egin dio, or iltzean, zure Seme Jesus maitagarriak agur andi bat; eta denbora berean egin dizu zuri ere agur bera; ta izan bagez non utzi bere burua, an gelditu da, lantzak urratu bear dion bular aldeari begira bezala; ta, gure amorez ill delako egoerarekin.- Odolez, ta listuz guztiz betea daduka Jesusek bere buru bera, ta bere aurpegi guzi-guzia.- Biotzean dadukan odol tanta bat baizik ez diote utzi borrero gaistoak, edo gure bekatuak Jesus maitagarriari; ta ori ere laster aterako dio, bai, biotz beraren erdiraño sartzeko dagoen lantza gogorak: eta gelditu da Jesus, illa baño ere illagoa dirudiela: ta zere Seme Jesus illa garbitu, ta ill-oialez zuk, Ama maitari maitea, estali naiagatik, ez dizute utziko zaitzen dauden soldaduak; eta lan ori oriek zuri egiten utziagatik, ezin egin zenezake zuk: bada zutik dago gurutzea, ta gurutzean

iltze andiz josia dago Jesus;ta dago, zuk ezin erditsiko dezun lekuan!

Zuk dagikezun guzia da, Ama maitagarria, negar ta oñazez urturik, Jesusi begira egotea!- Ala zaude, bai, Jesusen Ama maitagarria; ta, naiagatik ere, nola zenegike ori besterik zuk? Ill dizute alabaña, amak izandu duen semerik onena maitariena ta maitagarriena; ta Seme, gañerako ama guziak beren semeak baño agitz, eta agitz zuk maiteago zenuena: ta ill dizute obenik bage, ta oraindik eman den, sentenziarik eta eriotzik gaistoen gogorren, ta galduenarekin!

Egizu, bada, negar ta negar, Jesusen Ama ezin maitariagoa; badezu, bai zergatik negar egin: ta ez dezazula begiratu zere Seme Jesusen iltzalle gogor galduetara; galdua naz ni bestela; bada ni naz, ni, nere bekatuekin orietatik bat; eta, bearbada, gaistoe-netatik.

Edo begiratzekoetan zuk orren iltzallei, izan bedi zere Semearen otoitz bera zuk egiteko, ta Aita eterno-ari zuk errateko: Aita, barka bekie nere Semearen iltzallei, edo bekatari trastei, orain ori iltzean egin duten bekatu izugarria.

Kendu diozkate oriek, bai, zuk zerorrek dakusazun bezala, bere odola ta bizitza nere Seme Jesus maita-

garriari: baña, bere iltzalle beren onerako, pozik zuri nere Semeak emanak dira oriek. Baña dakiztela, bada, ta geldi ditezela onduak, oraindañoan gaizki bizitu diranak. Indazu atsegin ori, onenbat nere naigabereren artean.

Ala egiñen du, bai, Jesusen Amak ekusten bagaitu gu geren gaizkiez ongi damutuak; eta, gaizki berririk ez egiteko asmoan, ziñez ta biotzez erraten diogula geren bekatuekin illerazi diogun bere Semeari: *Nere Jesukristo, etc* .

LXV.garren OTOITZ-GAIA

**GURUTZEAN ZEGOENEAN JESUS,
AITA ETERNOAK ONEN ALDE EGIÑA**

A.

Zeruan Aita eternoak egiña

1. Jesusen odol tanta bat, edo Jesusen nekerik txikiena, aski ta sobera zen munduko bekatu guzien alde; zen alabaña Jaungoiko-gizonaren gauza; ta orregatik zen bazterrik bageko balioa.– Baña nola-ere-bait guri adirazteko bekatuaren zor itsusi-arrigarria, ta guganako Jesusen amore ezin-andiagoa, nai izandu zuen Aita eternoak, eraman zitzan beraren Seme Jesus maitagarriak ekusi ditugun oñaze guziak eta gurutzeko eriotza.

Eta bidenabar guri adirazi naiez, onegatik zela, ta ez ezin-geiagoraño Jesusi Aita eternoak naigabez, Jesusek zeramana, ta, au guzia Jesusek zeraman denborako Aitaren isillera ta bere Seme Jesusen alde geldirik bezala egotea; Jesus bera bere gurutzean zegoen denboran, ta Jesus an iltzean egin izandu zituen Aita

eternoak zenbait gauza, nor zen Jesus ta zenbat Aita berak Jesusi nai zion ongi adirazten zutenak.

Borreroak Jesus gurutzean josi, ta laster, eguerdia bazen ere, ta odeik eta lañorik bageko egunaren erdia, beltzez bezala jauntzi zen zeru guzia; argirik bage bezala gelditu zen eguzkia, ta ez-gau-ez-egun egiñik gelditu ziran gañeko aizea, ta azpiko lur guzia; alakoa zen egun artako illuntasuna!- Alere etziran izutu apez-nagusiak, eskriba gogorrek, Lege zarreko erakusleak, fariseotzar arroak, eta gañerako Jesusen etsaiak. An egondu ziran guziak Jesusi begira ta iski-rioka, Jesus ill arteko denbora guzian, zeruaren dolura ta orduko illuntasunera oartzen etziranen eran; ta bear bada, oartu ere bage: ain itsutuak zeuden oriek, edo ain erre-amurratuak Jesus onagana!

Andik urruti, ta itsasoaren beste aldean arkitzen zen (ta jentil oraindik, eta Jesusen berririk bage) Dionisio Areopajita deritzan Santua; ta erran oi da, arriturik gelditu zela gizon andi jakintsu au, eguzkiaren orduko illuntasuna ekustean ta erran izandu zuela: Edo neketan dago gauza guzien Egillea; edo mundua bukatzera doa.- Eta denbora berean Egille au, edo Jesus ona neketan (ta alako nekeetan!) dadukaten judatar gogorrek, ez dira oartzen ere egun artako, ta

bertan dadukaten illuntasun berera; ta atsegin andiarekin daude, neketan dagoen, Jesus obenbageari istaka ta begira: izanagatik orduko illuntasuna, orien ibillera gaistoak erakarria, ta Jesus obenbagearen alde Jesusen Aitak bidaldua.

Illuntasun au etzen izandu, ez, orren denbora laburrekoa; iraundu zuen Jesus ill arteko denbora guzian, edo irur orduz bezala: ta arte guzian egondu zekiozkan Jesus maitagarriari irriz ta istaka judatar gogorrak: eta, Jesus ill ondoan, ta illuntasuna kendu ta ere, lenekoak gelditu ziran, Jesus ill-erazi zuten apez-nagusi, kargudun, fariseo, ta gañerako judatar gaistoak.- Orra zer den pasionatuarena, ta gorrotuan edo gaizkian gogortuz ta gogortuz, edo gaizkira oituz, dijonarena; gaizkitik atera bage gelditzea!

B.

Jesusen alde Ait-eternoak Jerusalengo Elizan egiña

Zeuden bezain itsutuak geldi etzitezzen judatar galduak, edo ezagu zezaten nor zen gure Jesus maitagarria, edo Jesus zela, gurutze artan orduan egonaga-

tik, judatarren, israeldarren, ta munduko guzien Salbatzalea, egin zuen geiago ere Aita eternoak Jesusen alde.

Jerusalengo Elizan bazen *Sancta Sanctorum* zeritzan Aldare ta leku berezi bat. An zeuden Testamentuko Arka ta Lege zarreko zenbait gauza.- Leku au etzen agertzen bein ere. Kortin andi-eder batez gordetik zegoen; ta aratzen etzen, juduen Aita santua bai-zik; eta ori ere urtean bein baizik etzen aratzen.

Jesus iltzean, urratu zen gain-bera kortin au guzia, ta gelditu ziran agertuak, eta nork-nai ekusi zitzaken eran, barrengo gauzak. Aldare onen, ta ango gauzen agertze au gauz arrigarria zen judatar, ta israeldar guziendako; zen alabaña Jaungoikoak adiraztea, bukatu zirala Lege zarreko zeremoniak, eta egiteko guziak: etzuela geroztik toki artan Jaungoikoak jarduki nai judatarren Apez-nagusiarekin: ta berak illerazi zuten Jesus zela ordu artatik sekulako Apez-nagusia: Jesusen Eliza berrian izain zirala geroz-geiago, Jaunak ontzat artuko zituen Mez-ofrenda ta sakrifizio guziak: Eliz onetan agertuko zituela, Jesusen orde z geldituko zen Aita santuaren ezpañez, jakin bear ziran gauzak; eta gauz oriek, eta gañerako Jesusen Lege berriak bereisten dituenak, zirala Jaungoikoak begi onez eku-

siko zituenak; eta oriek egiten ez zituztenak, ezin izan zitezkeela Abranen, Isaaken, ta Jakoberen semeak, edo zerurako diranen lagunak.- Orra zein agertze arrigarria, kortin au urratzetik etorri zen agertzea!

Lege zarra zen judatar gogorren aitzakia, Jesusi bizia keneratzeko: ta Jesus bere gurutzean illik gelditzean, adirazten die Jaungoikoak judatarrei, bukatu dela juduen Lege zarra, ta ez duela Jesusen Lege berria baizik nai.- Ez-ekusi egin zioten judatar gogortuak beren Jaungoikoari, orain ekusten dugun agertze arrigarri au ekusi zutenean: baña ekuserazi zien Jaungoikoak, eta aitorrerazi egi au, emendik atera, ta sule-zera aurtiki zituenean: ta orduko, edo Jesus ill zeneko beren ez-ekusiagatik, eta gañerako beren bekatuagatik, an egoin dira lertzen ta urratzen eternidade guzian judatar galduak.

Eta ez ote zara zu ere an bertan egon bearra, judatar itsuen erako bekatari txarra, zere ez-ekuste ta ibillera gaistoagatik?- Jaungoiko berak adirazi dizkizu zuri, bai: baña bein baño geiagotan ere, zuk dakizun etxe artako zure sartzeak, zuk dakizun arekiko zure egoteak, zure ibillerak, zure itzketak, zure eskukak, eta kontuak; zuk dakizun dantzako zure ukitzeak, zure erabiltzea, zure begiratzeak, zure oinkak, zure eda-

teak, zure egoteak, zure andik atera ondoko zikinkeri ezaguntzak, eta asmoak, edo zuk an, edo aratzearekin, eragin oi dituzun gauzak dirala sulezekoaren legeko gauza galdu madarikatuak.

Au guzia zuri zere Jaungoikoak adiraztean, adirazi dizu ez dirala bat ere obeak zure ebastea, zure lapurreriak, zure gorrotuak, zuk zere bakartasunean egin oi dituzun zere barekeriak, edo erabiltze lizunak.- Baña zuk ez ekusi, ez-aditu edo ez-jakin egiten zenion bere ager-aldi eder orietan zere Jaungoikoari, ta era berean zu ibiltzera datozen denboretan, edo zu ill artean, judatar gogor itsuen bide makurra daramazu zu eta Jesusen Legea zikintzen dezula zabilta ta gero, zu ill ondoan, judatar gogorren bazterrean, edo oriek baño barrenago, sulezean sarturik gelditu bearra zara. Zorigaistoan jaioa zu, aratzen bazara zu emendik zu atera ondoan.

C.

**Lurrean ta arrietan Jesusen alde
Aita eternoak egiña;
ta judatar gaistoen gogortasuna**

Zeruko eguzkia, zeru bera, ta Jerusalemgo Eliza zebiltzanean onenbat dolu ta damurekin bezala Jesusen eriotzan, etzen geldirik egondu, ez, mundua, edo Jesusen oin-peko lurra. Asi zen au ere, al zuen eran judatar gogorreki adirazten beren gaizki arrigarria, ta ibillera zikin-bidegabekoa: ta, delarik ere mundu au, dakizun bezain astuntzar pisua, asi zen mundua, galdurik dagoela dirudien gizon baten eran, dardaraz ta ikar-ikara, damuz ta naigabez bere burua auts egin bear bazuen bezala.- Eta, auts egin ezpazen ere etzen gelditu mundua, ez, len bezain osoa, edo len bezalako; bada bere dardarekin erdiratuak utzi zituen, ta autsiak bere arrietatik anitz; eta denbora berean idikiak gelditu ziran, edo zabalduak illen obiak edo sepulturak.

Orra zein bidegabezkoa zen gure Jesusen eriotza! Orra zein andiak ziran gure Jesusen nekeak, eta judatar gogorren bekatuak.- Oriek ezin eramanez, edo, bere gaiñetik bekatu oriek kendu naiez bezala, ikara dago mundua, edo munduko lurra; ta batetik bestera dabil mundua, ezinegenez dagoen lekuan, edo bere tokian; edo dabil, nola-ere-bait bere tokitik iges egin nai balu bezala; ta bertzerik ezin duenean, urratzen ditu munduak bere erraiak, eta autsten du bere bio-

tza; bada autsirik uzten ditu bere barreneko arriak; eta oriek dira lurraren biotz-erraiak.- Eta, ekusirik mundu berak, edo lurrak, judatar gogorak Jesus onarekin egiten dutena, uzten die illei zabaldurik bidea, obietatik atera ta joan ditezen, Jesusen eriotzan negar egitera.

Lurraren ibillera, ta egiteko izugarri au ekusi zute-nean judatar gogor, Jesusi begira zeudenak, beldurrez ikara gelditu ote ziran, ta Jesusi eman ote ziozkatzen, zor zitzaion siñistea ta damuzko siñuak?- Bat ere!

Nola gelditu ote ziran, bada?- Jesus onagana, len bezain amurratuak gelditu ziran oriek, eta len baño ere agitz gogor-gaistoagoak. Gertatzen zekien judatar galduei, gure Jaunaren oraingo lanekin, lurrari eguzkiarekin gertatu oi zaiena.- Ematen diozka eguzkiak lurrari ta ematen diozka agertzen denetik gorde arteko denbora guzian, bere argia ta berotasuna, ta lur galduak, eskerka urturik gelditu bearrean, erantzuten die eguzki ederraren onenbat ontarteri gogortuz, ta bilduz; ta zenbat ere eguzkiak argi ta bero geiago ematen dion lur eskergabeari, anbat lurra bilduagoa, ta anbat gogorragoa.

Ematen diezte Aita eternoak judatar gogorrei Jesusen alde anitz siñale ta ezagu-bide; ta zenbat eta geia-

go ematen diezten, anbat itsu gogorrakoak gelditzen dira judatar galduak.

Ori bera gertatzen zaie beren gaizkietan anitz bekatariri, beren gaizkian oriek bein gogortzen asi ezkerok.- Orduetik oriek epelki aditzen dituzte, edo otz-otzean beren Jaunaren meatxu izugarriak, eta gizonen erranak.- Andre txar izukorren, ta aur txiki beldurtien ikaragarriak dirala uste dute oriek, gure Jaun guztiz altsuaren erranik bortitzenak; eta, guziak aditu ondolan, gelditzen dira ezer ez aditu ezpalute bezain berri ta otz; eta, bideak eman orduko, an dira oriek leneko beren gauza makurretan; eta egunoro dira, len baño ere agitz gaistoagoak.

Eta era onetako gizonetatik zer itxedan diteke?- Zer, baizik egunoroko gaistakeria, ta beren erio gaistorañoeko denboran, gogortuz ta gogortuz berak ibiltzea!- Bitartean agian konfesatuko dira era orretan dabilzanak, noiz edo bein; ta bear bada, konfesatuko dira maizago ere: ta azkenean konfesa-komekatuko dira iltzeko ere; baña beti konfesatuko dira, era orretan bizi diranak, beti bezala, edo biotz gogorrarekin; beti iduri utsezko asmoekin; ta beti batean; edo bein ere ontzen ez dirala, edo ondu-nai ziñezkorik artzen ez dutela.

A zuek, era onetako bekatariak, zorigaistoko, judatar gogorren lagunak! judatar gokorrek baño, geiago Jesusen nekez naigabetzen etzarazten gizonak zuek, edo neketan zuek zeren Jesus ekusiagatik, neke bere-tarako bide berriak, edo gaiak egiten dituzuenak; eta zeren bide galgarri oriek utzi naigabez, sulezera bea-rreran arkitzen zaraztenak!

D.

Ondu nai dutenak egin bear dutena

Sulezeko bukaera galgarria nai ez dutenak egin bear dute, Jesusen eriotzan Jesusi begira zeuden anitz juduk eta israeldarrek egin izandu zutena.

Zer egin zutela, deritzazu zuk israeldar ta judatar oriek?- Jesusen gurutzeko denboran ta Jesus iltzean agertzen edo gertatzen zenari ongi-ongi begiratu; ta orduko zeruaren illuntzak, lurraren ikarariak, arrien autsteak, eta gañerako gauzak adirazten zietena, erne ta kontuz aditu; ta, ezagutu zutenean ezagutu zuen bezala, guzia zela Jesus onaren alde, edo zeren Jesus maitagarria obenik bage erabilli zuten ain gogor-ki Apez-nagusiak, eta orien lagunak, eta zeren illerazi

zuten Jesus gurutze batean iltzez josirik lapurraren eran ta lapur artean, damuz ta naigabez beren buruak bete, ta zerbait gerta zekien beldurrez, an gelditzen baziran berak, ala illerazi zuten gizatzar galduen artean, bertatik artu beren etxeetarako bidea, ta beren Jaungoikoa urrikal zekien, ta zernai oriez egiteko eskuarekin egonagatik, begi oriez begiratu zezaien, beren bularrak ukaldika urratuz, ibilli beren etxeetarañoko bide guzian; bidean batzen zituztenei adirazten ziela beren urrikia ta beren beldurra.

Au berau egin oi dute, guti-jakiñez oartu gabeen bezala, ta beren pasioneren batek erdi-itsutzen dituztela, bekaturatzen diranak.- Oriek, ezagutzen dutenean, edo misioneren batean, edo garizuman, edo konfesariaren oñetan, egin dutena, edo beren erakeriekin, beren utsekia, beren txarkeriekin Jesusi egin dioten atsekabea, ta atsekabe onetatik etorri dakikena, gelditzen dira, beren gaizki eginaz ongi damuturik; artzen dute asmo bero bat, berriz alakorik, edo gaizki berririk ez egiteko; egiten dute konfesione jeneral, edo leneko beren konfesioenen berritze zuzen bat: uzten dituzte utsegin-bideak, sartu atera bear ez diranak, jostakera gaistoak edo limuriak, eta lagun galgariak; etaitzulten dira beren baitara, edo kontu onera;

ta beren begietan, beren pausuetan, edo ibillera zuzenean, ta beren bizitza guzian adirazten dute, ez dirala, ez, len ziranak; beldurtu dituela, ta agitz alere, beren Jaungoikoak; eta, Jaungoiko berari berriz atsekaberik ez eman naiez, utzi dituztela munduko erakeriak, eta, aragi arin galgarriak nai lituken ibillera loiak, eta atsegin txar gaistoak.

Zorionekoak ori egiten dutenak, ori egiten dutela ill arteko beren denboran; bada erraz barkatzen die beren Jaungoiko maitagarriak egille oriei, orduraño bere bizi txarra, ta ematen die bertatik bere grazia ta adiskidetasuna, ta gero bere orduan beren gloria.

2. Gis-onetan itzuli ziran judatar onduak, begitan eman izandu zien beren itzultze onarekin, Jesus gurutzetuaren aldean gelditu ziran judatar gogorrei.

An bertan ere izandu zituzten judatar berak, gisa bereko beste anitz begitan-emalle; bada, an zeuden soldaduen nagusia, jentil izanik ere, begira zegokan Jesusi, ta oartu zitzaion, zeru lurretan, ta gurutze berean ere gertatzen zenari; ta, ekusirik, nola itz egin zion Jesus maitagarriak, bere iltzerakoan, Aita eternoari; ta ekusirik, zeruan, lurrean, arrietan, ta obietan denbora berean gertatua, ikaratu zen, zen guzia; ta judatar gogorren erranari batere begiratu gabe, asi

zen erraten.- Bai segurki, ageri da bai, ta siñisten dut nik, obenik bageko gizona zela, emen gaizki judatar gogorrek illerazi duten gizon au! Berak ziona zen au, bai: au Jaungoiko-gizon egiña da, ta Jaungoikoaren Semea.

Nagusi jentil oni gertatua zekien onen soldaduei ere, geienei beinzat; eta onek ziona zioten oriek ere; ta ori zioten judatar gogorren beldurrik batere bage.

Baña zer ote zioten judatar gogorrek?- Beti bat: ez dela Jesus soldaduak uste dutena; ez eta, negarrez itzuli diran israeldarrak diotena ere.

Nor bada?- Gizon gaistagin arrigarri bat, judatar galduen ustez; bere gurutzean illik ongi dagoen bat; eta an ere luzaro ezin dagoken gizon gaistagin bat.

3. Au ala dela munduari adirazteko, gurutzean josirik zegoen Jesus, gaizki baño gaizkiago ekusi naiez, bidaltzen dituzte judatar oriek beren arteko zenbait, Pilatosi eskatzera, dauden tokian autsi dakiztela Jesusi, ta bere bi lagunei beren zankoak; eta au egin, ta, anitz luzatu gabe, beren gurutzeetatik kendurrik, sar ditzatela lurpean, ekus ez dezan niork urrengo egunean, oriek bezain gauza gaisto-arrigarrik.

Au guzia zen, ill ondoan ere, al zuten txarkeri guzia Jesusi judatar gaistoak egiteagatik; eta denbora

berean, Jesusen alde itzuli ziranak kenerazi naiez, eta besterik jarri etzedin orien eran, Jesus onagana, edo Jesusen gauzak ontzat ematera.- Orra gaizkian gogortzen diran gizonena! Berena, ta berena, baizik ezin ekusi zuten judatar gogorrak.

Denbor andian ibilli ziran len judatar gogorrak, Jesus galtzeko bideen billan. Anitz nekerekin bazen ere, arkitu zituzten azkenerako beren bide galgarri oriek.- Bide galgarri orietan zebiltzan, denbora artan izandu zien begitan maiz aski Jesus maitagarriak judatar gogorrei. Berebait egin izandu zien Pilatosek ere.- Baña ez ekusi, edo ez aditu egiten zuten beti judatar gogorrak.

Azkenean judatar gogor beren lagunak, aldi artan an arkitzen ziran soldadu jentilak, zeru-lurrak, eta biziak, eta illak guziak dabilta judu gogorrak zentzarazi, ta beratu naiez: baña alere, ingudiaren eran, daude beti judatarrak; eta, Jaungoikoaren orrenbat ukaldik beratu bearrean, gogorrago egiñak uzten dituztela dirudi orien biotzak.

A, gu ere bekatuz bekatu gabiltzan judatar galduen erako bekatari gogorregiak! Bertatik gu, edo lenbaitlen beratzen ezpagara, beldur izan gaitezke, bai,

izain dela gure bukaera judatar gogor orientaren era-
koa!

Gure bekatuekin ill genuen guk ere judatar gogo-
rrak bezala, edo oriekin batean, geren Jesus maitaga-
rria: ta, geren gaizki egiñaz damaturik bizi bearrean
gu, bizitzen bagara judatar gogorren eran, ta atseka-
be berrien gaiak ematen diozkagula, gure Jaungoiko
maitagarriari, zer bideak dira, ta zer ibillerak, guk
ekusten ditugunak?

Judatar gogorak egin izandu zituztenen erakoak;
sulezerakoak, eta guztiz galduak!- Bideen makurrak!
Ibilleren arrigarriak! Izu bagintzate gu, orain badere,
guk, oriek utzirik, artzeko artu bear ditugun, zuzen-
garbiak.

*Deus autem rex noster ante saecula operatus,
est salutem in medio terrae.*

Ps. 72. 11.

Sekula guziko Jaungoiko maite, gure amorez gizon
egiñak, egin izandu zuen ostiral santuz munduaren
erdian, edo Galbarioko mendi gañean, gure onerako,

ziñez ara nai dutenak, zeruratzeko, bere aldetik egin bear izandu zuen guzi-guzia.

Bere lan andi au egin zuen an gure Jesus maitagarriak irur orduz, gurutze batean iltzez josirik judatar gogorrek zedukatela.- Baña zenbat oñazerekin? Zenbat bere naigaberekin?- Zerorrek ezagu dezakezu!

Orduko bere neke arrigarriakgatik, etzuen Jesusek kendu, ez; ez eta ezda-baida batez ere bere gogo bere Aita eternoagandik. Nekerik ezpazuen bezain sosegu andiarekin egondu zen Jesus maitagarria otoitz eta otoitz egiten, ta eskez ta eskez bere Aita maiteari, gure onerako diran gauza guziak.

Gauzaren arrigarria! Aita eternoak, judatar gogorreari adirazi naiez, bere Seme Jesus maitagarriarekin egiten zeuden lan itsusiaren beltztasuna, uzten du illundurik eguerdi garbian bere eguzkia; ta uzten du egun bera, gau beltz illunaren eran: ta gure Jesus denbora berean judatar beren alde otoitz eta otoitz Aita berari, gal ez ditzan betiko beraren Aitak judatar berak.

Gauzaren arrigarria nekez itotzen gure Jesus! nere bekatuakgatik, judatar gogorrenakgatik bezala; ta ala ere nere Jesus nekatu maitagarria eskaka bere Aitari, atera nazala ni (ta batere luzatu gabe) nere bekatupe-

tik; bete nazala ni emen bere graziaren ondasunez, ta denboraz gero bere aldamenean zeruko atsegin-kontentuz, ta betiko gloriaz: ta ala ere aisa ni, ta nere gogara; jostatzez jostatze ni, ta gaizkitik gaizkira, Jesusi nik orretan ematen diodan atsekabera, ta nere buruaren kaltera batere begiratu gabe!- A zer eskerria, nik onetan Jesusi agerzen diona! A zer burua!

Eta ez ote diot nik, oraindañokoaz ongi damaturik, Jesusi lagundu bear bere bakartasunean, bere gurutzeko nekeetan, ta bere soseguzko otoizean, milletan urrikaltzen nazala ni, nigatik Jesusek daraman neke arrigarriaz?- Bai baldinbere; orretarako billatzen dudala nik elizan, edo gelan, bein ta berriz, ta askotan nere bakartasuna. Bai, zuk laguntzen didazula, bai, nere Jesus maitagarria, bai.

A facie Domini mota est terra.

Ps. 113. 7.

Zer ote da gaur zuri gertatzen zaitzuna, nere anima? Gurutze batean josirik Jesus iltze gogorrekin! Esku-oñak eta bere buru guzia zulatuak Jesusek, eta odolezkoiturri egiñak! Bizkar guzia, aragirik bage, ta

ango ezurrak, eta barrengo erraiak berak ere, agerian bezala bost milla azot-ukaldi, ta geiagorekin Jesus maitagarriak: burutik oñetaraño Jesus oñazez betea, ta doloretako retabloa ditudiela; ta Jesusi begira zu, ta era onetan zuk Jesusi begiratuagatik, ezpaliz baño geiago zu Jesusez urrikaltzen etzarala?

Zure amorez au guzia Jesus maitagarriak; eta zu Jesus alerik, edo bat ere maitatzen ez dezula?- Zure bekatu itsusi-loi-zikiñakgatik Jesusen onenbat neke, pena, ta oñaze gogor; ta zu, Jesusek deus ezpalerama baño gueiago penatzen etzarala?- Arrizkoa da zure biotza, lurrezkoa da, edo zertazkoa, onen otz egoteko, Jesusen zuganako onenbat amoreren, ta su biziren bazterrean?

A nere Jesus maitagarria! Lurrezkoa da, bai, nere biotz txar galgarri au; lurrezkoa da; baña lur guztiz gaistozkoa; gaistatu didate alabaña oraindaño nore bekatuak; eta utzi didate, arri koskor batek duen gogortasuna baño gogortasun agitz gaistoagoarekin.

Ala ez izatera, beteko zen, zen guzia damuz, ta urrikiz, zu zauden eran nik ekusi orduko; ta denbora berean geldituko zen, zure oinpeko lur, edo, mundu ikaratu baño agitz ikaratuagoa; ta zure eriotzan arriak bezala, austen ezpazen ere, geldituko zen, zu

zauden eran zenduzkalako illuntasunez ta damuz,
ongi-ongi betea!

Utz dezan bada, orain badere, bere gogortasuna
ta gaistakeria, betor, arren! gure Jesus guztiz nekatu-
maitea, betor, betor, zuri dariezun odol orren zerbait
zati: ez da, ez alakorik artarako, zuk zerorrek dakizun
bezala, gure Jesus maitagarria. Ez al didazu zuk niri
gaur au ukatuko! Ez arren, ez!

*Irruat super eos formido,
et pavor in magnitudine brachii tui.*

Exod. 15. 17.

Nara naikunde makurrak dira, nere Jesus maitaga-
rria, ta nere pasione sutu-galgarriak, judatar gogorre-
kin batean zu gurutze orretan ezarri zaituzten borrero
galduak!

Ill ziran, bai orduko judatar gogorak. Erretzen
daude, ta egoin ere dira, bein ere bukatuko ez den
sulezeko eternidadean, zurekin oriek izandu zuten
betiko beren gogortasunagatik: eta orien beren lagun
gaisto izan bearra naz ni, nik ez uztera oraindañoko
denboran erabilli ditudan nere langai gaistoak!- Baña

ez nik oriek utziko, lenik beldurtzen ez dirala nere pasione asaldatuak, eta makurtasun galduak, edo nere ezur-zañak eta biotz txar galgarri au!

Baña noiz, edo nola oriek beldurtuko dira; edo nork, edo zeinek oriek izurazi ote litzake?- Zuk, zuk, gure Jesus maitagarria, zuk nai izatera; bada, nai duen guzia dagiken besoa da, zure beso indartsua; arkitzen da alabaña zure besoa, zerekin dezun Jaungoikotasun guziarekin, indar guzi-guziarekin.

Baña ez, Jesus maitea, ez dezu zuk orretarako batere zer igitu. Aski da, bai, aski orretarako zure Aita eternoak, zere gurutzean zuk zere eskuak josiak daduzkatzula, lurrian ta zeruan erakutsi edo agertu diguna: bada, orri ongi guk, edo orri maiz ta astiro guk begiratzera, geren burutik geren onetarañoko guzi-guzian beldurtuak geldituko gara gu; ta ziñezko damuz ta urrikiz beren bularrak ukaldikatzen zituztela, beren etxeetara joan izandu ziran israeldar onen eran: bada, ala begiratu ezker, ekusiko dugu eguerdi argi batean batetan illundua zero guzia, ekusiko dugu oinpean, ikaratua lurra, ta ekusiko ditugu lurraren ikarariekin idiki-zabalduak illen obiak; eta, au guzia guk ekustean, ekusi nai badugu guk, ekusiko edo ezagutuko dugu, ez-ontzera, kenduko gaituela gu,

anitz luzatu bage, bere gainetik, ikara dabillen lurak berak; eta aurtikiko, edo botako dituela gure gorputzak beren obietara, ta gure anima galduak sulezero; bada, eguzkiari argia kentzen dion gure Jaungoikoa ez dago, ez, era orretakoei begitar onak egiteko, edo era orretakoak zeruan artzeko.

Begiratuko ote diozu zuk, nere anima, noizean bein edo maiz, oni guziari, ta zure amoreakgatik, ordu ain gogorak bere gurutzean eraman zituen gure Jesus maitagarriari!- Ori zuk zuzen egitera, eskurako dituzu, bai, zere pasione asaldatuak. Ez diezu zuk utziko lekurik zere naikunde gaisto galgarriei. Ongi biziko zara zu, emen bizi zaraño; ta begi onekin artuko zaitu zu zere Jaungoiko maitagarriak, iltzen zaranean.- Egin gogo ote dezu zuk au guzia?

Bai, nere Jesus maitagarria, bai, zuk niri laguntzen didazula: ta lenago ni nere lan onetan aritu gabez, ta nere bekatu guziez ongi damaturik orain erratera noa: *Nere Jesukristo, etc.*

LXVI.garren OTOITZ-GAIA
GALBARIOKO MENDIAN
JESUSEN AMAK IZANDU ZITUEN
NEKE ARRIGARRIAK

A.

**Bere seme Jesus gurutzean
josi ziotenetik au ill arteko
Amaren nekeak**

Ez da erraz adiraztea guk Jesusen Amak bere Semearen gurutze bazterrean beinik bein, ta gero bere bakartasunean, ekusi izandu zuen neke arrigarrria; ez eta guk au jakitea ere; bada an guk ongi jakiteko, jakin bear genuke nor den Jesusen Ama, ta nora-ñokoa den Jesusen Amaren animan arkitzen den grazia ta birtutea: ta au guzia dakienik, ongi beintzat, ez da arkitzen gaur, ez mundu guzian; ez eta arkituko ere mundua mundu den denboran.

Guk dakigun guzia da, bai zuela, Jaungoikoaren Ama Birjiñak, Ama Birjin onelakoari zegokan birtute, grazia ta doiera guzia: etzuela utsik egin bein ere

bere bizitza guzian; ta eginizandu zuela, zuen grazia-
rekin ta birtutearekin, zegiken guzi-guzia; ta maitatu
zuela bere Seme Jesus maitagarria ezin geiagoraño,
edo berak maitatu al guzi-guzian; ta, zeruko, ta lurre-
ko guziak maitatzen zuten baño obeki, ta agitz eder-
kiago.

Ongi da: ta egazti txarrak, otso gogorak, eta men-
diko gaistagiñenak ezin ekusi badute neketan sartua
beren umeetatik bat ere; eta ori era orretan oriek
ekustean egiten badute guk gerok dakigun adiña,
bere nekepetik ori atera naiez, edo niork orri gaitzik
egin ez dezon, gaitzen baten beldur diranean; ta ori
guzia oriek egiten badute zeren ongi nai dien beren
umeei, edo zeren zerbait maite dituzten beren umeak,
ezin geiagoraño bere Seme on Jesus maitagarria
maite zuen Ama Birjinak, zer naigabeak ekusiko
zituen, zer kezkek, eta zer nekeak, gurutze baten
ondotik irur orduz begira zegokala, egondu zen beza-
la, bere Seme Jesus gurutze berean iltzetzar andi-
gogorrez josirik arkitzen zenari?

Zein neke zorrotzak, zein utsak: zein miñak, den-
bor orretako Ama onen nekeak! Ezin zegiken alabaña,
bere Seme Jesus maitagarri nekatuarekin, gañerako

amak edo gurasoak, neketan dauden beren umeekin egin oi dutena.

Edozein guraso, bere ume bat neketan ekusi orduko an da lasterka, ari laguntzera joana; ta bere umea-ri laguntzen diolako atsegiñarekin zerbait badere arintzen ditu bere naigabeak: baña Jesusen Amak, neke arrigarrietan ekusiagatik bere Seme maitagarria, ezin lagun zezakeon batere; ta bere Seme maite Jesusi ezin lagundu onek zorrotzen ziozkan Ama Birjinari, anbat neketan Jesus ekusterik zetozkan, bere naigabe latzak eta gañerako kezakak.

Ekusten zuen bere seme Jesus Ama Birjiñak anitz arantza buruan sartuak zeduzkala, ta oñazez lertzen: ekusten bere Seme Jesus bera, arantz orietatik bat ezin atera zezoken eran; bada ekusten zuen Jesus bera bi eskuak iltzez bortizki josiak zeduzkala; ta ekusten zuen bidenabar, etzuela berak eskurik batere, arantz zorrotz oriek Jesusi ateratzeko.- Ekusten zuen Ama Birjinak berak, bere buruko arantza zuloetatik Jesus maitagarriari zerion odolak betetzen ziozkala Jesusi bere bi begiak, eta aurpegi guzi-guzia; ta, bere odol ori Jesusi Amak kendu naiagatik, etzioten ango borrarroak, eta Jesus zaitzen zeuden soldaduak Jesus ukitzen iutziko.- Ekusten zuen Jesusen Amak Jesus

geien-geiena larrugorrian, ta otzez ikara; ta etzuen Jesusen Amak Jesus berotzeko biderik batere, ez eta estaltzekorik ere.

Egarriz itotzen zegoen Jesus maitagarria; ta ala zegoen Jesusi, nola zegoen zekiela beraren Ama Birjinak, ezin eman zezoken edatera ur tantarik ere.- Urratua daduka Jesusek bere bizkar guzia, ta denbora berean oñazez betea daduka, ta odola dariola; ta alere ezin dagioke beraren Ama maitariak deusere, odola geldirazteko edo oñazeak arintzeko!- Gorpuz guzia daduka Jesusek, bere oñetan, ta eskutan sartuak daduzkan iltzeen gañean; ta Jesusen Amak ezin labur ditzake, bere egoera arrigarri orretatik Jesusek dituen neke izugarriak, ez besoetan Jesus artuz, ta ez beste bide batez ere!

Ekusten da Jesusen Amak bere Seme Jesus maitagarria blasfemiaz, itza gaistoz, errate gogorrez, ta eun milla bidegabez dena betea; ta itz bat ezin atera deza-ke Jesusen alde, ta Jesusen etsaiak ixil-erazteko.- Ekusten du, aitzuz ta aitzuz doala Jesus, ta azkeneko bere asnaseetan sartzeko abian; ekusten du, salkiaz ezin jaso duela Jesusek bere burua; ta alere ezin eman diotzake Jesusen Amak bere eskuak, nola-ere-bait Jesusi burua idukitzeko.- Ekusten du azkenean Ama

birjinak Jaungoikoaren ta bere Seme bakar Jesus bere gurutzean illik oritua; odolez ta karkaisez dena betea, ta bere bi saietsetatik daduzkan lapurren itxurakoa; ta ekusten du ez daudela alere aseak, Jesus artara duten etsai gogorrak.

Eta onenbat bere ekuste gogorrek, onenbat txarkeri galduk, onenbat naigabe latzek, eta onenbat kezakak, zertara ote zuten Jesusen Ama maitagarria? Nola utzi ote zioten bere biotz minbere maitaria? ta nola bere barren guzia?– Edozein umetan aski lizake Jesussek zeraman neke arrigarriaren laurdena, aren amari bizia kentzeko: nola bada etzen illik gelditu ama guziak beren semeak baño milletan bere Seme Jesus maiteago zuen Ama Birjina, onenbat eta onenbat Jesusen neke ekusi ezkeru?

Ala Jaungoikoak naiez, edo milagroez; ez bestela!

B.
Jesus ill zenetik
gurutzetik kendu arteko
Ama Birjinaren nekeak

1. Bukatu ote ziran, Jesusen eriotzarekin Jesusen Amaren nekeak?

Zer bukatu? ordutik anditu ziran, nork daki zenbaterako! galdu zuen alabaña Jesusen Amak Jesusen eriotzarekin ezin-geiagorako maite zuen bere Seme bakarra; ta era onetako galtzeak ez dira, ez, nekeak arintzeko; nekeak anditzeko ta anditzeko dira.- Eta Jesusen Amaren nekeen anditze onetarako aski ezpalarik bezala Jesusen eriotza, ta eriotzerako gauzak, izandu zituen Jesusen Amak nekeen bertze anditzalle arrigarriak ere. Eta lendabizikoa soldadutzar baten eskutik arturikakoa.

Etzen atera judatar gogorak nai bezala, Pilatosi judatar berak eskatu ziotena. Pilatosi eskatu zioten judatar gogorak, autserazi zitzala Jesusen zankoak edo berneak; lenbaitlen berak, eta alik gaizkiena Jesus illerazirik, lurpean sarturik uzteko.- Judatarren eskara oni erantzun zion Pilatosek, egin zedilla judatar gogorak nai zutena.- Baña etzuen Jesusen Aita eternoak nai oriek nai zutenik; eta etzen egin, judatar gogorak eskatu zutena.- Jesusen bi aldeetatik zeuden lapurren zankoak autsi, ta lan bera Jesusekin egitera soldadutzarrak prestatu ziranean, ekusi zuten illik zegoela orduko Jesus maitagarria, ta etzela zertako

egin lan ura Jesus maitagarriarekin; ta gelditu zen egitek.

Ekusirik, an zeuden soldaduetatik batek, lan artan zebiltzan gizonen geldiera, ta jakin naiez bezala ill ote zen, edo ez gure Jesus maitagarria, edo bere gogortasunak lan au ari eragiten ziola, sartu izandu zion lantza bat Jesusi bere biotzeraño, ta atera zion, an Jesusi gelditu zitzaion odol-xorta.- Lantz-aldi onek etzion miñik eman izandu Jesus maitagarriari, zeren ordurako illik arkitzen zen gure Jesus maitagarria; baña, erdiratua bezala utzi zuen Jesusen Amarena: zen alabaña Jesusi egiñikako txarkeria; ta Jesusi egiñikako txarke-riak, berari egiñak adiña neke ta pena, geiago ezpa-zen ere, ematen zioten Jesusen Ama maitariari.

2. Neke berri au ere neke latza zen, lenen gain, Jesusen Amarentzat; baña etzen izandu, ez, Ostiral santu arratsalde artan azkenekoa.

Bazekusan Jesusen Amak nola zegoen illik Jesus bere gurutzean; baña etzekien nola andik jaitsiko zio-ten, nolerebait prestatu ta obiratzeko; ta etzuen obirik ere, norbaitek urrikaldurik ez ematera. Soldaduak, Jesus bere gurutzetik kentzera, kenduko zuten an josi zuten bezain baldanki, ta begiratu bage; ta, au ekus-tera, zein zen Jesus ongi zekien Jesus beraren Ama

maitagarriak, zer naigabeak, zer oñaze berriak artu bear etzituen? Gerta zitekkelako beldurrak berak ongi naigabeturik idukiko zuen, bai, Jesusen Ama maitagarria.

Zaude-zaude, Jesusen Ama; zaude beldurtu gabe: ez da gertatuko, ez, zu beldur zaran soldaduen baldankeria. Ez du soldaduk ukituko berriz, ez, ez-eta borrarok ere, gurutze orretan or ekusten dezun zure Seme Jesusen gorputza.- Oriekiko lan guziak bukatuak daude, gauden ordurako; ta errespetuz, ta, bear bezala, erabilliko dute Jesusen gorputza, ori ortik kendu ta obira eraman bear dutenak.- Orretarako baimenaren eske joana da, ta Pilatosi itz egiten dago Jose deritzan zaldun zuzen aberats bat.- Oni bere lan on onetan lagunduko dio, Nikodemus deritzan Jerusalemgo gizonik andienetatik batek. Bata ta bestea dira Jesusen eskolakoak, eta beren lotsa ta beldur guziak aldebat utzirik, Jaungoiko-gizon Jesusen gorputzari lan on au lenbaitlen egin naiez daude.- Jesusen gorputza gurutzetik poliki kentzeko, ta gorputz berak bere obirako bearko dituen oial zuri, mirra garbi ta aroma guziak arturik datoz; ta bien artean egiñen dute beren egiteko au, Jaungoiko-gizonaren gorputzari dagokan bezain ongi ezpadere, gizonak dagikeen ongiena. Ez

da bada zer naigabetu, Jesusen Ama maitagarria, ez arren, ez!

A! baña ez egon gaur Jesusen Ama, naigabetu bage egoteko!- Dagoela Jesus bere gurutzean, edo ken dezatela, bere obira eramateko, guzia da Jesusen Amarentzat naigabe-gaia.- An badago Jesus, ekusten du an beraren Amak itxura ezin galduagoan; eta urratzen zaio bere biotza kezka ta urrikariz: ta bere begietatik kendu ezkerro Jesusen gorputz bera, galdu da Jesusen Amarentzat, ezin maiteagoa duen Semearen gorputza; ta gelditzen da geroz Ama bera bakar-tasun guztiz arrigarrian!

Zer egin diteke bada, Jesusen Ama maitagarria? judatar gogorak eskatzen diote Pilatosi, ken dedilla bere gurutzetik Jesusen gorputz guztiz urratua. Ori bera da Pilatosek diona; eta ori bera da Aita eternoak ere nai duena; ta ori nai du Aita eternoak, etorkizun arkitzen diran gauzetarako.- Eta zer ote da, Jesusen Ama maitagarria, trantze onetan zuk zerorrek nai dezuna?

Zer naiko du Jesusen Ama maitagarriak, Ait-eter-noak nai duena baizik, an bertan oñazez ta naigabez itorik geldituko baliz ere!- Ez orrelakorik, ez: Aitak berak lagunduko dio bere Alaba, Jesusen Ama maita-

garriari, lenak bezala, emeki eramaten lan berri onetatik etorriko zaizkan neke guziak ere.

3. Jose onak, eta Nikodemusek (bearbada, edo agian, an zeuden S. Joan Ebanjelariak, Maria Madalenak eta gañerako onak laguntzen ziela) kentzen dute Jesusen gorputza bere gurutzetik.

Baña nola ote, edo zer moduz, ta zer eran?- Orretara baño len lurrean belaunikatzen dirala noski; bere oñetan bein, gero bere bular urratuan, ta azkenik bere eskuetan apa ta muñ egiten diotela; ta denbora berean negar ederrak egiten dituztela.

Jesusen esku-oñetako iltzeak iltzetzar lodi-luzeak ziran; ta ondoraño gurutzearen zurean sartuak zeuden iltzeak; eta orregatik ziran iltze martil-ukaldika ta korriekin atera bearrak.- Eta alik emekiena beren lan au egiñagatik gizon on oriek, otsandiak egin bear zituzten, bere iltze-tzarrak Jesusi kentzean; ta ezin kenduko ziozkaten, Jesusen esku-oñei zerbait egiten etziela.

Eta bitartean Jesusen Ama maitagarria!- Oñaze berriz ta kezka zena betea: minbere minberea zedukan alabaña Jesusen Amak bere biotza; ta ots oriek, eta Jesusen gorputz illari gizon oriek egiten ziozkaten ezinbesteko gauzak, berritzen ziozkaten borrhoren

otsetatik, eta berariazko min egiteetatik artuak zeduzkan oñazeak eta naigabe gogorrak.

Baña guzia darama Jesusen Ama maitariak bere Seme Jesusek eraman zituen neke arrigarrien ize-nean, ta gure onerago: bada zor ezpadigu ere, ongai nai digu bekatari tristeoi Jesusen Ama maitagarriak; eta naiez, gu gal ez gaitzen, lenen gain artzen du Jesusen Amak neke berri au ere; ta artzen du ezin emekiago, ta gure amore andiarekin.

C

Jesusen gorputza gurutzetik kendu, ta biztu arteraño Amaren neke-penak

1. Nikodemusek eta Jose onak bere gurutzetik jaitsi zuteneko gure Jesusen gorputza, an arkituko zen orduko belaunikatua Jesus beraren Ama maitagarria.

Artzen du lenbaitlen bere besoetan bere Seme Jesusen gorputz illa; ta erraten dio, biozez beintzat, ordu artarako Eskriturak dakarrena: Mirrazko zamatxo latza da neretzat nere Jesus maite-maitagarria; alere

artuko dut nik, bai, ta nere nai osoarekin nere besobularren artean.

Au ari erran bitartean, ta bere besoetan iduki zuen denbora guzian, begiratuko zion burutik oñetaraño bere Seme Jesusen gorputz illari: ta ekusi zuenean noraño sartuak zeduzkan bere buruko koroaren arantzak: eta ekusi zuenean Jesus beraren bularrean, ta esku-oñetan egin zutena, alde batetik soldadutzarren lantza zorrotzak, eta bestetik borrero gogorren iltzetzarrak; eta ekusi zutenean gero nola zedukan Jesusen gorputzak bere bizkarra, nola bere aurpegia, nola ille guzia, ta nola gañerakoa, arriturik geldituko zen Jesusen Ama maitagarria; estutuko zuen Jesusen gorputz bera beregana al zuen indar guziarekin; ta, bere aurpegia Jesusen aurpegiari loturik, egoin zen, orain negarrez urtu bearra zirudiela, gero arritua bezala, ats edo asnase guzia galdurik; eta azkenean illaren eran.

Eta ez ote zen illen ere, Nikodemus onak, eta Jose (negarrez urtuak noski oriek ere) bortxaz bezala, Ama penatuaren bes-artetik ez kentzera bere Seme maitagarriaren gorputza; ta lenbaitlen ungent-eder, ta aromaz beterik (erregeekin, ta gizon andien gorputzekin egin oi zen bezala), ta denbora berean ongi bildurik,

artarako Josephek zekarren oial zurian, ez eramatera bere obira, an estalirik eta gilzaturik uztera, utzi zuten bezala?

Oriek beren lan on au egin ondoan, nola gelditu ote zen Jesusen Ama? Zenbat naigaberekin?- Zenbat illuntasunekin? Zenbat damu, oñaze, ta kezkarrekin? Gelditzen zen alabaña alargundurik, eta umerik bage; ta leoiak ere, izanik oriek diran bezain gogor-erreak, bazterrak orroz urratzen dituzte, beren umeak oriei norbaitek kentzen dieztenean!

2. Ezinbestez kenduko zen Jesusen obi gañetik, edo obi bazterretik Jesusen Ama penatu maitagarria: ta kenduko zen, leneko arratsean Jesusek afaldu zuen etxe berean sarturik egoteko, illen artetik biztu, ta ager zekion artean bere Seme Jesus maitagarria.

Zein luzeak Jesusen Amarentzat ordurañoko, edo andik asi ta igande goizerañoko orduak: Zenbat naigabez, ta kezka latzez beteak!- Menditik etxerakoan ekusiko zuen Birjin Am-andreak Pilatosenetik galbariorako bidea Jesusen odolez anitz lekutan ongi, edo agitz bustia; baita nola judatar gogorrak odol au, edo zein gizonen odola bailiz bezala, oinpean zerabilten, ta listuz betetzen zuten ere: ta ekuste onekin berriro andituko ziran Birjin Am-andrearen nekeak.

Bide berean, ta bideko atarietan adituko zituen Am-andre penatu berak judatarrak zerausten gauzak: urrikarizkoak batzuek, eta besteak gogor galduak: eta oriek ere izain ziran Ama beraren naigabe berrien gaiak: eta geienez gogoia ta biotza Jesusen obian zeduzkala; ta non dabillen ez dakienaren eran, sartuko zen Jesusen Ama leneko arratseko afaltegiko etxean.

Etxeraño lagun egiñen zioten Jesusen ortzitzean arkitu ziranak; eta Nikodemusi, ta Jose onari esain zien, ura an utzi ta andik ataratzean, Dabidek Galaak-koei, Saul ortzitu zutenean, erran ziena; edo (2. Reg. 2. 5.) Jaungoikoak dizutela, zeren Erregearekin, edo Jesusen gorputz illarekin egin dezutenari dagokan guzia, ta bere bendizioa: ta ez naz ni, ez, azturik bizi-ko zuen aldi onetako lan onaz, egunen batean ageriko den bezala.

3. Oriekandik joan ondoan, geldituko zen Jesusen Ama, bere Seme berri San Joanekin, Madalenarekin, ta berari lagun egin zioten gañerakoekin.

San Joan Ebanjelariak errain ziozkan Jesusen Amari, Amak berak ekusi etzitzen gauzak; edo Jetse-maniko baratzean, andik Anasen etxerako bidean, ta Kaifasen etxean Jesusek egin, ekusi, ta eraman zitue-

nak; baita bein ta berriz, ta anitz aldetara Pilatosenan egin ziozkaten bidegabeak ere; Herodesenekokak, eta beste zekizkienak utzi gabe; ta Jesusen Ama maitea, oriek eta berak zekizkienak gogoan zerabil-tziela, egondu zen gau ta egun bere gelan sarturik, eta itsaso guziak gazitasun baño oñaze, illuntasun, ta naigabe geiago zedukala bere biotz guztiz minberean.

San Joan Ebanjelariak, Santa Maria Madalenak, eta gañerakoak egiñen zuten al zutena, Jesusen Amaren penak zerbait arintzeagatik.- Baña anitz eta andiak ziran, ta guztiz arrigarriak, Birjin Amaren penak, eta guztizkoak ziran Ama birjinari bere biotzean, Seme maitearen, neke-penak egin ziozkaten zauriak, eta lla-gak; eta etzen, ez, orren aisa arin zitekena, oriek zekarren oñazea.

Oñazez beterik, bada, Galbarioko mendian, oña-zez beterik Jerusalengo kaleetan, ta oñazez, naigabez, ta penaz beterik egondu zen Jesusen Ama bere bakar-tasunean.- Eta Jesusen Amaren oñaze miñezko bete-tasun guziak izandu ziran gure bekatu zikin arriga-riakgatik.

A bekatu madarikatuak: eta zorigaistoan agerturi-kako bekatuak, gure bekatu gaistoak! Zuek izandu zarate, zuek Jesus onaren ta Jesusen Ama maitagarria-

ren borrero gogorak, eta nere buruaren galgarriak!
Ez al zarazte sartuko berriz nere gogoan edo nere biotzean!

Ez arren, ez, gure Jesusen Ama maitagarria, ez. Zuk oraingo egun latzetan ekusten dituzun neke gogor, ta naigabe izugarriakgatik eskatzen dizut onenbat ontarte. Zuk niri au ukatuko ez didazulako uste osoan gelditzen naz ni gaur. Ala gerta dedilla, Jesusen Ama maitagarria: bai arren, bai!

Haec porta Domini, justi intrabunt in eam.

Ps 117. 19.

Bekatarien Ama maitagarria; ta zer ote da, ta zenbat zuk gaur ekusten dezuna Jerusalemgo Galbarioko mendi orretan!- Nekea da, dio; ta neke guztiz andia nik emen gaur ekusten dudana. Nekea da, bai; ta neke guztiz izugarria, neke guztia ikaragarria; ta neke nere biotz minbere onen erdiratzallea; baita emengo nere neke guzien artean arritzekoena den nekea da, emen, illik utzi ondoan, nere Seme Jesusi egin diotena!

Zer egin diote, bada, zure Seme Jesusi, Jesusen Ama maitagarria?- Lantzatar batez urratu bere bularra, ta zulatu biotza.- Zakurtzar amurratuak dirudite, lan onetan dabiltzan soldadu galduak edo borreroak; bada berak nai zuten guzia, bizirik zegonean, egiñ ta ere, ez dira beren egiñaz aspertzen; ta, illtzez josirik illa utzi ondoan, egiten diote nere Seme maiteari lan au bezain lan gogor, itsusi, zikiña!

Egia diozu, Jesusen Ama maitea, bai; baña gure bekatuak izandu dira Jesusen borreroen eskuak irabili dituzten langille gaistoak; eta ez dira gelditu oriek, ez, era orretan Jesusen biotza utzi artean!

Guk egin genituen geren egiteko gaisto, edo pekatu oriek, anitz aldetara; bada egin genituen artuz, erabilliz, ukituz, edo geren eskuz; egin genituen ibilliz, sartuz, jostatze zikiñez, edo geren oñekin: egin genituen, arintasunes, ta begi galduz; ta egin genituen jan-edanetako animalkeriz, aragiaren atsegiñez, edo geren gorputz gaistoz; eta era orretako gure bekatu oriekatik da, burutik oñetaraño, ta bere eskuetan Jesusek daraman aldi onetako neke guzia.

Baña guk egin izandu ditugu, oriek guziak baño bekatu geiago ere! Guk leku egin izandu diegu (ta askotan alere) geren biotz loietan anitz asmo makurri,

anitz gogoeta lizuni, ta naikunde gaistori! Eta gure bekatuera oriek ere eskatzen dute berena!

Oriekgatik da, bada, Jesusen biotzak, eta Jesus beraren Amak gaur daramatena. Bekatu beren barkamenturako gerta dedilla Jesusen gaurko neke guzia; baita, Jesus nekatuari begira dagokala, beraren Ama maitagarriak izandu duen naigabe, oñaze, ta neke guzia ere; bai arren, bai!

In die illa erit fons patens...

in ablutionem peccatoris.

Zachar. 13. 1.

Zer geiago ekusten dezu zuk gaur bekatarien Ama maitagarria, Galbarioko mendi nekezkoan?

Ekusten dut, dio, nere Seme Jesus gurutze batean iltzez josia. Ekusten diozkat Jesusi iltzez urratuak bere bi eskuak; eta ekusten diozkat oñak ere iltzez lotuak eta josiak.

Eta zer egiten dute zure biotzean, Ama Birjina, era orretako ekuste gogor oriek?- Urrikariz ta naigabez betetik urtzen iduki nere biotz bera; ta iduki bidenabar ni zer egin ez dakidala, nere Seme, era onetan dago-

enaren, oñaze gogorak arintzeko.- A! ni nerau antxe nere Seme maitearen gurutze berean josten nindutela badere, ken al baneza nik, dio Jesusen Amak, gurutze artatik nere Seme maitagarria! edo, an berarekin josten nindutela baliz ere, arin al banitza zerbait Jesusen oñaze-neke-arriarriak; maite dut alabaña nik, ezin geiagoraño, nere Seme Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria, ta nereak bailira baño geiago naigabetzten naute ni nere Seme Jesusen nekeak!- Baña ez bata, ta ez bestea erditsi dezaket nik gaur; ta orain nik dagikedan guzia da, itsasoaren gazitasunak baño gazitasun, min, edo oñaze geiagorekin nere biotz au beterik, berari begira egotea!

Damu dut, bai, Ama maitagarria, ekusi bearra nik gaur zu, zu gaur arkitzen zaran eran, ta orrenbat naigaberekin! Eta, ezaguturik nere oben-kulpak dirala era orretan Jesus dadukatenak, eta zu ere orren naigabetzen zaituzten neke-gaiak, oben kulpa berak nolerebait urratu naiez nago, edo garbitu naiez orien loi galduetatik nere anima.

Zure Seme Jesus bere gurutze orretan, Zakarias profetak egungo egunerako agertu ziguna gure guzien iturri ederra da. Iturri orren ura, da Jesusi or bere esku oñetatik bere buruko zuloetatik, eta bere

biotz guztiz maitaritik darion odol garbia. Ur orrekin nik nere anim-au garbitu ezkeru, arinduko dira zerbait, Jesusen Ama maitagarria, zure naigabe arrigarririk: eta Jesusen neke andiak. Eta, ala gerta dedin, erditsi bear didazu zere Seme beragandik, nere garbitze on orretarako bear dudan laguntza ta grazia. Bai, arren, bekatarien Ama urrikaltia, bai!

*Vere languores nostros ipse tulit,
et dolores nostros ipse portavit:
et nos putavimus eum quasi leprosum,
et percussum á Deo, et humiliatum.*

Isai. 53. 4.

Zer ote da, Jesusen Ama maitagarria, azkenik zuk Galbarioko mendi latz orretan ekusi izandu dezuna; ta andik jaitsi, ta gero zere bakartasunean gogoan darabiltzun gauza!- Nik, dio, begiz ta gogoz gaur ekusten dudana da, gurutze batean ezin gaizkiago judatar gogorak ezarria nere Jesus maitagarria. Or ekusten dut nik nere Seme Jaungoiko-gizon ori, itxura ezin galduagoan; ta zauriz, usteltasunez, ta lepraz betea dirudiela; ta ekusten dut nik ori or, juez batek, gaistagin

gaisto guziak zentzarazteagatik, ezin geiagoraño galdurik dadukan baten eran.

Au nik gaur ekusten dudan eran ekusteak; eta nik au gogoan gau-egun erabilli dudan eran erabiltzeak ler-erazi lezake edozein amaren biotza, ta, bizirik banago ni, ez da, ez, izan gabez nik, bertan ni illik gelditzeko bear den diña naigabe, ta anitz eta asko geiago ere. Bizirik nago bada ni, onenbat ekuskari gogor ekusi ta ere: ta bizirik nago ni, ala naiez nere Seme Jaungoikoak eta beraren Aita eternoak.

Egin dedilla, bada, Jaungoiko berak nai duena; ta lenbaitlen atera dedilla illen artetik, Aita beraren eskoietik egoteko dagoen nere Seme Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria. Artean ezin duke, ez, nere biotzak, kezka, naigabea, illuntasuna, ta oñaze arrigarria besterik!

Baña Aita eternoa, zergatik au onela? Zergatik dago Jesus, izanik au, asma diteken gauzarik ederrena, onen itxura txarrean, ta onen ez-ekustekoa?- Eta zergatik egon bear du naigabez beterik, obenik ez duen, Jesusen Ama maitagarriak?

Ez dakizu zuk zerorrek, bekatari txarra, zergatik diran Ama-Semen gauza arrigarri oriek? Ez dakizu zuk zerorrek nola bizitu zaran zu, oraindaño zere denbo-

ran! Ez dakizu zuk zer den Aita eternoarentzat zure ibillera zikiña, ta ibiller orri zegokan sekulako nekea? Bada ori zuk baldin bazenekien, zertako da oraingo zure gald-egitea!- Artu zituen, bada, bere gain Jesus maitagarriak, gure bekatuei zegozten eritasunak, nai-gabeak, eta zor guziak; eta arren alde da orain Jesus-ek daramana.- Biotzez, ta amorez bat zen Jesusen Ama bere Seme Jesus maitagarriarekin; ta Seme berea orretan ekusi ezkerro, ezin zegoken beraren Ama, ezin geiagoraño naigabetu bage.- Eta orra zu, bekatari txarra; orra zu azkenean, Ama-Semeen borrero arrigarria! Orra zu, orregatik, ez dakit, zertan gelditu bearra!

Eta ez ote zara geldituko ere?- Zintzatzen ezpazara, edo ez ongi zu bizitzera, nai-ta-ez!- Eta ez ote zara zentzatuko zu, orain badere? Ez ote dezu damuz, ta urrikiz, ta guztiz umilki eskatuz erditsiko, oraindañoko zere erakerien barkamentua, ta ongi, ta zuzen gaurgero bizitzeko grazia? Bai baldinbere! Egizu bada zerbait bertatik orretarako; ta errazu itzez ta biotzez: *Nere Jesukristo, etc.*

BOSTGARREN LIBRUA

**ALDAREAN JESUSEK DIGUN ONGI NAIA,
TA AMOREA**

LXVII.garren OTOITZ-GAIA

**Ez gaitu Jesusek, illagatik, utzi;
gurekin gelditu da biztu ondoan;
ta laguntzen digu anitz aldetara
Elizako bere Sakramentuekin**

Itzez, lanez, ta bere anitz nekerekin erakutsi zigun guri gure Jesus maitagarriak, bera ill arteko denbora guzian, zerura nai dutenak egin bear dutena; baita orretarako egin-bidea ere.

Jesusek guri erakutsi au atzendu etzekigun, ta izan genezan guk lan onetan nork lagundu, adirazi zien bere Apostoluei, ta orien buruan guri guzioi, etzituela utziko lurrekoak, zerura bera joanagatik, lurreko gizon guziak bukatu artean: *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consummationem saeculi*: Matth. 28. 20.; ta, erran bezala, gelditu zen orretarako, ta emen arkitzen da geroztik Jesus maitagarria aldareko bere Sakramentuan.

Andiak dira ta ederrak, bai, Sakramentu onetako Jesusen erakusteak eta laguntzak, baña ez bakarrak: badira Elizan onetarako, Jesusek utziak, beste sei Sakramentu ere: ta aldian aldiko bere Sakramentuz argi egiten die Jesusek, edo laguntzen die, era batean ez izanagatik, bearrean daudenei, edo nai duten guziei.

Nola uste dezu?- Ekus dezagun orain au, irrist batean badere, obeki gero ekusteko aldareko Sakramentuarena; ta bidenabar orain ekusteko, zein andia den, edozein Sakramentutan guk Jesusi zor diogun argia ta laguntza; ta zein bazter bagekoa Aldarekoan Jesusek guri agertzen digun ongi naia ta amorea.

A.

Lenbiziko bere irur Sakramentuetan gure Jaunari zor diozkagu anitz laguntza

1. Sakramentu guzien asiera, edo lenbiziko Sakramentua, da Bataioa.

Bataioko Sakramentu au utzi zigun guri gure Jesusek, Adanen jate gaistotik datorkigun zauria sendatzeke, edo bekatu etorkiaren edo orijinalaren atzaparretatik guk geren animak ateratzeko; baita Linbora bearretik ere.- Uzten du bada Bataioak ala aterea, bekatu etorkiarekin arkitzen den anima; ta uzten du bide-nahar bere Jaungoikoaren graziarekin guztiz edertua, birtutez agitz apaindua, ta Jaungoiko beraren ume maite egiña.

Au onela, aurra aurrik bataiatzen denean. Baña anditua bada, bataiatzea dena, ta berak egiñikako bekatuak ere dituen gizakia edo emakumea, bekatu oriek ere barkatzen zaizka bere bataioan, bere bekatu orijinalarekin batean; baita oriei zegoten sulezera-bearra ere; ta ala aur ura, nola anditu au gelditzen dira (ez galtzera, oriek orduan arturikako zeruko grazia) zerurako deretxan, edo eskuarekin.

Au guzia gurekin gure Jaunak egiteko eskatzen duena da, bataiatzen dena gain-bera urez buztitzea; denbora batean erraten duela ori egiten duenak; *Nik bataiatzen zaitut Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean*: Ori da alabaña, Jesusek guri gure onerako utzi izandu zigun Bataioa; ta estutasunean, edo premlan, edozeñek egin dezaken gauza; ta dakie-

nak egin bear duena, Bataio bagez gal ez dedin anima.

Gelditzen zaiku guri, ongi dakienak lan au gurekin egiñagatik, edo gu bataiatu rik gelditu ondoan, gaitzerako geren markurtasuna ta griña, edo gelditzen dira agitz asaldatuak gure barreneko pasioneak.- Baña gure pasioneen bortxazko asaldazioak, eta nai ez genituen gaitzerako gure makurerak ta griña guziak, ez dira bekatuak; eta, oriek gu gaitzera eraman nai gaituztenetan, emain dizkigu guri gure Jaungoikoak gaitzaren ezaguera, zeruko bere grazia, ta zeru bera galtzeko beldurra, onerako naikundea, ta bere lagun-tza; ta gure Jaunaren laguntz onekin batean, ta bataioak ekarri, edo eman izandu zigun birtutearekin, eskura ditzakegu guk, gerok nai dugula, geren pasio-ne asaldatuak; ken gaitezke gu gaitz bide makur-limuri guzietatik; eta guk ori aldi orietan egiten badugu, gaisto bat egin lekuan, egiten ditugu zerurako irabazi ondasundunak edo andiak.

Eta orra Jesusen lenbiziko Sakramentutik, edo Bataiotik guri datorkiguna; ta, zeren Sakramentu au Jesusek utzi zigun, Jesus maitagarriari guk zor diogun amorea.

2. Bigarren Sakramentua da konfirmazioa: Sakramentu au gure Jaunaren grazian, ta zeruko birtutean anima gogortzeko den Sakramentua da.

Berez Obispo Jaunarena, edo Obispo jaunak ematen duen sakramentua da konfirmazionea.

Sakramentu au artzen duenak, (ongi artzera) artzen du, lenaren gain, grazi berria ta birtutea; ta gelditzen da, bere etsaiak garaitzeko, ta bere jaunaren legeko gauz onak egiteko, len baño indar ta biotz geiagorekin; ta, bear den ordurako irabaziak daduzkalla, Jaun beraren gogar guziak eta laguntzak.– Era onetan gelditzen den konfirmatua gelditzen da, apostoluaren eran, erran dezaken bezala: Nork eragotziko dit niri, nere Jaunak egin didanaren alde, nik nere Jaun bera ziñez maitatzea? Naigabez ni betetzen naben batek, edo bestek? Nola ni galduko naben asmatzen dabillen galgarriren batek? Nere etsai gaistagiñaren tentuak, edo nere erioak? (*Ad Rom. 8. 35.*) Eskergabegia nintzake ni, ori nik egitera, ta guztiz beldurtia!

Beldur au guk aisa garaitzeko, ta bidenabar garaitzeko guk lotsak eta alkeak, zenbait gauz umill egin bear diranean, nagiren batzuek eta gaistoak begira dagozkigula, olioeko ta balsamozko krismarekin egiten digu Apezpikuak, edo Obispo jaunak gurutze bat

geren kopetan edo bekokian: ta, ark au guri egitean, ematen digu gure Jaungoikoak, Ezekiel profetaz adirazi zuen ez-alkea, erran zuenean: Etzaitezela lotsatu batere, nere legeko (edo Ebanjelioko) gauzak egitean; nik emain dizut orretarako, zurekin dabiltzan bekatarien kopeta baño kopet gogorrago bat; baita diaman-tea ta suarria bezala aurpegi indartsu bat ere. c. 3. 8.

Badakizu zuk zer gauzak diran Konfirmazioko indar berriarekin guk egin bear ditugun gauzak!- Beinik bein, gure Jaungoikoak manatzen dizkigun gauz andi guziak, bat bakarrik ere utzi gabe; bada guzieta-tik bat, edo edozein, guk berariaz utzi ezkerro galtzen dugu guk genuen grazia ta zeruko bidea.

Konfirmaturik arkitzen denak egin bear duen bigarren gauza da, bekatu txikiak ere bere alegin guzian aldebat uztea; bada, oriek ark era orretan ez uztera, egunoro galduko ditu bere gauz onetarako guztiz onak diran gogargi anitz, eta Jaungoikoaren laguntza; eta azkenean autsiko du bere Jaunaren legea.- Espiritu Santu berak adirazia da, guk orain ekusten dugun egiteko au.

Konfirmatuaren irurgarren egitekoa edo gauza da, Jesus maitagarriak guri erakutsi dizkigun gauzak, manuzkoak edo manatuak ez izanagatik, zuzen egi-

tea.- Bekatu andi-txikiak utzi, ta ori egiten dutenak, beren egoak osoak daduzkaten, edo nai duten eran egoan dabilzan egaztiak bezala dira; bada dabilza, beren Jaungoikoa gogoz, biotzez, ta al duten indar guziarekin maitatzen dutela.

Eta ekusi zazu, anitz den, edo ez, guk gure Jesus maitagarriari zor diogun amorea, lenen gain Konfirmazioan egiten dizkigun bere ontart andiakgatik, emen ematen dizkigunean orrenbat gauz on egiteko, ta egiten ditugula, zerua irabazteko bear ditugun laguntzak eta indarrak!

3. Jesusek guri utzirikako irurgarren Sakramentua da Konfesioea. Sakramentu au bataiatu ondoko bekaturen barkamenturako, Jesusek utzirikako Sakramentua da.

Bataioan, ta Konfirmazioan ematen zaikun grazia guk ez galtzera, ez lizake konfesio bearrik, dio Trentoko Konzilioak: baña zeren ongi zekien Jesus onak gure txarkeria, gure ezer-eza, ta gaitzerako gure makurtasuna; ta zeren zekien bataiaturikako geienak, aurtan ez iltzera, galduko zutela orduko beren grazia, ta egiñen zituztela gaizkiak gaizkien gain, edo bekatu agitz itsusiak, orien egille gaisoen onerako; ta oriek beren

bekatuena azpitik ateratzen beren buruak, eman izandu zigun irurgarren Konfesioeko Sakramentuak.

Bekatupekin bere burua konfesioez ateratzean, bekataria zerbait lan dakarron egitekoa da: baña lan erraz-arin-laburra da, lan onek dakarren ondasunaren aldean.

Bekatarien egitekoa, edo bekataria onetarako egin behar dutena da, damuz beterik, konfesariari beren bekatu guztiak agertzea, edo ongi ekusi ondoan, zenbat diran ta nolako egin dituzten bekatuak; ongi ekusi ondoan beren bekatuak gatik galdu duten grazia, ta grazi onek ematen ziren zerurako eskua: ta ekusi ondoan, aserretu dutela, ta batere biderik gabe, alde guzietara maitatu behar zuten beren Jaungoikoa: ta aserretu dutela bertatik, edo Jaungoiko berak nahi duenean, sulezeraz aserretzalle berak botatzeko eskua ematen diotela; ta denbora berean arturik bekatu, larririk beintzat, berriz ez egiteko asmoa, ta egin zituzten guztiak zuzen, ta dakizkiten eran, Konfesariari erratea; eskatzen diotela beren Jaungoikoari guzti barkamentua, Konfesariari dagoten penitentzia ta absoluzioa. Orain bekataria konfesioeko neke ta egiteko guzia.

Eta egiteko onen ondoko absoluzoneak dakarren ondasuna?– Guztiz andia: bere bekatuakgatik bekatarriak galdurikako grazia ta birtute guzia; grazi birtute berekin egiñikako irabazia; ta bidenabar bekatariaren oraingo nekeari, edo konfesatzeari dagokan grazi birtute zatia. Ori guzia da konfesione zuzenetik bekatariak ateratzen duen ondasuna.

Bai: ongi konfesatzen denari itzultzen diozka gure Jaungoiko maitagarriak bere gaizkiekin, edo bekatu lizunekin, galdurikako ondasun guziak, eta, bere konfesaldian egiten duenagatik, ematen dio zerbait geiago.– Orregatik arkitzen da, konfesatu ondoan bekatari, bekatuta zenean baño grazi geiagorekin, ta birtuteen indar berriak arturik; eta arkitzen da, leneko bere irabazi guziekin, ta oraingo bere konfesioean egiten dituen irabazi berriekin.

Eta konfesione batetik bestera bekatu berririk ez egiñagatik, berriz ta berriz lenak konfesatzen baditu bekatariak, au egiten duen aldioro egiten ditu zerurako irabazi berriak; eta geldituko da, denbora berean bera, bere etsaiak garaitzeko len baño indar agitz andiagoeekin; ta bere etsai galgarri beren tentaldiatarako irabaziak daduzkala bere Jaunaren gogargiak, biotz-ukierak, eta laguntzak.

Ondasunen andiak Sakramentu onetan Jesusen ematen dizkigun ondasunak! Eta zein merke ematen dizkigun guri oriek gure Jaungoiko maitagarriak! Geren gaizkiaren damuzko aitortze bategatik! Gure Jesusen ongille maitagarria!

B.

Gañerako Sakramentuetan gure Jaunari guk zor diogun ondasuna

1. Oraindañokoan baño obeki ezagutuko dezu zuk zein ongillea den gure Jaungoiko maitagarria, ekusten dezunean gurekin bere laugarren Sakramentuan Jaungoiko berak egiten duena.

Laugarren Sakramentu au (ta irurgarrena, bataiatu ezkeru bekatu larririk egiten ez dutenendako) Aldareko Sakramentua da.

Aldareko Sakramentu au, Jesusen bazter bageko amoreak baizik ezin eragin zezaken Sakramentua da; ta Sakramentu, gure Jaungoikoak egiñikako gauzarik ekuskarienen ekuskaritasuna beregan bildurik dadukala; bada berekin, edo bere baitan gorderik daduka

Sakramentu andi onek (ta, nork daki nola? guk alegi-ñean au adiraziko dugu, gure atsegin onerako, ta esker onetara guk geren buruak beartzeko) ogi-ardoen azalpe labur batean, edo ogiaren ta ardoaren aintzuran, edo iduripean, ta ogi-ardoen soñekoz, ta akzidentez estalirik, gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarri guzia bere gauza guziekin.

Baña zertako ote?- Guk nai dugun aldi guzietan gure biotzeraño sartzeko; araño sarturik bere grazia-
ren indar berriak eta sustentoa guri emateko; gure animaren birtuteko epeltasunak kendu, ta anima bera deboziazko suz beroturik iuzteko; ibilli dedin gerozko bere denboretan birtutez birtute, ta berari dagozkan egiteko ta lan guziak guztiz garbiro ta zuzen egiten dituela, edo bere Jaun andia ziñez maitatzen duela, al duen ongia lagun guziei egiten diela, ta bidenabar zerurako irabazi andiak egiten dituela.

Onenbat ondasun ta geiago guri eman naiez dago gure Jesus aldareko bere Sakratuentuan gau ta egun, milla zazpieun ta anbat urte dela; ta Sakramentu onetan dago, or ezpalego bezala; ta gisa berean egon bearra da mundua bukatzen den artean.

Zergatik dela deritzazu zuk, orrenbat Jesusen ondasun, ta beraren orrenbat orko egote?- Guri geie-

gi naiez, edo zeren ezin geiagoraño maite gaituen gu.- Ekusten dezu zein ongillea den gure Jesus, ta zein maitagarria?

Bai? Bada obeki, edo ziñezago errain didazu zuk au, ekusteko zauden zenbait gauza ekusi ondoan.

2. Bostgarren, Jesusek guri utzirirako Sakramentua da Azken Oliadura. Sakramentu au da, bere bizi-tzaren azken aldean ta eriotzeko orduan, bataiatuari laguntzeko.

Zenbait aldiz laguntzen dio azken oliadur onek eriarri bere eritasunak garaitzen, ta ematen dio leneko buru osasuna.

Eta, naiz osasun au eman, ta naiz ez, bekatuan baldin badago, Azken-Oliadur au artzen duen eri gaisoa, ta denbora berean arkitzen bada ongi damuturi bere bekatuez, baña mututua, edo ezin konfesa ditekera, barkatzen zaizka oliadur au artzean bere bekatu guziak, itzultzen diozka bere Jaungoikoak, galduak zeduzkan ona ta grazia, ta ematen dio graziazati berri bat ere.- Barkatuak badaude ordurako eriak len egin izandu zituen bekatuak, ematen diozka Jaungoiko berak, len zuenaren gain, grazia zati andiak; barkatzen diozka dituen bekatu txikiak, oriez damutzen bazaio eri oliatuari; baita barkatuak dauden

bekatu andien zorrak ere, edo guziak, edo guzietatik zati andiak.

Eri gaisoari bere zor guziak barkatu naiez; ta orretarako bere bekatu guzien damu andi bat arturazteko, eragiten du Jesus maitagarriak Azken Oliadura eri beraren begietan, bearrietan, sudurrean, aoan, eskuetan, ta oñetan, edo bekatu-bide guzietan.

Denbora berean ematen dio Jesusek eritari bere oliadurarekin anitz indar ta laguntza, eritasunak ekarri oi dituen naigabeak emeki eramateko, ta etsaiaren tentu gaistoak garaitzeko.

Ona non gure Jesus maitagarriak ematen dion bakoitzari, oraindañokoan guk ekusi ditugun bere bost Sakramentuetan zeruko bidean sartzeko, bide berean zuzen ibiltzeko, bideko bere etsaiak garaitzeko, ta bide au ongi bukatzeko bear duena!

Onenbat, edo erdia badere, egiten balute lurreko erregeak beren soldaduekin, erregeak oriek beren gerrara bidaltzen dituztenean, soldadu guti lirake, etsaiak garaitu gabe, erregeren begietara itzuliko lirana; eta ala oriek beren erregeetara itzultzera, kastingu onak artu bearrak lirake.

Eta zer artuko ote dute, Jesusen aitziñeratzen diranean, beren etsaiak eta pasione galgarriak garaitzen

ez dituzten kristio gaistoak, edo, lurreko erregeen soldaduak baño laguntz agitz obeak dituzten animak?— Zer, baizik beti-betiko sulezea?

Kastiguaren arrigarria!— Bai, baña era orretako animak ongi irabazia!

3. Bidez dabillenak bear du noizean bein bere ostatua, ta ostatuan nork eman bere jan-edana; ta onetarako utzi zigun Jesusek seigarren Sakramentua.

Sakramentu au Ordena da. Ordenak edo Sakramentu onek, ematen diozka bataiatuari bere apezak.— Apezak dira zeruko bideko, ta gure Jaunaren ostalari andiak. Bide bereko ostatuak dira elizak.

Ostaturatzen denean bat, baldin zikindurik, edo loiturik aratzen bada, lenik ongi garbitzen da, maiean jartzeke: eta elizako maiera nai duenak, bekatu larriz loiturik, edo txikien arrautsez beterik arkitzen den aldietarako badu Eliza berean, bekatu larrien loa, ta txikien arrautsa kentzeko, konfesioko iturria, ta graziaren ur garbia; ta ur au ark eskatu ezker, ongi, ta bear den eran ark au eskatzen duela, emain dio ango ostalariak, edo apezak bere absoluzioean. Ur au Apaizak konfesatzen denari eman ondoan, ederki prestatu rik emain dio jan-edan ezinobe bat; bada emain dio Jesusen gorputza, ta odol guzia, biei ditxez-

kon gauzekin; ta, oriek elizako maian ark artzearekin, artuko ditu graziaren indar andiak, zeruko bidean birtutez birtute gain ibiltzeko.

Bere ostatu, edo eliza beretik, ara dena atera baño len, erakutsiko diozka apaiz berak gerozko bideak, edo bere bidean zuzen ibiltzeko jakin bear dituen gauzak; baita bide bereko bere etsaiak garaitzeko, ta eriotz on baten besoetan gelditzeko, jakin bear dituenak ere. Eta, baldin berak nai badin lagunduko dio bere bide guzian ere; ta eritzen denean, lagunduko dio elizako gauzekin, ta eun itz on, ta zeruko gauzarekin.

Orra non ordenak guri ematen dizkigun, guk ongi bizitzeko, ta obeki geren egunak bukatzeko bear ditugun, ta geren bizitzan ta eriotzan eskua ematen diguten maisuak, animako gurasoak, sendatzalleak, juczak, eta lagun onak.

Ekusten dezu zein ederki begiratzen digun guri gure Jesus maitagarriak?– Ekusten dezu zein ederki artuak daduzkan Jesus berak bere bideak eta neurriak, eman dakigun guri, guk bataiatzen gaituzten egunetik asi, ta azken asnaserañoeko guzian bearko dugun guzi-guzia, bizitz on bat guk emen egin ta eriotz bear bezalako baten eskuz igan gaitezen gero

atsegin-kontentuzko zerura?- Ezin geiagoraño ez maitatzera gu gure Jesus maitagarriak, egin zezaken gure onerako onenbat gaina, ta laurdenik ere?- Zaude, bada, jakinaren gañean eskergabe txarra, zere Jaungoikoagatik zuk egin bear dezuna ordeztu egiteko.

4. Onenbat izanik ere orain guk ekusten dugun au, ez da, ez, au Jesusek egiñikako guzia.

Au guzia Jesusek egin zuenean bizi ziranak ill ziran, bai, anitz luzatu gabe: ta balia zitezzen onenbat ondasunez, orduan bizi ziranetatik nai zutenak, eta gero beste anitz, utzi zuen Jesusek beste Sakramentu bat ere.

Sakramentu au Ezkontza da, edo Matrimonia: ta da umez bein mundua, ta gero zerua onez ta santuz beterik uzteko Jesusek utzirikako Sakramentua. Beren Sakramentu onetan badute ezkonduak, bear bezala, ongi, ta zerurako beren umeak azitzeko bear duten indarra, laguntza, ta grazia.

Jaungoikoaren laguntza ta graziarekin batean, ta berak alegiña egiten dutela, aisa eramaten dituzte ezkonduak elkarren utsak: laguntzen diote elkarri beren lanetan: billatzen dute, beren umeak azitzeko, bear dutena; erakusten die ume berei itzez, ta beren bizitza onarekin, orien umeak jakin bear dutena; ta ori

baño geiago jakin nai badute, ematen diezte erakusle onak, edo bear dituzten erako maisuak; eta iuzten dituzte zerurako bidean ongi sartuak, eta gurasotarako, Apeztarako, edo Jaungoikoak nai duen edozein gauzetarako ederki prestatuak, edo gai-on egiñak.

Eta, gu guzietatik batere jakin bear dena jakin bagez, gaista etzedin, utzi zigun Jesusek bere Ebanjelioa; ta Ebanjelioan gure lege labur-zuzen garbia.

Gure lege an guri adirazteko, utzi zizkigun Jesus maitagarriak eliz-nagusi zuzenak, predikari onak, eta konfesariak; eta oriek, eta era bereko beste gizon jakintsuak agertzen dizkigute itzez batzuetan, ta askotan libruz, guri geren lege garbian dagozkigun gauzak.- Orra nola ta zenbat aldetara, bera biztu ondoan laguntzen dien Jesus maitagarriak, mundu onetan bizi diranei.- Orra zein maitagarria gure Jesus, leneko bere neke arrigarri, ta gauz onakgatik ezezik, geroztik egi-ten duenagatik ere!

Zorioneko umeak, Jesusen onenbat erakustez ta ontasunez baliatzen diranak; bada oriek izan bear dute, izain dutenak emen, bizitz on batek dakarren atsegina ta kontentua garbia, ta gero eternidade bateko beren gloria!

Baliatu ote naz ni oraindañokoan Jesusen erakasteta ontasun oriez? Orain bertan ni iltzera, zerurako nintzake ni? Eta zerurako ote nintzake anitz irabazirekin?– Ekus dezadan nik gaur au astiro; oraindañoko nere utsak aldebat nik emen bertatik utzirik, asi nadin egiten, egiten dudanean, ta gero eternidade guzian atsegin-kontentuz beterik iduki bear nauena.

*Nemo mundus a sorde, nec infans,
cujus est unius diei vita super terram.*

Job. 14. juxta 70.

Ez da munduan arkitzen bat, ez; ez eta arkituko ere, naiz dela egun bateko aurrea, bekatu galgarriaren loitasun likits bagekorik.

Amaren baitan bizitzen asi orduko, berekin du edozein aurrek Adanen bekatuaren loikeria, edo bere bekatu orijinala.– Ordutik giñan gu guziok gauz-itsusiak, graziaren soñekorik bage arkitzen giñanak, eta gure Jaungoikoaren etsai galduak.– Jaio, ta andituagatik gu, ez genuen gerez guk eskurik batere, geren buruak garbitzeko. Zikin-ill bearrak giñan gu, ta beti-

ko galduak garbi gintzakena, guzaz urrikaldurik, noiz-bait ez agertzera.

Agertu zen azkenean urrikarizko gure garbizalle au?- Bai bada; ta artarako guztiz egokia.

Nor ote?- Aita eternoaren Seme bakar guztiz maitagarria.

Nola?- Gizon egiñik, edo gurearen aintzurako larru-aragiz jauntzia.

Non jauntzi izandu zuen bere soñeko orren umil ori?- Bekaturen pitsik ere izandu etzuen Birjin Ama baitan.

Ongi: baña zer egin zuen Jaungoiko-gizon onek, gu garbiturik eta bekatu gabe uzteko?- Gure bekatuen alde Aitak eskatu ziona; edo sartu bein bere burua, ekusi den bataiorik arrigarrienean, edo nekez, odolez, izerdiz, urratzez, iltzez, ta arantzez beterikako Pasio-
nean, ta gurutze bateko eriotz izugarrian; ta, au egin ondoan, eman guri bataio erraz bat, edo graziaz beterik dagoen lenbiziko bere Sakramentua.

Au guk artu orduko, utzi genuen gure bekatu etorkiaren itsustasuna, ta gelditu giñan gu zeruko grazia-
ren soñekoarekin, ta birtutez guztiz apainduak. Eta zein aisa!

Anbat egin zenuen zuk orretarako Jesus maitagarria! Eskerrak zuri orrenbat zure ontartegatik; eta sekulako eskerrak: bada ala ere zuri guk emain ez derozkitzugu, zure ontarte oni zor zaizkanen laurdenen laurdenak ere! A eman bagenizkitzu guk eman alak badere!

*Statue tibi speculam: pone tibi amaritudines:
dirige cortuum in viam bonam, inqua ambulasti.*

Jerem 31. 21.

Zer gertatzen ote zaie, bataioan garbitu, ta ondarenez beteak gelditzen diran animei, orien gorputzak anditzen diranean, ta adiñetan sartu, ta laster, edo anitz-anitz luzatu gabe?- Geienei beintzat, orduan arturikako grazia galdu, ta bekatu likitsen loiez zikin-
duak gelditzea.

Etzekien gure Jesus maitagarriak gertatzeko zegoela au guzia?- Bai bada; ta orregatik utzi zigun konfesioko Sakramentua: Urrikiturik len egiñaz, ta geren gaizkiaz damaturik arkitzen giñanean gu, berriro geren animak garbitzen guri laguntzeko; erraten zuela Jeremiasez: Bai; banekien nik, bataiaturikako ura ara-

giz jauntzirik zegoela, ta gaitzera guztiz makurtua; ta ekusi nuenean aren bekaturatzea, ta orregatik gal- tzea, urrikaldu nintzaion ni, nere Seme indar gutziko- ari bezala; ta eman izandu nion, bere burua bigarren aldian garbitzeko, konfesioko Sakramentuko grazia- ren ur ederra; au ari nik ematean, erraten niola: zen- tzugabea! anbat nekezko nere Pasioarekin prestatu nizun nik zuri Bataio ederreko nere Sakramentua: ango urarekin, ta nere graziarekin, kendu nizun nik bekatu etorkiaren edo orijinalaren loi guzia; ta ona non berriz ere ekusten zaitudan nik zu loiez ta beka- tuz zikindua, ta sulezera-bearra!

Ea: idikizatzu zuk, orain badere, zere begiak, dio Jesus maitagarriak; begira zazu zere ispillura, edo zere barrenera: ta ekusi zazu nola zauden zu, ta zein ede- rra.- Sasiko basurdeak, eta mendiko artz otsoak ez dira gaur arkitzen zu bezain izugarriak; ez.

Ekusten bazenu zuk nola dadukazun gaur are anima, bertan illotza geldituko ziñake zu.- Zere lan gaisto itsusiarekin aserre dadukazu zuk zere Jaungoi- ko maitagarria; ta zeren lan gaistoaz ongi damaturik, ez eskatzera zuk zere Jaungoiko berari orren barka- mentua ta bere grazia; ta ari zuk ori ez eskatzera, berriz alakorik ez egiteko itz osoarekin, galdua zara zu

beti-betirako; eta eternidade guzian erretzen ta lertzen egon bearra zara zu.- Aditu dezu?

Bai nere Jesus maitea, bai! ta ni bezain gauza txar bategatik zuk egiten dezunaz guztiz arriturik, adirazi didazun guzi-guzia egin naiez nago!- Oraingo nere nai au ere zuk zerorrek emanikakoa da, nere Jaungoiko maitagarria!- Au bezala, indazu zuk onek eskatzen duen guzia zuzen egiteko grazia. Bai arren, bai!

Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris.
Isai. 12. 3.

Ur garbi-eder-onak dira, bataioan ta konfesionekeo iturrian arkitzen diran graziaren urak.

Gisa bereko urak eta edariak dira, gañerako Sakramentuetakoak ere: ta guziak utzi dizkigu guri Jesus maitagarriak, geren egarri guziak iltzeko.- Eta, orra, erraten digu Isaias profetak, orra, zeren Salbatzalieak zuei utzirikako iturri ederrak. Edan zazue, aldian aldikotik; eta edan dezakezue aldian edan-al guzia, gaitzik egiñen dizuelako batere beldurrik gabe.- Zenbat ere geiago edaten duten anima garbiak iturri orietan, anbat atsedete ta atsegin andiangoekin

arkitzen dira berak; eta denbora batean arkitzen dira, berriz ta berriz edatera itzuli naiak.- Edate oro arkitzen dira indar geiagorekin, zeruko beren bidean biziro ibiltzeko, ta beren Jaungoikoaren legeko gauzen uztarria arin eramateko.

Zorionekoak ala dabiltzan animak, eta era orretako ibillerak eskatzen dituzten edate on guziak egiten dituztenak; bada oriek, beren bidea bukatu ondoan, sartuko dira Jesusen Jauregian, zeruko Palazioan, ta eternidade guziko atsegin-kontentuan.

Orietatik izandu ote zara zu zere oraindañoko denboran? Maiz urbiltzen ote ziñan zu Jesusen iturri eder on orietara? Maiz konfesa-komekatzen ote ziñan zu? Anitz edaten ote zenuen zuk, aratzen ziñan aldioro?- Andik ateratzean, gelditzen ote ziñan zu, berriz ta berriz ere ara nai andiarekin? Ori da Jesusen iturri garbi ederretatik atsegin andiarekin, ta anitz edatea; ta ori gure Jesus maitagarriak gugandik nai lukena.

A! baña ez ori bera nik nai izandu, geienetan beintzat! Askotan ni, berandutik berandura baizik, ez iturrirutzen! Edo bakan ni konfesatzen; ta orduan ere oztasun andiarekin, ta egarririk edo nai andirik bage komunioratzen ni; ta ez edaten nik, edo nik andik ez ateratzen, atera nezaken ura ta grazia; ta, orregatik,

birtutez birtute nik ibilli bearrean, bekatuz bekatu, ta oztasunez oztasun ibilli izandu!- Damaturik nago ni, bai, (ta ongi alere) nere Jesus maitagarria, ta denbora berean barkamentu eske, oraindañoko nere erakeriaz.- A! zuk niri barkatu ondoan indazu, arren, egarri andiarekin gaurgero iturri orietara ni urbiltzeko grazia, lenik zuk kentzen dizkidatzula lenagoko nere bekatu guzien loiak.- Ori eskatzen dizut gaur nik, itzez ta biotzez orain erraten dudala: *Nere Jesukristo, etc.*

LXIII.garren OTOITZ-GAIA

ZENBAT DEN JESUSEK ALDAREKO SAKRAMENTUAN EMATEN DIGUNA; NOLA EMATEN DIGUN; TA ZENBATETAN

A.

Anitz da Jesusek Aldareko Sakramentuan ematen diguna

1. Zer ematen ote digu guri gure Jesus maitagarriak Aldarako bere Sakramentuan?– Ez da erraz nik zuri au itzez adiraztea: ez eta, bestek zuri au, bear den eran agertuagatik, ongi beintzat, zuk ezagutzea ere.

Ezagutu dezazun zuk au, al dezun eran; ta dagizun gero zuk gauz onen ezaguerak zuri eragin bear dizuna, adi zazu, itz bitan nik orain erantzun dezakedana.

Ematen dizu zuri gure Jesusek Aldareko bere Sakramentuan, ta komunioneke bokaduan, gure Jaungoiko maitagarriak eman dezaken guzi-guzia. Aditzen dezu? Itzaren otsa bai; baña ez noski anitz-anitz geia-go.

Guri au nolerebait adirazi naiez, ematen digu Jaungoiko berak lege zarreko Barazkalera andi baten zer-bait berri. Berri au ikasi ezkerro, ikasiko, adituko, edo ezagutuko dezu zuk nolerebait, niri orain aditu dida-zun erantzutea.

Asuero zeritzan Persiako Errege prestu-andi-abe-rats batek berezi zien barazkaltze baterako etor-eguna bere Inperioko Zaldun, ta Prinzipe guziei, bere eun ta ogeita zazpi probinzietako Nagusiei, edo Gobernariiei, ta soldaduen artean arkitzen ziran kargu-dun, ta indartsu guziei.- Oriekin batean deitu zituen bere korteko andi ta txiki guziak; eta guzi-guziei egin zien, zazpi egunez iraundu zuen barazkari andi, zego-kan bezalako, ta ordurañoko denboran, ta geroztik ere, parerik gabeko bat.

Barazkariaren erakoak izandu ziran, barazkaltokia, ta barazkarirako maiak.- Barazkaltzean, nor bere tokian arkitzen zen maian; ta an arkitzen zen Errege bera ere bere Prinzipeen artean; ta arkitzen zen, nork-nai ekusi zezaken eran.

Orra, mundu guzia arritu zuen Asuero erregeren barazkariak. Eta orra; alere, komunioko bokadu baten itzala baizik ez den gauza, ta barazkaria. Ezin au zuk siñetsi dezu?- Begira egiezu, bada, bein batari, ta

gero besteari, ta ekusiko dezu zein aisa siñisten dezun zuk, orain zuk niri aditu didazun au: edo begira egiezu zuk orretarako lenbiziko aldian, barazkari bata ta bestea ematen dituzten Erregeei. Ekusi zazu gero, zer nai ote duten, edo zertarako ematen dituzten Errege oriek beren barazkariak. Ekusi zazu, oriek biak ekusi ondoran, nori ematen diezten Errege oriek batean barazkari berak? Eta ekusi zazu, zere laugarren ekus aldian, zer gauzak diran, Errege orien barazkari batean ta bestean arkitzen diran gauzak.

2. Asi zaitetz zere lenbiziko ekustetik; eta ekusi zazu zer Errege diran barazkari andi orien Errege emalleak.

Oriek ziran Persiako errege Asuero bata, ekusi dugun bezala; ta bestea gure Jesus maitagarria.

Susan zeritzan korteko barazkaria eman zuen Persiako errege Asuerok; eta Komunioneke bere barazkari andi au ematen digu gure Jesus maitagarriak.

Asuerok gure Jaungoikoak emanik zuen Persiako bere erresuma edo erreinua; ta erreinu, edo erresum au uztera beartua zegoen Asuero, eskutik lenago norbaitek kentzen ezpazion ere, iltzen zeneko: ta an ark, zedukan denboran ere, etzuen bere erresuman lurreko zati labur bat baizik.

Baña gure Jesus maitagarria berez da Errege; ta Errege izan bearra, da, mundua mundu den artean, ta eternidade guzi-guzian; ta Jesusen erresumak artzen du, ez lurraren zatiren bat edo beste, baizik mundu guzi-guzia; baita zero guzia ere: ta orregatik Jesus, Errege ezezik, lurreko errege guzien Errege da, ta denbora berean, zeruko erpiñetik asi, ta lurraren ondoraiño arkitzen diran guzien Errege. Ekusten dezu Komunioko barazkaria ematen duen Jesus erregeren aldean ezer-ez bat bezala dela, beste barazkariaren emalle Asuero; gizon utsa zen alabaña Errege Asuero; ta Jaungoiko-gizona da Jesus maitagarria.

A nere Jesus maitagarria! ta ezagutu ote zaitut nik oraindañokoan zaran etako? Beldur naz ezetz! Nere begiak, nere esku-oñak, nere biotzak, eta adimentuak ezagu bazintzate gaurdanik badere bere Erregetako!- Egin balitzate beti zuzen zuk manatzen dituzun gauzak?

3. Zertako egiñak, edo emanak ote dira, ekusi ditugun Errege bien barazkariak?

Asuero erregek eman izandu zuen berea, Eskritura santak dionaz, agertu naiez zein andiak ziran aren ondasunak, eta zein arrigarriak, edozein gauzetarako, berak zituen ala ta eskua: *Ut ostenderit divitias glo-*

riae Regni sui, ac magitudinem, atque jactantiam potentiae suae (Esther 1. 4.)

Eta zertako eman duela, deritzazu zuk gure Jesusek Komunioneko bere Barazkaria?– Guri agertzeagatik zein andia den Jesusek berak guri digun ongi naia ta amorea; bada amore onen alegiñak agertzeko da Aldareko Sakramentua. Trentoko Konzilioak dio, orain zuk aditzen dezuna: *In quo* (Eucharistiae Sacramento) *divitias divini sui erga homines amoris velut effudit.* (Trid. sess. 13.c. 2.)

Izanik bada, den bezala, bazterrik bagekoa gure Jaunaren ala, eskua, ta amorea, ekusi zazu zein andia den Komunioko Jesusen barazkaria, ataria, edo boka-dua: ta zein ezer-eza, oni ongi begiratu ezkerro, errege Asuerorena.

4. Nori emanak ote dira Asueroren ta Jesus maitagarriaren bi barazkariak? Edo zein ote ziran, Asueroren maiera ziran jendeak; eta zein Jesusen maiera bear dutenak?

Asueroren maiera ziran, anitz beartsuren ta txiki-ren artean, zenbait Zaldun, Gobernari, ta Prinzipe: baña barazkari artako Prinzipe, Gobernari, Zaldun, ta andi-txiki guziak barazkaldu, ta laster ill ta usteldu bearrak ziran; ta ill ta usteldu bearrak, ill ondorako

beren barazkaritik deus bat ateratzen etzutela.- Jesusek bere maiera deitzen dituenak dira, bataiatuak; zeruko graziarekin arkitzen diranak; emen bertan ere Jesusen senideak, eta zeruan gero Prinzipe izan bearrak; *Filii Patris vestri*: ta Komunionekeo barazkaritik, arako irabazi andiak atera ditzaken Prinzipeak.- Eta orregatik Jesusen maiekoak dira, errege Asuerok bere maian izandu zituenak baño agitz, eta agitz andiagok.

Eta orra non itzal bat bezala den Asuero Erregeren barazkaria (izanik au den bezain andi-ederra), Jesusen Komunioko barazkariaren aldean, naiz begira dakiela bien Barazkariei emalleen aldetik, naiz beren barazkariarekin emalle biak billatzen zuten aren aldetik, eta naiz bietatik bakoitzak bere maira deitzen dituenen aldetik.

Bai? Bada oraindik obeki au ageriko da, mai batean ta bestean arkitzen diran gauzetara begiratu ezkerro.

5. Zer ote ziran, errege Asuerok bere maira aterezazi zituen gauzak?- Ez du Eskritura santak erraten, baizik platerak plateren ondo atera zituztela ango maietara; maiak arkitzen zirala janariz ta jakiz ederki

beteak; ta, maietan zeudenei, ematen zietela urrezko kopetan ardorik onenetik.

Baña, onena ere lurekoa zen, Asueroren maieko ardoa; ta ango janaria, egaka dabilzanetatik zen, lureko gauzetatik zen, ta urekoetatik; eta guzia zen errea, egosia, edo zegokan bere saltsarekin maneatua. Eta sasoirik onenean ateratzen zuten gauza ere, guti bat an oztutzen utzi ezkerro, sasoirik bage arkitzen zen gauza zen; ta gauza, naiz ar zedilla, ta naiz ez, andik laster galdu ta usteldu bearra.

Eta nolakoak ote dira Komunionekeo gauzak?- Ezinobeak (azal printzak ezpadira); ta bein ere galtzen ez diranak.

Zer azal dira Komunionekeo gauzen azal oriek?- Ogiaren ta ardoaren azalak, edo akzidenteak.

Eta mamiak, edo azal oriek estaltzen dituzten Komunionekeo gauzak?- Benik bein Jesusen gorputz ederra, ta gorputzak bere zañetan duen odol guzia; ta gero, zeren oriei ditxezkonak diran, Jesusen anima, Jesusen Jaungoikotasuna; ta nola Jaungoikotasun au bera den Aita eternoarena, ta Espiritu Santuarena, Jesusen gauzekin batean an arkitzen dira Aldareko Sakramentuan Aita, ta Espiritu Santua ere.- Ekusten dezu, zer gauzak? Ekusten dezu zer ematen digun

Jesusek Aldareko bere Sakramentuan, ta Komunione-ko bokadu laburrean? Badute zer ekusi Komunione-ko bokadu onekin, Asuero erregeren maira atera ziran janari, ta edari guziak? Ez du Jesusek emen ematen bere bokadu batean, Jaungoiko guztiz altsu batek eman dezaken gauzarik andiena; ta, eman dezaken guzia? Ematen du alabaña bere gorputz-odol ederrekin batean, bere Anima, bere Jaungoikotasuna, ta Jaungoiko guzi-guzia; ta badakizu zuk, ezer-ez bat bezala dira Jaungoikoz osterontzeko gauzak; edo Jaungoikoaren aldean beste guziak; eta badakitzu zuk, orain aditu-ta badere, beste gauza guziak ere arkitzen dirala (ta beregan baño agitz ederkiago) Jaungoiko beraren baitan!

Atozea; ta ez dira, ogi-ardoan idurian, edo aintzurran Jesusek guri ematen dizkigun bere gauza guziak, bein ere galtzen ez diran gauzak? Atozea; ta ez da oraingo Komunione-ko Jesusen Gorputza, milla ta zazpieun urterako Komunione guzietan arkitu izandu den gauza; ta gauza beti osoa; beti bizia; ta beti, ta beti bizi-bearra?– Atozea; ta etzaio berebat gertatzen Jesusen odolari, ta Komunione-ko edozein beste gauzari ere?

Ekusten dezu orain, zenbat den ta nolakoa gure Jesusek Aldareko bere Sakramentuan ematen digun jan-edana, edo barazkaria.

Bai, nere Jesus maitagarria, bai; ekusten dut nik au guzia; ta ez dakit nik nola arritzen ez naben ni onenbat ekustek; eta, zuri onenbat lan andi eragin dizkitzun zure amoreak!- Onenbat ondasun niri zuk, nere Jesus maitagarria! Zureak bezain Gorputz-odol-Anima ederrak, ni bezain gauz itsusi-zikin galduari! Eta, oriekin batean zure Jaungoikotasun guzia, ta zure Aita, ta Espiritu Santua nere ezpañetara, nere eztarri-ra, ta nere biotz ondora, ni komuniatzen nazan aldioro!

Eta alere, ez naz atsegin utsez orain lertzen ni? Ez naz ni emen bertan gelditzen zure amorez urtua, ta iltzeko eran? Ez dakit nik beraz, orduan niri gertatzen zaidana; edo ez dut orretara begiratzen nik, zorioneko aldi orietan? A nere zentzugabea, ta eskerrik ez duena!

B,

Aldareko bere Sakramentuan Jesusek ematen digun guzia, ematen digu amore andiarekin

Zer eratan edo nola ematen ote digu Jesusek komunionekeo bere barazkarian ematen digun guzia? Persiako errege Asuerok bezala?- Ez, baizik denak bezala, ta Jaungoikoaren eran.

Errege Asuerok banarazi zuen bere Inperioko bazter guzietan, egin nai zuen gauzaren berria, adirazirik utzi dugun barazkaria eman zuenean.- Deierazi zituen bere probintzia guzietako Zaldunak, Gobernariak, Gizon andiak, eta Prinzipe guziak.- Prestarazi zituen, norinai begiak liluratzeko lekuraño, barazkal tokiak, kataderak, eta gañerako gauzak; era orretan, ta barazkarirako bear ziran gauzak biltzen, ta billatzen, egin zituzten erregeren pekoak eun ta laur-ogei egun: ta batzuen ibillerarekin, besteen kartekin, ta gañerakoen otsarekin iratzarrik zeduzkan Asuerok, eta guztiz erne, ta egitera zijoan lanari begira, bere Inperioko jende guziak.- Eta ori zen errege Asuerok nai zuena: bazter guziei adiraztea zein andia zen, zuen ondasuna; ta zein andia, zuen eskua; beldurturik guziak, eta

ikara bezala utzi naiez, eragiteko gero guziei bere gogoak ematen ziona.

Eta zer egiten ote du gure Jesus maitagarriak, Aldareko bere maia prestatzen duenean? Ta zer Komunionekeo bere barazkarira munduko guziak deitzen dituenean?- Zeer? Jaungoikoarena; ta amoriozko lan eder bat.

Ematen digu guri gure Jaungoikoak, eman ala, ta ekusi dugun adiña, komuniatzen garan aldioro: baña ematen digu ori guzia, ezer-ez bat bezala, ta ogi apur baten eran.

Anitz maite gaitu Jesus maitagarriak! Guri ongi naiez gelditurik dago gure Jesus Aldareko bere Sakramentuan.- Eman naiez dago guri, emen eman ala; ta, eman aldia arkitu ezkerro, ematen digu guk artu deza-kegun adiña; baño ematen digu, deusez baten eran, gosez iltzen dagoenari ezin eman lekikeon gauza dirudiela, edo, ogi-miki baten idurian, bere gorputza, bere odol guzia, bere Anima, ta bere Jaungoikotasun bazterrik bageko guzi-guzia.

Mana zeritzan, intza bezalako, gauza zuri bat eman zien len Jaungoiko berak israeldarrei, israeldar-
rrak ijitartetik Promisioko bazter onetara eraman zituen denboran.

Goizoro intz edo man artatik biltzen zuenak, neurri txiki bat betetzeko diña, bazuen egun guzirako bere janaria. Ejipto galgarritik zerurako bidea daramagun denbor onetan ere ematen digu guri gure Jesusek geren sustentorako mana zati, edo neurri, israeldarre-na baño agitz txikiagoa, edo bokadu txiki bat baño ere laburragoa; baño mana-zati, edo bokadu labur, bear den eran artzen duenari, emendik zeruraño, ta eternidade guzian ere askiko dituen indarrak ematen diozkana: *qui maenducat hunc panem vivet in aeternum*: ta alere ematen digu gure Jesusek bokadu ezin indartsuago au beren mana israeldarrei baño, agitz merkeago; bada israeldarrak, beren mana au jateko, jaiki bear zutan guztiz goiz, bildu bear zuten zetzan lekuan, eguzkia agertu orduko; zeetu bear zuten gero neke andiarekin, ta meneatu bear zuten bere eran, jatera baño len: baño gure Jesusek guri, gu komuniatzean, ematen digun Aldareko Sakramentuko mana au artzeko, ez dugu guk edozein orduz Aldarera urbiltzea, ta aoa zabaltzea besterik bear; eta ematen digu gure Jesusek guri au guzia, ezer-ez baten eran, ta bokadu guztiz txiki batera bildua.

Orain ekusten dut nik, bai, nere Jesus maitagarria, zein andia den guk zuri zere emate guztiz andi, onen-

bat zuk txikitu onetan, zor dizugun amorea; bada Eskriturak dion gauza bat egiazkoa bada (den bezala), onek dionean gizon maitari bat, bere etxean duen guzia eman ondoan, deusez bat ematen duenaren eran gelditu oi dela (*Cant. 87.*); zein maitari egiñik gelditzen zara zu, gure Jesus maitagarria, zeru-lurrak, eta asma litezkeen ondasun guziak baño geiago ta geiago balio duen gauza bat komuniatzen denari zuk eman ondoan, deus bat eman ezpazenio bezala, ta zordun gelditzen den baten eran bezala gelditzen zaranean zu; ta gelditzen zaranean, berriz ta berriz ere artzalle berari beste anbeste, ta birtute gai guziak eman naiez?

Bedeika dakiola, onenbateraño zure amoreari! Eta a! ezaguturik au nolerebait, egin baneza nik, zuk nere komunioneetako zere emate bazterrik bageko onekin eragin nai zenikedana!

A, asi banendi ni, geiago luzatu gabe, zuk, nere Jesus emalle maitagarriak, nai dituzua, ta nik neronek egin bear ditudan gauza guziak zuzen egiten! Egin ditzaket, bada (ta aisa alere) komunioneke bokadu laburraren indar onarekin!

C

Aldareko Sakramentu au Jesusek ematen diguna, ematen digu asko lekutan ta anitz aldiz

1. Zein lekutan, ta zenbat aldiz ematen ote digu guri gure Jesusek komunioneke bere barazkari ondasunduna?– Anitz eta anitz lekutan; eta aldi anitz geiagotan.

Bai: anitz lekutan ematen digu guri gure Jesus maitagarriak komunioneke bere barazkaria; anitz dira alabaña Españian, anitz dira Franzian, anitz dira Italian, anitz dira Polonian, anitz dira Alemanian, ta anitz-anitz gañera Europak dituen Erreinetan arkitzen diran gure Legeko elizak.– Beste anbeste ez izan arren, anitz dira Amerika deritzan munduaren laur zatietatik andieneko elizak; eta ez dira orren guti, Asia, ta Afrika derizten Mundu beraren beste bi zatietakoak; eta eliz orietan guzietan ematen du Jesus maitagarriak komunioneke, adirazi dugun bere barazkaria.

Eta, diran baño anitz eta anitz geiago badira munduko elizak; eta, eliza guziak batetan jendez betetzen

balira ere, elizaratzen diran guziak izain lukee komunioneke beren barazkaria; ta, komuniatzen liranetatik, bakoitzak artuko luke, Asuero erregeren barazkari andian agertu zen guzia baño anitz eta anitz geiago; bada artuko luke Jesusen Gorputz guzia, Odola, ta Anima; baita Jesus beraren Jaungoikotasuna ere, Jesus beraren birtute ta ibazi guzi-guziekin.

Bada, normal arritzekoa bazen, (zen bezala) errege Asuerok len batean zenbaiti eman izandu zien barazkaria; zer barazkari da onenbat lekutan, ta denbora batean nai duten guzi-guziei gure Jesus maitagarriak ematen dien komunioneke bere barazkaria; izanik, Jesusen barazkari onen bokadu bakoitza, Asuero-ren zazpi egunetako jan-edanak baño anitz, eta asko geiago balio duena, ta Jaungoikoak berak baizik, ongi beintzat, ezin ezagu dezakena?– Bai? Badezu, bada, oraindik geiago ta geiago ere zer ekusi nai badituzu Jesusen barazkari onen emanaldiak.

Noiz ematen ote du gure Jesus maitagarriak Komunioneke bere barazkari ezin andiago au?

2. Eun milla milloietan, ta anitz eta anitz geiagotan; bada milla ta zazpieun urte ta geiago dira, egunoro au ematen dagoela gere Jesus maitagarria: ta gutien-gutiena ematen duen egunean, ematen du,

aspaldi dela beintzat, berreun milletan; anbat, eta geiago dira alabaña egunoro Meza eman oi dutenak; eta orietatik bakoitzak badu egunoro bere barazkaria edo Komunionea.

Gañerako bataiatuetatik, geiago ta geiago dira egunoro batez beste komuniatzen diranak.

Meza emalle, ta Komuniatu oi den bakoitzaren ordezkari komuniatzen balira ere egunoro milloika, ta milloika, orobat izain lizake: bada guzi-guzietatik bakoitzak izain luke Komunionekeo bere barazkaria; ta azkenekoak izain luke lenbizikoak bezain barazkari osoa, ta ongi maneatua.

Au berau egiñen du gure Jesus maitagarriak emendik aitzina, ta mundua bukatu arteko denbora guzian, edo azken kontuetako eguneraño; ta, egiñen du au guzia, batere bera nekatu gabe; ta egiñen du komuniatzen den bakoitzari emanagatik, aldian ark artu ala, aitu gabe, ta laburtzen ere etzaizkala bere graziaren, bere doaien, ta bere birtuteen ondasunak; eta egiñen du Jesusek au guzia guri ongi naiez, ta gure onagatik.

Ekusten dezu zuk gure Jesus onarena! Ekusten dezu zuk zer den, ta zenbatekoa den, gure Jesus maitagarriari zuk eta nik, biok, zor diogun amore?

Gurekin arkitzen da gure Jesus, ta gau, ta egun, ta beti gure elizetan dago gure Jesus maitagarria; ta guri geren komunione onetan bere gauza guziak eman naiez dago gure Jesus maitagarria!

Eta anbat, eta anbat, eta guk artu ala, guri geren komunione bakoitzean emanagatik bein ta berriz, ta berriz ere, gure Jesus maitagarria, berriz ta berriz ere guri eman naiez dago Jesus beste anbeste, ta anitz, eta anitz geiago!

Au guzia nai du gure Jesusek guri ongi naiez, ta guri zorioneko bizitza bana emen eragiteagatik.- Atozea; ta au guzia ezezik, onen erdia ta laurdena ere aski ez da, ta sobera, gutatik edozeñi Jesusen amorearen suan gañez eragiteko?

Bai gure Jesus maitagarria, bai, ongi guk au ezagutzera, ta astiz ta kontuz guk oni begiratzen bagenio! Baña guztiz eskergabeak izan gu! Zure gauzetarako zentzu gutirekin arkitzen garan jendeak izan gu! ta lurreko gauzetan geiegi sarturik arkitzen garanak!- A, guk begira bageneza gaurdanik badere Aldareko zere Sakramentuan zuri zor dizugun amore bazterbagekari, ta Sakramentu beretik atera dezakegun zeruko ondasunari; onen atera-naiak, eta zure amoreari erantzun bearrak eraman gintzan gero gugandik zuk nai

dezuna zuzen egiteral Ala gerta dedilla, nere Jaungoiko maitagarria; bai arren, bai!

In Eucharistia ipse sanctitatis Auctor est.

Trid. Sess. 13. cap. 3.

Zer ote da Aldareko Sakramentuan gure begiak ekusten dutena? Zer?- Gure begiak or ekusten duten guzia da ogi mee, edo ostia zuri baten iduri edo aintzura bat.

Eta zer ote da siñiste onak, edo fedeak or guri agertzen ta erakusten diguna?- Or guri fedeak, edo siñeste onak agertzen dizkigu, ekusteko diran gauzarik andienak; bada agertzen dizkigu, Jesusek dituen, gauza ekustekoak, edo Jesusen gizatasuna, ta Jesus beraren Jaungoikotasuna, ta tasun oriei dagozten gauza guziak.- Zein ederrak oriek! Zein ekuskariak! Eta zein andiak!

Oriek guziak berekin dituela dator gugana gure Jesus, geren komunionean guk gure Jesus artzen dugunean. Eta guzia dakar gure onerako, ta guri geren gauz onetan bere esku indartsuarekin lagundu naiez.

Au guzia dakar gure Jesus maitagarriak, nigana-
tzen den aldi guzietan? Au guzia dadukat nik nere
bularrean ta nere biotz ondoan, ni komuniatzen nazan
aldioro? Eta alere atsegin utsez ez dira lertzen nere
biotz au, nere erraiak, eta nere bular guzia?- Ezagun
du ez dudala anitz begiratzen nik, aldi orietan nik
nerekin dadukadanagana!

San Juan Bautista amaren sabelean arkitzen zen
oraindik, Jesus bera bere Amarekin sartu zenean aren
aitaren etxean; ta alere, Jesus aren ondora zeneko, an
bertan, bere atsegin-pozak ezin garaituz, asi zen sal-
toka S. Juan Bautista. Eta Santu beraren ama santa
Isabel arriturik gelditu zen, Jesus bera bere Amarekin
etxe berean sartu zeneko.

Eta zu, ta ni, bekatari txarrok, Jesus bera idukiaga-
tik guk geren barreanean komuniatzen garanetan,
batera ta bestera begira gaude, ta norekin gauden ere
begiratzen ez dugula!- Eskergabearen arrigarria! ta
siñistearen otz illuna gure bekatari bion siñiste-eske-
rrak!

*Vere tu es Deus absconditus,
Deus Israel Salvator.*

Zu, bai, zu zarala gure Jesus maitagarria, ongi gorderik Aldareko Sakramentuan arkitzen zaran gure Jaungoikoa, ta israeldar guzien Salbatzallea!

Gorde ziñan zu, bai, ta ongi alere, zere Amaren baitan, gizon egiñik gelditu ziñanean: baña zu jaio artekoa zen, orduko zure gordeera; ta ara zer denbora den, Sakramentu andi orretan zu gorderik arkitzen zarala!

Lenbiziko zere ogeita amar urteetan etzenuen zuk, ez, nor ziñan anitz agertu izandu; baña orduan ere anitzek ekusten zinduzten zu, ta bazuten, zure bear bezalako berria zure Ama maiteak ta Ait-orde S. Josek; baita S. Juan Bautistak ere: baña nork ekusten zaitu zu or aldareko Sakramentuan?

Azkeneko zere irur urteetan ekusi zenuen zuk, bai, zerorrek dakizun adiña bidegabe ta txarkeri; ekusi zenuen zuk, milla zere nekeren buruan zere burua arantzez urratua; ta ekusi zenuen zere buru bera lapur biren erdian iltzez josia, ta odolez ta blasfemiez zena betea; baña laster agertu zuten nor ziñan zu, zeruak eguerdiko bere illunarekin, arriak beren erdiratzearekin, lurak bere dardarekin, ta illak berak beren bizitza

berriarekin. Aldareko zere Sakramentuan zaude zu nor zaran zu ageri etzaitzula; ta era orretan or zaude zu, joan diran milla ta zazpieun urtez, ta geiagotan ere.

Baña, zergatik au onela, gure Jesus maitagarria? -Gugana maiz etorri naiez, zere ondasunez gu, ta zere maitatzez bete-beteak uztera.

Gorderik ezpazeunde zu or, ta bokadu bat eginik Aldareko zere Sakramentu orretan, ez giñake trebe gu, zu guk jateko, edo komunione batean artzeko; ta galduko genituke guk, zu or artzetik datozkigun laguntzak, graziak eta ondasunak; eta oriek guk gal ez ditzagun, edo oriek guri zuk eman naiez, or zaude zu, ezer-ez baten eran, ta guk zu, alkerik eta lotsarik bage, ar zaitzakegun eran.

Zorionekoak zure berri au dutenak; eta, zuk nai adiñetan, zuri dagokizun beren animetako garbitasunarekin, ta umilki artzen zaituztenak; bada oriek dira artuko dutenak, onak izateko bear duten zure laguntza ta grazia: ta oriek berak, orrenbat ontarteren esker-rak emen eman ondoan, zerurako diranak, an esker obeak, eta obeki eternidade guzian zuri ematera.

Ni ere arkitzen banintz gaur, ta beti orien artean! Arki naiteke ni, bai, ori nik neronek ziñez nai dudala?

*Venite; comedite panem,
et bibite vinum, quod miscui vobis.*

Prov. 9. 5.

Komunione bakar bateko ondasunakgatik ere, pozik bear genuke guk munduaren bazterrik urrutienaraño: bada badira (ta anitz alere) gutiagoren billan aratzen diranak; balia gure Jesus maitagarriak kendu digu guri orrenbat neke ta bide; ta etorri zaiku, gu gerok bizi garan tokira. Eragin du or Eliza; prestarazi du or bere maia; ta atozte, dio, nere ogi-ardoak artzera; atozte nere gorputz-odol garbien komunionera; atozte bai; bada sartu naiez nago ni zuen biotzetaraño: Bete naiez nago ni zuen animak nere amarez, nere graziaz, nere laguntzaz, ta nere ondasunez!- Atoz bada, bein, ta berriz, ta maiz, eta maiz: aldian obeki artuko zaituztet nik; aldian geiago emain dizuet nik zuei, umilki bazatozte zuek, eta bear den eran: atozte bada, ta atozte: ez da, ez, nagiz, alkez, edo lotsaz zer gelditu.

Aditzen dezu zuk zure Jesusek gaur zuri erraten dizuna? Ustekoa dezu zuk zure bearrez dagoela, zerbait

egiteko gure Jesus maitagarria? Ez bada: ez du, ez, Jesusek besteren bearrik, nai duena noiznai ta bertan egiteko: ta norbaiten bear izatera gure Jesus maitagarria, milloika ditu Jesusek bere Aingeruak, berak nai duen edozein gauzetarako; ta keñu bat Jesusek oriei egin orduko, an dira guziak, Jesusek nai duen tokian; ta, aditu orduko, egiña dadukate Jesusek eragin nai diena.- Deitzen gaitu, bada, gure Jesus maitagarriak, geren onerako. Deitzen gaitu, guri ongi naiez eta gu ongi ondasundunak egiñak uzteko; ta birtutez birtute garabiltzala, bere zeruan gu sarrerazteko.

Ongi: ta Komuniorako Jesusen dei bakar bat ain on andia bada, zer on, ta zer ontarte izain ote da onenbat Jesusen deitze ta deitze?- Nola nik erantzun, Jesusi diodan, onen zor andiari? Bizitz umil garbiarekin, ta zinki, ta maiz bera maitatzen dudala.

Egiteko asmoan arkitzen ote naz ni gaur?

Bai, nere ustez; ta lenago orretan asi gabeaz, ta asi bagez egin ditudan utsen damuarekin, erraten dudala: *Nere Jesukristo, etc.*

LXIX.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN KORPUTZAREN

ALDAREKO EGOERA

Tolestaturik dagoen oial ederra bezala, da (ekusi dugun bezala) Aldareko Sakramentua. Urrez, zillarrez, ta lorez beterik egonagatik oial bat, ongi zabaldu artean, beste edozein oial bezala da, edo beintzat ez da ezagutzen, dagokan eran ta bear bezala, oial onen balioa.

Ori bera gertatzen zaio, Aldareko Sakramentuari, astiz, ta banaka ez begiratzera, Sakramentu onek gordeak daduzkan gauza guzietan; bada gañerako begiratzeara, nasteka, ta batetan begiratzeara da; ta Sakramentuko gauzak ez ongi, ta ez erdizka ere ekustea.

Asi gaitezen Sakramentu onen gauzak astiz, ta banaka ekusten; ta ekus dezagun lenbizi-lenbizikoa, emen arkitzen den, Jesusen gorputz maitagarria.

Nolakotsua den, Jesusen gorputzak Aldareko Sakramentuan duen edertasuna

Konsagrazioko itzak erraten dute, ta siñiste onak erakusten digu, Aldareko Sakramentuan arkitzen dela gure Jesusen gorputz maitagarria.

Nola, uste dezu?- Obian biztu, ta artu zituen edertasun ta gañerako bere doai guziekin.

Gure Jesus maitagarria gurutzean ill, ta irurgarren egunean, atera zen Linbotik Jesusen Anima, an arkitzen ziran anima on guziak berekin zekazkiela.

Oriekin batean sartu zen Jesusen Anima, bere gorputza ortzitu zioten arrizko obi berrian.

Erakutsi zien an, berekin zekartzienei, nola zegoen aren gorputza; ezagu zezaten, oriekgatik, eta mundu guziagatik, bere gorputz artan ekusi, edo eraman izandu zuena; ta, ura ekustean, arrituak geldituko ziran Linboko anima on guziak: alakoa zegoen alabaña!

Ote dakizu zuk nolakoa zegoen orduan an, gure Jesus maitagarriaren gorputz au?- Buru guzia zedukan arantza zuloz betea, ta zerbait anditua. Aurpegia zedukan ill-oria, ta, borrero gogorrek eman ziozkaten

okabilkak, eta eskukaldi gogorak ongi agerian zeduzkela.- Besoetako ezurak beintzat, tiraka atereak. Bere sorbalda ta bizkar guzia ezur-erraietaraño larrutua, ta urratua.- Esku-oñak batetik bestera iltzez zultuak: eta, burutik oñetaraño, zen guzia, doloretako retablo bat egiña.- Eta au zegoen, edozein illen gorputza bezala, edo ill oial zuri batez inguratua.

Linboko anima onak ezezik, zu ere, zuk an ekustera gure Jesus maitagarriaren gorputz au oriek aldi artan ekusi zuten eran, ongi damaturik, edo naigabe onez ongi beterik geldituko ziñan, bai; ta urrikarizko negar onak egiten zenituela; ta denbora berean eza guturik zuk, zere bekatu itsusi arrigarriekin, arrerazi zeniozkala Jesus maitagarriari, eta artan zegoen bere korputzeko karramitsak edo arrastoak adirazten dituzten nekeak eta penak, geldituko ziñan zu, oriek zuk arrerazi zeniozkalako urriki andiarekin, era orretarako bide berririk ez emateko asmoan, edo berriz bekatuak ez egiteko naiez, ta gogoz ongi betea.

Begira zaiozu, orain badere siniste onaren begi garbiz; ta egizu ori bera: ori da orain Jesus maitagarriak zugandik eskatzen duen urrikaldia.

Zein ere urrikalgarria zegoen gure Jesusen gorputza, Linboko animak, Animarik bage bere obian ekusi

zutenean, gorputz berean bere Anima sartu orduko, gelditu zen Jesusen gorputza, ill oialik bage, mirra, ta aroma guziak aldebat utzirik, eta ezur bakoitza bere tokian zedukala.

Gelditu zen, bere borreroen ta gizon gaistoen ukaldietatik zituen usteleren, ta anditasunen señale guziak kenduak, zauriak joanak, ezurrak estaliak, eta gauza guziak, bear zen eran zeduzkatziela: ta gelditu zen, guk adirazi dezakegun baño agitz, eta agitz edertasun andiagoarekin.

Eta orra, bekatuaren eriotzetik bizten den anima baten ispillu ederra! Ispillu orretan ongi zuk, eta maiz zere buruari begiratzera, ekusiko ta ezagutuko dezu, zein itsusia den, bekatuan datzan anima baten egoera; ta zein ederra, graziaren biztueran sarturik arkitzen denarena.

Bekatz illa datzan anima dago, mendiko ikatz beltz bat baño agitz beltzagoa. Era onetan datzan animak, beren tokietatik atereak daduzka bere adimentuaren, ta nai onaren ezur guziak, edo gauzak; eta gauz onetarako, berez, ezpaliz bezala da; bada ari bere Jaungoiko maitagarriak ez argi egitera, illunbean dabil; ta Jaungoiko berak bere eskua, onez ez ematera, ez da aterako anima bere bekatuaren loipetik, eta

galdu-bearra da eternidade guzirako, sulezeko beltz guziak bezala.

Baña, bere gaizkiez ongi ta ziñez urrikiturik, eskatzen badiozka anima berak gure Jangoiko maitagarriari bere argia ta laguntza, emain diozka biak gure Jaungoikoak; eta aterako du bere bekatuaren obipetik, eta emain diozka bere graziaren bizitza, ta birtuteen edertasuna; ta utziko du, ekusten duten Aingeruei atsegin andiak ematen dieztela: ta denbora berean utziko du, gauz onetarako bear duen esku ta indar guziarekin.

Ekusi zazu dituzun, edo ez, bizitza, edertasun, esku, ta indar berak; eta ezpadituzu, egizu lenbaitlen alegiña, oriek zuk zere Jaunagandik izateko. Eta begira; ez berriz zuk oriek galdu; bein irabazi ezkerro!

2. Bat diran ezkerro, diran bezala, Jesusen gorputzak bere biztean arturikakoa, ta orain duen edertasuna, ekusteko guk Aldareko bere Sakramentuan Jesusen gorputzak duen edertasuna, ekus dezagun orduan ark artua, ta orain berak bere glorian duena.- Ekus dezagun, diot, illunbean bezala, ta guk emen ekusi, edo ezagu dezakegun eran.

Jesusen Gorputzak bere biztean arturikako, ta geroztik bere glorian duen edertasunak garaitzen du beinik bein zeruko edozeinen edertasunik andiena.

Zenbat, uste dezu? Eguzkiaren argiak krisellu txar baten argia adiña, ta anitz geiago.

Baña norañokoa ote da zeruko baten argia ta edertasuna?- Juizioko eguna joan ondoan, eguzkiak izan bear duen argia bezalokoa: *tunc justi fulgebunt sicut Sol in Regno Patris eorum* (Matth. 13. 43.) ta Jesusek dionaz, orduan eguzkiak izaindu, orain baño zazpi aldiz, edo zazpi bider argi geiago: *Et lux solit erit septempliciter, sicut lux septem dierum.* (c. 30. 26.)- Ekusi zazu, andia den, edo ez, Jesusen gorputzaren argia ta edertasuna.

Eta oraindik au zuk obeki ekusi, edo ezagutu nai badezu, adi zazu S. Bernardinok dion, ta gure ekuste oni dagokan gauza bat.

San Bernardinok diona da (*i. 4. serm. de Asumpt.*), Jesusen Amaren gorputzak bakarrik bai duela, Santu ta Santa guzien gorputzen argi guzia adiña argi; ta argi geiago ere.

Gauz arrigarria! Zeruko gorputz bakoitzaren argia, eguzkiaren oraingo argia baño zazpi aldiz andiagoa! Zeruan arkituko anitz milla milloi gorputz; eta gorputz bakoitza orrenbateraño argiarekin: ta alere, orien guzien argia baño argi andiagoa, Jesusen Amaren gorputzak duen argia ta edertasuna? Baietz, dio Santuak.

Ongi: ta Jesusen gorputzaren argia, ta edertasuna?– Zeruko gorputz guziena, ta oriekin batean bere Amaren gorputzarena baño anitz eta asko bider andi-agoa ta andiagoa; da alabaña Jaungoiko-gizonaren gorputzari dagokan bezalakoa; ta, gañerakoen gorputzei orrelakoa dagoten ezkerro, ez dagoka arenari, adirazi duguna baño txikiagoa edo laburragoa.

Orra zenbat argirekin; orra zenbat edertasunekin arkitzen den, Aldareko Sakramentuan dagoen gure Jesusen Gorputza.

Onenbat argi ta edertasunekin an ekustera zuk zere Jesus maitagarria, pozez bertan illik geldituko ziñake zu, ta asnaserik gabe; ta ezin komunია zindez-ken eran.

Ez dator orretara, ez, gure Jesus maitagarria Alda-reko bere Sakramentura: gure biotzeraño sartu naiez dator; ta gu bertan ondasunez beteak uztera: ta orre-gatik dator, edertasunik eta argirik ezpalu bezala, ogi apur baten antzan, aintzuran, edo idurian; ta aur batek ere ezpañen idek-aldi batez ar dezaken eran.

Ekusten dezu zuk, norañokoa den gure Jesus mai-tagarriak bere Sakramentu onetan agertzen digun amorea? Ekusten dezu zein maitagarria den gure

Jesus, gure amarez emen sakramentatua, edo ain guziz gordea?

B.

Jesusen gorputzaren zenbait aldetako argi bereziak, eta edertasuna

Zein ere andia den Jesusen gorputz guziko argia ta edertasuna, agitz andi-ederragoa da Jesusen gorputz berari bere esku-oñetan ta bularrean ageri zaiona.

Gañerako bere argiaren aldean, zer argi dirudiela deritzazu zuk Jesusen gorputz maitagarriaren esku oñetako, ta bularreko zulo lekutik ageri zaion argi andi eder onek?- Eguzki ezin-ederragoa bere izar ederren artean.

Arkitzen da, bada, gure Jesusen Korputz guzia, len guk ekusi dugun argi, ta edertasun guziarekin; ta, bere edertasun au guzia andi dakion, beraren leneko neke arrigarriei dagoten eran, eman izandu diozka Aita eternoak bere esku-oñetan, ta bere bularrean argi agitz andiagozko bost eguzki bezala; ta bostetatik bakoitza ezin ederragoa.

Bere esku-oñak iltzez, ta bularra lantzaz bezala, zulatu zioten borrhero gogorrak Jesus maitagarriari bere burua, arantzeko koro guztiz arrigarri batekin; ta arantz bakoitzak zulatu zuen tokitik aterazen zaio bere buruan, esku-oñetan, ta bularrean bezalako argi eder-andiago bat; eta Jesusen esku-oñetako ta bularreko argiak gorputz guziko argia bezala, buruko zulo-tokietako argiak ere garaitzen du buruko beste argi guzia; ta argi onek egiten du bidenabar Jesus maitagarriaren buruaren inguruan, asm-al diteken baño ere, koro agitz eder-ta ederrago bat.

Biztu, ta bere obitik atera zenean gure Jesus maitagarria, agertu zen alde guzietatik argia ta edertasuna zeriola; baña Jesusen gañerako edertasun guzia garaitzen zuen Jesusek bere buruan zekarren argizko koro ezin-ederragoak.

Era bereko argiarekin bere esku-oñak eta bularra eguzki egiñak zekartzien Jesus maitagarriak; eta nekaera bereziren bat izandu zuten Jesusen gorputzeko aldeak edo bazterrak, bazuten, bai, orduan, ta badute gaur ere, orien nekeei zegoten beren edertasuna.

Gisa onetan agertu zen gure Jesus bere Aita maitagarriaren begietan, ta an ura agertu orduko, adirazi

zion Aita berari, garaituak gelditzen zirala beraren etsaiak, eta ezin zuzenago egiñak Aitak berak eman ziozkan egiteko guziak.

Zenbat atsegin artu ote zuen Aita eternoak, bere Seme guztiz maitagarria era onetan ekusi zuenean?

Ordu artarako an egoin ziran, Aitak berak bilduak, zeruko aingeru ta kerubin guziak; eta guziak bertan belaunikaturik, linbotik Jesus berak atera zituen anima guziekin batean, egiñen zioten Jesus maitagarriari agur bat ezin-andiagoa ta errain zioten, atsegin-kontentuz liluratuak arkitzen diran batzuen eran, Errege salmariak, edo Dabidek, aldi artarako utzirik zedukana, edo: Ona non agertu den gure Jaungoikoak egiñikako bere egun andia! Au da, bai, au, zeru-lurrak atsegin andiz bete dizkigun eguna; ta aspaldi guzian mundukoak bere nai andiarekin, ta bere begira zeduzkana! Izan dedilla bada, Jaungoiko-gizon, gure Errege Jesus, gure gloria ta gloria geiagorako; ta bekatari guzien onerako.

Bere obitik atera zenean, zeduzkan argi guzia ta edertasuna, daduzka Jesusek, Aldareko Sakramenturaten denean, guk oriek geren gorputzen begiz ez ekusiagatik; eta bere obitik ateratzean aingeru-kerubinak egin izandu zioten agur guzia, ta anitz geiago

ere zor zaio Jesusi bere argizko etortze eder onegatik; orduan alabaña, ala agertu zen Jesus illen artetik ateratzeagatik, eta bere onerako; baña, Aldarera datorkigun aldietan gure onagatik datorkigu, ta gu guziok bere ondasunez, argiz, ta graziaz bete naiez, ta gure amorez emen, illaren eran, egotera.

Baña egiten ote dugu guk, zerutik etorririkako aingeruak, eta kerubinak egin izandu zutenaren laurdenik ere? Aitz nekatzen ote gara gu geren eskarrak ematen gure Jesus etorri maitagarriari, bere onezko etortze eder onegatik? Askotan urbiltzen ote gara gu, agur andiak guk emen Aldareko Sakramentuan Jesusi egitera?

A, nere Jesus maitagarriai Or zaudenik ere etzait niri gogoratzen (askotan beintzat) egun osoetan! Aitz eta aitz egun joaten zaizkit niri, zugana ni bein badere urbidu gabe: ta, noizbait ni orrara urbiduagatik, zugandik ongi urrun ibilli oi dira orduan ere nere gogoia, ta nere asmo guziak!

Orra bada, nere Jesus maitagarria: orra, zure Sakramentura etortze ederraz nik egin oi dudan kasoia, edo begiratzea!- Orra nola erantzun oi diodan nik, zuk or agertzen didazun bazterrik bageko zure amoreari! Berebat gertatuko ote da, datozen denbore-

tan ere, edo ni bizi nazaño? Ez baldinbere! Ez arren, Jesus maitagarria, ez!

C.

Jesusen Korputzak aldarera dakartzien doaiak

1. Baditu gure Jesusen Gorputzak bizturik milla zazpieun ta urte geiago; ta alere arkitzen da gaur, biztu zen egunean bezala; ta gisa batean egon bearra da eternidade guzi-guzian ere.

Ez du otzak, ez du beroak, ez du eritasunak, ez eta zartzeak ere, Jesusen gorputzarekin ekustekorik.- Beti ta beti arkituko da Jesusen Korputza era batean: beti osasunan, beti atsekaberen pitsik gabe; ta beti-beti Jaungoiko-gizonaren gorputzari dagokan bezala, atsedete osoarekin, nekerik ez duela, atsegin-kontentuz betea, ta nai duen eran.

Zeruan dago beti gure Jesusen Korputza, aldarean egonagatik. An, ta emen dago beti bere Jaungoikotasunarekin; ta an ta emen dago ezin aisago, ta ezinobeki.

Bukatu ziran, bai, Jesusen eriotzarekin, Jesusen Gorputzaren iltze ta neke guziak; eta Jesusen biztearekin asi ziran, eternidade guzian iraun bear duten Jesusen pozak, atsegin utsak, eta kontentuak; eta non-nai, ta nolana egonagatik Jesus maitagarria, ez du Jesusek galtzen bere zorioneko doai orietatik batere; ta beti da bat gure Jesusen zorioneko Gorputza; ta beti galtzerik bagekoa, ta ezin ill ditekena. Orra, bada, Jesusen Gorputzaren lenbiziko doaia; ill ez-bearra!

Doai onekin dator bada, gure Jesusen zorioneko Gorputza aldareko bere Sakramentura; ta, gu komuniatzen garanetan, gure bularretara.

Zergatik, uste dezu, edo zertarako?- Graziaren bizitzan gu guztiz sendorturik uzteko, edo bekatuaren erio gaistoaren atzaparretatik betiko gu atera naiez.

Orretarako, gu ara ongi prestatuak bagoaz, argi egiten dio Jesusek gure adimentuari, ekus ditzan emengo bideak, diran bezala; ta, bide gaistoak utzirik, ar ditzan birtutez birtute daramatenak.

Ongi prestatuak gu Komuniora bagoaz, berotzen du an Jesusek gure biotza bere amoriozko suarekin, eta ematen diozka gure animari indar andiak, bide oneko bere etsaiak, eta tentu guziak garaitzeko; ta ematen dio denbora berean an gure Jesus maitaga-

riak bere laguntza ta eskua, erori bage dabillen geroz geiago, ta pausu on luzeak ematen dituela.

Ai! au guzia irabaz baneza nik nere komunioneetan; ta au guzia nik irabazteko, urbiltzen banintz ni nere Komunionera biotz umill ta ongi prestatuarekin!-Lagun zakizkit, arren, nere lan onetan ere, nere biotzeko Jesus maitagarria. Eskatzen dizut nik au zere biotzeko amore andiagatik.

2. Atera zen bere obitik gure Jesus maitagarria, berriz ez-ill bearra ezezik, nekerik berriz ezin duken Gorputzarekin.

Arrezkero su bizitan sartuko baliz ere gure Jesusen Gorputz au, ez litzake erreko batere. Ezpat-ukaldiak, eta sutunbaren tiroak, eta balarik andienak ere ez lioke, aizeko pitsik txikienak baño kalte geiago egiñen gure Jesusen Gorputz eder ill ez-berrari. Ezpiritu utsutsa bezain urrun arkitzen da gaur gaizki, ta gaina galgarri guzietatik, gure Jesusen Gorputz zorionekoa; ta era onetantxe datorkigu guri gure Jesusen Gorputz au, gu komuniatzen garan aldioro.

Ote dakizu zuk zertara?- Egiten zaizkigun naigabe ta txarkeri guziak, arrizkoak bagiña bezala, beraren izenean emeki guk eramateko, asmoz beterik gu uztera.- Ori guk egitera, ta bidenabar artzen baditugu guk,

asaldatu gale, gure legeak dakartzien neke ta atseka-be guzia, badute gure animak, Jesusen Gorputzaren bigarren doaiak aldareko Sakramentuan erakusten diguna; ta gu artean, guk au ez galtzera, eternidade guzian egoin dira gure gorputzak, Jesusen zorioneko Gorputzaren eran, edo nekerik eta naigaberik ekusten ez dutela.

Eta nork ez du emen artu bear, bear bezala, edozein txarkeri, naigabe ta neke, eman dakion gero, eternidade baterako, doai au bezain doai eder-billagarrria?

3. Jesusen Gorputzak, obitik ateratzean zuen, ta Aldarera dakarren, irurgarren doaia da bere arintasuna ta ibillera bizia.

Ekusten dezu, lurretik zein urruti arkitzen diran zeruko izarrak?

Bada emendik izarrak baño, izarretatik urrutiago arkitzen da Jesusen Gorputza; ta alere, Apezak konsagrazioko itzak erran artean, egiten du Jesusek andik Aldarerañoko bidea; ta berebat egiñen luke, milla ta milloi bider urrutiago ta urrutiago balego ere; bada, san Bernardok dionaz, gogoak adiña bide egin dezake zerukoaren gorputzak; eta badakizu, ez-da-bai-da batean gogoak egin oi duena, ta arkitzen dela, berak

nai duenean, denbora berberean ere, emen ta zeruan, ta non nai, gure gogoan.

Era bereko doala, ta ibillera, gu ill ondoan, gure gorputzei eman naiez, dator gure Jesus bere Gorputz doatsuarekin aldarera, ta aldareko bere Sakramentuan gure barrenera.- Ez dugu guk orretarako, gure Jesusek bere etortze arin onekin erakusten diguna egitea besterik bear.

Ote dakizu zuk zer egiteko den, gure Jesusek, aldi onetan agertzen digun egiteko au?- Au da gure Jaungoikoak bere Legean manatzen dizkigun gauzak zuzen egitea, ta egitea guk gauza orietatik bakoitza bere aldian laster, ta gog-onarekin.- Erne egotea gu, gure Jaungoikoak elizan, bidean, predikuan, libruz, edo geren bakartasunean adiratzen dizkigun gauzak ontzat artzeko; ta alik leenena, ta zuzen, ta ongi oriek egiteko.

Egin ote dut nik au oraindañoko nere denboretan?- Ez beintzat beti. Ez eta erdietan ere! Egunen batean au ageriko da!

4. Jesusen Gorputzaren Aldareko laugarren doaia da Gorputz beraren meetasuna; ta nondik-nai sartugaia.

Biztu zenean, atera zen bere obitik gure Jesus mai-tagarria, Gorputzik izan ezpalu bezain aisa, ta gañeko arria kendu ere bage.

Nola, uste dezu? Arritik igarotzen zela Jesusen Gorputza, eguzkiaren argia kristal batetik igarotzen den bezain aisa.- Berebat aterako zen gure Jesusen gorputza, arriak baño agitz geiago atera-bideak kentzen dituen bronzet ingurutua egonagatik aren obia: gloriar betea zegoen alabaña, biztu zenetik, gure Jesusen Gorputza, ta orregatik, espiritu utsa bailiz bezala zen lan onetarako Jesusen zorioneko Gorputza.

Berebat geldituko da gure gorputza ere, lan bera-rako, orain guk zuzen egitera Jesusek bere doai one-kin erakusten digun gauza.

Zer gauza ote da bere ateratze mee onetan gaur guri gure Jesusek agertzen diguna?- Geren asmo astun-loi-galgarri guziak guk uztea. Aragiaren naikun-de zikinei geren biotzetan tokirik guk ez egitea. Zureak ez diran gauzen kargak zuk ez artzea, edo oraingoz artuak badaude, bere lekura oriek zuk itzal-tzea; ta zere biotza orain ongi garbiturik amore onaren suarekin, lurreko ezatasunik bage lenbaitlen zuk uztea.- Orra gorputz doatsutarako emen azitzen denaren zorioneko egoera. Orra gure Jesusen gorpu-

tzak, bere doai ta edertasun guziekin gure gorputzentzat billatzen duen egoera zorionekoa.

Eta izanik gorputzen egoera au, zuk zerorrek ekusten dezun bezain ondasunduna; ta egoera ondasundun, eternidade guzian iraun bearra, ez ote dugu guk irabazi bear gure Jesusek Aldareko bere etortzearekin erakusten dizkigun gauza txiki zenbait ez egin naiez?—Gure ero galduak, ori guri gertatzera!

*Egredimini et videte, filiae Sion,
regem Salomonem in diademate,
quo coronavit illum mater sua.*

Cant. 3. 11.

Atozte animak (erraten dizue Eskritura santak zuek komuniatzeko zaudezten denboran; edo zeren Jesusi zuek, zeren agurrak egitera elizan sartzera zoazten aldian) atozte bada, ta ekusiko dezue, nola arkitzen zen len Pilatosen etxean, ta nola dagoen gaur aldareko bere Sakramentuan gure Jesus maitagarria.

Len ezarri zion Sinagoga gaistoak, ugaz-ama gogorrek bezala, edo ezarri zioten len Lege zarreko israeldar gogorrek, arantzazko koro izugarri bat erre-

ge Salomon, bakezko errege, Jesus maitagarriari; baña orain orren orde, eta orrek arrerazi ziozkan oñaze ta neke gogorren alde, ezarri dio gure Jaunaren jakiundeak, edo Aita eternoak, argiz ta izarrez egiña baliz baño agitz ederragoa den beste bat.

Ekusi zazu orain al dezun eran edo siniste onez, ta zeruko argiarekin, zein ederki daokan gure Jesus maitagarriari bere argizko koro au.- Begiz zuk gaur dagoen eran gure Jesus ekustera, atsegin utsez bertan illa geldituko ziñake.- Ill etzaitezen, bada, ta zure irabazirako, gorderik dago gaur gure Jesus maitagarria ogiaren aintzuran edo soñekopean: baña zein ere gorde bildua dagoen or gure Jesus maitagarria, adirazi zaitzun baño ere agitz eta agitz ederragoa dago: ta denbora berean, urbiltzen zaizkanak ongi artu naiez dago.

Zoazkio, bada, agurrak eta agur on umillak egitera. Ori, ta anitz eta anitz geiago ere zor diozu zuk, or gorderik agertzen zaitzun orri: ori da alabaña zure Jaungoiko ongille maitagarria; ori da zure Salbatzailea; ta ori zure Erregea: baña Errege ezinobea, ta ezin maitagarriagoa; ta Errege, zure onerako, milla nekeren buruan, bere bizia ta odol guzia emanikakoa.- Edertasunez jauntzirik dator gaur, ta gloriako koroarekin zure Errege maitagarri ori; ta era orretan dator-

kizu, zuri adirazteko or, bera dela beraren izeneko nekeen irabazia.- Zoazkio, bada, bere erakuste andi eder onen eskerrak ematera; ta gaurgero berak nai duena baizik egin nai ez dezula, itzez edo biotzez or berari erratera.

* * *

Atozea, dio gure Jesus maitagarriak, atozea; utzi dezake ama batek atzentzera bere erraietako ume-txoa? Ekus dezake ark bere umetxo au negarrez itozten, oñazez beterik edo beste zerbait itxura galgarrietan, ezpaliz baño geiago urrikaltzen etzaiola!

Ez da erraz arkitzen, ez, orrenbat gogortasun ama baten erraietan. Baña arkitzen baliz ere gogortasun ori aren baitan, ez naz ni, ez, dio Jesus maitagarriak era orretakoetatik.- Amari bere umeak baño, anitz neke geiago zuk niri arrerazi izandu didazu, bai. Nere Pasio guziko, ta nere gurutzeko neke guziak zuk niri arreraziak dira edo nik neronek zure amorez artuak. Eta nik, naiagatik ere, ezin atzen zaitzakedana zara zu: eskuetan dadukat alabaña nik zure izena; ta maiz begiratzen dut nik nere bi eskuetara, nere esku bere-

tako zuloen señaleak edo siñuak nere Aitari nik agertzeko zure ta gañerako bekatari guzien alde.

Aldarean ni gorderik egonagatik, ez daude, ez, neretzat gordeak, dio Jesus maitagarriak, nere eskuak; ez eta zure izena ere.

Beti zaude zu nere gogoan; beti zaude zu nere biotzean; ta zu niganatzen zaran guzietan, edo zuk ni komunione oneko maian artzera, edo zuk niri aldareko nere Sakramentuan agur egitera, atsegin on bat ematen didazu zuk niri; ta gelditzen naz ni, zu beti ta beti nere biotzeko amorearen suan erre edo urtu-nai andiarekin.

Atoz bada maiz-maiz, atsegin ori niri zuk emen egitera. Ez dira izain, ez, etortze galduak, aldi orietan niri zuk egiten dizkidatzun etortzeak. Orien alde emain dizkitzut nik zuri (ta pozik alere), zuk ni maitatzeko, ta zere burua zuk ontzeko bearko dituzun gauzak.

Jesus, ta zure onegia! ta zure maitagarria! Munduaren bazterrik urrutienean arkitzen baziña ere, ez nuke atsedean bear, zu nik ekusi artean; ez eta kendu bear ere zure begietatik, ezinbestez baizik; eta, onen alde zaduzkadala, egon bear dut nik ezpaziña baño geiago billatzen etzaitudala.- Ez nuke bear, ez, nere

Jesus maitagarria; baña ori da, askotan beintzat, nik oraindañoan egin izandu dudana!- Baña orain, len nik orren gaizki egiñaz ongi damaturik, eta era bereko gaizki bat berriz ez egiteko asmoa arturik, eskatzen ditzut nere gaizki guzien barkamentua, ta oraingo nere asmo zuzen garbi on onetan irauteko grazia. Indazu au zuk, nere Jesus maitagarria: bai arren, bai!

*Vide arcum, et benedic eum qui fecit illum;
valde speciosus est in splendore suo.*

Eccli. 43. 12.

Zure Eskrituran esaten zaiku, gure Jaungoiko maitagarria, zeruko odei artean agertzen zaikunean, anitz aintzura, iduri, edo kolore dituen arku bat, eskerrak eskerren gain, ta anitz benedizione zuri guk emeki emateko, zeren arku au den zure eskuetako gauza; ta gauza den bezain ederra.

Baña badut nik, bai, nere lan on zuzen orretarako arku ederragorik are; ta arku zeruko au baño maizago niri agertzen zaidana; ta arku zure esku beretakoa; bada badut nik Aldareko Sakramentuko odeipean Jaungoiko (zure birtutez) gizon egiña; ta Jaungoiko-

Gizon ez ill, ta ez neka ditekena; Jaungoiko-Gizon gogoia bera bezain ibillea; Jaungoiko-Gizon Espiritu uts-utsa dirudiena; ta Jaungoiko-Gizon anitz-iduriz, argiz, ta edertasunez bear den eran jauntzia.

Arku eder onegatik, bai, emain dizkitzut nik orain, ta beti, ta eternidadean al ditudan esker guziak: bada, arku eder onegatik ez izatera, itoa nintzake ni aspaldi guzian nere bekatu zikiñen ubeldez, ta sulezera bearra nintzake ni beti ta betirako.- Arku eder onek daduzka lotuak bezala zure eskuak, nere Jaungoiko maitagarria, niri zuk oraindañoko nere bekatuakgatik gaitzik ez egiteko.- Arku onek eskatzen dizu, agertuz zuri, zugatik berak egin ta eraman izandu duena, ta zuk zerorrek orregatik eman diozun edertasuna, barka dizkidatzula orain arteko nere bekatu guziak; ez naza-zula utzi berriz bekaturatzen, ta didazula zuk niri, orretarako bearko dudan zure laguntza ta grazia; bai, ta anitz geiago ere.

Eskerrak, bada, zuri, Aita eternoa, zere odeietako arku ederragatik, eta ori ekustean berritzen dituzun zere bakeakgatik.- Baña eskerrak eta eskerrak, eta eun milla bider, milloietan zuri eskerrak, aldareko Sakramentuko odei zuri-gorrien artean dadukazun zere Arku eder ta ederrago, zere Seme gizon egiñaga-

tik; bada onek, odeietako beste ark baño agitz obeki palakatzen zaitu zu; ta au da, au, nik nere alde duke-dan Bitartekorik onena.

Zure Arku eder nere Bitarteko ezinobe onen amo-reakgatik, bada, ta onek zure izenean egin duenagatik; baita au ekusteak zuri ematen dizun atsegin andiagatik ere, indazu zuk, nere Jaungoiko maitagarria, gaurgero bekatuz nik zuri atsekaberik ez egiteko grazia; ta oraindañoan egin ditudan guzien barkamentua. Ori eskatzen dizut damu on andiarekin, ta zin-ziñez erraten dizudala: *Nere Jesukristo, etc.*

LXX.garren OTOITZ-GAIA

ALDAREAN DAGO JESUSEN ODOL GARBI, ANIMEN GARBITZALLEA

Gure Jesus gelditzea, gelditu den eran, aldareko bere Sakramentuan, edo gelditzea Jesus or ogiaren idurian, ogiaren soñekopean edo ogiaren aintzuraz ta akzidentez estalia, aski ta sobera zen guri guganako bere ongi naia, ta amore andia guztiz ederki adirazteko: baña, guri au obeki adirazi naiez, gelditu zen Jesus bera ardoaren idurian ere, edo kalizan; ta gelditu zen Jesus jan-edan gai orien idurian gure animen janari ta edari izateko.

Sakramentu au emen Jesusek utzi ta lenbiziko denboretan komuniatzen ziranak, komuniatzen ziran Apaizen eran, edo hostiaren ondoren ardo konsagratutik ere artzen zutela; baña gertatzen ziran Jesusen Odolaren ixurtzea, eta beste gauzak; eta gero kendu zen komunio-era ori; ta Erromako eran bizi diranetatik ez da aspaldian, fransesen erregea baizik, orrela komuniatzen denik: gañerako Apez ez diranak, ostia utsarekin komuniatzen dira.

Baña bi aldiz, lenekoen eran, ez artuagatik, berebat artzen dute lenekoak eta orain onela komuniatzen diranak; bada ez dago kalizan, ostian dagoena baizik, bietan dagoena eta batean bietan ez egonagatik; zeren Kalizan, Jesusen Odolari ditxezkola, daude ostian, Jesus beraren Gorputzari ditxezkola dauden gauzak; eta ez da ostian, kalizan ez dagoen gauzarik; ez eta kalizan ere ostian dagoen gauza bera baizik.

A.

Nola, ta zertako ixuri zuen Jesusek, aldareko bere Sakramentuan ematen digun bere odola?

Orain Jesusek duen, ta aldarean guri ematen digun bere Odola, anitz alditan, ta zatika azken tantaraño Jesusek ixuri zuen Odola da: ta gure amorez ixuri zuela guri adirazteagatik, ixuriaren eran daduka, edo zañetatik aterea balego bezala daduka, Jesusek kaliz konsagratuan bere Odol au.

Noiz, uste dezu, asi zela Jesus gure amorez Odol au ixurtzen?- Bera jaio, ta zortzigarren eguneko.

Nola ixuri ote zuen orduan Jesusek lenbiziko Odol-zatia?- Zirkunzisioko kanibetak aragi zatitxo bat kentzen ziola, ta oñaze andiekin, ta desondra txar-itsuriarekin.- Bai; oñaze andiekin ixuri zuen Jesusek bere Zirkunzisioko Odol-zatia: badakizu alabaña zein minberrea den, adin artako aurtxo bat; eta zein andia, aurtxo minbere bati, bere gorputzeko edozein zatiren kentzeak eman oi dion miña ta oñazea, ta Jesusi, bere Zirkunzisioko aldi artan kendu zioten, beste edozeñ aurri bezala, bere aragi zatitxo bat; eta kendu zioten au alde guztiz minberetik: eta kendu zioten oñaze guztiz andiekin; ta denbora berean gelditu zen Jesus maitagarria odola zeriola, ta bere ondra ere illundurik gelditzen zitzaiola; bada kendu zioten bere zatitxo au, bekatariari bezala, ta bekatariaren arrastoarekin edo señalearekin uzten zutela. Eta alere pozik eraman izandu zuen gure Jesus maitagarriak orduko kanibetukaldia, bere Odol ixurzea, ta desondra guzia.

Badakizu zergatik? Zeren zekien gure Jesus maitagarriak au zela aldi artan argandik aren Aita eternoak nai zuena, ta bere Aita eternoari atsegin au egiteagatik.

Baña zertako nai ote zuen orduan Aita eternoak au bere Seme Jesus onagandik?- Gure onerako, ta guri

erakutsi naiez era bereko aldietan guk egin bear duguna; baita nola egiten den ere.

Noiz ote?- Bere denboran, edo gure Jaunaren Legeak, edo aren ordezt dagoen edozeñek manatzen digunean.

Zer ote da, orduan guk egin bear duguna?- Ezer utzi gabe, manatzen edo agintzen zaikun guzia.

Baña nola?- Latza den, gogorra den, oñazezkoa den, edo alkegarria den edo ez, begiratu gabe; ta itsu-itsuan bezala, ta gure Jaunari guk atsegin ori egitea-gatik; eta ori guk egitean, egiten badigu norbaitek ebakitzen bat, edo edozein txarkeri, gure Jaunaren izenean au guk eme-emeki, ta batere asaldatu gabe, ontzat artzen dugula.- Onetarako da, ta lan au onela egiten guri erakusteko, aldi onetako Jesusen Odol-ixurtze oñazezkoa.

Eta erakuste au berau egiten digu guri gure Jesus-ek Aldareko bere Sakramentutik, orduan ixuri zuen Odola, gañerako bere Odol guziarekin batean, emen eskeintzen digunean.

Ikasi dezu? Egiten dituzu zuk zuzen-zuzen? Egiten dituzu zuk guztiz osoro, ta batere trikatu edo gelditu bage, zere Jaunak zuri manatzen dizkitzun gauza guziak, naiz latzak izan, ta naiz arin-errazak? Eta egi-

ten dituzu zuk gauz oriek, nai dezula, biotz osoz, ta naigabe kutsu guziak andik kendurik?– Berebat gertatzen zaitzu zuri, zuri ez dagokizun, edo zuk nai etzenuken, zerbait egiten dizuten aldietan?

Ala bada, badakizu zuk zere Jesus maitagarriak, Zirkunzisioko bere Odol-ixurtzearekin, ta Aldarean geroz ematen dizun Odolarekin adirazten dizun zere egitekoa. Egizu zuk au beti, dakizun bezala; ta ongi egiñen dezu zuk zuri dagokizuna, ta aldi onetan Jesus maitagarriak zugandik nai duen lenbiziko gauza.

2. Bigarrena da, bere bigarren Odol ixurtzearekin Jesus maitagarri berak erakusten diguna.

Jesusen bigarren aldiko Odol ixurtze au agitu, edo gertatu zen Jetsemaniko baratzean, Jesus bera bere etsaien eskuetara baño len: ta agitu, edo gertatu zen gure Jesus maitagarria, bere neke etorkizunetarako bere burua prestatzen zegoela.

Bazekien, (bai, ta ongi alere), gure Jesusek, ordu artatik asi, ta bera bere gurutzean ill arteko denboran, eraman bearko zuen nekea, neke guztiz arrigarria zela: ta bere Aitari atsegin egiteagatik, eta gure onerako naiagatik Jesusek (nai zuen edozein neke, ta gauza), bazekien Jesusek zenbat naigabe, zenbat oñaze ta neke ziran Jesusen Aitak nai zituenak eta

orrenbat neke oriek guziak Jesusek artu naia pelean bezala ibilli ziran Jesusen biotz min bere maitarian; ta bere pele onen nekeak utzi zuten Jesus, burutik oñetaraño izerdi odolezkoa zeriola: baña azkenean Jesusen nai onak garaitu zituen, uste zituen, nekeen naitgabeak.

Zertako ote zen gure Jesus maitagarriaren aldi onetako odol ixurtzea, ta beraren barreneko pelea?– Guri erakusteko, egin bear duguna guk, gure pasione bizien naikunde makurrak garaitu naiez dabiltzanean arrazoia, edo, eginbear den nekezko gauzaren eza-guera.

Zer gauza ote da, guk egin bear dugun, nekezko gauz ori?– Ongi begiratzea guk bein eritasunari, bidegabeari, oñazeari, esker gaistoari, edo datorkikegun edozein gauzari: ta gero ori guk emeki eramateko, geren Jaungoikoagandik bear dugun Jaungoiko beraren laguntza indartsuari, ta graziari; baita, Jaungoikoaren laguntz onekin emeki guk ez eramatera geren neke oriek, guri dagokigun sulezeko neke arrigarriari ere: ta ori guzia guk ongi ekusi ondoan, ez sulezertzatzeagatik gu, ta andik iges egin, ta geren Jaunaren eskutik datozen ondasunak guk irabazteko, geren pasioneak guk eskuratzea; ta era onetako, edo beste

edozein lan edo neke datorkigunean, ori emeki ta zuzen eramateko, geren buruak guk ongi prestatzea; orretarako maiz begiratzen zaiola odolezko izerdiarekin prestatu zen gure Jesus maitagarriari; ta Jesusen Jetsemaniko neke arrigarriari.

Ori guzia guk egitera, egiten dugu Jesusen orduko odol-ixurtzeak erakutsi ziguna, ta geroztik Jesus bera bere odol guziarekin aldareko Sakramentuan erakusten dagokiguna.

Baña uts-egin dut noski nik (eta askotan alere) oraindañoko nere denbora guzian: ta zorionekoa ni, leneko nere utsak aterarik, prestatzen banaz ni, usketa berririk ez egiteko; ta, usketa berriak egin lekuan, egiten badut nik, nere Jesusek len ta gero erakusten didan bigarren gauza au.

3. Irurgarrena da, bere irurgarren, ta gañerako odol-ixurteekin, ta geroz Aldareturik Jesusek guri erakutsia.

Berriz ta berriz ere ixuri zuen Jesusek bere Odola; bein ta berriz Pilatosen etxean, gero Galbarioko bidean, ta azkenean Galbario berean; ta Galbarioan, ill baño len, ta ill ondoan: ta bazter guzietan ixuri zuen Jesusek bere Odol au anitz nekerekin; bada ixuri zuen edo anitz eta anitz azot-ukaldiz urratzen zutela, edo

arantz zorrotz-gogorrezko koroarekin bere burua zulatzen ziotela, edo beraren gorputz larrutuari itsasia zegoen soñekoa kenduz ta ezarriz, edo era orretan zegoela, gurutze astun luzearekin jaiki-erori zerabilte-la; edo iltzez esku-oñak zulatuz, edo burdiñezko lantza gogorrarekin bular-biotzak urratzen ziozkatela.- Orra zenbat alditan, (ta aldian zenbat nekerekin!) atera zioten Jesus maitagarriari bere zañetan, ta gorputz guzian, ta bere biotz maitarian zuen Odol guzia! Eta orra gure Jesusek ematen digu aldareko bere Sakramentuan ongi bildua orrenbat alditan gure amorez ixuri zuen bere Odol au guzia.

Zertako ote?- Ez dakizu? Komuniatzen garanetan guzi-guzia guk edateko; ta denbora berean ekusirik guk, gure amorez ixuri zuela Jesusek bere odol au guzia; ta ixuri zuela geien-geiena etsaien eskuz ta neke arrigarriekin, ordez eskañi dezogun guk Jesus berari, gure zañetan ta gure biotzean arkitzen den guzia; baita ixuri bear bagenu ere den guzia, gure etsaiak nai duten bidez, ta bidegabe; edo ordez eskañi dezogun itzez guk, eta adirazi dezogun biotzez gure Jesus maitagarriari, artuko dugula guk beraren ize-nean, ta alik emekiena, edozein naigabe, kezka, ta neke; neke, kezka, edo naigabe ori guri datorkigunean

geren etsaien eskutik, edo beste edozein bidez ta eran.

Au da, bai, au len ta gero Jesusek guri erakusten digun irurgarren gauza: ta, au guri eragin naiez ziran Jesusen leneko bere odol-ixurtzeak; eta odol-ixurtze ain gogor-arrigarriak: era onetarako bererako dira Jesusen Odol beraren Sakramentuko guganatzeak.

Baña egin ote dugu guk, gure Jesusek erakusten digun gauz eder ondasundun au? Egin ote dugu guk onen laurdenik ere?- Ez eta gutiago ta gutiago ere! Eta lan onetan ari bearrean gu, nai ez genuen itz erdi bat guk aditu orduko, oinpeko suge bat bezala giñan gu, edo sutuak eta furrustaka genbiltzan gu.- Eta berebat gertatzen zekigun guri, edozein txarkeri guk ekusi orduko.

Baña ezaguturik orain guk, gure Jesus maitagarria, oraindañoko geren eskergabekeria, ta zure Odol ederrak lengo bere ixurtzeekin, ta Aldareko oraingo egoerarekin adirazten digun guzia, egin nai dugu gaurgero guk, (eta alik zuzenkiena) au guzia; zuk zerorrek orretan laguntzen diguzula. Lagun egiguzu bada, dagikezunak bezala: bai arren, Jaungoiko maitagarria, bai!

B.

Aldareko bere Odolean Jesusek agertzen dizkigun ontasuna ta amorea

Illen artetik bizturik Jesus ateratzeko, bildu zuen Jesusek berak berez, nai duen guzia dezakenak bezala, edo bere Aingeru onak orretarako bidaldurik, ixuri zuen bere Odol guzia.

Odol au, anitz lekutan zetzan odola zen; ta baldin bildu bazuten Jaungoikoak artara bidaldurikako Aingeruak, batzuek joan ziran Pilatosen etxera, besteak Jetsemanira, besteak Jerusalemgo kaleetara; besteak Galbarioko bidera; ta gañerakoak Galbario berera: ta ez-da-bai-da batean bildu zuten zen guzia, tant-erdirik ere utzi gabe; ta utzi zuten Jesusen zañetan, ta bere tokian, andik atera zenean bezain garbi-ederra.

Ez da erraz adiraztea guk, zenbat atsegin artu zuen Jesusen Anima maitagarriak, bere Gorputza artu, ta ekusi zuenean an bildua ixuri zuen bere Odol guzia: artu zuen alabaña orduan bere Odol au berriz ez ixurtzeko; ta artu zuen, berari Salbatzalleari bezala, zegokan neke arrigarrizko bere lan guzia bukatu ondoan; ta Salbatzallearen lanak eskatzen zuen poz-atsegin

guzia bertatik artzen zuela; ta poz-atsegin bera eternidade guzian beti artzeko.

Bada, andia bada soldaduen poz-atsegiña, soldaduak beren etsaiak garaitu ondoan, etsaien diru zer-bait, arma, ta soñeko elkarren artean zatitzen dute-nean, zer-nolakoa izain zen Jesus onak berak bere pelean ixuri zuen odol guzia bildurik, eta bere tokian ekusi zuen aldian, eta bere odol-ixurtzetik, eta Pasio-neko neketik zetorkion gloria artu zuenean, orduan artu zuen bezala, izandu zuen poz-atsegina? Zeruko santu ta santa, ta aingeru guziak dutena baño anitz eta anitz andiagoa: ta orregatik, guk adirazi dezakeguna baño agitz eta agitz andiagoa.

Poz-atsegin bera du geroztik beti gure Jesus maitagarriak; eta ez du galtzen, ez, Aldareko bere Sakramentura datorkigunean ere. Ez: poz-atsegin-kontentu berberarekin, ta guzi-guziarekin datorkigu Sakramentu andi onetara; ta Sakramentu onetara datorkigu, guganako ongi naiez ta amorez ezin geiagoraño betea; ta datorkigu, guri emen bere odolez grazia ta atsegin andiak ematera.

Norañoakoak dirala uste dezu zuk, guri emen eman nai dizkigun grazi-atsegin-ondasunak?- Guk artu al guzi-guziak. Eta anitz eta andi-andiak guk argandik

emen artuagatik, aitz geiago, ta andiagoak ar ditza-
gun naiarekin gelditzen da emen gure Jesus maitaga-
rria, ta nai luke Jesusek urbiltzen bagiña gu maiz-maiz,
ta aldioro, lenagoko aldian baño ontzi andiagoeekin,
edo anima, ongi baño obeki prestatuekin, aldian baño
aldian grazia ta atsegin geiago guri emen bere Sakra-
mentu andi onetan emateko.

Jesus! ta gure Jesusen ontasuna, ta amore bukae-
rarik bagekoa! Anbat Jesusen odol-ixurtzeri ain gaizki
guk, eta bekatuz erantzun izandu; ta alere gure Jesus
bere odol guzia berekin duela Aldareko bere Sakra-
mentura, or odol ori guzia, ta, orrekin batean, guk ar-
al adiña grazia, atsegin, ta kontentu guri ematera guri
Jesusek, geren esker-gabetasun itsusiagatik, eta
gañerako bekatu arrigarriakgatik guk artu bear geni-
tuen emengo neke andiak, eta geroko sulezea eman
lekuan?- Egin zezaken onelakorik gure Jesus maitaga-
rriak, Jesus ez izatera Jaungoiko-gizon ezinobea? Ez
izatera gure Jesus gure ezin maitatzalleagoa?

Ekusten dezu, orain badere, zein andia den, ta
zein bazter bagekoa, gure Jesusek bere odolaren
emaeran erakusten digun ontasuna ta amorea? Ez
oraindik bear bezala, ez. Adi zazu oraindik orretarako
zerbait geiago.

2. Ostegun Santuz, ta gugatik ill baño len utzi zigun guri gure Jesusek Aldareko bere Sakramentuan, bere zañetan, bere biotzean, ta bere barren guzian zuen odol guzia.

Au guri gure Jesusek uztean, erran izandu zien, ordu artan berekin zeduzkan bere Apostoluei: Ona non dezuten kaliz onetan testamentu berriko nere Odola; ta Odol, zuekgatik eta mondu guziaren onerako, nik ixuri, edo eman bearra; ta bekatu guzien barkamenturako nik pozik emain ta ixuriko dudana.- Eta ala gero Jesusek eman ere, ta ixuri zuen, guk len ekusi dugun bezala.

Ekusten dezu zein ona den gure Jesus, ta zein emallea?- Bekatu guzien barkamenturako ta mundukoen onerako, aski zen edozein bere Odol tanta Jesusek ixurtzea; baita agitz eta agitz gutiago ere: ta gure Jesus maitagarriak orretarako ixurtzen ditu Odol-tanta bat ezezik, anitz milla Odol-tanta ere; bada ixurtzen du, beregan, edo bere baitan zuen Odol guzi-guzia. Eta, zuena baño anitz eta anitz geiago berekin Jesusek aldi artan izatera, ixuriko zuen, tantarik gelditu gabe, orduko guzi-guzia ere.

Munduko guzien, ta anitz milla milloien onerako ixuri zuen aldi artan Jainko-gizon Jesus maitagarriak

berekin zuen odol guzia: baña, beraren Aita eternoak ala nai izatera, berebat egiñen zuen Jesus maitagarriak edozein gizon bakar-bakarragatik ere; baita munduan garan guziokgatik ere, bakoitzagatik bein, eta banaka gero gañerakoagatik, edo munduan zenbat garan, anbat aldiz ixuri bear izandu balu ere, ta aldian ixuri bearragatik, len ixuri zuen adiña neke ta oñaze arrigarriekin.

Ekusten dezu orain, len baño obekiseago Jesusen ontasuna, ta guganako ongi naia ta amorea?

3. Bada badezu oraindik geiago zer-ekusi Jesusen Odol eder maitagarrian.

Jesusen Odola da, ekusi dezun bezala, testamentu berriko Odola! Testamentuan bereisten da ondorengo edo erederoa, ta uzten dira zenbait manda edo amoriozko señale; ta egin zuen Jesusek arrats artan au guzia, egin zezaken eran, ta egin zuen ontasunez, ta amorez beterik arkitzen zen Jaungoiko-gizonak bezala.

Jesusen etxea zero guzia da, ango bere gloriarekin. Zeruko gloria, bazterrik bageko gloria ta ondasuna da; ta bat ezezik, nai duten guziak batetan, ta eternidade guzian artu, ta ase ditzaken ondasuna, Jesusek berezi zuen bere ondorengo, edo beraren ondoren

an sartu bearra, berarekin batean beraren gloriaz an jabetzera.

Nor ote da ori, edo zein?- Jesusen odol garbian garbitzen den edozein, edo Jesusek nekezko bere odol-ixurtzez irabazi zigun graziaren ur ederrarekin garbitzen dena, ill artean zikintzen ez dela; edo anditu ta zikinduagatik Odol beraren konfesioko, edo aldaroko, edo beste edozein Sakramentuko graziaren iturrarian garbitzen dena; baldin ateratzen bada mundutik bere azken garbiera onarekin.

Zergatik Jesusek guri onenbat ontarte?- Bere ontasun utsez ta bazter bageko bere amoreakgatik! Ekusten dezu norañoakoak? Adi zazu zerbait oraindik.

Zer seinalamentuak eta mandak ote dira, Jesusen odolezko, edo Odolaren Testamentuko mandak eta seinalamentuak?- Agitz ederrak eta andiak. Agintzen die gure Jesus maitagarriak, edo seinalatzen die bekatari txar guziei (artzera prestatzen diraneko) beren bekatuen urratzea ta bekatu beren zor guzien barkamentua.- Agintzen die Jesusek eta seinalatzen die bekatari berei, ta gañerako zerura nai duten guziei beren biderako bear duten graziaren ondasuna ta laguntza guzia: ta, oriei au guzia Jesusek emateko, ez

die besterik eskatzen, baizik bear dutenean, ta noiz-nai, umilki ta zuzen ori bera oriek berari eskatzea.

Eskatzen badiote au oriek Aita eternoari, berak beren komunione aldietan artzen duten Jesusen odola agertzen diotela, anbat obe: au da alabaña, eskatzen den gloriaren ta gloriatzko bear diran gauza guzien gaia edo prenda.

Ekusten dezu zer den, gure Jesus maitagarriak bere odolaren Testamentu berrian egiten ta agertzen duena? Zein ona! Zein andia! Zein bazter bagekoa, Jesusek emen agertzen digun, bere ontasuna ta amorea!- Au an ekusteagatik badere, etzara zu maiz elizarako? Ez diozkatzu zuk agur-ta-agur andiak egiñen Jesus maitagarriari aldareko bere Sakramentuan, an agertzen dizun bure ongi nai ezin andiagoagatik?- Eta, ar dezakezun ezkerre zere komunionean, ez dezu artuko zuk bein, ta berriz, ta dukezun aldi guzietan zere Jesusen odol eder-garbi guzia; ta, beraren odol onekin batean, ta bere ontasun ta amore guziarekin, zere Jesus guzia?

Artu zazu zuk, bai; ta egizu zuk au, alik ongiena, ta aldioro guztiz ederki prestatzen zarala.- Egizu zuk au, bai, ta egizu aldian, al dituzun zeruko ondasun guziak artzeko asmoarekin, ta bidenabar asmo on bat zuk

arturik, alik zuzenena zu geroz geiago zeruko bidean ibiltzeko; ta bertatik eska zaiozu zuk, leneko zere utsegite guzien barkamentua ta au guzia.

Sponsus sanguinum tu mihi es.

Exod. 4. 25.

A, nere Jesus maitagarria! erran dezoke gaur Jesusi, ongi nai dion edozein animak. A, nere Jesus maitagarria! ta zein odoltia zaran neretzat orain, edo gaur zu! Jaio berria zara gaur zu! Zortzi eganeko aurtxoazara zu! ta alere odolturik ekusten zaitut nik gaur zu, ta odolturik ekusten zaitut nigatik, edo zuk niri ongi naiez!- Nonbait andia da, nere Jesus maitagarria, zure biotz orretan gaur arkitzen den niganako zure amorea, ongi naia ta sua; zure su, ongi nai edo amore orrek, ni bezain gauza txar bategatik orren goiz ta laster arrerazten dizkitzunean orren neke gogorrak!

Damuturik ote zaude zu nere Jesus maitagarria, aldi onetan zuk nigatik egiten ta ekusten dezunaz? Ez dezu ekusten zein ezagumentu txarrekoa ni; ta zein eskergabea? Ez dezu ekusten ez dudala nik egiten orrenbat zere odol-ixurtze ta nekerekin zuk niri eraku-

tsia? Edo ez dezu ekusten, gure Jaungoikoak nai duena, nai duela, dakidaneko nik egin bearrean gauzaren bat, ez orduan, ta ez gero egin oi dudala nik orrelakorik?- Alere etzaitzu zuri, gure Jesus maitagarria, aldi artan zuk egiñaz batere damutzen? ta zuri damutu lekuan, aldarean zaude zu gau ta egun, ta beti, len odolez, ta zere neke andiarekin erakutsi zeniguna, odolez berriz emen erakusten; ta bein, edo bein gu zentzarazi naiez.

Eta ez ote dugu guk, gure Jesus maitagarria, noizbait, noizbait zentzatu bear? Ez ote gara noizbat, noizbat asiko gu, zugandik guk gaur ikasten dugun au egi-ten? Zerbait neke txar guk geren gain ez artu naiez, utziko ote ditugu guk geren Jaunaren gauzak, eta agintze-manuak?- Datozen gure denboretan ibilli bearrak ote gara gu, oraindañoko guzian bezala, Jesusen aurtasuneko odol-ixurtzeari, ta geroztik beti Aldaretik agiten digun odolezko erakusteari begiratzen ez diogula?

Ez baldinbere! Galduak gara gu, gu ala izatera; ta galduak gara gu, esker bageko gizatxar errebesen eran; ta anitz atsekabe ta neke gogorren artean gero sartu bearrak! Jesusek berak digula, ez aratzeko, ta

erakusten diguna zuzen egiteko, bearko dugun beraren laguntza ta grazia. Bai, arren, bai!

*Accessistis ad...Testamenti novi
mediatorem Jesus, et sanguinis aspersionem
melius loquentem quam Anel.*

Hebr. 12. 24.

Zorionekoak, Jesusen Testamentu berriko ondasunetan nai adiña zati dezutenak (erraten digu S. Pablok)! Zorionekoak Jesusen Odol ederrean sartu ta garbi zaitezkeenak; eta zorionekoak Jesus ona bezalako bitarteko bat arkitu dezutenak! bada bitarteko ononek Aldareko bere Sakramentuan erakusten dio bere Aita eternoari, gugatik ixuri zuen, ta gure bekatuak atera zioten, bere odola. Guk au Jesusi atera diogu, Abeli berea bere anai gaisto Kainek atera zion bezala gaizki, ta biderik bage.

Baña ez da, ez, Jesusen odol ixuria, Abelen odola bezalakoa. Abelen odolak eskatu, ta erditsi zuen Kainen eriotza: ta Jesusen odolak Aldaretik eskatzen dio Aita eternoari gure gaizkiaren barkamentua, ta sekulako gure bizitza; ta au ark guri erditsiko digu, guk ere

Aita eterno berari zinez egitera eskaer bera, ta otoitz zuzen bear den erakoa.

Ez da, bada, zorionekoa, gutatik edozein, guk Jesusi egin ondoan Kainek bere anaia Abeli egin izan-
du zion lanaren erako lan gaisto bat, arkitzen dugu-
nean guk Jesus eta geren alde, ta gure bitarteko
egia?

Ez gara gu zorionekoak, arkitzen dugunean guk
(guk arkitzen dugun bezala emen aldareko Sakramen-
tuan) gure Jesus, guk gerok ixurerazi genion bere Odol
guziarekin gugana naiez, Jesusen odol au agertuz guk
palaka dezagun aserre dadukagun gure Jaungoikoa,
ta atera dezagun guk Jesusen odol beretik gure zorren
alde guk bearko dugun pagu guzia?

Atozea; ta ez dugu guk, ongi prestatu ezker bere
Sakramentu andi onetan Jesus artzera, ta Jesusek
emen emain digun graziaren laguntz onarekin emeki
eramain, Jesusen lege berriak dakarren zer edo zer
neke?

Au onela den ezker (den bezala) nere Jesus mai-
tagarria, prestatuko naz ni nere alegiñean, nere gauz
egite au ongi, garbiro, ta zuzen egitera: ta egin deza-
dan nik au, bein ere uts egin bage; ta izain nadin ni
denbora berean, zugaratzen diran zorioneko orietatik,

eman bear didazu zuk, nere Jesus maitagarria, zere gogargia, laguntza, ta grazia. Bai, arren bai!

*Terra, non operias Sanguinem meum,
neque inveniatis in te locum latendi clamor meus.*

Job. 16. 19.

Komuniatzen zaran anima, begira zazu zuk, eta ongi begira, zer egiten dezun Jesusen odol guziarekin arkitzen zaran aldietan! Ez dadukazula zuk or zere barrenean Jesusen Odol ori, lurpean datzan gorputz baten odola bezala, ta zer zuri adirazi nai dizun, aditzen ez degula.

Zure damuz ta konfesariaren absoluzioz urratuak arkitzen diran bekatuen zorren barkamentu eske dagoka zure berrenetik Jesusen Odola Aita eternoari. Zu komuniatzen zaranean, zure barren beretik eskatzen dio Jesusen odol berak Aita eterno berari, utzi zaitzala zu, ura ortik atera gabe, elurra bezain zuria bere begietan, ta bere birtutez, ta doaiez ongi-ongi ta guztiz ederki apaindua.

Eskatzen dio denbora berean, dizula zuri bere graziaren bizitza zati berri-indartsu bat; egin ditzatzun

geroz zuk, len baño lan anitz obeak, eta anitz geiago; eta eskatzen dio, egin zaitzala zu berekin bat, edo dizkitzula zuri, berak dituenen erako asmo ta gogo zuzenak; eta, guzia zuzen egiteko zuk, bearko dezun beraren laguntza ta eskua.

Au Aitari eskatzen dion denboran, eskatzen dizu zuri ere Jesusen odol berak, dagizula zuk, batere nagitu bage, lan onetarako zure aldetik egin bear den guzi-guzia. Zaudela zu prest, zure bizierak eta urteak dakazten nekeak Jesusen izenean bizi zuk, eta arinki, eramateko; ta bekatu bat ez egiteagatik, zuk zere zañetan ta biotz guzian dezun odola bertan emateko: ta eskatzen dizu bidenabar, zabilzala zu birtutez birtute, ta zure Jaunak zugandik nai dituen gauza guziak zuzen egiten dituzula.

Eta begira, nere anima; ez da zer estali zere belarriak, Jesusen odolaren itz egite zuzen eder-ezinobe oriek ez aditzeagatik.

Guziak dira, zuk zerorrek ekusten dezun bezala, amorez beteak, ontasun utsezkoak, eta zuri dagozkitzunak. Eta, oriek orain zuk ez aditzera, ta egiten ezpadezu zuk oriek adirazten dizutena, galdua zara zu eternidade guzirako, ta sulezean erretzen egon bearra.

Ara etzoazen zu, ta itz on oriek adi ditzazun emeki, kontuz ta bear bezala; garbi zazu zuk gaur zere biotza gortzen zaituen zere bekatuaren loietik; eta, bekatua egin zenuelako damu andiarekin, errazu orain alik zinkiena: *Nere Jesukristo, etc.*

LXXI.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN ANIMAREN

ALDERAKO EGOERA

Bizitzarik ez duen oreka dirudi, edo ogi-zatitxoa, gure begiak Jesusen Aldareko Sakramentuan ekusten dutenak. Baña gauza bizia da (ta ongi bizia alere), ogiaren idurian, an arkitzen dena, ta guk geren Komunioneetan artzen duguna: arkitzen da alabaña an, ta artzen dugu guk Sakramentu ori artzean, gure Jesusen gorputza bere odolarekin, ta gañerako zeruan dituen bere gauzekin; ta orien artean arkitzen da Jesusen Anima bizia, ta Anima Jesusen gorputz-odolak bizturik daduzkana.

Ekusi dugu len, nola arkitzen diran aldareko Sakramentuan, ta zertako arkitzen diran an, guru Jesusen odol-gorputz biziak. Ekusi bear dugu oraingo aldiari Jesus beraren Animaren Sakramentu bereko egoera ta zertakotasuna.

A.

Jesusen animaren Aldareko bizitza ta edertasuna

1. Zeruan dena da aldareko Sakramentuan ere gure Jesusen Anima, ta an ta emen da gure Jaungoikoaren aintzura, imajin, espiritu bizia, ta ezin ill diteken gauza edo gauz ez illkorra.

Baditu gure Jesusen Animak bizitza bat ezezik, irur ere. Badu Jesusen Animak berez dagokan bizitza; badu graziaren bizitza; baita Aita eternoaren Semeta-sunak dakarkion bizitza ere. Azken bizitz au da, duen bizitzarik andiena. Graziaren bizitza, berez duena baño bizitz anitz ohea da; eta berez duena ere bizitz on-andi-luzea.

Jesusen Animari berez dagokan bizitza, espiritu uts garblaren bizitza da; ta bizitz, Jaungoikoa Jaungoiko den artean, edo eternidade guzian, iraun bearra.

Gorputzak ez du bizitzarik, animarik bage: orregatik gelditu zen illa gurutzean Jesusen gorputza, onen argandik atera zeneko.- Baña ez du gorputz bearrik animak, bizirik egoteko; ta len bezain bizia gelditu zen Jesusen Anima, gorputza gurutzean utzirik, Linbora zenean, ta obian berriz gorputz bera artu arte guzian: ta berebat biziko zen, bein ere bere gorputz au ez

artuagatik; eta biziko zen, emen gorputzaren bizitzak dakartzien nekeetatik bat ekusten etzuela; ta aingeruen, ta Jaungoiko beraren bizitzaren erako bizitza batean; bada biziko zen, oroitzapen ederrezko, eza-guera zuzenezko, ta naikunde garbizko bizitzan.

Ala bitu zen Jesusen Anima, ostiral santutik igande goizeraño. Goiz artan sartu zen Jesusen Anima bere gorputzean; ta bere sartzearekin, kendu ziozkan Jesusen Animak bere gorputzari leneko bere astuntasuna, minkorreria, ta nekabide guzia; eta Anima bera gelditu zen, bere bakarreran izandu zuen bizitza garbi-eder ezinobearekin. Biziera onekin bizi da geroztik Jesusen Anima; biziera onekin biziko da eternidade guzian; ta biziera berarekin dator gure Jesusen Anima aldareko bere Sakramentura.

2. Jesusen Animak, bere lenbiziko asieratik zituen beste bizierak. Animaren berezko biziera edo bizitz au baño agitz eta agitz obeak dira alabaña zeruko bizitzak, edo bizierak. Orietatik bata da, Jesusen Animari Jesusen Jaungoikotasunetik datorkiona; ta bestea, Jaungoitasun onek eskatzen zuen graziarena.

Bere bi biziera, edo bizitz oriek utzi zuten Jesusen Anima ta Jesusen gizatasun guzia, ezin geiagoraño sant-egiña; ta utzi zuten, Jaungoikoaren Animari

zegotzan gauza guziak egiteko bear zuen indar ta laguntza guziarekin.

Egin zituen, bai, guzi-guziak beti; ta egin zituen guziak ezinobeki; ta era berean egiñen ditu, eginkizun arkitzen diran guziak, bat bakarrik utzi bage.

Bere lan zuzen au egiten ari da Jesusen Anima aldareko bere Sakramentuan ere; ta bere egiteko berean ariko da beti, bein ere gelditu bage, mundua bukatu artean, edo kontu andietako denboraraño.

Bizitzaren ederra! Gau ta egun, ta beti gure Jesus gauz onetan, gauza ezinobeetan, ta bein ere uts egin bage! Ori da Jesusen Animak len, ta gero, ta beti egi-ten duena.

Eta ori bera guk ere geren egiñalean egin bear genukena.- Egin ote dut nik au oraindañoakoan? Oraindañoakoan izandu ote dira, zuzen egiñak nere egiteko guziak? Oraindañoakoan bizitu ote gara gu zeruko graziaren bizitzan, ta gure Jaungoikoak eskatzen duen eran?- Begir-egiezu zuk, zere gaztetasunari, ta oraindañoako zere pausuei, ta ekusiko dezu.

Ekusi dezu? anitz ote dira, or zuk arkitzen dituzun utsak? Bai? Atera bada guziak damuzko zere konfesio-
nean; ta begira zuk beti zere Jesus maitagarriari, uts

berririk zuk ez egiteko. Ori da alabaña zu ere Jesusen eran bizen.

3. Bizitzaren erakoa da Jesusen Animaren edertasuna; ta orregatik da ezin andiagoa, ta ezin (bear bezala beintzat) adirazi ditekera.

Ekusi dugu nola-ere-bait irurogeita bederatzigarrenen otoitz-gaiean gure Jesusen Gorputzak, ogi-idurian an egonagatik, aldareko Sakramentuan duen edertasuna. Bada, zein ere andia den au, Jesus beraren Animaren edertasunetik datorren edertasuna da; Anima beraren edertasunaren aldean, ispillu batean agertzen den eguzkia, zeruko eguzkiaren aldean bezala. Eta, denean, ekusi dun bezalakoa, Jesusen Gorputzaren edertasuna, nolakoa ote da, ta norañokoa Jesusen Animarena? Ote dakite ori, begira-begira dagozkan Aingeruak ere?

Guk dakigun guzia da, Jesusen Animak duen graziaren neurrikoa dela beraren argia, ta edertasuna.-Baña norañokoa ote da onen grazia?

Orra, orain guk billatzen dugun edertasuna bezain guti dakigun gauza. Guk orain dakigun guzia da, Jesusen Anima dela Aita eternoarekin bat den Semeak artu zuen gizatasunaren, edo Gorputz-Animazko naturalearen erdia; ta erdirik onena; ta eman ziola Aita

eternoak Jesusen Anima oni, dagokan, grazi guzia. Eta Zeruko Aingeruei, ta Santu ta Santei, badagote orien edertasunak adirutzen duen grazia, zenbat grazi ote dagoka, Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriaren Animari? Guziei adiña!- Geiago, ta geiago: bada, orietatik bakoitzaren lekuan arkitzen balira eun milla milloi, ta orietatik edozein, orain geiena duenak adiña grazia luena, badu Jesusen Animak, orduan guzi-guziak izain lukeen adiña grazia: baita anitz eta anitz geiago ere: bada konta liteke, edo neurri liteke orduan orien guzien grazia; ta ez du konturik, ez du neurrik, Jesusen Animari Aita eternoak emanikako graziak, dio S. Juan Bautistak. *Joan. 3. 34.*

Ekusten dezu zein andia den, ta zein ezin-adirazigarria, aldareko Sakramentuan dadukagun gure Jesusen Animaren edertasuna?- Bai? Bada ez dugu oraindik guk, adirazi ditekenaren erdirik ere adirazi. Al dugu eran, guk adirazi dugun edertasuna, Jesusen Animari, bere guziagatik dagokan edertasuna da; ta Jaungoikotasunaren aldetik datorkion edertasuna, beste au baño agitz eta agitz andiagoa da.

Badatorkio, bai, Jesusen Animari, Jaungoikotasunaren aldetik ere bere edertasuna; ta bere graziaren aldetik datorkiona baño, milletan ta milletan obeki

datorkiona da alde onetatik datorkiona; bada, dakizun bezala, grazirik andiena ere ezer-ez bat bezala da Jaungoikotasunaren aldean, ta Jesusen Animak berekin du, zeruko graziarena bezala, Jaungoikotasun beraren bizitza, argia, ta Santidatea, edo Santutasuna; Jesus onarena da alabaña bere Anima, ta bere gizatasuna ezezik, Jaungoikotasuna ere: ta, graziari baño len dagoka Jaungoikotasunari Jesusen Animaren bizitza, Santutasuna, ta ederrera.

Ongi: ta ezin-adirazi-alakoa baldin bada (den bezala) bere graziak Jesusen Animari ematen dion edertasuna, nolakoa ta norañokoa ote da Jesusen Anima berari bere Jaungoikotasunetik datorkiona? Gogoz asm-ala ere baño agitz eta agitz andiagoa.

Ekusten dezu? Bada bere edertasun orrekin guzi-guziarekin datorkizu zuri zere Jesusen Anima aldareko bere Sakramentura, ta gero Komunionean zere barrenera. Eta or datorkizu, zure animaren ontziak dauden eran, ar dezakeen grazi guziak zuri eman naiez, emateko gero zuri bere zeruan, zure orduko graziari, ta irabazi guziei dagozten edertasuna ta glori guzia.

Au ote zenekien zuk, ongi beintzat, oraindañokotan? Au guzia zuk, orain dakizun bezain garbiro jakitera, etzen erraz ez komuniatu zaran bezain bakan, ta

otz zu komuniatzeal Etzen erraz, ez, egiten diozkatzun bezain ekuste gutxi zere Jesusi aldareko bere Sakramentuan zuk egitea! ta etzen erraz, ez, ekarri dezun baño geiago zere gogora zuk Jesusen edertasuna ez ekartzea! Gaurero badere bazenegitza zuk, oraingo zure jakierak adiratsen dizkitzun gauzak!

B.

Jesusen animaren adimentua, ta ezaguera

Ogi-ardo-iduriz estalia egonagatik emen aldareko bere Sakramentuan, ekusten du Jesusen Animak bere barrenko begiz ta adimentuz, beinik bein gure Jaungoiko onaren izate guzia, Jaungoiko beraren edertasuna ta Jaungoikoaren izate-eder, gauza guzien ispillua; ta ekusten ditu gero, edo bidenabar ispillu ezin-garbi-ederago onetan ekusi ditezkeen beste gauza guziak ere; ta ekusten ditu, aingeru ta kerubin guziak ekusten dituzten baño agitz eta agitz garbiroago ta ederkiago, ta ekusi ditezken ederkiena: ekusten ditu alabaña Jaungoiko-semearen Animari dagokan eran; ta

ez dagoka ekuste laburragorik, ez eta ez argiagorik ere, Jaungoiko-gizon baten Animari.

Emen ni orain ongi bizitzera, ta egiten baditut nik emen, Jesusek niri bere aldaretik eragin nai dizkidan gauzak; eta gauz oriek nik emen egiten baditut gure Jesusek nai bezala, ekusiko du egunen batean nere animak ere gure Jaunaren izatea ta edertasun bera; ta ekusiko du bidenabar edertasun beraren ispilluan niri dagokidana.- Zein poz, eta zein atsegin andiarekin!- Ez da lurreean gaur arkitzen, ez eta arkituko ere, ori bear den eran, adirazi dezakenik.

Ongi: ta orrenbat poz atsegin, ta, poz-atsegin ori dakarren ekuste ederragatik (Jesusen amorez ezpaliz ere), ez dut nik egin-uste, orain nigandik Jesusek nai duen zer edo zer edo, orain nere ongi naiez, aldaretik Jesus niri erakusten dagokidana?

Baditu bada, Jesusen Animaren adimentuak, jaungoikozko edo Jaungoikoaren ispillu eder onetako ekustetik ikasiak, zeruan, lurreean, itsasoan, ta bazter guzietan arkitzen diran gauzen ezaguntzak edo berriak; ta berri, bestek ez bezalakoak: bada, Jesusen Animak duen berriaren edo jakindearen aldean, ezer ez bat bezala da Adanen, Salomonen ta aingeru guzien jakindea, ta gauzen ezaguera edo berria.

Ezaguera onekin, ta bere gauzen berri ta jakiunde guziarekin dator Jesus aldareko bere Sakramentura; ta onara dator gure Maisu izatera; gu, gerok nai badugu, gogargi ederrez betetzera; guri, guk egin bear ditugun, ta utzi bear diran gauzak bereistera; ta bera-ganako, edo bera ziñez, garbiro, ta bear den eran maitatzeko bidea guri guzioi erakustera.

Etorreraren eder-ongillea ta ondasunduna, Jesusen era onetako etorrera! Baña etorrera, nik beintzat, bear zen eran ez artua; bada galdu izandu ditut nik, ori ongi artzetik etorri oi diran anitz ondasun, anitz ontarte, ta gure Jaunaren anitz laguntza ta grazi. Eta galdu izandu ditut nik oriek, aisolakabean bezala; ta olloak atzaparka agertzen duen urreaz baño kaso geiago nik oriez egiten ez nuela! Ez da ala? Errazu ezperen: zenbat argi, ta zenbat ondasun, atera dezu zuk oraindañoko zere komunione guzietatik?

Aski zen, zuk egin dituzun oraindañoko zere komunioneetatik bat zuk ongi egitea, bekaturako bide guziak zuri begitan arrerazteko; ta, egin dituzun guzien buruan, bekatuaren bide galgarri beretara zara zu bein ta berriz, ta geiagotan ere.

Aski zen komunione ongi edo zuzen egin bat, Jesusen amorez zure biotza urturik uzteko; ta, egin ditu-

zun guziak egin ondoan, arkitzen zara noski zu, lenbizi-
an bezain otz eta gogor, ta galdu.

Zer burua zurea! ta zein guti nekatzen zaran zu,
gure Jesusek aldareko bere Sakramentutik eman nai
dizkitzun ondasunak ekusten, billatzen, ta ateratzen!

Ekusten ditu Jesusek, emen aldareko bere Sakra-
mentuan gorderik egonagatik, len gertaturikako
gauza guziak; ekusten ditu orain gertatzen ta egiten
diranak; eta etzaio gordetzen, ez, etorkizunetatik bat
ere.

Mundura datozen guziei kontuak artzeko dago
gure Jesus maitagarria; ta artaratzen den aldian,
orduan, ta puntuan agertzeko dago Jesus nori bere
asmoak, bere gogoetak, eta lan onak, eta gaisto
guziak; eta agertzeko, agertuko dituen gauzetatik
bakoitza bere asiera, barren, gain-azpi, ta saiets
guziekin.- Etzaio gordetzen, ez, Jesus ekusleari gure
begiratzerik; etzaio gordetzen, ez, gure itzik ariñena;
ez eta gure azkazal baten ibillerarik ere.- Gogoan ditu,
bai, gure Jesus maitagarriak, gure biotzean gorderik
gelditzen diran naikunde guziak; baita oroitzapen ta
gogorazio arin-laburrenak ere.- Eta, guzia baño geia-
go dena, badaki gure Jesus ekusle maitagarriak, zer-
gatik, zertarako, ta zerk edo nork eragiñak diran guk

egiten edo geren gogoan gordetzen ditugun gauz andi, ta txiki guziak.

Dena den bezala, bada, ekusten du Jesusek gure gauza bakoitza; ta ekusten du guzia bere adimentuko begiz, aldareko bere Sakramentuan gorderik egonagatik.

A nik au jakin izandu banu, elizan ni, adiñetan sartu ezkeru, sartzen asi nintzanetik! Etziran izain, ez, izandu diran erakoak, elizako nere sartu-aterak eta egoerak! Ez nintzan, ez, elizan sartuko ni, ez nintzan ni ez, elizatik aterako, sartu ta atera oi nintzan eran, edo bazter guziak begiz garbitzen edo zikintzen nituela! Ez nintzan ni, ez, elizatik aterako, atera oi nintzan bezala laster, ta utsez betea! Elizan egoin nintzan ni, an nengoenean, poz-atsegin andiarekin. Elizan egoin nintzan ni, buru-begiak, edo nere biotza aldareko Sakramentutik kentzen ez nuela. An egoin nintzan ni, graziz, gogargiz, ta zeruko doaiez nere anima betetzen ta betetzen; ta an egoin nintzan ni, an niri begira zegokidan Jesusen beldur andiarekin!

Baña, edo ez nekien nik begira zegokidala niri nere Jesus aldareko Sakramentutik, edo ez nintzan ni artara oartzen; ta egondu naz ni nere Jesusen begietan, egondu nazan eran; ta galdu dut nik au guzia!-

Berriz egiñen ote dut nik era onetako galtzerik? Egiñen ote dut nik berriz, oraindañoko sartu atera, ta elizako egoera galgarrietatik bat ere?– Ez baldinbere! Bada era orretako edozein gauza nik egitera, etzaio gordeko, ez, Jesusen Animari; ez eta Aita eternoari ere; ta galdu nintzake ni sekulako!

C.

Jesusen animaren Aldareko naia, edo borondatea

Jesusen Animaren aldareko ekustek ez dira, ez, ekuste agorrak; naikunde on-eder ezin-andiangoak dakazten ekustek dira.

Ekusten duenean Jesusen Animak bere Aitaren bazterrik bageko ontasun maitagarria, ta gure Jaungoiko maitagarriak guri nai diguna, asten da Jaungoiko bera maitatzen berak dituen indar guziekin, ta alik zinkiena: ta denbora berean maitatzen gaitu gu ere; ta maitatzen gaitu ezin geiagoraño.

Ez ditu kentzen bein ere Jesusen Anima berak bere begiak gure Jaun eder-altsu-andiagandik; eta ez du

uzten bein ere; ez-eta laburtzen ere Jaunari dion, ta guganako bere maitatze bazterrik bageko au.

Ekusten bazenu zuk gure Jesusen Animaren borondatea edo naimendua, ta gure Jesusen biotza, sutan dagoen karobi berotu edo galtzintegi bati begira zaudela, iduriko litzakezu; ta arriturik geldituko ziñake, nola Jesusen amore andi onen suak erretzen, ta auts egiten ez dituen elizako aldare, tellatu, ta bazter guziak: ain andia da, or zuri gordetzen zaitzun Jesusen guganako amorearen sua.

Ongi: ta ala ere ni, arkitzen nazan bezain otza ta galdua? Eta ni, ogi-zatitxo baten ondoan arkitzen banintz bezala nago, orreinbat amoriozko suren, ta aldareko Sakramentuaren bazterrean arkitzen nazanean ere; baita, niri nere komunionean nere barreneraño orrenbat Jesusen su, ta amoriozko gar sartuagatik ere?

Arrizkoa bide da nere biotza; edo arria baño ere askotan gogorragea; bada arriak berak, eta gauzarik gogorrenak ere beratu oi ditu, urtu oi ditu, ta auts egin oi ditu suak, zerbait au anditu ezkeru; eta, Jesusen amoriozko su, orren andi orrek ez ditu berotzen nere barren-biotzak?- Ekusten dezu zuk orain, nere anima, zere egoera? Ekusten dezu zein txar-errebes-galdua?

Onenbat amoriozko surekin batean, baditu Jesusen Animak guk asm-al adiñ atsegin, ta anitz eta anitz geiago ere; baditu alabaña bere Jaunaren ekuste ederrari (ta Jesusen Animak duen bezalako ekusteari) dagozkan poz-atsegin guziak: eta zeruan arkitzen diran guzi-guziak baño, Jesusen bakarrik agitz geiago, ta agitz obeki ekusten du gure Jaunaren izatea ta edertasuna; ta orregatik, zeruko guzien poz-atsegiñak batetara bilduagatik, Jesusen Animarena baño agitz eta agitz laburragoak lirake.

Zertara ote dator gure Jesus maitagarria aldareko bere Sakramentura, onenbat amore dakarrela, ta poz-atsegin onen andiekin?- Bere poz-amore-atsegin beretatik, gure biotzak artu dezakeen guzia guri ematera.

Zergatik ori orrela?- Zeren maite gaituen guztiz gu, ta guri ongi naiez.

Sinisten dezu? Ezin uka diteken gauza da, orain zuk aditzen dezuna. Eta alere arkitzen zara zu, zauden eran; ta zauden bezain alfer ta nagi komuniatzeko? Eta, komuniatzen zaranetan ere, komuniatzen zara, au zuk siñisten ezpazenu bezala, ta ara zoaz zu, zere komuniara zoazenean, ontzirik bage, edo zere biotza lurreko gogoz asmo ariñez, irabazi txar-galduz, ta loi-

keriz betea dadukazula?– Galdu dezu zuk zere burua, edo zer egiten dezu, orren aisa galtzen dituzunean zuk era onetako irabaziak? Era orretan bizi uste dezu zuk, datozen denboretan? Bide ona daramazu, bai, beti ta beti galdurik zu bizitzeko!

*Vidimus gloriam ejus,
gloriam quasi Unigeniti á Patre.*

Joan. 1. 14.

Ogi-zatitxoa, edo ardo-tanta dirudien gauza bat ekusten dute gure begiak, aldareko Sakramentura begiratzen duten aldietan: baña iduri, edo aintzura orren barrenean, or arkitzen da san Juan Ebanjelariak, zeruko argiarekin ta animaren begiz ekusi zuen gauza guzia.

Zer gauz ote da or Ebanjelari orrek ekusi izandu zuen gauz ori?– Aita Eternoaren Seme-Jaungoikogizon Jesus maitagarria. Or dago, bai, or au, ark ekusi izandu zuen eran, ta or dago au, bere Anima guzia graziaz beterik dadukala; ta bere grazi andi onetatik, eta Jaungoikotasun bazter bagekotik datorkion gloria-rekin, or arkitzen da Jesusen Anima bera ezin ederra-

goa, ezin ekustekoagoa, eta ezin liluragarriagoa; or arkitzen da alabaña, Jaungoiko-gizon, Aita eternoaren Seme bakarrari dagokan ekuskari, edertasun, ta glori guziarekin.

Zergatik zaude or orrela, gure Jesus maitagarria? Zergatik estaltzen dituzu zuk or, aldareko zere Sagramentuan, zure Jaungoikotasunak, eta zuk dezun zere grazi guziak zure Animari ematen dioten edertasun orren ekustekoa? Zergatik zaude zu or, ogi zatitxo bat baizik ez dirudizula, ta nor zaran ere adirazten ta agertzen ez dezula?

Zergatik egoin da? Guri ongi naiez! Gu ez izutzeagatik! Gure biotzetaraño sartu naiez! Gu geren komunionetan, ta egiten diozkagun ekustaldi onetan graziaz beterik utzi naiez! Bere denboran gero gu glori az zeru berean betetzeko; ta eternidade guzian atsegin-kontentuz beterik berekin idukitzeko.

*In quo (Christo Jesu) sunt omnes
thesauri sapientiae, et scientiae absconditi.*

Coloss. 2. 3.

Aita eternoaren bazterrik bageko jakindea da Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria. Jakiunde onaren emallea da Jaungoiko-Seme gure Jesus jakinsua; ta eman izandu zion bere Animari, Anima onek artu ala, ta nai zuena.

Jesusen Animaren jakiña! ta, nai-ta-ez, zuk ekusten dezuna! Zure adimentuko begien ekusleak! Ezer guti da, zeruko guziak eta lurrekoak ekusten dutena, zure adimentuko begi ederrak ekusten dutenaren aldean!

Ekusten dute, bai, zure begi ekusle eder oriek, beste guzien begiak ez bezala, ta berak baizik, ezin dezakeen eran, gure Jaungoikoaren izate bazterrik bagekoa, ta zeruaren erpiñetik lurraren biotzeraño arkitzen den guzi-guzia; ta etzaie gordetzen, ez, nik egiten edo asmatzen ditudan gauzetatik bat.

Bai beraz, gure Jesus maitagarria? Ta ekusten naute ni ere zure begi ekusle ederrak aldareko zure Sakramentutik? Eta ekusten dituzte nere gauza txar txiki guziak ere?- Atsegin dut, bada; ta agitz alere; bada izanik zu nere ekusle eder on ori, zaran bezain on-urrikaltia, badut uste urrikalduko zakizkidala, ekusi ezkeru zuk nere bearra, utsa, ta gabea.- Bearrean daude, bai, nere Jesus maitagarria, ta utsez beteak,

dakusazun bezala nere begiak, nere bearriak, nere esku-oñak, nere miia, ta nere biotza. Zure laguntza bear dute, zure esku indartsua bear dute ta zure grazia, lenagoko beren uts guziak utzi, ta garbiro, zuzen, beren bearrak eta lanak egiteko.

Nere biotz, begi-bearri, ta esku-oñen lan au egin ezkerro, egiten dut nik, zuk zerrorek nai dezuna, ta nik egin bearra. Begira zadazu zuk, amorez beterikako zere begiekin, nik diodan au bertan ekusteko; ta, ekusi ezkerro zuk nere premia, indazu aldi aldirako nik bearko dudan zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai, Jaungoiko maitagarria, bai!

*Aser pinguis panis ejus,
et praebebit delicias regibus.*

Genes. 49. 20.

Ogiaren iduria baizik ez dezu zuk ekusten or aldirako Sakramentuan, nere anima; baña, iduria baño izate ohea duen ogia da, or zure aurpegiko begiak ekusten ez duten ogia. Ori da, bai, izan diteken ogirik onena, ogirik indartsuena, ogirik gozoena; ta ori da atsegin-kontentuz bere jalea bete dezaken ogia; da

alabaña Aser aberats edo Jesus maite bere amorearen ondasun ta asegin guziekin, bere Sakramentu orretan jañari egiñik datorkiguna.

Baña norentzat ote dira Jesusen komunionekeo poz-atsegin andi oriek?- *Regibus*: erregeendako.

Zer errege ote dira komunionekeo errege oriek?- Bekatuera guzietatik urrun dabiltzan animak: Jaungoikoaren grazian arkitzen diran animak; beren naikunde txarrak eta pasione sutuak, edo asaldatuak eskuratzten dituzten animak; elkar ongi artzen duten animak; beren gauzak zuzen egiten dituzten animak; eta birtutez birtute dabiltzan animak.

Anima oriek dira, komunionekeo indarrak eta poz-atsegin andiak izan oi dituzten erregeak. Eta errege orien artean arkituko zara zu ere ezer-ez bat zu mandu onetan izanagatik, zu era orretan emen bizi-tzera, ta era orretako bizitzarekin, komuniatu bear dezun aldietarako, zere anima zuk prestatzera.

Ala prestatu ote dezu zuk zere anima, oraindaño-ko zere komunione aldietarako?- Ez?- Orregatik arkitzen ziñan zu zere komunioneetan, arkitzen ziñan bezain otz eta barriatua. Orregatik gelditzen ziñan zu, komuniatu ondoan, len ziñana, edo lurrera zu ta lurreko zere gauzetara, len adiña makurtua.

Zuzendu nai badezu zuk zere burua, ta artu nai badituzu zuk komunione onetako atsegin-ondasunak, astiz ta ongi ikasi bearke dituzte bere aldarean zuegan-
dik Jesusek nai dituen gauza guziak; eta komunione onetan artzeko zuk, Jesusek orduan eman nai dizkitzun atsegin ta ondasun guziak, prestatu bearke dezu zuk, bear bezala, zere biotza; ta artarako, asi zaitez bertatik ongi gure bitzen zere biotz txar bera, damuz ta urrikiz beterik erraten dezula. *Nere Jesukristo, etc.*

LXXII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN SEMETASUNA;

SEMETASUNARI DITXEZKON GAUZAK,

ETA ALDARERA JESUSEK DAKARTZIEN

BERE IRABAZI GUZIAK

Andiak dira, ederrak dira, ta agitz maitagarriak dira, oraindanoan guk aldareko Sakramentuan ekusi ditugun gauza guziak; baña gauz andiagoak dira, gauz ederragoak dira, ta gauz agitz maitagarriagoak dira, aldi onetan guk ekusi uste ditugun, ta orain ekustera goazen gauzak: eta orregatik ez izatera, ez lirake diran diñakoak, len guk ekusi ditugun gauzak.

Len ekusi ditugun gauzak berak obeki ekusteko bada, ta ekusteko guk bidenabar, Jesusek aldarean ematen dizkigun gañerako gauzak, orain ekusi bear ditugu Jesusen Semetasuna, ta bere Semetasun onekin bat den beraren Jaungoikotasuna; ta Jaungoikotasun onekin bat diran Aitatasuna, ta Espiritu-Santutasuna; baita Jesus beraren irabazi guzi-guziak ere.

Jesusen Semetasunaren, ta Semetasun oni ditxezkon Aldareko gauzen egoera

1. Aita eternoa egin ziteken gizon Semearen lekuan, baita Espiritu Santua ere, Jaungoikoak ala nai izatera: baña ez bata egin zen gizon, ta ez bestea; gugatik gizon egin zena da Seme-Jaungoiko maitagarria.

Jaungoiko-Semeak, gizon egiñik gelditzeko, artu izandu zituen gureen erako gorputz-animak: eta bere gorputz onekin arkitzen da gure Jesus gerozko denboran, ta arkituko da eternidade guzi-guzian ere; ta arkitzen ezpaliz ere bazter guzietan, arkitzen den bezala, gure Jaungoiko-Seme maitagarria, arkituko lizake, beraren gorputz au arkitzen den toki guzietan.

Orregatik, bada, ore-piskara, edo Mezako ostira datorrenean Jaungoiko-Seme-Jesus maitagarriaren gorputz eder au, an bertan arkitzen da, bere gorputz berarekin, bazter guziak betetzen dituen gure Jaungoiko maitagarriaren Semetasuna; ta an arkitzen da, bestetan ez bezala; bada Jaungoiko-seme au berez, bere zeruan baizik ezpalego ere, aldarerako lizake, aldareratzen diranean Jaungoiko-Seme Jesus beraren

gorputza, ta oni ditxezkon Odola ta Anima; artuak daduzka alabaña beregana Jaungoikoaren Semetasunak bere gorputz-odol-animak, kate mallak malla baño agitz barrenago, ta agitz obeki; ta, beste batean sarturik arkitzen den malla ezin dagoke, dakizun bezala, bera bakarrik, eta berekin dadukan beste malla bage.

Baña ez dago bere gizatasun bakarrarekin, ez, aldareko bere Sakramentuan gure Jesusen Semetasuna: an dago, Jesusen Semetasun guziarekin batean, Jesus beraren Jaungoikotasun guzi-guzia ere; bada Jesusen, edo Jaungoikoaren Semetasuna, ta Jaungoiko-Semearen Jaungoikotasuna ez dira, ez, gure gorputz-animak bezala bereis ditezkeen bi gauza; bakar-bakar bat dira Jesusen bitasun oriek; eta *tasun* bata dagoen tokian egon bearra da bestea; ta Jesusen Semetasuna dagoen tokian dago, nai-ta-ez, Jesus beraren Jaungoikotasuna ere.- Eta orra non arkitzen den aldareko Sakramentuan, Jesusen gorputz-odol ta gizatasuna guziarekin, Jaungoiko-Jesusen Semetasuna; baita Jaungoiko Sema Jesus guzi-guzia ere.

Arkitzen ote da zerbait geiago, aldareko Sakramentu andi onetan?- Arkitzen da, bai.

Zer ote?- Aita eternotasuna, ta Espiritutasuna; bada *tasun* oriek biak, eta Jesusen Semetasuna, irur-tasun izanagatik; eta *tasun* irur, elkarren artean ongi bereziak; irurak bat dira Jaungoikotasunean, ta ez dute irur Personatasunak Jaungoikotasun bat bera bai-zik; eta, ezin dagoke Jesusen Semetasuna bere Jaun-goikotasunarekin aldareko bere Sakramentuan, an arkitzen ez dirala Aitatasuna, ta Espiritutasuna; izanik oriek, diran bezala, Jesusen Semetasuna bezain bat Jesus beraren Jaungoikotasurekin.

Arkitzen dira bada Jesusen aldareko Sakramen-tuan Jaungoiko-gizon guziarekin batean Aita eternoa, ta Espiritu Santua ere, edo arkitzen da Sakramentu andi onetan, gure Jesus maitagarriaren gorputz, Odol, ta gizatasunarekin batean, gure Jaungoikoaren bat-tasuneko Irurtasuna, edo Jaungoikotasun bateko irur Personatasun bereziak.

Aditzen dezu zenbat den au? Trebe zara zu, guzi-guzi au bokadu bakar batean zuk artzeko?

2. Zaude zerbaittxo, guti bat nik geiseago bokadu onen gauzak, eta egoera agertu artean.

Or daude, bai lenago adirazi den bezala gure Jesu-sen gorputza, Jesusen odola, ta Jesus beraren anima; ta or daude, len adirazi ditugun argi ta edertasun guzi-

guziarekin.- Or dago, bai, gure Jaungoiko-Semea; ta or daude gure Jaungoiko-Semeak, gizon-egitean, beretu zituen gorputz-odol-animak.

Gure Jaungoiko-Seme au da Jaungoikoaren itza, ta jakiundea. Au da eternidade guzian Aita eternoagandik datorren, ta etorriko den, Jakindea; baña Aita eternoaren Jakiunde, Aita berarekin bat bera den Jaungoikoa.- Jaungoiko-Seme au da, gizon egiñik, emen gizar-tean ogeita amairur urtez bizitu zen gure Jaungoikoa; ta au bera da itz birekin, edo, nai zuen eran, illak bizten zituen Jaungoiko-gizona.

Au bera da, eriak sendatzen zituen, sulezekoak aienatzen zituen, gaistoak ontzen zituen, onak ondasunez betetzen zituen, ta nai zuen guzia egiten zuen Jakiunde Jaungoikoa.- Eta au berau da, aldareko bere Sakramentuan arkitzen den, ta gu komuniatzen garetan, gure animan guk bear ditugun gauzak egin ditzaken, ta egin naiez datorren jakiundea ta Jaungoikoa.

Bere Jakiunde Jaungoiko-Seme onekin batean arkitzen da emen aldareko Sakramentu berean Aita eternoa ere; ta arkitzen da emen au ere, guganako amore ezin andiagorekin.

Len, guri ongi naiez, gizon egiñik eman izandu zigun Aita eternoak, geren onerako, bere jakiunde uts, Aita bera diñako Jaungoiko-Seme bakar maitagarria.- Baña etzen ase, ez, Aita eternoaren amore bazterrik bagekoa, bere Seme au guri bein ematearekin; ta ematen digu bere Seme bera berriz, ta berriz ere, ta egunoro, aldareko gure Sakramentuan; ta berebat egiteko dago, gure mundu onen bukaera datorren arte guzian.- Eta, guti balitz bezala, era onetako Seme bat, gu bezalako artzalle txarrei bein ta berriz, ta askotan ematea, Aita eterno bera ere bere Semearekin batean emen datorkigu geren barrenera, gu komuniatzen garan aldi guzietan guk, orduan gauden eran, artu-al adiña on ta ondasun guri egitara.

Eta, nola Aita-Semeekin Jaungoiko bat bera den Espiritu Santua, au ere arkitzen da aldareko gure Sakramentuan, ta gugana dator, gu komuniatzen garan aldi guzietan.

Izanik, bada, den diñakoa gure Jaungoikoa; baita Jaungoiko beraren Irurtasun au ere, aldarean dago guzia, dakusazun bezala; ta aldarean dago, ezer-ebaten eran, ta ore-zati bat, edo ogi-apur bat baizik ez dirudiela.

Baña, bear den eran komuniatzen den edozeiñek laster aski, edo anitz luzatu bage, ezagutzen du, bai, nor den bere barrenera datorkiona, ta zein egi zuzena den, S. Juan Ebanjelariak diona, erraten digunean (*ep. 1. c. 5. 7.*) *Irur dira zeruan dena, den bezala, adirazten dutenak: Aita, Semea, ta Espiritu Santua; ta irurak bat dira;* ezagutzen du alabaña ongi komuniatzen denak zenbat indar datorkion komuniatzen den aldietan, gauza gaistoak eragotzi ta onak egiteko, guzia dezaiken Aita eternoagandik; ezagutzen du zein andi-onak diran Seme-Jakindearen komunione oneko erakuste ederrak eta gogargiak; baita zein leun maitagarria den ere, Espiritu Santuak berari an ematen dion obetu-ta-obetu naia.

Zorioneko umeak, komuniatzen diran aldietan au guzia ezagutzen dutenak; bada ezagun zaie ongi pres-tatuak komuniatzen dirala, ta atsegin andi bat egiten diotela beren Jaungoikoari, beren barreneratzen duten aldi orietan.

Etzait, ez, niri orrelakorik gertatu izandu; ta orre-gatik nabill ni, nere komunione guziak egin ta ere, nabillan eran, ta onen nagi!- Artzen dut nik bein; artzen dut nik berriz; eta artzen dut nik askotan ta askotan ere, ta komuniatzen nazan guzietan, nere

Jaungoiko guzi-guzia; eta alere, bein ere deus bat artu ezpanu bezain indar gutirekin arkitzen naz ni azke-nean, nere etsaiak garaitzeko, nere asaldazio biziak itotzeko, ta, egin bear ditudan nere gauz onak egiteko!- Zer eskaerak, egunen batean nere Jaungoikoak niri egin bear dizkidanak, onenbat nere artzeren, ta bere artzekoren alde!

Ez, ez, nere Jesus maitagarria, ez orrelakorik, ez! Ori datorren baño len eman uste dizut nik zuri zordudan guzi-guzia. Ez dut nik orretarako besterik bear, baizik bizitz on garbi bat artu, ta komuniatzen nazan aldietan orien pagamentua nik zerorri eskatzea; bada onegia zara zu, era orretako orduetan zuri eskatzen zaitzuna zuk ukatzeko; ta badezu zuk niri emateko, nere zor guziak eskatzen dutena diña ondasun, baita anitz eta anitz geiago ere; ta nik ongi eskatzen dizudan guzia niri eman naiez zaude zu or aldareko zere Sakramentuan.

B.

**Jesusek guretako aldarera
dakartzien irabazi andiak**

Ez dator nolainai, ez, bere aldarera, ta gero, gu komuniatzen garanetan, gure baitara gure Jesus maitagarria; bere irabazi edo merezimentu ta ondasun guzi-guziekin dator batera, ta bestera; ta guzi-guziak dakartzi, andik eman naiez, urbiltzen zaizkan guziei, oriek aldian arta ar-ala.

Anitz dira ta andiak, bai segurki, gure Jesusen irabaziak edo merezimentuak.

Anitz dira lenbiziko lekuan, bai, gure Jesus maitagarriaren irabaziak, edo merezimentuak; bada irabazten ta irabazten egondu zen gure Jesus maitagarria, bere Anima gorputzera zekion puntutik, bere gorputza gurutzean illik utzirik, linborako bidea artu arteko denbora guzian; bitarte orretan irabazten aritu zen alabaña gure Jesus maitagarria, bere irabaztetik instante bat, ere gelditu bage.- Eta, anitz ezezik, andiak ere dira gure Jesusen irabaziak; bada Jesusen irabazi bakoitza, Jaungoiko-gizon baten irabazia da; ta orregatik da irabazi ezinobe-andiagoa.

Zenbatekoak izain dira bada Jesus onaren irabazi guziak, edo merezimeutuak?- Ezin adirazi ditezkeen diñakoak. Oriekgatik du gure Jesusek, eta izain ere du eternidade edo sekula guzian, asm-al adiña baño atsegin, kontentu, ta glori geiago ta geiago.

Aita eternoaren Seme bakar gure Jesus maitagarriak bere baitara artu orduko bere gizatasuna, ekusi zuen bere Animaren begiz edo adimentuz etorkizuna, edo gizon galduen alde Jesusek berak bere bizitzan egin ta eraman bearra.- Ordu berean ekusi zuen gizon guzien galduera. Ekusi zituen gizon guziak bein Adanen bekatuagatik ongi loituak; eta gero, berak egini-kakoz guztiz beteak; eta beren bi bekatu era oriek dakazten zorrakgatik zerutik erbestetuak; eta denbora berean ekusi zuen gizon berak, beren gauzak zuzentzeko, edo beren zor oriek ateratzeko bear zuten adiña indar etzutela.- Au ekustean, ekusi zituen orien alde Jesusek berak irabaz zitzakeen grazi eder indartsua, laguntza guzia, ta pagamentua; baita nola oriek guziak Jesusek irabazi ere; bada ekusi zuen, irabaz zitzakela berak bere bizitza guzian artu zituen naigabe, kezka, neke, azot-ukaldi, ille tira, odol-isurtze, esku-oñak iltzez urratze, ta gurutzeko bere eriotz arri-garriekin: ta laguntza ori ta grazia guretzat irabazteagatik, erran zion ordu berean Jesusek Aita eternoari, artzen zituela bere gain neke oriek guziak; eta prest zegoela geiago ta geiago ere, ark ala nai zuela, bere gain artzeko: ta bere errate, ta ziñezko nai onekin irabazi zituen Jesus maitagarriak izandu diran, diran, ta

etortzeko dauden gizon guziak bear dituzten grazia ta laguntza guziak; eta orain arteko denboran etorri diranak, eta etortzeko dauden guziak etorri ondoan, etortzen balira, oriek guziak baño geiago ta geiago, ta ezin kont-al adiña gizon ta emakume, izain lukee oriek guziak ere bearko lukeen grazia ta laguntza guzia. Ain andia da Jesusen orduko irabazi ta merezimentua.

Ezagu dezazun zuk, nere anima, ordu artatik guk bekatari guziok gure Jesus maitagarriari zor diogun ontarte bazter bagekoa, ekusi bear dugu gaur, zer eran izandu zen gure Jesusen ekuste izugarri ta ziñezko nai andi au.- Ekusi zituen, bada, aldi artan gure Jesus maitagarriak munduko gizon guzi-guziak; eta ekusi zituen, ez naspilla batean, edo nasteka ta illunbean bezala, baizik garbi-garbiro ta banaka, edo ekusi zuen guzi-guzien artean edozein gizon, ura bera baizik izandu ezpaliz bezala; ta guzien artean ekusi zinduen zu ere: ta ekusi zinduen, besterik batere izandu ezpaizen bezain ongi ta zuzen; ta ekusi zinduen zere ibille-
ra, zere asmo, zere neke ta gauza guzi-guziekin.- Ekusi zituen, bada, gure Jesus maitagarriak zure txarkeri guziak, eta txarkeri oriek dakazten zorrak. Ekusi zituen zure bearrak, zure eror-bideak, eta zure makurerak; baita zuk, ortik atera, ta zuzen ibilzeko bearko

zenituen zeruko indarrak eta laguntza guziak ere; eta laguntz indar oriek guziak, ta anitz eta anitz geiago ere, irabazi zituen zuretzat gure Jesusek orduko bere nai-on-zuzenarekin.

Baña etzuen Jesusek au guzia zuretzat irabazi, bortxaz zuri bere irabazia arrerazteko. Irabazi zuen, zuk zerorrek nai zenuela, ta bear zen eran eskatzen zeniola zuri emateko; ta era orretan zuk eskatu ezke-ro, noiznai gure Jesusek emain dizu bere laguntza, bere grazia, ta animako zere zorren pagu-gaia, edo berak zuretako irabazirik dadukan edozein gauza; bada, Jesusen irabaziari agitzen edo gertatzen zaio, Israelgo andre alargun baten olioari len gertatua.

Estutzen zuten andre alargun au artzeko zutenak, bere zorren gain; ta, ez jakiñez zer egin, urbildu zen bein Eliseo profetagana, ta agertu zion oni bere be-rra ta premia; ta eskatu zion bideren bat, bere burua bere lan-gai gaisto artatik ongai ateratzeko.

Zer dezu zere etxean? Erraten dio Profetak andre beartsu alargun eskaleari?– Ez dut, Jauna, nik, eran-tzuten dio, olio guti bat baizik.– Aski da ori, erraten dio Profetak. Zoaz al dituzun ontzien billara; ta, zere etxean sarturik gero, arkitzen dituzun ontzi guziekin, ta zere semeak an laguntzen dizutela, bota zazu ontzi

orietara zere olioa, ta ez da zer gelditu, ontzi guziak bete artean.

Egiten du andre alargunak Profetaren errana. Artzen du bere eskuetan bere oli-ontzi txikia. Ekartzen diozkate bere semeak ontziak ontzien ondoren. Betezen ditu ontzi guziak; eta ez da gelditzen olioa, ontzi uts guziak bukatu edo beterik gelditu artean. Eta, bere itxean zuen olio-tantatik ateratzen du andre alargunak, bere zorrak ateratzeko, ta beretzat eta bere umeendako bear zuen ondasun guzia.

Ogi-zatitxo bat dirudi gure Jesus maitagarriak aldareko bere Sakramentuan; baña nai duenak ortik aterako du, bere zorrak ateratzeko, ta bere anima ta animaren lagunak, edo potenziak sendortzeko bear duen gai, indar, laguntza ta grazi guzia.- Ez du, nai duenak, orretarako bere ontziak prestatu ta komuniatzen dela, bere Jaungoikoarekin bere baitan ongi gorderik, au guzia Jaungoiko-gizon-Jesus maitagarriari eskatzea besterik bear.

Arkitzen zara zu, komuniatzen zaran aldietan ongi konfesatua; baña zere konfesionean Jaungoikoak barkatu zizkitzun, zere bekatu larrien zenbait zorrekin? Etzara saiatzen zu, Purgatoriora bage, zere zor oriek emen ilduraz, baruz, selizioz, ta zere gorputzaren

nekez ateratzera? Beldurtzen zara zu, zere zor oriek ateratzeko dezun Purgatorioko suaz oroitzen zara-nean? Eska zaiozu, bada, (ta eska zaiozu alik umilkiena) zere komunioneke denboran, zerekin dezun Jesus urrikaltari, orretarako dituen bere irabazietatik zatiren bat.- Berriz ta berriz ere, ta komuniatzen zaran aldi guzietan, egizu eskaera ori bera; baita zuk zere Meza ematen dezunean, edo entzuten dezun denboran ere, ta zuk aterako dezu gure Jesus maitagarriagandik zure bekatu barkatuen zor guziak eskatzen dutena.

Arkitzen zara zu, komuniatzen zaran aldietan, zere Jesus maitagarriaren grazian, bai, baña bekatuaren eritasunetik ateraberria bezala, indar gutirekin? Arkitzen zara biotz, gaitz aldera agitz makurturik arkitzen den batekin, ta zere adimentua, bear ez diran oroitzapen galduz, ta asmo lizunez beterik dadukazula?- Eska zaiozu, bada, zere Jesus maitagarriari, bere gogargi ederren zati on bat, gauz onen asmoz zere gogoa beterik erabiltzeko.- Eska zaiozu beraren eskukaldi, edo, eman oi duen barreneko ukiera bortiz on bat zure biotzari bertatik ar-erazteko bere beldur ona ta ziñezko amorea; ta denbora berean eska zaiozu zuk amore-beldur oriek eskatzen dituzten gauz on guziak

zuzen egiteko, bearko dezun beraren laguntza ta grazia. Izain dezu zuk, bai, au guzia, guzia zuk Jesus maitagarriari bear den eran eskatzera.

Bai: orretarako dator gugana gure Jesus maitagarria, bere ondasun ta irabazi guziekin, guganutzen den aldioro, gure komunioneetan. Eta artzen ezpadezu zuk ori guzia, ta anitz geiago komuniatzen zaran zere aldietan, artarako zuk zere ontziak prestatu bagez izaten da, ta zeren zuk aldi orietan egiten ez dezun, egin bear zenukena ezperen; ta ekusiko dezu.

C.

Jesusek, aldareko Sakramentuan gelditzeagatik, egin zituen irabaziak

Gizon egin zenean, ekusi zuen gure Jesus maitagarriak, gure salbazioko lan gogorra bukatu, ta zerura bera iganagatik, geldi zitekela denbora berean gure janari egiñik emen gure artean; ta au ekustean, ekusi zituen gure Jesusek, beraren emengo gelditze onetatik zetozkikegun ondasun guziak ere.

Baña au guzia Jesusek ekustean, ekusi zituen bidenabar beraren emengo gelditze oni zerraizkon bidegabe lizunak, eta gizonen txarkeri arrigarriak ere; ta ekusi zituen anitz aldetarako txarkeriak; bada ekusi zituen judatar gogorren txarkeriak, ereje gaistoen txarkeriak eta apez ta gizon eskergabekoen txarkeriak.

Ekusi zuen Jesusek orduko bere ekus-aldian, gelditzen bazen gurekin emen, edo aldareko bere Sakramentuan, ista ta irria baizik egiñen etziotela judatar galduak; eta errain zutela ausardi andiarekin oriek, ez dela Jaungoikorik aldareko gure Sakramentuan, edo ez dela aldarean, ezer-ezetako den ore zatitxo bat baizik; eta, era orretan oriek esaten zutena ala bailiz bezala, erabilliko zutela gure Jesusen aldareko Sakramentu andi au, noizbait edo ordu gaistoren batean orien eskuetaratzzen zenean.

Ekusi zuen Jesusek ereje gaistoak, geienak beintzat, berebat errain zutela; ta orietatik zenbaitek artuko zutela Sakramentu bera, edo artuko zituztela Ostia ta Forma konsagratuak, beren zakurrei ta zaldiei emateko, irakiten zedukaten urean sartzeko ta egosteko, ezpatez ta kanibetaz ebakitzeko, edo urkabeen iltzez josirik uzteko. Eta era orretako aldiren batean oriek

ekusiagatik ostia, edo forma bera odola zeriola, zakur batena bazen baño geiago etziotela begiratuko, orri zerion odolari ta Sakramentuko mirakulluari.

Denbora berean ekusi zuen gure Jesus maitagarriak apez zenbaiten, ta gizon-andre gaistoen aldetik ekusi bearko zuena, Sakramentu onetan emen bera gelditzera; edo ekusi zuen nola anitz aldiz, ta askotan ta askotan botako zuten oriek beren barrenetara, aur bat bota liteken bezala, apoz, sugez, ta sierpez beterik dagoen leze batera: edo botako zutela Jesus Sakramentatua, oitura gaistoz, bekatu larriz ta zikinkeri alkegarriz beterikako beren barrenetara. Eta ekusi zuen bidenabar gañerako guzien Sakramenturako oztasuna ta oarkabea.

Au guzia, ta anitz eta anitz geiago ere ekusi zuen gure Jesus maitagarriak bere lenbiziko ekusaldian; ta alere, atera zezaten ongi bizi naiko zutenak nai adiña ondasun ta grazi, artu zuen gure Jesusek emen aldarreko Sakramentuan gurekin gelditzeko asmoa; ta iltzera zijoanean, edo Ostegun santu arratsez, gelditu zen Jesus bere Sakramentu onetan; ta ordu berean bere eskuz eman izandu zien bere Apostoluei lenbiziko komunionea.

Era onetan gelditzeko bere asmo au artzean, izandu zituen nai-ta-ez, gure Jesus maitagarriak bere biotzeko illuntasun andiak eta tristurak. Ezin zegikeen besterik Jesusen ordu artako anbat ekuste ikaragarrik!

Baña guzia artu zuen Jesusek bere Aita maitagarriaren izenean ta gure onagatik; eta bere artze maitagarri onetan egin zituen Jesusek irabazi berri andiak; eta oriek ere aldarera dakartzi, Sakramentura datorren guzietan, len adirazi ditugunekin batean; ta guziak dakazki gure utsen alde, ta uts berririk ez dagineun, guri anitz gogargi ta indar onak emateko.

Ekusten dezu zuk orain, zein edo nor den aldareko Sakramentu andira datorkizuna? Ekusten dezu zuk nola datorkizun, ta zein aberats-emallea, orrara datorkizuna? Nola eraman ote dezu zuk oraindañokoan zere biotza, komuniatu zaran aldietan?- Utsez ta bekatuz ongi-onggi ustua, edo utsik, edo bekatu-rik batere bage? Graziaz bere nai andi bero baten besoe-tan; ta eskaera umil anitz-andiak egiten zenituela?

A nere Jesus maitagarria! Ori zen, bai, ori nik aldi orietan egin bearra! Baña ez dut nik, ez, egin izandu, ori ezezik, orren laurdenik ere, ta orregatik nago ni gaur, nagoen eran, ta damu arrigarri baterako bidez ta gaiez guztiz betea!- Damutu balekit, bada, bear

den eran nere oraindañoko urrats, pausu, ta ibillera makur guziez; guziak nik bertatik urratu ondoan, biziera berri on bat artzeko, ordu batez ere luzatu bage. Ala egin uste dut nik, zuk zere graziarekin sendorki laguntzen didazula, nere Jesus maitagarria. Lagun zakizkit, bada, aldare orretan dakartzun zere amore ondasundun bazter bagekoagatik. Bai arren, bai!

*Et ipse stat post parietem nostrum,
respiciens per fenestras,
prospiciens per cancellos.*

Can. 2. 9.

Nor ote da, nor, aldareko Sakramentu andi orretan gorderik or arkitzen den ori? Nor ote da, or guk ogia-
ren aintzuran, edo idurian ekusten dugun ori? Nor
izain da? Jesusen gorputza, ta gure Jesus guzi-guzia!
Jesusen Jaungoikotasuna, ta Jaungoikotasun onekin
bat diran Aita eternoa ta Espiritu Santua.

Orra non dituzun or, orra Aita-Semeak eta Espiritu
Santua; ta orra, or dezu, Aita eternoaren Seme maita-
garriak bereturik dadukan bere gizatasuna ere.- Guk

ez dugu ekusten au, ez, aldareko Sakramentu andira begira egonagatik; bada or au guzia gorderik dago, ogiaren aintzurazko edo akzidentezko paretaren arako aldetik. Ez du leiorik, ez du zulorik, ez eta zirriturik ere ogiaren paret orrek, edo ostia konsagratuak, guk andik ekusteko barrendik gordeak daduzkan bere gauz andiak.- Baña ostia bera leio, edo ekus-bide utsa da gure Jaungoikoarentzat; eta andik ekusten gaitu ark gu, berak nai bezala, ta begira dagokigu, non gabiltzan gu ta zertan gabiltzan, ezinobeki ekusten duela.

Zertako ote dira, gure Jesus; zertako ote dira gure Jaungoiko maitagarria, orrenbat zure begiratze, ta begiratze garbi-eder betiko oriek?- Gu ongi ekusi naiez, nere anima! Gu beregana emeki ta zuzen eramateagatik; an gu ondasunez, gogargiz ta doaiez beteak berak uzteko.

Eta alere, nagi gu, nere anima, ta Jesusen igesi bezala gu, geienetan beintzat! Eta alere, oartzen ez garala gu, begira dagokigunik ere gure Jaungoiko maitagarria!- Ez dugu gaurgero, ez, era onetan bizi bear guk, nere anima Elizara bear dugu guk, eta maiz alere; ta aratzen garan aldioro, an egoin bear dugu guk, guzi-guzia dakusan Errege Jaungoiko altsu-maita-

garriaren begietan daudenak egon bear duten eran, edo guztiz umilki, ta geren gogoz, itzez, ta biotzez eunka, ta eun millaka, eskerrak ematen diozkagula; geren begiak an, Jaungoiko berari begitzeko baizik jasotzen ez ditugula; alegin guzian guk bera maitatzen dugula, zor zaion bezala; ta aratzen garan urrengo aldian lur au, orduan baño agitz obeki egiteko indarrak eta laguntzak emain dizkigulako ustean. Ala gerta dedilla, nere Jaungoiko maitagarria: Bai, arren, bai!

*Ingrediens mundum dicit;
hostiam et oblationem noluisti:
corpus autem aptasti mihi... Ecce venio...
ut faciam, Deus, voluntatem tuam.*

Hebr. 10. 5.

Orra, Jauna, erraten dio bere Aita eternoari gure Jesus maitagarriak, gizon egiñik gelditu orduko; orra, Jauna, ekusten dut orain nik, ongi aspertua arkitzen zarala zu, zere Lege zarreko olatez ta ostiez; ta au ekuste berean, ekusten dut nik, bein ere aspertuko

etzaituen osti bat gurutzeko Aldare gañean ekusi naiez zaudela zu.

Orretarako eman didazu niri zuk onako nere gorputz minbere artuberri au. Zuk, au niri ematean, nai izandu dezuna da, nik nere gain artzea munduko guzien bekatu guziak; eta nik, nere bizitza guziko nairgabe andiarekin, nere Pasione arrigarriko tormentu latzekin, ta gurutze gogor bateko neke guziekin irabaztea, bekatu oriek itotzeko, ta anima gaisoak grazi ederrez, ta zeruko indarrez beterik uzteko bear den guzia, ta anitz eta anitz geiago.

Ona, bada, ni bertatik prest, ori guzia ta gañerako zuk nai dezuna, zuk nai dezunean, ta zuk nai dezun eran egiteko.- Artu dut, bai, nere Aita eternoa, artu dut nik gaurdanik betiko nere bidea; ta ez naz geldituko, ez, ez-da-baida batean ere, au guzi-guzia nik egin, ta ni nerau gurutze batean zure osti egiñik gelditu artean. Ala nai dut nik, bai, nere Aita eternoa; ta ala izain ere da, zuri nik dizudan amoreagatik, eta zeren urrikari ditudan nik munduko bekatari gaisoak.

Orra orduan Jesusek bere Ait-eternoari erran izandua: ta orra, orduan erran bezain zuzen bere orduan Jesusek egin izandu zuena.

Ordu beretik irabazi zuen gure Jesusek, bekatari guziok bearko genuen diña; baita anitz eta anitz geiago ere.- Ordu beteko irabaziak bezain irabazi andiak egin izandu zituen guru Jesusek instanteoro, ill arteko bere denbora guzian: ta geroko ta orduko bere irabazi guziekin datorkigu gure Jesus maitagarria Aldareko bere Sakramentura; ta bere Sakramentu onetara datorkigu, guk nai dugun guzia guri emen ematera; ta ez du eskatzen bere emate andi orretarako, bear bezalako eskaera garbi umil bat baizik.

Ekusten dezu zer etorrera, ta zein aberatsa, aldarerako Jesusen etorer-au.- Ekusten dezu zein emalle maitagarria datorkigun bere Sakramentu onetara guru Jesus maitagarria?- Zer ongi-etorriak egin uste diozkatzu zuk, elizaratzen zaran aldietan? Etzara zu lenbaitlen, ori egin naiez elizarako? Etzara zu gerozko denboretan, alik maizen-maizena eliza berarako, au zuk zere Jesus maitagarria ekustera; an zuk Jesus berari zere agur andiak egitera; ta zor diozun amorearen eskerrak ematera? Egizu zuk au guzia; bai arren, bai, egizu; ta ekusiko dezu zenbat ondasun ateratzen dezun zuk zere egiteko eskerdun on orietatik.

*Desiderio desideravi hoc Pascha
manducare vobiscum, ante quam patiar.*

Luc. 22. 15.

Bere Animaren asiera beretik, bazekizkien gure Jesus maitagarriak, aldareko Sakramentuan anitzek egiñen ziozkaten gain arrigarri-zikin-gaistoak; eta alere or bere Sakramentuan gurekin gelditu naiez-ta-naiez egondu zen bere bizitza guzi-guzian: ta, azkenean, or gelditzean, erran edo adirazi izandu zien bere Apostoluei; nai andiarekin nai izandu dut nik nere azken-afari au zuekin egitea. Ni, zuen amorez, ta munduko guzien onerako, milla ta milla nekeren artean nere bizi au uztera noa; ta, besterik ezpadere, nerekin daramat orain nik, nere ordu au etorri delako, ta munduko guziekin Sakramentu onetan gelditzen nazalako, atsegin andi bat.

Ez du gaurgero bere Elizan ekusi nai nere Aita eternoak, oraindañokoak bezalako zezenen, bildotsen, ta era orretako gauzen odol-isurtzerik, edo aragierrerik. Egunero ta beti Eliza berean nere Aitak ekusi nai duen aragi-odola da, nere Sakramentu onetan nik utziko dudan nere Gorputzarena.

Au ematen zaionean edo Mezakoan, edo komunio-
ne onetan (naiz eman dakiola bekatu barkatuen alde,
edo orien zorrak ateratzeko, naiz beragandik erdiste-
ko zeruko ondasunak eta ontarte berriak), pozik artu-
ko du beti nere Aita eternoak; eta erditsi ditzatzuen
zuek bi gauz-era oriek, orra or gelditzen da aldareko
nere Sakramentuan nere Gorputz au bere Odol, ta
guziarekin; ta gelditzen da or, or nik iutzirik; eta nik or
uzten dizuet au guzia, ongi-ongi dakidala jentilak,
herejeak, turkoak , eta kristau gaistoak or niri egiten
dizkidatela anitz bidegabe, anitz ista, txarkeri, ta
gauza lizun izugarri.

Eta or bertan uzten dut nik gaur, nere jakite edo
ekuste latz onetatik orain niri datorkidan naigabe
andia, edo nere naigabe onekin orain nik irabazten
dudan guzi-guzia ere.- Oraindanik uzten dut nik or ori
guzia, zuen guzien onerako; ta uzten dut ori guzia nik
or, nere atsegin-kontentu guztiz andiarekin.- Orra
orduan Jesusek bere Apostolu maiteei, ta orien buruan
guri adirazia; ta orra geroztik beti Jesusek gurekin egi-
ten duna.

Au guzia badakigu guk, zuk eta nik, biok; eta ez
gara orregatik urtzen gu gure Jesusen amorez, edo
Jesusi guk ongi naiez? Eta ez gara gu gure Jesus mai-

tagarriagana urbiltzen, urbiltzen garan bezain bakan, edo banaketan baizik? Eta urbiltzen garanetan ere, zertara urbiltzen ote gagokiozka gu Jesus maitagarriari? Zenbat esker ematera? Zenbat agur egitera? Eta zenbat orduz an Jesus maitagarriarekin amoriozko itzketan egotera?- Gure eskergabeak! Gure zentzurik-ezekoak! Eta guk orretan galdu oi duna!- Era berekoak izain ote gara gu emendik aitzina?- Ez baldinbere! Utz ditzagun, bada, guk emen bertatik leneko gure bide galgarriak, artu bear dugun on bat artzeko: ta asi gaitezen orain, ziñez erratetik: *Nere Jesukristo, etc.*

LXXIII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN ALDARERATZEA; TA BERAREN ALDAREKO ETXE-GELAK ETA SOÑEKOAK

A.

Jesusen aldaderatzea

1. Jesus bera berez, edo berak konsagrazioko itzak erraten zituela, jarri zen lenbiziko aldian Ostegun santuz aldareko Sakramentu onetan. Jarri zen emen, nairgaberik batere bage jarri zen emen, emen egoteko ogi-ardoan azalak, soñekoak, aintzurak, iduriak, edo akzidenteak bukatu artean; ta egondu ere zen, au an gertatu arteko denbora guzian.

Ordu berean, bada, edo Jesusek bere lan andi au egin izandu zuen denboran, eman izandu zien bere Apostoluei, ta gañerako Apez guziei, lan andi berau egiteko bear zuten esku guzia; ta ordu artatik beartua gelditu zen, edo bere itza emanik gure Jesus maitagarria, berak bere konsagrazioan esan zituen itz berak

oriek erran orduko, egiñen zuela, Apostolu berak orduan ekusi zutena; ta egiñen zuela orduan bezala.

Orregatik bada, ta zeren den, den bezalakoa, gure Jesus maitagarria, Apezak konsagrazioko itzak erran orduko, aldarean arkitzen da Jesus, ta an arkitzen da sakramentatua, edo ogi-ardoan iduriz, aintzuraz, edo akzidentez estalia: ta, emen sakramentatua arkitzen den denbora berean arkitzen da bere Aita eternoaren eskoietik bere zeruan.

Orra zein laster egiten duen gure Jesusek zerutik aldarerañoko bere bide luze au, itz bi apezak erran bitartean!- Berebat egiñen luke gure Jesus maitagarriak, urrutiago ta urrutiago arkitzen baliz ere, apez berak bere itz biak erraten dituen denboran; utsik egiten ez duena da alabaña gure Jesus maitagarria, ta ez len, ta ez orain egin dezakena; ta aldi artan ori ez egi-tea, dagiken bezala, utsegitea lizake; ta utsegite guztiz arrigarria.

Ongi: ta egiten ote dezu zuk, nere anima, ori bera, edo zuk dagikezuna, ta aldian aldiako zure itzak eskatzen dutena? Zenbat itz eman ote dituzu zuk, zu bataiatu zinduzten ordutik egungo egunetaraño?- Eman zenuen zuk ordutik itza (ezin uka dezakezu), etziñala nastuko bein ere zu mundu arroaren egiteko

galdu edo galgarrietan; etzenuela egiñen zuk bein ere, Satanas gaistoak eragin oi dituen gauza gaistoe-tatik bat ere; ta garaituko zenituela zuk zere aragiaren naikunde makur-lizun guziak.

Orduko zere itz ori aski ez iritzirik bezala ordu berean eman zenuen zuk, Jesusen eran beti zu bizitze-ko itza; baita aldian aldiako gauz on guziak zuzen egiteko, ta zere neke guzien gurutzearekin birtutez birtute Jesusen ondoren ibiltzeko itz oso bat ere. Baña egin izandu dezu beti zuk, zure itz on oriek dioten guziguzia?– Ez noski, ta laurdenetan ere; ta orregatik arkitzen zara zu gaur, gaur zuk dituzun adiña bekaturekin; ta, bear zenituen birtuteetatik batere bage.

Begira nora zoazen zu, gaurgero zu orrela bazabil-tza. Ez da ori, ez, gaur zuri gure Jesusek erakusten dizun lana ta egitekoa. Egizu bada zuk zere egiteko au; ta egizu beti, gure Jesus maitagarriak bezala, edo lenbaitlen, ta alik zuzenen-zuzenena: zaduzkan gero zu berekin beti bere zeruan gure Jesus maitagarriak.

2. Nola egiten ote du Jesusek, apaizaren itzak aditu orduko, aldareko bere Sakramentuan arkitze au?

Batere begiratu bage nor den, edo nolakoa den, konsagrazioko itzak erraten dituen apeza. Batere begiratu bage zer dadukan bere gogoan apezak, bere

Meza ematen duen denboran; edo zertako den apaiz beraren Meza ematea. Batere begiratu bage, nolakoak diran apezak aldarera daramatzien soñekoak, edo nolakoa den aldare bera, edo Mez-eman-tokia.- Naiz ona dela, bada, ta naiz galdu-galgarri zikiña, Mez ematen dagoen apeza, an arkitzen da gure Jesus maitagarria, apez beraren eskuetan apaizak eskuetan duen ore edo osti gañean, edo kalizari begira dagoela, konsagrazioko itzak erran orduko.

Eman dezala apezak bere Meza, bere Jaunari atsegin egin naiez, edo eman dezala bere gogo gaistoren bati atsegin egiteagatik, ez du Jesusek orretara begiratzen, aldarera etortzeko; begiratzen dio orretarako emanik dadukan bere itzari; ta apaizaren konsagrazioko itzekin batean, an da kalizan, ta an olean edo ostian gure Jesus maitagarria.

Berebat gertatzen zaio gañerakoan gure Jesus maitagarriari; bada, naiz zarra dela apeza, ta naiz gaztea; naiz ederra dela, ta naiz itsusia; naiz zuzena naiz elbarri, erdi-eri bat dela, naiz indartsu sendorra, ez du orretara batere begiratzen gure Jesus maitagarriak.- Nolakoa, nai dela, bada, Mez-ematen dagoen apeza, Jesus beraren izena, eskua, ta lekua daduzka, ta Jesus beraren izenean erraten ditu konsagrazioko bere

itzak; eta oriek erran orduko, egiñik gelditzen da orren itzak diotena; ta an dago bertan Jesus Aldareko bere Sakramentuan.

3. Eta gauz orietara begiratzen ez duen Jesus maitagarriak, anitz begiratuko duela deritzazu gañerako gauzetara; edo begiratuko duela, deritzazu Mez emateko den aldarera, ekusteko garbia dagoen edo zikiña; gauz-oial eder-meez, edo zar zatar-zikinskotez estalia dagoen aldarea, berari dagokan eran ezpadago, ara ez etortzeko?- Nolanai egon dedilla Mezako maia, edo aldarea, an arkitzen da Jesus maitagarria apaizaren konsagrazioko itzekin batean.

Eta orra guk ere, geren eran egin bear genuken gauza, edo egitekoa; baña egiteko, edo gauza, askotan, ta askotan guk egiten ez deguna.

Ez da zure gurasoa, edo zure aita, edo ama, zuk nai bezalakoa; moldakaitz mintzatzen zaitzu, zerbait zuri manatzen dizunean, ta nagitzen zara zu aren erranak egiteko.- Nai zenuke zuk legizkeen zure senide zarragoak, zuri zere etxeakoak eragiten dizkitzuten gauzak; eta zu, zere senide beren itz bat aditu orduko, mindurik gelditzen zara orietara; ta, erraten dizkitzuten gauzak egin bearrean, erriertan, ta furrustadaka.- Ozpin tanta batekin igortzi orduko zuri zere kon-

fesariak, edo predikatzalleak zere animako zauriak edo aztura gaistoak, edo zere onerako zuri oriek, edo besteren batzuek itz ez-leun bi erraten badizkitzute, erretzen zaitzu zere biotz barren guzia, ta gelditzen zara zu, oinpean erdi lertu duten suge txar bat bezala; gelditzen zara zu ongi sutua, zaran guzia, ta izurritz ta bendekuz betea.

Orra zuk askotan ta askotan egin oi dezuna. Eta orra Jesus maitagarriak gaur erakusten digunaren bidetik urrun dabillenen egitekoa! Etzenuke zuk, ez, era orretako gauzarik egiñen bein ere, baldin zuk begiratzen bazenu, lendabizitik zuk, edo zere bataio-tik zere Jaungoiko ongillari emanikako zere itzetara.- Etzenuke zuk egiñen, ez, era orretako txarkeririk, zu ongi oartzera beartua zaudela zu, (zauden bezela) kristio edo kristautasunagatik zuzen, ta fite edo laster egitera, zure Jaungoikoak aldi orietan, ta era orretako beste edozeinetan zugandik nai duena; ta beartua zaudela zu, ori egiteta eme-emeki, ta asaldatu bage; ta beartua zaudela ori zuk egitera, naiz datorkizula zere gauz orren eginbidea guraso moldakaitzetatik, aurride, senide, edo askazi mukerretatik, auzoko gais-toetatik, edo edozein beste saiets, edo alde on edo gaistotatik.

Etzenuke zuk egiñen, ez, era orretako gauzetatik batere, begiratzen bazenio zuk gure Jesusen, orain ekusi dugun zerutik aldarera etortze zuzen bere-berealakoari.

Baña ez dezu zuk egiten, ez askotan beintzat, irur begir-era orietatik bat ere; ta zer da gero zuk egiten dezuna?

Zeer? Zerurako anitz eta anitz zere irabazi galtzea: zere anima gaisoa oben-kulpen loi zikiñez galdu-rik uztea; zuretzat zure Jaungoikoak zedukan anitz laguntza galtzea; zuk onetsi bear zenituen zere itxe-koekin, zere zarragoekin, ta zurekin jarduki oi dutene-tatik zenbaitekin edo beintzat batzuekin zu gaizki gel-ditza. Ez da ori, ez, gure Jesusek bere-berealako bere aldareratzeekin erakasten dizun bigarren gauza.

4. Jesusek era onetako bere aldareratzearekin egi-ten duen beste gauza da, aldareratzea bear den den-bora guzian, asalatu gabe ta ixil-ixillik an egoteko.

Bein Sakramentura ezker ez da, ez, Jesus maita-garria andik ateratzen, ustelduak edo galduak gelditu artean, an bera estaltzen duten ogi-ardoan soñekoak, aintzura-iduriak, edo akzidentek.

Eta soñeko oriek eun urtez, edo geiagoz irautera (iraun duten bezala Alkalan, Jesusen konpañiako eli-

zan gordeak dauden forma txiki konsagratu batzue-
nak), oriez gorderik an egoin da Jesus denbora orretan
guzian, ta oriek irauten duteño: ta egoin da, itzik atera
bage; ta ara zenean bezain guganako amore andiare-
kin.- Egoeraren ederra! ta orrek guri erakusten digu-
na!

Zer ote da Jesusek bere Sakramentuko egoera
orrekin guri erakusten digun au?- Gu gauden tokian,
eman diguten lanean, edo geren egitekoan dakargun
bizitzan, ta beste edozein geren gauzetan, asaldu
bage, ta naigaberik artzen ez dugula, guk irautea gure
Jaunak guri, edo Jaun-ordekoak besterik eragin artean.

Aisa, ta erraz orretarako gara guk ezagutu ezkerro,
ori dela aldi artan gure Jaungoikoak gugandik nai
duena.- Eta ezaguturik bizi zaitezke, bai, ori dela zure
Jaungoikak nai duena, zuri eginkizunen bat datorkizu-
nean, ori zuri etorriagatik, zure gurasoen, edo zu
beren eskupean zaduzkatenen aisolakabetik datorrela
dirudiela; bada orien utsetatik ere zure ona nai du
atera zure Jaungoiko maitagarriak.

A nik an egin izandu banu era orretako aldi orie-
tan! Izain ez nituen nik, ez, izandu ditudan adiña nere
barreneko erretze ta kezka; ta egiñen nituen nik iraba-
zi andiak; eta gaur beartua bezala nedukan nik nere

Jaungoikoa, urrengo aldietan laguntza obeak eta obeak niri emateko.- Au nik oraindañokoan egin bageaz ongi damaturik, artzen dut orain, gaugero beti-beti nik au egiteko asmoa.- Indazu zuk nere Jesus maitagarria, zere aldarerako etorrera ederrarekin erakusten didazun guzi au, bear den eran, ta guztiz zuzen egiteko, zere laguntza, ta guzia. Bai arren, bai!

B.

Jesusek aldareratzen denetan izan oi dituen etxeak, etxeen apaintzak eta gelak

1. Baditu Jesusek, bai, mundu onetako laur zatietan; baita mundu beraren zati bakoitzeko anitz eta anitz erritan ere bere etxeak, edo bere elizak; eta bere eliz, edo etxe orietara dator Jesus maitagarria, bere Sakramentura datorren aldi guzietan.

Baña nola egon oi dira, gure Jesus orrara datorreneko, ta Jesus or arkitzen den denboran, beraren etxe ta eliz oriek?- Erri andietako zenbait obekiseago maneatuak, edo apainduak; baña oriek ere ez bear bezala, ta Jesus maitagarriari dagokan eran. Ez lirake,

Jesusi dagokan eran beraren etxe-eliz oriek apaintze-ko diña, edo aski, mundu guzian arkitzen diran urrezillarrak, itsaso guzietako perlak, lurpeko ta mendieta-ko diamante, topazio, ta gañerako arri eder guziak; ez eta bazter guzietako loreak, eta zeru bereko izar argigilleak ere; naiz letozela izar oriek beren eguzkiarekin, eta lurreko loreak, eta beste gauza guziak, oraindaño-ko guzian izandu dutena baño, milletan ta milletan edertasun andiagoarekin: Jesus da alabaña errege guzien Erregea; zeruan, ta lurrean arkitzen diran gauza guzien Jauna ta Jabea; ta gure Jaungoiko-gizon andi-maitagarria; ta ezer-ez bat bezala da, Errege-Jaungoiko-gizon andi oni dagokanaren aldean, zerulurrak, eta itsasoko bazterrak eman dezakeen guziguzia ere.

Ongi: ta onenbat gauza, ta era onetako gauzak ezer-ez bat bezala badira Jesus maitagarriaren etxeari, jauregiari, edo elizari dagokanaren aldean, orain gure denboretan ezartzen zaizkan gauzak, naiz dela mundu guzian den elizarik onenean ere, zer gauzak izain dira; edo zer izan diteke gure Jaungoiko-gizon Jesus maitearentzat elizarik onena, ta ongien-ongien apaindua ere? Eta zer izain dira gañerako eliza txiki, moldakaitz gaizki apainduak, edo apaindu bageak?

2. Munduko elizarik geienak erri txar-txikietan arkitzen diran elizak dira, ta errien beren eran egon oi dira elizak berak ere. Nola egoin dira bada oriek guziak gure Jesus-Jaun on andiarendako, erririk andie-netako eliz eder-galantak ezpaude, Jaun on maitagarri gure Jesusi dagozkan eran?

Zoaz, nai badezu, zu zerori zenbait erri txikitara, ta an zuk zere begiz ekusiko dezu. Zoaz, bada, ta sar zaitez an, erri txar bakoitzeko eliza txikian, ta begira zazu bazter guzietara.- Lurretik asten badezu zuk zere lan au, edo ango zere begiratzea, emen ekusiko dezu obi txar itsusi moldakaitz bat, an ta emen lur ez-berdiña, edo aldapaz, ta mendiz egiña dirudiena; emen ta an ekusiko dituzu zuk illen ezurrak. Bazterren batean, edo elizaren erdian ekusiko dituzu alki txar baldanak, eta oialtzar beltz erdi urratuak, eta autsez, argizagiz, ta lurrez diranak beteak; eta ekusiko dituzu an gauzarik geienak, beren tokitik edo lekutik atereak; eta guziak ekusiko dituzu, bear ez bezalakoak, edo bear ez den lekuan utziak.

Lurretik gero zuk zere begiak jasotzean, ekusiko dituzu elizako paretak gaizki egiñak, leundu bageak, beltztuak, eta, beren tellatatik sartzen zaien urarekin, an ta emen, ta zenbait aldetan guztiz zikinduak.- Eku-

siko dezu gero, zenbait elizek beintzat ez dutela gañean lata, ta tell utsa beste estalkirik; eta au ere erdi urratua, ta zuloz betea dadukatela.- Orien gisakoak dira eliza beraren korua, konfesategiak, eta gañerako gauzak.

Begira zazu gero eliza bereko aldareetara; ta ekusiko den zer eran arkitzen diran oriek, eta eliza baten zein apaingarri txarrak diran guziak! Aldare nagusia onena; ta ura ere erdi-eroria, edo erdi-usteldua, edo laur ardit edo korradu balio ez dituenak.- An aldare orretan ekusiko dituzu Santuen, Jesus maitagarriaren, edo onen Ama ederraren zenbait aintzura edo imajina, iñauterietako mozorroen, edo irriz jauntzirik dabiltzan gizatxarren aintzurak edo imajinak diruditenak.

Gañerako aldareak (bat baizik an arkitzera), aldare nagusiaren erakoak. Orietatik batean, edo nonbait an ekusiko dezu Birjin Ama Soledadekoaren, edo nekez, ta naigabez beterikakoaren aintzura, edo imajina; ta ura ere gañerako guzien laguna. Eta, arkitzen badezu nonbait an Gurutzeko gure jaunarena, ekusiko dezu ez duela, ez gure Jesus maitagarriaren antz andirik; eta begiratzen dionaren deboziona bizteko baño, begiratzallearen debozio guzia galerazteko ohea dirudiela.

Gisa onetakoak, eta era onetan apainduak, edo, ekusi ditugunak bezain apaingarririk bagekoak dira anitz eta anitz erritan Jesus sakramentatuak izan oi dituen jauregiak, edo elizak; zenbait nekazarik erri beretan dituzten etxeak baño txikiagoa, laburragoak, eta moldakaitzagoak.

Ekusi zazu zer-nolakoak, Jaungoiko-gizon Errege andiarendako era orretako elizak, edo etxeak.

3. Eta bere etxe orietan gure Jesusi prestatzen zaizkan gelak?- Etxeen beren erakoak! txori-kaiola diñako presondegiak, edo Sagrariak!

Eta oriek ere zertazkoak?- Zur-puskaz, edo olez egiñak; eta, geien-geienean urre-apur batez, edo zillarrrez estaliak.

Eta ez dira agitz obeak, ez; ez eta lasaiagoak ere erri andietako eliza-nagusietan Jesus Sakramentatuari berezten zaizkan gelak.

Orra non dagoen gau ta egun, negu ta uda, ta urte guzi-guzian; baita joan diran milla zazpieun, ta anbat urteetan ere, gure Jesus maitagarri, gure amorez sakramentatua! Orra zer etxe-gelak, gure Jesusek Sakramentura datorren aldi guzietan arkitu oi dituenak!

Eta etxe beretako gure Jesusen Zaldunak!- Arrak, txoriak, saguak, olloak, eta katuak; bai, geienez, edo beintzat anitz alditan; bada, Mezako denboran ez izatera, erriko guzietatik milagroak urbiltzen da bat, gure Jesus maitagarria an ekustera; ta anitz erritan beintzat, ez da Mezarik ematen aste osoetan.

Jaio zenean ere, jaioagatik (jaio zen bezala gure Jesus maitagarria) itxola txar erdi-urratu batean, etzuen Jesusek ekusi, emen ekusten duena bezalako bakartasunik; bada, jaio zeneko, an zuen Jesus jaio berriak zeruko bere musika; an zituen mendiko artzaiak; etzuten luzatu urrutiko erreguak; eta, besterik izan ezpalu ere, an zuen beti berekin, gañerako guziak baño milletan ta milletan geiago balio zuen bere Ama maitagarria.

Au zer ote da gure Jesus maitagarria? Zeruko zere jauregi zabal-ederrean arkitzen zara zu, illen artetik biztu, ta ondoan ara ziñanetik! Or badituzu zuk milloika ta milloika Zaldunik andienak, edo Serafin, ta Kerubin guziak, eta gañerako Aingeruak, orko Santu ta Santa guziekin! Zertara zatoz bada, zu gure artera, gure Jesus maitagarria, onenbat bakartasun emen ekustera, ta onen etxe-gela, edo eliza ta Sagrari txiki txarretan gau ta egun, ta beti egotera?

Gu ongi doatsuak, edo zorionean jaiok gu, guk egitera gure Jesusen etor-aldi, ta betiko egoera luzetan egin bear duguna! Bada ori guk zuzen egitera, erditsiko ditugu guk gure Jesusek dakazkigun ondasun andietatik anitz zati: bai, Jesusek dakazkigun ondasun andietatik; bada ondasunez beterik, eta gure amorez dator Jesus aldareko bere Sakramentura.

Au onela izan (den bezala), nere Jesus maitagarria, ta ni, alakorik ezpaliz baño geiago zutaz oroitzen ere ez nazala? Zentzurik bagea naz ni, edo biotzik ez dudana, edo ez dakit nik zer nazan ni!

C

Jesusen aldareko soñekoa

Nola arkitzen ote da gure Jesus maitagarria elizako bere gelan, edo Sagrarian?

Ogi-ardoen aintzuz, edo akzidenteen estalkiz jauntzia, edo ogi-zatitxo, edo ardo-txorta bat baliz bezala.

Ekusten dezu zein laburra, gure Jesusen orko soñekoa? Ore-zati, edo osti txiki-biribil bat diñakoa; ta arere laburragoa; bada gure Jesus Jaungoiko-gizon

guzia jauntzirik dago, osti guzian ezezik, ostiaren edozein zatitan ere; ta Jesusen orko soñekoa da, ostiaren edozein apur bezain laburra.

Egun jaiorikako aurrari egin lekiok, Jaungoikogizon gure Jesusen soñeko txiki labur au baño laburragorik?– Zer laburragorik? Aurrik txikienaren soñeko laburrarekin egin litezke Jaungoiko-gizon Jesusek bere Sakramentu onetan duena bezalako berreun soñeko ere.

Txikia bezain segalla, ta ezer-eza da gure Jesus aldareko soñeko au. Jesusen Sakramentu onetako soñekoaren gaia bezala gai zirzillezko soñekorik, ez lioke egiñen animarik errumesenak, edo bearsuenak ere, bere ume beartsuari. Ur-txorta bat aski ta sobera da Jesusen aldareko soñeko au galdurik uzteko: ta gel-dirik dagoela ere, dagoen bezala emen gure Jesus maitagarria, ill-bat bete orduko aitu da Jesusen emengo soñeko guzia; da alabaña gure Jesusen soñeko au ogiaren zuritasuna, ta aintzura edo iduria, baña iduri, aintzura, ta zuritasun ogiaren izaterik bagekoa, edo ardoaren aintzura, ta iduri uts-utsa, ta ardorik gabeko iduri-aintzura.– Orra zer soñekoa, gure Jesusek aldareko bere Sakramentuan duen soñeko guzia.

Eta, nondik duela gure Jesusek, uste dezu zuk, emengo bere soñeko onen zirtzill au?- Eskean bezala bildua, ta apezak emana, dio Tertulianok. Bai, apezak ematen dio Jesus maitagarriari bere konsagrazioko itzekin aldareko Sakramentuko bere soñeko zirtzil au.- Bere itz oriek apezak erran artean, ez du Jesusek Sakramentuko soñekorik.

Apaizaren konzagrazioneko itz oriekin galtzen dira Mezako ogi-ardoak, eta gelditzen dira ogi-ardoen aintzurak, edo iduri utsak; eta ogi-ardo iduri, edo aintzura oien pean gelditzen dira, Jesusen Gorputz Odola, eta gañerako gauzak: *etiam in Sacramentis propriis egens mendicitatibus erealis*. lib. 1. contra Marc. c. 4.

Gauz arrigarria; ta Fedeak, edo siñiste onak guri ez erakustera, ezin siñes liteken gauza! Ekusi dugun bezain soñeko labur, segall, ezer-ez batekin, ta soñeko, bestek emanikakoarekin aldareko bere Sakramentuan gure Jesus maitagarria, izanik Jesus (den bezala) Jaungoiko altsu, lurreko bazterrak lore ederrez, munduko lurra lorez, mendiak belar egokiz, aritzak eta gañerako zur-adarrak ostoz, ta azalez, ta zero guzia izarrez, bear den eran estaltzen eta jauntzen dituen!

Era onetako soñekoekin, gure Jesus, izanik Jesus, bazter guziak bere Izate andiarekin ezin-geiagoraño

betetzen dituen Aita eternoaren Seme-Jaungoiko-
gizon egiña; edo osti txiki baten iduripean gordea,
bazter guziak betetzen dituen Aita eternoa diñako
gure Jesus maitagarria!- Eta izanik Jesusek (dituen
bezala) aldareko Sakramentuan gizonaren esku-oin-
begi ederrak, eta gañerako gorputz plantaren gauza
guziak, guziak or ogi ardo iduriz estaliak, eta ezer-ez
batera bezala bilduak!

Zergatik au onela gure Jesus maitagarria, edo zeri
dagokala!- Guri ongi naiez, bai, gure Jesus maitaga-
rria; ta guri zuk zere aldare orretan erakusteagatik, zu
jaio ziñanetik ill arteko zere denbora guzian zere itzez
ta egiñez zuk guri erakutsi izandu zeniguna!

Baña zer ote da len, ta gero zuk guri egiten digu-
zun erakuste au?- Au da zuk guri atsegin txar loien,
ondasun galgarrien, ta arrotasunen naikunde maku-
rrak zuzentzen edo garaitzen erakustea.- Non guk
orretarako arki genezake, era onetako erakusterik?

Orra zein umil, zein ezer-ez dirudiela dagoen or
erregen Errege, ta agintzen dutenen manatzalle altsu
andi gure Jaungoiko maitagarria!- Orra zein segalla ta
zein ezer-ezekoa, orrek or gure amorez artzen duen
soñekoa; ogi-ardoan iduri, edo aintzura utsezkoa. Eta
orra zein lasaitasunik bagekoa, gure Jesusek or bere

Sakramentu andi orretan arturik dadukan tokitxo!
Bokadu batena baño ere agitz laburragoa!

Ekusten dezu? Eta alere ibilliko zara zu, zere animaren galgarri egiñik, atsegín txar galduen lurreko gauza lizunen, ta antuste arro eroak eskatzen dituen gauzen ondoren?- Ez arren, ez, gure Jesusi zuk zor diozun amore bazterrik ez duenagatik, eta gal etzaitezzen zu sekula guzirako ez berriz orrelakorik, ez!

*Descendi de coelo,
non ut faciam voluntatem meam.*
Joan. 6. 38.

Ez nintzan ni etorri, ez, zion len batean gure Jesus maitagarriak, nere gogoak ematen didana emen egitera: ni nere zerutik etorria naz, nere Aita maitagarriak nai duena emen egitera; ta nik nere Aita berari atsegín ori egiteko, egiten dudan guzia egitera, Aitak berak nai duen garai onean edo denboran, ta berak nai duen bezala.

Ala egin izandu nituen nik nere gauza guziak; eta gauza guziak egin izandu nituen nik garai onean, bear

zen eran, ta bein ere uts egin bage. Orra orduan Jesusek ziona.

Eta egungo egunean ere erran dezake, era bereko zerbait gauz on; bada erran dezake: ona ni, nere Aitak nai zuen egiteko andia bukatu banuen ere gurutzeko nere eriotzarekin, ona non natorren nere Aita berari atsegin egiteagatik, eta munduko gaisoen onerako aldareko nere Sakramentura milla zazpieun ta anbat urtez: ta onara nator ni, nere apezak nai duten aldi guzietan; ta egunoro nator eun milla bider ta anitz eta anitz geiagotan, ta nator beti, apez berak nai duten lekura; ta nitaz nai dutena egiten uztera.- Oriek ni nere aldarean uzten banaute, ez naz ni andik igitzen. Bekatariren baten ezpañetara eramaten banaute, edo eri errumes baten oatzera, ara noa ni oien janari iza-tera; ta orien barrenean nik Sakramentuko nere soñeko au, edo ogi-iduria galdu artean, an egoin naz ni, andik aldatu gabe.- Orra, bada, gure Jesusek len, ta gero egiten duena, bere Aitari atsegin egiteagatik, eta gure onerako!

Eta zer ote da orain guk egin bearra gure Jesusen izenean, ta geren onagatik!- Ongi prestatu geren buruak, gure Jaungoiko maitagarriak nai duena, naiz latza izan, ta naiz leun-erraza, beti ta bertan, edo bere

aldian egiteko. Ongi prestatu geren biotzak, gauz on guziak arin egiteko, bearko dugun biguintasunarekin.

Geren bi prestatze oriek guk mug-onean, edo garai onez egitera, egiten dugu guri gure Jesusek erakutsia; ta egiten dugu guk, Jesus bera guganatzen den aldietan atsegin andi bat egiñen dion gauza bat.

Ez ote diot nik orrenbat zor nere Jesus maitagarriari.- Baita anitz, eta anitz geiago ere.

Eta ez dut egin uste nik nere zor andien alde, al dezakedana?- Baita pozik ere Jesus maitagarri berak orretan niri sendorki laguntzen didala, ta nere egin alean.

Ala gerta dedilla, bada, nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

Ecce tu pulcher es, dilecte mi, et decorus.

*Lectulus noster floridus; tigna domorunt
nostrarum cedrina, laquearia nostra cypressima.*

Cant. 1. 17.

Gutziz ederra zara zu, gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria (erran dezaket ni gaur, anima santaren eran). Gutziz ederra zara, bai, ta ezin ekustekoagoa,

aldareko zere Sakramentura zatozen nere Jesus maitagarria.

Baña erran ote dezakezu zuk, nere gisako bekatarri txarra, aldi artan anima santa berak esan izanduen gañerako guzia ere?

Zorioneko anima zu, zuk egiarekin ori guzia esan al badezakezu!

Zer zen bada, aldi artan anima orrek erran izanduzena?- Aldi artan anima orrek esan izanduen: Lorez ederki apaindurik dadukat orain nik nere oatzea; ta nere itxeko barren guziak zedro ederrez, ta zipresez egiñak arkitzen dira; edo zu niganatzen zaraneko, nere Jaungoiko maitagarria, birtute ederren lorez, ta lorez ederki apaindua dadukat nik nere biotz au guzi-guzia; ta denbora berean, arrik edo arrotasunik bageko gogorazioz, ta oroitzapen garbiz beterik dadukat nik nere adimentua; ta nere naimentua, edo nere borondatea asmo zuzen bilduz, ta naikunde garbiz ongi edertua. Au zen ark aldi artan esan izanduzena; ta au bera da, zuk egiaz erratera, askiko dena: zuk eliz eder bat zere animan, ta gela guztiz apaindu bat zere biotz orretan Jesusi prestatzea, komuniatzen zaran aldietako.

Ala da egia! baña nola nik erran dezaket (diozu) orren erdirik ere? Nere anima txar-galdu gaiso au, geien-geienaz, izandu da oraindañokoan erri txar bateko eliza txiki autsdun-moldakaitz erdi-erori bat bezala. Nere begietatik, nere bearrietatik, eta nere mii txar onetatik sartu oi ziran nere animan, nork daki zenbat ur gaisto, tentu, ta zikinkeri? ta oriek nik artzean, artu izandu ditudan eran, zikintzen zitzaidan niri nere barren au guzia; ta geldiera gaisto onen bel-durrez, zerbait nik egiñagatik, oriek kentzeko ez nuen egiten nik eginal guzia, ta orretan nenbillen denboran, kutsatzen nintzan ni, edo zikintzen nintzan zer edo zer.

Geroztik ere, komuniatzen nazan aldietan, eraman oi ditut nik nere gogo txar-galgarri onetan anitz egiteko, ta, nere biotz berean, bear ez liraken zenbait naitkunde makur ta asmo galgarri: ta ez diot nik ematen nere Jesus maitagarriari gela txar, zatarrez erdi-beterikako bat baizik.

Zer erran dezake bada nere Jesusek, or sartzen denean? Zer, ni era orretan ekusten nabenean?

Anitz gauza, bai; baña guziak neretzat guztiz alkegarriak!

Nai ezpaditut nik oriek aditu, asi bearko dut nik nere barren au ongi garbitzen, ta birtutez ta birtutez apaintzen. Ori da orain, ta beti, nigandik nere Jesusek eskatzen duena; ta ori bera, ongi izateko, nik egin bearra. Banegi, bada, emendik aitzina badere! Egin uste dut, bai, nere Jesusek orretan niri laguntzen dida-la. Lagun zakizkit, bada, nere Jesus maitagarria: bai arren, bai!

*Fili hominis, ostende domiu Israel templum,
et confundantur ab iniquitatibus suis.*

Ezech. 43. 10.

Nornai arriturik uztekoa den gauza da, Jesusek aldareko bere Sakramentuan egiten ta erakusten diguna.

Jesusen gizatasuna, jaungoikotasun guzia bere baitan dadukan Eliz andi-ederra da, dio san Pablok: *in ipso inhabitat omnis plenitudo divinitatis corporaliter*: ta ala ere, ezer-ez baten eran arkitzen da or aldareko bere Sakramentu andi orretan, *tasun* andi oriek biak dituen gure Jesus maitagarria.

Zaldun aberats, ondasun guziak bere eskuan dituen Jaungoiko-gizona da, apezaren konsagrazioko itzak aditu orduko, or sarturik arkitzen den gure Jesus maitagarria; ta or arkitzen da gure Jesus maitagarria ori, lurreko gizonik erresumenak ere artuko ez litu-keen soñekoekin, ta ogi-zatitxo bat dirudiela!

Erregeen Erregea da gure Jesus maitagarria. Aita eternoaren Seme bakarra da; ta Aita bera diñako Jaungoiko-gizona gure Jesus maitagarria; ta orra non arkitzen den or Jesus maitagarri Jaungoiko-gizon ori, ezer ezin dagiken janari-bokadu baten eran, ta ezpañetako aize batek batetik bestera daramaken bezala! Orra nola arkitzen den aldareko bere Sakramentuan gure Jesus maitagarria.

Eta zu, bekatari txarra, nola arkitzen ote zara zere bizitzan, zere ibilleran, ta zere asmo-gogoetan? ene! ezin gaizkiago, ta arrigarrizko bide galgarrietan! Bada izanik ni (nazan bezala) ezin-ezer-ezagoa, ta lurpeko ar txar-ustel baten erako umea, ibilli oi naz ni, geie-nean beintzat, arrotasunez ta antustez guztiz betea, ta, ematen didaten naigabe txar bat ere, ezin eraman dudala! bada izanik ni (nazan bezala), zerurako jaioa, ta ango ondasun andien billan ibilli bearra; ibilli oi naz ni emengo gauza txar-zirtzillen ondoren; ta ibilli oi naz

ni bidenabar, nere anima anitz aldetara, ta guztiz lazki zikintzen dudala! ta izanik ni (nazan bezala) errumes txar larrugorrian jaioa, ta, ezer-ez bage mundutik atera bearra, ibilli oi naz ni, ongi jauntzirik erraz, aisa, nere gogara, ta aragiaren atsegin txarrez beterik, eta laur urtetako aur txar batek baño zentzu geiago agertzen ez dudala! ta orregatik, nork daki zenbat bekaturakin!

Nere galduegia, ta nere betiko galdu bearra, oraindañoko nere asmo arro-lizun-diruzkoak ez uztera nik, orien orde z nik artzeko, gure Jesusek dituenen erako asmo garbiak! Orretarako garbi ditzagun beinik bein geren biotzak, leneko gure uts guzien damu andi bat orain guk artzen dugula; ta erran dezagun itzez ta biotzez: *Nere Jesukristo, etc.*

LXXIV.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEK, ONGI KOMUNIAZTEN

DENAREN ALDE

EGIN OI DITUEN ZENBAIT GAUZA

Aldareko bere Sakramentura dator gure Jesus maitagarria, ekusi ditugun esku, indar, irabazi, ta amore guziarekin; ta Sakramentu onetara dator, guk bearko ditugun gauza guziak (oriek guk ari, bear den eran eskatu ezker) emen berak guri ematera; ta denbora berean dator, guri geren lanetan lagun egitera; edo guri lagun egitera kanpoko geren etsaiak aienatzen, ta orien langai gaistak eta bide makurrak urratzen; ta guri lagun egitera geren barrengo etsaiak eskuratzen; baita birtutez birtute ibiltzen ere.

Nola egiten ete du gure Jesusek ori guzia? Ori da guk orain gutika-gutika ekusi uste duguna, Jesusen eskerdun egiñak gelditzeko gu; ta gelditzeko bidena-bar gu, maiz-maiz, ta aldioro berokiago ta obeki komuniatzeko nai andiarekin. Asiko gara guri, geren etsaiak aien-erazteko, gure Jesusek aldareko bere Sakramentuan egiten duen ekustekotik.

A.

Aienatzen du Jesusek sulezekoa, ongi komuniatzen denagandik

Aienatuko zuela Jesusek sulezekoa, ongi komuniatzen zenagandik, adirazi zuen gure Jaungoiko maitagarriak bere Eskritura santan, Jaungoiko-Semea gizon egin baño anitz urtez lenagotik, edo israeldarrak Ejiptotik atera zituen denboratik; eta adirazi zuen au gure Jaungoikoak, aldi artan an israeldarren alde egin zuen gauza batekin, ill-erazten ziela orretarako etxe bakoitzekoei beren umerrria, edo bildots bana.

Orra, zuek orain emendik atera bearrak (erran izandu zion Jaungoikoak Ejipton Moisesi, bere israeldar guziekin batean andik abian bezala arkitzen zenean); orra, zuek orain Promisioko zeren bazter ederrez jabetu naiak eta emendik arako abian. Baña oraindik ijito gaistoak, beren nagusi gogor errege Faraonekin, zuen gain agitz gogortuak daude, ta zuek emen beren pean betirako geldirazi naiak. Badakizu zuk Moises, bai, ijito gogor oriek zentzarazi naiez, ta zuen alde, oraindanoan nik egin izandu dudana (egin zituen gure Jaungoikoak Ejipton ordurako anitz

gauz-arrigarri ta milagro); ta ijitotzar gogor oriek ez-ekusi egin didatela. Utzazu bada, Moises, utzazu: ez da berebat gertatuko, ez, orain nik egin gogo dudan gauza bat egin ondoan; ta egiñen dut au nik, bai, anitz luzatu bage.

Orain arkitzen zarazte zuek urtearen lenbiziko illean; bada ill onen amalaugarren gau-erdian illak geldituko dira, zuek ekusiko dezuten bezala, ijip-togizonen, ta orien ganadu guzien arteko lenbizi-jaioak. Etzaio barkatuko, ez, erregeren seme andienari; etzaio barkatuko, ez, presondegian arkitzen den andre errumesarrenari; ez eta asta-kume txarrari ere.

Zuen arteko umeei, edo israeldarren lenbizi jaioei berebat gerta ez dakien, egin bear dezue zuek, orain ni erratera noana.- Arrats artarako prestatuko du etxe bakoitzak ill onen amargarren egunetik, urte beteko bere umerria, edo bildotsa; baña bildots mantxarik bagekoa.- Illen dute illaren amalaugarren arratsaldean; ta illen dute, oi den bezala.- Kenduko diote bere odol guzia, ta artuko dute odol au artarako ona den ontziren batean.- Jaitsiko dira umerri odol berarekin beren etxeko atarira; ta berekin daramaten odolarekin bustiko dute etxe bakoitzekoak beren ate-marko guzia; ta utziko dute au bildots-odolez den guzia busti-

bete-gorritua.- Erreko dute gero beren umerria; ta etxeko guzien artean jan bear dute den guzia, artatik utzi bage deus ere, urrengo egunerako.

Adirazi zien Moisesek israeldar guziei, beren Jaungoikoak manaturikako au guzia; ta guziak egin zuten Jaungoikoak manatu ziena.

Eta zer agitu, edo zer gertatu ote zen gero?- Gure Jaungoiko maitagarriak Moisesi erranikako guzia.

Ill beraren amalaurgarren gau-erdian asitzen da, gure Jaungoikoak artarako berezi zuen iltzallea, iltzen; ta iltzen ditu gau artan berean (ta anitz luzatu bage) Faraon erregeren lenbiziko semea, ta gañerako ijpto guzien ume edo seme lenbizi-jaio guziak; baña urbildu bage, atariak bildots odolez beteak zeduzkaten etxee-tara; ta bizirik uzten zituela israeldarren ume ta lenbizi-jaio guziak.

Iltzallearen lan izugarri au ekusi zutenean, arrituak gelditu ziran errege Faraon ta gañerako ijpto guziak; eta gau berean, ta batere luzatu gabe, eman izandu zien Moisesi, ta israeldar guziei, berak nai zuten tokira joateko, ta berekin batean beren gauza guziak eramateko beren baimena ta lizenzi oso-osoa; ta lenbaitlen atera zitezten Moises ta israeldar guziak Ejiptotik, eman ziezten ijitar gogorak, israeldarrak eskatu

zituen urre ta zillar guziak, eta nork daki zenbat oial ta soñeko. *Genes. 12. á v. 1.*

Ekusten dezu zuk au! Ekusten dezu zuk, israeldar gaisoen alde umerri baten odolarekin Jaungoiko maitagarriak egin izandurikakoa?– Bai?– Bada orain zuk ekusten dezun au guzia da, gure Jesus aldarean gelditu zenetik, emengo gure komunietan (gu nor, edo bear dugunak, izatera) gertatzen denaren itzala ta iduria: israeldarren orduko umerria, edo bildotsa, da alabaña aldareko Sakramentu andian arkitzen den gure Jesusen aintzura ta imajina: bada Jesus ere bere eran, Eskritura santak dionaz, bildotsa da; ta bildots, komuniatzen diranen janari egiña.

Bildotsa, da, bai, gure Jesus maitagarria; ta gure Jaungoiko maitagarriaren bildotsa. Ori da len, gizartean bizi zenean, san Joan Bautistak Jesus maitagarriari eman izandu zion izena; bada san Joaneke Jesus ekusi izandu zuen batean: Ara, erran zien berekin zeduzkan jendeei; ara Jaungoikoaren Bildots, bekatuen kentzallea.

Bildotsaren izen au berau ematen dio eliza guziak ere, komuniatu bear dutenei forma konsagratua agertzen duenetik erraten diela; *Ecce Agnus Dei; ecce qui tollit peccata mundi*: ona non dezuten, ona zeren

Jaungoikoaren bildotsa; ona non dezuten bekatuak kentzen dituena.

Eta ez da, ez, nolanai bildotsa aldareko bere Sakramentuan gure Jesus maitagarria; bildots gure janari egiña da, berak bere Ebanjelioan erraten digun bezala; bada esaten digu: *qui manducat meam carnem, etc.* edo nere gorputz-odolak jaten dituena, nerekin dago; ta bere barrenean naduka Ni.

Bildots gure janari egiña da, bada, gure Jesus maitagarria, edo maitagarriaren gorputza; ta gure janari, bere Pasione santako neke ta tormentu guzien suan, ta gurutze batean guzia sarturik, edo iltze sendorrez josirik enea; ta da janari, edo bildots erre, komuniatzen den edozein andik eta txikik oso-osorik jaten duena; bada edozeñek, komuniatzen den aldioro, jaten du Jesus maitagarriaren gorputz guzi-guzia, berari ditxezkon gauza guziekin batean, lenago guk ekusi dugun bezala.

Orra bada non, komuniatzen diranak jaten duten Bildots, israeldarrak jan zuten bildotsa baño agitz eta agitz obeagoa, agitz eta agitz egiñagoa, ta israeldarren bildotsa baño agitz obeki errea; bada jaten dute Jaungoiko-gizon Jesus onaren gorputza: jaten dute gorputz, ogeita amairur urteren buruan illa; ta gor-

putz, Ostegun santuko ta Ostiraleko neke guzien suarekin illa, errea, ta maneatua.

Eta orra non gelditzen den gure Jesus maitagarri, bildots onen odol guziarekin busti-betea, komuniatzen den gizakia edo emakumea; baña Jesusen gorputza jatean, edo komuniatzen den aldioro, edaten du Jesusen gorputz beraren odol guzi-guzia, tantarik ere galdu bage.

Ongi: baña zer datorkio ongi komuniatzen den edozeñi, bildots eder, Jesus maitagarriaren aragi, edo Gorputz Odolak jaten dituen edo komuniatzen den aldi orietan?– Zuk diozun eran, edo ongi komuniatzen dela, israeldarrak Ejipton beren bildotsaren odoletik atera zituzten ondasunak baño ondasun agitz andia-goak; ta, orien artean, bere aldetik sulezeko gaistoa aienatzea.

Bai, dio san Joan Krisostomok, bai: bildots ar Jesus onaren odolak urratzen ta aienatzen ditu ongi komuniatzen denaren bazterretatik, sulezeko etsai gaistokak: *hic sanguis arcet Daemones, et procul esse facit.*

Onetan berean zegoen Auxenzio zeritzan abade andi bat ere; ta, ekusirik bein abade onek, etzietela baketan iuzten sulezekoak, beraren eskolako Basilo anakoretari, ta bein illtzear zutela; erran izandu zion,

ura ala ekustean, komunია zedilla bere-bereala, ta alik ongiena; ta zegoela gero batere beldurrik bage; etziralala berriz, ez, arganako sulezeko tentalariak; eta ala gertatu ere zen; bada ura komuniatu ezkeru, etzekiozkan urbildu berriz bein ere bere etsai gaistoak. *Flor. exempl. v. Euch. tit. 9. ex 9.*

Au beste onik ezpalekar ere Jaungoikoaren bildots eder au jateak, edo komuniatzeak, etzenuke zuk saiatu bear ongi, ta ardura, edo maiz-maiz komuniatze-ra?– Zer egiñen etzenuke zuk, zere aldetik aienatzeko zure ondoren dabillen zakur amurratua? Eta ez dakizu zuk, ez dela sulezeko gaistoa bezain zakur amurraturik, eta sulezeko zakur onen amurrazio guzia dela zure gain edo kontra, ta zu zere bekatuaren izurritzko ozkarrekin illotza, edo zere animan guztiz galdua, utzi naiez.– Bada komunionekeo Jesusen odola bada (den bezala) zakur au, edo sulezeko etsai gaistoa aienatzeko, nola ez dezu maiz-maiz, garbi-garbi, ta umil-umilki billatzen ta jaten?

Nere erakeriz, Jesus maitagarria, ta zentzurik gabez, edo zeren ez nekien, nik zure odol eder-maitagarriak duen indar andi au, komunionean artzen zaituenagandik aienatzeko sulezeko gure etsaiak; eta zeren ez nekien nik sulezeko gaistoak nere ondoan

zebilzanik ere!– Baña orain bata ta bestea dakizkidan ezkerro, nik iges egiñen dut nere alegiñean etsai orien atzapar lizun beltz-galgarrietatik; era orretarako urbilduko naz ni, oraindañokoan ez bezala, ta len urbiltzen nintzanetan baño obeki prestaturik, komuniatzera, ta zure odol eder-indartsuaz, nere Jesus maitagarria, ongi bustirik, edo beterik gelditzera, zuk zerorrek au nai dezula, ta ala prestatzen ni zuk laguntzen badidazu. Lagun zakizkit bada, nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

B.

Ateratzen du Jesusek, ongi komuniatzen dena mundu gaistoaren atzaparretatik

Gure Jaungoikoak egiñikako mundu onetan edo Jaungoiko beraren eskuetatik atera zen lur onen gañean bada beste mundu txar bat ere. Guztiz ona da, gure Jaungoikoak egiñikako lur edo mundu au; baña mundu guztiz gaistoa da, lur onetako, edo gure Jaungoikoaren munduko beste mundu au. Eta Jaungoikoaren mundu onetan arkitzen den mundu au da gure

anima gaisoen irur etsaietatik bata; ta au da Jaungoikoaren munduan bizi diran gaisto guzien salla, edo pillá; ta pill edo sall guztiz arrigarria.

Gaistoak dira jentilak, gaistoak dira turkoak, eta gaistoak judatar gogorrak; eta irur gaistoer oriek dira mundu gaistoaren zatirik andiena; bada oriek dira lurreko guzietatik geien-geienak.

Baña ez dira oriek, ez, euskaldunen errietako animen etsai tentatzalleak; ez da alabaña euskaldunen erri, guretan beintzat, era orretako jendagirorik.-Gure errietako, ta gure animen etsaiak, edo gure aldeetako mundu gaistoa, da beren bataio ondoan gaistaturik arkitzen diranen jende-salla; oriek dira alabaña bataiatu bage bizi diran turkoen, jentilen, ta judatar gogorren eran bizi diran gaistoak, eta emengo gure mundu gaistoaren zatiak.

Gure arteko, ta baztar guzietako mundu gaistoak badu bere Buruzagia, edo manatzallea; ta manatzalle au da sulezeko gure etsai galgarria.

Buruzagi manatzalle gaisto au garaitzera, ta onen pean dabiltzan gaistoetatik nai duten guziak bereztera etorri zen len gure Jesus maitagarria; ta lan berera etorria dago gerozko denboretan or aldareko bere

Sakramentuan: *nunc Princeps huius mundi ejicietur foras* (Joan. 12. 31.)

Buruzagi, edo prinzipe gaisto onek eragiten diezte bere mundukoei, edo gaisto-galdu guziei, al dituen lan zikin-errebes guziak: eta guziak dira, S. Joanek bereisten dituen irur bideetatik batez dabiltzanak; edo dira aragi-lizunaren naikunde loiak; biotz diruzale baten nai errebesak, edo, antustez beterik dabillen buru arroaren gura galgarriak: *Omne, quod est in mundo, concupiscentia carnis est, et concupiscentia oculorum, et superbia vitae.* Joan. 2. 10.

Beren gogo gaistoak eskatzen diena da, gaistoei sulezekoak eragiten diena; ta orregatik arkitzen ditu sulezeko eragille gaistoak anitz egille ta bere munduko jende.

Mundu gaistoko gaistoak beren gaizkien ekinalditan gaizki egin oi die ongi bizi diranei, ta orregatik dira mundu gaistoko gaistoak, ongi bizi diranen galgarri gaistoak.

Mundu gaistoko gaistoak egin oi die onei beren gaizki au, edo beren lan gaiztoekin lan gaistoak egiten erakutsiz; edo lan gaistoak onei eragiten dieztela.

Munduko gaistoak egiten die oriei beren gaizkia, beinik bein emanez oriei beren gauza gaistoekin gais-

ta-bidea: bada ekusiz ikasi oi dira, beste gauzak bezala, gaizkiak ere; gaizkiak egiten ekusiz galtzen da gaizkiak egiteko beldurra; ta ez da erraz, ez, gaizkigillerei begira bizitzea, ta gaizkirik ez egitea: ta Espiritu Santu berak erraten digu, gaistoarekin bazabilza, gaistatuko zara; ta, zenbat ere zurekin dabillen gaistoa gaistoago den, anbat gaistoago zure animarendako, edo anbat lasterrago gaistatuko zaitu ark zu, era onetan onari gaistakeria erakustea baño ere gaistoago da, gaistoak onari gaistakeri bera eragitea.

Bere gaistakeri au eragin dezoke gaistoak onari ondrako gauzetan, ondasun-gauzetan, edo bere animako gauzetan.

Bere animako gauzetan gaizkiak eragiten diozka gaistoak onari, ark oni eragiten diozkanean bear ez diran loikeriak, ebasteak, edo bertze gauza gaistoak.- Ondasun-gauzetan gaizkiak eragiten diozka gaiztoak onari, onak gaistoaren erranakgatik norbaiti kentzen badiozka bere gauzak, edo ematen ezpadiozka ari dagozkanak.- Eta ondran gaizkiak eragiten diozka gaiztoak on gaiso berari, gaistoak onari asmarazten diozkanean ez diran gauzak, ager-erazten diozkanean gorderik egon bear lukeen gauzak, edo erran-erazten

diozkanean erran bear etziran gauzak, edo, erran bear etziran eran erran-erazten diozkanean.

Eta zenbat, eta zenbat arkituko dituzu zuk mundu galgarri onetako gaistoen artean, beren manatze, beren adirazte, edo itzezko edo lan makurrezko beren erakuste gaistoekin, ongi bizi diran gaisoei gaizkiren bat, edo beste, eragiten ez dienak?

Lan-giro gaisto au egiten dutenak dira, mundu gaistoko jendeak. Oriek berak dira sulezekoaren lagun tentatzalleak, eta gure bigarren etsai gaistoak. Eta orien atzaparretatik ere, sulezekoarenetatik bezala, gure animak ateratzeko, da gure Jesus maitagarriaren aldareko Sakramentua.

Au ere adirazi digu gure Jaungoiko maitagarriak, bere Eskrituraz ezezik, gure Jesusek berak egiñikako gauza batekin ere.

Gure Jesusi, Jerusalengo Elizan, Jesus, an arkitzen ziran guziei erakusten zegoen batean, ekarri izandu zioten andre bat ango eskribak edo fariseotzar zenbait-tek, erraten ziotela: Ona, Jauna, aragiaren loikerietan, ta ezkontzak zikintzen dituen bekatuan arkitu dugu guk andre txar-zikin au. Era onetako emaztekiak arri-ka ill bearrak dira, Moisesek dionaz; ta emen dakargu

au guk, gu geren lan onetara baño len, zer diozun zuk ekusi naiez.

Esan baliote bezain ongi zekien gure Jesus maitagarriak gizatzar oriek beren gogoan zekartena; ta itzik oriei erantzun bage, makurtzen da Jesus an bertan bereala, ta asten da lurlean bere eriarekin edo beartzarekin eskribitzen.

Ala Jesus judatar oriek ekusiagatik, etziran isildu batere; ta, zuen gogoko berririk etzuelako ustean, galdetzen diote berriz ta berriz ere gure Jesus maitagarriari, zer erantzuten duen ekarri dioten egitekoan?

Zuzentzen da noizbait gure Jesus maitagarria; begiratzan die eskribatzar, edo fariseo akusatzallei. Nola uste dezu? Beren biotzetaraño guzia ekusten dien Jaungoikoaren begiekin; ta erraten die berari zegokan mintzoera zuzen-indartsuarekin: Zuen arteko gizon, bekaturik ez duenak, tira bezo andre bekatari orri bere lenbiko arria. Eta, au Jesusek oriei erran orduko, makurtzen da berriz, ta asten da lurlean eskribitzen, len bezala.

Era artako bere itzegite zorrotzarekin gogora ziozkan Jesusek fariseotzar, ta eskriba bakoitzari bere bekatu guziak; eta utzi zituen eskriba-fariseo guziak alkez beteak; eta, berriz itz bat atera bage, joan izan-

du ziran guziak bata bestearen atzetik, an uzten zute-
la andre obendun bekataria gure Jesus maitagarriare-
kin.

Zuzentzen da orduan berriz gure Jesus maitaga-
rria; ta, non dira, erraten dio andre, bere bekatuaren
damuz, ta alke andiz beterik an arkitzen zenari: non
dira onara zu ekarri zaituzten gizonak?- Etzaitu zu,
ekarri zaituzten guzietatik, batek ere kondanatu?

Batek ere, Jauna, erantzuten dio andre bekatariak.

Ez eta nik ere, erraten dio orduan gure Jesusek;
eta bidaltzen du andik, edo igortzen du, esaten diola:
ea, zoaz; ta ez berriz zere bizian bekatu berririk zuk
egin. *Joan. 8. 3. etc.*

Orra orduan gure Jesusek egin zuena! Eta orra
orduko bere urrikarizko lan eder onekin Jesusek guri
adirazten diguna!- Zer ote?- Jesus onaganatzen dena;
Jesusen ondora umilki doana; gañerako guziak gure
Jesus utziagatik, Jesus maitagarriarekin gelditzen
dena; ta maiz-maiz ta ongi komuniatzen dena, utzi oi
dutela munduko gaistoak bere Jesus maitagarriarekin,
ta ez dutela geroz gaitzerako billatzen; ta asitzen
badira noiz-edo-noiz istaz ta marmorioz, Jesus onare-
kin gelditzen, edo ongi bizi den, ta maiz komuniatzen
den onen gauzen gain, billatzen duela Jesus maitaga-

rriak nork oriek isillerazi; edo ematen diela Jesusek berak begietan beren gauza zikin-gaistoekin; ta uzten dituela barrendik ongi alketuak, beren erausi ta lan txar guzien artean, edo orien ondotik.

Gure Jaungoiko-gizon Jesus, ta zure on-ongille-maitagarria! Bekatari txar gaisoekin era onetakoa zaranean zu, nolakoa ote zara zu zere maitari garbi onekin?– Oraingo ebetatik izan nai nuke nik ere. Era orretakoetatik izan nadin ni, ta zuri, nere Jesus maitagarria, atsekabe berririk ez egiteagatik; eta denbora berean izan naiez zure biotzeko maitari zorionekoetatik, bizi uste dut nik nere azken asnaseraño, oben berririk egiten ez dudala.– A nik erditsi baneza zугandik, nere Jesus maitagarria, ta batere luzatu bage, nere egiteko onek eskatzen duen zure laguntza ta grazia! Indazu lendanik, oraindañoko nere uts guziguzien barkamentu osoa; ta, uts berririk egin bage, ta orain diodan guzia zuzen egiteko, eskatzen dizudan zure laguntza-grazia. Bai arren, bai!

Ateratzen du Jesusek aragiaren atzaparretatik, ongi komuniatzen denaren anima

Gerekin dakargu naita-ez guk geren irurgarren etsaia; ta orregatik da gure irurgarren etsai au gure etsairik gaistoena.

Etsai guzien artean gaistoena den gure etsai au da, gure gorputz atsegin-zalea.

Gure etsai gure gorputz au da, bere jan-edanez, bere lo luzez, asetze beroz, ta poz-atsegin-kontentuz garaitu oi gaituen gure etsairik gaistoena. Gure etsai onen naikunde galduak, eta gos-egarri zikiñak garaitzeko guk, eta aragiaren atzapar ta bekatu guzietatik iges egiteko, ez dugu gure Jesus onagana, edo komunioneke maira ongi ta maiz urbiltzea bezalakorik. Adi zazu ezperen gazte loi galdu bati bein gertatua.

Eskatzen dio gazte batek bein bere aitari, bere etxetik berari zetorkiona. Ematen dio bere aitak au guzia: ta mutiltzar arroak au artu orduko, artzen du andik urrutirako bere bidea.

Aitzen zaio laster an, an ark artu izandu zuen biziera zikin galgarri batean, ta aragiaren loikerietan, bere aitari gaizki kendurik, ara eraman izandu zuen

bere ondasun guzia.- Bere bearrak, edo bere gabeak artaratzen zuela asten da mutiltzarra animalia beltzak zaitzen, eta, besterik izain gabez, asten da orien beren bazkatik jaten, ta alere beti goseak dabil; bada ezin zuen, bazka zikin artatik ere, berak nai adiña.- Eta ekusirik bere gosea, ta bizitza loi-lizuna ta, oroiturik denbora berean bere aitaren etxeko ogi zuri onez asetzen ziran langilleez, artzen du ara itzultzeko asmoa.

Badoa, bada, bere aitari erratera: Aita, zure seme gaistoa naz ni, bai; ta agitz alere, zuk zerorrek daku-sazun bezala; ta ori bera badakite zeru guziak, eta lurreko anitzek ere. Ongi damuturik nator ni, bai, nere aita onegia, oraindañoko nere erakeri ta ibillera galdu-galgarriez! Guzien barkamentua umilki nik zuri eskatzera nator. Eskatzen dizut, bada, emen bertatik; eta eskatzen dizut bidenabar, semetzat ezpada ere, ar nazazula zuk zere itxeko langilleen artean.

Bere aitari au guzia errateko asmoan artzen du mutil ark aita beraganako bidea. Bere aitaren etxera baño len oartzen zaio urrutitik. Aita bera, ta bertan ateratzen zaio bere bidera: ta, argana orduko, ematen diozka aitak berak bere semeari bere apa-besarkak. Eta sema berak bere aitari erranagatik, aitari esateko

zekarren guzia, ez dio aitak ateratzen leneko kontu zarretatik batere. Uzten ditu aitak aldebat, edo ezpallira bezala, bere semearen gaistakeri eroak.

Eta guti balliz bezala era onetan oriek bere seme gaistoari aitak barkatzea, erraten die aitak berak bere itxekoei: agertu da galdurik zebillen nere seme au; bizturik dator, neretzat illa bezala zen nere seme maite au; ta ill bear dezue zekor guzien arteko zekor edo areze gizen bat, barazkaltzera, edo jatera emateko agertu zaikun nere seme maite oni. Eta zuetatik batzuek onen barazkaria, edo jatekoa prestatu artean, besteok eman egiozue bere lenbiziko soñeko ederra, bere eskuko eraztuna, baita bere oñetako ederrak ere. Eta, au guzia oriek egin ondoan, ematen zaio seme galdu etor-berriari bere barazkaria ta musika ederra.

Ekusten dezu? Bada mutil onen aita da gure Jaungoiko maitagarria: ta mutil bera, bataiatu arkitzen den edozein kristio; bada, bataioan artzen duen zeruko graziarekin, egiñik gelditzen da edozein Jaungoiko beraren ume.

Baña gero bekaturatzen bada bataiatua, galtzen du bere bekatuarekin Jaungoikoak emanikako grazia-
ren bere soñeko ederra; galtzen du karidadearen

eraztuna, baita zeruko laguntzaren oñetako ere. Eta bekatuz bekatu dabillen denboran, bere pasione zikiñak bazkatzen dabill, ta orien beren bazka baizik jaten ez duela; ta orregatik dabill animako gosez iltzen beti.

Baldin, ekusirik azkenean bere erakeria ta bere bizitza galdua, ta, egiñaz bear den eran, urrikiturik artzen badu bere Aita Jaungoiko maitagarriaren etxera itzultzeko asmoa, ateratzen zaio bidera aita Jaungoiko bera. Ematen dio konfesione umil on bateko bere apa, edo besarka. Itzultzen dio graziaren soñeko ederra, ta bere adiskidetasuna; itzultzen dio karidadearen eraztuna; ta, zuzen ta aisa ibilli dedin, bere laguntza: ta azkenean ematen dio komunione oneko bere barazkaria.

Ekusten dezu, nola ongi komuniatzen denagandik aienatzen dituen Jesus maitagarriak (bakoitza bere eran) sulezekoa, mundu galdua ta aragi galgarria?—Eta ekusten dezu zenbat zure etsai oriek zugandik urrunago, anbat aisago zu bizi zaitezkelara zere Jaunaren grazian, ongi, ta bear den eran?

Au baizik egiten ezpalu ere gure Jesusek aldareko bere Sakramentuan (anitz, eta anitz geiago ere egiten du, urrengo otoitz-gaietan agertuko dugun bezala);

zer zorko ez genioke guk gure Jesus maitagarriari?– Al diran eskerrik, eta maitatzerik andienak.

Asi galtezen, bada, orretarako, mutil galduaren eran, damuz beterik barkamentua eskatzen; ta eska dezogun, al dugun zin guzi-guziarekin erraten diogula: *nere Jesukristo Jauna, etc.*

*Cordis eius particulam si super carbones ponas,
fumus ejus extricat omne genus Daemoniorum.*

Tob. 6. 8.

Tobias gaztea bidez zijoan bein, bere lagun on san Rafael aingeruarekin. Bideko beroak artara bearturik, edo bere oñak an garbitu naiez, jaisten da Tobias, Tigris zeritzan ibai-ugaldera. Agertzen zaio arrai andi bat an, bere oñetan. Artzen du Tobiasek, eta ateratzen du arraitzar au, bere lagun aingeru san Rafaelek adirazi zion eran.

Orra (orduan erraten dio Tobiasi Aingeru lagunak); orra gure bide guzirako janaria: ta biderako janaria ezezik, orra or besterik ere: bada, zuk or atera dezun arrai orren biotzak egiten duen keak, ikatz gañean erretzen denean, aienatzen ditu sulezeko galgarri

gaistoak. Bearko dezu zuk egunen batez, bai, biotz ori orretarako; ta, ongi gorderik, kontuz, ta galdu bage, eramanzu zuk zerekin ori ere arraiaren aragi ori bezala.

Eramaten du Tobiasek; eta gertatzen da guzia san Rafaelek erran bezala; ta biotz errearen keak aienatu zuen Tobias gizon gazteagandik sulezeko gaisto, Tobias bezalako zazpi gizon len ito zituen bat; eta sulezeko, Tobias ere, besteen eran ito naiez arkitzen zen gaistoa.

Ongi: ta arraitzar baten biotz erreak aiena badezake sulezeko gure etsai gaisto-amurratua, aldareko Sakramentuan gure amorez erretzen dagoen Jesusen biotzak, eta Jesus guziak, ez du aienatuko bear bezala komuniatzen denagandik sulezeko gaisto amurratu bera?

Zeer? Ikatz gaineko arraitzar baten biotzak adiña, ezin dagike Jaungoiko-gizon gure Jesusen biotzak, komuniatzen denaren biotzeraño Jesus bera sartuagatik, eta komuniatzen den beraren amorez ezin geiagoraño suturik dadukala Jesusek bere biotza?- Bai segurki, ta milla, ta milloi bider geiago, ta geiago ere.

Baña egin oi du orrenbat ere zurekin gure Jesus guziak ere, zu komuniatzen zaran aldietan?- Egiten

ezpadu, zureak dira obenak; eta ori agitzen, edo gertatzen da, zeren zuk aldi orietan prestatzen ez dezun zere biotza, Jesusen biotzeko amorearen suz ongi beroturik gelditzeko. Presta zazu ezperen umiltasunez, zeruko birtutez ta komunione garbi zuzenez, ta ekusiko dezu.

Ongi da ori, nene Jesus maitagarria; baña bear nik orretarako zure laguntza ta grazia! Indazu au zuk niri, dezakezunak bezala; ta pozik nik egiñen dut ori guzia, zuk orduan aiena dezazun nigandik sulezeko nere etsai amurratua; ta maita zaitzadan nik zu nere alegiñean. Indazu, bada: bai arren, bai!

*Et mundus transit, et concupiscentia ejus;
qui autem facit voluntatem Dei,
manet in aeternum.*

1. Joan. 2. 17.

Azkenean zer egin oi dira, gure Jaungoikoak egini-kako mundu onetan arkitzen diran mundutzar eroa, ta mundu onetako gaistoen asmoak? Zertan gelditu oi dira mundu bereko antuste galduak eta arrotasunak? Zertan mundutzar bereko gaistoen geiago ta geiago

izan naiak, geiago ta geiago igan naiak; eta geiago ta geiago manatu naiak?– Aizetan, edo ezer-ezean, kea gelditu oi den bezala; ta ala gelditu oi dira askotan beintzat, kea bezain laster, baita lasterrago ere. Ain laster bukatzen diranak dira zenbait gaistoren gogoe-tak, eta biziera galduak.

Eta era orretan ibilli diran ero-galduak berak zer-tan gelditzen diranak ote dira, beren bizia bukatu ondoan?– Beren Jaunaren betiko etsai egiñak: suleze-ko putzu izugarrietan ongi sartuak; eta eternidade guziko neke-pena gogorren atzaparretan, ill bage, ler-tuak! Zorigaistoan jaioak neka-giro arrigarri orietan berariaz beren buruak sartzen dituztenak! Eta bera-riaz an beren buruak sartzen dituztenak dira, suleze-ratzen diran guziak.

Eta noratzen ote dira, beren Jaunak nai duena egi-ten dutenak; ongi bizi diranak, eta bear den eran ta maiz komuniatzen diranak?– Noratzen ote dira mun-dutzar ero-arroaren igesi ta itzurka dabiltzanak? Nora-tzen ote dira Jesusen ondoren, ta beren Jesus maiz aldareko beraren Sakramentuan, ta komunione zuzen-on-garbietan billatzen dutenak? Noratzen ote dira birtutez birtute, munduko bidetik ezin-urrutiago dabiltzanak?

Eta zertan gelditzen ote dira era orretan dabiltzanak?– Norako dira oriek, edo zertan geldituko dira? Beti-betiko, ta zorioneko bizitzan: zeru ederreko betiko glorian; ta eternidade guziko atsegin-kontentuetan.

Zorionekoak, bada, arako bidean dabiltzanak! Zorionekoak, ongi, maiz, ta era orretan komuniatzen diranak; eta beren komunione bakoitzean beren bazterretatik mundu eroa geiago ta geiago urruntzen dutenak!– Ni ere egin banendi orietatik bat!– Nere eskuan dago an, nere Jesusek niri laguntzen didala; ta lagunduko dit, nik ori nere Jesusi eskatu ezkeru. Egin nai dut, bada, nere Jesus maitagarria, ta lagun zakizkit, zere esku indartsu bortitzarekin: Bai arren, bai!

Infelix ego homo!

Quis me liberabit de corpore mortis hujus?

Dei per Iesum Christum Dominum nostrum.

Rom. 7. 24.

Ederki deritzat nik (erran dezakezu zuk ere, san Pablok bezala); ederki deritzat nik, nere Jaungoiko maitagarria, nigandik nai dezun, ta niri manatzen

didazun, guzi-guziari; guzia da alabaña gauza garbi-
on ezin-zuzenagoa.

Egin nai nuke nik, nere Jaungoiko maitagarriak nai dituen gauza guzietatik aldian aldiakoa, ta beti nai nuke nik, nere Jaungoiko maiteak nai duena.- Baña ez ori nai nere aragi loi erdi-galduak! Onek atsegin zikiñak nai, ta bere gogo gaistoak eman oi diona! Onek aisa beti bizi nai, ta atsekabetxo bat ere egiten etzaio-la! Onek bide zabalez nai, ta Jesusen nekezkotik guztiz urruti!

Nork atera nintzake ni onen etsai leun-galgarria-
ren atzaparretatik, ibilli bear den bidez, ta zuzen ibil-
tzeko gero ni; ta ibiltzeko Jesusen ondoren dabiltzanak daramaten nekezko nere gurutzearekin?- Nork? Nere Jesus maitagarriak, bere graziarekin bortizki niri, ta emen bertatik laguntzen didala. Nere Jesus maitaga-
rriak, ni komuniatzen nazanetan, ta, niri lagundu naiez, nere biotzeko etxeraño sartzen zaidanetan, nik ala nai dudala; bada nik ala nai dudala, emain dit aldi orietan Jesusek niri, nere aragiaren ibillera makurrak zuzentzeko, ta egin bear duena zuzen eragiteko, bear den indar ta esku guzia.

Bai beraz Jesus maitagarria? Era orretara zatoz zu, aldareko zere Sakramentura, ta gero gure bularreta-

ra?- Ongi-etorri, bada, ta milletan ta milletan ongi-etorri: ta atoz, arren! maiz, askotan, ta aldi bakoitzean, niri dagokidan era onean! Bai arren, nere Jesus maitagarria!

Baña ez da zer begiratu ez, zere etor-aldietan, orain arteko nere ibill-er galduei, nere bidebage galgarriei, ta nere zukanako otzetasun arrigarriei. Orain arteko nere utsegite guzietan ongi urrikiturik arkitzen naz ni gaur; ta denbora berean arkitzen naz ni ondu nai bizisendor-garbiz ongi betea; ta orretan nagoela orain nik adirazteko, erratera noa alik zinkiena: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LXXV.garren OTOITZ-GAIA

BEKATURAKO BERE BELDURRAREKIN

UZTEN DU JESUSEK

ONGI KOMUNIATZEN DENA

Bekaturatzen den anima gaisoa ez lizake bekatu-rako, zer diran bekatua, ta bekatuari dagozkan neke gogorrek, ongi ekustera. Ez du orretara begiratu nai batere bekatariak, ez du aditu nai ere bekatariak, bekatu bidetik bera ken-erazi naiez erraten diotena; ta, bekatuaren atsegin txarrak liluratzen dutela ere, bekatuaren atsegin txar beren ondoren dabil batere trikatu gabe: ta, bekatuetara oitu ezkeru bekataria, gelditzen da bere animako gorreriarekin, ta itsu-mutua, ta erdi-gogortua bezala.

Eta, beste anitz kalteren artean, kalte oriek ere anima gaisotik kentzeko da gure Jesusen aldarera-tzea, ta gure komunioea, orain guk ekusi bear dugun bezala.

A.

Ongi komuniatzen dena beldur-erazteko, asirazten diozka komuniatzen denari, gure Jesusek bere itzak

Gaitzera oitzen den bekataria gortzen da bere animan; ta ez du aditu nai ontzeko diña, edo aditu nai ez du orretarako aditu bear den eran, edo bear bezala. Pozik aditzen ditu bekatariak, eta itz bat badere galtzen ez duela, ezertako ez diran eleak, berriketak, eta aragiari edo gogo galduari atsegin egiten dioten gauzak: baña, gorturik arkitzen dela dirudi era orretako bekataria beraren onerako diran Jesusen itzak aditzeko: ta orrekin ez du egiten gaitzera oitu den bekatariak, berak egin bearra, ta gure Jaungoiko maitagarriak nai duena.

Eta konfesatzen denean era orretako bekataria, edo ez du egiten bere bekatuen barkamenturako bear den adiña, edo, egiñagatik ark, orien barkamentua erdisteko bear den adiña, etzaio guztiz sendatzen bere gorreri au konfesariaren oñetan: berekin eraman oi du, geiena beintzat, bere komunioneke maira.

Baña komunioratzen bada ori bera ongi ta maiz, kendu oi dio bere gorreri galgarri au guzia gure Jesus maitagarriak. Eta ori da, gor-mutu batekiko Jesusen lan batek guri ederki adirazten digun gauza.

Eraman zioten bein gure Jesus maitagarriari, gorreriarekin, ta mututurik arkitzen zen gizon bat, eskatzen ziotela ezar zitzala bere eskuak aren buru gañean, edo ken zezola bere gaitza, ta min edo lan nekagarria. Egiten du Jesusek eskatzen diotena; ta uzten du gizon au, batere gaitzik bage.- Nola, uste dezu?- Eskutik artu, ta ateratzen du Jesusek jend-arte-tik gor-mutu au.- Eramaten du bazter batera. Sartzen diozka Jesusek, ara orduko bearri gorretan bere bi eriak, edo beatzak.

Jesusek au egitean, zabaltzen du gor-mutuak bere aoa. Bustitzen dio orduan Jesusek bere listuarekin mutuari bere miia. Begiratzen du gero Jesusek zerura. Egiten du suspirio ta negar. Erraten dio; idiki adi; ta bertan gelditzen dira idikiak gorraren bearriak, eta gelditzen da, trabarik bage, mutuaren miia.- Aditzen du gorrak erraten diotena; ta erraten du nai duena, len muturik eta itzik bage arkitzen zen gizon berberak.

Marc 7. 32.

Orra orduan gure Jesusek gizon gor onekin egin izandua: ta orra, ongi ta maiz komuniatzen den bekatari gorskotearen animan Jesusek egiten duenaren aintzura, itzal-iduria, ta figura edo imajina. Anitz dira, bizirik animan, edo bekaturik bage, ta Jaungoikoaren grazian, ta adiskidetasunean komuniatuagatik, zeruko gauzak aditzeko gorreriz beteak arkitzen diranak.

Orien buruan bada, burdin-ola batean adiña aize, ta soñu. Berekin eraman oi dituzte oriek beren komunioneke maira, etxeko egitekoen, zorrak atera bearra-
ren, era onetako, ta artako irabazbidearen, ezkontza kontuaren, jan-edanen, joko-jostaketen, ta era orretako milla aurkeriren eskanbillak; eta beren eskanbilla, edo arazo-era oriekin gortuak arkitzen dira oriek, zeruko itz eder mee-meak aditzeko; ta beren gorreria-
rekin aterako dira oriek beren komunioneetatik, Jesusekin oriek ez egitera, gor-mutu sendatu onek egin izandu zuena.

Zer izandu ote zen, gor onek, bere gorreria uzteko aldi artan Jesus maitagarriarekin egin izandu zuena?—Jesusen ondoren atera jend-artetik, Jesusek eragin nai zion guzia egiteko asmoan; ta orretarako an egotea, Jesus onagandik bere begiak batere kendu bage.

Era orretan egoten bazara zu, garbiro, ongi, ta kontuz komuniatzen zaranetan: edo joaten bazara zu, komuniatu orduko baztertxo batera; edo, zauden lekuan gelditzen bazara zu, zere begiak ongi bilduak daduzkatzula, ta lurreko asmo galduak eta gogoeta arin txar guziak aldebat utzirik, naiez, ta gogoz zere Jesusi begira-begira; ta denbora berean oroitzen bazara zu Jesus beraren Pasione santako suspirio ta negar guziez, kenduko dizu, bai, Jesus maitagarriak zere gorreria, ta adiraziko dizkitzu, aldi artan zuri dagozkizun gauzak, eta ar-eraziko dizkitzu, berriz bekaturatzeko beldur on eder zeruko bat, eta bekatu berririk ez egiteko asmo ta neurri zuzenak.

Bai, dio gure Jaungoiko maitagarriak; bai; eskutik artuko dut nik, nere itz eme-onak aditu naiez arkitzen den anima. Eramain dut nik au baztertxo bakar batera; ta, an biok bakarrik arkitzen garanean, kenduko diot nik anima gorrari bere gorreria, ta adiraziko diozkat nik, jakin bear dituen, ta ongi dagozkan, gauzak; eta adiraziko diot nik au guzia guztiz emeki, ta amoriozko itzekin: *ducam eam in solitudinem, et loquar ad cor ejus* (Osee. 1. 14.)

Eta ekusten dezu, ez duela Jesusek bere itz egite mee onetarako, komunionekeo ordua bezalako ordu-

aldirik; bada zure barrenean arkitzen da orduan Jesus maitagarria, ta biok arkitzen zarazte biotzez biotz itz egin dezakezuen eran.

Anitz itz egite zuzen egin izandu dezu zuk, zere itz egin-aldi orietan, zere Jesus maitagarriarekin? Erran izandu ote diozu zuk Jesusi, zere itz egin-aldi orietan Samuel Profetak bere Jaunari bein erran izandu ziona?

Itz egizu (erran izandu zion bere Jaunari aldi artan Profetak); itz egizu zuk, nere Jaungoiko maitagarria; ta itz egizu, zuk zerorrek nai dezuna; bada erne arkitzen naz ni gaur, ta guztiz ikasi-naia zer ote den, nigandik zuk gaurgero naiko dezuna: *loquere, Domine, quia audit servus tuus.* (1. Reg. 3. 10.)

Samuelek aditu zuen aldi artan Jaungoikoaren itz guztiz ikaragarri bat; eta, zuk egitera, komunioneke zere aldi on orietan, Samuel gazteak bere aldi artan egin izandu zuena, adiraziko dizu zuri ere, bai; zere Jaungoiko maitagarriak, zu beldur onez beterik uzteko guztiz ona den bere itza ta mintzoa; baita bear den beste edozein gauza ere.

Ez dezu zuk zere Jaungoikoaren era orretako itzketarik, eta mintzo ederrik aditzen, komuniatzen zaran zere aldietan? Komuniatzen zaran adiuntzan bezain mutu, ta motel gelditzen zara zu, komuniatu ondoan?

Len adiña naspilla badarabitzu zuk zere gogoan ta asmoan, elizatik etxerakoan, zere etxe berean, ta zu zabiltzan bazterretan?

Etzara beraz baztertu zu zere Jesus onarekin, komuniatu zaran aldietan? Beraz bazterretara begira egondu zara zu, ta zere gogo guzia elizatik urruti zenedukala, zure Jesus ona zurekin zuk zenedukan denboran?

Etzenuen egiñen zuk, ez, era orretarako txarkeririk Españaiko erregearekin, errege au zure barren orretan, edo etxean sartzera, komunietan barren-barreneraño sartzen zaitzun bezala zere Jesus maitagarria.

Espaindarren errege, au zure etxean arkitzen zen denboran, an egoin ziñan zu, arritu bat bezala, ta erregeri atsegin egiteagatik zer egin etzenekiela, ta errege orrek orduan ateratzen zituen itz guzietatik bat zuk galtzen etzenuela, ark zuri adirazten zizkitzun gauzak, an bertatik eta guztiz zuzen, zuk egiteko.

Au guzia egiñen zenuke zuk (eta pozik alere) lurreko errege orrekin, edo era bereko beste edozeñekin; ta egonik zu (zauden bezala) komuniatzen zaran aldioro, zere barrenean dadukazula errege guzien Errege, gure Jesus Jaungoiko-gizon andi maitagarria,

zu zaude, zauden eran, edo ogi puska bat baizik zerekin ezpazenuka bezala, ta itz on bat erraten ez diozula zuk, eta berak erran nai dizkitzunetara oartzen etzarala? A zure gor-mutu zentzugabea!

Ala da, nere Jesus maitagarria! Egia diozu; bai, barkatu bear didazu zuk oraindañoko nere moldakaitzkeria ta aisola-kabea. Besterik izain da, bai, gaurgerokoan, Jesus, nere Errege ta Jaungoiko ezin andia-goa! Gaurgero ni, komuniatzen nazan aldietan, egoin naz, bai segurki, oraindañokoan ez bezala, Ni egoin naz, bai, nere gorputzeko bearriak ongi estaliak edo guztiz bilduak daduzkadala, ta nere animakoak zугandik kentzen ez ditudala, obeki nik aditzeagatik, zure itz mee-ongill-ederrak diotena. Indazu zuk, au nik egi-teko, ta zure itz guziak nik, batere galtzen ez dudala, kontuz aditzeko grazia. Bai arren, Jesus maitea, bai!

B.

**Ongi komuniatzen denari
erakusten diozka Jesusek
anitz gauza izugarri**

Ezi bageko zaldi bero-bizi bat bezala da, gaizkiz gaizki dabillen bekataria. Lotzen, edo itsasten bazaizka zaldi bero ezi-gabeari zenbait mand-euli, edo ekusten baditu bera atzitu, edo arrapatu naiez dabiltzan gizonen batzuek, ematen dio bertatik lasterrari, ta irrintziari; sartzen da lenbaitlen bere lan artean; sartzen da erreketan, sartzen da urean, edo gizon orien eskuetatik, edo eulien ortzetatik libratzeko, ona dela deritzan edozein zokotan edo tokitan; ta gizon orien eskuetatik iges egiteagatik, ez du begiratzen malkortegira, ez du begiratzen ito-tokira, edo ezurren autsbideetara: ta, naiz autsi, ta naiz ez, aldi orietan, bere beso-zankoak, igesia ta igesia baizik ez du gogoan zaldi ero-ezi-bageak.

Gisa berean, bada, ibilli oi da, gaizki oitua dagoen ta bekatuz bekatu ibilli oi den bekataria, beraren onerako artu nai dutenen eskuetan ez gelditzeagatik.

Ematen badio era onetako bekatuari bere barre-neko naigaberen batek, edo bekatuaren kezkak; ekusten baditu bekatari modu onek, bere ondoren bere atzetik darraizkiola, edo billatzen dutela bere konfesarriak, edo predikariak, edo ongi nai dioten besteren batzuek, orien eskuratzeko beldurrez, edo ar-erazi ez dezoten oriek, berak artu nai ez duen zeruko pausua,

ta birtutezko ibillera, ematen dio bertatik igesiari, bere atsegin txarrak ez utzi naiez; ta badabill malkorrez malkor, amill-tokiz toki, ta askotan erortzen ere da bekatu berrien leze izugarrian, ta loi gaistoan: ta alere, ori dela deritza, munduko ibillerarik onena.- Ain andia da, gaizki oiturik dagoen anima gaisoaren begiak duten itsutasuna!

Era onetako animaitsuak, beren itsutasun galgarrari onetaz ziñez damaturik, ongi konfesatzen badituzte, len egiñikako beren oben kulpa guziak, eta gero umilki badoaz beren komunioera, itsu bat bein Jesus onagana zen bezela, agertuko diezte Jesusek gauza izugarriak; argi egiñen die gero, gauz oriek berak ekusteko; ta utziko ditu guztiz beldurtuak, eta zeruko bidean ongi sartuak.

Badakizu zer izandu zen, gizonitsuak gure Jesus onarekin egin izandua? Adi zazu orain: nik emain dizut Jeriko zeritzan erri batetik atera, ta zijoan bein gure Jesus maitagarria: ta zijoan anitz lagunen artean.- Jesusek zeraman bide berean, arkitzen zen ordu artan itsu errumes eskari bat: eta, an zetorrela Jesus itsu onek aditu orduko, asi zen ojuka, ta erraten: Dabiden etxeke Semea (ta Aita eternoaren Seme Jesus ongigillea), urrikal zakizkit arren niri ere!

Au aren aotik aditu orduko, asten zaizka itsu gaisoari errietan Jesusekin zidoazenak, eta erraten diote: ago isillik, eta ez dezaela itzik atera.- Baña ez-aditu egiten die itsuak bere ojulariei; ta bera isildu lekuan, abiatzen da lenbizian baño oju andiagoekin; ta erraten dio berriz ta berriz ere gure Jesus maitagarriari: Dabiden etxeko Jesus, urrikal zakizkit arren; ta ez nazazula utzi, nagoen eran.

Gelditzen da Jesus maitagarria itsuari begira. Ekarerazten du itsua, bera dagoen tokira. Badoa itsua lasterka, ta gañeko bere soñekoak an utzirik. Erraten dio Jesusek itsuari, zer nai dezu zuk orain nik dagidan zurekin?- Erantzuten dio itsu gaisoak; Jauna, niri zuk emen bertan ekuseraztea.- Ongi da, erraten dio Jesusek itsuari: oraingo zure ziniste, ta nigango uste onagatik ematen dizut nik eskatzen didazun zere ekustea.

Eta Jesusek au ari erran orduko, gelditzen da itsua itsutasunik bage, ta ekuste oso onarekin. *Marc. 10. 46.*

Orra orduan gizon itsu onek egin izandua: ta orra zuk ere, komuniatzen zaran zere aldietan egin bearra, nai izatera zuk, dizun zuri gure Jesusek zere animako ekuste garbi on eder bat.

Bekatari gaisoak ez dakizki osoro, edo ekusi nai ez ditu bear bezala beintzat, jakin ta ekusi bear lituken gauza guziak; lañopean bezala dabil alabaña era orretan dabillen denboran, ta bekatuen keez itsutu-galdua.- Gordetzen zaizka bere Jaungoikoaren izate andia, Jaungoiko beraren ekuste garbia, ta ontasuna.- Ez die, bekatuetara oiturikako animak begiratzen, ongi bizi diranei gure Jaungoikoak eman uste diezten sekulako atseginei; ta zeruko glorian; ez eta gaistoak beren gain artu bearko dituzten sulezeko neke-tormentu arrigarriei ere; ta, emen beti bizi bearra bailiz bezala, emengo gauza txar galgarri loiei begira liluratu dago, ta itsuaren eran.

Era orretako anima bekatari itsuetatik ote zara zu ere? Egizu bada, itsuarena. Aditu orduko zuk edo predikariagandik, edo librutik, edo lagun onagandik, edo nondik-nai, Jesusen itza ta dei leun mea, utzazu lenbaitlen konfesari onaren oñetan zere bekatuen soñekotzar zikiña; ta zoaz umilki, zoaz biziro, ta nai garbi on andiarekin komunioko maira, ta Jesus onagana.

Eta komuniatu bezain laster asi zakiozka itzketan itsuaren eran, erraten diozula; nere Jesus maitagarria, badakizkit nik, bai, beartsu anitzi zuk egiñikako ontar-

teak. Ni baño beartsuagorik non arkituko dezu zuk mundu guzian ere?

Itsuturik arkitzen naz ni nere animako gauzetan; eta nere pasione gaistoak narabilte ni, berak nai duten bidez ta eran, edo berak nai bezala; edo bekatuz bekatu, ta erortzez erortze.- Ekusten dezu zuk, nere Jesus maitagarria, ala dela, nik orain diodan au guzia! Urrikal zakizkit, bada, niri ere, ta ken zadazu nere animako itsutasuna, bere begietakoa leneko itsuari kendu zenion bezala.

Lurreko zure asmoak, zure oroitzapen galduak, eta zure egiteko txar-galgarriak asten badira zure buruan, bekataria, ojuz bezala, ta zere komunione oneko otoitzak zuri eragotzi naiez, egizu zuk alegiña bertatik guziak isil-erazteagatik; edo egizu zuk, oriek atzen-eraztera; ta egizu gero alik bortizkiena zere otoitza ta eskaera: ta agertuko dizkitzu zuri zere Jesus maitagarriak gaistoen ibillerak, gaistoen perillak, mal-korrek, amiltegiak, eta eternidade guzirako suak eta nekeak: baita on-bideak ere; ta ongi bizi diranen betiko atsegin-kontentuak.

Bai dio Dabidek, zoazte zuek era orretan zeren Jaungoikoagana, ta argiz ta jakitez Jaungoiko berak

beteko zaituzte zuek: *Accedite ad Deum, et illuminamini*. Ps. 3. 36.

Ez dituzu izaten zuk zere komunioneetan era orretako argiak, eta orrelako ekustekak? Uzten diozu beraz zuk zere Jesus maitagarriari zugandik joaten, zuk ari deitu gabe, zuk ari itz egin bage, ta Jesusek berak sendatu zuen itsuak egin izandu zuen lan ona egiten ez dezula. Ez da ala?

Bai, Jesus maitagarria; bai, ala da! Nik nerekin iduki oi zaitudan komunioneke nere aldietan egon oi naz ni ez dakit nola; edo zentzurik ez duen ero txar baten eran! Nere bearraz ere oroitzen ez naz ni nere aldi on orietan, zuri nik zerbait eskatzeko, ta zuri zere izate andiagatik eta aldarerako zere etortze amorezkoaren alde zor zaizkitzun agur umillak eta ongi etorriak egiteko, dagozkitzun eskerrak zuri nik emateko, ta zurekin ni biotzez biotz, ta amoriozko izketan egoteko.

Nere etxera etorri oi den txarrenarekin ez naz ni, nere Jesus maitagarria, zurekin bezain labur gelditzen!- Nere komunioetan nik zuri egiten dizudan begitartea baño, begitarte obea egiten diot nik edozein aurri, aurra mandatuz edo zerbaiten eske nere etxera etorri oi den aldietan: ta orregatik atera oi naz ni nere

komunioneetatik ara nintzanean bezain gor-itsu-gogorra.

Jesus! ta nere galdu galgarria! Ez al da berriz one-lakorik gertatuko! Egiñen al ditut nik gaurgero komuniatzen nazan aldi guzietan, Jesusen eskutik bere eku-siera artu izandu zuen itsuak erakutsi dizkidan gau-zak.- Egiten baditut nik oriek guziak, kenduko dit niri Jesus maitagarriak nere animako itsutasuna; ta egiñik utziko dit beldurtasun onerako bide zabal zuzena. Ala gerta dedilla! Bai arren, bai!

C.

Beldurtzen du Jesusek ongi komuniatzen denaren biotza

Ongi komuniatzen den bekatariaren biotzari gertatu oi zaio, israeldarren biotzei gertaturikakoa, israel-darrak aditu zutenean, Jaungoikoak Aingeruz agertu zien bere Legea.

Bere Lege au oriei ematera igorri, edo bidaldu zien Jaungoiko maitagarriak zeruko bere Aingeruetatik bat.

Etorri zen zerutik Aingeru au, Sinai zeritzan mendi batera; ta etorri zen Aingeru au, odei guziz arrigarri

batean sartua, edo jarria. Aingeru onek zekarren odei oni zeriozkan aditu diran otsik edo trumoik andienak, eta, ekusi diran tximistarik, eta su-gar, ta kerik izugarrienak.- Ori guzia zeriola, ta era arrigarri onetan egondu zen odei au, Jaungoikoaren Aingeruak Legeko itz guziak Israeldarrei adirazi artean; ta adirazi zituen tronpet, aditzen zuenaren bearriak erdirazteko, egiña zirudien batekin.

Israeldarrak beldurrez, ta ikaraz iltzar ziran mendiko ekuskari arrigarriekin, ta menditik zetorren itz, ots, eta soñu izugarriarekin: ta erran izandu zioten Moisesi (Moises zen israeldarren ta orien Jaunaren arteko gizona): itz egizu zuk, eta adirazi zagazu gure Jaungoikoak gugandik nai duena; ta guzia zuzen guk egiñen dugu; bada zerbait luzatzera, guk orain mendi orretan ekusten ta aditzen dugunak, illak geldituko gara gu, emen arkitzen garan guziok; ain andia da oraingo gure ikareria, ta gure beldurra. *Exod. 9. v. 18. etc. c. 20. v. 18.*

Ongi komuniatzen den animari erakusten diozka gure Jesus maitagarriak, edo adirazten diozka bekatuaren kea ta itsustasuna, baita bekatu berari dagozkan sekulako suak, sekulako garrak, sekulako orroak, sekulako aunkak, sekulako karraisiak, eta sekulako

nekeak ere: eta garai edo adiuntz berean erraten dio Jaungoiko berak, baña eme-emeki, biotzez, ta amoriozko itzekin: Otra nora bearra ziñan zu, ni zutaz ez urrikaltzera! Zutaz urrikaldurik, lagundu dizut nik zuri oraindaño denboretan, ta atera zaitut nik (eta askotan alere) zere bekatupetik.

Baña nork erran dizu zuri berebat egiñen dudala nik, zu berriz ere bekatuzera?– Nork erran dizu zuri, etzaitula orduan aurtikiko nik zu, zure erakeriari dago kan tokira, ta sulezera? Begira, bada; ta ez niri berriz egin era orretako txarkeririk.

Au adiraztean, adirazten dio Jaungoiko berak, ongi ta zuzen komuniatzen den animari: nola bizi, zer egin, ta nondik artu, zuzen ibiltzeko.– Au adirazte berean, ukitzen dio biotza Jaungoiko maitagarriak bere grazia- ren malluz, edo onerako naikundez, gaitzerako beldur- rez, ta beraganako amorioz.

Eta, ekusirik orduan anima gaisoak bere ezer-eza, bere gaitzerako makurtasuna, ta bere etsaien indar arrigarria, beldurtzen da guzia burutik oñetaraño: itzultzen da bere Jesus onagana; eskatzen dio lenen barkamentua, ta bekatu berririk ez egiteko bere gra- zia, ta bere laguntza.– Eta guziagatik, edo alere, geldit- zen da bekatari gaisoa bere kezkarerekin, ta leneko

bere bide galgarrietan sartzeko beldur-ikaraz betea.-
Eta orra non, ongi komuniatzen den bekataria geldit-
zen den berriz pekaturatzeko beldur andiarekin.-
Zorionekoak, orrenbat ondasun beren komunione
onetatik atera oi duten bekatariak!

Baña ez dira orietatik, ez, komuniatu ondoan len
bezain aisa ta arin bizi diranak, leneko jostaketa, ta
sartu-atera galgarriak uzten ez dituztenak; malkorrez
malkor, ta eror-bidez bide dabiltzanak.- Era orretako
bekatariak berriz ta berriz ere bekaturatzen dira, ta
izan ez oi dituzte, adirazi ditugun aditze ta ekuste one-
tatik, ez beintzat, ongi ta kontuz bizi diranak izain oi
dituztenen erakoak. Zergatik, uste dezu? Beren oben-
kulpa galgarri, ta bizitza gaistoagatik. Ongi bizi dirane-
tatik ote zara zu, edo beste gaisto orietatik? Gaistoe-
tatik? A gaisoa! Urrikarri zaitut nik zu, zu baldin baza-
ra, gaizki bizi diran, ta gaizkiago komuniatzen diran,
bekatari itsu-galdu-galgarri orietatik!

*Vivus est sermo Dei, et efficax,
et penetrabilior omni gladio ancipiti,
et pertingens usque
ad divisionem animae, et spiritus.*

Aditzen ez duten gorrei ez diegu guk itzik egiten; alferrik da alabaña era orretako jendeei itz bat ere egi-tea.

Baña gure Jesus onarentzat ez da gorrik gizartean, edo mundu guzi-guzian. Munduko guziei adirazten die gure Jesus maitagarriak berak nai duena, ta berak nai duen bezala.- Ezpat-zorrotz bat baño barrenago sartzten dena da gure Jesusen edozein itz; eta barreneko gure anima berean egiten du Jesusen itzak, Jesusek nai duena.- Ken adi, Jesusek erran orduko mundu guzian arkitzen den gorrenaren gorreriari, gortasunik bage arkituko da munduko gorrena; ta bertatik geroz adituko du, adirazi nai zaiona.

Ala gertatu zitzaion Ebanjelioko ekusi dugun gorrari: ta orduan bere gorreria orri kentzeko zuen esku bera, du gaur ere gure Jaungoiko-gizon, Jesus maitagarriak. Esku berarekin datorkigu egunoro bere aldarera; ta onara datorkigu gure Jesus maitagarria, nai duten gor guzieren animako gorreria kentzera.

A! ta zenbat atsegin artzen dudan nik au guzia orain jakiteaz, dakidan bezala, nere Jesus maitagarria; bada gor arkitzen naz ni ere, baldin gorrik bada

mundu guzian; ta arkitzen naz ni denbora berean zeruko zure berriak eta gauz onak aditu nai guztiz andiarekin.- Ni, nere Jesus maitagarria, ni gaugero urbilduka naz maiz-maiz komunionekeo zure maira. Nik, au zu artzen zaitudanean, eskatuko dizut zuri aditze on bizi bat; eta eskatuko dizut bidenabar didazula zuk, dezakezunak bezala, nik geroz geiago egin bear dudanaren, ta egin bear ez den, guzi-guziaren berria, edo adiera.

Orretara zatoz zu, gure Jesus maitagarria, edo ori guri adiraztera zatoz, zu, komunione oneko maian, zu gugana zatozen aldi guzietan: eta ez didazu zuk, ez, au niri ukatu bear zere etor-aldietan. Zure berri on onekin egiñen dut nik eginala, oraindañokoan ez bezala, nere gauzak egitera; egiñen dizut nik orretan zuri al dukedan atsegin-kontentu guzia. Ala gerta dedilla, bada, nere Jesus maitagarria: bai arren, bai!

*Jonathas... convertit manum suam (cum melle)
ad os suum, et illuminati sunt oculi ejus.*

Reg. 14. 27.

Errege Saulen seme Jonatasek ill zituen egun batez, nork daki zenbat bere, ta bere Jaugoikoaren etsai Filisteo. Pelean ibilli zen oriekin zenbait denboraz errege-seme Jonatas; eta azkenerako flakiaz erdi-illunduak zeduzkan Jonatasek bere begiak.- Etzuen berekin ezer, zerbait artu naiagatik. Ekusten du non-bait an ezti-zatitxo bat; eta artzen du artatik zerbait, bere Jaungoikoaren etsaiak iltzeko eskuan zerabilen lanzaren burdin-puntan.- Badarama bere ezti-zatia bere ezpañetara; ta, ark ura jan orduko, arkitzen da dena indarrez betea, ta bere begietako ekuste guztiz garbiarekin.

Zer ezti dela deritzazu zuk, Saulen seme Jonatasek orduko ezti au?- Eztizko atsegin andiak dakazkien Jesusen aldareko Sakramentuaren aintzura, edo imajina bat; bada gure Jesusen Sakramentu onek ematen ditu gorputzaren indar-ekusteak baño agitz geiago balio duten indar-ekusteak; bada ematen ditu animako indar-ekusteak.

Nori, uste dezu, edo zeñi ematen diozkala Jesusek aldareko bere Sakramentuan indar-ekuzte andi oriek?- Jonatasek bere lantzaz bezala damuz ta miiz konfesionean bere etsaiak, edo bekatu gaistoak, iltzen dituen anima komuniatzalleari, ta bere bekatuak era

orretan ill edo urratu ondoan, mai on-andiarekin, ta bere begiak eta asmo guzia zeruan ongi sartuak daduzkala, komuniatzen den animari.

Ala zu ere beti komuniatu izandu ote zara? komuniatu izandu ote zara zu beti-beti, ongi ezaguturik zertara zindoazen, komuniatzera zu urbiltzen ziñan aldie-tan, ta ongi-ongi ekusirik nor ziñan zu; ta nor den, ta zein andia den zuk zere komunioneetan artu uste zenuen zere Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria? Komuniatzen ziñan beti zu, zere komunioneetan Jesu-sen ez-titasuna ta laguntzak artu naiez? Komuniatzen ziñan zu, Jonatasek, ez-tia jatean, zuen asmoaren erako asmoarekin, edo zeruko indar andiak erditsi naiez, indarrak artu, ta zere etsaien ondoren ariñ ibil-tzeko, guziak arras bukatu, edo zere eskura ekarri artean? Ala izandu bada, ongi komuniatzen ziñan zu; ta era berean beti zu komuniatzen bazara bizi zaraño, Jesusek zuri guztiz ederki argi egiñen dizu, zere lan on orrek eskatzen duen bide guzian, ta bidenabar emain dizkitzu, zere lan bera egiteko, bearko dituzun indar guziak.

A! baña ni oraindañokoan era orretan ez komuniatu izandu! Oraindañokoan ni komuniatuagatik, komuniatu nazan adiñetan, nik ez erdi-garaitu ere nere

etsaitzar galgarriak! Edo nere alke galdua, bekatu nereak garbiro ta zuzen esateko, gauz onetarako nere nagitasuna, ta gauza gaistoetarako nere makurrera!- Orregatik galdu ditut nik oraindañoko nere komunio- neetan, komunione onetako eztitasuna, argia, ta indarrak; eta arkitzen naz ni gaur, anbat aldiz komuniatu ondoan, len bezain berri nere utsetan, len bezain sartua nere illunbean, ta len bezain indar gutirekin, nere etsaiak garaitzeko!- Ai, au erakeria! Ai, au galtzea! Ez dut berriz, ez, orrelakorik egin uste! Ez, ez; beste gisaz komuniatu bear dut nik emendik aitzina, ta bizi nazaño! Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria: bai arren, bai!

Qui autem iudicat me Dominus est.

1. Cor. 4. 4.

Komuniatzen zaranetan, arkitzen zara zu, dakizun bezala, zere Jaungoiko maitagarria, ta zere ebarakitzallea zerekin dezula. Onetatik baldin bazara zu, edo bizitza garbi-on bat dakartenetatik, eta amoriozko komunioneak egiten dituztenetatik, atsegín andizko argiak izain dituzu zuk, komuniatzen zaran aldietan,

zeruko indarrez beterik aterako zara zu zere komunio-
ne onetatik; eta, obeki baño obeki zere gauzak egite-
ko asmo zuzenarekin.

Zorioneko animak, gis-onetan komuniatzen diran
animak! Oriek dira, beren artean atsegin andiarekin
Jesus maitagarria dadukaten animak; eta oriek berak
eternidade guzi-guzian beren Jesus maitagarri berare-
kin zeruan egoin diranak.

Baña bereziak dira, ta ongi kontatuak, orren eder-
ki komuniatzen diran animak; bada gaizki, edo guztiz
lasai komuniatzen dira geienak.

Nola bada? Zeren batzuek komuniatzen diran
biotz loi-lizunekin?

Zergatik ote? Zeren, konfesatzera joan oi diran
aldietan, bear den eran agertzen ez ditazten beren
obenak, beren bekatuak, edo kulpak, edo zeren artzen
ez duten geienak bear den eran, agertzen dituzten
obenen barkamentuak eskatzen duen ziñezko naia, ta
bekatu berririk ez egiteko asmo osoa; edo zeren indar
gutiko naia, ta asmoa den, orretarako oriek dutena, ta
jaiki-erori, ta bekatuz bekatu dabiltzan beren bizitza
geienez; edo zeren, oben andirik ez izanagatik ber-
tze anitzek, anitz uts, eta bekatu txikirekin, komuniat-
zen diran beti, edo beintzat geien-geienetan.

Eta orietan komuniatzen diranak, berekin dute nork begitan eman beren utsekin ta ibillera txarrarekin; bada berekin dute beren Jesus maitagarri, txarre-ri guzien ekusle ezin zuzenagoa.

Komuniatzen diranen utsik txikienak ere, uts izugarriak dirudite, Jesusek ongi agertzen dituenean; ta orregatik dira, nornai arriturik uzteko, aski ta sobera diran utsak.

Zere begiak ongi zuk idikitzena komuniatzen zaran aldietan, ta zuk ongi begiratzen badiezu egiten dituzun zere utsei, ekusiko dezu zein itsusiak diran oriek, eta zein izugarriak; eta guziz beldurturik geldituko zara zu, berriz alakorik ez egiteko.

Idiki zatzu, bada, oraindanoan baño obeki zuk animako zere begiak, egin nai badituzu zuk ongi bizi diranen erako komunione garbi-argigilleak; eta lenagotik orretan ez asiaz, ta zere bekatu guziez damuturik, errazu orain itzez ta biotzez: *Nere Jesukristo, etc.*

LXXVI.garren OTOITZ-GAIA

ONGI KOMUNIAZTEN DENARI

LAGUNTZEN DIO JESUSEK

BARRENGO BERE ETSIAK GARAITZEN

Bekatari gaisoak baditu, aragi galdua, mundu eroa, ta sulezeko gaistoa ezezik, beste zenbait etsai ere, ta oriek ark ez garaitzera gañerako bertze irurak garaitzen dituen denboran, galduko da azkenean, ta neketan bizi bearra da beti ta sekula guzi-guzian.

Bekategoriaren gañerako etsai oriek beraren barre-neko etsaiak dira, ta orregatik dira etsai guztiz gaistopak.

Etsai oriek dira bekatu orijinalak, edo etorkiak asaldatu zizkigun pasioneak; eta pasione gerok geroztik geren bekatuz ongi bazkatuak.

Ez dira etsai-era oriek guziak, ez, era batekoak: beldurtlak dira batzuek, sutuak besteak, eta beste zenbait, atsegin galduen ondoren dabiltzan etsaiak dira.

Etsai-era oriek guziak ere garaitzeko da, bear bezalako komunionea. Goazen ekustera.

A.

Bere pasione beldurtiak eskuratzen laguntzen dio Jesusek, ongi komuniatzen den edozeñi

Gu ongi-ongi prestatuak komuniatzera, emain liguke guri gure Jesus maitagarriak lenbiziko gure komunionean, geren pasione guziak guk eskuratzeko bearke genuen eskua ta laguntza; baita anitz eta anitz geiago ere.

Eta orren ongi-ongi gu ez komuniatuagatik, baldin komuniatzen bagara gu bekatu larririk bage, ematen digu guri aldi artako gure prestaerak eskaten duen esku-laguntza guzia, ta baldin guk geren Jaungoikoaren esku-laguntz onekin eskuratzen ezpaditugu geren pasioneak, era berean badere, edo bekatu larririk bage komuniatzen bagara gu berriz ta berriz ere, izain dugu, bai, orretarako guk bearke dugun guzi-guzia; ta lenbiziko lekuan izain dugu guk geren pasione beldurtiak eskuratzeko bearke dugun esku-laguntza.

Badira komuniatzen diranen artean zenbait anima geiegi beldurtzen diranak, oriei zerbait gertatzen zaie-

nean, edo batere gertatu bage; baña ez dira guziak, ez, era bateko beldurtiak, anima beldurti oriek.

Anima orietatik batzuek beldurtzen dira beren barrengo kezkekin, edo leneko beren bekatuak ematen diezten kezkatatik bada ibilli oi dira era orretako animak leneko batela bekatuak bein ere gogotik ezin kendu dituztela.

Anim oriek batzuetan uste dute, ez daudela bear den eran agertuak orien konfesioneetan, len berak egin zituzten bekatuak; eta orregatik arkitzen dirala orien bekatu berak gure Jaungoikoak barkatu bageak.- Beste batzuetan iduritzen zaie anime berei, uts egiten dutela beren gauza guzietan, ta bekatu berriak dirala oriek egiten dituzten gauza guziak; eta orregatik arkitzen dira, beren Jaunaren grazian ez daudelako goganber arrigarriarekin ta azkenean suleza bearko dutelako izu-aldiekin.- Badira beste zeinbait anima beldurti, itz erdi, edo itz bat aditu orduko guziak alketzen edo lotsatzen diranak, eta bere alkelotsagatik utzi oi dituztenak beren debozioneetatik geienak, edo zenbait beintzat.- Badira zeinbait anima komuniatzalle beldurti, beren gain gezurrezko asma-zio bat aditzen badute, tristuraz betetzen diranak.- Berebat gertatzen zaie beste anitz beldurtiri ere, bal-

din oriek galtzen badute beren ondra, uste zuten ezkontza, ondasuna, irabazbidea, edo edozein beste gauza; ta orietatik zenbait, zenbait aldiz, itotzear dira kezka ta naigabez, ta arkitzen dira aldi orietan orien barrenak, itsasoko ura bezain gazi-minduak.

Zer egin dezakee oriek ordu orietan, an bertan itorrik ez gelditzeko?- Apostolu onak bein beren Jesus onarekin egin zutena.

Sartzen dira arratsalde batez Apostolu onak itsaso zati bat igarotzeko edo pasatzeko, itsaso bazterrean arkitzen duten batel batean edo txalupan: ta sartzen dira an, an berekin dutela gure Jesus maitagarria.- Badabiltza itsasoz guziak zenbait denboraz; ta itsasoan ongi barrenatuak zebiltzanean, asaldatzen dira aizeak, eta aizeekin batean asaldatzen da itsaso guzia.- Badabiltza batetik bestera itsasoko bagak bagen gain. Sartzen dira zenbait baga, ta ur-zati txalupan, ta ondatzear dira beren txaluparekin batean, txalupan arkitzen ziran Apostoluak.- Ikaratzen dira guziak. Iratzartzen dute Jesus, ta erraten diote: Jauna, galduak gara, zuk emen bertan orain guri ez laguntzera.

Jaikitzen da, zegoen lekutik gure Jesus maitagarria; ta esaten die; zuen beldurtiak! Manatzen die

aize-itsasoei daudela geldirik, eta bertan guziak gelditzen dira; ta gelditzen dira bidenabar beldurrik bage, ta sosegu andiarekin Apostolu onak. *Matth. 8. 23.*

Ekusten dezu? Nai dezu zuk, dagien zurekin ere, edo zure animan gure Jesus maitagarriak, aldi onetan bere Apostolu onekin egin izandu zuena? Eskura nai dituzu zuk, anima beldurtia, zere barreneko ikar-erriak, eta pasione asaldatuak? Zoaz bada maiz-maiz, ta beti ongi prestaturik, komuniatzera, ta eska zagozu Jesusi zere ara-aldietan isill-erazi ditzala eskrupulozko, illuntasunezko, ta kezkazko zure aize-baga guziak, eta dizula zuri zere pasione beldurtiak eskuratzeko grazia; baita kezkarik bage zuk, eta sosegu andiarekin Jaungoiko bera ziñez serbitzatzeko, ta garbiro bera, ta zuzen maitatzeko, bearko dezun grazi-guzia ere.

Zuk ori ongi egitera, egiñen du zurekin, bai, gure Jesus maitagarriak, zuk nai dezuna, edo aldi artan zuri dagokizuna; ta etzaitu Jesusek utziko, ez, itotzen or, zere beldurrezko bagen itsaso illunean; ta gutiago utziko zaitu galtzen zu beti-betirako: bada bere Apostolu onekiko izandu zuen esku-amore bera du gaur ere gure Jesus maitagarriak; eta esku-amore bera izain du beti-beti, ta eternidade guzi-guzian ere.

A, ta zein on-maitagarria zaran zu, gure Jaungoikogizon Jesus guztiz maitaria! Ni zuri eskatzeko baño ere agitz prestago arkitzen zara zu, nere pasione beldurtiak eskuratzen niri laguntzeko! Noiz ezagutuko ote dut nik nolerebait, zuri zor dizudan bazterrik bageko amore ongi naia.- Eta nola asiko ote naz ni amorez nere zor andiak ateratzen, ta zuri erantzuten?- Bertan, edo gaur berean da berandu: bada ori da nik aspaldi guzian egin bear izandu nuen lana, ta egiteko zuzena. Banegi, bada, gaurdanik badere, ta geiago luzatu bage!

B.

Laguntzen du Jesusek komunionean pasione sutuak eskuratzen

1. Pasione beldurtiak eskuratzen laguntzeko diña eskurekin arkitzen da gaur gure Jesus maitagarria, pasione sutuak eskuratzen guri laguntzeko.

Badira zenbait gure artean, ezer-ez baten gañean sutzen ta erretzen diranak. Nai ez duten itz bat oriek aditu orduko, irakiten dago, ta erretzen, orien barren-

odol guzia.- Aditzen duten gaizkia etzaie gogotik joaten denbora luzeetan ere; ta ura oriek gogoan duteño, ikatz sutuarekin arkitzen da orien ira edo pasione beroa, ta bendekuzko keak artuak daduzka orien buruak.

Berebat gertatzen zaie giza-giro oriei, oña norbaitetik aitziañatzen dienean; edo beste norbaiti ematen badie, oriek beretzat, edo beretako nai zuten egitekoa, irabazia, ezkonza, edo ondra. Baita beren etxekokak, edo beste edozeñek ematen dienean ere naigaberen bat edo beste, ustekabean emana denean ere, oriei ematen zaien naigabea edo illun-bidea.

Berebat gertatzen zaie, egiten etzaienean, uste zuten orduan, beren ondra, edo egiten ezpazaizte, berak nai bezain agur andiak.

Aldi orietan, ta era orretako beste edozeinetan irakiten die oriei beren odolak, ezin-geiagoraño; sutzen zaie beren pasione berotua, ta gelditzen dira bendekuzko asmoz beteak, eta nork daki zer gauza makturak egiteko gogoarekin.

Onetara nai ez duen animak, eta lenbaitlen bere eskura nai dituenak, asaldatzen asi orduko bere pasione sukorrak, ezin ar dezake ongi ta maiz komuniatzea bezalakobiderik batere.

Lege zarrean gertatu zen bein, au guri ederki adirazten digun gauzatxo bat; eta, gauza bera guri adirazteko, egin zuen gero gure Jesus maitagarriak beste bat.

Lege zarreko gauza, Daniel profetari gertatua da; ta gure Jesusek eginikakoa, sulezeko galgarriekin arkitzen zen gaizon bati gertatua. Ekus dezagun bein Lege zarrekoa.

Babilonia zeritzan erri, ta erregeen Korte andi batean bazen, oi den bezala, leoiez beterik arkitzen zen leze izugarri bat.- Leoien egunoroko bazka zen bi gorputz, eta bi ardi.

Babiloniako zenbait gizon gaistok, nai-ta-ez kendu zioten beren Daniel profeta; ta aurtiki zuten Daniel ango leoien artera; ta gosez amurraturik bazen ere, ill, ta jan zezaten Daniel profeta, etzien zazpi egunez bazkarik eman izandu ango leoiei.- Au an gertatzen zen denboran andik urruti arkitzen zen Habakuk zeritzan gure Jaungoikoaren beste profeta bat; bada arkitzen zen, Judea deitzen zen erresuman. Ateratzen da bein bere itxetik bere igitarien barazkariarekin Habakuk profeta; ta Aingeru batek bere illeetatik, edo bere billotik artzen duela, eramaten du ez-da-baida batean, Danieli baratzkaltzen ematera.- Jaten du Danielek

Habakuk profetak emanikako ogia ta gañerakoa; ta an daude Babiloniako leoiak Danielen inguruan zazpi egunez, zazpi egunetan deus bat jaten ez dutela ta alare Daniel profetari gaitzik egiten ez diotela. *Dan. 14. á v. 28.*

Nor ote da adiraztez Daniel profeta, leoi sutugosekorrez ingurutua?- Ongi komuniatzen den edozein anima.

Nor ote dira Daniel oni, edo ongi komuniatzen den animari gaizki nai dioten gizonak?- Anima komuniatzalle beraren etsai galgarriak.

Zer ote dira anim orien, edo Danielen leoiak?- Etsai oriek sutzen dituzten pasione sutu, anima beraren asaldariak.

Eta zer da, Babiloniako lezean Danielek jan izanduen Judako ogia?- Juda berean gizon egiñik jaio zen gure Jaungoikoaren, ta aldareko Sakramentuan arkitzen denaren itzala, aintzura, edo figura.

Orra, bada, zein ederki adirazten digun guri gure Jaungoiko maitagarriak orduan Daniel profetaren alde egin zuenarekin gure Jesusek komunionean, ongi komuniatzen diran animekin egin oi duena.

Eta ekusten dezu, ogi-zati batek, leoi gosetiak gel-dirik idukitzeko baño Jaungoiko-gizon Jesus maitaga-

rriak aldareko bere Sakramentuan gure pasione txar-
rrak erazteko, indar geiago, ta geiago duela.- Nai
badezu, bada, ongi, ta maiz zu komuniatzen zarala,
aisa eskurako dituzu zuk zere pasione sukorrak, edo
biziak.

2. Au berau adirazten digu, ta Lege zarrean Danie-
lekin Jaungoikoak eginikako gauz onek bezain ongi,
Jesusek egin izandu zuen beste gauza batek ere.

Ateratzen zaio Jesusi bere bidera, sulezeko zenbait
berekin zituen gizon ongi nekatu bat. Sulezeko galga-
rriak eragiten zioten gizon oni berak nai zutena.- Bere
soñekoak urrazten ziozkaten, gogoak ematen zie-
nean; baita bere kateak ere, oriekin norbaitek lotzen
zuenean; ta gau ta egun zerabilten beti bere buruaren
urratzen, ta bazter guziak orroz ikaratzen zituela.

Urrikaltzen da gure Jesus maitagarria, era onetan
arkitzen zen gizon gaisoaz. Erraten die sulekoei: utza-
zue gizon ori, ta zoazte ortik ordu gaistoan: *Ite*, ta
uzten dute bertan etsai galgarriak, eta gelditzen da
gizona sosegu andiarekin, Jesusen aldamenean edo
oñetan, ta eskerrak eskerren gain Jesus maitagarriari
ematen diozkala. *Luc. 8. á v. 27.*

Ekusi zazu zuk, era onetako gizon batekin au egi-
ten duen Jaungoikoak, eskura ditzaken, edo ez, ongi

komuniatzen denaren pasioneak, pasione oriek asal-
datzen zerbait asi orduko!

Bai nere Jesus maitagarria, bai; ta aisa alere: ta,
eskuratzen ezpaditut nik nereak, orretan zuk niri
laguntzen didazu, edo eme-emeki ezpadaramatzit nik,
eta zure izenean, niri gaurgero egiten zaizkidan bide-
gabeak, txarkeriak, eta gauza gaistoak, izain da, edo
zeren billatzen ez ditudan nik nere maizko komunione
onean zure laguntza ta grazia, edo zerен artu nai ez
ditutan nik zure laguntza bera ta grazia.

Gauza bata ta bestea dira erakeri guztiz arriga-
rriak. Ongi damaturik nago ni, bai, oriei len nere bai-
tan nik leku egiñaz, ta orrelakorik berriz ez egiteko
asmoan nago ni, ta komunioneke zure laguntzaz
baliatzen nazala, nere pasione bizi-sukorrak nere
eskupean beti idukitzeko asmoan. Indazu arren, orain-
go nere asmo au galdu bage, nere egunak nik buka-
tzeko grazia. Bai arren, bai!

C.

**Laguntzen du Jesusek
komunionean
pasiene txar loiak eskuratzen**

Gañerakoak bezain pasione galgarriak dira (galgarriagoak ezpadira), aragizko atsegin txar loien ondoren dabiltzan gure pasioneak. Pasiene oriek aragi guzia, edo gure gorputza dute beren betiko bazkatzalle.

Bazkatzen ditu gure gorputzak pasione gureak anitz aldetara; bada bazkatzen ditu batzuetan bere begiratze arin-lizunekin, edo, begiak ekusten dituzten edertasunekin, oriekiko gauza debekatuen zaletzen dituztela.- Beste batzuetan bazkatzen ditu bere bea-riekin gure pasione berak; bada gorputzeko bea-rietatik sartzen diran lausengak, eta amoriozko itzak, kantak, eta soñuak, gure pasione berak nai dituzten bazkak dira.- Bazka beretatik dira, pasione berei eskukak, ezpainkak, eta aragiaren itzketak arrerazten derozten atseginak, ta naikunde zikiñak.- Eta ez da gorputz guzian zatirik bat ere, nola edo nola gure pasione loiei eskua ezin eman dezokenik.

Eta, nola pasione oriek nai dituzten gauzak atsegin egiten dioten gure gorputz berari, gure gorputza guztiz makurtua dago gure pasione berak nai dutenerako. Eta orregatik ez da giz-artearen, gure gorputzari atsegin egiten dioten gauzez bazkatzen diran pasio-
neak adiña gaizki, ta bekatu eragiten duen pasionerik.

Eta zer bide artu ote diteke, era orretako pasione oriek ere, besteak bezala batek bere eskuratzeko, edo batek garaitzeko?- Ez da orretarako biderik bat ere, len guk agertu duguna bezalakorik.

Nai dituzu, bada, zuk errazki, ta aisa ito aragiaren naikunde zikiñak? Nai dituzu zuk guztiz emendatu, edo itzali zere pasione ketsu-loi-zikiñen su guziak, edo garaitu nai dituzu zuk zere pasione atseginzale berak?- Zoaz, bada, komunioneke graziaren ur-eske. Sartu zazu zuk zere Jesus maitagarria zeruko bere ur, intz aize guziarekin zere barrenean, ta izain dezu zuk ori guzi-guzia. Adirazu ezperen len gertaturikako gauz aditzeko bat.

2. Nabukodonosor zeritzan Babiloniako errege batek eragin zuen bein urrezko Idolo andi bat. Ezarri zuen bere Idolo au, artarako eragin zuen mai batean; ta ezarri, edo epeñi zuen, Dura zeritzan, Babiloniako probinzia edo bazter bateko toki guztiz ekokian.- Deitu zituen gero bazter guzietako Zaldun-Gobernari, ta Kargudun guziak; eta, ara emanik, manatu zien guziei, orretarako errege berak eta eragin bear zuen soñu bat aditu orduko, belaunika zitezela guziak, eta egin zezotela agur ta adorazione, beren Jaungoikoari bezala, an ekusten zuten urrezko Idoloari.

Egin-erazi zuen erregek bere soñua; ta soñu au aditze berean egin izandu zuten erregek nai zuena, irur israeldarrek ez, beste guziak.- Deitzen ditu bertatik errege irur israeldarrak, eta erraten die, ez egitera oriek ere, gañerakoak an egin izandu zutena, an orretarako erretzen zedukan labe, edo karobi arrigarri batean erreak, urtuak, eta auts egin bearrak zirala.

Badagikezu zuk, errege Nabuko, zerorrek nai dezuna (erantzun zioten israeldar onak erregeri); baña guk ez dugu nai, geren Jaungoikoa beste jaungoikorik; ez, eta bear ere; bada gu geren Jaungoikoak atera gaitzake berak nai duen eran, berak nai duen adiñetan, ta berak nai bezala, sutarte guzietatik, edo edozein nekepetik batere geren gaitzik bage.

Aserretzen da, ezin geiagoraño Nabukodonosor, israldarretatik au aditu orduko. Eragiten du, eragin zezaken surik andiena. Garrak gainez egiten dio labeari, edo karobiari. Zenbat uste dezu? Berrogeita bederatzi besoz.- Eta, oñak loturik, igi etzitzen, boteratzen ditu errege Nabukok su andi arrigarri aren erdian irur israeldarrak.

Baña zer gertatzen da?- Israeldar orien botatzallean an erre-illak gelditzea, labetik ateratzen zen garrarekin; ta irur israeldarrak denbora berean lokarri-

rik bage sutan beren buruak arkitzea: ta su-erdi andi berean ibiltzen asitzea, leku zelai, edo soro batean balebiltza bezala, ta beren Jaungoikoari eskerrak ematen zioztela.

Ekusten du au errege Nabukodonosorrek, eta arritzen da den guzia. Urbiltzen da ango labera, ta ekusten du an dabilela, an ark botarazi zituen, israeldarrekin batean laugarren bat, Jaungoikoaren Seme maitagarria zirudiena; ta laugarren onek, bazterturik labe artako gar guziak, egiten diela irur israeldarrei aize, bear bezalako eze bat.- Deitzen die, an ala zebiltzan israeldarrei erregek. Ateratzen dira irurak; eta arkitzen ditu guziak, berak an bot-erazi zituenean bezala, ta erretzerik, kiskiltzeri, eta su kutsurik batere bage. *Dan. c. 3.*

Ekusten dezu gure Jaungoiko altsu maitagarriak egin dezakena? Bada suarekin egiten duena egin dezake edozein gure pasionerekin ere, naiz dela sua bera bezain erretzallea, gure pasionea. Eta ori da, gure Jaungoikoak guri adirazten diguna, aldi onetan berak israeldarren alde Babilonian egin izandu zuenarekin.

Errazu ezperen, zer dela uste dezu zuk Babilonia?– Babilonia da anima zikin, loiez loi dabillen baten imajina, edo itxura.

Nor ote da Babilonia onetako errege Nabukodonosor au? Edo zein ote da anima zikin batean, geiena manatzen duen nagusia?– Asmodeo deritzan sulezeko etsai loi lizuna.

Zer labe da, zer galtzintegi, edo zer karobi, karobi galtzintegi, edo labe izugarri au?– Au da gure gorputza; ta gorputz, ezur-aragiz, ta zañez, ta larruz egiñiakoa.

Eta labe onetako suak eta garrak?– Oriek dira odolaren irakiteak, aragiaren tirrikazioak, atsegin txarren tirakak, eta pasione lizunen asaldazioak eta ostikoak.

Nor ote dira su orretan, eta orrenbat tent-arretan anima gaisoa aurtikitzen dutenak?– Oriek dira begiratzeko lizunak, aditze loi-amoriorzkoak, ukitze itsusiak, dantza txarrak, jan-edan beroak, eta era orretako gauzak.

Eta badagoke anima bat erre bage, or eroriagatik?– Bortxaz aratzen bada, ta an badabil israeldarren eran, bai.

Nola ibilli izandu ote ziran an israeldarrak?– *Laudantes Deum, et benedicentes Domino*: beren Jauna-

rekin batean, ta ura bezala(v. 92.); Jaungoikoagandik beren gogoa ta biotzak kendu bage; ta Jaungoiko berari eskerrak ematen ziozkatela, zeren sutan zedukan, erretzen etzirala.

Bai; bere komunioneetara ongi prestaturik urbiltzen denari, ta komuniatu ondoan, ibiltzen denari Jaungoiko-Seme Jesus maitagarriaren eran, ta Jesus maitagarriak erakutsirikako Legez ta bidez; bai bere bideetan, Jesus ona lagun arturik, eta Jesus onagandik gogoia kentzen ez duela dabillinari; ta dabillinari, Jesus berari eskatzen diola bere laguntza ta eskua, emengo bide limurrietan ta perillezko pausuetan ez erortzeko, atsegin txarrari lekurik ez egiteko, ta garbiero bera, ta ziñez, maitatzeko, ematen dio Jesusek bere graziaren intza ta aize ezea.

Ez du, ez, era onetan dabillena erreko, berak itzali, edo emendatu nai luken aragiaren suak; eta eskurako ditu azkenean onela dabillanak, bekatuaren loietan, edo atsegin galgarri zikiñaren besoetan eratzon nai lukeen bere pasioneak.

Bai: dio san Zirilok, bai: gure Jesusek (guk geren Jesus gerekin dadukagunean) palakatzen ditu gure aragiaren naikunde bero-limurtiak, eta tirrikazio-asaldariak: eta itzaltzen ditu, ta emendatzen animako

suak, kezakak, eta beldurrak: *Sedat cum in nobis maner Christus, saevientem membrorum legem; perturbationes animi extingit* (1. 4. in Joan. c. 17.)

Nola uste dezu?– Komunioneko iturriak ematen duen ur andiarekin, dio san Juan Krisostomok: *A mensa hac procedit fons, qui fluvios spirituales diffundit*. Ez dezu siñisten?

Bai nere Jesus maitagarria, siñisten dut, bai, ta batere trikatu bage! Gizon egin ziñanean zu, etzenuen galdu zuk zere Jaungoikotasuna; ta Jaungoikoak bada-gike, nai duen edozein gauza; ta badagike, berak nai duen guzia non-nai, noiznai, ta berak nai bezala.

Baña ez dezu zuk egin oi, gure Jesus maitagarria, era orretako gauzetatik batere, guk gerok nai ez dugula, ta guk geren animak prestatu artean orrenbat ontart-etara, edo era orretako ondasunetara: eta prestatze au ere ezin dagikegu guk, zuk zerorrek orretan laguntzen ez diguzula.

Artu naiez nago, bada, nere Jesus maitagarria, zure ontart ondasundun oriek, eta egunoroko zure laguntzak eta graziak; eta, grazi ta laguntza oriekin batean eskura naiez nago, oraindañokoan ni dakizun bezain aisa ta erraz garaitu nauten nere pasione loi atsegindunak.

Lagun zakizkit, bada zu, beinik bein nere prestatze on onetan; ta indazu gero nere komunione garbi onetan, pasione zuen beldurrak, suak, eta naikunde lizunak garaitzeko, ta nere pasione berak beti nik nere eskupean idukitzeko bearko dudan zere laguntza ta grazia. Bai arren, Jesus maitagarria, zere biotzeko amore sutuagatik, bai!

*Omnem tribulationem passi sumus:
foris pugnae, intus timores.*

2. Cor. 7. 5.

Ekusten dezu zuk, nere Jesus maitagarria (erran dezakezu zuk san Pabloren eran, zere pasioneen asal-dazioakgatik naigabeturik arkitzen zaran aldietan): ekusten dezu zuk, orain nik nere baitan dakusadana! Nere bearrak batetik, nere gabeak bestetik, eta anitz nere nekek, andik eta emendik ongi kezkatua narabilte ni, orain zuk ekusten dezun bezala.

Eskusten dezu! Asmatu didate niri orain, zuk dakizun bezain gezur andi arrigarria.- Makurtzen dituzte, niri gaizki nai didatenak, nere gauza guziak, eta ez dute artzen guzietatik bat, bear den eran. Bear ez den

aldetik begirutzen die guziei; ta gaistoak dira gaistoen begietan, ta asmo zimurrez galduak, nere gauzarik onenak ere.- Begitarte on guti ekusten dut nik emen gizartean. Ez didate niri geienak begirutzen ere; ta, begirutzen didaten geienak, begi zorrotzez begirutzen didate, ta saieska bezala.- Eta ez dut ekusten nik, askotan beintzat, ista ta burla, nekezko gogortasuna, ta esker gaistoa besterik munduko geienetatik. Ekusten dezu zuk, gure Jesus maitagarria, zer naigabeak, ortik bati datozkionak!

Eta ekusten dezu bidenabar ez dirala oriek, ez, bakarrik, nik askotan nere baitatik atera bage ekusi oi ditudan ez ekustekoak edo naigabezko gauzak; bada ekusten dezu, zenbat aldiz datozkidan niri, ni, zu galdurik, sulezero bearra nazalako kezka eta beldurrak; eta beldur oriekin batean izan oi ditudala nik, nere eritasunetik, nere lorik ezin-egiñetik, edo zer-egin ez jakinetik, datozkidan naigabeak eta illuntasunak.

Aldi orietan nik nere nekeak zerbait arintzeko, ta, tristuraz betetzen nauten nere pasione asalatuak eskuratzeko, zer ote da, nere Jesus maitagarria nik egin bear dudana?- Zer, baizik len adirazi duguna, Jesus bera bere Sakramentuan, ta nere komunionean nik ongi ta maiz-maiz billatzea: gure Jesus da alabaña,

beraganatzen diran umillak atsegin onez betetzen dituen Jaungoiko-gizona: *qui consolatur humiles*. (v. 6.)

Ala egin uste dut nik, nere Jesus maitagarria, zuk zerorrek nere lan on onetan laguntzen didazula. Lagun zakizkit bada; bai arren, bai!

*Salvum faciet egenum a gladio oris eorum,
et de manu violenti pauperem.*

Job. 5. 15.

Asi ditezke, nai badute gure pasione guziak zakur amurratuen eran batetik bestera: badabiltzke, bai, berak nai badute ortz, soldaduen ezpatak baño zorrotzagoak, agertzen dituztela, ta gure anima gaisoak erdi bi egiteko asmoan, edo guztiz gu galerazi naiez; ar ditzakee gure pasione berak, berak nai dituzten suak eta garrak, iraz, ta bendekuz gure anima gaisoak erreak utzi naiez; baña gure animak berak badoaz, joan bear dutenagana, ta eskatzen badiote, gure Jesus maitagarriari bere laguntza, ez diote egiñen, ez, gaitzik batere, ta isili-eraziko ditu gure Jesusek guziak. Orretarako dago Jesus aldareko bere Sakramentuan;

ta orretara dator gure Jesus beartsu umilletara, edo umill-umilki beren komunioneetan billatzen duten animetara.

A! zorioneko animak, era orretan komuniatzen diranen animak; eta zuek aldi orietan zeren Jesusen eskutik artuko dituzuen ondasunak, eta zeruko grazi-laguntzak!

A! ta gure zoratu-zentzugabeak! Bada ori guzia guk erditsi genezakela, komuniatzen gara aldietan, umilki gu, kontuz gu, ta garbi-garbiro ta bear den eran gu, komuniatzen giñala, ez dugu erdisten guk geren aisola-kabez, ta geren bizitza txar-loi, otz, edo epelagatik!

Orregatik gabilitza gu, gabilitzan eran: ta pasione sutu-galgarrien atzaparretan; ta gabilitza, utsez uts, ta gaizkitik gaizkira!

Au da Jesusen ume maiteen ibillera? Au da, alda-reko Sakramentua zer den dakitenen ibillera? Eta au, gu bezala, bein ta berriz, ta askotan komuniatzen diranen ibillera?

Nor ill da oraindik gosez, ongi nai dion bere Aitari ogia ez eskatzeagatik? Eta nork galtzen du bere burua etsai gaistoen atzaparretan, lagundu nai dion ongille bati itz bi ez erran naiez?- Zu bezain gaizki dabillanak,

orren txarki komuniatzen zaran anima! bada ainbat zere komunioren buruan arkitzen zara zu, zauden eran, ta pasione sutuz ta asaldazioz orren betea, bear bezala eskatu bagez zuk, zere Aita maitari, ta laguntzalle on Jesus maitagarriari bere laguntza ta grazia!

Orobat egin uste dezuz, urrengo zere komunioetan? Ez arren ez!

*Si praestes animae tuas concupiscentias ejus,
faciet te in gaudium inimicis tuis.*

Eccli. 18. 31.

Gogo gaistoak ekartzen ditu baten burura, nor daki zenbat atsegin-bide, ta naikunde lizun galgarri. Baña begira, dio Espiritu Santuak; begira, ez da zer-ibilli orien ondoren; ez da zer oriei lekurik egin zeren animetan, zeren naimenduan, edo borondatean. Leku ori oriei zuek egitera, atsegin txar-labur bat egiñen diozue zuek zeren gogoeta galgarriari; baña atsegin txar, atsekabez ta lotsaz beterikakoa.

Ori zuek orri egin orduko damaturik arkituko zarazte zuek; eta, egin dezutelako berria bana dedin, beldurrez beteak; bada banatzen bada, ikasten dute-

nen artean irrigarri egiñlk geldituko zarazte zuek, eta ondrarik ez dezutela.

Eta zuen lan txarra gogozkoa izan arren, edo niork ekusi bagea; ori zuek egitean, egiten dezue zuen pasione loi-txar-zikiñak nai dutena. Naikunde txar-zikin oriek garaitzen zaituzte zuek, eta gelditzen zarazte orien serbitzari txar-lizun egiñak; eta gero sulezeko guzien istak eta irri-ojuak eraman bearrak.

Au guzia artu nai dezute zuek zeren gain, guti bat emen zere buruak ez nekatzeagatik, eta zeren pasione galgarriei atsegin labur bat egiteagatik? Zuen erogalduegiak!

Ala da, nere Jesus maitagarria, bai, ala da! Eroegialduak, eta bururik ez duten batzuek baizik, ezin zegikeen guk oraindañokoan, edo noizbait beintzat egin izandu duguna, edo guk bazkatu ditugun eran geren pasione galgarri-zikiñak bazkatzea; ta, orain gu alketzen gaituzten anbat lan loi-itsusi egitea!

Eta nondik au guzia guri era onetan, edo onela?- Gu ez komuniatzetik, komuniatu bear genuen aldi guzietan, edo zeren komuniatzen ez giñan gu zuzen, garbiro, umilki, ta bear zen eran, ta bear bezala.

Berebat gertatuko ote da berriz ere, edo emendik aitzina?- Ez nuke nik beintzat nai ori niri agitzea, edo

gertatzea. Eta ez da gertatuko ere, zuk niri, nere Jesus maitagarriak, eman ezkerro, ongi ni komuniatzeko, ta nere etsai lizun galgarri guziak eskuratzeko, bearko dudan zere laguntza ta grazia, Indazu, bada, batere luzatu bage, ta lagun zakizkit orain ziñez erraten:
Nere Jesukristo, etc.

LXXVII.garren OTOITZ-GAIA

ONGI KOMUNIAZTEN DENARI

LAGUNTZEN DIO JESUSEK

BERE ETSAIEN LAN GAISTOAK URRATZEN

Anima batek bekatu larri bat egin ezkerro galdu du zeruko grazia, zeruko bizitza, ta bere Jaungoikoaren adiskidetasuna. Eta baldin sulezeko bere etsaiak eragiten badiozkate anima berari bekatu berriak, bekatu berrietara oit-erazten dutela, egiten diozkate, gaitz orren gain, beste irur lan gaisto edo gaitz ere; oriek dira anima bereko zauri itsusiak, ezkabi izugarriak, eta flaki andiak.

Eta gero anima bera bere konfesioean zeruko graziaren bizitzara ta bere Jaungoikoaren adiskidetasunera itzuliagatik, ez da bertan sendatzen, ongi beintzat, irur bere gaitz edo eritasun izugarri orietatik; gelditzen zaio gure Jesus maitagarriari egiteko au ere, bekatari, Jaungoikoaren grazira itzuli dena komuniatzen den aldietarako.

Baña komuniatzen bada era onetarako bekataria, guztizko bere sendatze au ziñez nai duela, ematen dio (ta anitz luzatu bage) bere animaren guztizko osasu-

na Jesus maitagarriak. Nola uste dezu? Goazen ekus-
tera.

A.
Ongi komuniatzen denari
laguntzen dio
Jesusek bekatuaren zauriak
sendatzen

Gaitzera zenbait denboraz oiturik bizitu den beka-
taria gelditu oi da, ongi gero konfesatuagatik, bere
gorputzeko ezurrak autsirik, edo zauriz ta zuloz bete-
rik gelditu den gizon erdi-ill baten eran. Era onetan
gelditzen den gizon au, igitzen bada dagoen tokitik,
arrastan dabil ta neke andiarekin, dabillen bide piska
ere: baña geienez, ekusirik bere ezer-eza, ta igitze-
tik datorkiona, neke ta oñaze gutiagorekin egon naiez,
geldi-geldirik egon oi da, bere gaistagin gogorak iutzi
zuten tokian: ta norbaitek laster an ari ez laguntzera,
an bertan iltzear da.

Era berekoa da anima bekatari konfesatuberriari
gertatu oi zalon lenbiko lana, ta neke izugarria.

Bekatz bezatu ibilli izandu den, ta gaizkira gaizki oiturik arkitzen den anima, egon oi da bere adimentua ta bere naibidea, edo borondatea, beren erako zauriz agiz beteak daduzkala, edo egon oi da gauz onak ekusteko, Jaungoikoak emanik duen bere barua, bere adimentua, ta ezaguera, lañotan bezala daduzkala, ta, ekusi bear lituken gauzei gutitan, ta guti begiratzen diela.

Eta zer dela, uste dezu zuk, anima gaizki oituari ortik datorkiona?– Zeer? Anima beraren naibidea, naimendua, edo borondatea gauz onetarako lotan gelditzea; ezin billa dezake alabaña ezagutzen ez duena; ta ez du ezagutzen, bere adimentuak agertzen ez diotnik.

An gertatzen zaion denboran erraz, aisa, ta arin joaten zaio anima gaisoari bere gogoa, bear ez diran lanetara: ta aisa gelditzen da anima lan txar orientean, norbaitek ez iratzartzera, edo zenbait izu-aldirekin, edo bere Jaungoikoaren maitagarritasuna garbiri agertzen diola.

Baña nor, edo zein izan oi da, era urrikalgarri onetan arkitzen den animaren iratzartzallea?– Gure Jaungoiko maitagarria, libruz batzuetan, predikariz, ta konfesariz besteetan, ta bertze zenbaitetan illez, biziz,

edo berak obeki dakien eran: ta, zenbait aldiz beintzat, anima beraren komunione ondoan.- Garai, edo adiuntz au, da alabaña orretako, ta anima gaisoaren zauriak sendatzeko, garai guztiz egokia. Au da guri gure Jesusek bere parabola batean adirazten digun egia.

Gizon bat zijoan bein (dio Jesus maitagarriak bere parabolan) jerusalendarren artetik, Jeriko zeritzan erri batera. Lapur zenbaitek, bere bidera aterarik, utzi zuten gizon au erdi illa, ta zuloz, zauriz, eridaz, ta odolez guztiz betea; ta utzi zuten, berekin zeraman guzia kentzen ziotela.- Ukaldikatu zuten, lapurrak utzi zuten toki berean, ta lapur berak iutzi zuten eran egondu zen bere zauri, zulo, ta oñaze guziekin. Samaritar urrikalti bat an agertu artean, apez, edo sazerdote batek lenago ekusi bazuen ere.

Samaritarrak, era artan ura ekusi zuenean, artaz urrikaldurik, egin izandu zion al zuen on guzia. Geldirazi zuen zerion odola; garbitu ziozkan bere zauri ta zulo, edo erida guziak, eta lotu izandu ziozkan bear zen eran, edo bere olioarekin, ta ardo-txortarekin.- Eraman zuen gero ostatu batera bere asto gañean; maneatu zuen an, alik ongiena, ta iutzi zuen au urren-

go bere etor-aldiraño, bere jan-edanetarako, ta senda-gaietako bearko zuena ematen ziola.

Ekusten dezu? Orra bada, gure Jesus maitagarriak, ongi komuniatzen den anima bekatariarekin egin oi duena.- Jerusalem da anima obenik bagea, edo bekatu larrien loirik bage, ta zeruko graziaren osasunarekin dabillena.- Jeriko da bekaturatzen diranen lekua, edo tokia. Bideko lapurrak dira, anima beraren irur etsaiak, eta pasione galgarriak. Pasione etsaiak bear ez den bideren batean artzen badute bidez dabillen anima, betetzen dute bekatuaren zauriz ta zuloz; ta galeratzen diozkate zituen, bere Jaungoikoaren grazia, Espiritu Santuaren zazpi doaiak, birtuteen ondasunak, eta zeruko indar geienak, eta bere irabazi edo merezimentu guziak.

Bizturik eta bizirik, edo zeruko graziarekin utziagatik gero apezak andik igarotzean, edo konfesatzen duenean anima bekatari au, ez diozka kentzen, guztiz beintzat, bekatuen zauri-zuloak, edo barreneko bere eritasunak.

Orretara datorkio aldareko bere Sakramentuan Samaritar bat, edo nork zaitu ez dutenen zaitzallea (ori da itz orrek erran nai duena); edo datorkio Aita eternoaren Seme-Jaungoiko-gizon gure Jesus maitaga-

rria: eta, Samaritar onek, edo gure Jesus maitagarriak ekusten dituenen komuniatzen denaren animara bere etsaiak, bidera aterarik egin izandu diozkaten bekatuen zulo ta zauri arrigarriak urrikaltzen zaio, dena bezala, ta Jaungoikoari dagokan eran.

Ematen dio Jesusek, era orretan dagoen animari bere olioia; edo adirazten diozka len berak berari egiñikako ontarteak, eta orduan berriro egiten diona bere etortzearekin, datorkion bezala, aldareko bere Sakramentuan.

Adirazten diozka Jesus maitagarriak gure Jaungoikoaren izate andia, Esku ta Jakiunde ezin andiagoa, ta beraren maitagarritasuna, ekuste leun-eder onen argiarekin aiena ditzan animak bere buruko lañoak eta lilurazioak, eta igirazi dezan bere biotza, bere Jaun andi-eder-on altsu au maitatzen aritzeko.

Denbora berean ematen dio gure Jesus maitagarriak, ongi, kontuz, ta bear den eran komuniatzen den anima, len bekatuetara oituari bere ardoa, ta oñazebidea, edo agertzen diozka berak len eginikako bekatuari zegozkan nekeak, eternidade guziko suak eta garrak, eta suleko urratze, min, ta kezka arrigarriak; nolerebait bidenabar erraten diola; A zu zere buruaren

galgarri-gaisto, anima zentzugabea! Orra nora bearra ziñan zu, ni zutaz urrikaldu nazan eran ez urrikaltzera!

Zergatik utzi zenuen zuk zere Jerusalem, edo nere grazia, ta adiskidetasuna? Zergatik joan izandu ziñan zu Jeriko-bidez, edo bekatuz bekatu, ta gaizkiz gaizki! Zergatik egiten zenuen zuk, zere etsai amurraruak eta zure pasione sutu-lizunak nai zutena?

Orra ortik zuk atera dezun ondasun andia! Orra nola zauden zu, ta zenbat zauri izugarriekin onara zu edo komunionera, urbiltzen zaranean.

Baldin isiltxorik egoten bada komuniatzen den bere aldietan, len gaizki bizitu zen anima, ekusiko du nola Jesus maitagarriak maneatuko diozkan bere adi-mentuko, ta naibideko zauriak ard-oliozko enplasto guztiz egokiarekin, edo ekusi ditugun onezko ta beldurrezko gauzen zeruko berri onarekin; eta, baldin anima berak berariaz bekatuz berritzen ezpaditu bere zauri berak, anitz luzatu bage, sendatuko dira guziak, eta, eritu ezpaliz bezain ongi geldituko da anima, dio san Zirilok: *in nobis manet Christus, aegrotos curat, collisos reintegrat* (lib. 4. in Ioan, cap. 17.)

Orra Jesusi, ongi komuniatzen den anima bekatarriak zor dion lenbiziko sendaera. Eta orra, orregatik,

Jesus maitagarriari anima berak zor diona! Zorraren atsegiñezkoa! Zorraren on-andi maitagarria!

Askotan artu ote dezu zuk, an aditzen dezun anima, gure Jesusen ontarte ta sendagai on eder au? Bai? Ez dezu beraz utzi zuk zere Jerusalem, edo zere Jaunaren grazia, ta zeruko deretxa, beintzat zure sendatze onetan gure Jesusek bere esku leunak erabilli izandu zituen zure komunione alditik. Ez dezu beraz geroztik zuk egin bekatu berririk batere, larrietatik beintzat?

Bai? Egin dituzu zuk, arrezkero ere, zenbait bekatu berri, oben ta kulpa? Beldur naz, bada, komuniatu ziñala zu zere Jaungoikoaren graziaren bizitzarik bage; edo komuniatu ondoan egondu ziñala zu bazterrei begira, edo Jesusek adirazi nai zizunik aditzen etzenuela; ta elizatik atera ziñala gero zu, zere adimentuko ta naibideko, edo biotzeko zauriak ongi lotu bage, ta odola zeriezula, edo ao-begi-bearriak lurreko gauzetara makartuak zeneramatziela, edo zenekartziela.

Ala da egia, nere Jesus on-maitea! Komuniatu ondoan, egon oi naz, geienetan beintzat, ni, nere asmo ta gogo guzia barraiaturik dadukala, ta zertan nagoen ere oartzen ez nazala; ta ateratzen naz ni elizatik, zure itzetxo bat ere aditu bage, ta elizan sartu

nintzanean bezain otz-galdua.- Orrekin gero nere begi-adimentuak joan oi dira lurreko gauzen ondoren, ta gelditzen naz ni len bezain lañope izugarrian, zeruko zure gauzak ekusteko, ta zu nik ziñez emen maitatzeko.- Beldur naz, au berau gerta dakidan urrengo nere komunioneetan ere, zuk, nere Jesus maitagarria, nere zaurlei ez ematera anitz ozpin-ardorekin, edo izualdi ta beldur biziakin. Egizu zuk orain au, nere Jesus maitagarria, ala badere senda ditezen bekatuaren nere zauriak; bai arren, bai!

B.

Bekatariaren ezkabi izugarria sendatzeko da ongi, ta maiz komuniatzea

1. Gaitz gaistoak ekarri oi du gaistoagoa; ta agitz gaitzago da, dakusazun bezala, gaitz bata ta bestea dituen ongi sendatzea: ta ori da, bekatuz bekatu ibilli den animaren neke ta lan izugarria.

Gaizkitik gaizkira dabillen animak, leneko bere zauriak sendatu bearrean, berritzen ditu zauri berak, berriro bekaturatzen den aldietan; ta bekataria maiz

orretaratzen dela, ta bere zaurien orrenbat berritzerekin, ager-erazten du, ezkabiaren izena eman dakikeon gaitz izugarri guztiz zikin bat, eta kentzea agitz gaitz den gaitza, edo eritasuna.

Zer gaitz, edo zer eritasun dela uste dezu zuk, eritasun gaisto, bekatariari onen bortizki itsasten zaion eritasun edo gaitz-era au?- Au da gaitzerako griña makur bat, eta oitura edo kostunbre gaistoa; ta kostunbre, oitura edo gaitzerako griña makur gure gogo galduak guztiz nai duena; ta orregatik da gaitzerako griña, makurrera, edo oitura, bekatuaren zauria baño agitz izugarriagoa, ta kentzeko agitz gaistoagoa.

Gaitzera gu gerez makurtuak gara geren gaztetasunetik; eta gaitzerako geren griña gaistoarekin arkitzen gara, zakur izteria eizirako bezala. Eizirako diran zakurrak, edo zakur isteriak, gutiren bat azkartzen asi orduko, eizira naiez daude, ta, artarako bidea duten guzietan arrastoan dabilta.

Lendabizirik eragozten bazaie zakur isteriei beren eizi-bidea, ta nai duten beren lan ori, edo zigorrarekin, edo katez ongi loturik etxe zaitzan beti idukitzearekin, edo era bereko zerbait beste gisatara, ez dira gero anbat eizi-zaletzen, edo aisa uzten dute beren eizi guzia. Baña eizira bein ongi zakur oriek oitu ezker,

etzaie kentzen bein ere beren eizira-naia, ta arako beren makurrera, edo griña.

Ala gu ere: geren gaztetasunetik oitzen bagara gaitzetik urrun bizitzera, eliza zaitzera, edo elizako ta deboziozko gauz onetara, aisa zuzentzen degu guk gaitzerako genuen geren makurrera; ta joaten zaizkigu guri gaitzera bage, urteak eta urteak, eta bakan geroz gaitzeratzen gara, edo bein ere ez.

Baña lendabizitik, edo geroiseago oitzen bagara gu gauza gaistoetara, edo oben-kulpetara, aunditzen zaiku guri gaitzerako geren griña, ta makurrera, ta itsasten zaiku andik laster oikura gaistoaren ezkabia; ta guztiz gaitz da geroz geiago onera guk geren biotzak zuzentzea, ta geren adimentu-biotz-animak bear den eran sendatzea, edo gaitzak eta bekatuak bear bezala guk geroz uztea.

Bere bekatuak, eta gaitzera guziak ziñez iutzi nai dituenari agitz laguntzen dio gure Jesus maitagarriak, ongi komuniatzen den bere aldietan; ta, era orretan orrek ori maiz egitera kenduko dio, bai, gure Jesus maitagarri berak bere ezkabi izugarria, ta bekatuak bere aztura gaistoa.

Baña orretarako egin bearko du bekatariak, Jeriko bidean galtzeko zegoenari samaritarrak eragin izandu

ziona; edo bere gorputzaren oin gaiñean (au da, zentzu bageko, gure astoa) eraman beariko du bere anima ostatu on batera; edo, bekaturako bere bide gaisto makurrak utzirik, artu beariko du elizarakoa, toki onetarakoa, ta lagun gaistorik ez den bazterretarakoa.

Eta gero bizi beariko du bere toki on, edo ez-zikin-garri orietan gure Jesusek nai dituen gauza sendatza-lleak, edo bere anima eriaren sendagaiak edo erremedioak zuzen-zuzen egiten dituela.

Au egiten badu, gaizki oiturik dagoen bekatariak; oituko da, gerozko bere aldietan egin beariko dituen gauz onetara. Era orretan erdisten duen bekatariaren oitura onak garaituko ditu bekatari beraren aztura gaistoak, eta geldituko da bekatari len gaizki oituaren anima, len zituen ezkabi izugarriak edo oitura gaistoak bage.

2. Era onetako bekatariaren lenbiziko komunio-nean ken lezake gure Jesus maitagarriak bere bekue-tatik bekatariari gelditu zalon ezkabi lizun, edo oitura gaisto au ta utz lezake bekatari beraren anima on aldera guztiz itzulia.

Ala egin izandu zuen len gure Jesus maitagarri berak san Pedro apostoluarekin; ta ala egin izandu du geroztik beste zenbaitekin ere: ta orain ere ori bera

egin dezakela guri adirazteko da, Jesusek berak, gizartearen biziaren denboran, egin izan duen gauza bat.

Anitz jenderekin arkitzen zen batean, atera zekion gure Jesus maitagarriari bere bidera, ezkabi zikiñez, edo lepraz beterik arkitzen zen gizon bat, eta belaunikaturik, eta bere buruarekin lurra ukitu arterañoako agur andi bat egiten ziola, erran izan du zion; Jauna, zuk zere eskuan dadukazu, nagoen eran ni orain egonagatik, gaur bertan zuk ni sendatzea, edo garbirik uztea.

Urrikaltzen zaio eritari Jesus maitagarria; luzatzen dio bere eskua; ta ukitzean, erraten dio: garbi zaitez bada, ta au Jesusek ari erran orduko, gelditzen da ezkabidun gaisoa batere ezkabirik bage, ta osasun oso-osoarekin.

Berebat egin lezake noiznai gure Jesus maitagarriak bekatarien animako ezkabiarekin ere; baña ez du Jesusek, ez, beti ori egin oi.

Zergatik uste dezu?- Zeren bekatari, animako ezkabidunak, zenbait aldiz komuniatzera joanagatik, joaten ez diran beren sendaera orretarako Jesusek eskatzen duen prestaerarekin: ta zeren nai duen gure Jesus maitagarriak senda ditezen era orretako bekatari ezkabidunak, berak beren buruei laguntzen diela,

lagundu zion bezala orain ekusi dugun gañeko bere ezkabiarekin arkiten zen gizonak.

Au bera egin zuten beste batean beste amar ezkabidunek ere.- Amar ezkabidunek eskatu zioten aldi batez batetan gure Jesus maitagarriari, urrikal zekiela arren, ta senda zitzala guziak: baña urrutitik eskatu zioten au, ta ojuka; ta etzituen ordu berean an oriek sendatu. Zijoazela erran izandu zien, beren osasunaren eske apezetara, edo sazerdotetara.

Artu zuten amar ezkabidunak Jesusek beren osasunerako berezi zien bidea; ta oriek ori beren aldetik egitean, ta beren bidean zebiltzala, gelditu ziran ezkabirik bage guziak. (*Luc. 17. 12.*)

Zabiltza bada, zu ere, Jesusek zuri erakutsirikako bidez, ta birtutez birtute; ta bertan, edo bere-bereala ez izanagatik, galeraziko dizkitzu, bai, azkenerako zere aztura gaistoak, eta geldituko zara zu batere gaitzik bage.

Pozik ibilliko naz ni, nere Jesus maitagarria, zuk nai dezun eran, didazun gero zuk, deritzazunean, orain nik billatzen dudan osasuna: ta ibilliko naz ni alik ongien-ongiena, ta oraindañoko nere pausu galgarriak negarrez urratzen ditudala, ta zuk nai dezun guzia zuzen-zuzen egiten dudala.- Zorionekoa ni, ala bade-

re (ta naiz dela anitz nere komunionearen buruan) erdisten badut nik, nere animan ezkabi gaistorik edo aztura makurrik bage gelditzea: bada ori nik berandui-seago badere erditsi ezkeru, erdisiko dut nere Jaungoikoaren graziaren osasuna; erditsiko dut ongi sendoturik gelditzea, ta, gerozko denboretan gauz on anitz egiteko bidea.- Nere aldetik ezpada utsegiterik nere Jesusek nigandik nai dituen gauzetan, erditsiko dut nik au guzi-guzia; bada prest zaude zu, nere Jesus maitagarria, nik nere komunietan, ta beste orduetan ere, bear bezala eskatzen dizudan aldioro zuk niri emateko, orretarako bearko dudan zure laguntza ta grazia.- Egiñen ote ditut nik gaurgero, oraindaño koan bezala, utsegite berriak?- Beldur naz baiezu nere ondoren ez ibiltzera zu, nere Jesus maitagarria, zere gogargiekin, ta biotz ukaldiekin maiz-maiz ematen didazula. Urrikal zakizkit, bada, ta zabilta era orretan; bai arren, bai!

C.

Ongi komuniatzen denaren flakiak kentzera dator Jesus aldareko bere Sakramentura

Gaizkira, edo biziera gaistora oitzen den bekataria, gelditu oi da elbarri baten eran, gauz onetarako, edo gelditu oi da flaki andiarekin, ta lan onetarako orrenbat gogo, edo gogorik batere ez duela.

Ongi komuniatzen denetan, bere Jesusen eskuetan dago bekataria; ta bere eskuetako bekatari au maneitzen du Jesus maitagarriak, samaritarrak ostatura eraman zuen bere eria bezala; ta samaritarrak ostalariari bezala ematen dio Jesus maitagarriak ongi komuniatzen den bekatariari, urrengo etor-aldiraño, edo lenbiziko bere komunioneña (baldin luzatzen ezpadu geiegi beraren lenbiziko, edo urrengo komunioneak) bearko duena, edo ematen dio Jesusek, bere gauzak zuzen ta bear bezala egiteko, bearko duen bere laguntza ta grazia.

Eta bitarte artan irauten ezpadu bekatariak bere lan onetan, edo bere gauz onetan, ez da flakiaz izain, ez, baizik beraren nagitasunez, beraren alferkeriz, edo beraren berriz bere gaitzera naiez: ta Jesusek, bere komunione onean eman zion laguntzarekin egiten ezpaditu egin bear diran gauzak, edo Jesusen laguntza au aldebat utzirik egiten baditu, egin bear ez diranak, eskergabe gaisto bat izain da, anbat Jesusi zor dion

bekatari txar eri au; ta, Jesus beraren parabola bateko nekazari batzuek bezain galgarri gaistoa.

Bere masti, edo ardantze berri baten jabeak eman izandu zien au zenbait urtetarako nekazari batzuei. Bere denboran jabeak igorri zituen nekazari orietara sari eske bere mutillak; eta igorri zituen, bein ezezik, berriz ta berriz, ta geiagotan ere: baña ardantzea zuten nekazariak esker-gaistoarekin itzultzen ziozkaten jabeari bere mutillak; eta azkeneko aldian illak utzi zituzten jabearen mutill eskale guziak.- Alere etzien jabeak nekazari borrero, edo illtzalle gaistoei gaitzik egin izandu; ta, presondegiren batean oriek sarrerazi, ta urkabean itoak utz erazi lekuan, igorri zien nekazari zordun berei bere Semea, au obeki artuko zutelako ustean.

Baña gizatxar gaistoak, beren nagusiaren edo ardantze-jabearen seme au urrutitik ekusi orduko, ara, erran izandu zuten; ara bere Aitaren ondoren ardantze onetaz jabetu bearra. Ots, bada, ill dezagun ura, ta gurea da geroztik aren mastia, edo aren ardantzea.- Egiten dute beren erran galgarri au; ta, bidera aterarik, iltzen dute beren jaunaren seme maitea.

Orra zein eskergabeak aldi artako nekazari oriek! Eta orra, (ongi oartzen bazara) orietatik bat zu zerori

ere! Bada Jesusen parabolako masti edo ardantze ori zure anima da; ta zure anima orren Jabea, Aita eternoa.

Eman zizun zuri zere Jaungoikoak zere animako ardantze edo masti ori, zuk ongi meneatzen zenuela, ekarri zitzan mats ongi umotuak, eta edari onak Jaungoiko beraren mairako, edo anitz irabazi on ta merezimentu zerurako.- Bidaldu, edo igorri ditu gure Jaungoikoak (eta anitz aldiz alere) jaki ta edari on, edo irabazi ta merezimentu orien eske, batzuetan bere predikariak, eta besteetan zure konfesariak, eta kargudunak: baña esker gaistoa, gogortasuna ta aienazioa baizik eraman ez dute zugandik batak eta besteak.- Igorri zizun Jaungoiko berak zuri len, gizon egiñik, eta geroztik zere komunionean, bere Seme Jaungoiko Jesus maitagarria; ta, zuk ori ongi artu lekuan, eman izandu zenion len zere bekatuz gurutzeko eriotza, geroz, san Pablok dionaz, gurutzeratzen dezu Jaungoiko-seme Jesus bera, gaizki zu komuniatzen zaran aldi guzietan.- Gauza guztiz arrigarria! Zuk zere gauz onetarako dituzun flakiak zuri kendu naiez etortzen zugana zure Jesus maitagarria, zu komuniatzen zaran aldi guzietan; ta bein ere zuk utzi nai ez gauz on orietarako zere flakiak!- Zuri zere lan onetan laguntzera eldu

zure Jesus maitagarria, zukanatzen den aldi orietan; ta zuk, zere Jesus maitagarriaren laguntz indartsu ona artu bearrean, artzen Jesus bera, zere animako gurutzegogorrean, zere bekatuen iltzez josirik uzteko! Auez da eskergabe gaistoaren lan guztiz itsusi-arrigarria?

Ekusten du orain Aita eternoak zure lan gogorgaisto-galgarri au; ta ekusten ditu bidenabar, edo zure langiro errebes onekin batean, len zuk egin izandudituzun era bereko beste guziak ere: ta au guzia batean Aita eternoak ekusi ta ere, isil-isilik dago Aita eternoa, ta ematen ez dizula zuri dagokizun ta ongi-ongi irabazia dadukazun beti-betiko sulezea.

Baña ematen badizu zuri au, lenbiziko bekatutzaren zaranean, baldin artaratzen bazara zu?- Galduanieternidade guzirako!

Ez, Aita eterno maitagarria, ez arren orrelakorik, ez! Ez dut berriz nik egiñen sekulan era orretako bidegaberik, ez. Artuko dut nik, bai, ta pozik alere nere Jesusen laguntza. Egiñen ditut nik, eta zuzen alere, egin bear diran gauza guziak; eta igorriko dizkitzut nik Jesus beraren eskuz guzi-guziak. Barkatu arren oraindañokoa, nere Jaungoiko maitagarria; bai arren, bai!

*Omne caput languidum, omne cor moerens...
vulnus, livor, plaga tumens: non est circumligata,
nec curata modicamine, neque fota oleo.*

Isaiae. 1. 5.

Ai anima gaiso bekataria! a bekatuz beterik arkitzen zaran nere anima! Nik ez dakit nola zauden zu, zauden bezain aisolakabea, ta beldur geiago ez dezula! Ez dezu zuk zere burutik oñetarañokoan, ongi nai dizun zatirik batere: ez dezu zuk, ez, eri ta gaizki ez dadukazunik erdi bat ere.

Zauriz ta zuloz beteak arkitzen dira diranak; eta, gañerakoak baño ere agitz gaizkiago arkitzen dira zure buru-biotzak, edo zure adimentua, ta zure naibidea edo borondatea; bada argi guti du zure adimentuak, eta erdi-itsutua arkitzen da bere Jaunaren gauzak ekusteko; illunbetan bezala dabill, ta beti makur zure naibidea edo naimentua, zure biotza, ta borondatea; ta alakoak dira zure asmoak eta gauza guziak: guziak galduak, eta galgarriak!

Ez dio niork ere bere zaurietan olioiz eman nai zure animari; edo ez du zure animak berak nai eman dezon iñork olioiz, argiz, edo senda-gaiez, bere begiak senda-

tzeko; era artarako zure Jesus zugana urbilduagatik, zu komuniatzen zaran zere aldietan, zere burua jiratzten diozu zuk beste gauzetara, ta ez diozu begiratu nai zuk, Jesus maitagarriak eman nai dizun argi ederrari, ez eta, bere gogargiz agertuko lizkitzun gauzei ere; ta gelditzen zara azkenean zu zere illunbean, ta zere gortasunean.

Orrekin egiten dute zutaz zure etsaiak, berak nai dutena; ta, zure barren guziaz jabeturik, ateratzen dituzte zure anima gaisoan arkitzen dituzten ondasunak, eta uzten dute au bere Jerikorako bidean, edo sulezerakoan, ezer-ez bage, ta zauriz dena, ta zauriz bete-galdua.

Orra zein ederki arkitzen zaran zu, nere anima galduegia! Eta era orretan arkitzen zara zu, zeren zuk berariaz uzten dezun zere Jerusalengo toki garbia, ta artzen dezun zere galbidea, edo, bear ez den jostaketa, itzegitea, jan-edana, jokoia, edo lagun galgarria.- Zere ibillera galgarri ta lagun oriek zuk ez uztera, ez dira sendatuko, ez, zure zauriak; eta galduko zara zu eternidade guzi-guzirako.

Ez arren, nere Jesus maitagarria, ez! Utzi nai ditut arras guziak, nere lan onetan niri zuk laguntzen didazula.- Atoz, bada, nigana; atoz, nere Samaritar, edo

laguntzalle on egiñik aldareko zere Sakramentuan, ta nere komunionean; ta atera nazazu zuk, zuk zerorrek nai dezun tokira. Egin nai dut nik gaurdanik zuk zerorrek nai dezuna, ala badere ni sendaturik gelditzeko, ta zauririk bage; ta gero zure ondoren arin, ta zuzen-zuzen ibiltzeko. Atoz bada, atoz, Jesus maitagarria; bai arren, bai!

*Vae vobis... Quia mundatis quod deforis est calicis...
intus autem pleni estis rapina, et immunditia.*

Matth. 23. 25.

A! ta zenbat sartzen diran elizetan, ta zenbat eta zenbat dabilzan jend-artean, ederki jauntziak, bai, ta garbiro apainduak, baña denbora berean barrendik ustelduak eta zikindu-galduak!

Iduri onekoak dira oriek emengo gizonen begietan; baña zeruko aingeruak begiratu ere nai ez die era orretako jendeei, ta gaude berak Jesusek begitan artuak daduzka; ain beltz itsusi-zikiñak arkitzen dira oriek beren adimentutik borondateraño basterretan, ta beren anima guzi-guzian!

Ezkabi egiñak dirudite jenda-giro oriek, burutik oñetarañoko beren gauza guzietan. Gaitzera guztiz makurtuak arkitzen dira jendagirotan berak, eta aztura gaistoz guztiz lizunduak; eta nork nai dezu zuk artu dezan, era orretako ontzi batean ematen zaion edaria, edo, gisa orretan arkitzen denak egiten duen gauza, naiz dela aintzura, edo iduri guztiz ederrekoa.

Era orretan arkitzen ote zara zu ere! Ala bada, zure urriagarria! Zoaz zu lenbaitlen, zoaz zere konfesioko iturrira. Zoaz zu; baña zoaz damu ederrez jauntzirik, eta bekatuaren loikeri guzia konfesari on baten oñetan uztera; ta zoaz gero, umilki zere komunionean Jesusi eskatzera, garbi zaitzala zere bekatu guzien loietatik, eta, oriek berak zure adimentuan, ta naibidean edo borondatean utzi dizkitzuten aztura gaistoetatik, eta orien sarna itsusi, ta ezkabi izugarrietatik.

Baña artuko ote nau ni nere Jesus Jaungoiko-gizon maitagarriak, anbat aldiz nik ura aserretu dudan bezala, aserretu ondoan?– Baita geiagotan ta geiagotan aserretu bazenu ere, umilki bazoazkio zu, ta berriz era orretako aser-biderik berari ez emateko asmoan.– Gure Jesusen onegia! Pozik joain naz, bada, ni, ta alik lasterrena, orrenbat on ta garbitasun eder nik nere

anima gaisoari emateagatik.- Izan baledi oraingo nere garbiera, bein ere berriz ez galtzeko, biziko nazan nere denbora guzian! Ala gerta dedilla nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

Aprehende arma, et scutum.

Exurge in adjutorium mihi...

dic animae meae: salustua ego sum.

Psal. 34. 2.

Orra nere Jesus maitagarria; orra nola nagoen ni, nere etsai amurratu galduak ni galdu ninduten ezkerro; ta nik neronek bekatu lizunak bekatuen gain egiten nituela, aztura gaistoz beterik eta indarrik bage bezala gelditu nintzanetik!

Malkorrek dira, erortokiak dira, ta galbideak non-nai nik mundu onetan arkitu oi ditudanak; eta emengo toki guziak arkitzen ditut nik, etsai indartsuz guztiz beteak.

Zer dagiket, bada, nik, ni orien eskuetara ezkerro, bakarrik banoa ni ara, ta lagunik bage?- Illa gelditu, edo bekatu berrien zauriz, len baño ere agitz bete-

goa, ta urrengo aldietan zer egiñen ote dudan ez dakidala!

Au gerta ez dakidan niri, nere Jesus maitagarria, urrikari nauzun ezkerro, nauzun bezala, artu zazu zuk orain bertatik niganako bidea; ta atoz laster, niri nere etsaiak garaitzen laguntzera; ta atoz orretarako komunione on garbi batean nere baitara, nere ezer-eza ta gabea alderagotik zuk ekustean, laguntz-indar-suago bat niri ematera.- Zu nerekin, ta nere alde ekusi ezkerro, ez da etsairik, igesiari emain ez dionik; ez da etsairik, nere indargabeari ta flakiari begiratuko dionik; badakite alabaña, nere etsai amurratu gaistokak zuk ongi, ta dezakezun eran niri laguntzera, noiznai nik berak fite ta aisa garai ditzakedala.

Anitz da, bai, nere Jesus maitagarria, nik orain zuri eskatzen dizudan eran, zere laguntz indartsu au ziñez eskatzea; ta ez nintzake trebe ni nere eskaer andi onetarako, nik dakidan bezain ongi ezpaneki, zein emalle luze ona zaran zu, naiz dela len aserreturik iduki zaituztenendako; bada den gaistoeneri ere, bere gaizkiaz ziñez damutzen zaionean, zuri ark ori eskatu ezkerro, bertatik zuk barkatzen diozkatzu bere obenak, bere txarkeriak, eta bekatu guziak; eta ematen diozu,

bere gauzetarako bearko duen zere laguntza ta grazia.

Ori bera da, nik orain zuri eskatzen dizudana, ta eskatzen dizut, erditsiko dudalako uste osoarekin; bada eskatzen dizut, begitan arturik nere oraindañoeko bekatu guziak; eta alik ziñezena erraten dizadala: *Nere Jesukristo Jauna: etc.*

LXXVIII.garren OTOITZ-GAIA

ONGI KOMUNIATZEN DENARI

LAGUNTZEN DIO JESUSEK

BIRTUTEAK IRABAZTEN

Anima bekatariak bere etsaiak aienatzea, anima berak bere pasione galgarriak eskuratzea, bere zauriak sendatzea, ta flakiak uztea, bere gauzak gero bear den eran egiteko, bide onean anima sartzea da: baña, ezer-ez bat bezala da, au guzia, ezpada ibiltzen gero anima, ibilli bear den, eran, ta bere bidez, edo bere gauzak ongi, ta zuzen egiten dituela: bada gañerako guzia lizake, Andaluziako zaldi galant bat ederki prestatu bidera ateratzea bezala, an geldi-geldia, ta arri baten eran idukitzeko.

Zaldia bidez ibiltzeko da; ta anima ibilliera onez birtute eder anitz irabazteko, ta orien lorez bere burua ongi apaintzeko. Animak ori ez egitera, nai dituen beste gauza guziak egiñagatik, galdua da anima.

Bere egiteko au egin nai badu animak, artarako bearko dituen indar guziak emain diozka gure Jesus maitagarriak animan, anima bera ongi komuniatzen den aldi guzietan.

A.

Lirio zuri-ederren erako birtutea irabazten laguntzen dio Jesusek, ongi konuniatzen den animari

1. Gure birtute guziak guztiz edarrak dira gure Jesusen begietan; ta, edozein gure birtute Jesusek ekusi orduko, egiten diozka Jesusek gure animari bere amoriozko begiratzeak; eta bere birtuteak anima birtutedunak ez galtzera, ez ditu Jesusek argandik kenduko bein ere bere begi-gogo-asmoak.

Alere badira guzien artean, zenbait birtute, begi obekin gure Jesusek anima birtute-dunetan ekusi oi dituenak; eta orietatik da lirio zuri ederraren aintzura duen bat.

Birtute au da seigarren mandamentuak eskatzen duen garbiera edo kastidatea: ta kastidatearekin edo garbiera eder onekin arkitzen diran animen artean egon oi da gure Jesus maitagarria naiez, gogoz, ta biotzez, ta egon oi da beti gaez ta egunez, edo anima garbi-eder oriek bere zeruan sarrerazi artean. Ori da anima santak, edo onen izenean Espiritu Santuak,

esaten edo adirazten digun egia: *dilectas meus... pas-*
citur inter lilia, donec aspiret dies... Cant. 2. 16.

Orregatik, beste zenbait birtute irabazten baño
nai-iduri andiago batekin laguntzen dio Jesus maitaga-
rriak animari, birtute zuri eder au irabazten, anima
bera ongi komuniatzen den aldietan, ta beste edozei-
netan, anima berak Jesus artara ezkeru, edo Jesusi
bere laguntza eskatzen dion aldietan. Au guri adirazi
zigun nola-ere-bait Zakarias profetak, erran zigunean,
Jaungoikoaren gauz on-ederra dela, Jaungoikoak bere-
tako artuak daduzkanen ogia, ta ongi komuniatzen
diranen animak aragiaren loi-pitsik bage, ta, aingeru
beren garbitasuna dirudien garbitasun batekin uzten
dituen ardoa: *Fru mentum electorum, et vinum germi-*
nans virgines. Cap. 9. v. 17.

Eta nola besterik egin zezaken gure Jesus maita-
garriak: Jesus denean (den bezala) Jaungoiko-Gizon
ezin garbi-ederragoa; ta nork-nai nai ditu beraren era-
koak bere guziak; eta ez dira ezin garbi-ederragoaren
erakoak, al duten garbitasun ederrarekin arkitzen ez
diran animak.

Baña nola laguntzen ote dio Jesusek ongi komu-
niatzen den animari liriozko garbitasun au, edo bere
kastidatea irabazten.- Jesusek berak bere Sakramen-

tuan egiten duena, edo anark egiten dituenen erako gauzaren batzuek egiteko bear duen laguntza ta grazia anima berari ematen diola.

Baña zer ote da gure Jesusek aldareko bere Sakramentuan egiten duen gauza zuzen au?– Beinik bein goganberrik, edo sospetxarako biderik ematen ez duela, an egotea, edo bear bezalako toki batean, arinkeririk bage, ta aingeruz inguruturik egotea.

Eta orra gure Jesus maitagarriak bere aldareko egoerarekin bere erako anima garbiei beren komunioan erakusten dien lenbiziko gauza; ots txarreko etxe ta lekuetatik urrun bizitzea; jostaketa ariñetan ez sartzea; ta aingeruen erako lagunekin, edo lagun birtutedun on garbiekin, ibiltzea. Erakusten dien gauz eder garbi onetarako, ematen die Jesusek anima berei beren komunioan, gauz au errazki egiteko bearko duten zeruko gogargia, biotz-ukiera, ta bere graziaren laguntza; ta ematen die ori guzia ordu berean, edo bere ordurako.

Zorionekoa ni, baldin nik, nere Jesusen gauz oriez ongi baliaturik, egiten badut, Jesusek berak egiten duenarekin erakutsi didan, ta guztiz ederki dirudien, gauza eder garbi au.

2. Bigarren gauza, gure Jesusek aldareko bere Sakramentuan egiten duena, ta guri, gu ongi ta garbi-ro bizitzeko, eragin nai diguna, da soñekoari dagokana.

Nola jaunzirik arkitzen ote da gure Jesus maitagarria aldareko bere Sakramentuan?– Soñekotxo garbi guztiz merke batekin; ta ongi-ongi estalia.

Eta nola nai du Jesus maitagarriak ibilli ditezen, ongi komuniatzen diran animak?– Nor bere erako, edo berari dagokan soñekoekin, ta garestiagorik edo oberik, egun batez ere, jaunzten ez duela; ta denbora berean agertze zikiñak, edo ekusten duten animen zikingarriak aldebat uzten dituela; baita, ez dagozkan zinta, ta arrotasuneko apaintze guziak ere.– Au ez egi-tera, ez dio Jesusi atsegin egiten bere komunietan, Jesus bera artzen duen animak; gizonei, edo ekusten duten begi ariñei atsegin egiten dio era onetako komuniatzalleak.

Begira egiozu zuk leneko zere ibillerari; ta begira etorkizunari; ta begira orretarako, aldarean Jesusek dadukan egoerari, ta soñekoari.

3. Zer ote da, gure Jesus maitagarriak aldareko bere Sakramentuan egiten duen, ta guri eragin nai digun irurgarren gauza, ark guri orregatik emateko,

animako lirio eder kastidadearen loreak eskatzen duen laguntza?- Bere begiak, bere bearriak, bere miia, ta bere gorputz guzia ongi-ongi gorderik idukitzea da Jesusek aldareko bere Sakramentuan egiten digun, ta guri erakusten digun, irurgarren gauza.

Ez dezu ekusten zein gordeak daduzkan gure Jesusek bere gauza oriek guziak? Ez diozu ekusten zuk, ez; ez eta ekusiko ere bere gorputzeko gauzarik txikiena, orretarako gau ta egun zu beraren Sakramentu orretara begira-begira egonagatik.

A, baña gu ezin gaudezke gisa orretan, egiñen baditugu guk, gure kontura dauden geren gauzak!- Ala da: baña badagikegu guk, gure Jesusek guri bere erakus-aldi onetan eskatzen diguna.

Zer ote da, diozu, Jesusek guri bere egoera estali onekin eskatzen diguna?- Ez begiratzea guk, edo beintzat begira ez egotea gu, gogorazio txarrak, edo oroitzapen liznuak ekarri oi dituzten gauzetara; ta ara begiak itzultzen diranetan, lenbaitlen begi berak andik kentzea, ta denbora berean animaren begiak, edo buru-biotzak, Jaungoiko emalle onagana, beraren laguntza onaren ta zeruko graziaren eske igortzea, edo bidaltzea, oartukabeko, edo berariazko begiratze

ariñetatik datozen oroitzapen lizunak bertan aienatze-ko.

Zer geiago eskatzen ote digu gure Jesusek guri, aldi onetako bere erakuste estali gordearekin?– Guk geren bearriak ongi zaitzea; adi ez ditzaten oriek soñu txar-galgarriak, kanta lizun-ariñak, aragi-kutsuzko itzak eta lausengak; lagun-urkoari ez dagozkan itzketak eta marmariak: eta, ezinbestez aditzen baditugu guk, era orretako zenbait ele ta gauza, ez-aditu guk egitea, ta bertatik, eta batere guk geren gogoan lekurik egin bage, guziak aienatzea.– Ori guzia guk egitera, ez dira zikinduko, ez, gure bearriak; ez eta gure animak ere, alde onetatik beintzat; edo gordeko ditugu guk geren bearriak Jesusen eran, ta gure Jesusek nai bezala.

Geren miia, edo mingaña ere gorde bearko dugu guk, begi-bearriak bezala, ongi komuniatzen garala, guk geren komunione onetan gure Jesus maitagarri-gandik erdisteko, animako birtute zuri garbiak, edo kastidadeak eskatzen duen laguntza ta grazia.

Baña nola gordetzen ote da, Jesusek gordetzen duen eran, gure mii edo mingain au?– Isillik idukitzen dela, itz egin bear ez den denboretan; ta bein ere uzten etzaiola, ongi ez dirudien itzik egiten; ta, alik

ongiena isilerazten duela, gaizki ta ez garbiro darau-sanarena.- Ori egiten duenaren miira, edo mingañera pozik doa, bai, beraren komunionean gure Jesus maitagarria; ta ematen diozka itz onak, bear den ordurako, edo laguntzen dio poz andiarekin Jesusek oriek erraten.

4. Baña ez da aski, ez, au guzia, Jesus maitagarriak guri arrerazi nai digun garbitasunerako, edo liriozko birtute ederrerako. Au irabaziko duen komuniatzalleak gorde bearko ditu garbiro bere gorputza, ta bere buru guzia ere; edo ez dio eman bearko bere buruari zillegi ez diran atsegin txar-loietatik batere: ez du egin bear bein ere ongi ez dirudien ibillerarik, ego-terik, edo ukitzerik; eta ez dio, munduan deni utzi bear, era orretako gauzarik egiten; ez eta egiteko bideratzen ere; ta orretarako iges egin bear du bere alegin guzian, gauz orietara litezkeen begietatik; bada san Gregoriok dionaz, begiratzez ere zikin diteke anima garbia: *etiam aspectu violatur sancta virginitas.*

Au egiten dutenak, len erran ditugun beste gauze-kin batean, gordetzen dituzte beren animen bost ate-leioak, edo kanpoko sentiduak. Eta barreneko beren leioekin berebat egiten dutela, badituzte lirio eder bir-

tute garbi onen sei ostu zuriak (ez ditu geiago liriarik andienak ere); eta idukiko dute atsegin andiarekin Jesus oriei begira.

Zein ote dira barrengo gure leio oriek?- Oriek dira oroitzapena, adimentua, ta naibidea, edo borondatea.

Al-baz ez dezu zuk oroitu bear aragi-kontuz, edo aragiaren lizunkerietarako diran gogorazioz.- Era one-tako oroitzapenik ez datorkizun, edo, etortzen badira, guziak arras zuk eta lenbaitlen, aienatzeko, adimentuko begiz zuk, begiratuko, diezu zere Jaungoiko maitagarriaren edertasunari, zere bekatu lizunen itsustasunari, ta, zere bekatu berei darraizten sulezeko neke arrigarri; zere neke-bekatuak begitan ziñez arturik, asi zaitezzen zu naiez ta biotzez zere Jauna billatzen; ta, zere Jaun au zuk ziñez maitatzen dezula, erditsi dezazun zere komunioneetan, ta beste zenbait aldiz, garbi-garbiro bizitzeko bearko dezun Jesusen laguntza ta grazia.

Au ez da, ez, gure gogo gaistoak, eta loiezko gorputzak nai dutena: baña au da, au, gure Jesus garbi-garbi-maitagarriak nai duena: au da, au, gure Jesusen pozezko lagunzak bere alde dituen gauza; ta, au, guri ongien-ongien dagokiguna, ta eternidade guzi-guzian

gu, gure Jesus gurekin dugula, atsegin-kontentuz beterik iduki gaitzaken gauza.

Eta ez naz ni, guziगतिक ere, artara saiatako?– Bai, ta nere lan orretan guzian gure Jesusi atsegin egi-tea, beste ondasunik ezpanu ere: bada ori guzia, ta eun milla milloi bider geiago ta geiago ere zor diot nik nere Jesus maitagarriari, Aldarean berak erakusten didan bere ongi naiगतिक, eta ezin kont-al adiña bere beste ontartegatik ere.

Jesusek berak lagun dizadala, guzia zuzen, ta gar-biro beti nik egiten. Bai arren bai!

B.

**Arrosa gorri-ederraren
erako birtutea,
ta gañerakoak irabazten,
laguntzen dio Jesusek
ongi komuniatzen den animari**

Anitz nai dio gure Jesusek, ekusi dugun bezala, liriozko birtutearekin, edo kastidade garbiarekin arki-tzen den arimari; ta gure Jesusek oni anbat ez nai iza-

tera, ez lizake biziko Jesus gogoz ta biotzez, bizi den eran, era orretako animen artean.

Baña baldinbere birtute zuri eder orrekin batean, badu anima berak, arrosa gorri-ederraren idurikoa, edo karidatea deitzen zaion, gure Jaungoikoaren amoriozko birtutea, agitz eta agitz maiteago du Jesusek anima: birtute au da alabaña, birtute guzien erre-giña bezala, ta gañerako birtute guziak berekin dakartzien birtutea. Eta orregatik Jesusek bere poz andiarekin laguntzen dio ongi komuniatzen den animari, amoriozko birtute gorri-eder au irabazten.

Arrosazko birtute eder au, edo karidatea, da gure Jaungoiko maitagarriari guk ongi nai izatea, ta gure Jaungoiko bera biotzez guk zinki ta guztiz maitatzea; ta era orretan guk geren Jaungoiko bera maitatzea, zeren den, den bezalakoa; edo zeren den ezinobea, ezin-ongilleagoa, ezin-andiagoa, ezin-ederragoa, ezin-jakintsuagoa, ta (itz bian erran dezagun erran-al guziguzia), zeren den ezin-maitagarriagoa; ta guk geren Jaungoiko ezin maitagarriago au maitatzea, atsegin andi bat artzen dugula, zeren bere baitan, ta beretzat dituen gure Jaungoiko guztiz maitagarri onek, izan ditezkeen gauz on, ta ondasun guzi-guziak: eta maitatzea guk geren Jaungoiko onen maitagarri au, geren

buruak ederki nekatzen ditugula, gure maitatze onek, edo gure Jaungoikoaren amoreak eragiten dituen nekezko lanekin.

Izan ote dezu zuk oraindañokoan amoriozko birtute gorri eder au? Maitatu izandu ote dezu zuk zere Jaungoiko maitagarria, maitaera eder-garbi-zuzen onetaz? Egin izandu ote dituzu zuk orretarako diran, ta maitatze orretatik datozen birtutezko zere gauzak?

Egin ezpadituzu, ez da izandu, ez, orretan zuri Jesusek ez lagundu naiez; bada guztiz prest arkitzen da beti gure Jesus maitagarria, ongi komuniatzen den animari, orretan laguntzeko, ta anima berak nai duela, lagunduko dio, nai ta atsegin andiarekin; nai du alabaña, ta atsegin andia du gure Jesus maitagarriak gu ekustean gure Jaungoikoaren gauza zuzen-ederretan.

Zer gauz ote dira gure Jaungoikoaren maitatze ederrak eragin oi dituen, nekezko gure gauz oriek? Jaungoiko berari dagozkanak batzuek; eta gañerakoak lagun-urkoarenak. Ekus ditzagun bein Jaungoikoari dagozkanak.

2. Gure Jaungoikoaren maitatze ederrak eskatzen dituen, ta gure Jaungoikoari dagozkan, gauzak dira, Jaungoiko beraren amoreari amorez erantzutea, ta

Jaungoikoaren amore onek eskatzen dituen gauzak egitea.

Zer gauza ote dira gure Jaungoikoaren amore onek eskatzen dituen gauz oriek?- Igandean igandekoak, astean astekoak, orduan ordukoak, eta aldian aldikoak.

Guziak zuzen egiteko, baditu karidadeak birtute lagunak; eta birtute bakoitza, bere gauzetarako, bear bezalakoa. Lenbizikoa da fedea, edo siñistea.

Egin nai badituzu zuk, zure karidadeak, edo zere Jaungoikoaren amoreak eskatzen dituen gauza guziak, gogoan erabili bear ko dezu zuk geienean, edo beintzat askotan ta maiz, zere Jaun ongille-maitari andia, zeruko argiarekin ekusteko zuk Jaun oni zor diozuna, ta zor diozunari eranzuteko egin bear ko dezu-na.- Zere Jaunaren zure gogoratze au, zure gogoratz oni darraikon zeruko argiz beste gauzak ekustea, siniste onaten, edo fedearen lanak dira: ta orregatik zeruko siñiste on au, edo siñisterako birtutea, edo fedea, da karidadearen aldetik bein ere, lurrean deño, kentzen ez den lenbiziko birtute-laguna.- Fede berak, edo zeruko siñiste onek agertzen du, bertze gauzen artean, karidadeak eskatzen dituen gauzak egiteko, bear ko dugula guk geren Jaunaren laguntza, ta grazia;

baña Jaunak berak emain dizkigula noiz ere-nai oriek, umilki guk, eta bear den eran eskatu ezkeru.

Ala gertatuko delako ustea, karidadearen bigarren birtute-lagun esperantzaren egitekoa da.

Siñiste onen, ta ustearen ondoren datoz bertze egitego, ta nekezko lan, karidadeak eskatzen dituenak. Orietatik dira jai-oroko, ta igandeetako mezak, eta egun orietako gañerako gauz onak, aldian aldiazko konfesa-komekatzeak, eta etsaiaren tent-aldietan egin bear diran gauzak, aldi orietan bear ez den gauzarik ez egiteko.- Karidade berak eskatzen dituen nekezko gauzetatik dira goizetik arratseraño kontuz, ta debotki bizitzea; ta bizitzea geren asmo-gogorazio, ta gañerako geren gauza guziak, gure Jaungoiko maitagarriagana zuzentzen ditugula, ta gure Jaungoiko beraren legeak eskatzen dituen guzietatik bat ere uzten ez dugula.

Au guzia, ta beste anitz gauza ere egin bearuko ditu, bere Jaungoikoari diozkan zorrak aterako dituenak, edo bere Jaungoiko bera bear bezala, ta beste gauza guziak baño maiteago duenak.

Eta ekusten dezu zenbat diran, edo guztiz andiak dirala, au egiteak berak eskatzen dituen nekeak; bada eskatzen ditu, besteen artean, anitz pazienza, anitz

ildura ta mortifikazioe; anitz damu ta urriki, anitz otoitz eta debozioe.- Oriek egiten ez dituenak, egiten ez ditu, bere Jaungoiko maitagarria ziñez ta bear bezala maitatzeko, egin bear dituen nekezko lanak: eta, egiten dituenak ere, egiten ditu, orretarako diran ta karidadearekin dabilzan birtutez, ta graziarekin esku-oñak bezala diran lagunez baliatzen dela.

Karidadeari, bada, ta karidadearen birtute lagun guziei beren anditzea, ta indar berriak ematera dator Jesus maitagarria aldareko bere Sakramentuan komuniatzen denagana.- Bai (dio Konzilio Trentokoak) bai, or arkitzen da nire Jaungoiko birtute guzien emallea: *in Eucharistia ipse Sanctitatis auctor... est* (sess. 13. cap. 3.); ta orrara dator onaratzen diran guziei anditze ta indar andiak eman naiez: ta artzen ezpadituzu zuk zu komuniatzen zaran aldietan, zu prestatu bagez izanen da; ta orregatik zuk zerorrek nai dezula.

Ekusten dezu zein andia den gure erakeria! Gure Jesusek lagundu nai guri geren biotzak apaintzen bere karidade ederrez, ta birtute guzien soñekoz, ta guk ez nai gure Jesusen laguntza ta birtuteen apaintz!- Ez nai guk, ez; bada guk ori nai izatera, naiko genuke geren aldetik, orretarako eskatzen zaikun lana ta neke guzia; edo kontuz ta zuzen bizitzea, eme-emeki, ta

bear den eran emengo kezka, eta geren barreneko naigabe guziak eramatea; debotki, ongi, ta mugaz, edo garai onez guk geren gauzak egitea; ederki pres-taturik, eta maiz, edo usu-usu gu komuniatzea; ta guk geren gauza bakoitza bere adiuntzan, bere orduan, ta zuzen-zuzen egitea.

Baña ori da, osoro beintzat guk bein ere, edo anitz alditan nai izandu ez duguna: ta orregatik ez dugu guk bitarte orretan ziñez nai izandu arrosaren antzako, edo aintzurako birtute gorri-eder karidatea, edo gauza guzien gañetik guk geren Jaungoiko maitagarria maitatzea: birtute eder au alabaña neke-lan onen artean arkitzen da arros-gorria arantz artean bezala.

Iraun bear ote du emendik atziña, oraindño nere erakeriak?– Ez baldinbere! Ez arren, nere Jesus maitagarria! Nik gaurdanik artu uste dut, oraindño-koan ez bezala, zure esku-laguntza ta grazia. Nik gaurdanik egin uste dut (dena dela), zuk nigandik nai dezuna: ta ori nik gaurdanik zuzen egitera, irabaziko ditut nik nere Jaungoiko maitagarria zinki ta bear den eran maitatzea, ta nere Jaungoikoaren maitatze oni dagokan birtute-salla. Baita geiago ta geiago ere. Ala gerta dedilla bai arren, bai!

3. Baña zer ote da guk geren Jaungoikoa era onetan maitatze onekin, ta maitatze oni dagozkan birtuteekin batean, irabaz dezakeguna?

Ori da guk elkar maitatzea, Jesusek gu maitatu ginduzen eran; ta ori da guk geren Jaungoikoa ziñez, ta bear den eran, maitatze orretatik guri datorkiguna.

Beren Jaungoikoa ziñez ta bear bezala maite dute-nak, maite dute, Jaungoiko beragatik, eta zeren ala nai duen gure Jaungoiko maitatuak, lagun urkoa ere, edo beste edozein, dena dela au, ta naiz dela maitatzalle beraren etsaia; bada gu geren etsaiak ere maitatzera beartuak gaude gure Jesus maitagarriaren Legez, ta manuz (*hoc est praeceptum meum, ut diligatis invicem... Dilgite inimicos vestros*); ta bere Jaungoikoa maite duenak, egiten ditu Jaungoiko beraren manu, lege, ta agintze guziak.

Guk, Jesusek gu maitatu gaituen eran elkar maitatzeko, agertu bear ko ditugu, bideak dakarren aldie-tan, elkarganako ongi naia ta amorea.

Nola ote, zer bidez, edo zer eran?- Egiñaz guk elkarri begitarte on-garbiak: lagunduz guk elkarri bein beren animako gauzetan, ta gero lurrekoetan, orien bearrak edo premiak, ori gugandik, eskatzen due-nean.

Laguntzen zaio bati bere animako gauzetan, ater eraziz bere bide gaistotik au, an dabillenean, edo an sarturik arkitzen denean. Berari erakutsiz ark orduan jakin bear dituen gauzak; eta ari berari eragiten zaizkela, ark berak bere aleginean egin bearrak diran gauzak.- Eta lurreko gauzetan laguntzen zaio lagun urko berari, edo proximoari, ari emanaz, beraren gabeak edo premiak eskatzen duen gauza, edo gauzaren irabazbidea; emalle onak orregatik ekusi bearko balu ere zerbait uts, kezka, ta neke; baita esker gaistoak, eta furrustadak argandik artuko dituela, baleki ere.

Bada ori guzia, ta anitz geiago egin izandu zuen gure Jesus maitagarriak gure amorioz, ta guri elkar onesten erakutsi naiez: eraman zituen alabaña gure Jesus maitagarriak, guk gerok dakigun adiña neke ta tormentu; ta eraman zituen bere neke tormentu guziak, guk dakigun bezain emeki; ta bere neke-tormentu guzien buruan eman izandu zuen gurutze batean iltzez josirik bere bizi guzia, gure guzien ta gañerako bere etsaien onerako.

Era onetan elkar guk oneste onek neke andiak dakartzi. Ala da; baña andiagoak dira dakartzien irabaziak; bada dakartzi eternidade guziko atseginkontentuak, eta animaren birtute ta apaindura ederrak.

Andiskoteak izanagatik, bada, gure elkar oneste edo maitatze onen nekeak, neke Jesusek arinduko dizkigunak dira, guk geren komunietan Jesusi eskatu ezkerorretarako bear den laguntza ta grazia; bada badu gure Jaun maitagarriak orretarako, len adirazi ditugun gauzetarako duen esku berbera; baita guri lagundu nai andi bat ere.

Zoazkio, bada, maiztxo; ta zoaz beti alik ongiena. Egizu zuk zere komunietan, aldi orietarako zuri adirazi zaitzuna: ta geldituko da zure anima lirioz, arrosez, ta lor-aldi guziz beterik arkitzen den baratze baten eran, birtutez ta birtutez apaindua, ta Jesusen nai ta amore guziez jabetua. Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

*Infelix ego homo, quis me liberabit
de corpore mortis hujus?*

(Interl. de dominio carnis, in qua mors)

gratia Dei per Jesum Christum

Dominum nostrum.

Rom. 7.

Nornai arriturik uzteko aski den gauza da, aldi onetan guk san Pablogandik ikasten duguna! San Pablo gure Jaungoiko maitagarriaren apostolua zen. Graziaz beterik arkitzen zen gizona zen san Pablo. Gure Jaungoiko guztiz andi emalle onaren izena ta lege garbia bazter guzietan banatzen ari zen gizona zen san Pablo, ta orretarako Jesusek berak berezirika-ko gizon andia Irurgarrren zeruraño igan zen, ta anango berriz ta jakiundez beterik gelditu zen gizona san Pablo; ta anitz gauz arrigarri bere Jaunaren ize-
nean egiñikako, ta egunoro, edo bear zen aldi guzie-
tan, egiten zituen gizona zen san Pablo; ta ala ere ara-
zer dion, bere barrengo neke ta aragiaren tentuez
mintzo den batean: Gizonaren triste-urrikalgarria ni!
Eta nik nere aragiaren aldetik dakusadana! Nork ni
aterako nau nere aragi onen atzapar zikin-galgarrieta-
tik, edo onen tentu, tirrikazio, ta naikunde lizunetatik?
Nork, ezpada nere Jesus maitagarriak bere graziaren
laguntza garbiarekin!

Ekusten dezu, zein laguntzalle ona den gure Jesus maitagarria, aragiaren gogoera galdu, asmo lizun, ta lan loi-galgarriak gal-erazteko?- Ekusten dezu zein ederki laguntzen dion gure Jesus maitagarriak edozein animari, beretzat irabazten, lirio zuri ederraren aintzu-

ra duen birtute, gorputz-animen garbitzalle kastidadea?- Ekusten dezu zein ezer-ezak garan gu, guk irabazteko, norbaitek laguntzen ez digula era orretako birtute zuri kastidadea: bada ez gara gu orretarako anitz legoaz ere, san Pablo diñakoak; eta san Pablo zen, berak dionaz, birtute ori erdisteko ain ezer-eza, ta indarririk bagea?

Zer da, bada, guk orain birtute beraren irabazte eder beragatik egin dezakeguna? Zer, baizik san Pablarena; edo iges egitea guk, san Pablaren eran, geren buruagandik Jesus onaren oñetara; komuniatu gu alik maizena, ta aldi-an-aldian baño umilkiago, ta agitz obeki; ta eskatu gero guk gure Jesus maitagarriari bere laguntza ta grazia.

Eroegia ni, nik au ez egitera; ta eroegi, nere buruaren galgarri bururik bagekoa!

*Qui habet mandata mea, et servat ea,
ille est qui diligit me.*

Joan 24. 21.

Zer dela deritzazu zuk gure animako arros eder, amoriozko birtutea, edo guk ziñez eta gauza guzien

gañetik geren Jaungoikoa onestea, ta maitatzea? Zer? Gu, geren biotz-begiak negarrez urtuak daduzkagula gelditzea?- Ez, ez; bada ori guzia egiten dute beren senarra, beren umea, edo maite duten beste beren gauzaren bat galdu ondoan, batere Jauna maite ez dutenak ere.

Zer bada?- Gure Jesusek diona, edo gure Jaunaren legeko gauzetan gu, batere uts egin bage, zuzen ibiltzea; edo guk geren Jaunari zor diogun agur, umillera, ta serbitzu guzia zuzen egitea.

Nork daki zenbat otz-bero, kezka, ta naigabe-alkekizun, esker gaisto, ta neke gogor ekarri oi dituen gure legeko egiteko onek!- Guziak guk zuzen egitera, edo egiten baditugu, irabaziko ditugu geren Jaunaren maitatze ederrarekin batean, bertze anitz eta anitz birtute ere, ta geldituko da gure Jaunaren begietan ongi edertua gure anima.- Zorionekoak, orretarako bear den guzia zuzen egiten duten animak! Zorionekoak, era orretan birtutez apaindurik arkitzen diranak!

Arkituko ote naz ni ere orien eran egunen batean?- Beldur naz ezetz, oraindanoan baño kontuzago ez egitera nik nere legeko gauzak.- Baña ezin egin ditzaket nik nere gauza oriek ongi, kontuz, ta bear bezala, nik neronek nai dudala, ta nere Jesus

maitagarriaren laguntzarekin batean?– Ori ezin uka diteke.

Ongi da, bada: egin nai ditut nik guzi-guziak, nere Jesus maitagarriak nere lan onetan niri laguntzen didala.– Bai nere Jaungoiko maitea, bai: Besterik izain da, bai, datozen denboretan. Ez dut nik galduko, ez, oraindano bezala onetako sasoia ta denbora. Nere neke guzia nai dut nik eraman, zu beti nik maite zaitudala, ta nere gauza guziak egin nai ditut nik zure lege garbi zuzenak eskatzen dituen eran. Ori da, bai, zuk orain nigandik nai dezuna; ta ori bera orain niri dagokidana. Indazu orain niri zuk zerorrek, orretarako bearko dudan zure laguntza ta grazia: bai arren, bai!

*In hoc cognoscent omnes,
quia discipuli mei estis,
si dilectionem habueritis ad incicem.*

Joan. 13. 35.

Nai dezue zuek, dio gure Jesus maitagarriak; nai dezue, ezagu zaitzaten zuek, zuek ekusten zaituzten jendeak? Nai dezue zuek, ezagu dezaten ekusten zai-

tuzten guziak, nereak zaraztela zuek, eta nere legekoak, eta nere ume, nik ongi maite ditudanak?

Ez dezue, bada, zuek orretarako bear, elkar maitatzea baizik. Zuen elkar maitatzea ori ekusi ezker, ekusten zaituzten guziak bertan errain dute, nereak zaraztela zuek, eta nere legekoak; bada, nere legekoena da, nik zuek maitatu zaituztedan bezala, ta era orretan zuek elkar maitatzea; edo elkar maitatzea zuek, batere begiratu bage batek besteari egin diozkatzen txarkerietara, ta jasotzen ez dituzuela, zeren gain edo kontra aditu dituzuen itz dollor-arin gaizki erranak; eta, al dezuten ona, zeren bear-aldietan elkarri egiten diozuela; ori da alabaña, nik nere etsai gogorrekin ta mundu guziarekin len egin izandu nuena; ta oni, nik len egin izandua, jaio nintzanetik ni, nere etsaiak gurutze batean illik utzi ninduten artean.

Ekusten dezue, ta aditzen, guri guziori gure Jesus maitagarriak aldi onetan erraten, edo lanez ta itzez erakusten diguna?

Ongi: ta norenak izan nai ote dezue zuek? Maite dituzue zuek, edo ongi nai diezue zuek, zeren Jaungoikoaren izenean, ta zeruko amore garbiz munduko guziei? Baita begitan arturik zaduzkaten zeren auzokoei ere? Txarkeri zenbait, eta bidegabe andiak egin

izandu dizkitzutenei? Itz onk erraten ez dizuten zeren senideei, aurrideei, ta lagun-kideei? Ez dena asmatu dizuten, ta billatzen zenuzten ezkontza, irabazbidea, edo zerbait ondasun galerazi dizutenei; eta andik, edo emendik naigaberen bat edo beste eman izandu dizutenei ere?

Ala izatera, Jesusen ume maite on karidadedunetatik zarazte zuek, eta beraren lege garbi-ederrekoak.

Baña, ori zuek egin bearrean, zaputz gelditzen bazarazte, nai etzenuzten itz bat aditu orduko; esker gabez erantzuten badiozue zuek, gaizkiren bat egin izandu, edo asmatu zizutenei, etzarazte zuek, zeren Jesusen ume on maite orietatik, ez. Etzarazte zuek ez, Jesus beraren laguntzaz baliatzen dirala, birtute ederrak irabazten dituzten animetatik; eta etzarazte zuek, zeruko bidea zuzen daramaten karidadedun onetatik, ez.

Utzazue bada zuek, orain badere, gaizki daramazutena; eta, zeruko bide zuzenez, egizue Jesusen ume onak egiten dutena, ta eska zaiozue zuek zeren Jesus maitagarriari lenago ez egiñaz, ta len egiñikako uts guzien barkamentua, ziñez erraten diozutela: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LXXIX.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEK ALDARATZEAN,

GURI ONGI NAIEZ,

EGITEN DUENA

Ongi nai dizula norbaitek zuri erranagatik, ez diozu zuk siñisten, baldin ark, ori egin dezakela, laguntzen ezpadizu zuri, bideak dakarrenean, ta zure premietan. Baña ori ark orduan, ta era bereko beste aldietan zurekin egitera, bertan siñisten dezu zuk, ongi nai dizula zuri, itzik ark ez atereagatik, zuri berak nai, edo ez naiaren gañean.

Au onela den ezkerro (den bezala), ez dezu zuk, gure Jesusen alderatzean, gugatik Jesusek egiten dituen gauzetara begiratzea baizik, Jesusen guganako nai andia, ta amore bazterrik bagekoa zuk ezagutzeke. Goazen onetarako, Jesusen gauz orietatik zenbait badere ekustera.

A.

Laur gauz on arrigarri, Jesusek, aldareratzean gure onerako egiten dituenak

1. Dabidek bein, aldareko Sakramententuari urrutitik begira zegokala; ara, zion, ara janaria, Jaungoikok bere beldurtientzat, eta anima garbiendako Elizan utzia; Ara gure Jaun guztiz urrikaltiarene gauz arrigarritz, ekuskariz, edo milagroz beterik arkitzen den janaria: *memoriam fecit mirabilium suorum misericors, et miserator Dominus.* (Ps. 110. 4)

Egia den, edo ez, Dabidek aldi onetan diona, zuk zerorrek errain didazu, ark or adirazten dituen milagro orietatik zenbait ekusi ondoan.

Eta ekusi zazu lenbiziko lekuan aldareko Sakramentuko janari au bera. Ez dute orrelakorik egiten, ez zure sukaldariak, eta barazkalgiñak.

Zer janari dela, deritzazu zuk, ore zatitxoa, edo ogi piska dirudien aldareko gure janari ori?– Ori da, bada, iduriz ogi-apur mee biribil bat; baña izatez Aita Eternoaren Seme-Jaungoiko, Gizon egiña.– Apezak konsagrazioko bere itzak erran orduko, or arkitzen da aldareko Sakramentuan, zein ere andia den, gure Jesus maitagarriaren gorputza; ta arkitzen da, gure amorez

berak len isuri zuen odol guzia bere zañetan dadukala.

Or arkitzen da ordu beretik aldareko Sakramentu batean Jaungoiko-gizon Jesus beraren anima; ta anima, gure Jaun guztiz altsuaren eskuak egin izandu duten gauzarik ederrena; ta arkitzen da or gure Jesusen anima eder au graziaz, birtutez, ta zeruko doaiez ezin-geiagoraño apaindua.

Or bertan aldareko Sakramentuan arkitzen da Jaungoikoaren Semetasuna, ta or bidenabar arkitzen da Semetasun onekin bat den Jaungoikotasuna; baita Jaungoikotasunarekin bat diran Aitasuna, ta Espiritutasuna ere; edo (itz bitara guzia bil dezadan) or aldareko Sakramentuan arkitzen dira, ogi-iduri, edo aintzur txikipean gure Jesusen gorpuz-odolak, Jesus beraren gizatasuna, ta gure Jaungoiko guzi-guzia.

Ekusi dezu zuk, edo ekusi diteke, era onetako janaririk, eta onenbat indar ta izate, edo sustanzia duen bokadurik? Manea zezaken gure Jaunari andi au, guzia dezaken gure Jaungoiko berak baizik! Ez da aldareko gure janari au guztiz arrigarrizko ekuskaria? Ez da au milagro ezin andiagoa; ta milagro, ez gizonak, eta ez aingeruak asma zezakena?

Ala da, bai: baña ezin jakin genezake guk zertako ote den ogi-iduriaren, edo ogi-aintzuraren, ta Jaungoiko-gizonaren elkarganatze arrigarrizko, ta janari andi ori?

Bai: Ori da gugana gure Jesus etortzeko, ta gure barrenera gure Jesus sartzeagatik, emen bertatik guri laguntzera, edo emen bertan guri ematera, guk geren etsaiak garaitzeko, geren pasione galgarriak eskurtzelo, birtute guziak guk irabazteko, geren animak guk apaintzeko; ta bidenabar gloria, ta gloria irabazteko, bearko ditugun beraren esku, grazi, ta laguntza guziak.

Andia da, gure Jesus maitagarria, ezin uka diteke, zere etorer onetan, zuk agertzen dezun guganako ongi naia, ta amorea! Ez dut orretara nik oraindañokotan, bear bezala beintzat, begiratu!

Bein, ta berriz, ta askotan ere ekusi bear dut ori nik, eta aldioro kontuzago, ta astiroago, zuri orretan nik zor dizudan zere niganako amorearen anditasuna nola-ere-bait ezagutzeko; ta zure amore andi oni al dudan eran erantzuteko.

Zorionekoa ni, nik au zuzen egitera! Eta egiten badut au ala nik, nik ekusiko ditut, bai beste arrigarrizko ekuskariak, eta zure milagroak ere.

2. Aldareko Sakramentu bereko bigarren ekuskarri arrigarria, edo milagroa da, konsagrazioko itzekin, Apezaren eskuetako ogia gure Jesusen gorputz egiñik gelditzea, ogitik ogi-aintzura, ta iduria besterik gelditzen ez zaiola.

Ori da, paretak eta arrimoak erori ondoan, tellatu utsa, ezeri, edo deusi lotu bage, ta niork ez dadukala, bere tokian, edo aize gañean gelditzea bezala.- Tella-tuaren era onetako geldiera au gure Jaungoikoaren milagroa lizake, bada lan au Jaungoiko berak baizik, ezin dagiken lana da, ta gisa bereko lana da, ta milagro arrigarria ogiaren zurtasuna, ta gañerako ogi-iduri, edo aintzura utsa aldareko Sakramentuan, bat ere ogi kutsurik bage gelditzea.

Zertako ote da gure Jaungoikoak aldareko bere Sakramentu onetan egiten duen arrigarrizko bigarren ekuskari, ta mirakulu au?

Ori da (baldin zuk ezpadakizu) guri geren komunioneetarako beldur guzia kendu naiez, edo zer egiten dugun ezpageneki bezala, ar dezagun guk aoaren idik-aldi batean gure Jaungoiko-gizon-Jesus maitagarri guzia.

Orretarako gordetzen da gure Jesus guzia ogi-iduripean, edo ogi apur baten aintzuran, ta sartzen da

gure barrenean gure Jaungoiko-gizon Jesus bera ogi-bokadu baten eran.

Eta, ala ez etortzera gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria, nor trebe izain lizake, komunione batean gure Jesusen aragi-odol, ta gorputz guzia, ta orrekin batean beraren anima, ta oni ditxezkon Jaungoikotazuna, ta Jaungoiko guzi-guzia batetan artzeko?

Ekusten dezu ekuskari zein andi-eder arrigarria den gure Jesus maitagarriak bere gordeera onetan egiten duen mirakulua, edo milagroa! Ekusten dezu zertako den, gure Jesusen lan berri, Jesusek berak baizik ezin zegiken au; edo ekusten dezu gure onerako dela au guzia, ta Jesusek, gu ondurik utzi naiez, edo gu bere birtutez guztiz apaindurik iuzteko!- Eta bide-nabar ekusten dezu zuk, gure Jesusen lan andi onek zugandik eskatzen duen esker-aldia, edo biziera. Zein garbi-ona au, ta zein umil-birtutetsua, al dezun eran zuk erantzun bear badiozu, besteri ezpaliz ere, aldi onetan Jesusek egin dizun ekuskari, ta milagro ontartetsuari, edo zeruko ondasunen ekarleari!

Erantzun izandu ote diozu zuk oni oraindañokoan al bezain ongi, bear zen eran, zuzen-zuzen ta guztiz garbiro?

A nere Jesus maitagarria! Ez, eta bear zen laurdenaren laurdenik ere: ta ori nik egin bearrean, egin izandu ditut, ni komuniatzen asi nintzan egunetik egungo eguneraño, zuk zerorrek dakizun adiña gaistakeri, ta bekatu! Orra zein galduak oraindaño nore ibillerak! Orra zein eskergabe-txarrak!

3. Irurgarren gauz ekuskari, ta Jesusen aldareko mirakuloa, edo milagroa da, gu komuniatzen garan aldietan gurekin Jesusek egiten duen gauza bat. Zer ote?– Ogiaren iduri, edo aintzura utsarekin gure gorputzari Jesusek ematea, ogiak eman bear ziozkan indar guziak: bada komunioneke Kopoi andi batean dauden osti konsagratu guziak batek janagatik, ez luke janen ogi-apur bat ere; ez da an alabaña ogirik batere, siñistez dakigun, ta ekusi dugun bezala; ta alere, gosea kentzeko, ta gorputzak indarrak artzeko, berebat lizake oriek guk jatea, edo jatea guk bertze anbeste ogi-zati, edo osti konsagratzake, edo konsagratu gabe.

Zertako ote da gure Jesusen oraingo mirakulu, edo gauz arrigarri au?– Guri Jesusek adirazteko, ez dugula guk zer izutu, ekusiagatik guk, gauz onetarako gure ezer-eza ta gabea: eta bidenabar guri adirazteko, gaitz aldera geien-geiena makurturik arkitzen denak,

bekaturik geiena egin oi dituenak, eta nork-nai, ongi ta maiz komuniatzen dela, izain duela Jesus onagandik, gaitzerako bere gos-egarriak iltzeko, ta egin bear dituen, bere gauz on guziak egiteko, bearko duen zeruko jan-edana, laguntza, ta grazia: bada gure Jesus onarentzat ori, ogirik bage, ogiaren lanak egitea ta indarrak ematea bezain lan erraza da, ta ori bera da, guk nai dugula, gure Jesusek pozik eta pozik egiñen duen lana, ta ekuskaria; ta ori, ta era orretako gauzak egitera dator aldareko bere Sakramentura datorren aldietan gure Jesus maitagarria.

Nere anima txarra, zertan zaude bada zu, zauden bezala, orrenbat zere uts-oben ta bekaturen artean? Natural gaistoa, edo griñ errebesa dezula diozu zuk, eta ezin zuzendu dezula gaitzerako zere makur-era ta oitura gaistoa.

Bakarrik egin bear bazenu zuk zere lan ori guzia, egia zenioke zuk, ori zuk diozunean: baña zuri zere lan orretan laguntzeko dago, ta zure begira zure Jesus maitagarria aldareko bere Sakramentuan.

Zuk an Jesus artzera, baldin zuk zere Jesus umilki, garbi-garbi, ta bear den eran artzen badezu, emain dizu zuri zere Jesusek, bai, zere lan orretarako zuk bearko dezun guzi-guzia; baita geiago ta geiago ere;

bada, zu artzalle baño, emalle obea da gure Jesus maitagarria, ta eman dezake gure Jesus maitagarriak, munduko guziak artu ala, ta geiago ta geiago ere.- Eta artzen ezpadezu zuk, zu komuniatu bagez, izain da, edo zeren etzaran zu komuniatzen bear bezala. Eta, ala izatera, zure galdu-galgarria!

4. Gure Jaungoikoak aldareko bere Sakramentuan egiten duen laugarren ekuskaria, edo gauz on andi arrigarria, da Jaungoiko-gizon Jesus egitea, aldareko osti txiki batean ezezik, osti bakoitzaren zatirik txikienan ere. Orregatik Apezak erdiratzen duenean meza-ko ostia, edo komunione-koa, ez da erdiratzen, ez, gure Jesus maitagarria; oso-osorik arkitzen da Jesus maitagarri bera osti beraren erdi, edo zati bakoitzean; ta, osti-erdia artzen duenak, artzen du osti oso-osobat artzen duenak adiña: ostiaren zati bakoitzean arkitzen da alabaña gure Jesus maitagarria, zure itza arkitzen den bezala, zu aditzen zaituztenen bearrietan; ta orregatik oso-osoro; bada zure ondoan dauden guziak aditzen dute, zuk itz egiten dezunean, zure itz guzia; ta aditzen zaituen bakoitzak aditzen du zure itza, ura bera bakarrik balego bezain ongi, ta osoro; ta zure itz berbera ta itz osoa da, zure aldamenean dagoen bakoitzak, eta an arkitzen diran guziak aditzen

dutena.- Era berean, bada, Jesusek barbera da bakoitzak artzen duena bere komunionean, naiz ar dezala ark berak bakarrik osti osoa, naiz lagunarekin ta erdiratua, edo osti-erdia; Jesus guzi-guzia arkitzen da alabaña osti konsagratu guzian; ta Jesus guzi-guzia osti beraren zati guzietan.

Orra bada lan bat, gure Jaungoiko altsu maitagarriak baizik, ezin dakikena; gauz andi bat txikitzea, edo txiki baten diñako tokian bildurik uztea, baña gauz andiak bere anditatsuna galdu bage; ta gauz andi, era onetan txikitu edo bildu bera denbora batean anitz lekutan arkitzea, ta bere leku ta toki guzietan oso-osoro arkitzea.- Norbaitek egin dezake gauza gutian, edo gai txikiren batekin gauz andi baten aintzurako gauzaren bat, edo beste; ta Teodoro zeritzan maisu batek egin izandu zuen, euli baten ega-pean gordetzen zen brontzezko karroza bat; eta karroza, berari zegozkan laur zaldik tiratzen zutena: baña Teodororen karroza-zaldia, eta era bereko beste gauza txikiak, txikiak dira beti, ta aldian toki labur txar bat baizik betetzen ez dutenak.

Gure Jesus maitagarria da bakar-bakarrik, den diñako Jaungoiko-gizona dela, ostiaren edozein zati-txotan arkitzen dena; ta, arkitzen dena, osti bakoitza

arkitzen den tokian, naiz arkitu ditezela ostiak emen, ta Indietan, ta Afrikan; ta toki bakoitzean arkitzen da, beste tokitan arkitzen ezpaliz bezain oso-osoro.

Zertarako au onela gure Jesus on maitagarria?– Aisago guk arki dezagun komuniatzeko geren deretxa, ta gure Jesusen laguntza ta grazia; ta bidenabar Jesusek guri erakusteko geren umil-bidea, edo, nonnai gu, ta nolanai egonagatik, kontent egoteko bidea.

Nola erdits dezakegu guk, zorioneko geren bide au?– Guk geren gogoan darabilgula gure Jesusen aldareko egoera, ta guk geren bekatuakgatik sulezean egon-bearra.– Gauza oriek biak guk maiz geren gogoratzera, edo gogoratzen baditugu, guretzat geiegiko tokia iduriko zaiku geren etsaien oinpea ere; ta arrezkero guk pozik eramain ditugu orien eskutik datozkigun nekeak: bada, ori guk egin ezkeru, jakiñen dugu guziak daramatzigula gure Jesusen izenean, ta eternidade guzirako zeruko leku zabal-eder-andiak irabazteagatik.

Banegi, bada, gaurdanik badere nik au, Jesusen aldareko egoera onen alde, ta nere onagatik! Badagiket nik, bai, nai izatera, ta nere Jesusek niri laguntzen didala; ta niri lagundu naiez da Jesusen bere Sakramentuko bilduera ta gordetze guzia.

B.

Sakramentu bereko beste bi gauz andi, ta milagro

1. Aldareko Sakramentuko bostgarren gauz on-arrigarria da, dagoen eran Jesus or egotea.

Nola dagoela, uste dezu zuk aldareko bere Sakramentuan gure Jesus maitagarria?– Ill baten eran, ta bizitzarik ezpalu bezala. Or ditu Jesusek, bai, aldareko bere Sakramentuan bere bi begiak; baña ogiaren iduripean daduzka, edo Sakramentuko estalkiz gordeak.

Or daduzka bere Sakramentu berean bere bi oñak, bai, baña lotuak bezela, ta ez igitzeko eran. Or daduzka bere bi eskuak, bai, baña geldirik daduzka biak, eta igitzen ez dirala.

Or bertan daduka Jesusek bere miia ere; baña ezpaleduka bezala da; bada ez du or Jesusek itzik ateratzen. Gau ta egun, ta aste guzian egonagatik Jesus (dagoen bezala) aldareko bere presondegi guztiz txikian, edo Sakrarian, isill-isillik dago beti, ta asnase bat ere ematen ez duela.

Andik ateratzen badute, urbiltzen diranen komunioneetarako, ez du Jesusek, an iduki dutelako naigaberik erakusten, ez.- Naiz onak dirala, ta naiz gaistokak, aldi orietan komuniatzen diranak, gisa berean doa or bere Sakramentuan gure Jesus maitagarria, edo isill-isillik doa guzien bularretara, edo biotz aldera.

Naiz dela gau-erdia, naiz goiz otza, naiz arratsa, eriren bati elizako gauzak eman-ordua, ez du apezak, aldareratzea besterik bear, Jesus artu, ta ara eramateko; eri gaisoaren etxerako da Jesus, apezak nai duen edozein ordutan, ta apezak nai duen eran. Ez dio galdetuko Jesusek apaizari, ez, nora daraman, edo norengana. Dela aberatsa eri gaisoa, dela beartsua, dela erregea, dela nekazaria, dela zalduna, dela agota, dela zarra, dela gaztea, edo dela edozein eratakoa, berebat da Jesus maitagarriarendako; ta, deus bat erraten ez duela joain da, bai, gure Jesus maitagarria, apaiz daramanaren eskuetan, komuniatu nai duen eriagana; ta eri gaisoa sukarrez erretzen, erdi usteldua, edo iltzeko abian egonagatik, sartuko da Jesus sakramentatua eri beraren aoan, ta estomaka loi-karkaisez betean; ta an bertan egoin da Jesus sakramentatua, Sakramentua bukatu artean, edo ogiaren iduria ta aintzura galdurik gelditu arteraño: ta pozik egoin da

an, baldin iltzen dagoena, edo komuniatu den eri gaisoa Jesus beraren grazian arkitzen bada.

Ori baño ere agitz eta agitz geiago da, zenbait aldiz gure Jesus maitagarriari emen, aldareko bere Sakramentuan, agitzen edo gertatzen zaiona.

Lapurren batzuek ebatsi izandu dituzte zenbait aldiz elizetako Sagrarietatik, ango urrea, edo zillarra izan naiez, komunionekeo kopak; eta, beren lapurreria estali naiez, kopa beretan arkitzen zituzten osti santak bota izandu dituzte, batzuek ezkaratzetan, besteak goroztegietan, eta besteak edozein zokotan edo tokitan; ta aldi orietan gure Jesus maitagarria an egondu da geldi-geldia, ta itzik atera bage, norbaitek jaso artean, edo ogi-iduria ta aintzura, edo Sakramentuko akzidente guziak, aitu arteraño.

Beste zenbait aldiz egin dituzte judatar gogorak, eta ereje gaistoak gauza gaistoagoak ere aldareko Sakramentu berarekin, ta gure Jesus maitagarriarekin; bada batzuetan aurtiki dute oriek gure Jesus sakramentua, su gañean irakiten zegoen urera; bestetan nastu dute garagarrarekin, mandoen zaldale egiteko; ta zenbaitetan josi dute mai gañean kanibetez, edo urkabeen iltzez. Eta ala ere isillik egondu da, itzik atera bage, gure Jesus sakramentua.

Zer bada? Ez ote daki gure Jesusek, aldi orietan berari gertatzen zaiona?– Bai; ta ederki alere: ez da alabaña gure Jesusen animako begientzat estalkirik; eta guzia dakusa or Jesusek, zuk eguerdian, eskuetan dadukazun gauza baño ederkiago.

Nola, bada, ez ditu gure Jesus sakramentatuak auts-egiñak iuzten, orren gauz itsusi-arrigarriak berari egiten diozkaten gizatxar oriek?– Guri ongi naiez, ta guri erakusteagatik geren aldietan guk ere egin bear duguna.

Noiz ote?– Nai ez genuken zerbait egiten digute-netan.

Zer ote da, guk geren aldi orietan egin bear duguna.- Ezpaliz baño geiago argatik gu ez asaldatzea, ta gure Jesusen izenean guk, egiten zaikun bidegabe guzia isili-isilltxorik artzea.

Ori guri erakusteko, ori guri eragiteagatik, eta, orrekin irabazten diran zeruko ondasun andiak guri eman naiez da, illarena dirudien, gure Jesusen aldareko egoera.

Ekusten dezu zer egoera gure Jesusen aldareko egoer on-arrigarri au? Bada badu oraindik geiago ere zer ekusi Jesusen emengo egoer on erakusle onek.

Zer, uste dezu? San Joan ebanjelariak ekusi izan-
du zuen bat.

Zer eran, edo nola ekusi zuela deritzazu zuk, san
Joan ebanjelariak gure Jesus aldareko bere Sakramen-
tuan?- Bildots ill baten eran; baña zutik: *vidi agnum
stantem, tanquam occisum*. (Apoc. 5. 6.)

Zer erran nai ote du era orretako gure Jesusen
zutikako egoerak?- Illaren eran egonagatik, egiten
zaizkan txarkerietarako, prest dagoela or gure Jesus
maitagarria, ongi komuniatzen diranei laguntzeko,
beren txarkeriak, nekeak, eta naigabe guziak eme-
meki eramaten: *quasi paratus juvare certantes*.
(Carthus. hic).

Ekusi dezu, au baño, egote, ta egite ederragorik?
Ez?- Bada oraindik bada besterik ere Jesusen aldare-
ko Sakramentuan, ta da seigarren ta azkenik ekusi
bear dugun Jesusen gauza ekuskaria, edo mirakuloa.
Zer? denbora bereko beste egoera bat.

2. Aldareko bere Sakramentura etorriagatik gure
Jesus maitagarria, Meza ematen den denboran, ez du
Jesusen uzten, ez, zeruko bere tokia. Aldarean dagoen
denbora berean, batetik bestera apezak daramate-
nean, ta, komuniatzen diranekin arkitzen den denbo-
ran, bere zeruan arkitzen da gure Jesus maitagarria:

ta an arkitzen da bere Aita eternoaren eskoi aldetik: eta an arkitzen da Jesus maitagarria, bere Sakramentura etortzen ezpaliz, arkituko lizaken eran.

Zergatik au onela?- Andik, eta emendik, edo zerutik, eta emen bertan lurrean ere guri lagundu naiez. Zerutik, an Aitari eskatzen diola, guk emen bear dugun grazia, ala, ta eskua; ta emen, emanaz guri bere esku bera, bere laguntza ta grazia.

Orretarako da, bada, Jesusen an ta emen batetan arkitze on arrigarri, edo oraingo milagro au, ta Jesusen egoera, onen arrigarri-eder ekustekoa.

Ekusten dezu zuk orain badere, edo ongi-ongi eza gutzen dezu, gure onerako gure Jesus maitagarriak aldareko bere Sakramentuan egiten duena. Ekusten dezu zenbat gauz on arrigarri, ta zenbat milagro egiten dituen gure Jesus matagarriak, komunione bakoitzean gure barrenera erortzeagatik, eta gure animei alde onetatik egin naiez, ar dezakeen on guzia?

On onen laurden bat egiten balizu zuri zere erregek, etzenuke egiñen zuk zere bi belaunak lurrean zeneduzkala, ta berak nai bezala, ark zuri manatzen lizukena? Eta zugatik zure Jesus erregeen Errege Jaungoiko-gizon maitagarriak egiñikako orrenbat gauzaren

buruan, egin izandu dezu zuk zure Jesusek nai zuena, guzia izan arren arrazki ta aisa zuk egin zenezakena?

A, nere Jesus maitagarria; ez eta erdien laurdene-tan ere! Baña nik gauzak ongi ezagutu bagez izandu da, oraindano nere eskergabetasun onen gaisto au; edo izandu da zeren oartzen ez nintzan ni gure onera-ko zuk or aldareko zere Sakramentuan egiten dituzun gauz on arrigarri, ta milagroetara: eta, oriek nik eza-gutu ezkerro, orain ezagutzen ditudan bezala, nai dut izan zurekiko eskerdun ona; ta egin nai dut nik, zure laguntza onarekin batean, zuk nai dezun, ta niri dago-kidan bizitza, gaurgero ongi ta maiz ni komuniatzen nazala.

Nere bizier on au bertatik arizen asitzeko, orain damuz nazan au beterik, erratera noa: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

*Semetipsum exin anivit,
formam servi accipiens,
in similitudinem hominum factus.*

Philip. 2. 7.

Nomal arritzekoa den gauza da, gure Jaungoiko maitagarriaren jakiundea, ta beraren gudanako ongi naia ta amorea!

Orra, erraten digu san Pablok, orra gure Jaungoikoak gure onerako arkitu duen bidea, ta egin duen gauz arrigarria! Galduak ekusi ginduen gu gure Jaungoikoak geren bekatu loi zikin-galgarriakgatik; eta geren bekatupe likits izugarritik gu ateratzeko, zer bide artu zuela uste dezu zuk, edo zer egiteko? Jaungoiko berak baizik ezin asmatu, ta ez artu, zezaken bat: Irurtasun andiko, edo Trinitateko Jaungoiko-semea, gizon egiñik gizonen artean agertzea.

Otzak, beroak, eta eguraldi-era guziak egin izandu zituen gure Jaungoiko maitagarriak: eta, oriek egin izandu zituen gure Jaungoiko bera, gizon egiñik, bizitu zen ogeita amairur urtez, otzak, beroak, eta beste eguraldi-giro gaistoak, beste edozein gizon bezain galanki nekatzen zutela.

Denbor orretan berean ekusi zuen gure Jaungoiko-gizon onek beste edozeñ gizonek ekusi zezaken adiña neke ta lan; ta, guri gaisoei, guk jakin bear dugun guzia erakutsi, ta zerurako bear duguna bere Elizan utzi ondoan, ill zen bera gurutze bateko milla nekeren artean.

Orra zertaraño beitu, edo makurtu zen gure onagatik, gure Jaungoiko andi-maitagarria! Orra zenbat eta zenbat laburtu zen, bazterrik ez duen gure Jaungoikoaren izate eder-andi-arrigarria: besteren peko gizonaren iduriraño!

Baña zein ere andi-arrigarria den gure Jaungoiko maitagarriaren orduko beitzite, makurtze, ta laburtze au, agitz eta agitz andiagoa da beraren aldareko beitzite, makurtze-billze-laburtzea; bada bera gizon egin zenean, bazuen gure Jaungoiko maitagarriak gizonaren aintzura bazen ere; baita bere gizatasuna ere; baña aldareko bere Sakramentu onetan ez du gure Jaungoiko-gizon onek, ogi-mee-zirtzill baten aintzura ta iduri utsa besterik.

Orduan etzuen agertzen gure Jesusen gorputzak, orain zeruan agertzen duen bere edertasun ta glori arrigarria, eta orduan Jesusen gorputz berak berez zuena, ta geroztik agertzen duen bere edertasun guziguia, ta Jaungoiko-gizonaren izatea, orra non arkitzen den aldareko Sakramentu orretan ogi-aintzuraz, ta akzidentez jauntzi-estalia, ta ogi apur bat bailiz bezala.

Nigatik izan gure Jesus maitagarriaren aldareko makurtze, biltze, ta laburtze ezin andiago ta arrigarri

au, ta ala ere nik ez ematen gure Jesus maitagarriari, eman oi diozkadanak baño esker geiago ta esker obeak!

Nigatik izan gure Jesusen emengo umillera guztizko guziak; eta alere, umiltzen nazan baño geiago ez umiltzen ni, aldareko nere Jesus beraren begietan!

Nere amorez izan gure Jesusen aldareko lan andi, ta mirakulozko biltze guzi-guziak; eta alere nik ez maitatzen nere Jesus maitagarria, maitatzen dudan baño zerbait obeki, edo obekiseago!

Ez da au nornai arritzeko den gauza txar-itsusi bat!- Ala da, bai, nere Jesus maitagarria, ta ala da! Eta alkez gaur ez dakit nik zer erran zuri, edo zer adirazi!

Barkatu arren, nere Jesus maitagarria, nere oraiñdañoeko eskergabetasuna; ta lagundu, arren, zuk zero-rrek niri gaurdanik asi, ta ni ill artean, beste gisaz nere gauzak egiten! Bai arren, bai!

Discite á me: quia mitis sum, et humilis corde.

Matth. 11. 29.

Zertako gorde ote zara zu orrenbat or, aldareko zere Sakramentuan, gure Jesus maitagarria? Ez dezu

ekusten zuk, zu or orrela ekusten zaituzten gaistoak ez dutela kasorik egiñen zure Legeaz ez eta zutaz ere? Ez dezu ekusten zuk ereje gaistoak eta judatar zenbaitek zutaz or egiñen dutena?

Lurreko erregeak urkabez, soldaduz, ezpatez ta sutunbez betetzen dituzte bazterrak, norinai nai dutena eragiteko; ta, ala ez izatera, eriotzez, lapurreriz gaizkiz, ta bekatuz bazterrak beteak laudezke, ta erregeak berak oorerik bage.

Egin dakizun, bada lurreko guzien aldetik zuri zor zaitzun agur andi, ta begiratze guztiz umill bat; eta egin dezaten oriek zure ooretan, zure izenean ta beren onerako, egin bear duten guzia, edo berak al dutena, ez dezazula zuk, gure Jesus maitagarria, era orretan gorde zere eskua, zere aala, ta zere izatea.

Baña zer ote da, nere Jesus maitagarria, nik nere aldi onetan darausadan au? Itz egin ote dut nik, ero batek bezala, ta zu ezagutzen etzaituenaren eran?

Bai, nere Jesus maitagarria, bai; bada zuk, len artzen bazenuen ere ejerzitueto Jaun izugarriaren izen andia, gizon egin ziñanetik amorezko gure Errege zara zu; ta amorez, edo onez eragin nai diguzu guri, gugandik zuk nai duzun guzia; eta noizbait zuk orain ere gu izutzen bagaituzu sulezearekin, ta ara daraman

erio gaistoarekin, izubide galgarri orietatik gu atera naiez da, ta amoriozko zere bide zuzenean gu sarre-razteagatik, or gero guri zuk zerorrek erakusteko, zerorrek egin zenuen bizitza ta zere umillera, ta mansotasuna; umilki, ta asaldatu bage artuz guk, eta eramanez geroz guri egiten zaizkigun txarkeriak, edo guri datozkigun nekeak eta naigabe guziak, gabiltzan gu zure ondoren, ta zuk laguntzen diguzula, birtutez birtute, zeruan guk zu, zere Sakramentuko estalkirik bage, ta edertasun utsez jauntzia ekusten ta ekusten eternidade guzian egoteko.

A nere Jesus maitagarria; egizu zuk nitaz nai deuzena; ta iguzu guri guziori, zuk dakizun eran, ta zuzen, bizitzeko bear den zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Ego dispono vobis... regnum, ut edatis
et bibatis super mensam meam in regno meo.*

Luc. 22. 30.

Zeruko bere maian daduzka gure Jesus maitagariak ango zaldunak (zaldunak dira ango guziak). Ez da bukatzen, ez, Jesusen zeruko maia. An zeruan

badute, aratzen diranak, artu al adiña atsegin ta kontentu; eta kontentu-atsegin ezin garbiagoak.

Zerukoak bezala, Jesus onarenak dira lurreko guziak ere, guziakgatik isuria da alabaña Jesusek zuen odol guzia; ta, guziak ara eraman naiez dago beti aldareko bere Sakramentuan; ta guziei eman naiez beren biderako bearko duten bere laguntza ta grazia.

Bere laguntz au oriei emateagatik, eri errumese-nak eskatzen badute aldareko beraren Sakramentua, naiz eska dezatela beren osasunan, ta naiz eritasunean, an doa Jesus bere Sakramentuan orietara, orien beren janari izatera: ta, milla lekutatik deitzen badiote ere denbora berberean, denbora berean ara doa Jesus maitagarria, apezten eskuz, lan berbera ango guziekin egitera, naiz aberatsak izan oriek, naiz errumesak, eta naiz zarrak izan, naiz gazteak; eta era one-tan emen dabillen denbora berean dago Jesus maitagarria zeruko bere tokian, an angoak zaitzen bezala, ta an lurrekoak bear dutena bere Aita maitagarriari eskatzen diola; ta emen lurrean ari da ongi komuniatzen diranei, ta eskatzen dioten guziei, laguntzen.

Lurreko bere lan au egiteagatik, ekusten ditu gure Jesus maitagarriak, nork daki zenbat txarkeri ta komunione gaisto: ta alere, nai dutenei lagundu naiez, ta

ongi bizi diranen amoreakgatik, guzia darama Jesusek isill-isillik, eta itzik atera bage.

Ekusten dezu zuk, zein andiak diran bere guganako ongi naiak gure Jesusi aldareko bere Sakramentuan eragiten diozkan mirakuluak, eta gauz on-andi ekuskariak?- Oriek guk ekusi ondoan, egon ditezke gure biotzak, dauden bezain otzak, eta Jesus onaganako amore bageak? Burdiñezkoak bide dira (baldin ala badaude), edo arria baño agitz gogorragoak, edo ez dakit zer erran!

Nere bekatu gaistoak dira, nere Jesus maitagagarria, niri nere lan esker-gabe galdu au eragin izandu didatenak! Urra baneza nik au damuz, ta urrikiz, ta asmo berriz, amorez gero nik zure amoreari nola-ere-bait erantzuten asteko. Asi nadin orretarako al guziarekin orain erraten: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LXXX.garren OTOITZ-GAIA

ALDAREKO BERE SAKRAMENTUAN

JESUSEK AGERTZEN DIGUN

ONGI NAIA

Itzez ez digu deus guri gure Jesusek agertzen aldareko bere Sakramentuan; baña Sakramentu beraz, ta Sakramentutik, eta Sakramentuan, egiten duenarekin adirazten digu andia dela guri digun ongi naia ta amorea. Ori da aldi onetan guk ekusi bear duguna, ekusteko guk, edo ezagutzeko, gure Jesus maitagarriari bere aldareratzeagatik, aldareratzen den eran, ta aldarean egiten duenagatik, zor diogun amorea

A.

**Aldareko Sakramentu berak
agertzen digu ongi aski,
andia dela Jesusi
guk emen zor diogun
ongi naia ta amorea**

Gure Jesus maitagarriaren atsegin-kontentu-poz andiak dira gurekin emen egotea; emen gurekin egotea, ez nolana, edo elizan Jesus, eta gu geren gauzetan, baizik guraso on bat bere ume onekin egon oi den eran; eta, batzuetan beintzat guraso bera bere umeekin baño agitz gure alderago.

Guraso on bat, eta guraso onaren erako beraren umeak, al dutenean elkarrekin daude, elkarri beren barrenak eta gogoak agertzen dieztela, elkarri laguntzen diotela, ta elkar maitatzen dutela.

Eta ori da, beinik bein gure guraso on Jesus niaitagarriak gurekin egin nai duena: nai du alabaña goazkion gu, bera guk noizean bein, edo lekua, astia, ta deretxa dugun guzietan, elizan ekustera; an, ari guk diogun maitatasuna agertzera; ta agertzera guk ari bidenabar geren kezka eta bearrak, eskatzeko gero guk berari, geren kezka ta bear oriek ongi eramateko, ta bera maitatzeko bearko dugun bere laguntza ta grazia.

Ori guzia ezezik, nai du gugandik geiago ere gure Jesus maitagarriak, bada nai du, ar dezagun bera, zenbait aldiz beintzat, eta alik maizena, geren komunio-neetan; gure biotzaren aldamenetik guri orduan berak geren gauzak adirazteko; an berak bere ongi nai andia

guri agertzeko, ta bertan guri an berak bere eskua, laguntza, ta grazia guri emateko.

Bere nai bata, ta beste au agertzen dizkigu guri gure Jesusek irur eratarra; ta lenbiziko lekuan, bera dagoen, bere aldareko Sakramentuz.

Zer gisatan, edo nola egiten ote du gure Jesus maitagarriak bere ager-era au?- Sakramentu au guri agertuz, ta, Sakramentu beraz guri adiraziz, Jesusek berak guri erakutsi nai diguna.

Baña zer ote da, aldareko bere Sakramentu onez Jesusek guri erakutsi nai diguna?- Jesusek berak gugatik len egin izandu zuena, ta emen gure onerako dakarren guzia.

Zer ote da, gure Jesusek len egin izandua, ta orain or aldarera berekin dakarren ori guzia?- Ori da gure Jesusek, bera gizon egin zenetik ill arteko bere denbora guzian gugatik ekusi zuena, ta bere Pasioneko tormentu guzia; ta orrekin guziarekin gure onerako Jesusek berak irabazia.

Ori guzia dakar, bada, gure Jesusek, aldarera datarren aldi guzietan; ta ori guzi-guzia dakar Jesusek gure onerako.

Baña nola adirazten digu guri ori guzia gure Jesusek aldareko bere Sakramentuz?- Aldareko Sakra-

mentu bera guri agertuz. Oar zaitez ezperen, ta ekusiko dezu.

Atozea: Meza zuk enzutean, ez dezu ekusten agertzen dizula zuri Mez-emalleak bein osti konsagratua; ta, au utzi, ta gero kaliza?- Ongi da, ta zer arkitzen ote da Mezako osti konsagratuan?- Or arkitzen da, daki-zun bezala, gure Jesusen gorputza, Jesusen gorputzari ditxezkon bere gauzekin. Eta Mezako konsagrazio ondoan zer arkitzen ote da Meza bereko kalizan?- Kaliz orretan or arkitzen da Jesus beraren odol guzia, odol oni ditxezkon gauza guziekin.

Eta zertako ote da era orretan bein bata, ta bein bestea Mezako apezaren eskuz Jesusek guri agertzea?- Ori da beinik bein Jesusek guri adirazi naiez bere milla ta milla neke-tormenturen buruan, atera ziotela Jesusi borrero gogorak, bere zañetan zuen odol guzia, ta utzi zutela gurutze batean odolik bage, ta gure onerako ill-ori-otza.

Eta, nola orain arkitzen den kalizan Jesusen odol au, Jesus beraren gorputz-animekin, ta baru Jaungoikotasun guziarekin; ta arkitzen den ostian Jesusen gorputza bere odolarekin, bere animarekin, ta bere Jaungoikotasun berarekin; edo nola batean ta bestean arkitzen den bizirik, eta bere zeruan arkitzen den eran

gure Jesus maitagarria, ta orregatik bere irabazi guziekin, Hostia, ta Kaliza agertzen zaizkigun eran, adirazten digu gure Jesus maitagarriak, or datorkigula len berak gugatik egin izandu zuenaren berri ona guri ematera, ta orduan berak irabazi zuenetik, bear dugun guzia guri eman naiez.

Eta orra non bere Sakramentu beraz agertzen digun guri gure Jesus maitagarriak bere Sakramentuan guri digun ongi nai andia, ta amore bazterrik bagekoa.

2. Au berau agertzen digu guri gure Jesus maitagarriak Sakramentu beraz beste aldetara ere.

Atozea: zer gogoratzen zaitzu zuri, Jesusen Sakramentuko osti au ekusten dezun aldietan? Ez ote zaitzu gogoratzen zuri zer gaiez egiña ote den osti ori bera? Ote dakizu zer gaiez?- Gariz, bada, edo anitz alez edo granoz.

Baña nola ote, edo zer eran?- Jotzen da errotan garia, edo arri tartean lertzen ta urratzen dira gari aleak, ants edo irin egin arteraño. Iralkitzen da trilla bai mee batean, ta kentzen zaio zai guzia. Egiten da gero urarekin irin guzia bat, eta erretzen da bi burdin goriren, edo ongi beroturen artean.

Eta zergatik artu ote du gure Jesus maitagarriak Sakramentu andi onetarako ogizko ostia, ta ez beste gaiezkoa?- Ori guk ekustean, gogora zekigun, gure Jesus maitagarriak gure amorez eraman zuen neke arrigarria.

Kendu zioten gure Jesusi bere borrero gogorrak bere soñekoa, iriñari iralkilleak bere zaia bezala.- Lertu bezela zuten Jesus bere borrero berak ostikoka, okabilka, ille tiraka, ta nork daki zenbat aldetara. Urratu zuten gure Jesus maitagarria azotetz ta arantzaz borrero berak; eta azkenik gurutze batean burnizko iltzez josten zutela, iutzi izandu zuten gure Jesus maitagarria milla nekeren, ta oñazeran artean errea bezala.

Ori guzia eraman izandu zuen gure amorez gure Jesus maitagarriak; eta ez du geroztik galdu gure Jesussek guganako bere amore andi au.

Eta orra non, orduko bere nekeekin batean, agertzen digun guri gure Jesusek, Mezako osti au guri agertzean, ordu artan izandu zigun, ta geroztik ere beti digun, amore ezin andiagoa.

Eta Meza bereko kaliza agertzean? Goazen ekustera.- Zer arkitzen ote da, kalizeko konsagrazio ezkerro, kaliz berean?- Araistian guk adirazi dugun guzia; ta

beinik bein gure Jesusen odol garbi-ezin-ederragoa ardoaren idurian, edo ardoaren aintzurarekin.

Zer gaiez, edo zertaz egiten ote da Mezako ardoa?- Mats-alez.

Baña nola ote?- Matsak oinpean lertuz, ta dolareetako ardatz-pera ardalariak biltzen dituztela; ta, ardazpe berean ongi-ongi estuturik duten ezatasun guzia mats-ale guziei kentzen diela.- Sartzen dute gero ardalari berak beren kupeletan, mats aleak zuten ezatasuna, ta eda-gaia: egosten da an bere beroarekin edar-gaian; ta gelditzen da, bear bezalako ardo ta edari egiña.- Eta orra gure Jesus maitagarriari gertatuaren itzal, bera diñakoa, edo aintzura ta imajen zuzena.

Errazu ezperen: zer izandu zen gure Jesus Jetsemaniko bere baratzean?- Mats-ale, zure ta nere obenkulpa gorren oinpean lertu bat bezala; bada badakizu, orduan oriek Jesusi eman erazi zioten odolezko izerdia.

Eta zer ote ziran, Pilatosen etxeko bost milla, ta anbat odolezko azot-ukaldi, ta golpe? Zer Jesusen buruko arantza zorrotz gogorak? Eta zer, Jesus beraren esku-oñak gurutze batean josirik iutzi zituzten iltze burdinezkoak?- Zer, baizik beste anbeste bere

Pasione santaren dolareko ardatz astun-estutzallearrigarri? Bada, ezin erran ala estutzeren, ta nekeren artean atera zioten guziak Jesusi, bere zañetan, ta bere biotzean zuen odol ta ezatasun guzia.

Nora zen gero, edo zer egin ote zen gure Jesusen odol isuri au?- Itzuli berriz Jesus beraren zañetara, ta biotz berera. Bai, gure Jesusen zañetan, ta beraren biotzean arkitzen da, andik len gure onerako atera zen gure Jesusen odol guzia, ta an bertan arkitzen da, gure amorez irakiten bezala: ta, ongi komuniatzen garan aldietan, ta guk gure Jesusen gorputza artzen dugunetan, an datorkigu, lurreko gauza txarren, ta aragiaren gure egarri loiak kentzeko, gure Jesus mai-tagarriaren odola.

Eta ori da, oartzen diranei, Mezako kalizarekin Jesusek adirazten diena; bere leneko odol-isurtzeetan izandu zuen nekea ta nekea, ta orduko, ta orain or Sakramentu orretan, duen bere guganako ongi naia ta amorea.

Baña zertako ote dira, Jesusen eriotzaren, ta bere eriotza baño len Jesusek izandu zituen neke arrigarrinen, ta len, ta gero Jesusek berak duen guganako ongi nai andiaren orrenbat agertze?- Guri, geren one-

rako, Jesus maitagarriak eragin naiez, beraren neke-
amore oriek adirazten digutena.

Zer ote da gure Jesusen bi gauza era oriek adiraz-
ten digutena?- Lenbiziko lekuan, damuz, ta urrikiz guk
geren biotzak betetzea, zeren gure bizitza gaisto gal-
duagatik arrerazi generozkan gure Jesus maitagarriari
orrenbat neke ta naigabe ta odol-isurtze.- Bigarrena,
guri begitan arreraztea bekatu berrietarako bide
guziak, eta bekatu berrietarako gu illen eran uztea.-
Irurgarrena eme-emeki guk, eta gure Jaungoikoaren
izenean eramatea geren eritasunak, barrengo geren
kezkak, gure lagunen txarkeriak, eta nondik-nai guri
etortzen zaizkigun neke guziak.- Eta laugarrena,
maiz guk geren gogoan artzea gure Jesusi guk aldare-
ko bere Sakramentuan zor diogun ongi nai-amorea; ta
ori guk geren gogoan maiz artzea, artu-aldi bakoit-
zear guk amoriozko eskerrak Jesusi emateko, al
dugun guzietan Jesus bera bere aldarean ekustera
joateko, eta noizean bein, ta ez bakan, gu gero komu-
niatzeko.

Ala egin izandu ote dezu zuk oraindañokoan?

A nere Jesus maitagarria! Ez eta oartu ere ni, zure
kaliz ederrak, eta osti konsagratuak adirazten dituz-
ten zure neke eriotz, eta amore bazter gabekora!-

Zentzurik gabeko gizatxar bat bezala komuniatu izandu haz ni, ta bizitu oraindañoko nere denboretan! Komuniatzera nindoan ni (artaratzen nintzan aldietan) zertara ninjoan jakin izandu ezpanu bezala, ta zu nik, nere Jesus maitagarria, artu ondoan, gelditzen nintzan ni, ogi-zati bat jan izandu banu bezala, ta len bezain otz, eta debozionerik bage.

Ezin gerta ziteken au baizik; ez nuen alabaña nik ezagutzen ere zure amore andia, ta nik zuri ordeztu, ta anitz aldetara zor nizuna! Baña jakiñaren gain biziko naz ni gaugerokoan, ta beste eran nik nere gauzak egiten ditudala.

B.

Bere Sakramentutik Jesusek egiten duenak agertzen digu, guztiz andia dela emen berak guri digun amorea

Jaungoikoaren jakiundeak (dio Salomonek *Prov. 9. 1.*) edo Aita eternoaren Seme-gizon egiñak, egin izandu zuen etxe berri eder bat, eta sendortu zuen bere etxe au zazpi pillarerekin. Eman ziozkan emen bere

etxe galant sendortu onetan bere Aitari, Aitak berak geiena nai zituen ofrendak.

Prestatu zuen emen, onara zetozenentzat bere Maia: ta, etorri zitezten alkerik batere bage, igorri zituen, edo bidaldu, zetozkenen eske bere neska-meak, edo serbitzariak; eta orien ezpañez banatu zuen onako berri on au: Jende gazterik bada, edo aur txikirik, betoz guztiak nere maira; eta, ez dakitenei erraten die, jan zazue zuek ere nere ogitik, zuek jan ala, ta ase arteraño; ta edan zazue orrekin batean, or nik emanik dezuten zeren ardoa.

Orra Salomonek, edo Salomonen ezpañez Espiritu Santuak, gaur diona: ta orra gure Jesus maitagarriak aldareko bere Sakramentutik egiten duena, guri bere bazter bageko bere amorea, ta ongi naia agertu naiez; bada Jaungoikoaren jakiundearen, edo gure Jesus maitagarriaren, etxe berri au da Jesusek berak, gizon egiñik, ekarri zigun bere Lege zuzen-garbia; ta lege elizaz betea.

Jesusen Lege berri, etxe galant, edo Eliz onen zazpi pillareak dira gure zazpi Sakramentuak.- Aita eternoari Jesusek emen emanikako ofrenda da Jesus bera, Aita beragatik eta gure bekatuen alde, gurutze batean ill izandua. Ogi-ardoekin emen arkitzen den

maia da Jesus beraren gorputz-odol guzia dadukan aldareko beraren Sakramentua.- Barazkaltzera deiez dabiltzan neskameak dira, komuniora jende onak zuzen-erazten dituztenak. Eta, barazkaltzera deituak diran aurrak, eta jakiunde bagekoak dira, komuniatzen diran jende umill tolesturik bageak.- Eta orra zein andia, gure Jesusek orretan agertzen digun bere amorea.

Goazen, guk au ekusi dugun baño obekiseago orain ekustera, ta orretarako bere zenbait tolestu Jesusen aldareko Sakramentu oni kentzera.

Gure Jesus maitagarria aldareko bere Sakramentuan dago gau ta egun, ta urte guzian, guri ongi ta ongi naiez; ta or dago, edo or arkitzen da Jesus beti bere biotza gure amorez urtzen dadukala.- Era orretan or daduka gure Jesusek bere biotza, bere amorez gu erre-urtuak utzi naiez, ta obeki baño obekiago gu ekusteagatik. Orretarako gure barrenera, bear bezalako komunioneetan, maiz-maiz sartu naiez dago gure Jesus maitagarria.

Baña ura gugana amoretsu bezain amoretzakeak, edo amore-bageak, izan gu geienok beintzat, gure Jesus beraganako! ta ez gu komuniatzen ere, ezpada

bakanka, edo berandutik berandura; ta orduan ere, gure Jaungoikoak dakien bezala!

Orregatik, berandetsirik bezala gure nagitasunaz Jesusek, edo ezin burutuz bezala, bere guganako amore bazter bagekoarekin, igortzen dizkigu komuniorako deitzalle onak; batzuetan bere predikariak, besteetan gure konfesariak, askotan libruak, zenbait aldiz geren gurasoak, geren etxeakoak, edo ongi nai diguten, beste zenbait; eta, geren barrenetara maiz aski sartzen zaizkigun gogargiak, eta biotzen ukierak.

Deitzale on orietatik bakoitzak egiten du bere aldetik alegiña, guri adirazteagatik Jesus onaganako gure eskergabetasuna; baita maiz komuniatu bagez (maiz komuniatzen ezpagara) guk gerok izan oi dugu zeruko gosea, ta grazi-bearra; ta gero gose-bear onek arrerazten digun bekaturako bide loi-zikin-galgarria ere.

Eta, maiz komuniatuagatik gu, gu arkitzen bagara gero gutitan, edo bakan, ta gaizki komuniatzen diranak bezain goseti, ta egartsu, edo komuniatzen ez diranak bezain zeruko grazirik bage, ta bekatzuz loituak, bide beraz agertzen digu Jesusek guri, nondik datorren orduko gure bearra ta gabea: edo agertzen digu, ori guzia datorkigula guri geren arrotasun ta

antuste galgarritik, edo guk ez ongi ekustetik geren aurkeria ta ezer-eza, gauz onak guk egiteko; ta geren bekatu galgarrien, ta gure aragiaren atsegin lizunen errekarako, ta osin arrigarrirako gure makurrera ta limurtasuna; bada gauza bata ta bestea ongi guk eza-gutzera, guk gerok billatuko genuke geren laguntzalllea, ta billatuko genuke guk au umil-umilki, ta bear den eran: edo, ori guzia guk ongi ezagutzera, joain giñake gu maiz-maiz, ta bekaturako beldurrez beteak, geren komunionera: agertuko geniozke guk geren Jesusi geren bearrak ta premi guziak; eta eskatuko genioke gero guk gure Jaungoiko maitagarriari bere laguntza ta grazia; ta ibilliko giñake geroz geiago geren Legeko bidez, ta bekaturako bide galgarrien igesi ta igesi.

Au guzia guri eragin naiez da aldareko orrenbat Jesusen egote. Au guzia guri eragin naiez dira Jesusen anbat mandatari, ta komuniorako deitzalle on. Eta ez du Jesusek bere lan au utziko, ez, mundua bukatu arteko denboran, edo aldareko bere Sakramentuan arkitzen den denbora guzian.

Ekusten dezu, zer amorea, gure Jesus maitagarriak guri bere lan eder onetan aldaretik erakusten, edo agertzen diguna?- Ez du Jesus maitagarriak, ez,

zuk zerorrek dakizun bezala, gure bearrik batere; eta gure bear baliz ere, ezin legike egiten duena baño geiago gure onerako.- Eta ez da au gure Jesusek guri aldareko bere Sakramentu orretan agertzea, ezin-andiagoa dela guri digun bere amorea?

Eta nolakoa ote da Jesus maite beraganako gure amorea?- Gutatik anitzena beintzat, ezin laburragoa, ezin otzagoa, edo batere ez: bada ala ez izatera, nola genbilzke gu, gabiltzan bezain eskergabeak gure Jesus onarekiko, edo nola genbilzke gu, gabiltzan eran, ta geren komunionetik eta Jesusen aldareko Sakramentutik igeska ta igeska? Edo nola urbil gindezke gu, urbiltzen garan bezain zikin-otzak, edo epe-lak, gure Jesusen aldareko maira, komunionera, edo elizan guk gure Jesus ekustera?

Ekusten dezu? Egizu, bada, gaurdanik bada ere, Jesusek bere aldaretik erakasten dizun amore bazterrik bageak eskatzen dizuna.

C.

**Aldareko bere Sakramentuan
Jesusek egiten duenak
agertzen digu,**

gutziz andia dela berak guri digun amore ondasunduna

Aldareko bere Sakramentuan Jesusek guri agertu digun eran agertzea, ta Sakramentu beretik egiten dituen gauzak egitea, guri gure Jesusek agertzea da, or guri berak digun bere ongi naia, ta amore andia.

Bere guganako ongi nai-amore au bera alde one-tatik bezain ongi (eta agitz obeki) agertzen digu guri gure Jesus maitagarriak beste alde batetik, eta beste bidez ere. Jesusen beste bide au gure barren bereko bidea da; ta bide, Jesusek bere agerrera orretarako, gu ongi komuniatzen garan aldietan artu oi duena.

Gu ongi komuniatzen garan aldietan egiten du gurekin gure Jesus maitagarriak, len ez bezala, guganako bere amore andiaren agertze on au: egiten du orretarako, ardi errebelatuen, edo galdurik zebiltzan ardien, ondoren nekaturik ibilli den arzai onak, noiz-bait oriek arkitu, ta sasitik atera ondoan, ardi berekin egin oi duena.

Artzai onak erabilli oi ditu, nekez bildurikako bere ardiak eme-emekitxo, ta batere asaldatu bage. Eramatan ditu bein alde batera, ta bein bestera; ta aldio-ro eramaten ditu eraman bear diran tokira.- Bere

ardiekin dabilen aldi guzietan berekin du beti arzai onak bere zakur sangaria, edo sangakaria.- Ote daki-zu zuk zertarako?- Otso gaistoak aienatzeko, ta orientz odoltietatik bere ardiak gordetzeko.

Goizeko intzak, eguraldi gaistoak, edo neguko otzak gaitzik egin ez dezoten, ez ditu artzai onak bere ardiak etxetik, bordatik, eta beren korraletik bere orduraño ateratzen. Eta, eguraldi ona denean ere, beroak zerbait estutzen asi orduko, eramaten ditu artzai onak beren itzalpera.- Artzai onak ez ditu sartzzen bein ere belar gaistoetan bere ardiak. Udan belar batzuetan erabilli oi ditu artzai onak bere ardiak, eta neguan besteetan; ta aldian aldi artarako obeak dirala deritzan belarretan.- Elbarritzen bazaio bere ardie-tatik bat, lotzen du bertan, berak dakien bezala; ta alere ezin ibilli bada berez, edo bere oñez, artzen du artzai onak bere lepoan, ta ala darama bere tokira. Orra lurreko artzai onarena.

Eta orra Jesusek bere ardi onekin, edo, ongi komu-niatzen diran bere animekin egin oi duenaren itzala, aintzura, edo imajina.

Berekin dutenean beren Jesus maitagarria, debot-ki komuniatzen diran animak baldin oriek aldi orietan badaude, Jesusen barreneko itz meak aditzen dituzte-

la, adirazten die beren Jesus maitagarriak, leneko beren ibillera txar-galduen itsustasuna; ta adirazten die beren bekatuen sasi galgarritik ateratzearekin egin izandu dien ontarte andi, ta fabore guztiz ekustekoa.

Au oriei adirazte berean, agertzen die gure Jesus maitagarriak, zein andia den, ta zein bazterbagekoa, Jesusek berak bere biotzean dadukan oriekiko ongi naia, ta amore garbi-ondasunduna; baita zenbateraño beartuak arkitzen diran ere, alik ongien-ongiena beren amarez amore oni berak erantzutera.

Eta orduan ongi komuniatuagatik, arkitzen badira anima oriek, leneko beren bekatuakgatik, elbarri bezala, ematen die bidenabar gure Jesus maitagarriak, ongi sendatzeko bearko dutena, ta orrekin batean anitz grazia, indar, ta laguntza.

Orrenbat adirazte garbi, sendagai sendor, ta ondasun zeruko ematen dien denbora berean, ematen die Jesus maitagarriak ongi komuniatzen diran anima berei beren poz-atsegin-aldi, ta ongi-ongi bizi nai andi bat ere; *omnis saporis sua vitatem* (sap. 16. 20.); ta, ala bizitzeko erakusten die Jesusek anima berei zer belar utzi, ta zer artu, edo nondik iges egin ta zer gauzak egin.

Era orretako komunioneak egiten dituzten animak, Jesusek noizbait utziagatik, edo anima berak, beren komunionea bukatu ondoan, ez dira, ez, bakarrik gelditzen; gelditzen dira beren aingeru zaitzalle onarekin; ta gelditzen dira, Jesusen biotzeko amore zoragarria, ta Jesusen etor-aldi artan berak ikasi, ta artu dutena gogoaren ondoraño sarturik gelditzen zaiela: *memoriam abundantiae suavitatis eructabunt*: Eta orrekin aisa daramazte geroko denboretan beren neke, kezka, ta naigabe guziak; egiten dituzte zuzen, ongi, ta bear den bezala, beren gauza guziak; eta ordu beretik prestatzen dira urrengo beren komunionean ondasun berriak beren Jesus onagandik artzeko; ta orduan, ta gero, artzen dutenarekin doaz birtutez birtute, ta zerurako irabaziak irabazien gain egiten dituztela.

Ekusi zazu orain zuk andia den, edo ez, gure Jesus maitagarriak ongi komuniatzen diranei agertzen dien amorea: ta ori oriei agertzean egiten dien ontarte ondasunduna!- Ez dizu noski oraindañokoan zuri agertu izandu Jesus maitagarriak, orrenbat ondasun ekarri dizkitzun bere amorearen berri andirik!- Zergatik ote? Nola izan oi zen zure komuniatzea? Nolakoa, komuniatu ondoko Jesusekin zure egotea? Eta nolakoa geroko

zure ibillera?- Otz-otza, ta aragiaren, edo lurreko ezatasunez zere barrena zuk beterik zenedukala egin izandua? Jesus maitagarriarekin ezpazeunden bezala, egoten ote ziñan zu zere komunione ondoan? Komuniatu ondoan lenbaitlen elizatik iges egiten ote zenuen zuk; eta iges egiten ote zenuen zuk, gogotik utzirik zere Jesus maitagarria, ta geroz geiago Jesusez ez oroitzeko?

Zer nai zenuen, bada, gerta zekizun zuri zere komunioneetan? Bizi zaitez kontuz, ta bear den bezala, zu datozen denboretan. Zoaz bear den eran, ta maiz-maiz komuniatzera zu, ta besterik izain da denbor orretan.

Eta orain eska zazu, orretan lenago ez-asiaz, ta beste zere bekatu guzien barkamentua, ziñez erraten dezula: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

Sentite in vobis quod in Christo Jesu.

Philip. 2.

Gizon bategatik beste batek daraman nekeak adirazten omen du, gizon onek ari nai diona. Andia da beraz, ta ezin andiagoa, gure Jesus maitagarriari zor

diogun ongi naia ta amoreaa; bada andiak izandu ziran, ta ezin andiagoak gure Jesusek gugatik eraman zituen neke-tormentuak, edo bere barreneko naigabeak, eta gorputzeko oñazeak.

Jesus maitagarriaren barreneko neke arrigarriak asi izandu ziran Jesus beraren bizitzarekin, ta etziran bukatu beraren eriotzeraño: ta guztiak izandu ziran beti guztiz andiak, eta batzuetan beintzat ezin-andiagok, eta odolezko izerditan gelditzen ziranak.

Gure Jesusen gorputzeko nekeak izandu ziran, Jesusek berak barrendik izandu zituen neke beren era-koak; eta orregatik agitz izugarriak. Oroi zaitez ezpe-
ren arantzez, azot-ukaldiz, ta iltze gogorrezko, bere etsaiak Jesus maitagarriari bere gorputzean eman ziozkatenez.

Ez dezu ekusten zein andiak, zein arriagarriak, eta zein parerik bagekoak?

Oriek diranak, bada, ta bere barrendik Jesusek izandu zituen neka-giro gogor guziak dira, Jesusek berak aldareko bere Sakramentuz, edo ogi-ardoak eraman oi dituzten lertzez, ta urratzez, erretzez, ta egostez, adirazten dizkigun neke-tormentuak!

Eta au dela (den bezala) gure Jesusek zuri ager-tzen dizun bide zerurakoa zer ote da gaurgero zuk

egin uste dezuna? Zere gogo galduak ematen dizun besteren bat artu, ta aisa bizi? Zer? eta era orretan igan nai dezu zuk gure Jesusen erresumara?- Erakeria! An, Jesusen erresuman sartzen ez da, Jesusen bidez ez dabillen andi-txikirik. Arako bazara zu, eraman beariko dituzu zuk zere kezkek, zere naigabeak, eta zere neke-moduak; eta eraman beariko dituzu, bere neke-tormentuak, Jesusek eraman izandu zituen eran, edo gure Jaungoiko maitagarriaren izenean eme-emekitxo, ta bear bezala.

Ori da gure Jesus maitagarriak zuri adirazi nai dizuna, beraren aldareko Sakramentura zuk begiratzten dezun aldi guzietan.

Aditzen dezu? Egin izandu dezu zuk oraindañoko denboran, orain zuri adirazi zaitzuna? Ez? Etzara beraz zu gure Jesusen ume onetatik. Etzara beraz zu zerurako dauden anima garbi berezietatik.- Ez segurki, ez, beste biderik zuk gaurdanik, edo garai onez ez artzera. Artu zazu, bada, zuk au lenbaitlen; ta artu zazu gure Jesusek len artu izandu zuen eran, argatik zuk zenbait neke artuko badezu ere. Zerbait zu orretan nekatzen bazara ere, etzara nekatuko, ez, gure Jesus adiña. Eta, nekatuko zaran baño, geiago ta geiago nekatuko baziñake ere, bukatuko dira laster zure

neke guziak, Jesus maitagarriarenak len bukatu ziran bezala; ta ez dira bukatuko sekulan zure atsegin-gloriak.

Saia zaitez, bada, Jesusen ondoren, ta aren eran ibiltzera; bai arren, bai!

*Reliquite infantiam, et vivite,
et ambulate per vias prudentiae.*

Prov. 9. 6.

Zertako da gaur orrenbat aurkeri (erraten digu guri gure Jesus maitagarriak aldareko bere Sakramentutik)? Edo zertako da gauza txar galgarri zenbaiten ondoren, on andiak aldebat utzirik, zuek zabiltzten eran ibiltzea.

Antuste gaistoz beterik arkitzen zarazte zuek aspaldi guzian, ta aize utsa da denbor orretan guzian zuen janaria, ta zuen edari guzia; aize utsa da alabaña zuek billatzen dezuten emengo lekua, emengo eskua, ta emengo manu guzia; ta manu-esku-leku orren billan zarabiltzte zuek zere arrotasunak, eta aizezko antusteak.

Orrelakorik ez denean zuen buruetan, aragi zikiñak zaramazte zuek zeren eskutik bezala, eskutik aurbat eraman oi den eran; ta zaramazte loiez loi, kezka kezka, ta naigabez naigabe; bada orretan gelditzen dira, ez beste tokitan, aragiaren poz-atsegin loi-lizunak, eta ibillera makur-lotsagarriak.

Era orretan zuek zabilztenean, ateratzen zaizkitzue zeren bideetara mundu eroa, ta munduko lagun zentzubageak, edo gaizki dabilztanak: eta agertzen dizkitzue beren lege ta bide gaistoak, bide beretan zuek sarrerazi naiez; ta sartzen ere zarazte zuek, orien beren lagun eroak izatera.

Noiz artean, bada, zuek era orretan ibilli bearrak ote zarazte, dio gure Jesus maitagarriak, edo noiz artean idukiko nazue, ni zuek, nagoen eran, emen nere Sakramentuan zuen begira?

Utzazue zuek; utzazue (ta bertatik alere) zeren aurkeri eroegia. Iges egizue zuek zeren lagun gaistoen artetik. Egiozue zuek ez-ekusi mundu galgarriari, edo munduko gaistoak erakusten dizutenari. Begira zaiozue zuek zeren lurrezko izateari, ta zeren laster, ta fite, ill bearrari. Eta ez da zuek zer-eman, ez, zeren aragiari atsegin debekaturik, joan nai ezpadezue zuek betiko sulezera, an kiskiltzen, erretzen, ta lertzen zuek

eternidade guzi-guzian egotera.- Utzi zatzue, bada, zuek, dio gure Jesus maitagarriak, zeren aurkeri oriek. Atozte zuek onera nigana. Atozte zuek ni emen alda-rean nere Sakramentu onetan ekustera, ta zeren komunione onetan ni artzera.- Ori guzia zuek zuzen egitera, nik emain dizuet zuei emen, biziera garbi on bana zuek egiteko bearko dezutena; ta gero sekulako gloria.- Ez dezue zuek ala ere nigana nai?

Bai, gure Jesus maitea, bai; ta pozik alaere! ta zori-gaistoan ibilli gara gu oraindañokoan ere zure igesi, ta geren aurkeri eroetan! Bukatu dira guretzat, bai, oriek ezezik, era berekoak, eta beste guziak ere. Bai, gure Jesus maitagarria, bai, sendorki zuk, eta beti guri laguntzen diguzula. Egizu, bada: bai arren, bai!

*Implebit splendoribus animam tuam...
et eris quasi hortus irriguus et sicut
fons aquarum, cujus non deficiente aquae.*

Isai, 58. 11.

Andia da, bai segurki, gure Jesus maitagarriari zor diogun, ontarte-faborea, zeren aldareko bere Sakra-mentua guri agertuz, adirazten dizkigun guri bere

neke penak, eta bere biotzeko naigabe ta amore andiak. Andia da, bai segurki, Jesus berari guk zor diogun ontartea, zeren Sakramentu beretik, berez batzuetan, ta beste anitz aldiz anitz aldetara deiez dagokigun, an bera guk artzen dugunean ongi andiak ongien gain guri egin naiez: baña agitz eta agitz andiagoa da an bertan guk Jesusi zor dioguna; an ala-baña bere eman naiak agertu ezezik, emate berak ere egiten dizkigu; ta emate, guk artzalle gerok artu al adiñakoak.

Ara, dio Isaias profetak; ara gure Jesusek, ongi komuniatzen diranei egiten diena: betetzen diezte zeruko bere argiz ta edertasunez beren animak. Anima era orretan Jesusek beteak badute, erregeren lorezko baratz ederrak ur adiña, zeruko grazi, ondasun, ta doai; ta orien doai-ondasun-graziak dira, izan dezaten animak, beren birtuteak bear duten ezatasuna ta azi-bidea; bada berekin dute izatez beren komunionean; ta gero naiez ta laguntzez beren Jesus maitagarria da, aitzen ez den iturria, edo, eternidade guzian iraun bear duen graziaren emallea.

Gure Jesus osa; ta zure maitagarria! Zeri dagokiala guri zuk onenbat ontarte, onenbat ondasun, ta laguntza? Zer egin dugu guk bein ere zure alde, zu

onela gure ondoren ibiltzeko? Zuk zereganagu onenbat aldetara deitzeko; ta, zerekin zuk gaduzkatzunean, zuk guri onenbat begitarte on egiteko?

Ezagun da, bai, bazterrik bagekoa dela, zure biotzak guri digun ongi naia ta amorea; bada, ez dezu zuk gure bearren pitsik ere; gugandik artu dituzu zuk, ez dakigu zenbat laburtasun ta txarkeri: ta, gurekin egiten dezuna zuk, zure ontasunetik eta zure biotzeko amore bazterrik bagekotik datorkigun ontartea da.

Aingeru guziak zu, ta zeru-lurrak bedeika zaitzate-la, gure Jesus maitagarria, guri zuk egiten diguzun, onagatik, eta aldare orretan erakusten diguzun zere amoreagatik. Eta, nola-ere-bait oni guk erantzuten asteko, iguzu zuk, oraindañoko gure txarkeri guzien damu andi bat, eta urriki bortitza; baita zere grazia ere, Orain guk ziñez errateko: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

LXXXI.garren OTOITZ-GAIA

ZERGATIK EZ DUTEN ANITZEK

ATERATZEN BEREN KOMUNIONEETATIK,

ATERA LEZAKEENAREN LAURDENIK ERE

Lenagoko otoitz-gaietan ekusi dugu guk, zertara datorkigun guri geren komunionean gure Jesus maitagarria; edo ekusi dugu, Jesus datorkigula sulezekoak gugandik aienatzera, munduko aurkeri eroak begitan guri arreraztera, aragiaren naikunde loiak utzeraztera, geren aztura gaistoak urratzen, ta geren pasione galgarriak eskuratzen guri laguntzera; ta Jesus datorkigula, gure adimentu, ta naibide edo borondate elbarriak sendatuak, eta sendortuak guri uztera; ta gu gerok uztera, graziaz, birtutez, ta zerurako irabazi ederrez beteak; eta denbora berean, poz-atsegin andiekin gu gerok uztera.

Baña artzen ote dute au guzia komuniatzen diran guziak?- Ez noski, ta laurdenak ere, osoro beintzat, eta bear bezala.

Zergatik ote?- Ori da guk gaurko geren otoitzean astiro, kontuz, ta ongi-ongki ekusi bear duguna, orren-

bat ondasun galerazten dizkiguten gauzak, geren baitatik lenbaitlen guk aienatzeko.

A.

Bakan komuniatzen diranak, galdu oi dituzte komunione-ko ondasun guziak, edo beintzat anitz

1. Atozte nigana (dio gure Jesusek aldareko bere Sakramentutik *Matth. 11. 23*); atozte, neketan zabilzten, ta kargapean arkitzen zarazten guziok; eta nik emain dizuet zuei komunione oneko zeren bokadua; ta nere bokadu orrekin zuek artuko dezue, zeren lanean zuek, edo zeren bidean, irauteko bearko dezuten indarra ta laguntza.

Zer ote dira gure Jesusek billatzen dituen zorioneko langille, ta bidari oriek.- Adinetaran dira bataiatu guziak.

Zer neke ote dira, langille, ta bidari oriek dituzten nekeak?- Sulezekoen aldetik, lurrekoen aldetik, eta beren korputzen aldetik etorri oi zaiztenak batzuek, eta besteak beren oitura gaistoen ta pasione asalda-

tuen aldetik izan oi dituztenak; eta, guziak dira, alkar artzen dutenean beintzat, guztiz izugarriak.

Nekatzen du sulezekoak bataiatu gaisoa, andik edo emendik, eta berak dakien eran egin oi diozkan bere tentaldiekin.

Sulezeko amurratuaren tentaerak dira tristuraz bata, ta irañez, ta suz, edo naikunde makurrez bestea beterik uztea. Bata ta bestea agitz nekatzen dira, sulezekoaren tenta-er oriek beregandik kendu naiez dabillen denboran.

Eta, sulezekoaren tentaerak guti bailira bezala, tentatzen dute bataiatu bera lurreko gaistoak ere: tentatzen dute bere lagunak, eta arrotz galgarriak; eta tentatzen dute ori oriek, batzuetan beren erriertekin, ta beren itz bidegabekoekin; ta besteetan gezurrezko asmazioekin, edo zenbait beste txarkerirekin: ta au guzia eme-emeki, ta, gure Jaungoikoaren ize-nean bataiatu berak eraman bearra, neke andizko egiteko gogorra da.

Beste tentatzallerik ez duenean ere, berekin du bataiatu gaisoak bere burua, edo bere aragia.- Bataiatu beraren aragi au makurtua dago beti atsegin txar galgarrien loietara; ta, ara ez dedin bataiatu guzia,

berere aragiarekin beti tiraka ibilli bearra, lan, edo egiteko ongi nekagarria da.

Beren egiteko gogor onen gain badute besterik ere, len gaizki bizitu izandu diran bataiatuak; badituzte alabaña leneko beren bekatuak utzi ziezten zauriak, aztura gaistoak, eta pasione asalduak; eta oriek guziak beti jartzen dira bataiatu beraren etsaien alde, ta lagun.- Zer ekusten ez dute, bada, bataiatu gaisoak beren zauriak sendatzen, beren azturak urratzen, ta guztiz asalduak arkitzen diran beren pasione sutuak eskuratzen ari diranean.

Oriek orretan ari diranean, an bertan dira aztura gaistoen, ta pasione galgarrien alde etorriak, sulezeko etsai amurratuak: eta guziak elkar artu ezker, au oriek ordu artan artzen duten bezala, nork daki zenbat egiteko, ta neke eman oi dieten bataiatu berei?

Ekusten dituzu bataiatu gaisoen neke gogorrak.

2. Eta zer kargereri ote da bataiatu beren orduko kargeria?

Gure Jaungoikoaren uztarria; ta, Jaungoiko beraren Legeak dakarren neke guzia; ta beren Jaungoiko bera bataiatu berak gauza guzien gain, edo beste gauza guziak baño geiago, ta garbi-garbi maitatu bearra; beren emengo etsai berei ere begitarte on bio-

tzezko bat egin bearra: ta denbora berean oriek berak beren begiei, beren bearriei, ta beren miari, ta gorputz-anima guzi-guziari, nai ez lukeen anitz gauza eragin bearra: nori berea, ta bear den orduz, eman bearra; besteri egin bage bein ere, orietatik batek ere beretzat naiko ez luken gauzarik txikiena: ez dakinari al dutena erakutsi bearra: bearrean arkitzen denari lagundu bearra; ta, bear diran beste gauz anitz goizetik arratseraño egin bearra. Ori guzia da bataiatu onak eraman bear duten zeruko karga.

Atozea, ta guk len adirazi dugun adiña nekatzen dena, ta era onetako kargarekin dabillen bataiatua, ez da gizon ongi urrikalgarria? Ez da noizean bein atsedeen-bearra, bokadu onak artuz, indar berriak artzeko? Au ark mugaz, ta garai onean ez egitera, ez da lertuko laster, ta illa geldituko bere kargupean, edo bere bekatuaren atzaparretan?

Ori gerta ez dakion, da gure Jesus maitagarriaren deia, ta komunioneke maia ederki prestaturik Jesusek idukitzea.- Ara bear du, bada, asti ta maiz, bere nekeetan ta Jaungoikoren Legeko bere uztarpean illik erori, ta bekatuaren loiean gelditu nai ez duen bataiatuak.

Au guzia guri gure Jaungoikoak ederki adirazten digu, Elias zeritzan profetari bein gertaturikako gauza batekin.

Jezabel zeritzan Israelko erregin gaisto batek ezin ekusi zuen profeta.- Zergatik uste dezu? Zeren gure Jaungoikoaren gauzetan guztiz zorrotz-zuzena zen Elias, ta Jezabel gaistoak ezin eramane zuen arenezuzentasuna, ta zelo garbia.

Gaztigatzen dio bein Jezabelek profetari, ez diola ematen egun bateko bizia baizik.- Au ark aditu orduko, ematen dio bere igesiari; sartzen da bakarrik baso batean, ta badabil an, batere gelditu bage egun bateko bide guzian.- Nekez, ta kezka zena beterik gelditzen da gero arbola baten ondoan profeta. Eskatzen dio au bere Jaungoikoari, atera dezala lenbaitlen emendik: aspertu dela bizitzez, ta eramane dezala bertatik, edo geiago luzatu bage, beste mundura.

Bere otoitz au Jaungoiko maitagarriari egin ondolan, zekarren bere nekeak garaitzen duela, gelditzen da lo Elias profeta.

Ura an loak artu, ta laster agertzen zaio Eliasi zeruko Aingeru bat. Iratzartzen du Aingeru onek Elias, ta erraten dio: Orra ogia bere urarekin, ta jan zazu orain zuk.- Ekusten du Elias profetak bere aldame-

nean opilautspean erre bat, eta taza bat ur: eta ura jan-edan ondoan etziten da berriz lo.

Agertzen zaio berriz Aingeru bera; ta, len bezala, berriz ere iratzarririk, erraten dio Eliasi: Ea: zertan zaude zu or? Jaiki zaitez laster, ta fite, ta jan zazu berriz ere; bada bide luzea da zuk daramazun bidea; ta orregatik da indar andiak eskatzen dituen bidea.- Jaten, ta edaten du berriz profetak: artzen du bidea, ta badabil orduko bere jan-edanak emanikako indarrarekin berrogei gauetz, ta berrogei egunez, batere gelditu bage, Oreb zeritzan, Jaungoikoaren mendira igan artean. *3. Reg. 19.*

Ekusten dezu? Orra bada, gure egunetan gertatzen denaren aintzura, edo itzal eder bat.- Noren aintzura, noren itzala, edo noren imajina dela, deritzazu zuk, profeta?- Ongi bizi den, ta obeki komuniatzen den anima bataiatuarena.

Zer ote da Jezabel deritzan erregin au?- Gure aragi gaisoa, bere pasione, ta lagun galgarri guziekin.

Zer ogi ote da ogi autspean erre au?- Aldareko gure Sakramentua.

Eta Eliasek artu zuen taz ura?- Aldareko gure Sakramentu berak dakarren grazia.

Oreb deritzan, Jaunaren mendia?- Ongi komuniatzen diranak erdisten duten zeruko gloria.

Zer gertatzen ote zaio emengo bataiatuari?- Gaizki bizi bada, bake gaistoan bizitzea Jezabelekin, edo bere aragi gaistoarekin, ta, onen alde diran pasione asaldatuekin, sulezeko galgarriekin, ta emengo mundu galduarekin.- Zorigaiztoko ongi etortzea da, era onetako orien ongi-etortze ori; bada sulezera zuzen-zuzen daraman ongi etortzea da, orien ongi etorer gaisto ori!

Baña ongi bizi bada bataiatua, gaizki dator munduko, sulezeko, ta bere baitako, edo barreneko etsai gaistoekin: ta etsai oriek dabilta beti nondik galeraziko duten, edo nola erabiliko duten bekatuz bekatu bataiatu gaisoa.

Orretarako egin oi diozkate oriek anitz txartzen, ta beren txarkeriekin eman oi diozkate anitz kerri, ta nairgabe.

Orrekin agitz astuntzen zaio bataiatuari bere Legeko uztarria, ta atsekabe miñez betetzen zaio bere bizitza.

Zaitzen zaituen zere Aingeruak, zure konfesariak, edo ongi nai dizun besteren batek adirazten dizu zuri zere nekezko aldi orietan Elias profetarena, edo jan

dezazula zuk zere komunioneke maian bein ta berriz, ta maiz; ta, zere jate on orretatik ateratzen dituzun iudarrekin ibilli zaitezela gau ta egun bekatuaren loian bein ere gelditu bage. Zuk egitera, oriek zuri adirazten dizutena, igain zara zu, bai, azkenerako Oreb mendira, edo zere Jaungoikoaren erresumara.

3. Baña zuk ori egin lekuan, bakan bazoaz zu zere komunioera, gertatuko zaizu zuri Elias profetari gertatu bearra, egin ezpalu profetak, bere Jaungoikoak Aingeruz adirazi izandua.

Zer gertatuko ote zitzaion Eliasi, ark ez egitera, bere Jaungoikoak ari adirazia?– Ill galdua basoan gelditzea: bada, ori baizik, ezin gerta zekikeon baso-eremu batean nekez, ta flakiaz beterik zetzan Eliasi, jan ezpalu bein ta berriz, ta bear zituen indar guziak artu arteraño, Jaungoikoaren Aingeru onak ekarri ziona.

Ekusten dezu, zergatik ez dabiltzan zeruko bidean, ta zergatik bekatuatzan diran bataiatu anitz?– Zeren berandutik berandura, ta bakanegi artzen duta oriek, komunioneke beren janaria; ta zeren beren etsaiaren nekeak, eta beren Legeko kargak, edo uztarriak, arkitzen dituen oriek indar gutirekin, ta flakiaz, ta naigabez ongi beteak.

Ez da ala, bekatuz bekatu zabiltzan anima? Ez dezu zuk zerorrek ekusi izandu, maiz komuniatzen ziñan denboretan aisago garaitzen zenituela zuk zere etsaiak, eta neke andirik bage eraman oi zenuela zuk zere Lege-uztarria, ta errazki egiten zenituela zuk, zuri zegozkitzun lanak?

Orra bada nondik datorren zure kaltea, ta Jesusek bere aldarean, edo komunionean eman oi dituen ondasunak zuk ez-artzea.

Zorionekoa zu, orain ezagaturik zuk zere galbidea, uzten badezu bertatik, emen zuk bertan artzeko beste ondasunduna; edo, utzirik zuk oraindañoko zere nagitasuna, jaikitzen bazara zu geroz geiago, nagitasunean lorik ez egiteko asmoan; ta jaten badezu zuk, zere Jaungoikoak bidaltzen dizun komunioneke ogia; ta jaten badezu, zere etsaiak garaitzeko, ta zeruko bidez zuzen ibiltzeko, bearko dezun adiñetan, ta jan bear den eran.

B.

Bear den eran egiten ez diran komunioneetatik datozen kalteak

Bi aldetara zikin dezake batek bere biotza, edo bere anima: zikin dezake bekatu larriz ta zikin dezake bekatu arin-txikiz.

Lenbiziko bere zikintze galgarri au kendu bage komuniatzen den animak, galtzen ditu komunionekeo ondasun guziak.

Zikiñ er au bere baitatik anima berak kenduagatik, kentzen ezpaditu bigarren zikiñerak edo bekatu larrien arrautsak, galduko ditu, guziak ez, baña bai komunione bereko ondasun-zati anitz, eta andiak. Ori da orain guk astiro ekusi bear dugun gauza, komunionekeo ondasun guzien irabazbideak zuzen artzeko.

1. Bai, galduko ditugu guk geren komunionekeo ondasun guziak, bekatu larriekin guk geren komunio-
nean Jesus artzera.

Zergatik uste dezu?- Zeren egiten diogun guk orretan gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriari, egin dakikeon bidegaberik eta txarkeririk andiena; sartzen dugu alabaña guk bekatu zikin izugarriak bereturik dadukan geren gelan, edo barrenean: ta ez diogu guk emen ematen gure Jesus maitagarriari, tokirik txarren txarrena, ta bekatuaren oinpea baizik.

Eta nola, nai dezu zuk eman dakigun guri leku txar, itsusi, zikin onegatik komunione oneko ondasu-netatik batere?

Guri oriek aldi orietan Jesusek ematea lizake, Jesusek berak bein adirazi zuen bezala, gauza guztiz itsusi bat egitea; bada lizake ezkurra, ta bazka zikiña baikik nai ez duen txerriari perlak, eta margarit ederrak ematea: ta ori, dakusazun bezala, eroaren lana da, ez jakiundez beterik dagoen Jesus onarena.

Errege batek deitu zituen bein bere semearen ezteietara, errian arkitzen ziranak, eta ara joan nai izandu zuten guziak. Sartu ziranak an, laster ta fite bete zuten ezteietako maia.- Sartzen da gero Errege ezteilea, ezteietakoak zer eran an arkitzen ziran ekustera. Ekusten du an bat ezteietako soñekorik bage. Urbiltzen zaio, dagoen tokira, ta erraten dio: Atozea, ta nola sartu zara zu, ezteietako barazkaltegi onetara, onarako bear zen soñekorik billatu bage?- Mututu zen gizajoa; ta gelditu zen, errege galdegillari zer erantzun etzuela.- Itzultzen da orduan errege bera bereetara, ta erraten die: Ori, esku-oñak loturik, bota zazue alkegabetzar ori arako urruti artako illunbera, izan dezan an betiko negarra, ta betiko bere ortzen karraskada amurratua.

Au guzia gure Jesusen parabola da (*Matth. 22.*); baña parabola, orain guk diogun au ederki guri adirazten diguna.

Errege andi eztei-emalle au Aita eternoa da. Onen Semearen ezteiak komunionekeo jan-edan guztiz goiso ondasundunak. Onara deiturikako jendeak, Elizan bizi diran bataiatu guziak dira. Ezteietara, ezteitako soñekorik bage doana, gure Jaunaren graziarik bage arazten den edozein da, edo bekatu larriz zikindurik arkitzen den anima.- Etzaio ezer, edo deus ematen, era onetan arazten den animari. Andik ateratzen da anima erromes beartsu au, zeruko bokadurik, edo Sakramentuko ondasun bat artzen ez duela. Eta era orretan, orrela komuniatzen den anima mundu onetatik ateratzera, eternidade guzi-guziko sulezera bota bearra da.- Eta orra non, bere komunioetik ondasun andiak atera bearrean, ateratzen dituen izurri gaisto bat, eta bere eriotza, gaizki komuniatzen den edozeñek, edo bekatu larriarekin komuniatzen den animak.

Au guri adirazten digu gure Jaungoiko maitagarriak, bere Seme Jesusen Ezteiekin ezezik, Israeldarreien gertuturikako beste gauza batekin ere.

Bazuten israeldarrak, Testamentuko arka deitzen zioten kutxatxo bat. Emen beren kutx onetan zeduka-

ten israeldarrak Mana-zati bat. Mana zen, aldareko Sakramentuaren itzal bat bezala. Kutx au berekin zutenean, garaitu oi zituzten israeldarrak beren etsaiak; eta artzen zituzten denbora berean israeldar berak ondasun andiak beren Jaungoikoaren eskuetatik, baldin ongi bazeuden beren Jaungoiko berarekin.

Eraman izandu zuten, beren Jaungoiko berarekin ongi arkitzen ez ziran batean, Testamentuko Kutxa edo Arka au beren exerzitura.- Asitzen dira pelean bere kutxa au berekin dutela: baña orduan israeldarrak beren etsaiak, garaitu lekuan, etsai beren eskuz illak gelditzen dira israeldar beretatik, ogeita amar milla beintzat; eta gañerako guziak iges egiten dute, al duten aldeetara; ta onen Testamentuko Arka edo Kutxatxoa gelditzen da orien beren etsaien eskuetan.

1. Reg. 4.

Era berean gelditzen dira gaizki komuniatzen diranak ere; bada beren komunioneetatik oriek ateratzen dutena bekatu berri baten animako eriotza, beren pasione galgarrien, ta gañerako beren etsaien atzapar gogorretan sarturik gelditzea.

Ongi da: ta zer eratan egiñak izan oi dira zure komuniorik geienak? Zere gaizki-egiñaz damurik bageko, ta bekatu berrietarako bideak uzteko asmorik

ez duten konfesionekeo makurren ondoren egiñak? Bai!- Guztiz urrikgarria beraz zu: bada, era orretan zu konfesatzen zaran aldietan gaizki konfesatzen zara; ta, zu gaizki konfesatu ondoko zure komunionea zure animako izurri gaistoa da, ta sulezerako bide galgarri zuzen-zuzena. Zure urrikgarria bada, berriz ta berriz ere, era onetan komuniatzen zaran anima.

2. Bekatu larririk bage komuniatzen denak artzen du beti bere ondasuna, baña ez du artzen, artuko luken ondasun guzia, zenbait bekatu txikirekin badao bere komunioera.

Era orretan doaz bere komunioeetara begi ariñak dituztenak, agertzen diran gauza guziak ekusteko, gauza gaistorik oriek ez ekusiagatik. Era orretan doaz, itzontzikerietan egon oi diran berritsuak, kalte andirik ez egiñagatik oriek beren itzekin. Era orretan doaz joko ta jostatze luzeak egin oi dituztenak, joko-jostatze oriek berez gaistoak ez izan arren. Era orretan doaz moldakaitzak, eta etxeakoak, lagunak, edo oriekin diardukatenak zerbait mindurik utzi oi dituztenak. Era orretan doaz, etsaia izendatzen dutenak. Era orretan maiz asaldatzen diranak, asaldazio andirik aldian ez artuagatik. Era berean doaz beren komunioeetara alferrak, nagiak, eta beren loari, edo janari, ta edana-

ri, bear baño esku geiseago ematen diotenak.- Era berean doaz beren komunione beretara, besteren gauzei, edo bereei bear bezala begiratzen ez dienak; baita gezurtiak, eta beste edozein uts txikitara oituak dauden guziak ere.

Oriek guziak bada, bekatu larririk beren komunio-nera ez eramanagatik, artzen ez dituzte, ongi komuniatzera, artuko lituzkeen anitz eta anitz zeruko ondasun-zati.

Zergatik ote?- Zeren ez daramaten ondasun orien diña ontzi, ta toki; ta orregatik gertatzen zaien oriei, eri bati bere janari indartsuarekin agitu, edo gertatu oi zaiona.

Jan dezatela eper bana, osasun ona duen batek, eta eri arkitzen den beste edozeñek. Zer gertatuko da?- Eperrak on eta atsegin andi bat egitea, ta indar andiak ematea, osasuna ona duen edozein jaleri; ta denbora berean bere buruarekin ezin burutuz erabil-tzea eri gaisoa, onek janikako bere eperrak; eta eriari bere eperrak, indarrak eman lekuan, indarrak kentzea.- Nola, bada? Etzen eper bata bezain ona bestea? Bai; baña ez izan, osasuna duenak bezain barren gar-bia, erisko dabillen beste eper-jaleak; eta orregatik

ezin artu-al eriak, besteak ar ditzaken atsegin-inda-
rrak.

Era bereko gauza da gertatzen zaiena, eta batean komuniatzen ez diran biri, biak komuniatuagatik beren Jaungoikoaren grazian, ta adiskidetasunean; bada bata, eta besteak izanagatik beren Jaungoikoaren grazi ta adiskidetasun au, komuniatzen da bata anima garbi-garbiarekin, ta bestea bere bekatu txiki zenbaiten zerbait auts edo pits duela: ta orduko bere komunionean artu oi ditu lenbizikoak anitz grazi, anitz gogargi, anitz atsegin, ta ontzeko anitz naikunde: eta komuniatzen den besteak, artuagatik zerbait indar ta grazi, galtzen ditu komunione on-on garbiaren gañerako ondasunak, edo beintzat zenbait, edo anitz.

Eta au da noski oraindañokoan zuri gertatu izandu zaitzuna? Norenak dira utsak? Zergatik ez dezu zuk ongi garbitzen zere anima? Zergatik ez dituzu lenik uzten zuk zere aurkeriak eta bekatu txikiak, ara zu urbiltzen zaraneke.

3. Badira komuniatzen diran animetatik beste zenbait ere, komuniatu ondoan kalte berarekin arkitzen diranak.

Zein ote dira kalteti urrikgarri oriek?– Oriek dira, komuniatu orduko beren gogoa barraiatzen dutenak.

Ez diote oriek batere begiratzen, berekin dadukaten beren Jesus maitagarriari. Au an beren barrenean bakarrik uzten dutela, badoaz oriek, nork daki nora, ta bere gogoz ta asmoz dabilta gogoak ematen dien tokietan, ta bazter galduetan; ta ez diote itz bat esaten bitartean beren Jesus maitagarriari: ta orien komunionean Jesus etorriagatik, oriek ondasunez betetzera, bere ondasun bereziak berekin gelditzen zaizka Jesus maitagarriari, eskatzallerik bagez; ta Sakramentua bukatzen den denboran uzten du Jesussek, komuniatu den anima, eman nai ziozkan bere ondasun ederren laurdenik ere ematen ez diola.

Atozea; ta ez da gauza guztiz negargarria, zuri gertatzen zaitzuna, zuri ere au gertatzen bazaitzu, komuniatzen zaran zere aldietan? Gure Jesus maitagarria zure etxean; zurekin zure Jesus bera zu komuniatzen zaran egunetan; ta zurekin zure Jesus arkitzen den ordu berean ere, ezpaliz baño geiago zu zere Jesusez oroitzen etzarala?– Zuri zere biotzera itz egin naiez zure Jesus; eta zu zere Jesusen itzik ez aditzeko, gogoz ta biotzez, nork daki non?– Zu bere ondasunez bete naiez zure Jesus maitagarria. Zu bere ondasun orietarako ongi prestaturik ekusi naiez zure Jesus maitagarria; ta zu zere prestatzerik gogoan ez dezula, ta

denbora berean zu lurreko asmo txar zirtzillez zere burua ongi nasturik dadukazula?

Erreal biren ustea bazenu zuk zere Jesus onagandik, etziñake egoin zu, ez, orren zentzugabea, ta orren zere galgarria; bada, zere komek-aldi bakoitzen ar ditzaketzula zuk zere Jesus onaren eskutik, Indietako urre-zillar guziak baño agitz geiago balio duten ondasunak, galtzen dituzu zuk, deusez bat balira bezala, ta norekin zauden zu zere aldi on orietan oartu gabez.

Non dezu, bada, zuk zere burua, edo zertan zabil-tza zu, era orretan zabilzan denboran?

Ez ongi, ez nere Jesus maitagarria! Indazu arren zuk oraindañoko nere utsen barkamentua, ta, uts berririk ez egiteko grazia; baita komunione bakoitzean anitz ondasun artzeko, bearko dudan zure laguntza ta grazia ere. Bai arren, bai!

*Ero eis quasi exaltans jugum super maxillas eorum,
et declinavi ad eum, ut vesceretur.*

Osee. 11. 4.

Zer nai dezu zuk dagidan nik zurekin, egin dudana baño geiago?, dio gure Jesus maitagarriak, aldareko

bere Sakramentutik deiez dagokigula. Ongiz, ondasu-
nez, ta zuri nik ederki lagunduz, zu neretu naiez nabil
ni, dio, anbat egunez, anbat illez, ta denboraz: baña
neretu zara zu orregatik? Nigana zara zu alere?

Ara, urrutitik ekusi zindudan nik zu zere uztar-
pean, edo zere legeko kargarekin erdi-lertua bezala,
edo ekusi zindudan nik zu guztiz nekatua; ta sulezeko
otso gaistoen, edo zere bekatu arrigarrien atzaparre-
tan illik geldi etzindezen zu, etorri nintzan ni, zuri
lagundu naiez, nere aldareko Sakramentura, ta ona
non nagoen ni, itzaiak idi nekatuarekin egin oi duena
zurekin egiteko asmoan, edo zuri zere uztarriaren
astuntasuna arintzeko, ta zeruko nere Aingeruen ogi,
edo nere gorputz-odolez zu ongi aserik, eta indarrez
beterik uzteko. Atozea, bada; ta egin nezaken nik zure
onerako, ta zu gal etzindezen, egin dudan au baño
gauz obeagorik?

A! baña, ez zuk egin nai izandu, zere onerako nik
nai nuen gauzarik batere! Zuk ez etorri nai izandu
nigana, nere aldera, edo nere eskura ta nere maira,
emen komuniatzera *noluerunt converti* (ibi v. 5.)! Igesi
ibilli oi zu maiz komuniatzetik! Sartu oi zu anitz zere
galbidetan! Erori oi zu bein bekaturen loi itsusian; bein
gaitzerako sasi-zuloetan, ta askotan-ta-askotan oben-

kulpen osin arrigarrietan!- Eta noiz edo bein zu komuniatuagatik, komuniatzen zu, leneko zere ibillera galduak utzi, ta zeruko zere bidean zuzen ibiltzeko asmorik bage; ta zu komuniatu ondoan, len bezala ibilli oi zu, ta zere bekatu berriz anima zerea loitzen, ta loitzen zenuela!

Eta zer da au guzia? Zer izain da, baizik nik nere buruaren galgarri gaistoak, nigatik zuk, nere Jesus maitagarriak, egiten dezunari, ta nere buruari ez begiratzea!

Nik ez dakit, nere Jesus maitagarria, nola dezun zuk nerekin onenbat ontasun, itxedate, ta pazientzia! Ez al dizut gaur geiago egiñen nik era onetako txarke-
ririk! Urbilduko al naz ni gaurgero maiz-maiz, ongi, ta garbi-garbiro aldareko Sakramentura, or niri zuk emanikako indarrarekin zuzen, ta bekatura bage, nere lanak bukatzeko! Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

*Capite nobis vulpes parvulas,
quae demoliuntur vineas:
quia vinea nostra floruit.*

Cantic. 2. 15.

Loretan dagoen mastia da gure Jaungoikoaren grazian arkitzen den anima. Anima onek, ez galtzera bere Jaungoikoak emanikako graziaren lore eder au, ekarriko ditu mats onak eta ardo goisoak, edo egiñen ditu bere denboran, Jaungoiko berari atsegin egiñen dioten gauzak, eta zerurako irabaziak.

Baña begira: odei beltzaren arriak, goiz otzeko itzotzak, edo bekatu gaistoak igartzen dituzte zeruko graziaren loreak, eta kendu oi dituzte mats-ardo guziak, edo birtutezko gauz onak; eta uzten dute, bekaturatzen den animaren mastia, edo ardantzea, ezin begira dagikeon eran ta guztiz galdu-arrasatua. Eta begira: badira masti onen, edo anima gaisoaren, beste galgarriak ere!

Zein ote dira anima onen etsai galgarri oriek?- Aiseri-kumeak, edo bekatu txikiak. Oriek aisa gordezten dira non-nai; ta gutika-gutika urratzen dituzte gauz onen sustraiak; galerazten dituzte gogargizko ta deseozko ur ederrak, eta, bekatu larriaren agorrarekin igartzen dituzte, edo galerazten graziaren lore ederrak.

Zergatik, uste dezu, galdu dela, ta bekatuz zikindu, len ederki bizi zen anima?- Zeren egin zen bere

burua apaintzera, lagun artera, ta eskergabeko itzketara. Zeren egin zen, aditu bear etziran gauzak aditzera, ekusi, edo ukitu bear etziran gauzak ekustera ta ukitzera, ta zeren gutika-gutika sartu zen, arrai eroa amuan edo sarean bezala, atsegin loiaren trabetan, edo bekatu galgarriaren atzaparretan.

Zere bekatu txikiez kasorik ez egitera zuk, zuk azkenean galduko dezu, bai, komunioneke graziaren lore ederra; ta, zere aiseri-kume txar, zere bekatu txiki oriek zere biotzean dauzkatzula, ez dezu zuk soseguzko komunioerik egiñen bein ere; ta galduko dituzu zuk, oriek iltzera izain zinitukeen anitz atsegin, Jesusen ondasun, ta zeruko zere irabazi.

Gauza txar oriek an garaitzen ote zaituzte! Zuk, oriek ez garaitzeagatik, gelditu nai ote dezu orrenbat ondasun bage? Non dezu zuk zere zentzua? Non burua?

*Quando sedebis, ut comedas cum Principe...
statue cultrum in guture tuo; et...
ne desideres de cibis ejus,
in quo est panis mendacii.*

Prov. 23. 1.

Zere erregerekin zu barazkaltzen bazeunde, nola ta zer eran egoin ote ziñake zu? Zere erregeri begiratzten etzeniola? Zer jaten ari ziñan oartu bage, eta andik urruti, ta gauza zirzilletan zere gogo guzia zenedukala?

Ori erregek zuri ekustera, zer egiñen ote likezu! Ez ote zinduzke zu ark ordu gaistoan andik aienatuko? Ez ote zinduzke ark zu galera batera, edo presondegi gogor illunen batera igorriko, edo bidalduko? Ori zen beintzat gutienez zurekin orduan ark egin bear zuke-na.

Ongi: ta norekin barazkaltzen ote dezu zuk, zu komuniatzen zaran aldietan? Zer janari ote da, or zuri ematen zaitzun janaria? Eta nola ote zaude zu zere maian? Ekusten dezu?

Atozea: ez zaude zu erregeen Errege zere Jaungoiko altsuaren maian, komuniatzen zaran aldietan? Atozea, ez da gure Jaungoiko-gizona, ogi-idurian zuri an ematen zaitzun janaria? Baña zertan zaude zu zere gogoz, ta asmoz, komuniatzen zaran denboran, ta zu komuniatu ondoan? Oar zaitetz ongi; ta ekusiko dezu.- An zaude noski zu, edozein zere lagunekin barazkaltzen bazeunde baño agitz txarkiago; bada zuk edozein

zere laguni ordu artan itz eginen zenioke, anitz isildu bage; ta zuk zere komunione aldietan ez diozu itz egi- ten anitz zere Jesus maitagarriari; ta batzuetan, ezpa- liz baño geiago, etzara artaz oroitzen ere.

Zer nai dezu, bada, dagizun zuri zure Jesus maita- garriak era orretako komunioneetan? Zeri dagokala, eman bear dizkizu zuri zure Jesus maitagarriak, ongi, garbiro, ta kontuz komuniatzen diranei eman oi diez- ten bere ondasun zati ederrak?

Oriek zuk ziñez nai badituzu, zu komuniatzen zaran aldietan ezarri zazu kanibet bat zere eztarrian, edo egizu kontu, izan ditekela zure azken komunio- nea, zuk aldi artan egiten dezun ura. Oar zaitez zu aldi artan zuk egiten dezun zere egitekora; ta ekusi zazu nor ote den ordu artan zu bere maian zaduzkan, ta an zure janari egiñik, zure barreneraño sartzen den zure Jaun andia?

A! ori zuk aldi artan kontuz ta zuzen egitera, etze- nuke kenduko, ez, zere Jaunagandik, kendu oi dezun bezain aisa, zere gogoia zere biotza, edo zere asmoa! Zu egoin ziñake, bai, arritu baten eran, ta zere Jaun- goikoari, egin dizkitzun bere ontarte guzien alde, milla ta milla esker ematen zeniozkala; ta denbora berean eskatzen zeniozkala, bera serbitzatzeko, ta ziñez mai-

tatzeko, bearko dezun laguntza ta grazia; baita, lenago zuk orretan asi bagearen, ta asi gabez egiñikako zere uts, eta bekatu guzien barkamentua ere. Egizu au emen bertatik, eta errazu alik zinkiena: *Nere Jesukristo, etc.*

LXXXII.garren OTOITZ-GAIA

KOMUNIONEKO ONDASUN ANDIEN

IRABAZBIDEA

Ekusi dugu, zergatik galtzen dituzten batzuek komunionekeo ondasun guziak, eta besteak ondasun bereetatik zati andiak; eta orain ekusi bear dugu, oriek guk irabazteko, komuniatzera baño len egin bearko duguna; egin bagez guk, egin dezakeguna, gal ez ditzagun orrenbat balio duten gauzak.

A.

Komuniorako prestatzeak eskatzen duen lenbiziko gauza da animaren garbitasuna

Mana zeritzan zeruko janari bat denbora luzean bidaldu zien gauoro gure Jaungoiko maitagarriak israeldarrei. Israeldarren janari au zen, gañetik zeto-
rren gauza ze-ze zuri bat; eta zen aldareko Sakramen-
tuaren itzala, aintzura, edo imajina.

Lurrera zetorren israeldarren janari au, baña ez, au artzeko lurra prestatu artean.

Nola uste dezu, egiten zela Manaren lurreko prestazio au?– Zeruko intz garbi eder batekin. Intz onek lur guzia estali artean, etzetorren lurrera zeruko Mana: ta lurrera zetorreanean, etzuen lurrik ukitzen bein ere: guzia gelditzen zen intz gañean, ta garbi-garbia. *(Num. 11. 9.)*

Zergatik ote?– Guri adirazteagatik guk egin bearra, ongi egiteko guk geren komunioneak; edo guri adirazteko nola prestatu bear dugun guk geren biotzen lur au, gure Jaunaren Mana eder, aldareko gure Sakramentua, guk artu uste dugunean.

Zer ote da, orretarako guk egin bearko dugun lenbiziko gauza?– Graziaren intzez ongi-ongki guk geren animak estaltzea; edo bekaturik batere bage guk oriek idukitzea.

Bai, dio san Pablok: ekus beza komuniatzeko dagoen edozeñek, nola dadukan ark bere anima. Begira beza bere biotzeko bazter ta zoko guzietara; edo ekus beza, bere eskuz, bere begiz, bere miiz, bere bearritz, gogoz, edo edozein beste bidez uts egin ote duen noizbait bere Jaunaren Legeko gauzetan, ta bere ekusaldietan arkitzen dituen utsketa guziak utz bitza

bere konfesariaren oñetan: baña, larriak beintzat, ez sugeak bere izurria edo pozoia bezala.- Sugeak, egarriturik edatera doanean, uzten du ugaldean izurria, edo bere pozoia, san Epifaniok dionaz (*haeresi 37.*); baña uzten du, bere ur-aldia edan artean: ta, ongi komuniatuko denak, eta bere pasionen egarria, graziaren urez, ill nai duenak, utzi bear ditu gogoz ta biotzez beti-betiko bere uts, andiak beintzat, eta bere bekatuak: eta oriek ark ala ez uztera, artzen du, dio san Pablok, komunionean bere galgaia edo bere kondenagarria: *Judicium sibi manducat, et bibit.* 1. Cor. 11. 29.

Bere galgai, edo kondenagarri au ez artzeko; ta orren ordeztzeko bere komunionean zerbait zeruko grazi ta ondasun eder, aski du bekatariak itzez, ta gogoz, konfesariaren oñetan bere bekatu larriak uztea.- Baña, artu nai badu anitz komunione oneko grazi, ta beste anitz ondasun, utzi bearko ditu, bere bekatu larriekin hatean, bere oben txikiak ere; eta, oriek baizik ez dituen anima garbiak, bere oben edo kulpa txiki-berak.

Len ekusi dugun aldareko Sakramentuaren itzal, edo Mana ura zen, az-azia, edo azaren biia baño, gauza txikiago edo zeago bat, edo begien ninien era-

koa: *erat autem Mana, quasi semen coriandri* (Graec.) *quasi pupilla oculi*. Num. 11. 7. Eta badakizu, edozein pitsek min ematen diola gure begiko niniari.- Bada, gure begiko niniak pitsa baño, begitan artuagoa daduka gure Jesus maitagarriak, den oben-kulparik txikiena ere. Eta, bere Jesus onagandik anitz nai duenak, ez du al-baz eraman bear, Jesusi begitan eman dezoken gauzarik txikiena ere, komunionekeo maira urbiltzen den aldietan.

Ojala, dio, Nierenberg deritzan gizon birtutetsuak: ojala, garbitzen balira komuniatzeko dauden gure animak, purgatorioko suan zeruan sartzeko daudenak garbitzen diran eran!

Ekusten dezu? Ala garbitu izandu ote dezu zuk zure ori, zu komuniatzen ziñan aldi guzietan? Lenbiziko aldian komuniatzeko zu prestatu ziñan ordutik begitan artuak ote daduzkatzu zuk zere bekatu larri guziak? Ez ote diozu geroz zuk orietatik bati ere lekurik egin zere biotz txar loi orretan?- Andiak ezezik, bekatu txikiak ere utzi oi dituzu zuk gogoz, ta biotzez, komuniatzeko zu konfesatzen zaran aldietan? Ala bada, zorioneko Jesusen umea zu, ta, zere komunio-neetatik ondasun andiak atera oi dituzun anima zu! Zabilta beti zu gisa berean, ta zuk aterako dituzu

zere komunioneetatik, zuk uste dezun baño ondasun andiagoak.

A! baño ni ez izan era orretan komuniatzen diran anima prestatu garbi-garbietatik! Nik, nere komunione batetik komunione bestera, egin oi, leneko nere utsak baño uts itsusiagoak ere; eta, askotan beintzat, leneko nere utsak baño ere, uts andiagoak, baita batzuetan larrietatik ere!

Nolakoak izandu ote dira, bada, nere Jesus guztiz maitagarria, oraindañoko nere komunioneak? Artu izandu ote dut nik nere komunione orietan zure ondasun orietatik zerbait bada ere?– Ez, anitz beintzat, nere bizierak gaur dionaz! Bada, nik orduan orietatik anitz artzera, ez zuen ain aisa galduko, ez, ta ez nintzan itzuliko ni, ez, itzuli nazan bezain laster ta fite, nere leneko utsetara!

Barkatu bear didazu zuk nere Jesus maitagarria, oraindañoko nere ibillera txar au, ta komuniatze bear ez bezalakoa. Besterik izain da, bai, emendik aitzina-koan, zuk zerorrek orretan niri laguntzen didazula. Nik gaurgero billatuko dut, bai, zugana ni urbiltzen nazan aldietarako, al dudan garbierarik andien-andiena.

Ongi egiñen dezu orretan zuk, bai; bada orain Jesus maitagarriak nai duena da, len beti nai izandu

zuena; ta len beti bere gauza guziak nai izandu zituen zuri-garbiak.

Aingeru, ta Serafin guziak baño agiz garbiagoa zen, gure Jesusek beretzat billatu zuen Ama Birjina. Jesusen Apostolu guzien artean garbiena san Juan Ebanjelarla zen; ta guzien artean oni agertu ziozkan gure Jesus maitagarriak bere ongi nairik andienak.

Ezkabitsuak, eta bekatariak garbitzen zituen gure Jesusek oriek bere aldean, edo beregana artzeko; ta garbitu nai izandu etzuten fariseo-tzarrari ta zuen erakoei gogor beti begiratu izandu zien gure Jesus maitagarriak.- Bere bizitzan ezezik, bera ill ondoan ere gure Jesus maitagarriak nai izaudu zituen oial zuri erosiberrriak, eta obi garbi, gorputz illek ukitu bagekoa.

Ekusi zazu, bada, naiko duen, edo ez, gure Jesus maitagarriak, bere gorputz-animak ongi garbiak idukitzea edozein komuniatzallek, komunionean beraren barrenera datorreneko Jesus maitagarria.- Baña zer izan oi da zuk egin oi dezuna, garbi-garbian zu, ta zure Jesusek nai duen eran ta ongi komuniatzeko, ta zuk zere komunietik ondasun andiak ateratzeko? Ez dakizu noski zuk zer egin ere. Nik orain adiraziko dizut gauz au zuri.

B.

Komuniorako prestatzeak eskatzen duen bigarren gauza da gure Jaungoikoaren beldur andi bat

Oar zaitez ongi zu, dio san Bernardok (*serm. 1. de Nativ.*), eta begira zazu, komuniorako zu prestatzen zaran aldietan, zer janari ote den orduan zu artzera zoazen janaria: bada, zuk ori ongi ezagutu ezkerro, gertatuko zaitzu zuri, len Patriarka Jakobi gertaturikako gauza bat, eta geldituko zara orduan zu, bere aldian ura bezain beldurtua.

Bere aitak agindurikako gauza bat egitera zijoala, ezin zen Jakob Patriarka, gauak artu zuen leku edo toki ageri batean.- An lo zetzala Jakob au, ekusi zuen onek berak lurretik zerurañoko eskalera luze bat. Ekusi zuen, eskaler onetan jatsi-igan zebiltzala gure Jaungoikoaren Aingeruak; eta eskal-buru berean ekusi zuen bere Aingeruen, ta gure guzien Jaungoiko maitagarria: eta aditu zuen, nola Jaungoiko berak berari erraten zion beste gauzen artean: Ni naz, ni, ongi bizi-tu ziran Abran ta Isak, zure atzinekoen, Jauna ta Jabea. Nik emain dizkizut zuri onenbat, ta anbat gauza. Nik

lagunduko dizut zuri zere bidean, ta nik ekarriko zaitut zu sasoi onean, ta zere osasunarekin, zere bazterrera edo tokira.

Au guzia, ta era bereko beste gauzak aditu ondolan esnatzen da, edo iratzarten da Jakob; ta, ai! dio, ona, ona gure Jaungoikoaren tokia: ta ez nintzan ni artara batere oartzen! eta zen guzia guztiz ikaraturik: arrigarria da, dio, leku au! Emen ez da, gure Jaungoikoaren etxea, ta zeruko atea edo sarbidea beste gauzarik batere! Orra Jakobi aldi edo arrast artan gertaturikakoa. *Gens. 28. á v. 11.*

Aita eternoak berezi dizu zuri gure Jesusen legeko bide garbia, zerura zu zuzen igateko. Zere bidean zu zabiltzan denboran, zure atsedean ordua etorri orduko, edo zure komunionezko denbora urbiltzen denean, aldebat utzirik zuk lurreko zere gauzak, begira egiozu, bere Aingeruz Aldare berean ingurutik arkitzen den Jesus maitagarriari; ta, ara baño len adi zazu zuk, zure Jaungoiko maitagarriak adirazi nai dizuna. Zer ote?— Or Sakramentu orretan, or arkitzen dela gure amorez gizon egin zen Jesus maitagarria. Ori bera dela ogeita amairur urtez zugatik, nork daki zenbat, egin ta eraman izandu zuen gure Jaungoiko-gizona. Ori bera dela, bere Pasionen santako neke-tormentu izugarrien

artean, zuen odola, ta bizia, zure onerako eman izanda zuen Aita eternoaren Seme maitagarria. Eta ori bera milla, zazpieun, ta anbat urtetan aldarera datoreen Jesus maitagarria.

Zertara datorkigula, zuk uste dezu?- Zure animako janari on indartsu izatera. Zure anima bera zeruko, ondasunez betetzera. Zuri zere lan on guzietan bere eskua ematera; ta zu berekin zerura eraman, ta eternidade guzian atsegin-kontentuz beterik an idukitzera.

Zuk au zere Jaungoikoari aditzera, edo zuk au elizaratzen zaran aldietan, astiz ta kontuz ekusten bazenu, komuniatzeko asmoa artzen dezunetik, ez ote ziñake zu ongi ta galanki beldurtuko? Joain ote ziñake zu gero komuniatzera, joan oi zaran adiña ausardirekin? Eta egoin ote ziñake zu komuniatu ondoan, egoten zaran bezain otz, epel, edo aisolakabe?- Ez dut uste. Ez eta zerorrek ere. Ezagutzen dezu, bai, zuk ere, zuk ori guzia zere gogoan ongi sartzera, ikara geldituko ziñakela zu, ta ezin urbilduz bezala, anbat zordiozun, ta ain bazter bagekoa den, Sakramentu orretako zere Jaungoiko maitagarri altsua zuk zere baitan or artzera. Eta, urbiltzekotan ere, urbilduko ziñake zu, nola zauden ekusteko, lenago zuk zere buruari ongi-

ongi begiraturik, eta animako uts eta pits guziak lena-go kentzen zenituela.

Era onetan nai du gure Jesus maitagarriak goazkion gu komunionekeo maira; ta artu bear dugu guk, gu ara baño len, orretarako bear den astia ta tokia.- Au guzia guztiz ederki adirazten digu guri gure Jaungoiko maitagarriak bere Lege zarreko gauza batekin.

Israeldar bat eskontzen zenean bere erriz ta bazterrez kanpoko emakumearekin, artu bear zuen illbete bat emazteki onek, artara bera prestatzeko. Kendu bear zituen bere buruko illea edo billoa, ta bete azkazal guziak, baita leneko bere soñekoak ere; eta soñeko berriarekin egon bear zuen doluz, ta negarrez bere gurasoen gain denbor onetan guzian: ta, ori guzia ark egin artean, etzen urbiltzen bere senar israeldarragana.

Atozea, bat eginik gelditu nai dezu zuk zere Jesus maitagarriarekin, zere komunionean zuk au artzen dezun aldietan?

Ongi: baño nongoa ote zara zu, edo zer eran arkitzen zaran anima? Zu ez zara, beren bekatu zikiñekin gure Jesus len ill izandu zutenetatik bat? Azi ote dira zure buruko illeak, edo zure gogoeta arro arin loi-galgarriak? Azi ote dira zure pasioneen azkazalak, edo

zure utsak eta zure bekatuak?- Zartu ote da zure soñekoa, edo galdu ote dezu zuk zere Jaungoikoaren grazia, edo gauz-onetarako zere naia ta gogoia?

Badezu beraz zuk ongi zer egin, komuniatzera zu urbildu baño len.- Zer ote?- Zere soñeko zarrak utzi, ta graziaz ta debozione zuri zeruko loredunez zuk zere anima ederki jaunzteia; zere buruko ille gaistoak, edo zuzen ez dabiltzan zure oroitzapen ta gogorazio guziak, ebakitzea; baita zere pasioneen azkazal guziak, edo orietatik datozen bekatuak ere; eta, zu konfesatu baño len astiz, ta galanki zuk negar egitea zere bizitza gaistoaren, ta zure Aita maitagarri Jesusi zuk emanikako atsekabeen gain.

Orra gure Jaungoikoaren Lege zarreko gauzak zuri adirazten dizutena: ta orra, zuk kontuz egitera, ongi zu beldurtuko zaituzten gauzak. Bada zuk ala oriek egitera, gogorako zaitzu askotan zuri, zure Jesus maitagarria zutaz ez urrikaltzera, galdua ziñala zu zere bekatuakgatik eternidade guzirako: gogorako zaitzu zuri denbora berean zere bekatuen itsustasuna; ta geldituko zara zu alkez ta lotsaz ongi betea: gogorako zaitzu zuri zere etsai amurratuen indar arrigarria, zure pasioneen sua ta kea, ta gaitzerako zure zerorren makurrera: eta au guzia zuri gogoratzean, gogorako

zaitzu zere Jaunari zuk zere bekatuekin eman izandu diozun aser-bidea ta orrenbat orrelako gogoratzeko beldurtuko du, bai, zure biotza: ta zere beldur onek, eta zuk zere Jaunagandik arturikako ondasunei gazki erantzun diezulako damuak, eragiñen dizu zuri kontuzko zere konfesioea, ta anitz-anitz lagunduko dizu zere anima garbi-ez ori ongi garbitzen.

Zorionekoa zu, era orretan beldurturik bada ere, uzten badituzu zuk, zere Jesus Sakramentatua artzera urbildu baño len, zere leneko soñeko zatarrak, azkazar billo zikiñak, edo zere oben kulpa andi ta txiki guziak; bada orduan zuk zere komunioneke maian artuko dituzu zere Jesus onagandik zeruko anitz ondasun ta doai-era.

C.

Komunioneke prestatzeak eskatzen duen irugarren gauza: batek bere burua eskuratzea

1. Bere burua batek bere eskuratzea, zeruko bere bidean zuzen ibiltzea da; ta era orretan or ibiltzea da, gure Jaungoikoari beti atsegin egitea, begi ariñak bil-

duz, mii itz-ontzia isil-eraziz, sartu-atera galgarriak utziz, lagun gaistoetatik iges egiñez, ta gorputz atsegin-zale nagiarri ukatuz nai lituken zenbait gauza; ta eragiten zaizkala, nai ez litukeen barurak, bearrak, eta beste nekeak.

Oriek arantzak dira, ta arantz, gure aragiaren gogoeta gaistoari miñ anitz ematen diotenak; baña arantz zorrotz orien artean arkitzen dira, gure Jesus maitagarriak ongi nai dien lirio zuriak, edo anima garbiak. *Sicut liliū inter spinas, sic amica mea inter filias.* Cant. 2. 2.

Au ez da, ez, gaur arratsean zuk komuniatzeko asmoa artu, ta bigar komuniatzera joatea; lenagotik asi, ta kontuz egiten den lana da, gauz au guzia zuk egitea!

Ala au egitea gure Jaungoikoak guri erakutsi naiez eragin oi zuen len gauz oni dagokan beste gauz eder bat.

Lege zarrean ere baziran, orain bezala, gure Jaungoikoaren Bazkoak. Orduko Bazko orietarik batean bazuten israeldarrak, oraingo gure komunionearen aintzura zuen jate bat. Bildots-jatea zen israeldarren orduko jatea.

Bazkoz jaten zuten beren bildots au, eraman bear zuten israeldarrak berak, bost egunez lenagotik, beren etxeetara.- Badakizu zertarako?- Beinik bein ongi prestaturik, eta bear bezala, jan zezaten ura israeldarrak; eta guri gero gure Jaungoiko maitagarriak adirazteko, Nazianzoko san Gregoriok dion gauza bat.

Zer gauza dela au, zuk este dezu?- Ez dugula guk komuniatu bear, geren animaren bost leloak ongi garbitu artean.- Zer leio ote dira gure animaren leio oriek!- Oriek dira: bere begiak batek, bere bearriak, bere sudur aoak, eta atsegin txarren bat ar dezaken gorputz guziaren edozein zati; bada, or dira gure ekusteak, or dira gure aditzeak, gure usai-egiteak, gure jan-edan itzak, eta ukitzeak; eta or, leio orietan arkitzen dira, edo leio orietatik datoz gure bekatuak: *ut sensus expurget, á quibus peccatum oritur, et circa quos bellium committitur.* Orat. 42. n. 27.

Nola garbitzen dira gure leio oriek?- Damuzko gure konfesioaren ur ederrarekin ta gure animaren zikin-bideetatik aldatuz guk oriek, edo bear den garaiez kenduz.

Ori guzia zuk egiñik, komuniatu izandu ote zara beti zu?- Ezetz dio, zu komuniatu ondoko zure bizierak.

Ekusi zazu, bada, nola urratzen diran lenagoko zure utsak, eta bekatu guziak; eta ezaguturik urratzen dirala oriek konfesione jeneral batean, edo bekatu guzien zure konfesioan, asi zaitez artara prestatzen, ongi komuniatzen gero asteko zu.

2. Era onetan guk geren animak prestatze au, komunione onerako, adirazi zigun gure Jaungoiko maitagarriak, bildotsaren Bazkoz eragiten zituen beste zenbait gauzarekin ere.

Etzen zillegi Bazko onen atzeko zazpi egunetan, legamia edo orantza zuen ogirik jatea.- Egun orien buruan, beren bildotsa jatera baño len, lotu bear zuten israeldar jaleak beren gerria ta soñekoa, bideren bat artzeko abian bazeuden bezala. Artu bear zituzten beren oñetakoak; baita beren makilla edo eskuko bakulua ere; ta era artan, ta zutik zeudela, jan bear zuten israeldarrak beren bildotsa; ta jan bear zuten au, ez gordiña, edo egosia, baizik ongi errea; ta jan bear zuten, orantzik edo legamirik etzuen ogiarekin, ta letxuga miñekin. Orra, orduko bildotsa jateko, Jaungoikoak israeldarrei eskatzen ziena. *Exod. 12.*

Eta nola nai ote du gure Jaungoikoak, guk jan dezagun, edo guk gure komunioneetan ar dezagun, geren bildots eder, bekatuen kentzalle Jesus maitagarria?- Israeldarren orduko bildots jateak adirazten digun eran.

Zer adirazten digu orantzik bageko ogia zazpi egunez jate onek?- Geren bekatuen damuz, ta ziñezko urrikiz ongi guk geren biotzak asetzen ditugula komunionera urbiltzea.

Zer adirazten ote digute israeldarren oñetakoak?- Animako grazia, ta gure Jaungoiko maitagarriak nai duen bidez ibiltzeko asmoa.

Zer oriek berak beren gerriak, edo gerrintziak lotzeak?- Baruz, ilduraz, nekez, ta jan-edana laburtuz guk geren gorputzei, beren aztura gaistoak kentzea.

Zer oriek beren soñekoak, biderako eran, ezartzeak?- Loiezko bide galgarri, edo okasione, ta lagun txar, ta toki zikinetatik guk iges egitea.

Eta zer adirazten ote zuten bildots beraren erreteak, eta israeldarren eskuko bakuluak, edo artzaimakillak?- Ongi komuniatu nai duenak begiratu bear diela lenik, eta astiz alere, Jesusen neke-tormentu guziei, baita beraren gurutzeko odol isurtzeari, ta erioztzari ere.

Orra, bada, nola prestatu bear duten beren komunionerako, beren komunioetik ondasun andiak atera nai dituzten animak. Ibilli bear dute anima oriek guztiz kontuz, ta biziro; ta beren bekatuen alde beren buruak nola-ere-bait nekatzen dituztela. Ibilli bear dute, lenagoko beren ibillera galduak uzten dituztela, ta, al dituzten gauz onak egiten dituztela; oben-kulpa guzieren loiak edo arrautsak konfesionekeo iturri garbian ongi kentzen dituztela: Jesusen bidegabeko nekeen, edo gugatik gure Jesusek eraman izandu zituen tormentu arrigarrien urrikaltasunez, ta Jesusi berari bere amoreagatik zor diogun amorez beren biotzak betetzen dituztela; baita gogoz ta asmoz ere, Jesus beraren ondoren zeruko bidean zuzen ibiltzeko, Jesusek berak bereisten digun gurutzearekin, ta berak nai duen eran.

Au egiten duten animak, edo komuniatzalleak, eskuratzen dituzte laster beren buruak.- Au egiten duten animak beren Jaungoikoaren gogara dabilta, ta aterako dituzte ondasun andiak eta zeruko laguntzak beren komunioetatik.

Atera oi dituzu zuk ondasun oriek zereetatik? Ez? Baña egiten ote zenituen zuk orretarako, gure Jaun-

goikoak nai dituen gauzak? Eskuratzen ote zenuen zuk artarako zere burua, edo zere barren guzia?

Anitz nekatzen zenuen zuk zere gorputza, zere animako loiak, eta loi-pitsak ere kentzen zenbiltzala? nekatzen ziñan zu, zere begi-bearriak, eta zere animaren gañerako leioak zaitzen, orietatik sar etzekizun zuri etsai zikingarririk?

Eragiten ote zeniozkan zuk zere gorputzari, zere bekatuen alde, ta zure Jaungoiko maitagarriaren ize-nean zenbait baru, edo zenbait miñ ematen zioten gauza ta ildura, edo mortifikazione? Ordu-erdi zenbait egin oi zenituen zuk, zugatik len zure Jesusek egin izandu zituen gauzak, eta orain zuk or bere aldarean zor diozun amorea gogoan arturik zeundela? Ez? Zer bada? Aisa bizi? Gogo txarrari atsegin egiñ. Ibilli zu zure gogoak nai zuen eran, ta otz-otzean gero komuniatu? Eta era orretan nai zenituen zuk komunione onetako ondasun andiak?

Eroaren asmoa! Oriek artuko dituen animale artu bearko ditu, bai, beste prestaerak; eta, zenbat ere aren prestaer oriek obeak, anbat andiangoak, ark andik aterako dituen ondasunak.

*Abjicientes omnem immunditiam,
et abundantiam malitiae in mansuetudine
suscipite insitum verbum:
quod salvare potest animam.
Jacob. 1. 21.*

Egun bero-erre bat aski da, lorerik ederrena igar-
turik uzteko; baita gorputzeko sukar edo kalentura
biza bat ere, norinai bere bizia kentzeko. Au badakizu
zuk, nere anima; ta ala ere zikintzen dezu zuk, zere
naiezko bekatuz, zere barrena? Ta alere egiten diozu
zuk zere buru gaisoari, bear ez den atsegin txarra?

Begira zazu zuk zertara zoazen, zere komunio-
nean gure Jesus maitagarria artzera urbiltzen zara-
nean. Urbiltzen zara zu, orretaratzen zaran aldietan,
txerto guztiz eder bat zere animara zuk ematera, erra-
ten dizu Santiagok; bada ematen diozu zuk orduan
zere animara Jaungoiko-Seme gizon egiña: ori da ala-
baña aldareko gure Sakramentuan arkitzen den txer-
toa.

Nor bazara zu, zere txerto onek ekarreraziko dizki-
tzu fruta on-goiso-galantak, edo zerurako irabazi ede-
rrak: eta oriek gero zuk ez galzera, oriek eta zu guziok

sartuko zarazte gero, gure Jesus bera dagoen tokira, ta eternidade guziko glorian.

Bai: baña ez da aratzerik, ez da irabazirik, eta ez dakar gauz onik animak, txerto au beregana artuagatik, usteldua badago anima bera, edo bekatuz loitugaldua.

Eta nola arkitzen ote da gaur nere anima? Aragiaren naikundeen, loikerien, ta asmo txarren ondoren zebillela, erdi-nekatua, ta zerurako guztiz igartua, edo graziaren ezatasunik bage.- Zein eta galdu galgarria egoera ori, komunioneke txerto ederra nere animak bereganatzeko!

Eta zer ote negike nik bear den eran, edo alik ongiena neregantzeko komunione oneko nere txerto eder ondasundun au!- Santiago Apostolu berak diona: aragikeriak, eta bekatuaren loitasun guziak aldebat uztea, ta biotz eta gogo garbi umil batekin ni nere komunione beti urbiltzea.

Au egiten ez duen anima ez dago, ez, bere komuniorako bear bezala prestatua ta, era orretan ori komuniatuagatik, izain da, txertatu ondoan txertoa igartzen utzi, ta leneko adar gaistoak botazen dituen sasi-sagarra bezala; ta, surako baizik balioko ez duen anima.

Ez al naz ni era orretako anima komuniatzalle gaistoetatik? Zure bizitzak ori adiratziko du; ta, ori zuk ezagutzeko, ez dezu oni begiratzea baizik. Ez dezadala nik nere baitan ekusi, nere Jesus maitagarria, komunione agitz ondasunduna, ta ondasunduna baizik! Ez emen, ez!

*Abscendit Moises faciem suam:
non enim audebat aspicere contra Deum.*

Exod. 3. 6.

Baldin bazineki zuk gaur norañokoa den, ta nolakoa, aldare orretan or arkitzen den gure Jaungoikogizona, ikara geldituko ziñake zu, ta non zauden zu ezpazenekei bezala, zu elizaren zaran aldietan.

Gorderik dago, bai, or; ta ogi-idurian nire Jaungoikogizona, ta orrekin, or ezpalego bezala da zu bezalako zentzubage, edo sinist erdi-illarekin arkitzen diran guzientzat.- Oar zaitetz bada ongi-ongi, ta begira egiozu siñiste onezko begi garbiekin; ta gertatuko zaitzu zuri, orain nik diodan au, ta prestatuko zara zu ongi komuniatzera. Ez nazu siñetsi nai zuk ni? Adi zazu, Moisesi bein gertatua.

Ardiak zaitzen zebillen Moises, Oreb zeritzan Jau-
naren mendian. Ekusten du Moisesek an lar bat, den
guzia su ta gar egiña; ta alere etzala larra auts egiten;
ez eta, surik ezpalu baño geiago, igartzen ere.- Gau-
zaren ekustekoa! erraten du Moisesek, gauza ekuska-
rri au ark an ekustean; eta nola gertatzen ote zen ikasi
naiez, badoa Moises, alderagotik lar sutu au ekuste-
ra.- Baña, ibiltzen asten deneko: begira Moises, begi-
ra, erraten dio, erretzen zegoen lar berean arkitzen
zan Jaunak; begira, ez urbildu zu, ta kendu zuk or ber-
tan zere oñetakoak: Emen arkitzen da alabaña zure
aitziñekoen, ta zure Jaungoikoa. Au aditu zueneko ika-
ratu zen Moises; estali zuen bere arpegi guzia; ta
etzen trebe izandu bere begiak lurretik jasotzera.

Exod. 3.

Ekusten dezu! Bada etzen Jaungoiko bera, baizik
zeruko Aingeru bat, an arkitzen zen Jaun ura.- Eta nor
arkitzen da aldareko gure Sakramentuan?- Jaungoiko-
gizon gure Jesus maitagarria!- Baña nola?- Bere gor-
putzeko larra edo Biotza gure amorezko sugar egiñik
dadukala: ta geiago ta geiago gu maitatu naiez, bein
ere urtzen edo aitzen etzaiola.

Eta zuk artu nai ote dezu, komunionean era one-
tan arkitzen den Jaungoiko-gizon au? Eta etzara ikaraz

erdi-illa gelditzen? Ez dakizu beraz zuk, ongi beinzat, nor den ta nolakoa aldare orretan arkitzen den gure Jaungoiko-gizon ori? Ikasi zazu, bada, ara baño len; ta etzaitzela zu berriz urbildu komunionekeo maira, zere oñetatakoak, edo lurreko gauzen zere naikunde galduak utzi artean; ta ezpada, beldur ta ikara andiarekin. Ez arren, ez!

*Surrexi, ut aperirem dilecto meo,
manus meae stillaverunt myrrham,
et digiti mei pleni myrrha probatissima.*

Cant. 5. 5.

Erran ote dezakezu zuk, komuniorako prestatzen zaran aldietan, anima santak bein erran izandu zuena, esan zuenean: «Jaiki nintzan ni nere Jaungoiko maitagarriari atea idikitza, ta nere esku guziak mirraz beteak arkitu nituan nik, eta nere eriak, edo beatzak, mir ederrenarekin».

Baña zer erran nai izandu ote zuen anima santak bere itzketa illun onekin?– Erran nai izandu zuen, atsegin egin naiez anima santak bere Jaungoikoari bere ager-aldietan, garbitu zuela anitz bere nekerekin bere

barren guzia, ta nekatu zituela orretarako bere begiak, eta bere gorputzaren gañerako ate-leio guziak; eta bere biotzetik asi, ta azkazal baterañoکو guzia zedukala mirraz, ta nekez guztiz betea.

Aditzen dezu? Erran dezakezu zuk beste orrenbeste, komunionean zu, zere Jesus artzeko aoa idikitsera zoazenean? Damuz, ta urrikiz ongi garbitua daramazu zuk beti ara zere biotza? Mirraz beteak daude zure begiak, zure bearriak, eta zure esku-oñak? edo anitz nekatzen dituzu zuk zere betazalak, ekus ez dezaten begiak, ekusi bear ez duten gauzarik?– Anitz nekaten dituzu zuk zere oñak, zere etsai gaistoen, ta gaitz-bideen igesi, ta elizaz eliza, ta bide onez on zabiltzala gauz on anitz egiteko?

Ala bada, mir ederrarekin arkitzen zara zu, edo ongi prestatua, gure Jesusi zuk komunionean zere ezpañak eta biotza idikitzeko: ta zuk zere komunio-neetan artuko dituzu ondasun andiak.

Baña, ala arkitzen ezpazara zu, asi zaitez bertatik artara prestatzen; ta artu zazu, ori zuk egin bagez galdu dezunaren damua: baita galtze ori eragin dizuten bekatuena ere; ta errazu ziñez: *Nere Jesukristo, etc.*

LXXXIII.garren OTOITZ-GAIA

KOMUNIONENKO ONDASUNAK

ESKATZEN DITUZTEN

ANIMAKO APAINZAK, ETA ESKERRAK

Lenagoko aldian guk ekusi dugun prestaera, anima bekatuen loietik garbitzea da; ta, berriz loiera ez dedin, loi-bide galgarrietatik urrun-eraztea.

Au guzia egin ondoan, bere komunioetik ondasun andiak atera nai dituenak, apaindu bear du birtutez bere anima.

Etxe bat, den ongiena garbitua egonagatik, ez dago errege artzeko eran, paretak agerian, ta gelak utsak badaduzka. Apaindu bear dira dagozten eran etxeko bazter guztiak, atsegin egiñen bazaio, an sartzeko dagoen erregeri.

Badakizu zuk, ez dela Jesus diñako erregerik nion ere: ta sartzen dela Jesus errege andi au, zu komuniatzen zaran aldian zure etxe barrenera, ta biotz ondoraño. Ekusi zazu, bada, zein ederki apainduak egon bear duten zure gauzak, Jesusi zuk, zugana sartzean, atsegin egiteko, ta zere komunioean zuk Jesusen ondasun andiak irabazteko.

A.

Komunioneke ondasunak eskatzen dute adimentu argi onez beterikako bat

Gela bat, izanagatik den ederrena, ta egonagatik gela bera gauz ederrez ongi betea, leze bat bezala da, illunbean badago, ta argirik bage gela; ta, ala dagoeño gela, ez da arkitzen, gel artan sartu ta an egon nai duenik.

Animaren gela bat bezala da gure adimentua; ta animako gure gela onetan, eta anima guziko etxean, bear den bere argi berria, ta ondasun guzia uztera dator gure Jesus gure komunionean; *cibabit illum pane vitae, et intellectus* (Eccil. 15. 3.): ta ezin datorke gugana gure Jesus maitagarria atsegin andiarekin, ta ondasun anitz uztera, gure gela edo adimentua, ta anima guzia illunbe beltzean, edo bear ez den eran arkitzen diranean.

Illunbe beltzean dagoen anima, jakiunderik ez duen anima da, edo, ekusi bear dituen gauzak adimentuzko argiz ta begiz ekusten ez dituen anima: ta,

era orretan arkitzen den anima, ez da arkitzen, ez, komunionezko ondasunak eskatzen duten eran.

Au guri gure Jesusek adirazteko da Ejiptoko, Per-siako, ta Babiloniako erregeak egiten zuten gauzatxo bat.- Billatzen zituzten errege oriek, beren mairako ta beren alderako, Eunukoak deitzen ziran gizon gaz-teak.- Nolakoak, Uste dezu? -Iduri onekoak, dio Eskri-tura santak, eta utsik gabekoak: *pueros, inquibus nulla esset macula, decoros forma.*- Baña billatu ondoan, egon bear zuten gizaki gazte oriek irur urtez beren erregeren begietara bage. Anbatez egondu ziran beintzat, Nabukodonosor zeritzan Babiloniako erregerenak: *ut enutriti tribus annis, postea starentin conspectu Regis.* Dan. c. I.

Zertarako ematen ote zien errege oriek orrenbat denbora beren gazte serbitzallee?- Ikas zezaten beren erregeren begietara baño len, an ibilliko ziranak jakin bear zutena; ta beren erregek, oriek aren begie-tan agertzen ziranean, arki zitzan jakiundez beteak, nola an aren begietan ibilli ta nola beren gauzak egin ongi zekitenak, eta, goizetik arratseraño, guzia ezi-nobeki egiten zutenak *eruditos omni sapientia, cautos scientia, et doctos disciplina.* Era orretan an agertzen ziranak beren oorez, ta ondasunez betetzen zituzten

gero errege berak; eta, zeren era orretakoetatik atera izandu zen, Daniel zeritzan Jaungoikoaren profeta, artu zituen Nabukodonosor erregegandik, eta onen ondorengo erregeen eskuetatik, erregeetatik gizonak ar ditzaken gauzarik andienak. (*Ibid. et seq*)

Baña artarako ongi prestatzen etziranak, eta gero beren egitekoetan uts egiten zutenak, presondegian gelditzen ziran, edo urkabeen: ori egin zuen beintzat Faraon zeritzan, Ejiptoko erregek bere bi eunukorekin. *Genes. 11.*

Eta zer, uste dezu, egiten zutela erregeren maian eunuko, edo gizon gazte, artarako prestatu oriek?- Jan-edana ara poliki eramane.

Eta orretarako orrenbat ikaste ta jakiunde?- Bai, bada!

Zergatik ote?- Guri adirazteko, nola urbildu gu komunioneke gure Errege andi Jesusen maira.

Nola, bada?- Animan oben-pitsik ez dugula, ta guziz garbi-ederrak, eta zeruko argiz ta ekustez adimentua beterik dadukagula: Guk an egin bear ditugun gauza guziak ederki dakizkigula; ta guziak au geren poz-atsegin andiarekin egiten ditugula: ala adiratzen digu san Joan Krisostomok. *Eunuchos Regi decet assistere..., nullam habentes maculam, mente subli-*

mes, hilarem habentes animae oculum, et acute videntem.

Baña zer ote da, komuniatzera doan animak lenik ikasi bear duena?- Ikasi bear du anima onek zer den errege guzien Erregeren mairatzea; eta mairatzea, ez Errege andi oni komuniatzalleak an jaten emateko, baizik Erregeren maian berak jateko, ta jateko berak an, ez Erregeren janari eder-goisoren bat, baizik Errege bera, jale beraren animako janari egiña.

Gauzaren andi arrigarria!

Errege batek deitzen bazinduzu zu, berarekin beraren maian zuk barazkaltzera, poz andi bat artuko zenduke zuk batetik, eta beste alde geldituko ziñake, zer gertatzen zaitzun ezpazeneki bezala, eta erregek zu deitzen zinduenetik, erregeren aldera zu joan arte guzian, egoin ziñake zu erregeren ontart edo fabore andi ura zere gogotik ezin utzi zenuela; ta egoin ziñake, ango gauzak nola egin ikasten, batean ere ez uts egiteagatik, eta atsekaberik erregeri ez eman naiez.

Ongi: erregeen Errege Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriak deitzen zaitu zu komunioneke bere maira? Zuk an barazkaltzean, an egon bear du zurekin zure Errege andi onek; eta, an egon ezezik, zure barrenera sartuko da, zure janari egiñik, aldareko bere Sakra-

mentuan? Eta ez dezu zuk, zu ara baño len, ongi-ongi ikasi bear zer lan ote den zu egitera zoazen ango zure lan au? Ez dezu zuk ekusi bear nor ote den, zu deitzen zaituen, ta zure barreneraño sartzeko dagoen zure Jaungoiko-gizon Errege andi au?

Eta ala ezpazoaz zu, edo zuk ezpadakizu zertara zoazen zu ara, edo ezpazeneki bezain oartukabeen bazoaz zu zere komunioera, joain zara zu ara, komunioe oneko ondasunak eskatzen duten eran?

Oarkabe orretan joan izandu ote zara zu, oraindaño zere komunioetara?– Beldur naz baietz, bada zuk zerorrek dakizu, zein berandu artu oi zenuen zuk aratzeko asmoa: ta, komuniatzeko asmoa gogoan zuk artuagatik, etziñala zu beldurtzen batere; etzenuela zuk begiratzen nor ziñan zu, ta nor, bere maira ta barazkari ezin andiagora deitzen zinduen Jaungoiko-gizona.– Orrekin jaikitzen ziñan zu zere komunioeko egunean, beste edozein egunetan bezala. Urbiltzen ziñan zu zere komunioeko elizara otz-otzean. Era berean egiten zenuen zuk an zere aitormena, edo zere konfesionea: bazindoazen andik zu lenbaitlen zere komunioeko maira. Artzen zenuen zuk, ozka iduri batean; zere Jaungoiko-gizon guzia: ta artzen zenuen ogi-zati bat artzen bazenu bezala; ta gelditzen ziñan

gero zu, zere Jaun andi onekin ezpazeunde bezain gogo barraiatuarekin.

Au da, komunionekeo ondasun andiak eskatzen duten, zure animako apaintza? Onenbat illunbetan arkitzen den adimentuko zure gelan, sartuko dela deritzazu zuk bere poz-atsegin andiarekin gure Jesus maitagarria. Era orretan arkitzen den animari utziko diozka gure Jesus maitagarriak, bere ondasun andiak?

Orra, bada, zergatik galtzen dituzun oriek zuk zere komunioneetan! Berriz zuk era bereko galtzerik egin nai ezpadezu, oar zaitez zertara zoazen, komuniatzera zoazen zere aldietan. Ekusi zazu orduan zuk, alik ongiena zere ezer-eza, ta artzera zoazen zere Jaun andiaren izate bazterrik bagekoa; ta zu joain zara, joan bear den eran, ta zere adimentua argi onez, bear den eran ederturik daramazula: ta joain zara, Jesusen ondasun andiak artzeko, ongi-ongi prestatua.

B.

**Komunionekeo ondasunak
eskatzen dute biotz,
amore garbiz beterikako bat**

Errege Salomonek egin izandu zuen, bere gogora ibiltzeko, karroz eder bat. Karroz-onen olak, Libano menditik ekarriak ziran, edo usteltzen ez diran zedr-olak. Gorri ederrez, edo purpuraz estalia zen karroz onen igan-bidea, edo eskala. Zillarrezkoak ziran onen pillareak: baña urrezkoa zen karrozaren barrengo jartokia. (*Cantic. 3. 9.*)

Zergatik au guzia?– Guri adirazteko, nola guk artu gure Jesus maitagarria geren komunietan, edo nola prestatu guk artarako geren gauzak, eta beste guzien artean geren biotzak.

Nor da ezperen Salomon baketi errege andi au?– Aldareko Sakramentuan arkitzen den gure Jesus maitagarriaren aintzura, edo imagina.

Eta Salomon Errege andi onen karroza?– Komuniatzen den edozein gizon edo emazteki; bada komuniatzen den edozeinek darama batetik bestera bere Jesus maitagarria, bere karrozak Salomon zeraman bezala.

Eta mendi Libanoko karrozaren olak?– Oriek dira, usteltasunik bageko asmoak: edo, bein ere bekatura bage, gauz onetan beti, ta beren Jaunaren serbitzoan iraun uste dutenen naia ta gogoa.

Karrozaren zillarrezko pillareak?– Gañerako birtute guziei eskua ematen dien laur birtute andiak. Oriek

dira Prudenzia, edo noiz tanola gauzak egin, erakusten duen birtutea. Justizia edo zuzentasuna, ta Jaungoikoaganako ta Lagun urkoei, edo proximoei dagozten gauzak zuzentzen dituen birtutea. Fortaleza edo indardia, ta gure etsaiak eta tentuak garaitzen, ta geren Legeko nekeen gurutzea aisa eramaten, laguntzen digun birtutea. Eta Tenplanza edo jan-edanean ta gañerako geren gauzetan bide-erdiz garamatzien birtutea.

Eta zer da Salomonen karrozaren igan-bideko purpura gorri ederra?– Batek bere bekatuen alde, ta bere Jaunaren izenean, artzen duen edo daraman ildura, ta nekea.

Eta Salomonen, edo gure Jesus maitagarriaren egontokiko urrea?– Ori da Jesus beraganako gure biotzen amore garbia: amorea da alabaña birtuteen artean, metalen artean urrea bezala, edo onena ta geiena balio duen birtutea.

Ekusten dezu nola egon-bearra zaran zu, zu komuniatzen zaran aldietan, komunionekeo ondasun eder-andiak zuk irabazteko? Jesusen Karroz eder bat bezala, edo zere anima ongi-ongi garbiturik dadukazula, zere bekatu-bide gaistoetatik oñez ta gogoz kendurik bizi zarala, ta gauz on anitz egin naiez guztiz betea,

zere Jaunari atsegin andi bat, eta norinai dagokan guzia zuzen-zuzen egiteko asmoan, zuk egin bear dituzun zere gauza guziak zuzen egiteko prest, eta denbora berean leneko zere gaizkien damuz, ta, Jesusi ar-erazi zeniozkan neke-tormentu ta bidegabe guziakgatik urrikariz ta naigabez zarana betea.

Ori guzia zure animaren, ta zure biotzaren pretaera, edo apaintz-ederra da komunione onerako; baña bear du oraindik zure animak komunione orretarako zure prestaer orrekin batean, bere biotzaren beste apaingarri bat ere.

Zer ote?- Gure Jesus maitagarriaganako, al den amorerik andiena.

Baña non arkitzen ote da amore andi eder ori?- Otoitz onaren sutegian. Konfesatu ondoan zoaz zu baztertxo batera, ta ekusi zazu astiz ta kontuz zuk an, zer egitera zoazen zu; ta zaude zu au geldi-gelditxo, au guzia zuk an ongi ekusi artean.

Begiak ertsirik an zu zaudela, errazu biotzez: Ongi: ta zertara goaz gu orain, nere anima? Komuniatzera. Zer da komuniatzea? Jaungoiko-gizon bat, bokadu baten eran guk an artzea.- Ez da gure Jaungoiko-gizon ori Aita eternoaren Semea; bere Jaungoikotasunagatik Aita berabezain bazterbagekoa; asierarik bagekoa, ta

bukaerarik ezin dukena?– Ez da gure Jaungoiko gaizon sakramentatu ori jakiunde, ontasun, ta indardi uts, gauza guzien Egillea?– Ez da ori Aita eternoarekin, ta Espiritu Santuarekin Jaungoiko bat; eta Jaungoiko, zeru-lurrak bere ondoan, asm-al adiña zeru-lur egiten balitu ere, guzien betegarria, ta geiago ta geiagokoa?– Ez da gure Jaungoiko-gizon sakramentatu ori nigatik gizon egin zen Jaungoikoa? Nigatik ogeita amairur urtez anbat eta anbat eraman, ta ekusi izandu zuen Jaungoiko-gizona? Nigatik anbat milla neke, tormentu, ta oñazerekin, ta bi lapurren artean gurutze batean josirik zegoela, illik gelditu zen Jaungoiko-gizona?– Eta ori bera da, ta ori guzi-guzia, orain nere barren txar onetan sartzeko dagoena?

Ongi: ta zertara etorri nai ote du Jaun onen andi onek, nere barrena bezain toki zirzil loi txar batera?– Ni bere ongiz ta doaiez ongi beterik uztera. Siñistuko zenuen? Baña itxozu.– Etzuen izandu bekaturik batere Jesusen Amak. Beti-ta-beti bizitu zen Jaungoikoaren graziz, ta zeruko doaiez guztiz edertua. Ama onen baitan Jaungoiko-Semea gizon egitera zijoanean, prestatu zuen Espiritu Santuak Amaren anima, lenaren gain ezin ederkiago; eta alere arriturik arkitzen da Eliza santa, nola etzen gure Jesus maitagarria ikaraturik

arkitzen bere Ama onen sabelean arkitzen zenean: *Non horruisti Virginis uterum*. Eta ara zen gure Jaungoiko maitagarria mundu guziaren onerako,

Bada orrenbat onerako zela gure Jaunaren orduko birjin-Amaganatzea, ta izanik Ama birjina zen bezelakoa, gauza orren arritzekoa bazen gure Jaunaren arganatze au, Jaun beraren niganatzea, nere on utsagatik; eta izanik ni nazan bezelakoa, nor ez da bertan arritua ta erd-illa geldituko?

Au zuk, eta era onetako beste gauzaren batzuek astiz ta kontuz zere gogoan erabiltzera; ta ezagutu ezkeru zuk, alere zugana naiez dagoela zure Jesus maitagarria, arrizkoa ezpada zure biotza, asiko da maitatzen ta maitatzen bere Jaungoiko-gizon sakramentatu onen maitagarria: ta urbilduko zara zu zere komunionekeo maira umiltasunez ta ikaraz ongi betea; urbilduko zara zu zere begiak lurretik ezin jaso dituzula, ta alere urbilduko zara, onenbat maite zaituen Jesus maitagarria zeretu naiez, Jesus beraren Biotzeko suarekin zere biotz txar orri suz emateko, ta zere Jesusen amorez urturikako, biotz batekin Jesus maitatzeko gogoz betea.

Era orretan urbiltzera zu zere komunionekeo maira, zuk zere Jesusi, bere Sakramentuan zuk au ekusi ordu-

ko, egiñen diozu, buruz ta biotzez, al dezun agurrik oberena. Zere miiratzen zaitzunean gero Jesus bera, egiñen diozu zuk amoriozko muñ eder bat: eta erain dezu zere atsegin andiarekin zere barreneko gelara, ta biotzaren aldamenara, ta gero an egiñen dezu, geroiseago guk adiraziko duguna.

Era onetan komuniatzen den animak artzen du bere Jesus maitagarria karroz eder batean, ta biotz amore garbiz beterikako batekin; ta, ala ura artzen duen animak egiten dio bere Jesus maitagarriari atsegin agitz andi bat. Eta irabazten ditu bere Jesusen ongi naia, ta zeruko ondasun andiak.

A! Baña ez nik orrela artu oi gure Jesus maitagarria nere komunioneetan! Orregatik galtzen ditut nik zeruko anitz ondasun ta nere Jaunaren laguntza; ta arkitzen naz gaur ni, arkitzen nazan eran, ta anitz utsez ta bekatuz betea. Besterik izain al da etorkizunean? Bai oraingo nere ustez, ta nere Jaungoiko maitagarriak bortizki niri laguntzen didala. Ala gerta dedilla bada: bai arren, bai!

Komunioneko ondasunak eskatzen dute biotz eskerdun eskale bat

Israeldarren manak eskatzen zuten (len guk ekusi dugun bezala) ez zikintzeagatik, lurraren, ta bere arte-rako intz garbi bat; eta denbora batean eskatzen zuen bere gañerako zikintasun bera eragozteko ona zen estalki, izotzaren aintzurako bat: eta gure Aldareko Manak, edo gure Jesus sakramentatuak eskatzen du, bein biotz zeruko graziz ta amorez ongi estali bat; eta gero komuniatu ondoan biotz eskerdun-eskale bat.

Zuk zere Jesus sakramentatua, len ekusi dugun eran artu orduko, baztertuko zara, artako ona den tokiren batera, ta, an zu belaunikaturik, egiñen diozu zuk zere Jesus maitagarriari, errege bati etxa-jaun batek, ura onen etxeratzen denean, egin oi diona; edo egiñen diozu, berak zuri egin dizun komunioneke ontarte andiagatik agur umil eskerdun bat.

Zein andia dela deritzazu zuk, zere komunionean ta bere etortze amorezkoan egiten dizun ontarte au?

Santa Isabelek, onen seme san Joan Bautistak, eta San Pedrok adiraziko dizute zuri au. Santa Isabel, arri-tua bezala gelditu zen, Jesusen Ama ber-etxean ekusi

izandu zuen aldi batean, ta bere arrierarekin esan izandu zuen: «ai ene! ta nondik niri onenbat ontarte ta fabore? Nere Jaunaren Ama nere etxera?»- San Joan Bautistak, Jesus ekusi zuen beste aldi batean: «Ara (erran izandu zuen): Jaungoikoaren bildots, (edo Seme) bekatuen kentzailea: ni ez naz, ez, aren oñeta-ko lokarrietan eskuak erabiltzeko diña».- Eta san Pedrok, Jesusek oñak oni garbitu nai izandu ziozkan batean; «Jauna (erran izandu zion, guzia ikaraz asal-daturik, eta, non arkitzen zen etzekienaren eran), zuk niri oñak garbitu? Ez Jauna, ez; ez eta sekula guzian ere!».

Ekusten dezu?- Bada, irur oriei kanpotik gure Jesus maitagarriarekin gertatua orren ontart andia bada, zer ontart izain ote da Jesus bera zuk zere barre-nean, komuniatzen zaranetan dadukazun eran iduki-tzea; gogoz, ta biotzez zuk an berari nai diña agur ta adorazione egiteko, nai dituzun eskerrak emateko, ta bearko dituzun beraren esku-laguntzak eskatzeko?

Orra, orain era orretan zugana etorri naiez, bere Aldare orretan or egondu da gure Jesus maitagarria, joan diran milla zazpieun ta anbat urtez, bitarte orre-tan ekusten dituela kristio, edo kristau gaistoetatik, eta ereje ta judu gogorretatik, ezin erran al adiña

sakrilejio, gaizki, ta bidebage: ta, zuri dizun amoreagatik guzia eraman du or Jesus maitagarriak, itzik atera bage, ta isill-isillean. Illaren eran dago gau ta egun, ta bakarrik geienetan, or aldarean orrenbat denboraz: ta zuri ongi naiez da orren orko egotea.

Zer zor ez diozu, bada, zuk, zugatik or orrenbat egiten duen ta orain zuk artu al adiña ondasun egin naiez, zere komunnioneetan zuk zerekin dadukazun zere Jesus maitagarriari?

Zu etzara trebe bakarrik, ez, orrenbat ontarteri eskerrez eranzuteko, ta dei egiezu, orretan zuri lagun-tzera, mundu guzian arkitzen diran gauza guziei; ta eska zaiezu ziñez, egin dezotela, zurekin batean, zerekin dadukazun zere Jesus maitagarriari, al duten agur ta begitarte on guzia: *adorent eum omnes fines terrae*: ta eman dezotela, beren izenean ta, zure ordezkerrak eskerren gain, orain zurekin batean ezezik, gero sekula guzian ere. Eta zuk ere, zere aldetik orain oriekin batean al dituzun guziak emanagatik, ez dezazula galdu geroko zere aldia.

Nola arkitzen ote zara zu oraingo aldian? Eriskote?- Orra, bada, or dezu zuk, aldareko zere Sakramentuan gure Jesus, den sendatzallerik onena. Eskazaiozu, bear ez diran gauzetan zere eskuak ez erabiltzeko,

ekuste ta aditze txarretatik zere bearri-begiak kentzeko, ta zere miiari, itz ariñik erraten ez uzteko beardezun zeruko laguntza ta grazia: baita zere gogorazio galgarriak, eta naikunde makurrak aienatzeko bearko dezun guzia ere.

Eskatzen badiozu ori zuk ongi-ongi, ta ondu nai bero andiarekin, emain dizu zuri zere Jesus maitagarriak, batere luzatu bage.

Ager egiozkatzu zuk zere Jesus berari zere egitekoak, eta zere ibill-er guziak. Gald-egiozu zuk, nai duen berak utz ditzazun zuk onelako lagunak, alako sartu-aterak, eta zerorrek dakizkitzun itzketak, jan-edanak, eta jostatze ariñak: eta egizu gero zuk, Jesussek zuri aldi artan adirazten dizun edozein gauza.- Egiten badezu zuk au guzia, egiñen diozu zuk Jesus maitagarriari atsegín andi bat; baita, nork daki zenbat on zere animari ere.

Denbora berean eska zaiozu zuk Jesus maitagarriari, adirazi dagizula nondik artuko dezun nola ibilli zaitezken, ta zer egin dezakezun, bear den eran egiteko zuk zere gauzak. Umilki zuk au Jesusi eskatzera, etzaitu, ez, illunbetan utziko zu Jesus maitagarriak, eta agertuko dizu Jesussek zuri, orduan zuk jakin bear dezuna.

Len guk adirazi dugun eran prestatzen den animak, eta era onetan eskerrak ematen dituen eskalleak, ondasun andiak aterako ditu, bai, bere komunio-etatik; eta zuk ateratzen ezpadituzu zereetatik, zureak dira obenak; bada guzi-guziei nai die ongi gure Jesus maitagarriak, eta norinai betetzen dio Jesusek, ongi prestaturik daraman ontzia.

A nere Jesus maitagarria! eta nik, au lenago jakin bagez, galdu ditudan ondasunak! Dakidan ezkeron nik au orain dakidan bezala, prestatuko ditut nik nere anima, nere adiruentua, ta nere biotz au, komuniatzen nazan aldietan zure eskutik artzeko nik anitz grazi, anitz gogargi, ta anitz amore.- Damu dut nik orain, nik au lenagotik ez egiñaz; baita, ori egitea eragotzi didaten nere bekatuez ere; ta eskatzen dizut nik gaur orien guzien barkamentua, ta berriz berririk ez egiteko grazia.

*Venerunt Aaron, et omnes seniores Israel,
ut comederent panem... coram Domino.*

Exod. 18. 12.

Nola joaten ote zara zu, zere komunioera urbiltzen zaran aldietan. Aurren eran, edo buruzko gizonak bezala!

Zertara zoazen zu, orduan zuk ongi-ongi ez begiratzen, aurren eran zoaz zu zere komunioera; bada aurrak dira, era orretan dabiltzanak, edo aurrak egin oi dituzte beren gauzak, zertan dabiltzan anitz oartu bage.- Eta era orretan bazoaz zu komunioera, grazian zu ara joanagatik, irabaziko dezu zerbait, bai; baña ez irabazi zenezaken guzia; ez noski, ta laurdenik ere.

Ai ene! Anitz galdu dut beraz nik oraindano nere komunioetan; bada era orretan komunioa naz ni nere denbora guzian! Orregatik zen noski ni, komunioa ondoan, lenago nintzan eran izatea.

Zer egin nezake nik gaugeru ongi komunioerako, ta irabazi andiak nere komunioe bakoitzean nik egiteko? Buruzko israeldarrak jate bat egin zuten eran, nik nere komunioeak egitea!- Nola egin ote zuten oriek beren jate ori?- Beren Jaunaren begietan, ta errespetu andiarekin.

Oar zaitez ongi zu, komunioa naiez zauden denboran nora zoazen zu, ta zer eratan; edo ekusi zazu ongi zuk, zu zere komunioean artzera zoazena zure

Jaungoiko berbera dela, ta Jaungoiko gauza guzien kontu-arzalle guztiz zuzen-zuzena; ta ekusi zazu gero nola zoazen zu, zere Jaungoikoa zuk an artzera; edo ekusi zazu zuk zere miiz, zere eztarriz, ta zere biotzez egin izandu dezuna.

Nora erabili ote dezu zuk zere denboran zere mii ori? Erran ote dituzu zuk, ez errateko obeak ziran zenbait itz, ele, ta berri? Zere jan-edanez egin ote dituzu zuk zenbait uts, edo zere animaren zenbait zikintze? Zer asmoak izandu ote dira, zer gogoketak, eta zer naikundeak zere biotz orretan zuk oraindañoan izandu dituzunak? Zuzenak guziak, guziak garbiak, edo bear zen erakoak?

Ez dakizu zuk, zere miiz ukitzen dezula lenetik, zere Jesus sakramentatua? Ez dakizu zuk zere ao ezta-rriz daramazala zere Jesus sakramentatu bera zere biotzaren aldameneraño, eta orregatik guztiz garbiak egon bear dutela zure zati oriek guziak, eta zure animak?

Baña, obenik zuk, edo bekaturen pitsik ezpazenu ere, nor zara zu, orren Jaun andi bat zere baitan artze-ko?

Artzera bazoaz, bada, joan zaitez ederki prestatu-rik, joan zaitez alik ongiena; ta, zu orduan egitera zoa-

zen lanak eskatzen duen beldur guziarekin, atera nai badituzu zuk zere komunioetik, atera ditzaketzun ondasun guziak.

*Quemadmodum desiderat cervus ad fontes aquarum,
ita desiderat anima mea ad te, Deus.*

Psalm. 41. 1.

Basoko ganadurik ariñenak ez du, egarriz dagoe-nean, iturrirako, gure Jesus maitagarria maite duenak komuniorako adiña nai ta gogo. Gogoratzen zaionean, Jesusen maitatzalleari, bere Jesus maitearen ontasuna, bere Jesusen ongi naia, ta Jesus beraren eman ala, ta eman gogoa, ezinegonez bezala dago, bere Jesus maitagarriagana naiez; ain maitagarria da gure Jesus, ongi ezagutzen dutenentzat.

Ongi Jesus ezagutzen dutenak, egon nai lukee beti ta beti beren Jesus maitagarri maitearekin, beraren Biotzeko amore ezin-andiagori amorez, alegin guzian eranzuten diotela.

Ezer-ez bat deritzate gure Jesus maite dutenak, berak bakarrik Jesus maitatzea; ta nai lukee, maita lezaten munduko beste guzi-guziak ere, guziak atera

lezaten Jesusen maitatze garbi-eder orretatik, eta aldareko beraren Sakramentutik, atera dezakeen on ta ondasun guzi-guzia.

A, gure Jesus maitagarria, erran oi dute maiz, eta komuniatzeko dauden aldietan noizere baño zinkiago: A gure Jesus maitagarria, non-nai, ta zere gauza guzietan zara zu guztiz maitagarria, baño guretzat beintzat, ez nion ere, aldareko zere Sakramentuan adiña. Gure amorez or zu arkitzen zara ezer-ez bat dituzula, ta or arkitzen zara zu gau ta egun preso, ta gugana naiez, gu zere onez, ta ondasunez beteak uzteko!

Guk au guzia ongi ezagutzen bagenu, nola genudezke gu gauden bezain otzak, gauden bezain galduak, eta gu gauden eran?

Gañerako guzi-guzietatik bakar bat zuganatzen ezpaliz ere, zuganako nintzake ni, nere Jesus maitagarria; ta zuganako nintzake alik eta maizena; maite zaitut, alabaña, emen zuk agertzen didazun zere amoregatik; eta, zuganako nere amore au, al dudan eran nik zuri agertzeko, urbilduko naz gaurgero ni, oraindaniño koan baño agitz maizago komunioneke zure maira, ta eramain ditut nik zu nere barreneraño, an zuri nik nere biotzeko amore au erakustera, ta zuk zerorrek

didazun zere Biotzetik su zati andi bat, gaurgero geiago ta geiago nik zu maitatzeko.

Zorionekoa ni, zure amorearen su onek auts egi-ten balu nere biotz au!

Orra gure Jesus maite dutenen izketa. Ikas baneza nik ere! Nere Jesus maitagarriak didala nere komunio- neetan, orretarako bear den argia ta laguntza: bai arren, bai!

*Benedic anima mea, Domino, et omnia
quae intra me sunt nomini sancto ejus.*

Ps. 102. 1.

Eskerrak dira, emalle onari dagozkan gauzak. Baña zer eskerrak gure Jesusi dagozkanak komunio- neko aldian?

Ezin garbiagoak; ezin andiagoak: bada beti da gure Jesus emalle, baña komunione-ko aldian, beste alditan baño agitz da emalleago; ematen du alabaña bere eman-aldi artan, bere buru Jaungoiko-gizon guzi- guzia, ta komuniatzen denaren apaintzak eraman ala.

Ni ez naz, ez, era orretako eskerrak emateko diña: baña deituko ditut orretarako nik bein nere gauzak, eta gero al ditudan beste guziak.

Atozte, bada, Jesusi orain ederki eskerrak ematera, komunione onetan egin dizkidan ontart andiakgatik. Atozte, nere begiak; atozte, nere bearriak; eta atozte nere ezpain-mii-aok; eta atozte zeren Jaunari agur andi bat eta apamuñak egitera.- Atozte nere eskuak, atozte nere ezur-zañak, eta atoz zu ere, nere zañetako odol guzi-guzia, eta betor bakoitza, bere eran gure Jaunari eskerrak ematera.- Atoz, atoz zu ere, nere adimentua, nere Jesusi nik orain zor diodan guzia niri zuk erakustera, ta zere erakuste eder onekin nere biotz au ongi berotzera, gero nik, al dudan amorerik andienarekin, maita dezadan nere Jaun, onen on emalle maitagarri au.

Atozte zuek ere, zeruko Aingeru garbiak; atozte Kerubin jakintsuak, atozte Serafin maitariak; eta egizue zuek ere zeren esker-ematea.

Baña, ez gara orretarako zuek eta ni bakarrik aski; ta betoz geren lan berean guri laguntzera, zeruan arkitzen diran Patriarkak eta Profetak, ango Santu-Santa guziak; eta, guziekin batean, guzien Erregin, ta Jesusen Ama Birjina; baita zeruko eguzki-izarrak ere,

lurreko lore-belar, itsasoko arrai, zero-lur-aize, ta gauza guzi-guziekin batean.

Guzi-guziak, bada, bedeika zaitzatela zu, gure Jesus maitagarria, nerekin batean, zeren nigana etorri nai izandu dezun, etorri zaran bezala, ta zere etor-aldi onetan egin didazun ontarteagatik.

Au guzia gogoan idukiko dut nik, bai, bizi nazaño; ta gaurgero biziko naz ni, nigandik ezpazindoaz bezala, ta zurekin diardukadala gogoz ta biotzez.

Lenago nere lan au ez egiñaz dut damu; baita au egitea eragotzi didaten nere bekatuez ere: ta damu onek idarokitzen derezkit orain niri, erratera noan itzak: *Nere Jesu kristo, etc.*

LXXXIV.garren OTOITZ-GAIA

NOLA EGIN BEAR DEN

AZKEN KOMUNIOEA

Azken komunioea da, bere bizitza onetatik besterako abian dagoenean, batek egiten duena. Komunio-ne guziak eskatzen dute komuniatzallearen animan, adirazi digun garbiera, prestatzea, ta apaintza; baña azkenekoak eskatzen du au guzia; ta eskatzen du, al den kontuzena egiñikakoa; bada ez dira urrengo komunioean aterako, ordukoan egiten diran utsak; ez du alabaña azkenekoak urrengotik, eta lenekoak atera ditezke beste aldiren batean, edo azkenekoan.

Utsik orduan ez dagigun, goazen orain orduko lanak ekustera, ta, nola egiten diran ikastera.

A.

**Azken-aldian komuniatzeko
dagoenak,
utzi bear ditu gogoz ta biotzez
lurreko gauzak eta asmoak**

Lurreko gauz anitz bage, bizi dira anitz emen lurrean. Gauzarik ez dutenei eskatzen die gure Jaungoikoak azken komuniorako, gauzen naia, ta gauzetatik etorri oi diran atsegin txarrak, beren gogotik uztea.

Ondasundunak, edo lurreko gauzekin arkitzen diranak, egin bear dute ori guzia? Baita geiago ere.- Zer bada?- Bereak ezpadira dituen gauza guziak, nori bereak ematea; ta gañerakoak, dagozkanari, edo berak ongi deritzanari.

Bai: ondasundunak, ill baño len, al badu, atera bear ditu bere zorrak; eta ezin duenean, egin bear du bere alegiña, lenbaitlen oriek atera ditzan bere ondo-rengoak.- Ori ark egin ondoan, utziko die gañerakoa, utzi bear dienei; ta utziko die, utzi bear dien eran, biztu ez dedin auzirik, edo naigaberik, artzekodunen artean. Eta, nori utzi ezpadu eriak, edo baldin badu zer utzi bere gogora, utziko du bide onez, ta bere Jaunari atsegin egiñen dion eran.

Au zuk egin ondoan, kenduko dezu zere gogo guzia lurreko gauzetatik, eta galbide guzietatik, eta asiko zara zu zere animako gauzak zuzentzen, zere Jaunarekin zu zere eriotzan ongi gelditzeko.

Buruak ordu artan laguntzen badizu, ta artarako zaudela zu, gogorako dituzu zuk zere biziko txarkeri ta

oben-kulpa guziak, edo al dituzunak. Ekusiko dezu gero oriei zegoten sekulako sulezea. Ekusiko dezu, zure Jaungoikoa zutaz ez urrikaltzera, ara bearra ziñala zu, ta an kiskiltzen ta erretzen beti, ta beti, egon bearra. Ekusiko dezu zein andia den zure Jaungoiko maitagarriaren ontasuna, ta zeren ezinobea den zure Jaungoiko maitagarria, ematen dizula zuri asti au guzia, zere damuz, zere konfesioez, ta Jaungoiko beraren graziarekin zere oben-kulpa guziak urratzeko.

Izaturik gero zu zere bekatuen itsustasunaz, oriei dagozten neke bizi-arrigarriez, ta zuk zere oben kulpekin eman izandu diozun aser-bideaz, jarriko zara naiez ta gogoz zere Jesusen oñetan, ta eskatuko diozu zere Jaungoiko berari, bera gizon egin zenetik ill arteko denbora guzian eraman izandu zituen neke-tormentuakgatik, eta bere ontasun-Emalle andiagatik, urrikal dakizula zuri ordu artan, ta dizula ordurañoko zere uts guzian barkamentua, ta berririk egin bage iltzeko grazia.

Errain diozkatzu gero zere konfesariari alik zuzenena zere uts eta kulpa guziak; eta emain diozu konfesari berari, erraten dizun guzia zuzen egiteko itza; ta emain diozu zere itz au, etsai galgarriaren tentaerak,

eta aragiaren naikunde makur guziak garaitzeko asmoan.

Au guzia, bere anitz neke bage, egiten du ordu artan, len maiz konfesatzera oitua dagoen eriak; len bere konfesione jenerala bein ta berriz egiña dadukan eriak; leneko bizitza txarrak utzirik, kontuz bere gauzak egin oi zituen eriak; eta kalterik egin bage bati ere, nori berea ematen ziola, ta itzez, ta lanez, bearrean arkitzen ziranei lagundu izandu dien eriak.

Era onetan bizi ez den bekataria, anitz neketan arkitzen da, dio san Agustinek (*serm. 48. ad Fratr.*) azkeneko bere eritasunean. Sukarrez ta oñazez daduka gaisoak bere gorputza. Kezkak kezkekin, ta tristurak-tristuren gain doazkio orduan bere biotz erdillera.

Erioaren oroitzapenak nasten dio orduan eri gaisoari barren guzia Etxeko guziak, gau illun bat baño illunagoak arkitzen dira eri beraren begietan; ta, zenbait beintzat, beren negarra ongi dariela orduan an arkitzen dira.

Bekatari bera bizi naiez dago; ta, ez duela zer beldurtu, esaten diote bere lausengariak. Edariz, odol-isurtzez, ta egiten diozkatzen gauzekin. Sendatu uste du, ta bizi len bezala, eri galduak. Baña denbora berean iltzeko beldur andiak ditu; ta, ill ondoan, sule-

zera bearko duelako goganber arrigarriak; eta orrenbat kez karen artean, ez du egiten eri illunduak, ongi beinzat, bearren dena edo eriotz on baterako bere gauzak prestatzea.

A zer kez kak, eta zer damuak, orduan orrela dagoen eriak izain oi dituenak! Damuz dago ordu artan eria lenagotik ez egiñaz, egin bear zukena, edo lenagotik ez asiaz bere Jaunaren Legeko gauzak zuzen egiten: lenagotik ez egiñaz, orduan atsegin egiñen zioten gauzak; eta lenagotik ez serbitzatu-maitatuaz, serbitza-maitatu bear zuen eran bere Jaungoiko maitagarria.

Etortzen zaio noizbait eri gaisoari, au egiten asinai iduri bat; baña illuntzen diote biotza leneko bere bekatuak, eta bere etsai gaistoak.

Adirazten diote, bere etsai oriek, berandu dela orretarako, ez dela orretarako sasoi ona eritasunekoa; sendatzen denean ariko dela bere lan on orietan. Era orretan doakio denbora, egin bear duenik egiten ez duela, beintzat bear den eran; ta, nork daki nola bukatzen duen bere biziera.

Gaizki buka ez dezazun zuk zerea, ta utz ditzatzun zuk zere azken-eritasunean lurreko zere gauzak, eta asmo txar galgarri guziak, egizu gaurdanik zuk, zere

Jesus maitagarriak orretako guzioi erakusten diguna.-
Zer ote?- Irur gauza.

Lenbizikoa da ongi loturik gu gerok ibiltzea: *sunt lumbi vestri praecincti*: edo guk geren bearriak, adimentu-biotzak, eta gorputz-animak bide galgarrietatik mugaz ta lenbaitlen kentzea; ta bide onez ta birtutez oriek berak guk erabiltzea, nai duten gauza gaistorik bein ere uzten ez zaiela gure aztura, ta pasione zkingarriei; ta bidenabar eme-emeki, ta gure Jaunaren ize-nean eramaten ditugula geren gurutzea, ta geren neke guziak.

Bigarren lekuan, guk, eriotz on bana erditzeko, egin bear dugun gauza da geren argia guk eskuan dugula, ibiltzea: *et lucernae ardentes in manibus vestris*: edo maiz guk geren gogora ekartzea, ez dituela gure Jaunak bein ere gugandik kentzen amoriozko bere begiak, begira dagokizula beti, ordua datorrenean guri geren gauzak agertzeko: ta, orietarako bearko dugun beraren laguntza, guk nai dugula, berak guri emateko: sulezeko nekeen beldurrak, eta gure zerura-naiak eraman gaitzaten gu, geren gauzak zuzen egitera, ta gure Jaungoiko maitagarria ziñez maitatzera.

Eta azkeneko lekuan guk orretarako egin bear dugun gauza da, urte guzian, egunoro, ta egunaren ordu bakoitzean gogoan guk erabiltzea gure ill-bearra, ta gure eriotzari darraikon kontu izugarria; ori guk gaizki emateko, beldurrak eraman gaitzan gu geren gauzak zuzen egitera; edo egitera, geren eriotzeko orduan guk naiko dugun bezala, ta geren erioak, oartukabean bezala gu bukatuagatik, ongi prestatuak arki gaitzaken eran: *et vos similes hominibus expectantibus Dominum suum*. Luc. 12. 35.

Irur gauz oriek zuk garai onez egitera, ez dira anitz sartuko, ez, lurreko gauza galgarrietan zure gogoasmoak; eta aisa zuk andik kenduko dituzu azkeneko zere eritasunean, orduan zuk zere biotza ongi prestatzeko azken zere komunionera.

A zer atsegin-kontentua, zere lan onetan mugaz asiaz, zuk ordu artan artuko dezuna! Eta a zer atsekabea, orduan zuk artu bearra, garai onez zu ez astera orain ekusten dugun zure prestaeran!

Atsekabe au nai dezu zuk, edo atsegin-kontentura, zere azken ordu artarako? Zure eskuan arkitzen dira bata ta bestea: ta, ordu artako atsegin aldera zu itzulzera, prest arkitzen da gure Jesus maitagarria,

artarako bidean, edo, ura ekarri oi duten, gauz onetan zuri laguntzeko.

Alde onetara itzuliko zara zu, bai, zuk zentzurik izatera: ta zorionekoa zu, ala zuk egitera, irauten badezu orretan zuk zere ill arteko denboran; bada onak izain dira orduan, ta zure Jaunaren begietan guztiz ederrak, orduko zure komunionea, ta zure eriotza.

B.

Azken aldian komuniatzeko dagoenak egin bear dituen gañerako gauzak

Lurreko gogo-asmoak aldebat utzi, ta damuzko konfesione garbi on bat egin ondoan iltzeko dagoen eriak itzuli bear ditu animako bere begiak bere Jesus maitagarri sakramentatuagana, elizatik au datorkioneko, al duen ongiena bere gauzak prestatzeko.

Eri gaisoak ekusten du bere burua ordu artarako len zenetik dena mudatua, ta lurrez ta loiez beterik arkitzen den zaku baten eran.- Ezin igitu da geroz batetik bestera eri gaiso au, ezpada besteren baten eskuz, edo bere neke andiarekin.- Buruko miñez dago

beti, ta bere begiak ezin jaso dituela. Erraiak sukarrez erretzen daduzka; ta bular guzia karkaisez betea. Erdi-illa dirudi bere burutik oñetaraño, ta aur batek adiña indar ez dadukala dago. Ezin baliatu da bere eskuz, nai bezala beintzat; eta Jaungoiko berak daki, nola dabillen orduko aren garbitasuna.

Eri geienen etxeak txarrak dira; orien gelak etheen erakoak, eta gelatako gauzak eta oatzea ez agitz obeak.

Ona nola, ta non arkitu oi diran eririk geienak, bere Jaun andia azkenik artu bear duten denboran!

Bere Jaun andi au artzeko dagoen eriak, ekusi bear du au guzia, aisa aldaratu nai badu bere gogoia lurreko gauza txar guzietatik, eta, au ark egin ondoan, itzuli bear ditu bere gogo-biotzak, argana datorren bere Jaun andiagana, ta zerbait astirekin oni ark begiratzerara, geldituko da eri gaisoa arrituaren eran, ta erraten duela: Gauzaren arrigarria! Jaungoiko-gizon bat or aldareko gure Sakramentuan; eta or ura nigana etortzeko! Ura; ta nigana? Zeruko pillare, ta Aingeru guziak errespetuz ikara daduzka, Sakramentu orretan arkitzen den nere Jaun andi orrek; eta alere nigana etortzeko dago orain Jaun andi au?

Ezer-ez bat bezala izan ni nere Jaun andi onen aldean; ta orain ezer-ezagoa nere eritasunarekin, ta ni nagoen ustel-bidean; ta alere niganako abian Jaun aundi au aldareko bere Sakramentuan?

Etzenekien zuk, nere Jesus maitagarria (erran dezake eriak gero), nor nitzan ni, ta nolakoa nere denboran? Ez dakizu zuk zenbat aldiz zikindu dudan nik nere biotz au nere oben-kulpekin, ta anbat nere utsbekatu arrigarrirekin?

Nere bekatu bakoitzari zegokana zen sekulako sulezea; ta guzientzat zeuden an, nork daki zenbat neke-urratze ta tormentu!

Ez dakit oraindik nik egin ote dudan, edo ez, zugandik nik nere bekatu orien barkamentua erdisteko diña; ta, egin badut ere, zure etsai gogor gaisto bat izandua naz ni, ta zure ontart andi au ezin irabaz nezakena!

A! baña ez eldu zu nigana, nere Jesus maitagarria, zere artzekoak artzera! Eldu zu zere ontasun andiak nigana zakartziela, ta nitzaz zu ongi, ta guztiz urrikaldurik! Eldu nigana zu, niri nere nekeak arintzera, edo nere neke oriek arinkiago eramaten, niri laguntzera! Eldu zu, zere zerura ni gaur zuzendu naiez, ta nigan-dik zuk nere etsaiak aienatzeagatik! Eldu zu zere gra-

ziaz nere anima, ta zere amorez nere biotza, nik nai dudala, bete-beteak uztera! Eldu zu nigana gaur, nere bearrik batere bage, ta nere bearrak, edo gabeak zakartziela; bada ni, anitz gauza gabe, ta zure bear andiarekin arkitzen naz gaur; eta zeren geiegi zuk niri nai didazun, da gaurko zure nigana-naia!

Zorioneko umea bada ni, nik gaur ateratzera amoriozko zure etorze onetatik, atera dezakedana; bada aterako dut nik, nere etsaiak garaitzeko, nere pasio-neak eta nere naikunde guziak eskuratzeko, zerurako irabazi andiak nik egiteko, ta eriotz on baterako bear-ko dudan guzi-guzia.

Ez dakit nik, nere Jesus maitagarria, zer egin gaur, zu niganatzen zaranean, zuri egiteko nik al dukedan ongi etorririk onena! Itxura txarrean naduka ni gaur orretarako nere eritasunak; ez daude gaur, ez, nere biotz au, ta nere adimentua, ez eta nere indarrak ere, beste zenbatek ordu onetan egin zituzten gauzak egiteko!

Zer, Uste dezu zuk, anitzek egin zutela gure Jesus sakramentatuarekin, beren azkeneko komunionerako Jesus sakramentatua uste zutenean? San Jeronimok artu izandu zuen ordu artarako doluzko soñeko bat; eta lurrean gero belaunikaturik, egin zituen negar

andiak, eta damuzko eskukaldika ongi nekatu zuen bere bularra, bere azken komunionea artu baño len.- Toskanako Duke Lorenzo Medizis, bere soñekoak arturirik, atera zitzaion bidera, bere etxen zetorkion gure Jesus maitagarriari. Eman ziozkan an esker umilki-ederrak bere amoriozko etorreragatik; eskatu izanduzion bere uts andi-txiki guzien barkamentua; ta guztiz debotki komuniatu ondoan, itzuli zen bere oatzero: au, santu baten bakearekin, bere bizia Jesus beraren eskuetan uztera.- Geiago da, lenbiziko Dabid Eskoziako erregek ordu artan egin izandu zuena; bada, bi apaizek laguntzen ziotela bere oñez joan izandu zen elizara, an animaren biderako bere jatea, edo azken-komunionea artzera; ta artu izandu zuen, anitz gauzon egin ta eman ondoan. Eta gero bere etxera itzuli-rik, eta, bere jauregitarrei au, zegozten gauzak erra-ten zieztela, ill zen eme-emeki bere oatzean.- Eta Uniades zeritzan Ungariako gizon andi bat joan zen ordu artan elizara, Dabid onen eran, ta egin izandu zuen Dabid onek baño zerbait geiago; bada, Dabidek bezala bere Jauna an artu ezezik, an bertan gelditu zen apez artean, bere eriotzaren begira; ta an bertan ill ere zen, apezak otoitz, ta otoitz ta erregu bere alde zeduzkatziela.

Zenbat ere den au guzia, etzuten egin gizon oriek; gure Jesusi ez dagokan gauzarik batere. Ala ere, ez digu ordu orretarako orrenbat eskatzen guri gure Jesus maitagarriak: ordurako guri gure Jesusek eskatzen diguna da, orienaren erako debozione batekin, ta al dugun umiltasunarekin geren oatzean guk ura azken-komunionean artzea, lenik eskatzen zaiola gure bizitza guziko utsen barkamentua, ta gu ill artean uts berririk ez egiteko grazia. Onetarako prestatuko zara zu orduan alik ongiena: ta, elizatik dakartenean gure Jesus sakramentatua, aterako zatzazka bidera zu zere naiez ta gogoz Jesus maitagarriari; ta egiñen diozu agur ta agur; ta emain diozkatzu biotz osoz, ta amore andiarekin zere eskerrak eskerren gain.

Au berau egiñen dezu zuk zere Jesus bera zere gelan sartzean: ta, noiz ere baño zinkiago, zere komunionean zere aoratzen, ta bularreratzen zaitzunean.

Au guzia zuk era onetan egitera, egiñen dezu, ez gaizki, orduko zere egiteko au; ta anitz irabaziko dezu ordu berean, ta eternidade guzirako, zere azken komunionean.- Badakizu zuk, nola au ikasi dezakezun ordu artarako?- Gaurdanik orduraño ongi, ta maiz, zu komuniatzen zarala; ta zu komuniatu aldiian orduko zere komunionea, azken-komunionea bailiz bezala

zuk egiten dezula.- Zuk au ala egitera, prestatuz pres-
tatu ibilliko zara zu, aldi artako komunioerako, ta
aisa zuk, indar gutirekin orduan zu egonagatik, buka-
tuko dezu komunione artarako zere prestaera.

Ekusten dezu zuk, zere gauz au era onetan zuk
egitetik zuri datorkikezun ondasuna; ta ori zuk ez egi-
tetik izan dezakezun sekulako kaltea.

Artu, bada, zuk emen bertatik, artarako zere neu-
rriak, ordu artan naiko dezun bezala: ta ez zuk zere
begiei liluratzen iutzi lurreko gauza txar, ta atsegin
eroen artean. Ez arren, ez!

C.

Iltzen dagoenaren komunio ondoko eskerrak

Komunioea artu ondoan, itsiko edo ertsiko ditu
erriak gorputzeko bere bi begiak, eta animako bere
begiekin begiratuko dio, bere barrenera sartu zaion
Jesus maitagarriari.

Ekusirik gero eri berak, Jesusek bere etortze one-
tan egiten dion ontart arrigarria, egiñen diozka Jesusi
biotzez, ta animaz, al dituen agur, muñ egite, ta eske-

rezko siñu guziak, eta errain dio, ordu berean Maria Ejiptziaka deritzan santak, Suriok dionaz, Jesus berari erran izandu ziona, edo «Orain Jauna, orain» utzi nazu zuk zere bakez beterik, eta, zuk zerorrek adirazia zenedukan eran: bada ekusi dute gaur nere begiak, eta nerekin dadukat orain nik, ordu onetan uste nuen nere Jesus maitagarria. Badagikezu nitaz gaugeru zuk, zuk zerorrek nai dezuna; ta eraman nazakezu zuk, zerorrek nai dezunean, zere gloriara. Ara naiez nago, bai, ta eternidade guzian an zuri eskerrak eskerren gain emateko ustean; ala gerta dedilla, bada; bai arren, bai!

Agertuko diozka gero Jesusi ni berak bere flakiak, ta bere bear-erak ta gabe guziak; eta errain dio: Bada-kusazu zuk, nere Jesus maitagarria, zer eratan arkitzen nazan ni, orain nagoen orduan.– Itz bat ateratzeko indarrrik bage arkitzen naz ni, zuk zerorrek dakusazun bezala. Bular guztiz galduarekin nago, ta buru erdi nastuarekin. Illundurik arkitzen da gaur urte adi-mentua; ta nere biotz au guzia, tristura ta tristura bai-zik ez dela!

Guztiz izugarriak dira gaurko nere etsaiak, eta emen dabilta guziak, ni galdu naiez! Lagun zakizkit, bada, nere Jesus maitagarria; ta errain dut gaur nik,

len Dabidek zion gauza bat edo, zurekin batean ni ez nezala batere nere etsaien beldur. *Dominus mihi adjuntor, et ego despiciam inimicos meos.* Ps. 117. 7.

Baña, Jauna (erran dezake gero); ez dakit zer gerta lekikedan niri emen ni luzaro bizitzera, edo sendatzen banintz ni. Nik zu berriz galtzeko, ez dut nai bat ere sendatu; emen bertatik igan nai dut nik zure erresumara, edo zure zerura, an ni beti ta beti zu maitatzen egotera. Eta zorigaistoan ez naz ni onetan beti aritu izandu, ni zu ezagutzen asi nintzanetik! Orretan ni ordutik beti aritzera, ez nintzan ni, ez, orain arkituko arkitzen nazan bezain zordun, ta bekat-arrastoz betea!

Nere bekat-arrasto, edo nere bekatu barkatuen zorrak eskatzen dute Purgatorioko anitz su ta neke, zu nitaz ez urrikaltzera. Guztiz urrikaltia zara zu, nere Jesus maitagarria, ta nere urrikariz anbat eta anbat neke eraman zenituen Jaungoiko-gizona. Zuk zere neke oriekin irabazi zenuena nere onerako da, ta nere zorren alde, ni nor banaz; ta nik egitera, orretarako zuk eskatzen dezuna.

Zuk orretarako nai dezuna, ta nik gaur dagikedana da, nik zuri umilki eskatzea; ta eskatzen dizut zere urrikaltasuna, ta niri, ni nagoen eran eman dezakeda-

zuna; ta, badut uste, artatik zuk batere ukatuko ez didazala.

Ala ere, gelditzen diran zorren alde izan ditezela oraingo nere nekeak, eta emendik nere eriotzeko orduraño eraman bear ditudanak, eta gero ere gelditzen badira zenbait nere bekat-arrasto edo zor, emen nago ni zuk nai dezuna zure Purgatorioan eramateko; ta nago, an ongi-ongiri ni garbiturik, lenbaitlen zeruan sartu naiez ongi betea.

Eskerrak zuri, nere Jesus maitagarria, zeren ekarri ninduzun zuk zere Lege garbira. Siñisten ditut nik zure Lege garbi onek erakusten dizkidan gauza guziak: eta damuz nago ni, nik len zuzen egin bageaz Lege onek niri erakutsiak: baña denbora berean, nago barkatu dizkidatzulako ustean, ta berririk ez egin nai andiarenkin.

Maite zaitut nik zu, nere Jesus maitagarria; ta maite zaitut nik munduko beste gauza guzien gain; ta beste gauza guzi-guziak galduko nituke (ta pozik alere) nik, nere maitatze au ez galtzeagatik. Maitatze berean iraun nai dut nik, bizi nazaño; baita sekula guzian ere. Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria: bai arren, bai!

*Bona et mala, vita et mors,
paupertas et honestas á Deo sunt.*

Exod. 11.

Gaitzak, eta nekeak, gauz onak eta leunak bezala, gure Jaunaren eskutik datozen gauzak dira ta guzi-guziak dira gure guzien onerako datozen gauzak, guk oriek artzera artu bear diran eran; bada munduko gauz on guziak dira, oriekin guk geren buruak obetzeko: ta mundu bereko gaizkiak eta neke gogorak ere dira, oriek guk artzen ditugula geren obenen alde, edo gure Jesusek gugatik eraman zuenaren izenean, izan ditezen gure animen onerako.

A nik guziak, onak eta gaitzak, edo leunak eta gogorak artu izandu banitu beti-beti nere on onetarako! Zenbat ondasun ekarriko zidaten niri egungo egunerako!

Ar banitza nik gaugero badere, nere ill arteko denboran! Nere Jaungoikoak orretarako niri emanak dira guziak; eta ez, nik oriek gaizki artzeko; ez eta oriek nik maitatzeko ere.

Nere bearrerako, ta beartsu gaisoei nik laguntzeko, niri nere Jaungoiko onak emanak dira, nik ditudan

ondasunak eta gauza guziak. Zorioneko umea ni, nik oriek orretan erabiltzera, bada egiten dut nik orduan, nere Jaungoiko emalleak nigandik nai duena, ta nere gauzak nere onerako dira.

Eta beartsu ni biziagatik noizbait, ez dut nik galduko, ez, nere zorion au, nik orduan egitera nere Jesus onarena, edo nik orduan eme-emeki, ta nere Jaunaren izenean artzera nere gabea, bearra ta premia.

Nere Jaungoiko beraren eskutik datoz nere bizitza, ta eriotza. Iltzeko jaioak gara mundura gatozenok; eta gure eriotza da eternidade baten eztarria.

Gu ongi iltzera, sartuko gara gu atsegin-pozezko eternidadean; ta egon bearrak gara geroz gu Aingeru guzien artean, ta gure Jaunaren glorian. Zorioneko umeak gu, azkenean gu aratzen bagara!

Ara naiez ote zaude zu nere anima? Utzi, bada, bertatik zuk zere gaizkiak, eta galtz-bide makurrak. Egin gaurgero zuk gauz ona, eta kontuzko lanak; eta, gaizkitzen zaranean zu, erne, ta kontu, aldi artako zere gauzak ongi zuzentzeko, ta bear den eran ta orduz elizako gauzak artzeko.

Au zuk ez egitera, era gaistoan artuko zaitu zu zere erioak, eta galduko zara zu sekula guzirako.- Zorigaistoan jaioa, era onetan, berak bere burua

galdu nai duena! Etzaitezela izan zu zori orretakoeta-
tik: ez arren, ez!

*Oculi omnium in te sperant, Domine,
et tu das escam illorum in tempore oportuno.*

Ps. 144.

Zein maitaria zaran zu, gure Jaungoikoa, ta denbo-
ra berean zu zein maitagarria! Zure begira gaude gu,
edo zure bear ezin-andiangoan, munduan garan
guziok! Zugatik ez izatera, ez genuke guk mundu
guzian deus ere; eta, zuk ez idukitzera gu, gu bertan
illak geuntzazke, ta batere atsik bage.

Baña bizirik gaduzkatzu zuk, zuk zerorrek dakizun
orduraño; ta ematen diguzu guri zuk, guk artarako
bearko duguna, edo bearke dugunaren irabazbidea; ta
ematen diguzu guri ori guzia, guri ongi naiez.

Ez gara gu, ez, ill arterañoakoak, zentzurik bageko
ganadu-arrai-egaztiak bezala. Illtzen ez dena da gure
anima; ta, bein illagatik, biztuko da gero gure gorpu-
tza; ta gorputz eta anima bizi bearrak gara gu eterni-
dade guzi-guzian, edo beti ta beti.

Geroko bizitz on bat irabazten laguntzen diguzu zuk, gure Jaungoiko maitagarria, guk gerok nai dugula. Ematen dizkigutzu guri zuk, guk bear ditugun denboran, zere gogargiak; eta, guk nai dugunean, zere Sakramentuetako jan-edanak; baita, geien-geienei beintzat, azkeneko eritasunean ere; bada guti dira Elizakoak bage iltzen diran kristioak.

Ekusten dezu, guztiz on maitagarria dela gure Jesus, gurekin berak gure bizitzan egiten duen guziagatik; eta ez gutiago azkeneko bere etortze onegatik.

Gauza arrigarria! Jaungoiko-gizon, Aita eternoaren eskoi aldean gloriuz beterik dagoena edozein eri-txar galduren etxera, gelara, aora, ta bular zikiñera bere Sakramentuan, eri gaisoari bere nekeak emeki eramaten laguntzera, eri berari bere grazia ta doaiak ematera, illundurik dadukan bere biotza arintzera, beraren etsaiei indarrak kentzera, ta penatzen duten bere pasioneak eskuratzen! Egin lezake Jesusek onen laurdenik ere, Jesusek berak eri gaisoei guztiz ongi ez-naizatera?

A gure Jesus maitagarria, ta nola prestatu oi dira eri geienak, aldi orretan zu artzeko?- Ez noski, ez bear den bezala! Anitz eri ikaratzen dira, aditu orduko, artzeko daudela zu.- Zergatik ori orrela?- Zeren eza-

gutzen duten, ez bide dela urrun orien eriotza; ta agitz beldur diran, emen gaizki ill ondoan, galduko dirala eternidade guzirako.

Ordu artan ongi prestatzen diranak, izan oi dira, len maiz, eta bear zen eran komuniatzen ziranak. Ori da, nik artarako gaugerero egin uste dudana. Ala gerta dedilla, bada: bai arren, bai!

Heu mihi, quia incolatus meus prolongatus est!

Ps. 119. 5.

Ai ene! erraten zuen Dabidek bein; eta erran oi dute, Dabiden eran, emengo ezer-eza, ta zeruko gauzen ona ta edertasuna ezagutzen dutenak: ene! ta zein luzea den emengo nere egoera, ta nekezko bizitza! Noiz bukatu bearrak ote dira emengo nere egunak? Noiz artean iraun bear ote dute emengo nere nekeak, emengo nere kezkak, eta emengo nere naigabeak?

Gogora datozkidanean niri zeru artako atsegin-pozak, ango Aingeruak, eta an zuk, nere Jaungoiko altsu maitagarriak, zereei agertzen diezun zure edertasuna, begitan ematen didate niri emengo gauza

guziak; eta ara naiez-ta-naiez nago ni, nere gogorazio au aitu arte guzian!

Egia da, bai ditudala noizean bein nik nere gogaberrak, nere kezkek, eta nere naigabeak ere, nere ill bearra niri gogoratzen zaidanean; baña ez datoz oriek, ez, nere emen gelditu naietik; eriotzaren ondorengo kontuetatik datoz oriek; ez dakit alabaña nik nola arkitzen garan orietan zu ta ni, biok.

Nik orain dakidan guzia da, damaturik nagoela ni oraindaño nore utsez, ta bekatu guzietan; ta bekatu berririk ez egiteko asmoan, zu bezain Jaun on maitagarriari atsekaberik ez eman naiez; ta era orretan arkitzen denari barkatu oi diozkatzula zuk bere leneko bekatu guziak.

Badakit besterik ere nik, bai, nere Jesus maitagarria; bada badakit etorri zarala zu, ni nagoen gelara, ta nere bular berera, egonik ni nagoen eran, eri, ta era txar ezin galduago onetan.

Eta zertara etorri bear zenuen zuk onara, ezpazen begitan nik arturik neduzkan nere kulpak barkatzera, zere grazi anitz niri ematera, ta zere zerurako ni emen markaturik uztera?

Uste orretan biziko naz ni, bizi nazaño, ta bai zuganako nai andiarekin.

Nere nai au ere zuk zerrorek niri gaur emanikakoa da, nere Jesus maitagarria, ta ni zuk zeretzat nadukazalako siñua.

Indazu zuk, ni nere siñu onekin iltzeko grazia, ta oraindako nere uts guziak begitan arturik, bizitzekoa. Ori orain nik erditsi naiez, erratera noa, al dudan damu guziarekin: *Nere Jesu Kristo, etc.*

LXXXV.garren OTOITZ-GAIA

KOMUNIONE GAISTOAREN

ITSUSTASUNA

Komunionera gu zuzen-erazteko dira, oraindanoan guk ekusi ditugun komunione bereko gauz andiak, eta komunione onetik guk atera ditzakegun graziak, doaiak, birtuteak; indarrak, eta ondasun andiak: eta oriek guk galtzen ditugula sulezeko izurritz, edo bekatuaren pozoiez beteak gu geldi ez gaitezen, gu komuniatzen garan aldietan, orain guk ekusi bear ditugu komunione gaistoko itsustasuna, ta gaizki komuniatzen diranen kalteak, kalte orien beldurrak, eta komunione oneko ondasunak eraman gaitzaten gu gure komunione oneko prestaziora.

A.
Gaizki komuniatzen denak
ematen diozka Jesusi
presondegi bat,
eta kate guztiz gaistoak

1. Komunione gaistoa da, aldareko Sakramentua zuk gaizki artzea; edo zuk au artzea, bekaturen batzuek, edo edozein bekatu larri konfesatu bage, edo ura zuk konfesatuagatik, konfesatzea, naiez ta gogoz uzten ez dezula.

Badakizu zuk nor ote den, bekatua bere gogoan edo biotzean dadukala, komuniatzen den gizona, edo emaztekoa?- Ori da, artaratzen den edozein, bere bekatua begitan artzen ez duela, izanik aren lan itsusi au gure Jaungoiko maitagarriari egin dakikeon bidegaberik andiena: ta bidegabe, sekulako sulezea zor zaiona: ori da alabaña ura komuniatzea, bekatu berririk berriz ez egiteko asmorik bage, bekatu berrien bidetik ark bere burua atera nai ez duela, edo ark bere aztura gaistoak garaitzeko, ta bere pasioneak eskuratzeko, egin bear duenik egin gogo ez duela; ta era orretan bat komuniatzea da, ark berak gure Jaungoiko maitagarriaz ista ta irri egitea, edo, ogizko Jaun bat bailiz baño geiago ark bere Jaungoikoari ez begiratzea; ta egin dezaken gauzarik itsusienetatik bat ark egitea.

Zergatik uste dezu?- Zeren sartzen duen edertasun utsa loitegirik andiengan, edo munduan den lekurik zikinengan; ta zeren denbora berean lotzen dioz-

kan bazterrik bageko Jesusen amoreari bere eskuak, ongirik ez egiteko, komuniatzen den lotzalle bekatarari.

Sartzen du beraz gaizki komuniatzen den bekatariak edertasun utsa loitegi, ta leku orren zikiñean?- Bai, nere anima; bai egiaki, bai!

Zer edertasun ote da komuniatzalle bekatariak, eta itsusi onetan dakarren edertasun uts au?- Aldareko Sakramentuan gorderik arkitzen den edertasuna, edo gure Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriarena.

Gure Jesusen gizatasuna da, agertu den gizatasunik ederrena: badu alabaña, bere edertasunaren gain, dituen grazi andiak eta zeruko doaiak eman dezaken edertasun guzi-guzia; baita neurririk ez duen Jesus beraren Jaungoikotasunaren edertasuna ere.- Ekusi zazu andia den, ta uts-utsa, edo utsik bagekoa, komuniatzen denak artzen duen edertasuna!

Noratzen ote dut nik, ni komuniatzen nazanetan (gaizki komuniatzen banaz ni) gure Jesus maitagarriaren edertasun au guzia?- Bekatu loiez nik zikindua dadukadan nere barren onetara.

Zer leku, edo zer toki ote da nere barreneko toki, edo leku txar au?- Gure Jaungoiko-gizonaren begietarako, ta onen edertasunarentzat, ori da arkitzen den,

ta asma diteken, tokirik itsusiena ta gaistoena.- Ereje batzuek eman zioten bein komunionea, edo osti kon-sagratu bat zapotzar itsusi zikin andi bati. Nola egoin ote zen zapo itsusi aren sabel loi-lizun-ustelean gure Jesus maitagarria? Nola? Zurean baño, milletan obe-kiago, komunioetik bekatuta, ta bekatutik komunio-nera dabilzanetatik, edo gaizki komuniatzen dirane-tatik bat bazara zu.- Era orretako zapotzarren, Behe-moth animalia izugarriaren, Lebiatan deritzan arrai arri-garriaren, edo den zikiñen-zikiñenaren sabelean pozik sartuko lizake gure Jesus maitagarria, bekatu larri bakar batekin arkitzen denaren miia ez ukitzeagatik. Bai, ta infernu berearen ere infernutik bekatuak kendu ezkerok: *aptior plane locus Deo esset infernus, si cul-pae non essent, quam domus peccatrix*. Paul. Pelag. in Matth.

Au onela da, zuk, guk baño milletan obeki dakizun bezala, gure Jesus maitagarria; ta komuniatu naz ni, nik neronek dakidan adiñetan, nere aztura gaistoak nik utzi bage, bekatu berriak bekatuen gain nik egiten nituela, ta bear bezalako damurik beintzat, edo onez-ko gogorik eramaten ez dutenen eran!- Eta alere ez nintzan lotsaz, beldurrez, ta ikaraz erd-illa etorri ni zu artzerakoan? Gauz arrigarria!

Itsusi-beltza bazegoen len nere anima, beltz-itsusiagoa, ta agitz alere, gelditu zen nere anima bera nik zu, nere Jesus maitagarria, gaizki artu ondoan: bada gelditu zen, len baño bekatu geiagorekin, ta, zenbat bekatu geiago dadukan animak, anbat andiagoa da anima beraren beltztasun itsusia!- Zer egin ote neza-ke nik, nere Jesus maitagarria, nere beltztasun au utzi, ta anima garbi ederrarekin artzeko nik zu, gaurgero nere komunioneetan?

Damuzko konfesione oso, edo jeneral bat, bizitza berri zuzen-zuzen bat, eta konfesari on jakintsu batek adirazten dizkitzun gauzak.

Nai dut, bada, nik au guzia zure izenean, nere Jesus maitagarria; to pozik egiñen dut, ez egiteagatik gaurgero nik, komunione gaisto bat bezain gauz itsusi-galgarririk.

2. Ongi egiñen dezu zuk, bai, nere anima; bada badu komunione gaistoak beste itsutasun bat ere.

Zein ote?- Gure Jesusen amoreari bere eskuak lotzetik datorkiona.

Bai, komunione gaistoak lotzen diozka, gure amorez beterik dagoen gure Jesus maitagarriari, bere eskuak, bere ontart andietatik bakar bat ere ez egiteko, gaizki komuniatzen den animari.

Gure Jesus maitagarria gelditu zen aldareko bere Sakramentuan bere Aitari atsegin egiteagatik gure komunione onekin, ta bide nabar gu bere ondasunez bete naiez: eta, gaizki komuniatzen den bekatariak ez dio beinik bein atsegiñik egiten batere Aita eternoari, ta, ari ori egin bearrean, atsekabe-bideak ematen diozka orren orduko komunioneak: eta bekatari berak, Jesusen ondasunak artu lekuan, Jesus beragandik artzen du bere kalte guztiz izugarri bat; bada bere komunione berean egiten du bekatu berri bat; eta bere bekatuz uzten du agitz galdua bere burua; ta denbora berean uzten ditu gure Jesusen eskuak, kate batekin lotuak bezala; ta uzten du Jesus maitagarria naigabezko bidean; bada guztiz maitaria da Jesus maitagarria; komuniatzen dena maitatu, ta ondasunez bete naiez dago aldareko bere Sakramentuan, ta bekatariak bere komunione gaistoarekin eragozten diozka Jesusi bata ta bestea; ta, bearturik uzten du Jesus, bekatari bera begietan arturik, aren barren zikin-itsusian, beraren komunioneiko denboran geldigeldirik egotera.

Gure Jesus maitagarria: ta zure onegia! Orren gaizki zaduzkatzien bekatari eskergabe zikin baten

barrenan egoin ziñake zu, Sakramentuak diraun adiña denboraz?

Bota bekio zerbait ur, goritua dagoen burdin edo metal bati, ta, zein ere astuna den, jaikiko da, bera datzan tokitik, edo gutienez asiko da ziiska, edo erriertan bezala, ta azkenean geldituko da irañez, edo iraz betea dirudiela; ta afarra dariola: ta zu, gure Jesus maitagarria, bazterrik bageko amorez suturik zaude aldarako zere Sakramentuan, gaizki komuniatzen denak ematen dizu zuri, bere barreneratzean, bere bekatuen ur loiarekin; ta ala ere isili-isillik zaude zu, ta or geldi-geldia!- Ori da gure Jesus onak egin oi duena: baña noiz edo noiz egiten du besterik ere, edo egiten du lurpeko aizeak zenbait aldiz egiten duna.

Lurpeko lezeak, edo urez, edo aizez beteak daude. Geldirik dago ango aize au, an bere lekuan, geldirik uzten dutenean; baña geise-egi ertsitzen, edo estutzen dutenean, aserretzen da lurpeko aize guzia, ta bere gañetik aienatzen ditu, an arkitzen diran, etxeak, aitzak, edo mendiak, eta billatzen du nonbait bere aisa egontokia.- Mendipeko aize estutua baño, agitz gaizkiago arkitzen da gure Jesus maitagarria, gaizki komuniatzen denaren barrenean arkitzen denean; ta zenbait aldiz egin ditu, aizearenak bezain gauz arriga-

riak.- Orietatik da Amian deritzan erriko san Remijio-
ren elizan gertatua. Emen bat onela komuniatu zene-
ko, arkitu zen bere erraietako oñaze ezin-andiagoekin,
odolez beterikako afarra zeriola; ta, gizon amurratu
baten eran iraulka zebilela, anitz bere odolen artean
aurtiki zuen Hosti-Santua. *Apud. Daurout. v. Euch.*

Ekusten dezu? Ez da nai-ta-ez gauz itsusi-galga-
rria, onelako lanak Jesus maitagarriari eragin diozkan
komunionea?- Ezin egin lezake Jesusek zurekin ere
orrelako gauzaren bat edo beste, zuk zere Jesus gaiz-
ki artzera? Zu ez ongi komuniatzera? Eta egiten
badu?- Ai ene! galdua ni eternidade guzirako.

Baña, ez, nere Jesus maitagarria, ez: ez dizut nik
eman uste era orretako biderik batere. Ni prestatuko
naz,bai; ta alik ongien-ongiena nere komunioetara-
ko. Nik egiñen dut lenbaitlen konfesione jeneral oso
bat, edo konfesari on jakintsuak niri adirazten didana.
Nik utziko ditut oraindañoko nere gal-bideak; egiñen
ditut nik, komunioetako prestatze on batek eskatzen
dituen gauzak; eta niganatzen zaranean zu, nik utziko
diot zure biotz maitariari maitatzen ni, zuk nai adiña,
ta zuk zere ondasunez betetzen. Ala gerta dedilla: bai
arren, bai!

B.

Jesusen neke-tormentuak berritze bat bezala da bekataria gaizki komuniatzea

1. Gaizki komuniatzen denak egiten ditu, len Jesus-ek eraman zituen neke-tormentuen iduriko edo aintzurako gauzak: eta gure Jesusen orduko Pasionea dirudi bekatarien oraingo komunione gaistoak.

Edozein bekatu larrik berriz berez gurutzeratzen du gure Jesus maitagarria, dio san Pablo: *rursum crucifigentes... Filium Dei* (Hebr. 6. 6); ta beste edozein bekatuk bezain zuzen, edo zuzenago, egiten ditu ori, ta beste anitz Jesus onarekiko lan gaisto, gaizki komuniatzen denaren bekatuak.

Ori orain guk ekusteko, ekus dezagun, bere Pasioneke denboran Jesusi egin ziotena, ta gaizki komuniatzen den bekataria gure Jesusi egiten diona.

Jetsemaniko baratzean lotu zutenetik, ill arteko bere denbora guzian egin ziozkaten Jesus maitagarriari judatar gogorak, eta orien borrareroak, nork daki zenbat ista ta burla. Arrigarriak izandu ziran guziak; eta

lenbizikoen artean borrero berak Pilatosen etxean egin ziozkatena, errege erotako artzen zutela.

Eman zioten an oriek gure Jesus maitagarriari soñekotzar gorri guztiz zartu bat. Ezarri zioten bere buruan arantzeko koroa, ta eskuetan kañabera utsa. Lotu ziozkatena, ta estali bere begiak; eta Jesusen borrero beretatik bein bata, ta bein bestea, belaunikatzen zirala, erran izandu zioten, bein: Agur, errege andia; ta gero beren miira zetorkien txarkeri guziguzia; ta bete zioten bidenabar listuz, ta esk-ukaldiz, arpegi guzia, ta kañabera-golpez bere burua.

Ekusten dezu? Bada orren idurikoa da gaizki komuniatzen denak, bera konfesatzean, Jesusi egin oi diona. Konfesariaren oñetaratzean, egiten dio Jesus maitagarriari gaizki komuniatzen denak, bere agurera; erraten dio: Ni bekataria; ta erraten ditu gero bere bekatuak; baña ez guziak, edo ez bear bezala, edo ez bear den damuarekin, edo ez arturik bekatuak eta bekatu bideak uzteko asmoa; ta orregatik orren konfesionea, listu zikiñez gure Jesus loitzea da; ta bere biotzari bular gañetik ematen diozkan eskukaldiak edo golpeak, istazko ta irrizko gauzak dira; ta Jesus onarendako atsekabe-bideak, eta golpe txar, edo ukaldi galduak.

A zer asiera, gaizki komuniatzen denaren asiera txar au! Eta ez ote da zenbait aldiz beintzat izandu gisa berekoa nerea?

2. Ostegun santuko Jesusen afarira zen Judas gais-toa, gañerako Apostoluekin batean; ta ura an ekus-teak nastu ziozkan Jesusi bere errai guziak; eta: Ona, ona, erran zuen, naigabez beterikako baten eran; ona, zuetatik bat ni saltzeko asmoan, ta alere nerekin nere maian! *turbatus est spiritu, et protestatus est... quia unus ex vobis tradet me* (Joan. 13. 21).

Eta ontzeko asmorik bage, ta gaizki konfesatu den bat nola urbiltzen ote da komunitategira?– Nola, baizik amorioz doanaren eran; baña Judasen biotz gogorra-rekin; ta gure Jaunaren Legeak diona zuzen egiteko, edo bere pasioneak eskuratzeko, ta eragin bear diez-ten nekezko lan guziak erakusteko, asm osorik artu gabe.– Ala urbildu oi dira, komuniatu ondoan, len bezala, ta len ta gero gaizki bizi diranak; bada orien ontzeko asmoak, asmo iduriak izan oi dira, ez ziñezko asmoak, eta, asmo-iduri utsarekin urbiltzen diranak Jesusen aldareko maira, beren ustez ongi urbilduaga-tik, urbiltzen dira Judasen eran, ta Jesusen atsekabez-ko bideak berritzera.– Ekusi zazu, izandu zaran orieta-tik bat zu ere; eta begira etorkizunean.

Eta era orretan komunionekeo maira urbiltzea bat orren gauz ikaragarria bada gure Jesus onarentzat, zer izain ote da, era orretan urbiltzen denaren komunione bera?- Aldamenean, edo beregandik ez urruti, Judas ekustekak nastu bazituen gure Jesusen erraiak, nola nastuko ote ziozkan Judasen tripa zikin bekatarian egoteak?

Eta aldi ohea ote du gure Jesusek, zure barreneratzen denean, era berean arkitzen bazara zu, edo Judasek fariseotzarrei bezala, zuk zere pasione galgarriei ta naikunde makur zikinei, Jesus saltzeko asmoan?- Orra zer lana orduko zure lan ori ere! Orra zer gure Jesusen nekeen berritzea! Lenak baño ere agitz gais-toagoa! Bai segurki, bai!

Zertako saldu ote zien gure Jesus maitagarria Judasek eskribatzar ta fariseo arroe?- Azot-ukaldiz, ta golpez urratu, ta gurutze batean josirik uzteko.

Eta zertako saltzen ote die Jesus bera gaizki komuniatzen denak bere pasione atsegin-zale-sutuei?- Jesusen neke-bide berak berritzeko. Bai: benik bein berritzen du gaizki komuniatzen denak Jesusen azot-ukaldizko neke-bidea, bere gorputzari egiten diozkan bere atsegin loiekin; ta, loi oriekin arkitzen dela, egiñen duen komunione galdu zikiñarekin.

Au guti adirazteagatik agertu da Jesus, bein baño geiagotan Korpus Kristiz, gorpuz guztia zauriz, zuloz, ta odolez betea zekarrela, arautzeko koro bat bere buruan zuela, bere buratik odola zeriola, ta oialtzar gorri batez erdi estalia.

Doña Sancha Carrillo zeritzan emakume on Jesusen maitatzalleari, onelako eran agerturik, erran izan du zion bein gure Jesus maitagarriak: «Ona, nere alaba; ona, zertako diran anitzen komunioneak, eta denbora onetako orien festak! nere neke-bideak berri-tzeko, ta ni era onetan uzteko!».

Ekusten dezu gaizki komuniatzen denaren lan gogor au? Ez da, bada, batere ohea, onen ondoren komuniatzalle gaisto berak egiten duena.

Zer ote?- Bere Jesus berriz ere bere eran gurutzeratzea.

C.

Berriz gurutzeratzen du Jesus gaizki komuniatzen den animak

1. Bat (erraten digu Apostoluak): bai berriz ere gurutzera darama bekatari gaistoak bere Jesus maitagarria: *rursum crucifigentes*.

Baña zer gurutzetara?– Bere barrenekora, dio san Pablok: *crucifigentes sibi net ipsi s Filium Dei*. Bere barrenean daduka, bai, gaizki komuniatzen den bekatiariak bere Jesus maitagarriarentzat gurutze gogor arrigarri bat; eta, bere gurutze onetan gure Jesus ezartzeko ta josteko bearko duen guzia.

Gurutze onen zur zuzena da bere bekatuen koro-pilluz beterik arkitzen den anima. Gurutzearen bi besoak dira anima beraren adimentu itsua, ta naibide, biotz, edo borondate agitz gogortua.– Jesusen esku-õñeetarako iltzeak dira, gaizki komuniatzen denak, bere esku zikiñez, ta sartu-atera edo ibillera galduz, egin izandu dituen gaizkiak.– Jesusen borrhoroak, ala komuniatzen denaren pasione asalduak dira. Iltzeak sartzeko mallua da bekatari beraren gogorrera.– Eta Jesusen bularrerako lantz, edo burdin urratzalea da bekatiariaren naikunde bidegabekoa.

Orra, bada, non, Apostoluak adirazten duen eran uzten duen gurutzeturik bezala bere Jesus maitagarria, gaizki komuniatzen den bekatari galdu-galgarriak. Eta orra non egiten duen bekatari berak, judatar

gogorak len egin zutena baño lan gaistoago bat, dio san Agustinek: *mitius peccaverunt judaei crucifigentes in terra ambulantem, quam qui contemnunt in coelo sedentem* (in ps. 68.)

Zergatik uste dezu?- Zeren judatar gogorak ezagutzen etzuten gure Jesus maitagarria era orretako bekatari txar onek adiña; bada, judatarrak Jesus orrek bezain ongi ezagutzera, etzuten, ez, gurutzerako, dio san Pablok: *si enim cognovissent, nunquam Dominum gloriae crucifixissent*. (1. Cor 2. 8.).

Jesusen gurutzeko neke tormentuak izandu ziran, zuk zerorrek dakusazun bezala, Jesusen tormentu ta nekerik andienak.

Ekusten dezu, Jesusen orduko neke-tormentu berak berritzen dituela gaizki komuniatzen den bekatariak; eta berritzen dituela judatar gogorak baño agitz obekiago Jesus ezagutu ezkerok; ta orregatik uzten dituela guztiz mingarriak Jesusen orduko neke-tormentu guziak.

Anitz da, bai, ta guztiz andia, Jesusen aldi onetako nekagirotan, zuk zerorrek ekusten dezun bezala; baña bada oraindik bekatariaren lan-giro makur onetan besterik ere.

Judatar gogorak etzuten gure Jesus gurutzeratu bein baizik: baña gaizki komuniatzen diranak bere gurutzeratzen dute Jesus bera bein baño geiagotan ere, ta gaizki komuniatzen diran aldiore.

Esku zikiñak! dio Tertulianok; esku autsi, edo ebaki bearrak, lan au bezain lan arrigarri bat, bein ta geiagotan gure Jesus onarekin egiten duten eskuak! *Prob scelus! Semel judaei manus Christo intulerunt: ipsi quotidie corpus ejus laccessunt. O manus praescindendae.* Lib. de Idol. c. 7.

2. Bada komunione gaistoko Jesusen gurutzeratze onetan geiago, ta geiago ere.

Gurutzera zuten gure Jesus judatar gogorak, begira zegozkala Jesus nekatu maitagarriari Jerusalemarrak, israeldarrak, erromatarrak, eta beste anitz alde-tako jendeak.

Orduan an Jesusi begira egondu ziran orietatik guzienak ezagutu zuten, andik anitz luzatu bage, Jesus, berak ari gaizki-naiez gurutzera zutela judatar gogorak; eta, Jesusez urrikaldurik, negarrez egondu ziran batzuek, eta beste anitz joan izandu ziran damuz beteak, eta beren bularrak galanki golpatzen zituzte-la.

Andik laster banatu zuten munduaren anitz bazterretan Jesusen Apostoluak, eta orien ondorengoak anitz geiagotan, judatar gogorren Jesus, onarekiko bidegabea, edo Jesus maitagarriaren obenik bageko gurutzeko eriotza; ta gerozko milla zazpieun ta geiago urtetan izandu dira millaka ta milloika Jesusen urrikaltiak, edo gure Jesusen orduko nekeakgatik negar ta negar egondu diranak, edo ongi damaturik bizitu diranak; eta berebat gertatuko da datozen denboretan, ta mundua mundu den artean, edo azken juizioko egunerañoko guzian: izain dira alabaña orduraño kristau onak, izain dira Kristo-Jesusen maitariak; eta kristau, edo kristio, Jesusen gurutzeko penaz agitz penaturik biziko diranak.

Baña berebat gertatzen ote zaio gure Jesus maitagarriari zure komunione gaistoko gurutzeratzearekin? Anitz ote dira dakitenak noiz zu gaizki komuniatzen zaran, ta noiz zuk berritzen dituzun zere komunione gaistoan gure Jesusen gurutzeko neke tormentuak? Eta anitz-anitz gure Jesusen neke-tormentuen berritze gogor orretaz damaturik, negar ta negar egon oi diranak?

Zer anitz? Ez noski, ta bat ere! Zu zere komunio-nean ekusten zaituztenak, usteko dute ongi komunio-

tzen zarala zu, ta zere Jaunaren grazia, ta adiskideta-suna zerekin dituzula; ta zu zerori ere artan egoin zara; ta, zere ustez leneko zere gaizki guzien damuz guztiz betea, ta gaizki berririk ez egiteko asmoan, orrelako asmorik zuk zere komunioneetan ez izan arren, zerorrek gero ekusiko dezun bezala,

Orrekin ez gañerakoak, eta ez zu, urrikaltzen zarazte gure Jesusen zure komunioneetako gurutzera-tzeaz, edo zuk zere komunione gaistoarekin egiten dezun Jesusen gurutzeko neke-tormentuen berrieraz.

Eta orra non ematen diozun zuk zere komunione gaistoarekin Jesus maitagarriari, arintzallerik bageko gurutzeratze bati eta lenbiziko bere gurutzeratze gogorraren berritze guztiz gogor bat.

Ai! nere Jesus maitagarria; ta zein guti oartzen diran era onetako zure gurutzeratze orretara, urtean bein, berandutik berandura, ta bere bekatuak utzi bage, komuniatzen diranak!

Nik ez dakit, nere Jesus maitagarria, norañokoa ote den zure beratasuna; baña badakit nik, bai, nai ta ez andia dela, ta bazterrik bagekoa; bada izanik zu, zaran bezalakoa, edo illen artetik bizturik atera ziñan ezkerro ezin zaitezkena, ta len bezala niork ezin-guru-tzean josi zaitzaken Jaungoiko-gizona, nekatzen zai-

tuzte zu, S. Bernardok dionaz, ta beren anima gaisto-ko gurutzeratzen zaituzte, gaizki komuniatzen diranak: *immortalem mortificant, incrucifibilem crucifigunt* (sup. rursus crucif.); gordean egiten dizute zuri au, gaizki komuniatzen diranak; ez da munduan damuz, ta urrikariz bada ere, laguntzen dizunik bat ere; ta alere isilik zaude zu gaizki komuniatzen denaren bular itsusi-zikin guztiz arrigarrian.

Era onetan gurutzeturik idukitzen zaituzten gaisto-etatik izandu ote naiz ni ere, nere Jesus maitagarria?—Beldur naz baietz, beintzat ni nere komunioneetatik nere gaizkletara, ta nere gaizkietatik nere komunione gaistoetara nenbillen denboran.

A zer egitekoak, eta zer lanak, orduko nere lan egiteko zikin-txar gogor-galgarriak! Ez al naz ni berriz, ez, zuen atzapar loidun-gogor orietarako!

3. Judatar gogorrak len, etsaitzar amurratu bat zuen eran iutzi zuten gurutzetua, edo gurutze batean iltze sendorrez guztiz josia gure Jesus maitagarria; baña gaizki komuniatzen den bekatariak bere gurutzeratzen du gure Jesus bera, adiskide lana dirudien iltxura oneko lanarekin, edo agur andi bat berak Jesusi egin ondoan, bere miian poliki artuz, ta bere biotz alderaño sarrerazten duela: ta badakizu zuk, agitz

damugarriagoa dela, etsai ezagun batena baño, adiskide saltzallearen txarkeria ta bidegabea.

Orregatik etzien gure Jesusek itzik erran izandu, gurutzean josirik ill-erazi zuten borreroei; baña agertu zion bere naigabea Judas galgarriari, adiskid-idurian onek, eta apatuz, Jesus bera saldu zuenean, esaten ziola: Adiskidea, ta zertara etorri zara zu onara? Judas, apaz ta musuz saltzen diezu zuk, eta beren eskuetaraten diezu bere etsai erreai, onako Jaungoiko-gizon, zere maisu au? *Amice, ad quid venisti...? Juda, osculo filium hominis tradis?* Luc. 22.

Zenbati, ta zenbati erran ote liezake, berak komuniatzen diran aldietan, gure Maisu zuzen Jesus maitagarri berak au berau, edo: atozea; ta onetara zatoz zu aldareko nere maira, ta zere komunionera? Apa, edo muñ-egite umil baten idurian ni saltzera zatoz zu; ta ni zuk saltzera zere naikunde lizunei, aragiaren zere atsegin loiei, zere eskuka, ta ezpainka zikinei, plazako ibillera nastuei, zuk dakizkitzun zere sartu-atera gais-toei, jan-edan beroei, ebaste galgarriei, itzketa baretsu, marmariazko, ta etsaiezkoari, edo bein ere bear bezala uzten ez dezun zere aztura gaistoari?– Ez dakizu zuk, nola bukatu zituen zorigaistozko bere egunak, lenbiziko nere saltzalle Judasek? Ez dakizu zuk, buka-

tu zituela ark oriek bere eskuz bure burua urkatu ondoan, eztanda egiten zuela, ta bere tripak lertuak utzirik? Eta era bereko zerbait zuri gertatzera?

Ori niri gertatzera, gertatuko zait, nere Jesus maitagarria, askotan, ta ongi nik irabazia dadukadan bukaera gaisto bat!

Ez arren, nere Jesus maitagarria, ez orrelakorik ez! Barkatu niri zuk oraindañoko nere zu-saltzeak, eta gurutzeratzeak, eta besterik izain da nere aitziaño komunioneeetan! Ni prestatuko naz, bai, datozen, nere komunioneeetara, oraindañokoan ez bezala, ta alik ongien-ongiena.

Gure Jesusen lengo gurutzeratzea, Jesusek berak nai zuela, gertaturikako gurutzeratzea zen; zen alabaña, ango bere eriotzarekin Aita eternoa palakatzeko, guri geren bekatuen barkamentua erdisteko, guri bere zerurako sar-bidea zabaltzeko, ta zeruko guzien atsegin ta kontentu andirako, ta gure guzien onerako: baña komunionee gaistoko Jesusen gurutzeratzea, on bat bageko gurutzeratzea da, bekatu utsezko gurutzeratzea da, ta Jesus onarentzat naigabebide gogor-izugarri bat, beste biderik ez dakarren gurutzeratzea da, ta, leneko gurutzeratzea baño, gurutzeratze agitz eta agitz gaistoagoa.

Ekusten dezu nola berritzen dituen, gaizki komuniatzen denak, Jesusen leneko neke-bide ta tormentu guziak? Ekusten dezu nola den, gaizki komuniatzen den bekataria, Jesusen lengo borrero gogorrek baño, borrero gogor-gaistoagoa?

Ekusten dezu zein latz, min, gogorra den gure Jesus onarentzat, eta gauza zein itsusi-arrigarria! bekatari beraren, gaizki egiñikako komunione bat?

Eta oraingo zure ekuste au ez ote da askiko, begitan zuk artzeko komunione gaizto bat bezain gauz itsusi arrigarria, ta era onetako komunioerako bidea ematen duten zure aztura makurrak, pasioeen asal-dazioak eta naikunde loiak?– Bai, nere Jesus maitagarria, bai, aski ta sobera da orietarako ori zuk nai izatea, nai dezun bezala. Nai dut ori nik; eta nai dut gaur bertatik, eta batere luzatu bage.

Baña oraindañokoan bezala, sulezekoak, mundu erokoak, eta nere buru galgarriak, itsu nazaten beldur andiarekin nago ni, nere Jesus maitagarria, zuk niri bortizki ez laguntzera! Lagun zakizkit, bada, emen bertatik, eta batere luzatu bage. Bai arren, bai!

D.

**Len ta gero aldareko
gure Sakramentuaren alde
gure Jaungoikoak egin duenak
adirazten du zein gauz
itsusi-arrigarria
den komunione gaistoa**

1. Gure Jesus aldarera baño agitz lenagotik, adirazia zedukan gure Jaungoiko maitagarriak zein kontuz, ta zenbat beldurrekin, urbildu beariko zuten komunio-neko maira, ongi komuniatu naiko zutenak.

Anitz aldetara egiña zedukan gure Jaungoikoak bere adirazte au, baño era onetako adirazte guzien artean guztiz ekustekoa da, bere Testamentuko Arka-ekin edo Kutxatxoarekin maiz aski egin oi zuen bat.

Arka, edo Kutxa onetan arkitzen zen mana zati bat, len guk ekusi dugun bezala; ta orregatik zen Testamentuko Kutxa edo Arka au gure Jesusen aldareko Sakramentuaren itzala, aintzura; edo imajina; ta, zeren zen gure Sakramentu andi onen Imajina, aintzura, ta itzal bat bezala, eman bear zioten israeldarrrak, beren Jaunaren manuz, ekusi dezun traturik onena: ta

an eman etziotenak, ekusi zuten beren gain guztiz gogor-pisua beren Jaunaren eskua.

Testamentuko Kutx au eragin zuen Moisesek, bere Jaunaren manuz; ta eragin zuen, bere israeldarrekin Ejiptotik atera ondoan; ta berekin eraman zuten israeldarrak, gerozko bide guzian, edo, egin zen tokitik asi, ta beren Jaunak, ongi naiez, berezi ziezten promisioneko bazter onetarañokoan.

Baña nola uste dezu, eramain oi zutela?– Orduko apezzen, edo sazerdote Jaunen sorbaldan, edo soñean; ta israeldar berak bi milla besoz, Kutx au zegoen tokira urbiltzen etzirala: etzuen gure goiko andiak nai, alderagotik begira zezoten israeldarrak Testamentuko Arka, edo Kutx oni: *sitque inter vos et Arcam spatium cubitorum duorum millium*. Josue 3. 4.

Zergatik, uste dezu?– Zor zitzaion begitarte ta errespetu andiagatik, dio Lirak, *propter reverentiam arcae*. Ibid.

Bere tokian, edo bere elizan arkitzen zenean Arka txiki, edo Testamentuko Kutx au, kortinez ongi gorde-rik arkitzen zen, Kerubin bik zaitzen zutela zegoen, ta iñork ezin ekus zezaken eran; ta, Apez-nagusia, edo orduko Aita Santua baizik, ezin sar ziteken, ura arkitzen zen lekura; ta an ere ez, guztiz bakan ta ezinbes-

tez bezala baizik.- Eta nonnai arki zedilla Testamentuko Arka, edo kutxa txiki au, ezin ekusi zuen bere aldean, ongi etzegokan gauzarik batere. Eta laur gauza orietatik edozeinetan uts egin zutenak, ekusi zituzten beren gain gauz arrigarriak. Adizazu orain uts bakoitzari dagokan bat.

Israeldarren etsai artean egondu zen zenbait illa-betez Testamentuko Arka, edo Kutx au. Andik itzul ondoan, arkitzen zen Abinabad zeritzan eliz-gizon on baten etxean, ta, toki obean iduki naiez, zegokan erako eliz bat Jerusalemenean egin artean, joan zen Dabid Testamentuko Arka onen eske, ogeita hamar mila israeldar, ta bear ziran Lebita guziak berekin zituela.

Apez-Lebitak artzen dute, zegoen tokitik Testamentuko Arka edo Kutx au, baña ez beren soñez eramateko, eraman bear zuten bezala; ta ezartzen dute gurdi berri batean, idiz an eramateko.- Asaldatzen dira laster idiak; iraultzen asitzen da gurdi bera; ta, Arka soñean eraman lekuan, itzai egiñik zegoen Oza Lebitak, luzatzen du bere besoa; ta, erori etzedin, egiten du Arkari itsastera.

Baña aserreturik egon orduko gure Jaungoiko maitagarria Lebit onen orduko utsagatik, eta zentzarazi naiez gañerako Lebitak, eta ikas zezaten orien ondo-

ren etortzeko zeuden guziak, an bertan ark bere eskuz Arka ukitzean, uzten du illotza Lebita bera, ta uzten ditu Dabid Errege, ta Dabidekin arkitzen ziran guziak ongi ikaratuak. (2. Reg. 6.) Orra Ozarena; ta orra gauza bat agitz arrigarria!

Gañerako irurak, gauz arrigarri au baño len gertatuak dira. Orietatik bata agitua, edo gertatua da, Testamentuko kutx au bere Jaunaren manuz eragin zuen, Moises oraindik bizi zela; ta geroz gertatuak bertze biak.

Moisesen denboran Moises beraren anai Aaron zen Aita Santu. Ori ezin eramanez zebiltzen Kore, ta beste bi gizon. Bildu ziran orien alde bertze berreun ta berrogeita amar israeldar.- Berreun ta berrogeita amarrak egin nai dute Testamentuko Arkaren Aldarean, Aaronek egiten duena: baña, orretarako prestatzen ari dirala beren inzensariak, lenago zegoen bertze Aldare bateko suarekin, gelditzen dira illak, Aldare beretik atera zen, edo Jaunak bidaldu, edo tiratu zien suarekin.- Denbora berean, urratzen zaio bere oinpeko lurra, ta erortzen da infernuraño Kore; ta berebat gertatu zeken Datani, ta Abiron, Kore beraren, lagun gaistoei. Eta berreun ta berrogeita amarren ausardia- ren, ta bukaera gaistoaren berriak iraun zezan, ondo-

rengoak izutzeko, agindu, edo manatu zuen Jaungoiko berak, orien inzensariak, plantx egiñik, josi zitzatela Testamentuko Arkaren Aldare berarekin. (*Alapide in num. 16.*)- Orra beste gauza bat, lenekoa baño ere arrigarriagoa.

2. Jakin zutenean israeldarrak itzuli ziela beren etsaiak, arrapaturik eraman izandu zien beren Kutxa edo Testamentuko Ark au, bildu izandu ziran anitz, ura ekustera; eta, zeren geiegi urbildu ziran Testamentuko Arkagana, ta zeren andik arinki begiratu zioten, bertan illak gelditu ziran irur-ogeita amar ango zaldu-netatik, eta gañerakoetatik berrogeita amar millara-ño. (*1. Reg. 6.*)

Ekusten dezu zein gauz arrigarria, gure Jaunaren aldi onetako kastigu au?- Israeldarrei Ark au arrapatu zien etsaiak filisteoak ziran. Eraman zuten oriek beren Kutxa, edo Ark arrapatua, Dagon zeritzan beren Jaungoiko, edo idolo zikin baten elizara, ta utzi zuten an Testamentuko Ark au Dagonen ondoan; ta joan ziran gero berak beren etxeetara.- Badoaz bigaramunean beren elizara; ta arkitzen dute Testamentuko Ark au, an berak bezperatik iutzi zuten tokian; ta beren idolo Dagon Ark onen oñetan, ta lurrera eroria.

Goraturik, ezartzen dute bere lekuan beren ido-lo Dagon, ta badoaz berriz beren etxeetara urrengo goizeraño.- Urrengo goizean ere arkitzen dute Dagon, len bezala eroria, ta len ere baño agitz gaizkiago; bada autsiak, eta eroriak zeduzkan Dagonen bere bi eskuak, baita bere burua ere; ta bere buru-eskuak zeduzkan, bera zetzan tokitik agitz urrundua.

Arritzen dira, gauz au ekustean, ekusten duten filisteo guziak. Eta andik oriek beren begiak kendu orduko, ekusten dituzte berriro berak arritzeko guztiz onak ziran beste gauzak ere; bada ekusten dituzte beren zelai-alorrak sagu galgarriz guztiz beteak; eta beren gorputzak eritasun agitz zikiñez, ta min-oñaze izugarriz erdi lertuak.

Ezagutzen dute nondik zuten beren neke andi, ta kalte izugarri au. Ateratzen dute Dagonen elizatik gure Jaungoikoaren Testamentuko Arka; ta badaramate erriz erri; baña erri guzietan egiten du gure Jaungoiko altsuak kastigu berbera. Iltzen dira, ezin konta aladiña, bazter guzietako erietatik; eta ez dira sendatzen gañerakoak, beren gaizki egiñaz damaturik, eta ondasunez beterik Testamentuko Arka bere lekura, edo israeldarren artera itzuli artean. (1. Reg. 5.)

Ekusten dezu zein gauz arrigarria filisteoei Testamentuko Arkarekin gertatua? Zergatik au onela?– Zeren sartu zuten gure Jaungoikoaren Testamentuko Ark au beren idolo txar bat zedukaten elizan.

Orrenbat aserretzen du gure Jaungoikoa idolo txar batek? Denagatik ote, edo adirazten duenagatik?– Biakgatik; baña ez noski gutiena adirazten duenagatik.

Zer adirazten ote du filisteoen idolo txar Dagon orrek.– Komunione gaistoan Jesusi egiten zaion gaisteria.

Zer gaistakeri ote da, komunione gaistoko gaisteria?– Testamentuko Arka bizi aldareko Sakramentu, ta Sakramentuko Mana gure Jaungoiko-gizona idolo baten bazterrean, edo anitz idoloren, edo bekatu larriren artean ezartzea. Ori da, gaizki komuniatzen denak gure Jaungoikoari egiten dion lan gaistoa; ta lan, filisteotzarrak Azoton (au zen filisteoen erriaren izena) egin zuten beren lanarekin adirazten zaikuna; ta filisteoen orduko lan ura baño lan agitz eta agitz gaistoa: bada idoloa bekatuaren aintzura, edo imajina da; ta aldareko Sakramentuaren aintzura, edo imajina Testamentuko Arka; ta aintzura edo imajina, imajinaren alderatzea baño geiago da gauza gauzaren alde-

ratzea; ta, alderatze au alderatze gaistoa bada, agitz eta agitz gaistoagoa.

Gure Jaungoikoak ez du ematen bein ere, gure gauza gaistoak eskatzen duen kastigua baño kastigu andiagorik. Bada izanik, ikusi dugun bezain arrigarria, filisteoei aldi onetan eman ziena, zeren eraman zuten Dagonen aldera Jaungoiko beraren Testamentuko Kutxa, andia zen nonbait orretan oriek egin izandu zuten bekatua.- Eta baldin bekatu ori bazen, zen bezala, komunione gaisto baten itzala, edo aintzura ta imajina zein gauz arrigarri-itsusia izain ote da komunione gaiztoa? Ekusten dezu.

3. Itsustasun arrigarri au bera agertzen digute, lenago ekusi ditugun bertze irur kastiguak ere. Ozak, erori zedin beldurrez, urbildu zion eskua gure Jaungoikoaren Testamentuko Arkari; ta gaizki komuniatzen denak, artzen du bere miian Jesusen aldareko Sakramentua, bular zikin, bekatuz loitu batera aurtikitzeke edo botatzeko. Ekusten dezu, zenbat doan Ozaren lanetik komunione gaistoko beste lan onetara, ta, Ozarena baño zein gaistoagoa den gaizki komuniatzen denaren langiro galgarri au!

Korek nai zukean Aronen lekua, Testamentuko Arkari zegozkan gauzak egiteko; beraren eun ta berro-

geita amar lagunak inzensoz eman nai izandu zioten Testamentuko Arkari edo Kutxari, berak orretarakoak etzirala; ta orregatik ekusi zuten, guk araistian ekusi dugun lan arrigarria.

Eta atozea, gaizki komuniatzen denak sartzen ez du gure Jesusek Kutx, edo Ark eder aldareko Sakramentua bekatuen kez, ta kez beterik dadukan bere barrenean, usai gaistoz ta kez an ura ito naiez bezala?- Bada zer du zer ekusi komuniatzalle gaistoaren lan onekin, len Korek, eta Koren lagunak egin nai izandu zutena?- Beren lan gaistoa egiteko gogoagatik oriek bizirik erreak. Zer da, bada, zuri zere komunione zikiñagatik dagokizuna?

Berrogeita amar milla bethsametar, ta geiago illak, Testamentu zarreko Kutxari begiratze bategatik?- Bai egiazki!- Bada zer da, zor zaiona, begiratze lizunak, itzketa ez-garbiak, eskuka loiak, eta gauza makur zikiñak egin ondoan, Testamentu berriko Sakramentua begi gorriz ekusten, ta, garbitu bageko bere bularrean sartzen dutenari?- Ez da erraz, ez, ori zuk erdizka ere ezagutzea!

Bekatutik komuniora, ta komuniora bekatuetara zabiltsan bekatari gaistoa: anitz komunio egin ondoan, lenbizian baño gaizkiago arkitzen zarana, ta,

ondunai ziñezkorik bage komuniatzen zaran, galdu zere galgarria, besterik zuri iduriagatik, zu komuniote-giratzen zaranean, aratzen baliz lau oñekorik isusi zikin-loi galduena, ta galdegiteko bazenio Jesusi, nora naiago duen, orren sabel itsusira, edo zurera, Jesusek erantzutera, errain likezu, milletan ta milletan zurera baño, gogozago sartuko lizakela laur-oñekoarenera. Ekusizazu zer ekustekoa, era orretan zuk egiten dezun komunioea!

Gerozko kastiguak

1. Testamentu berriko Legean ere anitz aldetara adirazi du gure Jesus maitagarriak zenbat bere naigaberekin sartzen den, gaizki bizi diranen bularrera bere komunioean oriek an sarrerazten duenean.

Bildekindo zeritzan, Sajoniako duke bat sartu zen bein, anitz komuniatzen ziran eliza batera. Ekusi zuen an komunioeko ostian, aur eder baten aintzuran, edo idurian, gure Jesus maitagarria; ta ekusi zuen, sartzen zela atsegin-poz andiarekin zenbaiten aoan (oriek ziran gure Jaunaren grazian, ta ongi prestaturik komuniatzen ziranak); baño Apezak zeramanean bertze

zenbaiten ezpañetara, ekusi zuen, ikaratzen zela Jesus aurtxo, ta bere esku-oñekin, bere begiekin ta gorpuztxo guziarekin erakusten zuela ara ez-nai andi guztizko bat. Oriek ziran beren ustez, ongi prestatuak egonagatik, konfesatu baziran ere, ondu etziran bekatariak. (*Apud Daurout v. Euch. tit. 2. ex 5.*)

Gizon gaisto bat urbildu zen bein, Siro Milango Obispoaren eskutik bere komunionea artzera; ta artu ere zuen. Baña zenbat bere aserrerekin an sartzen zen Jesusek adirazteko, gelditzen zaio ostia aoarene erdi-erdian, aoko gauzarik ukitzen ez duela; ta gizon bera gelditu zen bere aoa ezin bilduz, oñazez zena betea, ta bazterrak erroz urratzen zituela. (*Ibid. tit. 11.*)

Sartu zen ostia konsagratua barrenaiseago Pazkoz, bein beste gizon gaisto bat komuniatu zenean; baña sartu zen artzallearen kalte arrigarrirako: bada an bertatik galdu zuen bere iduria; iduri itsusira zen andik laster; eritu zen geroiseago; ta eritu zen, ez sendatzeko.- Erran zioten oni, au ala ekusi zutenak, ar zitzala lenbaitlen Elizakoak; eta ezetz erantzun izandu zuen.- Zergatik, uste dezu?- Zeren berak zionaz, bere eztarrian zedukan oraindik, eta bere oñaze andiekin, azken komunioneke ostia.

Erakutsi ziotela (esan zuen gero) sulezean, eternidade guzira berezi zioten, bere nekatokia; ta bere nekatoki onetan egon bearra zela erretzen ta erretzen beti, an arkitzen zen, beraren lagun gaisto baten bazterrean.

Au ark esatean, kendu zuen bere eskuz urbiltzen zioten gurutze Santu bat, eta illik gelditu zen, an bertan, ta beti-betiko galdua. (*Sylva hist. tom. 2. lib. 8. cap. 2. tit 10. ex 8.*)

Emekiago bazen ere, adirazi zion Jesusek bere aser-era, gaizki komuniatu zen beste gizon gazte bati ere. Filipinak erraten zaien isla, edo bazter batzuetakoa zen gizon gazte au.- Gizon gazte au zebillen, beraren adiñetako anitz, eta anitz bezala, komunio-neetatik arinkerietara, ta aztura gaistoetara, ta andik komunionera, gogoak itsuturik beti, ta bein ere, bere konfesionetan bear bezalako asmorik artzen etzuela.- Zentzarazi naiez au gure Jesus maitagarriak, komuniatu zen batean, osti konsagratua aren barrenera zeneko, eman izandu zion sabel min arrigarrizko batek.- Bere min onekin bidaltzen du Jesusek gizatxar au: ta zikinkeriz beterik arkitzen zen bertako zoko batera zeneko, asi zen eztulka ta bere sabelekoekin batean, bota zuen an ostia Santa; ta au ark an bota-

tzean kendu zitzaion sabeleko bere min guzia; ta an ari gertatu onekin adirazi zuen gure Jesus maitagarriak, gaizki bizi denaren sabelean baño, naiago duela egon zokorik loienean ere. (*In Ann. Soc.*)

Au berau adirazi zuen, baña gogokiago, ta san Ziprianok dion eran, gaizki komuniatu zen emakume, edo emazteki bati gertatuarekin. Oni gertatu zekion, Judasi gertaturikakoa.- Judasi sartu zitzaion Jesusen bokaduaren ondoren sulezekoa; *post bucellam introvit in eo Satanas* (Joan. 13. 27.): baita emazteki oni ere bere komunionea artu zueneko- Judasekin egin zuen gero sulezeko etsaiak, len guk adirazirik dadukaguna; ta gaizki komuniatu zen, emazteki onekin, Santuak berak diona.- Sutu zuen andre gaisto au: ta sutu zuen ezin geiagoraño sulezeko amurratuak; eta bere ortze-kin zatik erazi zion andre berari bere miia; zeren ark au gaizki luzatu zuen, bere Jaun andia komunione gaistoan artzeko; ta, bere milla neke ta oñazeren artean, ta bere erraiak eta bere barren guzia igartzen zekiozkala, ill zen gaisoa, zakur amurratu baten eran. (*Serm. 5. de laps.*)

2. Noizean bein egin izandu ditu gure Jaungoiko maitagarriak era onetako gauzaren batzuek. Txikiak dirudite oraingo andienak ere Lege zarreko arrigarrien

aldean; baña orduko andiak, bezain ederki adirazten dute komunione gaistoren itsustasun arrigarria, ta orrek gure Jesus maitagarriari ematen dion aserre-bidea: gogorra zen alabaña orduko Legea, ta amoriozkoa da guk duguna; ta, gure Lege onetan egiten diran utsak, ez daramate emen leneko utsak adiña neke ta kastigu: beste mundurako daduzka gure Jaungoikoak oriei dagozten kastigu andiak; eta, nai ta ez, izan bear dute oriek guztiz andi arrigarriak: zeren erregeei egiten zaizten gaizkiak diran, gaizkirik andienak, eta Erregerik andienari egiten zaizkanak agitz andiagoak; eta gaizki komuniatzen denak egiten dio guztiz andi bat, erregeen Errege, Jesus maitagarriari, bada loitzen diozka, zikintzen diozka, ta oinperatzen diozka bere gorputz-odolak.

Bai, dio san Pablok, era orretan komuniatzen den bekatariak, bere gain ditu gure Jesusen gorputza, ta beraren odol guzi-guzia: *reus erit Corporis, et Sanguinis Domini* (1. Cor. 11. 27); baita bere kondenazioko sententzia ere, bere utsak berak emen garai onez ez ateratzera: *qui enim manducat, et bibit indigne, iudicium sibi manducat, et bibit.* (v. 29.)

Eta atera ote ditu bere komunione gaistoko utsak, gaizki komuniatzen den bekatari tzarrak?- Atera ditza-

ke beintzat, dio san Lorenzo Justinianok; baña, edozein beste bere uts baño agitz nekezago.- Zergatik uste dezu?- Zeren gañerako bekatari beraren utsak, eta oben-kulpak baño agitz geiago gogortzen duten bekataria bere komunione gaistoko utsak, eta bide nabar uzten duen agitz nagiago gauz onetarako, ta bere egoera galgarritik jaikitzeke, edo ateratzeko; *sumentes indigne pertinaciones in malo, et ad emendationem vitae sunt tardiores.* (Sem. de Euch.)

Bada orretarako, bai, besterik ere. Gaizki komuniatzen denak, bere izurri edo bere pozo egiten du janaririk onena, Judas gaistoak egin zuen bezala, san Agustinek dionaz: *bucella Dominica venenum fuit Judae.*

Eta nork sendatuko du, bekatuaren izurria kentzeko, ta sekulako bizitza emateko den janari, ta sendagai onetatik (alakoa da, gure Jaungoikoaren Martire andi san Ignaziok dionaz aldareko Sakramentua *pharmacum immortalitatis*) bere izurria, ta pozo gaistoa ateratzen duen, bekataria? Edo nola sendatuko du medikuak eri bat, eriak josten badu gurutze batean bere medikua, gaizki komuniatzen denak josten duen bezala bere sendatzalle andi Mediku on, gure Jesus maitagarria?- Gertatzen dena da, gaistoa denean,

komuniatzalle eriazen, edo bekatariaren komunionea, sendatu bearrean au, errazago galtzea: *remedium nostrum fit Diaboli triumphus.* - Orregatik dio san Basi-liok, gaitz guzien artean ez dela komunione gaistoa-ren aldera diteken gaitzik: *hoc solum inter omnia malum nihil habet, cui possit comparari.*

Ekusten dezu zein itsusi arrigarria den bekatari galgarrien komunione gaistoak? Ez diote ori, edo ez digute guri au adirazten (ta itzik atera gabe) gure Jau-naren lenagoko kastiguak? Ez diote ori bera gerozko-ak ere: baita Apostoluak eta Santuak ere?

Begira, bada, nola zoazen zu, komuniatzen zara-netan! Begira, ez dezazula sartu zuk zere erraietan zere Jaunarekin batean, sakrilejio baten ezpata; bada au sartzen dute, dio san Juan Krisostomok, gaizki komuniatzen diranak: *acutum sibi ensem in praecordia condunt.*

Begira; ez dezazula zuk zerrorek galdu (ta zuk zerrorek nai dezula) zere anima ezpata zorroz, ta izurri, edo pozoilgarri. Eroen lana da edo burutik irauziarena, era orretako langiro txar ori, zuk zerrorek ekusiko dezun bezala? ta ekusiko dezu eternidadeko damu arrigarriarekin komunione gaistoarekin galtzera

zuk zere anima. Begira, bada, begira, nola zabiltzan zu, ta ongi begira!

Et ego coinquinabar in medio eorum.

Ezech. 22. 26.

Ona, erraten zion bein gure Jaungoikoak Ezekiel profetari: ona; egin dira nere israeldarrak, zillarrak sutan garbitzean, uzten duen erdoia, edo zikinkeria bezala. Loituak arkitzen dira, ta guztiz galduak orien biotzak; eta ni nerau ere, zeren arkitzen nazan orien artean, utzi naute gaur, loituaren eran, ta zikindua dirudidala.

Zer da, bada, nik orain dagikedana? Ez dut arkitzen nik gaur, ni palaka nazaken gizonik bat ere; ta nere aserrearen sua prest-prest arkitzen da oriek guziak bertan erretzeko; ta beti ta betirako galduak uzteko.- Orra gure Jaunaren aldi artako izketa ta mintzoera.

Eta, gaur Jesusek bere aldareko Sakramentutik itz egitera, zer itzketa aditu uste zenuke? Era berekoa?- Anitzen gain, beldur naz baietz.

Atozea ezperen, ta nola bizi oi dira mundu onetan komuniatzen diran, jenderik geienak, edo beintzat anitz, eta anitz? Zillar garbi ederra bezala? Bekatuen erdoirik, edo zikinkeririk bage, ta birtute ederki beteak?- Ala bear lukee, baña ez dirala ala bizi, ez anitz eta asko beintzat. Ala bizi bearrean oriek guziok, bizi oi dira beren bekatu loiez zikinduak, eta aztura gaistoz guztiz beteak.- Eta oriek komuniatzen dirane-tan, ta orien bularretaratzen denean gure Jesus maita-garria nola arkitzen dela uste dezu zuk, edo zer asmo-rekin?

Nola, nai dezu zuk arki dedin or gure Jesus sakra-mentatua?- Orien zikinkeriz ingurutua, ta bere naiga-be-bidez gaizki betea; ta denbora berean bere eskuak lotuak daduzkala, komuniatzen den bekatariari zen-bait on, edo ongi egiteko: ta bere esku beretan bate-re lokarririk bage, bekatari beraren obenak eskatzen doten kastigu guziak berari emateko.

Ematen badiozka beraren komunione gaisto utsa-ri zor zaizkanak?- Galdu-galdua gaisoa eternidade guzirako, ta sutan beti-beti erretzen egon bearra!

Kastiguaren arrigarria!- Bai; baña komunione gaisto bati ederki dagokana!

Ekusi zazu, zein itsusia, zein beltz izugarria bekatariaren komunione gaistoa!

*Super dorsum meum fabricaverunt peccatores:
prolongaverunt iniquitatem suam.*

Psalm. 128. 3.

Gaistoak gaisto dira beti, bekatuz bekatu dabil-tzan denboran; baña gaisto berak, beren bekatuak ongi konfesatu bage, edo beren bekatu zarrak konfe-satu arren, au oriek egiten badute, bekatu berririk ez egiteko asmo on bat artzen ez dutela; ta artzen badu-te gero gure Jesus maitagarria beren komunionean, berritzen dituzte gure Jesusen nekeak, sendortzen dituzte beren bekatu zarrak, eta egiten dute azke-nean, leneko beren gauza gaistoak baño gaisto zikin-itsusi izugarriago den gauza bat.- A zer lana zure lan zikin galgarri au, era onetan komuniatzen zaran anima!

Etziran aski ta sobera len zuk, leneko zere beka-tuekin Jesusi arrerazi zeniozkan neke izugarriak? Zere bekatuak orain zuk berritzearekin berritu nai diozka-tzu zere Jesus maitagarriari leneko bere neke guziak,

eta eman nai diozkatzu orain zuk zere Jesus berari neka-bide berri gogorrak; eta neka-bide, komunione gaistoarenak bezain arrigarriak?

Agitz gaizki nai diozu nonbait zuk zere Jesus maitagarriari! Zergatik ote? Zeren geiegi nai dizun zuri zere Jesusek berak? Zeren bere ontart andiz, ta zeruko bere graziaz beterik utzi nai zinduzken zu zere Jesus maitagarriak? Eta zeren orretarako, ta alderagotik zu maitatu naiez, sartzen zaitzun zuri Jesus bera zere barreneraño? Ez dizu Jesusek beste gaitzik egin beintzat oraindaño. Ez da ala?– Ala da, bai, nere Jesus maitagarria, ala da: ta nere alke andiarekin badere, aitortzen dut nik gaur nere egi au! Eta, berriz nere alke-bide berririk izan ez dezadan, gaurdanik artuko dut nik beste biderik. Nik gaurdanik zuzenduko ditut oraindaño nere komunione makur galgarriak, eta gaurgero nik komuniatu uste dut zure nekeak berriz berritu gabe; ta zuri atsegin egiñen dizudan eran. Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria. Bai arren, bai!

Filius hominis tradetur, ut crucifigatur.

Matth. 26. 2.

Gaizki arkitzen zen gure Jesus maitagarria bere etsaien atzaparretan, etsai oriek bera bere gurutzean josirik zedukatenean.

Baña obeki arkitzen ote da gaur, gaizki komuniatzen denaren bularrean? Ez dadukate gure Jesus bera emen ere beren atzaparretan, gaizki komuniatzen denaren pasione sutuak, aztura gaistoak, bekatu zikiñak, adimentu illunak, biotz gogorak, eta anima galduak?– Emen ez diote, ez odolik isur-erazten gure Jesus maitagarriari; baña ezin dagike emen, gure Jesus maitagarriak, era onetan dadukanaren alde onik batere; ta ezin adiraz-al adiña on egin izandu zuen guru Jesusek, leneko bere odol-isurtzearekin; ta beste onenbeste on guri egiteagatik, eta bere burua ez ekusteagatik, ekusten duen eran, bere burua ekusten duenean gaizki komuniatzen denaren atzaparretan, pozik isuriko luke berriz, ta berriz ere, gure Jesus maitagarriak len isuri zuen, ta orain beregan edo bere baitan dadukan odol guzia; ain andia da gure Jesusi guk zor diogun amorea.

Gaizki komuniatzen denaren zentzugabea, ta eskerik ez duena! Onenbat amorerekin beragana Jesus; ta bera Jesusen borrero egiñik, eta bere barre-

nean Jesus bera gurutze gaistoa josiaren eran uzten duela!

Orretarako dira zure komunioneak, gazte gaistoa, zartzen asia, zarra, edo zarana? Begira, nola zoazen, ta begira zertara, zu aratzen zaran aldietan, edo zere komunioneetan.

*Fiat mensa eorum coram ipsis in taqueum,
et in retributiones, et in scandulum.*

Psalm. 68. 23.

Gaizki komuniatzen diranak dira, Troglodita gogorren erako jendeak; troglodita gogorrak, beren guraso bat, edo erregea illik ekusi orduko, ingurutzen zuten elorritz ta arantzez, ta ematen zioten arrika ta arrika: ta gaizki komuniatzen denak, sartzen du bere barreanean Jesusen aldareko Sakramentua, ta ingurutzen du bere Aita ta Errege Jesus maitagarria bekatuen arantzez, ta aztura gaistoen elorritz; ta, an ark ura dadukan artean, egiten duen guzia, da istaka bezala, ta bere gogoz edo asmo galduz arrikan Jesusi ematea.

Trogloditen erregeak edo gurasoak zer egiñen ote lukee, zerbait egin al balezate, arrikan ematen dien

beren umeekin, edo erritarrekin.- Beren atzaparretan oriek edo zerbait orrelako. Ori lizake beintzat orien orduko lan gaistoari ederki legokan kastigua.

Eta bizirik dagoen gure Jesus maitagarriak zer egi-ten ote dio, gaizki komuniatzen den bekataritari?- Emen bertan eman batzuetan kastigu arrigarriren bat; eta azkenean bere bekatuaren sokaz urkatu sulezean, ta an iutzi eternidade guziko neke-tormentuetan, denboraz urrikiturik, ez erdiste ta komuniatzalle gaistoak bere Jaunaren barkamentua.

Ekusten dezu? Eta komuniatzen ote zara zu, Trogloditen eran, ta zentzurik bage, edo guztiz guri begiratzen dezula nola zauden zu, ta nora daramazun komuniatzen zaran aldietan zere Jaungoiko-gizon sakramentatua?

Idiki zatzu zere begiak, oraindañoko zere komunioneak zuk ongi ekusteko. Egizu zuk, erdisteagatik zere komunione orietako utsen barkamentua: baita zere alegiña ere, uts berririk berriz ez egiteko.

Orretan nago ni, bai, nere Jesus maitagarria; ta lenago au ez egiñaz, ta egin ditudan bekatu guzien damuz beterik arkitzen naz ni gaur; ta orregatik diot orain, al dudan zin guziarekin, ta biotz osoz: *Nere Jesukristo, etc.*

LXXXVI.garren OTOITZ-GAIA

KOMUNIATU ONDORAKO

Komuniatu ondoan arkitzen dira anitz komuniatzaile, orduan Jesusi zer erran ez dakitela: nekatzen dira laster mututurik elizan egotez, ta andik ateratzen dira, anitz luzatu bage, ta gure Jesus maitagarria bere itzarekin an, Jesusek adirazi nai lieken gauzarik aditzen ez dutela.

Ez diote oriek onenbat txarkeri egiñen beren Jesus maitagarriari, guk oraindañoko otoizgaietan ekusi ditugun gauzetatik bat, edo beste, aldi orietan oriek beren gogoratzera. Eta, izan dezaten geiago ta geiago zertan egon beren ordu ezinobe orietan, ukituz bezala, orain ekusi bear ditugu beste zenbait otoitzgai labur, ta eskerbide zuzen, ta zeruko ondasundun ere, ar ditzatzun zuk, aldian nai dituzunak, edo geienik zuri orretan laguntzen dizutenak.

**Ongi komuniatu denaren
lenbiziko esker-bidea**

Esker-bide au artzen da Jesusek gizon egitean, ta denbora berean onen Amak egin zutenetik.

Zer egin ote zuen gure Jesus maitagarriak, bera gizon egin zenean?- Bere Birjin-Amaren baitan artu egontokia; ta, zeren toki au eman zion bere Ama birjinak, bere Ama birjina utzi ondasunez, graziaz, ta zeruko doaiez guztiz betea.

Nola etorri ote zen gure Jesus maitagarria bere Amaren baitara?- Amak berak nai zuela.- Eta zer egin ote zuen orretarako gure Jesusen Amak, eta zer gero bere Seme Jesus bere baitan zedukan denboran?- Artu izandu zuen umiltasun ezinobearekin bere Jesus, ta egondu zen Jesus berarekin esker utsez, ta amorez ongi betea.

Aingeru batek erran zionean Jesusen Ama maitagarriari, aren baitan gizon egiteko zegoela Trinitateko bigarren Persona, arritu bezala zen, zen guzia, ta gelditu zen, zer gertatzen zaion ez dakien baten eran; ta azkenean Aingeruari erantzun ziona zen: ni naz nere Jaunaren serbitzaririk ezer-ezena; ni ez naz orrenbat ontarterako diña; baña ori nere Jaunak niri egin nai didan ezkerro, egin dezala berak ongi deritzana: *ecce ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum.* Luc 1. 38.

Ontart andi, edo bere Jaunaren fabore au artuagatik, etzen arrotu, ez, gure Jesusen Ama maitagarria; ta bere Jaungoikoa bere baitan gizon egiñik ekusi zue-nean, errain zuen gero, era berean zegoela arkitzen zenean, S. Isabelen etxean erran izandu zuena: ezer-eza, ta umiltasuna da nere Jaungoikoak nere baitan ekusi izandu duena; ta, zein ona, zein eskuduna edo altsua, ta zein ongillea den, agertu naiez, egin ditu gaur berak nerekin, Jaungoiko berak baizik ezin adirazi ditzakeen ongiak; gauz andiak, eta ontarteak, edo zeruko faboreak. Bere serbitzari umill beldurtientzat ditu gure Jaungoiko maitagarriak bere ondasunak.

Gutziz urrikaltia da gure Jaungoiko bera; ta ongi egitez ez da nekatzen bein ere: argatik ark niri egiñak dira, nik beragandik artuak daduzkadan ontart andiak. Orien alde gaurdanik nik egin dezakedana, ta egin uste dudana da, emen ni bizitzen nazan denboran, ta gero eternidade guzi-guzian nere Jaun, orien beren emalle maitagarriari, esker onak esker bero garbien gain itzez, gozoz, ta biotzez nik ematea: *Magnificat anima mea Dominum*. Ibid. v. 46.

Ikusten dezu, gure Jesus maitagarriak bere Amarekin, ta Ama maitagarri berak Jesus berarekin egiten dutena, Jesus maitagarria bere Amaganatzen

denean?- Orra, bada zu komuniatzen zaran aldian, zuk artu dezakezun lenbiziko eskerbide zuzen garbi-ondasunduna. Au zuk artzera, esan dezakezu zuk Jesusen Amaren eran, al dezuna; eta besterik ezpada-kizu, emen arkitzen dezun au: Ona nik nere barren onetan gaur, Ama Birjinak bere baitan len gizon eginik iduki izandu zuen nere Jaungoiko-gizon berbera!- Ama Birjina zen, gure Jaunaren eskuetatik atera den gauzarik ederrena, andrerik birtutetsuena, ta Jaun beraren maitaririk andiena; ta ala ere arriturik zedukan Birjin Ama andre eder-birtutetsu-maitari au Jaungoiko-gizonaren bere baitako arkitzeak.- Bazterrik bageko gure Jaun au bera ote da, ni komuniatzen nazan aldietan nere baitan, edo nere bularrean arkitzen den Jaun andi maitagarria?- Bai bada, au berbera.

Eta zer ote naz ni nera Jaun andi onen begietan?- Eta zer Jesusen Amaren ondoan?- Ar txar ustel-zikin bat adiña, edo ar txar bat zeruko eguzkiaren aldean baño, milletan ta ezin konta-al adiñetan txarragoa, ta txarragoa.- Eta alere ez naz ni ill-arritua gelditzen nere Jaun on andi maitagarri au nik, era onetako nere tokian ekusten dudan aldian?- Nola sartu izandu ote da nere bular onetaraño nere Jaun andi bazterrik

bageko au?– Nik neronek bera billatuz, ta bera nik emen bertan sarrerazten dudala.

Ausardiaren andia! Era onetako Jaun bat sar-erazi nik nere barrenera; ta nere barren au nik obeki pres-tatu bage! Barka zadazu arren, nere Jesus maitagarria, oraindañoko nere zentzagabekeria. Besterik izain da datozen aldietan, zuk zerorrek artan niri laguntzen didazula.

Baña zertara etorri ote da nere baitara, gure Jesus maitagarria?– Bere ondasunez ni, bere graziaz, ta zeruko bere doaiez ni beterik uztera, ta bere Ama maitagarria bezala, birtutez birtute ibilli nadin ni nere ill artean, niri laguntzera.

Eta, au guzia dakidan ezkeron nik, orain dakidan bezala, ez ote naz ni nere Jaun on maitagarri onen amorez urturik gelditu bearra? Ez ote dira nere zain, muin, azur, ta zati guziak, ao, ta biotz egiñen, oni ni bere onenbat ontarteren alde eskerrak, eta eskerrak ematen egoteko?

Zor zaitzu beintzat zuri, bai nere Jesus maitagarria, ori guzia, ta beste nik egin ala. Egin nai nuke, bada, nik ere au, zure Amaren eran; ta egin nai nuke nik au orain ta beti, ta eternidade guzi-guzian. Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

Bigarren esker-bidea

Geren komunione ondorako erakutsi zigun guri gure Jesus maitagarriak bigarren esker-bidea, bera san Juan Bautistagana zen lenbiziko aldian gertatu izandu zen gauza on arrigarritzko batekin.

Bera jaio baño len adirazi zion Jesus maitagarriak bere Ama maiteari joan bear zutela san Juan Bautista ekustera.- Au argandik ikasi orduko, artzen du Jesusen Ama Birjinak arako bidea. Etzen orduan oraindik jaioa S. Juan Bautista, ta alere, beren etxean sartu, ta Jesusen Amak santa Isabel ekusi orduko, ezagutu zuen bere Ama santa Isabelen sabeletik san Juan Bautistak, Ama Birjinaren sabelean arkitzen zen bere Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria, ta, atsegin-kontentuz beterik, asi zen an saltoka bezala, ta, al zuen eran bere agur umillak, eta ongi-torri onak egiten; *ut audivit salutationem Mariae Elisabeth, exultavit infans in utero ejus.* Luc. 41.

Orduan san Juan Bautista bezala, zu ekustera dator zure Jesus maitagarria, zu komuniatzen zaran aldietan; baño an ekustera, san Juan Bautista baño

agitz alderagotik; bada gure Jesusek ekusi zuen san Juan Bautista, beragana bage, ta Ama Birjinaren baitatik bere ama sant-Isabelen baitara; ta, zu komuniatzen zaranean, ekusten zaitu zere Jesus maitagarriak zere bular-barrunbetik, eta zere biotzaren ondo-ondotik.

Ona, erran dezakezu zuk orduan, edo zu komuniatzen zaranean, esker-bide-onez zuzen, ta biziro zuk ibilli nai izatera: Ona non arkitzen den nerekin gaur nere Jesus Jaungoiko-gizon maitagarria: ta ona, emen arkitzen da niri ongi naiez, ta ni ekustera pozik etorria.

Urrutitikako ekuste bat baizik etzion, len nere Jesus maitagarriak, egin izandu san Juan Bautistari: jaio bageko aurra zen alabaña oraindik orduan san Juan Bautista; ta ala ere, zeren aitzinatu izandu zion gure Jesus maitagarriak bere ezaguera, ta ezagutu zuen, zertara zoakion Jesus maitagarria, ta gure Jesusek bere joate artan egiten zion ontartea edo faborea, atsegin-pozez ezin egon zen, zegoen tokian, ta zegoen tokitik egin zion Jesus maitagarriari al zuen guzia.

Niri egin dit gaur Jesusek berak nere gaurko komunionean agitz alderagotik beste bere ekuste bat; bada ona emen dadukat orain nik nere barren-barrenean

nere Jesus, ni ekustera etorria. Eta ez dut nik, san Juanen eran gelditu bear atsegin-pozez urtua?

Eta san Juan beraren eran, ez ote dut utzi bear nik, oraindano nere egontoki otz-epela, edo biziera birtute gutizko au, nere Jesusen amorioz beterik, Jesus beraganatzeko? Eta artuko ez ote dut, nik gure Jesussek niri erakutsirikako biziera, edo nekezko, ildurazko, ta zeruko irabazizko ibillera zuzen bat?

Zer ote da S. Juan Bautistak egin izandu zuena, Jesusen ontarte oni bere aldetik erantzuteko, edo jaio baño lenago Jesusek egin izandu zion bere ekus onen alde?- Zeer? Al bezain laster uztea bere jait-etxea; sasi batean, edo eremu batean sartu; ta an jan txar-laburrekin bere gorputzari kendu bere gaitz-indarrak; eta, an bera bizitu zen artean otoitzez ta gogoz zeruan bizi, bere denboran gero erakusteko nai zuten guziei zeruko bide zuzena, ta artako ordua etorri zenean, eman bere bizitza edo bere burua; ta au eman ark bere Jaunaren Legearen alde, ta munduko guzien amorez iltzeko zegoen gure Jesus maitagarriaren amoreakgatik.- Orra orduan S. Juan Bautistak egin izandua.

Eta zer ote da, nere Jesus maitagarria zure komunioneetako niganatze onen alde nik dagikedana?

Mundu eroaren jostaketak, eta galbide guziak iuztea? Al dudan denboretan ni zure elizaratzea, edo nere gelan sarturik, zuri zere onenbat ontarteren eskerrak nik ematea, zuk an orduan niri adirazten didazuna, jakin bear dutenei gero nik adiraztea; edo, besterik ezin dudanean, nere biziera onarekin, ekusten naute-nak zugana nik zuzentzea.- Ori guzia, ta anitz eta anitz geiago ere zor dizut nik zuri, aldi orietako, ta oraingo zure ekuste, ta niganatze onen alde; eta gutienez, ni au egiteko asmoan nago, zuk artan niri laguntzen didazula. Lagun zakizkit, bada, dezakezu-nak bezala; bai arren, bai!

Irurgarren esker-bidea

Esker-bide au agertu zion gure Jesus maitagarriak ongi komuniatzen denari bere jait-egunean.

Jaio zen gure Jesus maitagarria Belen zeritzan judatarren erri batean. Belen da ogitegia; ta ogitegi onetan, edo Belenen, jaio orduko, utzi zuen Ama Birjinak bere Seme Jesus, bi ganadu arkitzen ziran estalbi batean, guri adirazteko, ganaduen eran, edo anima-

liak bezala bizitu ziran, gizonen janari izatea zetorrela Jesus giz-artera.

Ordurako an ziran zeruko Aingeruak, nor zen Jesus, itzez, ta soñu kantaz adiraztera etorriak.- Aditu zuten, Aingeru oriek ziotena, andik ez urruti arkitzen ziran zenbait arzaiek; eta bertatik joan izandu ziran gure Jesusi beren agur andiak, eta ongi-torri onak egi-tera; ta Jesus arkitu, ta ekusi zutenean egia zela Aingeru onak ziotena, egin ere ziozkaten; ta egin ziozka-ten umiltasun ta amore guztiz andiarekin.- Eta beren lan au egin ondoan, itzuli ziran artzaiak, ekusi zuten, Jesus maitagarriak beren animetan emanikako onda-sunekin, ta beren Jaungoiko maitagarria gloriaz, ta laudarioz betetzen zutela: *reversi sunt pastores glori-ficantes, et laudantes Deum*. Luc. 2. 20.

Orra zein zuzena aldi onetan zure esker bidea.- Begira zaiozu zuk, zu komuniatu orduko zere buruari, edo leneko zere bizierari, ta ekusiko dezu noski, bizitu zarala len zu animalien eran, edo zere gorputzari nai zituen, edo al zenituen, jan-edanak eta atsegin guziak ematen zeniozkala, edo oriek orri emateko emen bazeunde bezala.

Ekusiko dezu noski, zere adimentuz bizitu zarala zu emen lurrean, edo lurreko gauzetan, animalia bere

bazkan, edo belarrean bezain sartua; ta ekusiko dezu noski, zure asmo-gogo, geienak beintzat, izandu ez dirala, ez, zerukoak edo bear bezalakoak: eta bizitu zarala zu, animalien eran, lurrerako jaio bazina bezala zu, ta ez zerurako.- Au zuk ekusi ondoan, begiratuko diozu, zere estalbian, edo zere barren orretan zuk dadukazun Aingeruen ogi on, zere Jesus maitagarriari, ta ekusiko dezu nork eman ote dizun ori zuri?- Orduan zuk ongi begiratzera, ekusiko dezu eman dizula zuri ogi ori guzia Jesus beraren Aita eternoak; eta eman dizula, bere Ama Birginaren eskuz ta bidez?

Begira zazu gero, nola arkitzen ote den or zure Jesus maitagarria sakramentatua, ta ezagutuko dezu, or arkitzen dela bere Aingeruz inguratua, zuk ez-ekusiarren; bada, bere Aldarean zaitzen zutenak etzuten utziko bakarrik zugana zetorren aldian, ta zurekin or arkitzen den denboran. Eta or dago, oriekin batean, zu zaitzen zaituen Aingerua ere; ta or dago, zuri adirazi naiez, len Jesusen jait-arratsean beste Aingeru batek artzai onei erran izandu ziena.- Zer ote?- Orra orain komuniatu zaran anima; orra atsegin andizko berri bat: orra non jaio zaitzun, edo orra non agertu zaitzun zere baitan Jaungoiko-gizon zere Salbatzallea: ecce *evangelizo vobis gaudium magnum... quia natus est*

vobis hodie Salvator, qui est Christus Dominus. Luc. 2.
11.

Begira (esan nai dizu zuri zere Aingeru zaitzalleak) begira zein umill-maitagarria or zure Jesus! Ezer-ezezko estalkiz jauntzirik, eta ogi zatitxo baten aintzuran edo idurian, etorri zaitzu or bere Sakramentuan zere Jesus maitagarria. Begira zaiozu ongi-ongi. Orra non dadukazun ori zuk or zere biotzaren aldamenen: ta or dadukazu, aur egiñik jaio zenean ere baño iduri agitz labor-meagoan.

Zere animako janari egiñik sartu zaitzu or zere barren orretan; ta sartu zaitzu, utzi naiez zuri, bere graziz guztiz edertua zere anima bera, bere gogargiz ongi betea zere adimentua; ta asmo, ta gogo onez agitz berotua zere naibidea, edo zere borondatea.

Nor den, ta nola dagoen or gure Jesus ekustea besterik ez dezu bear zuk, au guzia bertan siñisteko: ta, au zuk siñistu ondoan, bear den eran zuk eskatze-
ra, eskatzen diozun guzi-guzia emain dizu zuri zere Jesus maitagarriak; bada ori guzia zuri, ta zuk ar deza-
kezun on guzia egiteagatik, sartua dezu or zuk bere Sakramentuan gure Jesus maitagarria.- Orra zuri zure Aingeru onak, zu komuniatzen zaran aldioro adirazi nai likezun guzia ta gauza; ta orra gauza ta egia orain-

go bidez zere Aingeru berak zuri ordurako adirazten dizuna.

Judatar artzai onak arkitu zuten gau artan gure Jesus maitagarria, bere Ama maitari ona, ta san Jose begira zegozkiola: *invenerunt Mariam, et Joseph, et Infantem* (ibid. v. 16.); ta zuk arkitzera or zere Jesus bera orien bien artean, edo oriek biak zuk zere arteko dituzula; ta egotera zu or, zere adimentuko begiak, eta biotzaren nai-gogoak beragandik kentzen ez dituzula, artuko dituzu zuk zere komunione onean zeruko anitz ondasun, ta zu geldituko zara atsegin-kontentuz ongi betea, ta milla esker, ta Jesusen laudario zere ezpañetatik darizkitzula. Orretarako da, aldi onetako esker-bidea: ta begira nola zabilzan zu, or bein sartu ezkerro.

Komunioneke laugarren esker-bidea

Beste esker-gai eder bat ematen digu guri geren komunioneetarako gure Jesus maitagarri berak aurta-suneko bere Ejiptoratzean.

Ejiptora zen gure Jesus maitagarria, bera jaio, ta aitz luatu bage; ta Ejiptora zen bere Amaren besoe-tan, ta Erodesen igesi.- Jesus aratzean, galduko zute-la, zion Isaias proietak, ango idolo galgarriak, leneko beren tokia: *ecce Dominus ascendet super nubem levem, et ingredietur Egyptum, et commovebuntur omnia simulacra á facie eius.* cap. 19. 1. Eta ala gertatu zela diote Eusebiok eta san Jeronimok *1. 6. dem. evang. c. 20. et lib. 1. c. 4.*

Zer erakusten ote digu gure Jesus maitagarriak Ejiptoko bere sartuera onetan, edo bere sartzean, ango idolotzar oriekin egin izandu zuenarekin?- Komunioneko bere sartu-aldietan egin oi duena.

Zer da aldi orietan Jesusek egin oi duena?- Bekatuak eragiteko egokiak diran idolo txarrak, ongi komu-niatzen den animatik kentzea. Zer idolo ote dira idolo oriek?- Bekatuak animan uzten dituzten illuntasunak, eta gaitzerako makurrerak.

Bai: oriek kentzeko da, dio santo Tomasek, eta, oriek kenduz, bekatuak eragozteko, aldareko Sakra-mentua: *contra hoc institutum est Corporis Christi medicamentum, tenebras ignorantiae illustrans, mor-bum concupiscentiae sanans, et mortem urrobique.* In 1. Petri cap. 2. v. 2.

Zorioneko etorrera, nere Jesus maitagarria, gaur zuk nere komunionean nigana egin dezun etorrera, esan dezaket nik, niganatzen deneko nere Jesu sakramentatua.- Ogi utsaren iduriko odeipean, edo ogi-aintzuran sartu zara zu gaur niri ongi naiez nere barreneraño, ta sartu zara zu, nere Jesus maitagarria, adiuntz edo garai guztiz ederrean.

Oraindañoko nere bekatuak lañopean nendukaten ni; ta lañope guztiz illun arrigarrian. Nere illunbe beltz lañozko onetan, ekusi bage nengoen ni, nik ekusi bearrak ziran nere zorrak, nere bearrak, eta zure ontarte andi ekustekoak: eta orregatik nengoen ni, zuri nik nere eskerrak emateko, nere zorrak ateratzeko, ta nik bear nuena billatzeko, egin bear nuenik niola ez nekielela. Eta denbora berean negoen ni laster eritzeko, ta bekatuz iltzeko bide guztiz egokian. Nere baitan daduzkat nik, langiro kalteti onetarako egiñak diran nere oikura gaistoak, eta gaitzerako nere makurrerak. Oriek askotan len eragin dizkidate niri, nork daki zenbat gaizki ta bekatu.

Orrenbat aldiz oriek ni garaitzen nindutela, guztiz azpiratua nendukaten; ta nola nik oriek orain garaituko nituen, zu emen ez agertzera, oriek garaitzen niri laguntzeko?- Ongi etorri, bada, nere Jesus maitaga-

rria; ta milletan ongi-etorria zu, nigana zatozen ezke-
ro, orrenbat nere onerako.

Aiena zazu gaur zuk nere adimentuko illuntasuna,
ezagu ditzadan nik gaur, diran bezala emengo gau-
zak.- Auts egizkitzu zuk oraindañoko nere aztura gais-
toak; ken egidazu zuk, gaitzerako nere makurrera ta
tirria, gaitzat utzirik, asi nadin ni, batere luzatu bage,
zure gauz onetan, ta nik zu biotz on garbiz emen ziñez
maitatzen, gero ni zu maitatzen, ta maitatzen egote-
ko eternidade batez au zere zeruan. Ala gerta dedilla,
nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

Bostgarren esker-bidea

Zuk komuniatu ondoan, gogora dezakezu Zakeo
zeritzan gizon aberats, egiteko agitz natsgarri batzue-
tan zebillen batekin, gure Jesus maitagarriak egin
izandu zuena ere, ongi egon nai badezu orduan zuk,
eta zerurako irabazi andiak egiten dituzula.

Zakeo au gure Jesus ekusi naiez ibilli zen Jesus
bera Jeriko errian zebillen aldi batean.- Anitzen artean
zebillen an aldi artan, gure Jesus maitagarria, ta gizon
txikia zen Zakeo bera; ta, lurretik ezin ekusiz aitziaña-

tu zen, ibiliz biziro, ta igan zen, Jesusek zeraman bideko arbola batera.

Aratzean begiratu zion Jesusek Zakeori, eta ots egin zion: Jaitsi zaitez laster, Zakeo; bada konbeni da gaur ni zure etxean sartzea ta egotea.- Jaisten da bertan Zakeo, ta badarama Jesus maitagarria, bere atsegin andiarekin bere etxera.

Au ekustean, marmarioz asi ziran gañerako guziak, eta gaizkika Jesusen gain, zeren sartu zen gizon bekatarri baten etxean. Baña Zakeok erran zion Jesusi: ona, Jauna, niri gaur zuk egiten didazun ontarteagatik beartsuendako, nik ditudan ondasunen erdia; ta, egin badiot norbaiti nik kalteren bat, ematen diot bakoitzari zor diodana bezalako laur.

Ekusten du Jesusek, ziñez diola Zakeok, aldi artan an erraten duena.- Ontzat artzen dio, an erran-erazten dion bere bekatuen damua. Barkatzen diozka bere bekatu guziak, eta ematen dio zeruko bere grazia.- Au ari Jesusek adirazten dio, erraten dionean: bai, ondu da gaur etxe au guzia: *quia hodie salus domui huic facta est.* Luc. 19. 9.

Ongi prestaturik urbildu bear dezuz zuk zere komunoneko maira, ta ekusten dezunean zuk an zere Jesus maitagarria zukanako bidean asia, aizinatuko zara,

zere biotza nai andiz ta amore onez apaintzera, zere bular barreneko gelaratzen zaitzunean, ari agur umillak eta ongi-torri ederrak egiteko.

Au zuk egin, ta al dituzun eskerrik onenak zere Jesus sakramentatuari eman ondoan, adiraziko diozu bertan berari zein beartsua uzten zaituen zu, berak nai duen guzi-guzirako, bere etortze orretan egiten dizun ontarte ta fabore andiagatik; eta, nola-ere-bait zere zor oni erantzun naiez, errain diozu orduan zuk, berari atsegin emateko den gauzaren bat, edo beste.

Orietatik dira: ona nere Jesus maitagarria, ona; zuk niri emanak dira nere adimentua, nere naibidea edo borondatea, nere itzak, eta gañerako nik ditudan nere gauza guziak.- Guziak eman zenezkidan zuk niri zere gauz onetarako, ta nere lagun urkoen alde. Ez naz oraindañokoan ni ez gauz orietan aritu izandu, geienez beintzat; eta nik bear baño geiagotan aritu izandu naz, bai, bear etziran gauza galgarrietan. Artaz dut orain damu; ta ziñez alere!

Gaurgero nere gauza guziak egin mate ditut nik, egin bear diran eran ta zuk nai bezala.- Oraindañokoan nere biziera galgarriarekin kaltar utzi izandu ditut nik, ni ekusten nindutenak. Nik orain ondu uste diet ori guzia; ta ondu uste diet, nere bizitza berri onare-

kin; ta itzez nik, eta al dudan eran erakusten diedala berei beren gauza guziak zuzen egiteko bidea.

Zurea da, bai, nere Jesus maitagarria, oraingo nere asmo, ta gogo garbi zuzen au ere. Au bezala, eman bear didazu zuk nere anima, nere adimentua, nere biotza, ta ni nazan guzi au ondurik gelditzeko bear dudan guzi-guzia ere.- Etzara zu sartu, ez, nere etxe txar onetan, utsik ni, ta gabe zuk uztera. Ez dira orretarako egiñak ez, emengo erregeak; eta erregeen Errege zara zu, gure Jesus maitagarria. Egizu, bada, dagokizuna; ta, beste anitz zere gauzaren artean, indazu niri, nik orain zuri, eskatzen dizudan, guzi-guzia. Bai, arren, bai!

Seigarren esker-bidea

Gorputz erien alde egiten zituen gure Jesus maitagarriak, emen bizi zen denboran, anitz ongi, ontarte ta on; guziak ziran, Jesusek berak animen alde egin nai dituenen siñuak.- Orietatik da (ta ona alere) san Pedroren etxean egin izandu zuen bat; eta da, komuniatu ondorako esker-bide guztiz zuzena.

San Pedoren etxean txarki arkitzen zen, ta sukar andiarekin, edo kalentura gaistoarekin, san Pedro beraren ama-giarraba, gure Jesus maitagarria an sartu zen aldi batean. Ala Jesusek ura ekusi orduko, ukitu izandu zion bere eskua; ta au, besterik bage, aski izandu zen eri sukartiari bere sukarra kentzeko, ta berari bertan emateko bere osasuna.- Artzen ditu bertan bere soñekoak eri sendatuak; eta, jaikirik, ematen diote bere eskuz gure Jesus, bere sendatzaileari, bere barazkaria. (*Matth. 8. 14.*)- Orra aldi one-tan Jesusek egiña! Eta orra orrek guri adirazten diguna, edo komunionekeo bere ukitzez Jesusek berak gure animan egin dezakena!

Baditu, bai, gure animak ere bere sukarrak, dio san Ambrosiok (*l. 1. 4. in 4. Luc*), eta, gorputzaren sukarrak baño sukar agitz gaistoagoak.- Animaren sukarra da, dio Santuak, ondasun alderako gure makurrera; animaren sukarra da aragiaren atsegin txarretarako limurtasuna ta tirrikazioa; animaren sukarra da leku andietan, ta egiteko ederren artean egon naia; baita naigabe orduetako ira, edo iraña ere. Orra animaren sukarrak, san Ambrosiok dionaz.- Eta orra dio san Ziprianok, oriek eta gañerako animaren

eritasunak kentzeko aldareko Sakramentua: *medicamentum ad sananas infirmitates*.

Orra, bada, zu komuniatu ondorako bertze eskerbide eder bat ere. Badituzu noski zuk ere besteen eran zere sukarrak, eta animako eritasunak?- Agertu bear diozkatzu, bada, zuk zere Jesus bera zere etxera datorkitzunean, edo zu komuniatu ondoan esaten diozula: zorionean agertu zara zu, nere Jesus maitagarria, oraingo zere ager-aldian; bada agertu zara zu gaur, nere bearrak eta premiak guztiz eskatzen zinduzten aldian! Ona, bada, ni nere Jesus maitagarria; ona ni eritasun pitsez, ta nere animako sukarrez guziz betea!

Ongi arkitzen nazala ni, nik uste dudanean, ta nik gutien-gutiena uste dudanean etortzen dira, ta emen dabilzkit nere buru txar arin onetan, ta nere biotz gaitz aldera guztiz makurtuan, ni ongi nekatzen nauten, zenbait gogorazio ta gaitzerako asmo.- Oriek nik edo garaitu, edo aienatu orduko, edo oriek nik aienatu ta laster, badatozkit niri gisa bereko beste zenbait; eta askotan beintzat, lengoak baño ere agitz gaistoa-goak; eta guziak, goizetik arratseraño narabilte, ezin burutuz bezala, ta anitz uts egiteko bidetan sartzen

nautela, zenbait aldiz beintzat; eta zenbait uts eragiten dizkidatela.

Zu zara, zu, nere Jesus maitagarria, nere animako sukar galgarri au kenerazi dezakezuna; ta gorputzaren sukarrak bezain aisa: ta, onara zaran ezker, egizu nerekin zuk beste orrenbeste; ta indazu, niri gaur nere gauza guziak zuzen egiteko, ta bear bezala nik serbitzeko, bearko dudan zure laguntza ta grazia.- Zuk orain au nerekin egitera, bertatik utziko dut nik, bai, nere utsen oatzea: bertatik artuko ditut nik, bai, zeruko birtuteen soñekoak; eta bertatik nik zuri presatuko dizut esker onezko, ta amoriozko janaria.

Ori da zuri atsegin andi bat egiten dizun barazkaria; ta ori, nik orain, ta beti, ta eternidade guzi-guzian eman nai nikezun barazkaria. Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria: bai arren, bai!

Zazpigarren esker-bidea

Komunione ondoan gure Jesusi esker zuzenak emateko, bide ona da Nazaretko israeldarrak agertu zutena.

Sartzen da bein gure Jesus maitagarria nazarethdarren elizan, edo sinagogan; ta asten da au egiten, beste bazterretan egin oi zuena, edo asten da erakusten, nazarethdarrak jakin bear zutena: eta bere lan onetan asi zenetik lan bera berak bukatu artean, guziak zeuden Jesusi begira, itzik galtzen etziotela: *et omnium in Sinagoga oculi erant intendentes in eum.* Luc. 4. 20.

Jesus maitagarri beraren eliza zera zu, san Pablok dionaz: *templum Dei estis* 1. Cor. 3. 16. Bere elizara dator gure Jesus maitagarria, gugana datorren aldian; ta onara dator, len israeldarren elizetan itzez egin oi zuena, emen isillik egitera, edo ongi komuniatzen den animari bertan adiraztera, berak jakin bear duena; ta adiraziko dio orduan, bai au guzi-guzia, anima berak orduan egitera Nazarethko israeldarrak bere aldian egin izandu zutena, edo anima komuniatzalleak bere gogo-begiak, bear ez diran gauzetatik kentzen dituela, aditu nai baditu Jesus sakramentatuaren itz mee ederrak.

«A! ta zein gogoz agertuko niezten nik animei nere asmoak, eta nere gauza gordeak (erran zion bein Jesusek santa Teresari); baña lurreko gauzak eskanbill andia darabilte, orien biotzak, nereak bezain itz meak

aditzeko! Utz balitzate, noizean bein badere, orretarako!».

Eta nioz uztekotan, utzi bear lituzkee, berak komuniatu ondoan; orduan alabaña itz egiten digu gure Jesus maitagarriak, ezin alderagotik; eta aldi artako ordua da, guk arki dezakegun ordurik onena; bada orduan gaude gu, diran ondasun ta birtute guzien Emallearekin; ta emalle, guk ar-al guzia eman naiez arkitzen denarekin.- Zaude, bada, orduan zu, Nazarethko israeldarren eran; ta zaude zu, zere Jesus maitagarriagana bai, ta bestetara begiratzen ez dezula. Aiena zatzu zuk orretarako lurreko zere gogoetak, eta oroitzapen guziak; eta erraiozu zuk zere Jesus maitagarriari: *loquere, Domine, quia audit servuss tuus*: itz egizu zuk gure Jesus maitagarria, ta adirazi zadazu, orain nigandik zuk nai dezuna.- Ikasi naiez nago ni gaur, gaurdanik zuk nitaz nai dezuna; ta ikasi naiez, nik ikasten dudana bertatik egiteko.

Bide zuzenez eraman naiko nazu zuk ni, eta zere ondoren, bein ere nik uts egin bage. Zorionekoa ni, ta milletan alere, au nik gaurdanik zuzen egitera; bada sartuko naz laster ni, zu zauden lekuan, edo zure zeruan; ta sartuko naz ni an, an nik eternidade bateko atsegin-kontentu osoak izatera.

Badakit nik, bai, nere Jesus maitagarria, zer egiteko den zure ondoren ni zuzen ibiltzea. Zure ondoren zuzen dabillanak, eskura bearco ditu bere asal-aldie-tan bere pasioneak; ito bearco ditu bere barreneko naikunde lizunak, bendeka-naiak, eta bear ez diran itzetarako, ta gauza gaistoetarako bere tirriak.- Zure ondoren zuzen dabillanak, nere Jesus maitagarria, oin-pera bearco ditu bere antusteak, eta mundu eroaren errate galgarriak; eta ez du egin bearco sulezeko galgarriak eragin nai likezkoa, bere gauz gaistoetatik batere.

Au guzia egiteko asmoan nago ni, nere Jesus maitagarria; baita, gañerako zuk adirazten didazun guziguzia ere, artan zuk zerorrek laguntzen didazula.- Lagun zakizkit, bada, bortizki zu: ta adirazi zadazu zuk zerorrek nai dezuna. Ez dut nik izan nai, ez, orainda-ñokoan bezala eskergabea, ta nere galgarri gaistoa.

LXXXVII.garren OTOITZ-GAIA

GOGOZKO KOMUNIONEA

Gure Jesus maitagarria joan oi zen aldiren batzuetan, eriak arkitzen ziran tokira, eriak sendatzeko: baña beste batzuetan sendatzen zituen eri berak, ara bage, ta orien sendaera ori eskatzen zioten tokitik.

Zergatik egiten ote zuen, edo zertako bere azken sendaer au gure Jesus maitagarriak?- Guri adirazteko, gugana komunioz sarturik egiten dituen animetako sendaerak, egin ditzakela berak gugana bage, ta bere Aldaretik ere.

Nola da ori?- Guk gerok eskatzen diogula Jesus maitagarriari, gugana komunioz etortzen baliz, eskatuko genikeon eran.- Eskaer au da Gogozko komunio-nea. Au ere ondasun andizko komunio-nea da; ta orregatik guk orain ekusi bearra.

A.

Zein eskaer ona den Gogozko komunio-nea

Eskaer guztiz ona da gogozko komunionea, egiten bada, Kafarnaun zeritzan erri bateko soldaduen Nagusiak egin zuen otoitz eta eskaeraren eran.

Gaizki zedukan soldaduen nagusi onek, eta perlesiaz elbarriturik bere mutiletatik bata.- Aditu zuen nonbait sendatzen zituela gure Jesus maitagarriak gaizki zeuden gaisoak beren eritasunetatik; eta, naiez, senda zezan beraren mutill au are, bidaldu ziozkan onetarako Arteko onak: *misit ad eum Seniores judaeorum.* (Luc 7. 3.).

Bitartekoen otoitza aditu orduko artzen du Jesusek eri beraganako bidea. Baña, ara zijoalako otsa aditu zuenean eri beraren Nagusi soldadudunak, igorri ziozkan Jesusi bere adiskideak, beraren izenean ari errate-ra: Jauna, ez dezazula orrenbat neke, ta enoju ar. Ni ez naiz nere itxean zu artzeko diña; ez, eta zure begietan agertzeko diña are; ta orregatik eskatu dizut Artekoz nere mutillaren osasuna. Au oni zuk emateko, ez dezu bear zuk, zauden lekutik itz bat erratea baizik: *dic verbo, et sanabitur puer meus* (v. 7.).- Soldadudun Nagusiaren mandatu au Jesusek aditzean: Ez dut arkitu (erran izandu zuen), onenbat uste ta siñiste israeldar guzien artean; ta gero: ala gerta dedilla: eta ordu berean gertatu zen guzia; ta mutil elbarria gelditu zen

osasunarekin: *et reversi, qui missi fuerant, domum, invenerunt servum, qui languebat, sanum.* v. 10.

Ekusten dezu soldadu Nagusi jentil batek erdisten duena? Baña oartu ote zara zu au ark erdisteko egin izandu zuenera?

Siñistu zuen ark beinik bein gure Jesusen eskua ta al guzia, edo bai zegikela gure Jesus maitagarriak eskatzen ziotena.- Eskatu zion gero, Arteko onak billaturik, Jesus beragandik erditsi nai zuena.- Eta azkenean, ezaguturik ark berak bere ezer-eza, etzen trebetu izandu bere etxean Jesus artzera; ta eskatu zion Jesus maitagarriari, zegiken ezkerro, eman zezola, zegoen tokitik, eta batere igitu bage, eskatzen ziona.- Orra soldadu-Nagusi onen eskaera; ta orra zein ona.

Bada era berekoa da, gogoz ongi komuniatzen denarena.

Badira zenbait anima, berak nai adiñetan, Jesus komunionean artzen trebe ez diranak.- Ez dakite beraz zenbat diran, komunione oneko ondasunak?- Ez da orregatik; ez.- Zergatik, bada?- Zeren ezagutzen duten, batetik Jesusen izate andi-eder-arrigarria; ta bestetik beren zirtzilleria, ta ezer-ez utsez dena betea; ta bi gauz orien ezagumentuak ematen dien beren komunionean izate oriek biak alkarganatzeko beldu-

rra.- Beldur onegatik, bada, edo, Apeztasunak daraman adiñetan komuniatzeko beldurrez, etziran apezegin izandu, beste anitzen artean, san Benito ta san Franzisko.- Beste zenbait, apezak izanagatik, egunoroko beren komunioneak beldurtzen dituela, ez dute egunoro Meza eman oi, edo urtearen buruan zenbait egunez uzten dute (ta ez nagitasunez, edo beste aitzaki eroz, baizik umiltasunez, ta errespetuz) Meza ematea.

Bide berez dabilta beste anitz ez Elizakoetatik ere; ta, nai andiak dituztela maiz eta maiz komuniatzeko, ez dira komuniatzen, komunia litezkeen egun guzietan. Eta, komuniatzen diranetan ere, komuniatzen dira ikara ta beldur andiarekin.

Anitz damu, ta negarrekin erran oi ziozkan santa Teresak konfesariari bere uts txikiak; eta alere, ura komuniatzean, ikaraz arrotzen ziran aren buruko illeondoak. Eta berean, edo agitz ikaratutik komuniatzen dira, zenbait aldiz beintzat, beste anitz anima garbirtutetsu ere.- Anima oriek utzi oi dituzte urtearen buruan zenbait komunione; baña beren aozko komunione orien orde z egiten dituzte naiez, ta gogoz, beste zenbait; eta beren gogozko komunione orietatik ateratzen dute, aozkoetatik atera lezaken adiña atsegin ta

ondasun edo beintzat anitz.- Berebat egin dezakee egunoro, ta egunean askotan ere, egun guzietan komuniatzen ez diranak; bada naiez, ta gogo; ta siñis-te bizi garbiarekin zeruko janari eder au jaten dutenak, irabazten dute, ta erdisten, dio Trentoko Konzilioak, anitz on ta ondasun: *voto... coelestem panem edentes fide viva... fructum... et utilitatem sentiunt.* sess. 13. c. 8.

Baña nola egiten ote da gogozko komunioea?- Kafarnaungo soldadu-nagusiak erakutsi digun eran.

Atozea, nere anima: ta ez dago agitz nagi zure gorputza bere gauz onetarako? Bai? Eta ez da zure gorputz ori zure mutil, ta serbitzari bat bezala, edo zuri zere lanetan laguntzen dizun zere erdia? Ori ere bai? Orra, bada, non eri dadukazun zuk ere zere serbitzaria, edo zere zatietatik bat.

Atoz oraindik: eta ezin ken dezake gure Jesusek, zure gorputzak bere gauz onetarako duen eriera, edo nagitasuna?- Bai, ta errazki, edo aisa aski alere.

Nola ote?- Komunioez guztiz ederki.

Eta beste bideren batez?- Baita bestez ere, bada badagike Jesusek, bere Sagrariatik atera bage, gugana sartu, ta egin oi duena; eta egiñen ere du, ori guk ongi ta bear den eran eskatu ezkeru.

Eta ezin dagikegu guk eskaera on au?- Zergatik ez, oraindik jentil zen soldadu batek egin izandu bazuen, guk ekusi dugun bezala ederki ta zuzen.

Billa zatzu bada, zuk, zere Mezak enzutean, edo zere Jaungoiko sakramentatua ekustera elizaratzen zaran aldietan zere osasuna, ta nai dezun beste gauza guzia; ta billa zazu, zere artekotzat arturik bein gure Jesus maitagarriaren Ama maitaria; gero Ama onen Esposo, ta Jesus beraren Ait-orde san Jose; ta biekin batean, zu zaitzen zaituen zere Aingeru ona, ta zere izeneko Santua.- Oriek laurak, eta nai dituzun beste Santu guziak arteko arturik ager egiozu Jesusi orien eskuz, edo orien itzaletik, zere eritasun, zere bearra ta premia; ta erraiozu zere uste ta umiltasun alik andienarekin.

Ona nere Jesus maitagarria; ona ni, zuk orain dakusazun eran! Eritasenez beterik arkitzen naz ni nere burutik oiretaraño! Ekusten dezu zer antustekak, zer gogoetak, eta zer naspillak nik beti, gau ta egun emen darabiltzidanak!

Gauz on bat nik nere gogoan artu orduko, aienatu, edo galerazi didate niri, nork daki zenbat asmo erok, eta oroitzapen lizun-txar-loi-galgarrik eta eternidade-rako nere gauzak zuzendu-nai bat datorkidaneko,

emen datoz nere gogo berera, nere egiteko ta lan txar-zirtzillak, eta galerazten didate, edo nasten, nik bearren-bearren nukena.

Buruaren eran arkitzen da, nere Jesus maitagarria, nere biotz au ere; bada arkitzen da gauza gaistoetara oituegia, aztura txarrez guziz betea, gaiz aldera erdi-eroria, edo guztiz makurtua, ta gauz onetarako naigabez, ta illuntasunez bete-betea. Orra sein eria nere barren aldea! Ekusten dezu zuk au, nere Jesus maitagarria?

Bada ez da batere obeki arkitzen, ez, ageri den, nere zatia. Zein ekusle txarrak (ekusten dezu) nere begiak! Bear ez diran gauzetan dira biak, nik nere betazalak zabaldu orduko; ta gauza txar galgarri orientatik oriek nik kentzeko, zuk dakizun lana ta nekea da orduan niri oriek ematen didatena.- Eta bearriak? Predikuen ta itz onen igesi, al dutenean; ta, eleak, lausengak, itz ariñak, marmariak, eta kanta ta soñu likitsak aditzeko, beti zabalduak.- Nere aoa, edo nere ezpañak?- Arrosarioak, eta otoiz onak errateko, gutienez erdi-makurtuak; eta, bear ez diran erausietako, guztia itz-ontziak.

Eta nere esku-oñak, eta gorputz guzia?- Atsegin zaleak, jostaketen billaleak, jan-edanez, ta loz ase, ta

aspertu naiak, eta denborriberean gure Legeko gurutzearen etsaiak.

Au onela, edo laburkiago, zuk ari agertu ondoan, errain diozu Jesus sakramentuari zere Bitartekoen artetik; ona nere Jaungoiko maitagarria, ona zein erit arkitzen den gaur nere mutill, edo nere lagun gorputz nagitzar au! Zuk badezu, bai, au bezalako eriak sendatzeko bear den jakiundea, eskua, ta indar guzia. Senda dezakezu zuk nere gorputzaren eritasun au oraingo nere komunionean, edo nere komuniatu nai on au ekusi orduko.

Ontarte andi bat lizake neretako, komunione on batean zu nik artzea; ta pozik artuko zinduzket, bertatik nik, artara prestaturik arkitzera. Ai! nik artarako baldin baneduka Aingeruen edertasuna, ta zure Amaren, ta gañerako Santu-Santa guzien birtutea!- Baña ekusten dezu zuk, nere Jesus maitagarria, zein gabe nagoen ni; ta bestela ere ezin ar zaitzakedala nik edozein orduz, ta gogoak niri ematen didanean.

Zu zere Sakramentuan nigana ez etorriagatik, ar dezaket nik eskatzen dizudan ondasuna, ta nik bearko dudan zeruko zure grazia; bada zuk, zere itz batekin badagikezu ori guzi-guzia, ta zuk zerorrek deritzazuna.- Egizu, bada, nere Jesus maitagarria, zere Ama

Birjiñagatik; egizu zere Ait-orde maite san Josegatik; egizu, ni zaitzeko, eman zenidan zere Aingeruagatik, eta nere izeneko ta debozioko Santuakgatik; eta egizu zere biotzeko amore andiagatik.

Zu zerori nik obeki maitatzeko, ta nere gauzak nik ongi, ta zuzen egin naiez da, orain nik zuri eskatzen dizudan osasuna ta grazia. Eta nola zuk ukatuko didazu niri, gauza zuzen orietarako eskatzen dizudan gauzarik bat ere? Ez da erraz ez; ezin dagikezu ori zuk, ez, nere Jesus maitagarria.

Era onetako eskaera da gogozko komunioea: ta ori da gure Jesusi atsegin andi bat egiten dion komunioea, edo eskaera.

Ekusten dezu zein erraz den ori egitea. Eta bertatik oitu zaitetzen orrelakoetara, agertu nai dizut nik, era orretako komunione bakoitzean zuk irabaz dezaitezuna.

B.

Zein ondasunduna den gogozko komunioea

Ar dezazula zuk zere Jesus zure komunionean, edo dagoela Jesus aldareko bere Sakramentuan, Jesus beti da Jesus; beti da Jaungoiko-gizona gure Jesus, ta beti-beti ondasun guzien Jauna ta Jabea.- Eta arki dedilla bat bere komunionean gure Jesus onarekin, edo bere komunionean Jesus artzeko gogoarekin, beti ar deza-ke anitz, Jesus onagandik; bada non-nai eman dezake gure Jesus maitagarriak berak nai duena; ta ematen ere digu dagokiguna, bear den eran eskatu ezkeru: ta orregatik da ondasunduna gogo onezko komunionea.

Baña zein ondasunduna?- Berez, bazterrik eta neurririk bagekoa; baña aldian, egiten duenaren grazia ta gogoia diñakoa.

Grazian egon bear du, ta ongi bere Jaungoikoarekin, gogozko komunioetik ondasunaz aterako dituen animak: eta, grazia geiago duen animak, guti duena bezain ongi prestatu ezkeru, ondasun geiago aterako du gogozko bere komunioetik; eta aldi artan, onendako ondasundunagoa da, edo besteari baño ondasun geiago uzten diozkana beraren gogozko komunio-nea.- Eta gerta liteke noizbait, gogozko komunio-nea bat egiten duen animak, aozkoa egiten duenak baño, geiago irabaztea, bere prestatze ta eskaera obeaga-

tik. Ala irabazi zuela bein Santa Jetrudisek, dio Santa onen gauzen berria ematen digun berrilari on batek.

Eri zegoen bein santa Jetrudis, ta ezin komunია zitekeen eran, gañerako seroreak, edo konbentuko Monjak komuniatu bear zuten egun batean. Bere ezin komuniatu au ark ekusi zuenean, itzuli zituen bere begi gogoak bere Jaunagana, ta erran izandu zion itzez, edo biotzez: ona Jauna, ni ez bein ere zu artzeko diña; ta gaur, artako banengo ere, ezin ar zaitzakedan eran! Ekusten dezu zuk zein andia den nere zu artzeko prestatu naia; ta prestatu ondoan, zu komunionean artu-gogoa. Oraingo nere nai-gogo au gerta dedilla komunione ondasundun, edo oraingo nere nai-gogoak dizula zuri, komunione berak adiña atsegin ta gloria; ta niri nik orain bear dudana.- Ala gertatu ere zen; ta, seroreak komuniatu ondoan, adirazi zion gure Jaungoiko maitagarriak Santari, konbentuko seroreak beren komunionearekin baño, geiago irabazi zuela Santak bere gogo utsezko komunionearekin. *Haut. n. 915.*

Berez ez du orrenbat egiten gogozko komunio-neak; eta gogozko komunio-neak baño ondasun gei-go uzten du animan aozko komunione osoak. Ala ere,

urtearen buruan atera dezakezu gogozko zere komunioneetatik besteetatik adiña, ta geiago ere.

Zergatik ote?- Zeren aozkoak, edo komunione osoak baño, geiagotan ta geiagotan egin ditezken gogozko komunioneak; eta aldian anbat ondasun ez artuagatik, era orretan ar ditezken azkenerako anitz eta anitz geiago: bada egunean, bein geienean, aoz bat komunia diteke; ta gogoz, anitz eta anitz geiagotan, ta berak nai duen aldioro.

Ageda de la Kruz, edo Gurutzekoa zeritzan, santo Domingoko serore birtutetsu bat beti zegoen komuniatu-nai andi baten suarekin; ta bere su onek buka etzezan ura egun gutiren buruan, erran izandu zion bere konfesariak, egin zitzala noizean bein bere gogozko komunioneak; eta egin oi zituen egunaz eun aldiz, ta beste anbestetan gauoro. *Apud P. Parra com. espir. plat. 12.*

Zenbat irabaziko ote zuen onek urtearen buruan gogozko onenbat bere komunionearekin?- Guk ez daki-gu; baña anitz eta anitz, egunen batean ageriko den bezala: bada badakigu guk era orretako komunione bakoitzak atsegin egiten diola gure Jesus maitagarriari, ta eman-erazten diozkala Jesusi bere ondasunetatik, Jesusek berak santa Jetrudisi erran izandu zionaz.-

Eta badakigu besterik ere; bada badakigu, beretzen duela gogoz ta naiez komuniatzen den animak gure Jesus maitagarria.

Ala adirazi zion Jesusek berak santa Matildari.- Santa Matilda, beste seroreak komuniatu ziran batean, komuniatu nai andi batekin arkitu izandu zen; baira eri zegoen, ta etzen komuniatu.- Seroreak komuniatzean, agertu zekion Jesus Santari katadera, edo tronu eder batean; ta, arturik, beraren izenean Dabidek erranak daduzkan itz batzuek (itzak dira: gabe arkitzen diranen errumeskeriagatik, eta bearsuen negarrak aditurik, utziko dut orain nik nere egontokia: *propter miseriam inopum, et gemitum pauperum nunc exurgam.* Psal. 11. 6.) jaiki zen Jesus bera, zegoen lekutik, urbildu zen Santa eriagana, ta erran izandu zion: izan dedilla, den zirtzillena, lurreko gauza bat, izan dedilla pits bat, edo lasto zatia, ez du ura batek erditsiko nai utsarekin; baña, izanik ni, nazana, beretuko nau ni, nai uts, negar malko, edo suspirio batekin (*Haut. num. 914.*) Ekusten dezu?

Anitz langilleren artean ari zen bat, S. Franzisko-ren eliz bat egiten. Erori zen gañeko zur andi bat, eta eman izandu zion gizon langille oni, ta utzi zuen erdi-lertua ta eriotzeko tranzean.- Kristio onak bezala

eskatu zituen langilleak Elizako gauzak, eta berezki komunionea. Lagunak, ustez, etzuela iraunen gure Jaun sakramentatua ari ekarri artean, naiez, ta gogoz komunia zaitezke, erran zioten san Agustinen itzekin, ta komuniatu zara; ez da orain besterik bear: *crede, et manducasti*.- Egin zuen langille eriak, erran ziotena, ta besterik ez. Agertzen zaio urrengo arratsean san Franzisko, bildots baten antzan Jesus zekarkiola; ta erraten dio: ona zuk aoz artu nai zenuen, ta gogoz ta naiez artu dezun bildotsa. Au zuk zere naiez, ta gogoz artzearekin artu dezu animako osasuna edo grazia; ta orain artuko dezu zere gorputzarena ere: ta arturik, joan zen urrengo egunean bere lanera, ezer izandu ezpalu bezala. *In ejus vita*.

Ekusten dezu nolakoak diran, ta norañoakoak, gogozko komunioneetatik batek atera ditzaken ondasunak. Eta ekusten dezu, zein aisa ta erraz atera ditezkeen ondasunak diran ondasun oriek. Naiz zaudela geldirik zu, naiz lanean arki zaitezela; naiz eri, naiz osasunarekin; naiz bakarrik, naiz lagun artean; nondik-nai ta edozein orduz, doazke zare naia, ta gogoia aldareko zure Jaunagana ta egin dezakezu zuk zere komunione ondasundun au: ta zenbat ere ziñezkoagoa, zenbat ere beroagoa, aldiko zure komuniatu

nai ta gogo au, anbat andiagooa, anbat grazia geiagooz-koaa zure gogozko ta naiezko komunioeaa.

Eroa ni, nere Jesus maitagarria, ta milletan ta milletan eroa, egiten ezpaditut nik (eta maiz alere) komunioe onen ondasundunak: bada alakooa lizake, Indietako ondasunak, nai utsez ta gogoz irabaz litzakeela, irabazten ez dituenaa: ta, Indietako ondasun guziak baño, geiago ta geiago balio du, onelako komunioeetan irabazten den graziaren edozein zatik.

Geiago irabaz dezazun gogozko komunioe bakoitzean, au egin baño len artu bear dezu zuk zere gogooan, aldareko Sakramentuaren gain emen arkitzen dituzun otoitz-gaietako gauzaren bat edo beste; edo orren lekuan, komuniatu ondorako agertu ditugun eskerbideetatik deritzazuna.

Ori zuk egitera, ezagutuko dezu gure Jesusen izate andi ederra; ezagutuko dezu zere ezer-eza; ezagutuko dezu Jesusi zuk zor diozun ongi naia, ta bazterrik bageko amoreaa.- Ori guzia zuk ezagutzeak berotuko du beraganako amorez zure biotza, ta sartuko dizu zere biotz berean komuniatu nai andiagooa; ta nai ta gogo irabazi andiagooa.- Ori zuk egiten badezu elizara-tzen zaranetan, goiz-arratsetan, ta egunaz noizean

bein, irabazi andiekin arkituko dezu zere anima emendik ateratzean ta eternidade guzi-guzian.

Egiñen al dezu zuk au gutiengan bost aldiz zu jaitzen zaranetik etzin ordurako, edo dela eliza berean, edo elizara begira zaudela, edo gure Jesus sakramentua arkitzen den aldarera itzultzen zarala? Ez da ori geiegi izain, ez, Jesusi zuk zor diozunaren alde, geiagotan ta geiagotan egiten badezu ere.

C.

Gogozko komunioneak ez dira aozkoak eragozteko edo galerazteko

Nai du Jesusek, bai, naiez ta gogoz guk ar dezagun bera geren komunionean, edo nai du dagizkigun guk gogozko geren komunioneak; era onetan ematen digu bere ondasunetatik anitz; baña naiago ditu aozko, ta izatezko komunioneak, umilki oriek guk egiten baditugu, ta bear den eran; ta gogozko komunioneetan baño, ondasun geiago eman oi du era orretakoetan: ta ez dira zer-utzi komunione oriek, lenbizikoakgatik.- Egitzkitzu, bada, lenbizikoetatik, al dituzun guziak; eta

alik ongiena guzi-guziak; baña ez dezazula utzi bat ere bigarren orietatik ori da Jesusi atsegin geiago egiteko bidea; baita zuk geiago, ta geiago irabaztekoa ere.

Bai: beinik bein atsegin geiago artzen du gure Jesus maitagarriak gure bularrera dakarren komunio-
ne onean, gogo utsezkoan baño; bada Jesusen atsegi-
ñak dira gurekin egotea, ta gurekin biotzez biotz jar-
dukitzea; ta zenbat ere alderagotik au egiten duen,
anbat berez andiagoa da gure Jesusen atsegiña.- Eta
ekusten dezu, gogozko komunioean baño, aozkoan
ta izatezkoan alderagotik diardukala gure Jesusek
komuniatzen denarekin.- Atsegin geiago duela aldera-
gozko, edo izatezko komunioean gogozkoan baño,
adirazirik daduka Jesusek berak bein baño geiagotan
ere.

Senako santa Katalina etzen bein garaiez elizara,
nai zuen bezala, konfesatu ta komuniatzeko. Jarri zen,
asia zegoen Meza enzuten, bere komuniatu nai andia-
rekin.- Komuniatu zen an naiez ta gogos; ta alere
Jesusek orain guk diogun au guri adirazi naiez, egin
izandu zuen Santak berak nai zuena; bada nola etze-
kiela, arkitu zen Mezako osti-zatia aoan zuela, ta artu
zuen bere Jesus sakramentatua, ta komunioea. (*Ray-
mund. de Caun. iu ejus vita*).

Estanislao Koska deritzan Jesusen Konpañiako santu gazte batek, Jesusen konpañiara baño len nai izandu zuen bi aldiz komuniatu, askotan egin oi zuen bezala; baña bietan erejeen artean arkitzen zen, ta ez zuela nork eman komuniatzera. Ala ere gertatu zen ark berak nai zuena.- Nola ote?- Aingeruen eskuz; bada, bere bi aldietan eman zioten Aingeruak komunionea, elizaren batetik eramaten ziotela Osti konsagrata. *In ejus vita.*

Berebat gertatu zaie beste zenbaiti ere; ta orien artean, Buenabentura deritzan santu ta doktore andi bati.- Mezakoa zen doktore santu au; ta ekusirik aldarereko Sakramentuaren izugarritasuna ta gizonaren ezer-eza, iduritu zekion obe izain zela, Meza ta Mezako komunioneak utzi, ta gogozko komunioneak egitea, ta Jesusi erratea: «Jauna pozik ni komuniatuko nintzake ta atsegin andi bat nuke nik orretan; baña ez naz ni, ez, artarako diña; ta egizu zuk, zere Aldaretik niganatzen baziña, egiñen zenuken guzia, ta indazu zere lagunza ta grazia».- Au egin zuen Santu Doktoreak, Meza enzuten zegoen batean.- Jesusek denbora berean adirazi zion, naiago zuela urbil zekion umilki, Mez-ematera ta komuniatzera. Zer bidez? Mezako

osti-zatitxo bat aotan sartu, ta komunionea ematen ziola.

Zu etziñake, zere bizitza guzian artan ariagatik, prestatuko bein ere, bear lizaken bezain ongi, komuniatzeko. Egizu alegiña, zere biotza zuk konfesione umil batean ongi garbitzeko. Ken zaitez gero bekaturbide gaistoetatik. Eragotz izkitzu, al dezun eran, zere bekatu ta uts txikiak ere.- Egizu zuk egiñ ala zere pasione galgarriak eskuratzeko, ta lurreko guziekin ongi etortzeagatik.- Emaiozu zuk beti nori berea, ta zere Jaunari, zor diozun zere biotza; ta au ere, bere amorioz ta ongi naiez ederki betea. Eta au zak egiteko gogoarekin arkitzen bazara zu, noizean bein zuk zere utsak egiñagatik, ez da zer-iutzi maiz komuniatzea.

Komunia zaitez, bada, zere konfesari on jakintsuak adirazten dizun guzietan. Orretan atsegin geiago egiñen diozu zuk Jesus maitagarriari gogozko komunio-needan baño: ta geiago irabaziko ere dezu.

Bai; gogozko komunioek baño, geiago dakar berez, gogozko ta aozko komunioek; badakar alabaña gogozkoak dakarren guzia; ta orrekin batean dakar Sakramentuarena ere; bada Sakramentuak *ex opere operato*, edo berez, ematen dio grazian komu-

niatzen denari grazi berria; ta orren gain, bere naitz gogo ta prestaera onari dagokana; ta azkeneko grazi au baizik, artzen ez du, gogozko komunionea baizik egiten ez duenak.

Ar dezazun bada, zuk au ta beste guzia; ta ar dezazun alik geienetan, komunia zaitetz zu maiz-maiz edo konfesari onak adirazten dizun adin alditan; ta gañerako denboran egizkitzu zuk, elizaratzen zarantetan, ta al dezun guzietan, zere gogozko komunione on beroak.

Egiten badituzu zuk bata ta bestea: ta zenbait denboraz emen zu bizitzera, ongi ondasundun, ta aberats sartuko zara zu, bai, zere zeruan. Ala gerta dedilla, bada: bai arren, bai!

LXXXVIII.garren OTOITZ-GAIA

MEZA

Aldareko Sakramentuaren ondasunak, eta ondasun orien irabazbideak ekusi ondoan, ekusi bear ditugu Mezarenak ere, oriek jakin bagez, gal ez dizagun aisa ta erraz irabaz ditzakegula. Asi gaitezen ondasunetatik.

A.

Zein andiak diran, ta nola atera ditezken Mezako ondasunak

Norañoakoan diran Mezaren ondasunak ekusiko dugu, ekusi ezker zer den Meza, ta zertako den. Ekus ditzagun, bada, bata ta bertzea banaka; ta lenbiziko lekuan zer den Meza.

Meza da, gure Jaungoikoari egiten zaion, Sakrifizio, ofrend, edo present andi bat; baña present, Elizak artarako berezi dituen soñeko, zeremonia ta otoitz bear bezalakoekin, egiten zaiona.- Jaungoikoari, zeren

gure guzien Jauna den, zor zaizka bere presentak; eta izandu ere baditu gizonen denbora guzietan era bateko, edo besteko presentak, eta Lege zarrean nioiz ere baño geiago ta andiagoak.

Lege zarreko, ta lenagoko ofrendak edo presentak, Mezako presentaren aldean, present guztiz laburrak ziran; bada guziak ziran, edo garizkoak, edo ogizkoak, edo ardozkoak, edo bildots, ari, idi, zezen illerreak, edo beste zenbait orrelako gauza, ta, lurrak zekarrena baño andiagorik ez bein ere; baña Mezako presenta, zerutik datorkigun presenta da, ta zeru-lurra baño geiago balio duen gauzazko presenta; bada da Jaungoiko-gizon Jesus maitezko presenta; Mezan alabaña ematen zaio gure Jaungoikoari, Jaungoiko beraren ooretan, ta gure onerako iltzez josirik len judatarrak gurutze batean illik iutzi zuten Jaungoiko-gizon sakramentatu bat, edo gure Jesus maitagarria. Eta au bakarrik jakitea aski da, jakiteko zertsu den Meza, ta zein andi ondasunduna.

Alere, agiriagoan ta obeki ekusiko dituzu Mezaren izate andia ta ondasunak, bigarren gauza, edo Meza zertako den, ekusten dezula.- Meza da, santo Tomasek dionaz (*r. 2. q. 102. art. 3. ad 10*) laur gauzetarako: edo gure Jaungoikoaren ooretako, gure zorren

alde, Jaungoiko berak egin dizkigun ontarteei guk erantzuteko, ta beraren ontarte berriak guk irabazteko; ta, laur gauz oriek izanik ekusten dezun bezalakoak, Mezan badira guzien diñako ondasunak, eta geiago ta geiago ere: ta orregatik dira guztiz andiak. Goazen ikusiz.

1. Meza da benik bein, gure Jaungoikoaren ooretan egiten den presenta.

Berea du Jaungoikoak, eta betikoa du, duen izatea; ta Jaungoikoaren eskukoa da guk duguna; bada, Jaungoikoak gu geren ezer-ezetik ez ateratzera, ezer-ezean egoin giñan gu gaur ta beti, eternidade guzian egondu garan bezala.- Jaungoikoa, berezkoa ta betikoa ezezik, ezin andiagoa, ezin aaltsuagoa, ezin aberatsagoa, ezin jakintsuagoa da, ta ezinobea: ta gu gara gerez ezin txarragoak, ezin ezer-ezagoak, eta Jaungoikoaren ezin beartiagoak; bada bera bage deus bat ezin dagikegu guk bein ere, ta guziagatik zor diegu guk geren Jaungoikoari biotz-buruzko agur alik andiena, ta present bazterrik bageko bat.

Ekusirik Lege zarrekoak beren zor andi au, ta etzutea nondik atera zor onek eskatzen zuen presenta, naigabez betetzen ziran, batzuek beintzat, eta eskez

zegozkan gure Jaungoikoari, igor zezala lenbaitlen present onen gaia.

Jaungoiko berari eskerrak, badugu guk, oriek erditsi etzuten present andi au; bada, berak igorri zigun, guk bear orduko, ta anitz lenago ere, Seme-Jaungoikoa gizon egin, ta aldareko Sakramentuan gelditu zenetik.- Geroztik Aita eternoari egin dakioke Mezero, zor zaion diñako presenta, edo present bazterrik bageko bat; bada bazterrik bagekoa da Mezako presentaren, edo Jesus maitagarriaren izate-balioa; ta orregatik da Mezako presenta, present ezin-andiagoa, ezin-ederragoa, ezinobea, ta bidenabar, da Ait-eternoari ezin geiagoraño atsegin egiten dion presenta; ez da alabaña Ait-eternoarentzat bere Seme Jaungoikogizon Jesus maitagarria bezalako gauzarik.

Ekusten dezu zein andia den, Mezan, alde ontatik guk begiratzen diogunean, agertzen zaikun ondasuna?

2. Ondasun au obeki zuk ezagutzeko, zoaz Meza berari begiratzuz bertze aldeetatik ere; eta oraingo aldian begir-egiozu zere zorren aldetik.- Bekaturatzen denean bat, sartzen da, berez ezin atera ditzakeen zorretan; irabazten ditu, sulezean arkitzen diran beti-

ko neke arrigarriak; eta iuzten du guztiz aserretua, gaistoak sulezeratzen dituen bere Jaungoikoa.

Zer egin dezake, bada, aserre dadukan bere Jaungoikoa palakatzeko, bere burua bekatuaren zorpetik ateratzeko, sulezeko bide gaistoa galtzeko, ta bere Jaunarekin bat, edo adiskide egiñik, gelditzeko? Jesusen Amaz, Birjina, Martire, ta zero guziko Santuz, Santaz, ta aingeruz baliatu, artekoz bezala, oriek beren irabaziak edo merezimentuak agertzen dituztela, ta al dituzten eskatze, ta otoitz guziekin dagiten aren alde, dezaken guzia?– Bide ona da ori artarako; bada zeruko guziak, eta gañerakoekin batean Jesusen Amak, artu ezker beren gain egiteko andi au, anitz dagikee bekatariaren alde, ta Jaungoikoak dion bekatari gaisoari, edo eman dezon, aitormen edo konfesio zuzen bat egiteko, ta, dagoen toki gaistotik ateratzeko, bearko duen laguntza ta grazia. Baña orien izate, irabazi, ta otoitz guziak baño, agitz eta agitz geiago balio du orretarako, ta Aita eternoa bekatari az urrikaldurik iutzteko, Mezan, edozein apezen eskuz egiten zaion presentak; bada present onetan arkitzen dira Jaungoiko-gizon, Jesusen izatea, beraren bazterrik bageko irabaziak edo merezimentuak, eta bekatariaren ta Aita

eternoaren artekotasuna; ta ekusten dezu, ez dutela zer-ekusi, aiek oiekin.

Mezako presentari, edo Mezan Jesusek gugatik egiten duenari zor dio noaska munduak, munduan ez gertatzea, len gertatu oi ziran gauz arrigarrietatik zenbait, edo agian andiagoak.- Len ubelde batek utzi zituen itoak, munduan ziran guzietatik, zortzi ez beste guziak: *puaci, id est octo animae salvae facfae sunt per aquam.* 1. Petr. 3. 20. Lan au eragin zioten gure Jaungoikoari ordukoen bekatuak; Meza denetik onaraño ko urteetan badira mundu berean bekatuak, eta bear bada orduan edo geiago ta andiagoak; eta alere ez dator ubelderik.

Len Benjamindarren erri batean zikindu zuten gizatxar batzuek besteren bizikide bat; eta orien zikin-keriagatik ezpatez illak gelditu ziran ogeita bost milla benjamintar. Bi milla urtetara doa, Mezarekin arkitzen dela mundua. Nork asma, geroztik gertatu diran, eskonduen era bereko zikintzak eta itsusiagoak ere; ta alere noiz ikusi dugu orduan bezalako odol-isurtzerik?

Bekatu txikiagoakgatik ere egin izandu zituen len gure Jaungoikoak bertze ikuskari izugarriak edo arri-garriak, edo arrigarrizko kastiguak; eta Meza dugune-

tik, ekusten ditu gure Jaungoikoak sakrilejio arrigarriak are, orrelakorik egin bage. Zergatik uste dezu? Mezagatik dirudi; edo zeren instanteoro munduaren bazterren batean, edo bestean apezak egiten dioten Aita eternoari Jaungoiko-gizon, gure bitarteko Salbatzallearen Mezako presenta. Nai badugu, bada, digun guri gure Jaungoikoak gure bekatuei dagozten nekeak ez ekusteko, ta bekatu berak damuz, ta bear den eran urratzeko, ta oriek urratu edo barkatu ta ere, gelditzen diran zor-kutsuak kentzeko bear duguna, ez dugu Mezaz baliatzea baizik; bada Mezako presentan arkitzen dira, orretarako bear diran ondasunak eta geiago.

3. Bai, geiago: arkitzen dira alabaña, gure Jaunari zor zaizkan ontarteei edo faboreei: erantzuteko bear diranak ere. Oriek nolakoak diran ekusteko, begiratu bear diogu bazter onetatik ere geren Mezari.

Anitz da, dugun izatearen gain guk geren Jaungandik artu izandu duguna; bada bataioan berean eman dizkigu bere grazia ta adiskidetasuna; baita graziak dakartzien birtuteak, eta Espiritu Santuaren doaiak ere.- Ekusi nai badezu, emate onetan gure Jaungoikoari guk zor diogun ontartea, ekusi zazu, ori zureztat irabazteko, Jesusek egin, eraman, ta ekusi

zuena.- Egin zuen Jesusek orretarako, dakizun bezala, gosez ta egarriz beterikako bizitza luze bat.- Eraman zituen, burutik oñetaraño urratu zuten nekeak eta tormentuak; eta ekusi zuen zure, ta nere, ta gañerako guzien eskergabea; baña gurutzeko bere odol-isurtzea, ta eriotz ezin-gogorragoa ere.

Onenbat kosta zitzaion gure Jaungoiko-gizonari bere bataioan zuri eginikako ontartea. Ekusten dezu zein andia?- Ontart onen erakoak dira beste Sakramentuetan, ta, Sakramenturik bage ere, zure Jaungoikoak zuri egin dizkitzunak.

Sakramentuetako ontarteak ageriak dira; bada konfesiokoan (bekatuarekin konfesatzen bazara zu) itzultzen dizkitzu zere Jaungoikoak, bekatzuz galdu dituzun bataioko ondasunak, eta geroztik zerorrek egiñikako, zeruko irabaziak; eta oriekin batean ematen dizkitzu grazia-zati berriak, birtuteen azitzea, doaien anditzea; ta, bekatu berririk ez egiteko, bear dezun, Jaun beraren laguntza ta grazia.- Eta, len barkatuak dauden bekatuak, edo bekatu txikiak baizik ez daramazunean zere konfesionera, ateratzen dituzuk zere Jaunagandik, dezun grazi guziaren luzatze, birtuteen azitze, ta doaien anditze andiangoak, eta

bidenabar ateratzen dituzu, zere bear orduetarako, zere Jaungoiko beraren anitz laguntza ta grazia.

Aldareko Sakramentuan, edo zere komunionean (komuniatzen zarala bear den eran, edo garbiro ta ongi prestaturik) ematen ditzkitzu zuri zere Jaungoikoak animako jan-edan ederrak, edo Jesusen gorputz-odol jaungoikotuak; eta orduko zure animaren tokiak, egoerak, edo disposizioneak ar dezaken grazia, ta indar guzia; ta geiago ta geiago ematen ezpadizu, zuk tokirik izan bagez da, edo zeren prestatu bage zoazen zu, geiago artzeko.- Berriz ta berriz ere komuniatzen bazara zu, berriz ta berriz ematen dizu zere Jaungoiko maiteak, zuk aldian artu ala; ta gau ta egun, ta beti prest dago gure Jaungoikoa zuri emateko, len emanen gain, aldioroko zure tokiak, edo etorrerak eskatzen duen animako indarrak, sustentoa ta grazia.

Gañerako Sakramentuetan (orietaratzen bazara zu) era berean dabil zurekin zure Jaungoiko maitagarria; ta Sakramentu bakoitzean egiten dizkitzu, zure urbil-erari dagozkan ontarte guziak; eta anitz eta andiak an zuri ark egiñagatik, beti gelditzen da, gei-go zuri, ta andiagoak egin naiez.

Andiak dira ta anitz, dekusazun bezala, zere Jaungoikoak zuri bere Sakramentuz egiten dizkitzun,

ontarteak, ongiak, eta faboreak; baña ez dira oriek, ez, egin dizkitzun guziak; egiten dizkitzu beste anitz, eta anitz ere, Sakramenturik bage; ta egiten dizkitzu (dagozkitzunak badira), eskatzen diozun guzietan: ta, zure onerakoak ez diranean zuk eskatzen dituzunak, orien orde z ematen dizkitzu zere eskaldietan, zure onerako dirala berak dakienak.

Eta eskatzen badiozu, obenik bage bizitzeko, sulezeko zere etsaiak garaitzeko, egin bearko dituzun zere lan onetarako bear dezun laguntza, ta grazia, ematen dizu beti-beti, ta utsik bage: ta, noizbait zuk zere lanetan utsen bat egiten badezu, izaten da, artan zu ziñez jarri gabez, edo zeren zuk zere Jaunagandik erdisten ez dezun, eskatze utsarekin erditsi zenezaken, Jaun beraren laguntza; ta laguntza, len Jaun berak eman dizuna baño indartsuagoa.

Beste anitz ontarteren artean zor diozkazu zuk zere Jaungoikoari orain ukituz bezala adirazi ditugunak.- Eta non idiroko dezu zuk, orien beren zorrari erantzuteko askiko den ondasuna?

Non? Meza batean: bada Mezan dago, ontart oriek ezezik, Jaungoikoak guri eman alak irabazi zituen Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria; ta Mezan dago, guk nai dugun guziaren alde present izateko; ta, guk

ori Mezan Jaungoikoari presentzat eman ezkeru, erantzuten diogu ederki, ta gure Jaungoiko berak nai bezala, egin dizkigun ontarte guzien zorrari.

4. Eta ona non, onetarako diran, Mezaren ondasunak ekustean, ekusi ditugun Meza berak dituenak, santo Tomasek agertu zigun laugarren gauzarako. Oroitzen zara zer gauza den gauza aun?- Au da ontarte berriak guk gure Jaungoiko beragandik artzea.

Jaungoikoaren bear gara gu gau-ta-egun, egunaren ordu guzietan, ta orduaren zati-oro. Mezan arkitzen den Jaungoiko-gizonak irabazia daduka, gure bearrak estaltzeko bear dugun guzia: gure Jesusen irabazte au agertzen dugula, ta Mezako presentarekin bagoazke gu Aita eternogana, gure animaren onerako den edozein gauzaren eske: ta bagoazke, ukatuko ez digulako uste osoan, eskatu ezkeru guk, gure Jaungoiko berak nai duen, ta bear den eran; badakigu alabaña, nai adiña guk ari eskatuagatik; ez diogula guk eskatuko, Mezako gure presentak balio duenaren laurdenik ere.

Ekusten dezu, zein andiak diran Mezaren ondasunak? Ekusten dezu, aski ta sobera dirala gu geren zorren azpitik ateratzeko ta zerurako aberats egiñak uzteko?- Ote dakizu zuk, zer ondasunak diran, Meza-

ko ondasun andi oriek?- Mezako ondasun txikiak balio du, Indietako urre-zillarrak, itsasoko perlak eta koralak, lurpeko diamante ta arri eder guziak, ta zeru-lurretako gauzak baño geiago ta geiago; ta alere Mezako ondasunak, aisa ta erraz irabazten diran ondasunak dira; bada irabazten dira Mezan egonez ongi oarturik, debotki, ta bear den eran.

Eta, au onela dela, den bezala, Mezari gaugero begiratuko ote diozu zuk, oraindañokoan bezala begi otzekin? Utziko ote dezu zuk, len bezala, anitz egunez ekusi ere bage, erraz ekusi, ta entzun dezakezula? Enzute labur baten neke arin bat ez artu naiez, galdu naiko ote dituzu zuk orrenbat ondasun ta irabazte?- Ez dituzu ekusten zuk, itsaso-gizonak, eta mill egite-koren azpian, ta anbat arazoren artean sartuak, lurreko zenbait gauza txar irabazi naiez, irabaziko dituzten edo ez, ez dakitela; ta jakiñaren gañean, irabazten badituzte ere, urbil dutela beren eriotza; ta eriotzaren eskuetan utzi bearko dituztela beren irabazi ta ondasun guziak?

Eta zuk egunoro, edo maiz, irabaz ditzaketzula, ta uts egin bage; irabaz ditzaketzula, anitz nekatzen etzarala; ta bidenabar ateratzen dituzula zere Jaunari zuk diozkatzun zere zor andiak, galdu naiko dituzu

lasaikeriz, ta deusez batean bezala idukiz zuk, zere Jaungoikoak Mezan zuri egiten dizkitzun ontarteak, Mezan agertzen dizkitzun ondasun andiak, eta berari diozkatzun zorren atera-bideak?- Ekusiak ekusirik, ori zuk egitara, beti bildots den ardi txarraren antzan gelditzen zara; ta ez dakit non geldituko zaran zu azkeanean!

Ez arren, nere Jaungoiko maitagarria, ez niri lan onelakorik egiten iutzi! Ezagutu dut, berandu badere, Meza berean zuri nik zor dizudan amorea; ta amore oni amorez erantzuteko, nere zorren alde al dudana egiteko, ta zeruko ondasundun gelditzeagatik, oitu nai dut nik Mezak entzutera; ta enzuten dudan bakoitze-tik atera nai dut nik atera dezakedan ondasun guzia.- Nik nai bezala gerta dedin au, indazu zuk artarako bear den zere laguntza ta grazia. Bai arren, nere Jaungoiko maitea, bai!

*Laudate eum secundum multitudinem
magnitudinis eujs.*

Psal. 150. 2.

Jaungoikoa da, eternidade guzian bakar-bakarrik egondu den izate ta gauza bat; baña gauza ta izate ezinobea; gauza ta izate egingarri guzien berria zuena; nai zituen gauza guziak zegizkena; baten ere bearrik etzuen; ta beti-beti atsegin-kontentuz ta glori-az beterik arkitzen zena.

Zuen ontasunaren berria eman naiz, orren ta ber- tzeren bearrik gabe, egin zituen noizbait gizonaren- tzat, zeruaren erpiñetik lurraren ondorañoko gauza guziak; eta orien ondoren egin zuen lenbiziko gizona, ta egin gaitu gero garan guziok.- Bada zer ez diogu zor guk onenbat bere ontartegatik geren Jaun Egillea- ri?

Salmariak dionaz, zor diogu, duen izate andiari, ta izateren edertasun ta perfekzione guziei, dagoten pre- senta ta laudarioa.- Baña non ori guk arkitu?- Mezan, urrutirago joan bage; ta ez bestetan: bada Mezako Jesusen izatea ta laudarioak dira Jaungoiko-gizonaren izate-laudarioak; eta orregatik dira Jaungoikoari dago- kan presenta; ta present, Mezan baizik, arkitzen ez dena.

Egin uste dut, bada, nik nere Jaun-egille ezin andiagoa, Mez-enzun aldi guzietan. Zure ooretan entzun al banitza nik munduan ematen diran guziak!

Indazu, egunorokoa badere, ezuteko bear den osasuna ta deboziona. Bai arren, nere Jaungoiko maitea, bai!

*Ut finem accipiat peccatum,
et deleatur iniquitas... occidetur Christus.*

Dan. 9. 24. et 26.

Badakit nik, bai, nere Jaungoiko maitagarria, zenbat diran oraindañokoan nik eginikako bekatuak; eta orien urratzeko deusez bat bezala dirala nere eginal guziak eta mundu guziarenak, zuk laguntzen ezpadi-dazu nere lan onetan; andia da alabaña nere bekatuen zorra ta ezer-ez bat dirudien gauza, nik nerez orien alde dagikedana, ta emen arkitzen den guzia.- Ez ematera, bada zuk, dezakezunak bezala, orien alde bear den ofrenda, ta presenta, ez dira nere animatik kenduko bein ere nere bekatuak, edo nere obenak eta gaizkiak.

Jesusen eriotza zela, zion Daniel profetak, onetarako presenta. Present au artu zenuen zuk bein Kalbarioko gurutzean. Artu dezakezu berriz, ta berriz ere, edozein Aldareko Mezan.

Betor bada, bein badere, gure Jesus, orduko bere izate, irabazi, ta neke guziekin, oraindañoko nere gaizkien alde; ta au nik zuri apezaren eskuz agertzean, edo nik nere Meza enzuten dudanean, eman bear didazu, nero bekatuak zuzen konfesatzeko, ziñezko damuz urratzeko, ta orien zor guziak emen ateratzeko bear dudan zere laguntza ta grazia. Bai arren, nere Jaungoiko maitea, bai!

*Quid retribuam domino pro omnibus,
quae retribuit mihi?
Calicem salutaris accipiam,
et nomem Domini invocabo.*

Ps. 115. 12.

Zertaz erantzun nik (erran dezaket nik ere, Salma-ri eskerdun onak adiña egiarekin): zertaz erantzun nik, nere Jaungoikoak niri egin dizkidan, ontart andi atsegingarriei? Egin ninduenetik; oraindañoko guzian aritu da beti nere Jaungoiko maitagarria, ongiak ongien gain niri egiten ta egiten, instante batez ere bere eskutik uzten ez nabela ni.

Nere bearrean egon baiiz ere, egin zezaken nerekin nere Jaungoikoak, egin duena baño anitz geiago? Eta egin duen ezker, niri ongi egin nai utsez; ta betiko ni galdu lekuan, beti bizi nadin ni beraren begietan, ta beti atsegin-gloriez betea, ez diot nik, eskerdun onaren eran, egin bear zerbait presenta, noizean bein bada ere; ta egin aldian alik ongiena?- Bai, baña zer present egin dezoket nik nere Jaungoikoa bezalako Jaunari: ta Jaun, egin dizkidan diñako, ontarteak eta gauzak egin dizkidanari?- Zeer? Ederki dagokan bat; eta berak eginikako ontart guziak baño askotan geiagoko balio duena; Mezako Kaliza; ta kaliz Jesusek, ontart oriek eta Jaungoikoak eman-al guziak guretzat irabazteko, isuri zuen odolarekin, ta odol oni ditxezkon gauza guziekin, arkitzen dena.

Mezako Kaliz au, bada, ta Meza guzia, gerta dedilla, nere Jaungoiko emalle maitagarria, zure izenean ta niri zuk eginikako ontart guzien alde. Bai arren, bai!

*Hic... sempiternun habet Sacerdotium...
semper vivens ad interpellandum pro nobis.*

Hebr, cap. 7. v. 24.

A nere Jaungoiko maitagarria nik zuri zure ontar-teen, ta nere zorren alde, nere presenta; egin ez dut egin bear dudan guzia: bada ori egin ta ere, badut oraindik nik best-egiteko bat.

Zer ote?- Kontuz billatzea nik, etorkitzun dagoen nere bizitz onak eskatzen duena.- Non? Zure esku emalleetan nere Jaun andia.- Zer bidez?- Mezaz, ta Jesusez, edo Mezan Jesusez; bada Jesus apezaren itzez Mezaratzen da; ta Mezan berak apezaren eskuz egiten dizu, betiko apeztasuna duenak bezala, bere buruaren ta berak zure izenean, ta gure alde, egin ta eraman zuen guziaren ofrenda edo presenta; ta ori egitean, eskatzen dizu, guk, zuzen ibiltzeko, ta zureak izateko, bearke duguna: ta eskatzen dizu, eskatzen dizuna baño geiagokoa den presenta egiten dizula.

Jesusek, bada, Mezan egiten dizun atsegina andia- ren izenean, ta Jesusen orduko eskaerakgatik, ez arren ukatu niri, nere Jaungoiko ezin-emalleagoa, nere egitekoak, nere lanak, eta nere zuzen bizi-bearrak eskatzen duten zure laguntza ta grazia.- Eta au niri galerazi ez dezadaten nere oben itsusi galgarriak, indazu lenbiziko lekuan orien damu ta urriki bizi bat; eta lagun zakizkit bear bezala orain erraten; *Nere Jesukristo, etc.*